

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketa Saila
Filologia eta Geografi-Historia Fakultatea
Euskal Herriko Unibertsitatea

DOKTOREGO TESIA



Ibarguen-Cachopín Kronika

Edizioa eta Azterketa

Julen Arriolabengoa Unzueta egile

Joseba Andoni Lakarra Andrinua zuzendari

2006

© Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco (UPV/EHU)
- Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua (UPV/EHU)
- EHU Press (UPV/EHU)
ISBN: 978-84-9860-948-6

Sara, Teresa, zuentzako.

AURKIBIDEA

DOKTORE TESI HONEN XEDE NAGUSIAZ.....	9
EDIZIORAKO IRIZPIDEAK.....	13

IBARGUEN-CACHOPÍN KRONIKAREN GAINKO IRUZKINAK ETA AZTERKETA.

19

1. ESKUIZKRIBUA.....	21
1.1. ESKUTIK ESKURA	21
1.2. HISTORIALARIEN ETA HIZKUNTZALARIEN ESKU	26
2. EGILEAK	35
2.1. IBARGUEN ETA CACHOPÍN.....	35
2.2. CACHOPÍN SENDIA.	37
2.3. IBARGUEN SENDIA.....	42
3. KRONIKAREN EDUKIA ETA EGITURA.	59
3.1. MATERIALEN ANTOLAKETA: HISTORIA UNIBERTSALEN EREDUA.	59
3.2. LEHEN ASMOA.....	61
3.3. BIGARREN FASEA: MATERIAL TRATATUGABEAK.	66
4. ESTILOA ETA ITURRIAK.	79
4.1. CACHOPÍNEN ESTILOA.....	79
4.2. LEHEN MAILAKO ITURRIAK.	83
4.3. BIGARREN MAILAKO ITURRIAK.	91
4.4. FALTSIFIKAZIOA	92
4.5. AUTOREAK.....	97
5. HISTORIAREN IKUSKERA.	111
5.1. MUNDU-IKUSKERA KRISTAUA.....	111
5.2. BIZKAITARRA, BEREZKO AITOREN SEME.	115
5.3. AUTOGOBERNUAREN DEFENTSA MONARKIAREN BABESPEAN.....	118
5.4. ZALDUNERIAREN BALIOAK.	119
6. CACHOPÍNEN IMAGINARIOA ETA HISTORIA MITIKOAREN ERAIKETA.	123
6.1. TUBALIA.	124
6.2. SOLORIA.	128
6.3. KANTABRIA.	136
6.4. BIZKAIA	139
6.5. OÑEZ ETA GANBOA.....	154
7. LABURBILDUZ	159

EUSKALARITZARAKO MATERIALAK IBARGUEN-CACHOPÍN KRONIKAN.....

161

1. HIZKUNTZARI BURUZKO IDEIAK.	163
1.1. CACHOPÍNEN OINARRI METODOLOGIKOAK.....	163

1.2. JAINKOAREN HIZKUNTZATIK BABELGO ANIZTASUNERA	164
1.3. EUSKARA ESPAINIAKO LEHEN HIZKUNTZA.....	165
1.4. CACHOPÍNEK BA OTE ZEKIEN EUSKARAZ?.....	168
1.5. CACHOPÍN ETA IBARGUENEN EKARPENA.....	170
2. LELOREN KANTUA / KANTABRIARREN KANTUA.	178
2.1. LELOREN KANTUA.	179
2.2. KANTABRIARREN KANTUA (II: 90).	186
3. ERESIAK ETA KANTUAK.	207
3.1. KANTUEN FUNTZIOA <i>KRONIKAN</i>	207
3.2. ERESIA ZER DEN.	208
3.3. ARRASATEKO ERREKETAREN KANTUAK.....	209
3.4. SALINASKO KONTEAREN KANTUA (I: 557).....	222
3.5. ERRODRIGO ZARATEKOREN KANTU EPIKOA (I: 564).	224
3.6. SORABILLAKO HIDALGOEN KANTUA (I: 690).....	228
3.7. JAUN DIAOZ HAROKOAREN ERESIA (II: 141).....	229
3.8. MARTI JUANES LABIERUKOAREN HILARTITZA EDO EPITAFIOA (II:160).	230
3.9. AKONDIAKO GUDUAREN KANTUAREN HASIERA (II: 154).	230
3.10. MENDIOLAKO JAUNAREN HERIOTZAREN KANTUA.	231
4. ANDRAMENDIKO ESKRITURAK (II: 58).....	233
5. ESAERAK.	240
6. ESALDIAK.....	244
7. HIZTEGIÑOAK.	249
7.1. HIZTEGI TXIKIAK EDO “VOCABULARIOS”	249
8. TESTU BARNEKO EUSKAL HITZAK.	264
9. PERTSONA IZENAK ETA GOITIZENAK.	273
10. ETIMOLOGIAK.	281
10.1. TOKI, LEINU ETA PERTSONA IZENEN EUSKAL ETIMOLOGIAK.....	285
10.2. ETIMOLOGIA VASCO-IBERISTAK.	296
10.3. BESTE ETIMOLOGIA BATZUK.	305
11. <i>KRONIKAREN</i> EUSKARA.	309
11.1. HIZTEGIA	311
11.2. DEKLINABIDEA	383
11.3. ADITZA	389
11.4. PERPAUSA.....	398
11.5. FONOLOGIA.....	399
11.6. KONKLUSIOA	400

LABURPENA..... **403**

A) IBARGUEN HANDIA ZAN ARREN HAN ZAN CACHOPÍN BERE	405
B) OTABIANO, MUNDUKO JAUN	409
C) BIZKAIA BIZKAIA ZANEAN, EZ ZAN BILAUERIK EZ LEKAIERIK HAREAN.....	411
D) BILDURRIK GUTXI ROMA ARONEL.	414
E) “ANTES DE MUCHO TIENPO NO HABRÁ BASCUENÇE (...) SI NO SE ACUERDAN CON TIENPO A LO REMEDIAR”	416
F) “CANTAR DE ISTORIA VERDADERA Y MEMORABLE ...”	418

G) “... QUE LLAMABAN HEREÇIA ...”	419
H) “SCRIPTAS (...) EN CUEROS DE ANIMALES CURADOS”	419
I) “ES BASCUENÇE ANTIGUO ...”	420
J) “... Y NO CORRUTO COMO AGORA”	421

BIBLIOGRAFIA 423

1. IC KRONIKARI BURUZKOA.	425
2. IC KRONIKAREN GARAIKIDEA	431
3. OROKORRA	436
4. ESKUIZKRIBUAK	447
KATALOGOAK:	447
B.N.KO ESKUIZKRIBUAK.....	448
BFA: LIBURU HISTORIKOAK.....	448
5. DOKUMENTAZIO GUNEAK.	449
6. DIPLOMAZIA ETA TRANSKRIPZIOA	451

LABURDURAK

Dokumentazio zentruak

- BFA Bizkaiko Foru Artxiboa (AFV, Archivo Foral de Vizcaya), Bilbao.
BN Biblioteca Nacional, Madril.
KM Koldo Mitxelena Kurturunea, Donostia.

Dokumentuak

- A Resurrección María Azkue, 1905-1906, *Diccionario vasco-español-francés*, 2. edizioa, La Gran Enciclopedia Vasca, 1969, Bilbo.
- ASJU *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"*, Donostia.
- BAP *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País*, Donostia.
- EGIPV *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco, Auñamendi*.
- FLV *Fontes Linguae Vasconum. Studia et documenta*, Iruñea.
- HGV Iturriza y Zabala, Juan Ramón de, 1793, *Historia General de Vizcaya*, Angel Rodriguez Herrerok osotu eta editatua, Bilbo, 1967.
- OEH Michelena, Luis, *Orotariko Euskal Hiztegia*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- RIEV *Revista Internacional de Estudios Vascos (Revue Internationale de Études Basques)*, Paris.
- TAV Mitxelena, K., 1964, *Textos Arcaicos Vascos*, Minotauro, Madril. Berrarg. ASJU 11, Donostia, 1990.

DOKTORE TESI HONEN XEDE NAGUSIAZ

“Advierto, para no ser injusto conmigo mismo, que nunca me he negado a entrar en el confuso cuanto penoso laberinto de la Crónica de Iburgüen-Cachopín donde queda todavía sin duda alguna valiosa pepita eúskara que otra entre tanto árido peñasco”
K. Mitxelena (1986: 293).

Zinez, ikaratzeko modukoak dira euskal hizkuntzalaritza modernoaren aitak idatzitako hitz hauek bere doktore-tesia kronika horretaz egitea erabaki berri duen ikasle ezjakinarentzat. “Nunca me he negado a entrar” horrek lanari ekitea galarazi dioten arrazoi misterioitsu bezain indartsuak ezkututzen ditu, eta “labirintua”ri buruzko epitetoek zorabioa dakarkioten lanaren lauza bizkarreratu duen ikerlari hasberriari. Baina “harribitxiaren” promesak adoretu egin dute doktoregaia eta bere buruari sinestarazi dio mereziko duela lan horretan orduak, poltsikoak eta begiak urratzea.

Doktore-tesiak izango duen gaia zehazturik, doktoregaiak amildegia ikusi ohi du bere aurrean, eta hondoa paper zuriz betea. Are handiagoa gerta daiteke sentsazio hori *Iburgüen-Cachopín Kronika* bezalako lan baten aurrean, helburuak aurrez ongi zehaztuak ez baditugu.

“Iburgüen-Cachopín” deitu kronika XVI. mendearen akabuko lan erraldoia dugu, 184 koaderno eta hiru liburutan banatua. Ez zuen inprentara iristerik lortu, eta ezagun den eskuizkribu bakarra, mendeetan zehar orri ugari galdu ondoren, egoera kezkarria dugu, bi artxibotan sakabanaturik gainera.

Garrantzi handia eman izan zaio Euskal Ikasketetan aritu izan direnen aldetik eta oso ezagunak dira gaur egun bertan jasotako euskarazko kantu eta testuak, besteak beste, Juan Carlos Guerrak, Julio Urquijok, Koldo Mitxelenak eta Ibon Sarasolak aztertu eta editatuak. Baina argitaragabea izateak eta bere egoera larriak asko zaildu izan dute ikerketa oro eta ezinezko bilakatu bere osotasunean ezaguna izatea.

Gaur egun Euskal Ikasketek duten erronketako bat Euskara Zaharraren corpora osatzea izanik, Mitxelenak *TAV*ekin hasitako lana, kronika honek eginkizun horretan zer eman ugari du. Hori dela eta, ikerle eta euskalari askok azaldu du bere kezka, lan hau bildu, transkribatu eta argitaratu beharraz, denbora aurrera joan ahala material hau hondatu eta desagertzeko arriskua handituz baitoa. Are gehiago, susmoa da oraindik inork kausitu gabeko material interesgarriak ere galduko lirakeela kronika honen koadernoetan ezkutaturik.

Tesi honen xede nagusia, beraz, argia da: *Ibarguen-Cachopin Kronikatik* geratzen dena biltzea, ordenatzea eta, ahal den neurrian berreraiki ondoren, egoki transkribaturik editatzea. Ez da helburu makala; lan erraldoia dugu, denbora luzean zehar osotua eta hainbat eskuk idatzia. Ia batasun estilistiko ez tematikorik ez duen *collage* gisa iritsi da gure eskuetara, zentoiak bailitza. Gure ikerketen arabera, arestian aipatutako 184 koaderno horietatik 70 aurki ditzakegu, 65 Bizkaiko Foru Artxiboan (BFA) eta beste 5ak Madrilgo Biblioteca Nacional-en (BN), zenbait koaderno nahiko mozturik, elbarri edo osotu gabe, eta folio asko erabat nahasturik, atzekoz aurrera batzuetan, urratuz beteak, hezetasunak belztuak edota saguek janda. Orotara 1794 folio dira, gehienak alde bietatik idatziak.

Transkribatzean aurkituko ditugun zailtasun fisiko horiek gainditu beharko ditugu lehenik¹, eta, kronika honetan nagusiki bi idazkera eta prosa-estilo aurkituko badugu ere, kontuan izan beharko dugu beste esku batzuk ere antzeman daitezkeela, batez ere *Kronika* osotu zen azken urteetan erantsitako materialetan. Horrezaz gain, pasarte asko eta asko zuzen-zuzenean beste testu zaharrago batzuetatik jasoak dira, estilo aniztasuna areagotuz eta eskuen bereiztea zailduz. *Kronikan* zehar garaiko eskribauetan ohikoa zen idazkera prozesala izango dugu nagusi, laburdurez betea, etzana eta kateatua. Hala ere, tarteka ahalegin berezia egiten dute egileek trazadura borobiltzen eta hitzak bereizten, batez ere euskal hitz eta esaldiak idaztean. Horrela bada, garaien eta iturrien aniztasuna kontuan

¹ Bada, gainera, oztopo erantsi bat, zenbait artxibotan izan ohi den malgutasun ezak eragina. BN-eko materiala mikrofilmaturik dago eta fotokopiak egiteko erraztasun handiak daude, nahiz eta folioetako ertzak irakurtzeko eta zalantzak uxatzeko bertara joan behar den, normala den bezala. BFA-ko materiala, aldiz, mikrofilmatu gabe dago eta sekula mikrofilmatu edo eskaneatuko duten esparantza gutxi dugu. Tesi honetan lanean hasi ginenean, artean zuzendari Jon Juaristi genuela, EHUko makinaria eta gure eskua eskaini genizkion artxibo horretako zuzendaritzari mikrofilmatu lana burutzeko, filma BFA-n bertan uzteko asmoarekin. Ezezkoa izan genuen erantzuna, eta ehun bidaia baino gehiago egin behar izan dugu BFA-ra eskuizkribua irakurri, transkribatu, zuzendu, eta abarretarako.

harturik, transkribaketa burutzean jatorrizko grafiari eutsiko diogu, baina transkribaketa paleografiko zehatzetik aldenduz. Ondorengo kapituluan zehaztuko ditugu transkribatzean izandako irizpideak.

Behin transkribaketa buruturik, egileen biografia, mundu ikuskera eta lan egiteko modua aztertuko ditugu, euren lana hobeki ulertzen lagunduko baitigu horrek. Idazteko eta Historia kontatzeko modu hau literaturaren barnean jenero izaera merezi duela ikusiko dugu, baina aurretik historiografiak *Kronikaren* gainean ezarritako aurriritzi gaitzesleei egin behar diegu aurre, batik bat euskal historiografian itsatsirik geratu den kritkarik ezaren ideiarri.

Kritika falta egotzi izan zaie Cachopín eta Iburgueni, sinesberak baitziren oso eta gehiegizko konfidantza erakutsi baitzuten baliorik gabeko iturri historiko zenbaitekiko. Historialariek gaitzetsi egin dute beti *Kronikak* azterketa historiko gisa izan lezakeen balioa, agian ulertu gabe eskaintzen duena garai bateko pentsamoldearen ispilua dela, non erakusten baitzaigu nola txertatu zituzten maila ertaineko intelektualek euren interes eta ametsak pisu eta proiektzio handiko makinaria politiko eta ekonomiko batean, Espainiako Inperioarenean alegia.

Iburguen eta Cachopínen izenak irria sortarazten du entzuna den orduko. Sentsazio horrekin geratu gara bederen eurei buruzko tesia egitekotan garela aipatu dugunetan (zertaz ari ginen ulertu digutenean). Izan ere, neurri handi batean entzutetsu bilakatu badira, ez da izan egindako lanari zor zaion begiruneagatik, baizik eta ofizio bereko askok euren gainean isuritako irudi barregarri eta fidagaitzagatik.

Euren garaiko idazle ziren, euren garaiko metodoak zerabiltzaten, eta euren garaian erabateko fidagarritasuna zuten iturrietatik edan zuten. Inork ez zukeen garai hartan lehen harria botako. Ezbaian jarri ezinezko da Cachopínek eta Iburguenek erakutsi zuten erudizio ia unibertsala, dokumentatzeko zuten grina, eta, tarteka, prosa egile gisa zuten sena. Oso kontuan izatekoa da, halaber, esku artean izan zituzten iturrietako asko egun desagertuak direla eta, ondorioz, XVI. mendeko euskal historialari eta kronista askoren lana ezagutzeko bide bakarra kronika hau dela, hain zuzen. *Kronikak* bere tokia behar du Antzinako eta Erdi Aroko historiari buruzko ideiak aztertzean eta, batez ere, berri interesgarriak eskainiko dizkio Euskal Herriko historiari buruzko berrien bila dabilenari,

hizkuntzaren historia berreraikitzeke ahaleginetan dabilenari edota etnografia ikerketetan aritu nahi duenari.

Tesi honetan burutuko dugun azken lana euskaraz eta euskara gai hartuta jaso daitezkeen materialak aurkeztea izango da. Ez dugu euskarazko testu luzerik aurkituko, baina eremu anitzekoak dira *Kronikan* jasotako lekukotasunak: kantuak, esaerak, prosa testu laburrak, esaldiak, hitz solteak, goitizenak, etimologiak, euskal izenak, ... , denak ere Euskal Ikasketentzat interesgarri gerta daitezkeenak, besteak beste, Euskara Zaharraren berreraiketan.

EDIZIORAKO IRIZPIDEAK

No es posible establecer normas de carácter general que regulen la transcripción de los textos medievales de una manera categórica, ya que dichos criterios presentan problemas que se deben resolver con arreglo a las finalidades a las que cada edición está destinada y, por tanto, a las particulares exigencias que presenta².

Gure helburu nagusia *Corónica General Española y Sumaria de la Cassa Vizcaina*-ren eskuizkribua erreproduzitzea da, ahalegin guztia eginez gaur egungo irakurleari irakurgarri eta ulergarri gerta dakion, lexikoa gaurkotu gabe eta morfologia zein sintaxia eraldatu gabe. Transkribaketa, paleografikoa barne (jatorrizkoa osoki errespetatzen saiatzen dena), egungo irakurleak begi aurrean duena arazorik gabe uler dezan egina behar du izan. Paleografiak testu zaharrak eskuragarri jarri behar ditu, komunikazioa erraztuz eta bere garaiko irakurleentzat eragozpen larri izango liratekeenak gaindituz.

Jakina da edizio oro interpretazio molde bat ere badela, eta maiz, hartzen diren erabakiek testuari buruzko komentarioa daramatela eurekin, nahiz eta zehazki ez adierazi. Ez dugu ulermen-erraztasunaren izenean inolako oinarri filologikorik hautsiko. Erraztu eginen dugu, zaila izanik, funtzionala ez dena. Erdibidekotzat hartuko duzue gure jarrera, baina hausnarketa sakon baten ondorio da eta ez du konpromesu faltarik.

Kontuan izanik *Kronikaren* luzera, ia dena gazteleraz idatzia, eta testu labur, esaldi edo hitz apur batzuk euskaraz idatziak direla, eta, hain zuzen ere, edizio honen helburu nagusietako bat euskarazko testu horiek ezagutzera ematea dela, trataera ezberdina emango zaie gure edizio honetan gaztelerazko testuei alde batetik eta euskarazkoei bestetik. Euskarari dogokionean transkribaketa erabat paleografikoa egitea erabaki dugu, ikerleak lehen eskuko iturri garbia izan dezan eskura. Gaztelerazko testuak tratatzean, ordea, irakurleari lana erraztu beharrean gaudela deritzogu, eta, CSIC-ek (Consejo Superior de Investigaciones Científicas) 1944an eta Comission Internationale de Diplomatique-k 1984an emandako aholkuak gogoan, helburu horrekintxe hartu ditugu ondoren zehaztuko diren erabakiak.

Oharrek kutsu filologikoa izango dute oro har, noizbehinka testu kritikari loturikoak agertuko badira ere. Zenbait kasutan nahitaezkoa izango da jatorrizko

²Penna 1959.

testuaren zuzenketa *–emendatio–* egitea, batipat nahigabeko okerra nabarmen-nabarmena denean. Beste zenbait kasutan, jatorrizko kopia bakar honen egoera kaskarrak eraginda, testuaren berreraiketa *–reconstrutio–* ere egin behar izan da, batez ere denboraren joanak eta eskuen ibiliak jandako folioen lau ertzetako hitzak eta esaldiak ulergarri bihurtzeko, Halaber, testuan zehar paperaren hasturengatik sortutako hutsuneak edota tintaren ahuleziagatik irakurtezinak gertatzen diren pasarteak ugari dira. Geuk zuzendu edo berreraikitakoa kortxete artean joango da beti, []. Irakurketa, eta ondorioz, berreraiketa ezinezkoa gertatzen denean honela adieraziko dugu: [...]. Irakurleak hutsune horien nolabaiteko interpretazioa agin ahal izango du, edo gutxienez hutsune eta pasarte irakurtezin horien hedadura eta garrantziaz jabetu ahal izango da, honako kode honi jarraituz:

[...]: Kortxete artean emandako lau puntuko andana batek hitz bat falta dela adierazten du.

[....]: Puntuen bi andana agertzeak bi hitz falta direla esan nahi du.

[....]: Hiru hitz falta dira.

[....]: Lau hitz falta dira.

[....]: Bost hitz edo gehiago.

[.....]: Hamar puntuko andana batek lerro osoa falta dela adierazi nahi du.

[.....] [.....]: Bi lerro falta dira. Eta abar.

LABURDURAK

Oso erabiliak dira kronika honetan, gehienak bere garaian oso hedatuak eta arruntak:

- I. Izen propioak: *P^o* (Pedro), *M^a* (María), *Jn* (Juan), eta abar.
- II. Abizenak: *Fz* (Fernández), *Gz* (González), eta abar.
- III. Izen arruntak: *md* (merced), *vd* (verdad), *ig^a* (iglesia), *mgd* (magestad), eta abar.
- IV. Preposizioak: *d* (de), *pr* (para) *dnd* (donde).
- V. Zenbakiak: L (50), D: (500), M (1000), eta abar.

Osatu egingo dira, eta ez dira kursiban emango gehitutako letrak. Kasu bereziak oharrean azalduko ditugu.

Apostrofoak (') hitzaren azken bokalaren elisioa adierazten du: Adib.: *d'España* (*de España*).

Zenbakiei dagokienean, hitzez emango dira testuan horrela datozenean, edo zenbakiz bestela denean. Kronika honen egileek erregeen eta aitasantuen izenak ematean arabiar zenbakiak erabiltzen dituzte, besterik gabe, (*Alonso 5, Adriano 3*, eta abar); guk bere horretan mantenduko ditugu.

AZENTUAZIOA

Jatorrizko testuan ez da inolako azentuaziorik erabiltzen, baina geuk, irakurketa errazteko asmotan, gaurko egunean Espainiako Erret Akademiak araututako azentuazioa erantsi diogu.

TILDE DIAKRITIKOAK

á (aditza) / *a* (preposizioa).

dél (preposizioa+izenordea) / *del* (artikuluari lotutako preposizioa).

HITZEN BANAKETA EDO LOTURA.

Oro har, gaur egungo erabileraren arabera ebaki ditugu hitzak, baina garaian ohikoak ziren elisio, kontrakzio eta fusioak mantenduz: *destos, daquel*, etab.

FOLIAZIOA ETA ORRIALDEAK

Gorago azaldu dudanez, kronika osatzen duten koadernoek ez daramate agerian jatorrizko numeraziorik. Zenbait orrialdek badarama zenbakia, baina numerazio hori orainago erantsia izan da (Bilbon gordetzen den lehen tomoa Labayruk numeratu omen zuen, eta Madrilen gorderik diren koadernoak Francisco de Hitak numeratu zituen, kronika honekin zerikusirik ez duten beste folio batzuekin nahasian). Beraz, eta folio gehienak neronek numeratu beharko ditudanez, ez natzaie aipatu numerazio horiei lotuko. Koadernoaz koaderno ekingo diot numerazioari 1-etik aurrera eta kortxete artean adieraziko dut orrialde salto bakoitza, folioaren *aurre*(recto) edo *atze*(vuelto) aldean den azalduz ([fol. **12r**]). Hala ere, erabilgarri gerta daitekeelakoan, aipatu ditudan numerazio horiek ere adieraziko ditut parentesi artean: [fol.**14(347)r**].

Hitza orrialde baten bukaera eta hurrengoaren hasieraren artean zatiturik badator, honela adieraziko da: *ente/rramiento* [fol. **11vto.**]

GRAFIAK

Arestian esan bezala, *Kronikan* hainbat esku lanean aritu izanak erabat baldintzatu ditu hartu ditugun erabakiak. Jatorrizko testuaren grafiari lotu gabe, grafemaren balio fonologikoari egingo diogu so. Horrela, gaurkotu egingo ditugu balio fonologikorik ez duten aldaera grafematikoak, eta garaiko fonema bereziak adierazi nahi dituzten grafiak errespetatu egingo ditugu.

MAIUSKULAK

Gaurko irizpideak erabiliko ditugu pertsona eta leku izenekin.

PUNTUAZIOA

Ez dugu inolako puntuaziorik aurkituko *Kronikaren* gehiengan, ez behintzat Iburguenek transkribatutako testuetan. Zenbait kanta zahar ematean, ordea, goitik beherako marra batek markatzen ditu maiz bersoen arteko etenak, eta prosazko zenbait testotan ere gidoi antzeko marra batek esaldi edo parrafo bukaera markatu nahi bide du. Beste zeinurik ez dugu aurkituko. Ondorioz, geure interpretazioa edo ulertzen duguna kontutan hartuz puntuatuko dugu testua, beti ere gaur egun erabili ohi diren arauei jarraiki. Saiatuko gara, irakurketa erosoago baten aldera, punto eta aparteak ugaltzen, Iburguenek markatutako apurren gainera.

TALDE KULTOAK

Ez dugu jatorrizko grafia aldatu, egileek puntu honetan zalantza asko ageri badituzte ere: *scriptores, sancto, philósopho, ...*

NUMERAZIOA

Numerazio arabigoa erabiltzen da ia kronika osoan zehar eta egoki erizten diogu dagoen dagoenean uzteari, baita errege eta aitasantuen zenbatzean ere: *el rey Alfonso 7, el papa Clemente 4, ...*

KASURIK KASU

á = *ha*, aditza.

b: testuan erabili bezala mantentzen da. Oro har eta salbuespenak salbuespen, Cachopínek eta Iburguenek ez dituzte *b* eta *v* bereizten (*barón, biejas*), baina eskuizkribuan ageri diren beste zenbait eskuk *u* erabiltzen du nagusiki (*estaua*).

c + i, e; ç + i, e; z + i, e: Cachopínek zein Iburguenek gehienetan zuzen, hau da, tradizioari jarraiki erabiltzen badituzte ere (*hazer, çirio*) zalantza handiak erakusten dituzte beste eskuek. Erabakia jatorrizko grafia guztiak mantentzea izan da. Hala ere, zenbait kasutan zaila da ikusten (tintaren ahuleziagatik batzuetan) *c* ala *ç* dagoen idatzia. Zenbait eskuk biak erabiltzen ditu nahasian. Guk jatorrizkoa bere horretan transkribatuko dugu.

cc + a, o, u: mantendu.

ça, ço, çu mantendu egingo ditugu. Kontutan izatekoa da, hala ere, zenbait eskuk *c* erabiltzen duela *ç*-ren balio berarekin *a, o*, eta *u*-ren aurrean.

ch mantendu egingo dugu, baita *qu*-ren balioa duenean ere, (*Antiochía, Christo*).

dabño eta antzerako hiperkultismoak mantendu egingo ditugu.

dél (preposizioa + erakuslea).

dello, della, ... : bere horretan geratuko dira, *desto, desta, ...* bezala.

e (konjuntzioa) > *e*.

g eta *j*-ren arteko zalantzak (*linage/linaje*) kronika osoan zehar aurkituko ditugu *e* eta *i* bokalen aurrean. Egileek emandako idazkerari eutsiko diogu hemen. Baina lanean partaide den eskuetako batek (3. koadernokoa) *a, o*, eta *u* bokaletara hedatzen du zalantza hau (*Alegandría*), eta kasu honetan gaurko grafiara ekartzea erabaki dugu, betiere ulergarritasunaren mesedetan.

h-, -h- : Etimologikoa denean (*hazer*) nahiz ez denean (*hedad*) ager daiteke; egileak idatzi bezala mantenduko da.

i > y, betekizun kontsonantikoa duenean.

le, lo, la enklitikoak loturik agerraraziko ditugu (*díxole*).

-ll-, -ll: mantendu egingo dira (*mill*).

mm :(*commo*). Ez dugu sinplifikatuko

nb, np. Egileek idatzi bezala mantenduko ditugu. Oso kasu gutxitan irakurri dugu *mp* edo *mb* kronika honetan

-nn-. Mantentzera jo dugu.

-ñ- *ano* eta *año*, *Onez* eta *Oñez*, *nino* eta *niño*, ... bietan idazten du, zenbaitetan *n* ala *ñ* idatzi duen bereizten zaila bada ere. Jatorrizkoa errespetatuko dugu.

qual>*cual*, *question*>*cuestión*. Hitz hasieran batzuetan gaurko gaztelerazko cu- *qu*- idazten du Ibargueneren eskuak batipat, baina gaurkotzea erabaki dugu kasu honetan ulergarritasunaren mesedetan.

R-, *-R-* (dardarkaria) : *r-*, *-rr-* (*aRastrar* > *arrastrar*).

u, balio kontsonantikoarekin, mantendu.

x: mantendu egingo dugu auresabaikari afrikatu ahoskabea delakoan (*Alexandría*, *dexar*).

y>*i*, bere betekizuna bokalikoa denean, hitzaren edozein aldetan: (*Jaureguy* > *Jauregui*).

I

Ibarguen-

Cachopín

Kronikaren

gaineko

iruzkinak

eta

azterketa.



Oka dorretzeko armarria.

“La *Crónica de Iburgüen-Cachopín* es un monumento muy curioso para el estudio de la historia vasca; pero, como toda obra de su clase, contiene gran número de fantasías al lado de cosas verdaderas. Esto hace que, por otra parte, su interés folklórico sea muy grande y que se imponga su publicación” (Caro Baroja 1944: 98).

1. ESKUIZKRIBUA

1.1. Eskutik eskura

Crónica de Iburgüen edota *Crónica de Iburgüen-Cachopín* izenburuaz ezagun den lana *Corónica General Española y Sumaria de la Cassa Vizcaina* izenaz³ bataiatua izan zen bere sorreran. Egileek, García Fernández Cachopín kronistaren semeak eta Juan Íñiguez Iburguen eskribauak, inprintara eramateko asmoz ekin zioten lanari, baina *IC Kronika* bukatu gabe gelditu zen. Asmo handi hartatik guganaino iritsi dena eskuizkribu bakarra baino ez da, osatu gabea izateaz gain urteen joanean material askoren galera jasan duena.

Iturriak esan zigunez, Bizkaiko Jaunak Iburgueni eta “beste pertsona bati”⁴ Bizkaiari buruzko historia lan bat burutzeko enkargua eman zien, artxiboz artxibo ibilirik, ahalik eta datu gehien bilduta. Ikusiko dugunez, bigarren kronista hori Cachopín semea zen, eta, *Kronika* gehiena berak osatua bada ere, gaur egun aurki daitekeen eskuizkribu bakarra Iburguenen eskuak idatzia da. Antza denez, Iburguenek materialak eskuratu egiten zituen eta Cachopínek lana antolatu eta erredaktatu. Jarraian, Iburguenek bere lumaz osatu zuen bere eskuizkribua, gaur egun aurki daitekeen bakarra. Geroago, ordea, Iburguenek berak jatorrizko bertsiolari hainbat material erantsi zizkion, Cachopínek, lana bukatutzat eman zutelako, hil egin zelako edo ez dakigun arrazoiren bategatik, lanari utzi zionean. *Kronikaren* idazketa

³ *Corónica* (*Crhónica*) izenaz gain, *Istoria* ere erabili izan zuten egileek

⁴ Hara zer dioen bere *Antigüedades de Vizcaya*-n (378 or.): “...uno de los autores de esta historia hera Juan Íñiguez de Iburgüen, escribano público, ...”

1558tik 1598ra bitarteko urteetan burutu bide zen, gora behera handiekin, hori adierazten baitigute Cachopínek idatzitako pasarteetan atzeman daitezkeen hainbat zantzuk⁵ eta Iturrizak zein Humboldték emandako azalpenek, beherago ikusiko denez.

Kronika hiru liburutan banatutako 184 koadernotan idatzi bazen ere, Muxikako jaunarentzako eskaintza eta irakurleari zuzendutako sarrera (II: 3-7) bigarren liburuaren atarian idatzi zituen Cachopínek. Honek esan nahi lezake liburu honetatik hasi zirela lana osatzen. 135. koadernoan dio: "...diremos en el capítulo 49 del primero libro". Honek, gure ustez lehenbizi II. liburua idatzi zela adierazten du. Ondoren III.a idatziko zen eta azkenik I.a. Izan ere, bigarren liburuko lehen koadernoak osatuagoak dira edukiz, lanaren espiritua eta barne egitura hobeto zaintzen dute eta Muxikarren leinua jasotzera zuzenduak dirudite. Hirugarren liburua ere aski sendoa ageri zaigu, geratu zaizkigun koadernoetan bederen. Lehen koadernoahulena dugu Bizkaiko etxeari buruzko datuei dagokienean, nahiz eta badiren hiruzpalau koaderno euskal historiari eta literaturari dagokienean sekulako garrantzia dutenak, 35 eta 43 koadernoak kasu. Lehen liburuko beste materialei erreparatuta, esan liteke Cachopínen gustuko gaiak jorratzen dituela batik bat: astrologia, geografia, hidrologia, ... eta Andaluziako leinuak.

⁵ a) 65. koadernoan 1592. urtean izan zen idatzia: "... eçeto esta tabla del título de la santa Beracruz en que Dios murió, la cual metió escondida dentro de la pared de la mesma iglesia con un letrero puesto ençima de lo çerrado que dezía: "Titulus cruçis", con labor mosaica, donde estubo ençerrado por tiempo de más de 1.200 años, hasta y en tanto que agora podrá aver 100 anos, que fue por el ano del Señor de 1.492 años, ..." (II: 42).

b) 122. koadernoan Felipe II.aren erreinuaren bukaera aldean idatzi zen: "... Deste gran solar de Idiaquez es dependiente oregonario don Juan de Idiaquez, secreterio del secreto supremo de Su Real Magestad y de sus consejos, ..." (II: 472). Juan de Idiaquez-ek 1579tik 1598ra izan zuen kargu hori.

c) 79. koadernoan honako hau irakur daiteke: "...los señores de Vizcaya pasados y el rey don Phelippe, nuestro señor presente, que largos días biba, han gozado y goza sus patronazgos ..." (II-170), eta aurrerago "... Esta iglesia (Goroçica) solía ser hermita confradista y sufragana de la anteiglesia de Echano, y, agora puede aber 72 años, se desmenbró y separó de la dicha su matris y se puso de por sí, haziéndose anteiglesia entera como al presente lo es y está..." (II: 179). Eliza bi hauen arteko bereizkuntza 1516an burutua zegoen, beraz, esan liteke koaderno hau 1588an idatzia dela.

d) 184. koadernoan (III-364): "(...) lo testifica Alonso Morgado, saçerdote natural de la villa de Alcántara en Estremadura, en su historia intitulada *de Sevilla*, autor moderno, el cual dize que, después de todos estos sus muchos y grandes serbiçios, le dió la misma çiudad de Sevilla en el año de delante de 1585 años". Beraz, koaderno hau 1586. urtean izan zen idatzia.

e) 115. koadernoko Espainiako armadaz eta turkoen inperioaz emandako berriak, 1558 urtetik 1566 urtera bitartean papereratu zituen Cachopínek, Carlos V.a hil ondoren eta Soliman Turkiarra hil aurretik idatziak baitira.

Cachopín proiektutik desagertzean, 1600 urtearen inguruan, ordura arteko materialak Iburguenen esku geratu ziren Ibarruriko Okan. Han *Kronika* osatzen saiatu zen, material berriak erantsiz eta aurretik idatzitakoa osatu eta zuzenduz. Baina bistan da Iburguenek ez zuela Cachopínek zuen ofizioa idazteko orduan, eta ez zen gauza izan *Kronikaren* tonu estilistikoari eusteko. Gehitutako material horiek loturarik gabe erantsirik geratu ziren han-hemenka, koaderno anitzen bukaera aldean.

Behin Iburguen zahartuta, bere seme Juan de Iburguen Okaren eskuetara pasatu zen eskuizkribua, eta beronek ere hainbat material erantsi zizkion, batez ere genealogia oharrak. Lanaren egitura aztertzean azalduko dugunez, suhiak ere, Fernando de Okak, bere eskua erakutsi bide zuen XVII. mendearen hasieran gehitutako material batzuetan.

Eskuizkribua, ordurako nolana pilatutako paper eta koaderno multzoa baino ez zena, ez zen luzaroan egongo Ibarruriko Oka auzoko Iburguen etxean. XVII. mendearen bukaeran Domingo Bernaola Urizar almirantea zen etxearen jabe eta geroago Markinako Mugartegi etxeok eskuratu bide zuten etxea edota bertako ondasunak, 1760rako Mugartegi jauregian aurkitzen baitzen *Kronikaren* eskuizkribua.

Hantxe topatu zuen Juan Ramon Iturrizak Mugartegiko jaunak bere liburutegia antola ziezaiola eskatu zionean. Iturrizak aurkitu zuenerako, ordea, eskuizkribuak koaderno asko falta zituen. Bere *Grandezas-en*⁶ dioskunez, *Kronikaren* koaderno gehienak eskutik eskura ibiliak ziren, eta haietako anitz bidean galduak edo moztuak. Kutxa batean sartua aurkitu omen zuen Iburguen eta Cachopínek osatutako lanetik geratzen zena, etxeko dokumentazioarekin nahasi.

Iturrizak Mugartegi (edo Mugartegi) jauregian aurkitutako materialak ordenatu eta koadernatu egin zituen tomotan. Koaderno bakoitzari, gainera, orri bat erantsi zion, hasieran koaderno zenbakia idatziz eta edukiari buruzko ohar labur bat emanez. Lan eskerga hau buruturik, edonork erabiltzeko moduan geratu zen eskuizkribua. Horrela, Iturrizak berak azterketa sakona egin eta bere lanetarako probestu ondoren, asko izan ziren Mugartegitik igaro ziren ikerle eta

⁶ Iturriza, J.R., *Grandezas y excelencias de la Casa Vizcaína escritas por don Juan Ramón de Iturriza el año de 1780, copiadas en el año de 1860*, Bizkaiko Foru Atxibategian Liburu Historikoen saileko L-21 signaturapean aurki daitekeen eskuizkribua, sarrera.

kuriosoak, besteak beste, Mogel, Humboldt akaso, Labayru, eta abar. Ikerle horietako batzuek maiz oharrak idatzi zituzten *Kronikako* zenbait pasartetan, testuaren gainean zuzenketak egiteaz gain. Iturrizaren eskuaz idatzitako oharrak erraz atzeman daitezke, eta baita Juan Mugertegik 1916 urtearen inguruan gehitutakoak ere. Baina zail da jakiten nork eta noiz eginak diren jatorrizko testuaren gainean burututako hainbat zuzenketa. Horrez gain, tarteka, esku arduratsuren batek egoera txarrean aurkitu zituen hainbat foliotako edukia paper berrian berridatzi ere egin zuen⁷.

1801ean Pedro Balentin Mugertegikoak, gorago aipatutako Juan Mugertegiren aitona, Guillaume Humboldt hartu zuen Markinan, baina, antza denez, ikerle alemaniarrek ezin izan zuten denbora faltagatik eskuizkribua zuzenean aztertu. Handik urte batzuetara, 1817an, Leloren Kantua emango zuen ezagutzera⁸, aurretik Iturrizak haren berri emana bazuen ere. Humboldt-en esanetan, *Kronika* hamalau liburuk osatua zen eta Ibarguenek 1590. urtearen inguruan idatzi zituen. Liburu horietako bost Mugertegitarren etxean aurkitzen omen ziren, Markinan. Humboldten hitzak aintzakotzat hartuz gero, gure aurreko susmoak berretsi egingen ditugu, hau da, 1800erako bost tomo baino ez zitekeen leku jakinean aurkitu, beste bederatziak han-hemenka sakabanatuak edota jada desagertuak izanen ziren.

1920an Juan Mugertegik Bizkaiko Aldundiari eman zizkion bost tomoak, gorde eta zaindu zitzan, eta egun Bizkaiko Foru Artxiboan aurki ditzakegu, Liburu Historikoen sailean, L-49, L-50, L-51, L-52, eta L-53 signaturen pean.

Hala ere, hauek ez dira, zorionez, aurki daitezkeen material guztiak, eskutik eskura igaro eta galdutako koaderno haietako hiru Madrilen agertu baitziren, Biblioteca Nacional-en. Han aurkitu zituen Juan Carlos Guerrak 1882an, nahiz eta Lezama Legizamonek 1921ean bere informea argitaratu zuen arte ez zuen jakiterik izan koaderno haiek *Kronikari* zegozkiola. Gaur egun ere bertan aurkituko ditu irakurle kuriosoak 11.760 signatura daraman *Linajes de Vizcaya y Guipuzcoa* izenburuko tomoan. BN-en gordetzen diren koadernoak 5 dira: 79, 84, 136, 159 eta

⁷ 115. koadernoan, adibidez, diogun hori gertatu zen 88. foliotik aurrera.

⁸ Humboldt, G., 1917, *Berichtigungen und Zusätze zum ersten Abschmüte des zweiten Bandes des Mithridates über die cantabrische oder beskische Sprache*, Berlin (83-93). Gaztelerazko itzulpena eskurago izango du irakurleak; ikus Garate 1933-34.

176.a.⁹ Tomo hau, *Antigüedades de Vizcaya* izenaz ere ezaguna, Francisco de Hita izeneko fraide batek XVII. mendean bildutako paperez osatua da. Aipatu paper horien artean odol garbitasun gutunak, euskal abizen zerrendak (batzuk bere etimologiaz) eta beste hainbat material aurki daitezke. Ez da lan erraza bereizten zein material diren *Kronikarenak* eta zein ez. Horretarako, letra motari erreparatzeaz gain, *Kronikak* dakartzan aurkibideak ere zehatz aztertu behar izan ditugu.

BFA-n aurki daitezkeen koadernoak 66 dira. Egoera tamalgarrian daude eta mikrofilmatu gabe egoteak ez die mesederik egiten, *Kronika* kontsultatu nahi duenak nahitaez erabili behar baititu esku artean. Folio askok ertzak falta dituzte, denborarekin higatuak batzuk eta koadernatzean gilotinaz moztuak beste batzuk. Erabat apurturik, ia hauts eginik dauden folioak ere ez dira gutxi. Josturak oso barrutik hartu ditu zenbait folio eta irakurtezin bihurtu lerroetako lehen karakterrak. Papera, oro har, horitua dago erabat eta, tinta ahuldu ahala, testua irakurgaitz bihurtu da. Hori guztia gutxi bailitzan, esku arduragabe batek artaziak erabili ditu eskuizkribuko zenbait marrazki eta testu mozteko. Zalantzarik gabe, eskuizkribua berritze baten premia larrian da, eta mikrofilmatu ondoren gorderik behar luke, publikoaren eskuetatik babesturik.

L-49 tomoaren lehen orrialdean *Juan de Mugertegi* sinadurapean ohar bat aurkituko dugu, eskuizkribuaren jabe Mugertegi jauregia dela adieraziz. Segituan honako ohar hau idatzi zuen Juan Mugertegik berak:

Relación de los cuadernos que contiene cada uno de los cinco tomos:

Tomo I: Cuadernos 4, 9, 10, 11, 22, 27, 28, 29, 30, 32, 33 (son once).

Tomo II: Cuadernos 34, 35, 36, 37, 40, 43, 47, 54, 56, 58, 59, 62, 63 (son trece).

Tomo III: Cuadernos 64, 65, 68, 70, 71, 72, 74, 75, 77, 80, 81, 82 (son doce).

Tomo IV: Cuadernos 111, 113, 115, 120, 122, 123, 124, 125, 127 (son nueve).

Tomo V: Cuadernos 141, 145, 152, 155, 156, 157, 161, 167, 168, 170, 174, 175, 184 (son trece).

(Está el cuaderno 26. Faltan 12 cuadernos).

Geroago ere, bost tomoetan zehar, idazkera bera aurkituko dugu koaderno bakoitzaren aurrean bere edukiari buruzko ohar txiki bat emanez.

⁹ Lezama Leguizamonen informean (1921) erreferentzia okerrak eman ziren BN-ko materialei buruz. Egilearen ustez hiru ziren hango koadernoak, 19, 158 eta 159 zenbakidunak. Ondorengo ikerleek erreferentzia hauek erabili izan dituzte euren argitalpenetan eta ez datoz bat guk emandakoekin.

Hurrengo folioan, ordea, Iturrizaren eskua aurkituko dugu honako testu hau idazten:

TOMO PRIMERO de la Historia General Española, y Sumaria de la Casa Vizcayna escrita desde el año de 1580 asta el de 1620 en 184 cuadernos por Juan Íñiguez de Iburgüen, escribano real y del número de la Merindad de Zornoza. El índice general de toda la obra distribuida en tres libros, precede a los doce cuadernos que contiene este primer volumen, y por lo que respecta a las antigüedades y casas armeras de Vizcaya cita a Don frai Gonzalo de Arredondo prior de Bohada y coronista de los Reyes Católicos, Gaspar de Peña y Galdocha, natural de Hea, Don Juan de Aguayo y Gebara, al licenciado García Hernandez Cachopín, natural de Laredo, al licenciado Córdoba, al Comendador Hernádo de Gárate, frai Agustin de Velasco y Zamudio, dominico, Cristobal de Mora, Diego Calderón de Velamino, Alfonso de Castilla, Anton de Bedia y Cirarruista, y otros autores, cuias obras parece se hallan inéditas.

Cuadernos números 4, 9, 10, 11, 22, 26, 27, 28, 29, 30, 32, 33.

Baliteke sarrera gisako ohar hau aurretik egileek idatzitako tituluen berridazketa izatea, Iturrizak txukundu eta egokituta. Iturrizak berak, bestalde, koadernoan aurrean bereizgarri modura jarritako folio batean bakoitzaren zenbakia ere idatzi zuen koadernoak ordenatu eta koadernatzean. Zenbaki edo titulu horren azpian, hain zuzen, idatzi zituen Mugertegikoak bere oharrak.

1.2. Historialarien eta hizkuntzalarien esku

XIX. mendera arte, Iburguen eta Cachopínen lana esku artean hartzen zuenak, historiarako jakinminak bultzatua hartzen zuen batik bat, edo, zehatzago, Bizkaiko eta inguruetako leinu eta etxeei buruz *Kronikan* pilatzen ziren folioek erakarrita. Zalantzarik gabe, gorago aipatutako Juan Ramon Iturriza eta Juan Mugertegi izan dira eskuizkribua ongien ezagutu izan duten pertsonak eta errespetu handienarekin tratatu dutenak. Eskuizkribuak kopista akats ugari ditu, eta Iturrizak zein Mugertegik hainbat zuzenketa burutu zituzten eskuizkribuan, baina ez zioten jatorrizko testuari deus emendatu ez gehitu, folioaren ertzean Iturrizak idatzitako bizpahiru ohar kenduta, historialari bizkaitarrak eutsi ezineko bat-batekoan eginak.

Egileek sarrera idaztean euren burua gutxietsi samarturik utzi bazuten ere (“aunque esta hobra no baya por tan buen estilo ni adornada con palabras bien conpuestas”, II:8), bazekiten lan hark emango zuela zer esanik (“servirá a lo menos de mober a otros algunos que más perfectamente lo puedan escriuir”, II:8). Izan ere, sekula argitaratua izan ez bazen ere, kopia bakarra aurkitu arren, sona

handia lortu zuen *Kronikak* sortu zen garaitik bertatik Bizkaiko historiaz arduratu izan diren gehienengan. Eskutik eskura ibili omen zen eskuizkribua, koadernotan zatikatua, etxez etxe, hara eta hona. Horrela galdu ziren material asko eta asko.

Historialarien izenak aipatzen hastekotan, Poza (1587) eta Mendieta (1592?) datozkigu lehenak, Iburguen eta Cachopínen garaikideak baitziren. Mendietak Cachopín doktorea aipatu zuen bere lanean¹⁰, ez ordea bere semea eta Iburguen egiten ari ziren lana. Pozak ere nekez ezagutu zezakeen bere lana argitaratu zenean idazten ari ziren *Kronika*. Baina Coscojalesek (1590?), ba omen zuen *Kronikaren* berri eta bertako zenbait pasarte ematen ditu bere *Antigüedades de Vizcaya*-n. Hala adierazi zigun Iturrizak¹¹. Henaok (1689) ez zuen sekula Laredokoaren eta bizkaitarraren lana zuzenean aipatu (Garibay eta Poza, ordea, maiz aipatuak dira), eta ezagutzekotan gustura aipatuko zuelakoan gaude, bere *Averiguaciones ...*-en datozen tesiak sendotzeko iturri egokia izango baitzuen *Kronika*.

Baina Iturriza izan zen, mendeetan zehar *Iburguen-Cachopín Kronika* erabili edo, gutxienez, aipatu duten historialarien artean, *Kronika* gehien esplotatu duena. Iturrizak *Historia General de Vizcaya* (1793) idatzi aurretik beste lan batzuk ere idatziak zituen. Aipagarrienak *Antigüedades de Vizcaya* (1783) eta *Grandezas de Vizcaya* dira, argitaratu gabe geratu zirenak eta gaur egun eskuizkribu kontserbatzen direnak, artxibo partikularretan lehena eta BFA-n bigarrena. Aipatutako lanok *Historia General de Vizcaya* osatzeko erabili zituen Iturrizak, azken lan hau zabalagoa eta osatuagoa delarik.

Historia General de Vizcaya-n ugari dira *Kronikaren* aipuak eta bertatik ateratako datuak, nahiz eta askotan iturria isildu. Ziur gaude Iturriza izan dela *Kronika* ondoen ezagutzera iritsi den ikerlea, eta bere erreferentzietatik ondoriozta daiteke bere eskuetara iritsi zenerako *Kronikak* anitz koaderno zituela galduak: “...(hoy no se hallan) los más de los ciento ochenta y cuatro cuadernos de historia castellana y vizcaína que dejó escritos Juan Íñiguez de Iburgüen”¹². Hala ere, gaur egun ezin aurkitu daitezkeen zenbait koaderno berak irakurri ahal izan zituen.

¹⁰ *Quarta parte de los Annales de Vizcaya*, Juan Carlos Guerra arg., 1915, Bilbao, 50. 0.

¹¹ Iturriza 1793, *Historia General de Vizcaya y Epítome de las Encartaciones*, Ángel Rodríguez Herrero-ren edizioa, Bilbo, 1967 (2 lib.).

¹² Aip. lib., I, 101.

Kronikaren aipu soilak ezezik, pasarte luzeak ere jasotzen ditu Iturrizak bere lanean, hala nola, Andramendiko eskriturak eta euren azalpena¹³, burnigintzari buruzko berriak¹⁴, zenbait etxeren fundazioari buruzko datuak¹⁵, eta abar. Argi dago Iturrizak oinarrizko iturri izan zuela *Kronika*:

...Juan Íñiguez de Iburgüen (a quien alego repetidas veces en esta Historia, por ser quien escribió más noticias y particularidades de Vizcaya entre los autores que hice mención al principio de ella, por haber estado de orden del Señorío en el siglo XVI en San Pedro de Cardeña, Obiedo, San Juan de Lausame en Galicia, Santa María la Real de Nájera, Simancas, Valladolid y otras partes para la recolección de noticias y armas de las casas solares, como él mismo relata en varios cuadernos de la Corónica General Española y Sumaria de la Casa Vizcayna) ... 16

Bestalde, hainbat historialari ezezegunen izenak ere eman zizkigun Iturrizak, euren lana argitaratu gabe edo galdua zutenak eta *Kronikaren* bitartez ezagutu zituenak¹⁷:

... Don fray Gonzalo de Arredondo, prior de Bohada y coronista de los Reyes Católicos don Fernando y doña Isabel, hizo una recopilación de todos los fueros antiguos de Vizcaya hacia el año de 1490, según escribe Juan Íñiguez de Iburgüen, pero no he podido adquirir el trasunto de ella ...18

... Gaspar de Peña y Galdocha, natural de Hea, escribió en Sevilla, en tiempos de Carlo V, la Historia General de la Gran Cantabria; es obra inédita 19.

... Antonio de Bedia y Cirarruista, natural de la merindad de Arratia, escribió en Sevilla, en tiempos del invicto Carlo V, ...20

Mende bat geroago, beste historialari handi batek jarriko zion arreta *Kronikari*, Estanislao Labayruk (1845-1904) hain zuzen ere. Ez zuen *Kronika* oso estimu handian. Hala ere, askotan aipatu zuen eta bertako hainbat datu eta pasadizo eman zituen *Historia General de Vizcaya* (1895-1904) lan erraldoian. Bere lanean ahalegin guztiak egin zituen Bizkaiko benetako historia berreraikitzeke, laino artean zirenak argitzen saiatuz eta zalantzazko datuez ohartaraziz. Ahalegin horretan, batez ere XV-XVI mendeetan idatzitako kronikek

¹³ Aip. lib., I, 103-105 oo; eskrituren transkribaketa oso manipulatu eta eraldatua dakar.

¹⁴ Aip. lib., I, 109 o. Iturrizak jasotzen dituen datuak *Kronikaren* 10. kuadernotik jaso omen zituen, gaur egun desagertua dena.

¹⁵ Aip. lib., 235, 241, 257, 261, 281, 286, 287, 294, 307, 372 eta 385 oo.

¹⁶ Aip. lib., 110 o.

¹⁷ Autore hauen inguruko berri gehiago ematen saiatuko gara geroago, 4.2.3. atalean.

¹⁸ Aip. lib. 132 o.

¹⁹ Aip. lib. 210 o.

²⁰ Aip. lib. 211 o.

jaso eta handitu zituzten istorioekin egingo du topo, tartean Cachopín eta Iburguenen kronika hau.

Lehen tomoetan egin zuen *Kronikaren* aipamen gehien. Iburguen eta Cachopínek idatzitakoez ari denean luma haserretu egiten zaiola dirudi eta gehienetan kronista hauek asmatutako “ipuinez” trufa egiten du. Horrela, Mundaka herriaren fundazioaz²¹, Arrigorriagako guduaz²², Jaun Zuriaz²³ hitz egitean Iburguen fantasiaren morroi dela dio eta bere kontakizunek ez dutela inolako kriteriorik. Ez du inondik inora onartzen *Kronikak* Bizkaiko lehen buruzagiez dioena²⁴, nahiz eta Iburguenek ematen duen Bizkaiko jaunen katalogoa, oro har, aintzakotzat hartu²⁵. Labayruk jada apokrifotzat ditu Andramendiko idazkiak²⁶. Leloren Kantuaz ere luze dihardu eta kantuaren transkripzioa ematen du, akatsekin bada ere²⁷. *Kronikaren* 58. koadernoan datorren Olea alferezaren blasoia ere erreproduzitzen du²⁸.

Labayruren iritziz egia historikoen nahastaileen artean bi eskola aurki daitezke: bata Llorente historialariak sortua, eta bigarrena Bizkaiko seme apasionatuena. Azken hauek euren herriaren jaurgoari antzinatasuna eman nahian, nahasmenera eta iluntasunera baino ez garamatzen historia fantastikoa harilkatu omen zuten. *Iburguen-Cachopín Kronika* talde honen barruan kokatu zuen.

Labayruk bere lanaren tomoetan zehar kronika hau aipatzean bi izenburu erabili ohi zituen: *Historia General...* (kronikaren jatorrizko izenburuetako bat) eta *Antigüedades de Vizcaya* (gaur egun gordetzen diren bost tomoek bizkarrean daramatena, seguruenik Iturrizak emana) bi kronika ezberdin bailiran, eta ez dirudi nahaste horretaz ohartu zenik:

...estas Antigüedades pertenecen al ilustre solar de Mugartegui, que los conserva en cinco tomos manuscritos con cubierta de pergamino, que fueron revisados por Iturriza, quien alguna que otra vez hizo algunas anotaciones de su puño y letra al margen de las paginas (II tomoa, 125. o).

²¹ Labayru 1895-1904: I tomoa, 370. o.

²² I tomoa, 383. o.

²³ I tomoa, 393. o.

²⁴ I tomoa, 403. o.

²⁵ II tomoa, 45. o.

²⁶ I tomoa, 643. o.

²⁷ I tomoa, 656 o.

²⁸ II tomoa, 126. o.

Kronikaren aipu egitean ematen dituen erreferentziak oso gutxitan dira zuzenak²⁹, ez dirudi lan horretan arreta handiegirik izan zuenik. Ez du *Kronika* maite: “... no cayeron en lo ridículo que era acaparar glorias fingidas, y que todo lo traían de fuera, por cubrir con realce necio los orígenes de ciertos linajes...”³⁰, diosku batean, “...Ibargüen, que escribió a destajo y demostró inventiva para novelista, urdió una acción falsa de armas entre vizcaínos y nabarros en 1194...”, bestean, baina behin baino gehiagotan erabiltzen du bertako materiala³¹ bere lana osotzeko *Kronikarekiko* iritzia gozatuz: “... aunque Ibargüen trató de muchas cosas con completa carencia de criterio histórico y estampó absurdidades, no he querido pasar en silencio esta noticia ...”. Horrela, zenbaitetan Ibarguenen esanak aintzakotzat hartzen ditu³² Labayruk, eta asmazio edo ipuintzat jo zituen hainbat berri egia zirela edo egiatik hurbil zebiltzala frogatu ahal izan dute egile modernoek. Angel Rodríguez Herrerok (1967), adibidez, Iturrizaren HGV-ri egin sarreran azaldu zuenez, “mojonera del reino de Navarra”-ren kasuan (I: 286) dokumentu bidez froga liteke Ibarguenek egia zioela, dokumentu horretan Zornotza inguruko Nafarroa izeneko tokiaren aipua baitator.

Bandoen inguruko gaiak dira Labayruk gehien hartzen dizkionak *Kronikari*, askotan informazio hori nondik jaso duen esan gabe. Gonzalo de Arredondo, Gaspar de Peña y Galdocha, Antón de Bedia eta beste zenbait historialari aipatzen du bere informazio iturritzat, esan gabe iturri horien transmisorea Ibarguen eta Cachopínen kronika dela, hain zuzen, eta bertatik jaso duela aipatu informazioa.

Bere historia eraikitzean historialari ugariaren lana deskreditatzen saiatu zen, esanez Sereño, Ibargüen, Salazar, Iturriza, Mariana, Zamacola, Arana eta abar, denak akats beretik abiatzen direla, euren berriak lan batetik bestera inolako konprobazio lanik egin gabe igaroak direla, haundituaz askotan, eta, beraz, horien historiak oinarri faltsuen gainean eraikiak direla.

²⁹ II tomoan, 103. o.: Ziortzako elizaz hitzegitean 78 kuadernoak aipatzen du, ordurako Mugartegiaren etxetik desagertua. 477. orriadean 70 eta 77 kuadernoak nahasten ditu. III tomoan ugari dira nahasteak: 46 orrialdean 63 aipatzen duen tokian 66 esan behar luke; 75 orr., 51 kuadernoak dator 59aren tokian, eta abar. Hauek dira Labayru-k *Kronikari* egindako erreferentziak aurkitzen diren orrialdeak: Tomo I, 110 o.; tomo I, 370 o.; tomo I, 383 o.; tomo I, 393 o.; tomo I, 403 o.; tomo II, 45 o.; tomo I, 643 o.; tomo I, 656 o.; tomo II, 126 o.; tomo II, 125 o..

³⁰ II tomoa, 137 o.

³¹ Gehien erabilitako kuadernoak 64.a (I tomoaren 27. eta 403. oo.; II tomoaren 370. orr.) eta 81.a (II tomoaren 142., 149., 150., 151., 161., 174., 180., 181., 192., 194., 214., 215. o., eta abar.) dira.

³² IV tomoa, 222 o. (bizkaitarrak mauruen aurkako itsas-gerratean, 1540 urtean).

Ziur gaude Labayruk *Kronikan* asmaziotzat jotako datu eta kontakizun askok oinarri historikoak dituztela, baina Labayruren lanak Cachopín eta Iburguenen nortasunen inguruan ezarri zuen aurreiritzia indartsu zabaldu zituen erroak ondorengo historialariengan. Izan ere, Labayruren lanaz geroztik euren lanetan *Kronika* aipatu duten idazle gehienek aintzakotzat hartu dituzte *Historia de Vizcaya*-n idatzitakoak eta ez dute Cachopín eta Iburguenen lana sakonki aztertu beharrik ikusi, edo ez dute horrelako lanik hartu nahi izan, esan beharrekoak esanda zeudelakoan. Baina hori bakarrik ez, Cachopín eta Iburguenen asmatzaile eta iruzurti fama sendotu eta borobiltzen ere aparteko lana egin dute XX. mendeko historialariek, Leloren Kantua bezalako auzi topikoak ahotan hartuz eta arestian genioen azterketa sakonari bizkar emanez.

Tiene razón Echegaray cuando habla de la “fantasía o credulidad de aquel escribano de Zornoza que tanto contribuyó a enturbiar los anales de Vizcaya”. Y entre tantas inepcias, (...) ha de consignarse, como la falsificación culminante, el famoso Canto de Lelo, atribuido a los cántabros y que tanto ha dado que escribir (...). Al Canto de Lelo debe su mayor celebridad la *Crónica de Iburgüen-Cachopín*. A pesar de no haber sido impresas, las fábulas contenidas en ella pasaron a escritores posteriores, a historiadores y a políticos que trataban de defender la hidalguía y los derechos del país y perduraron algunos hasta el siglo XIX. (Mañaricua, 1973: 81-86)

Labayruren lana argitaratu zenetik gure egunetara ez da izan historiaren ikuspegitik *Kronikara* azterketa sakona egitera hurbildu denik, eta ziur gaude horrenbeste merezi duela kronika honek; are gehiago, ustekabeko gozoak eta material erabilgarri ugari emango lioke historialari orori. Lezama Leguizamonen lana (1921) uharte txiki bat da *Kronikari* buruzko azterketen basamortu honetan, baina bilbotarraren lana gehiago da erreseina bibliografiko luze eta zehatza, historiaren ikuspegitiko azterketa baino.

XIX. mendetik aurrera, eta batez ere Humboldt-ek Leloren Kantua (Kantabroen Kantua) ezagutzera eman zuenetik, beste dimentsio batean sartu ziren *Kronikaren* inguruko azterketa eta ikerlanak. Folklorista, antropologo, literaturzale eta hizkuntzalarien interesa piztarazi zuen alemaniarraren “aurkikuntzak”. Ondorengo urteetan bata bestearen atzean argitaratu ziren kantu horri buruzko azterketak, bere esanahiari eta egiazkotasunari buruzko iritziak, eta jakina, Leloa aitzakiatzat hartuta egile ezberdinek elkarri egindako kritikak. Mitxelenak esan ohi

zuen bezala, Leloak munduan ospetsu bihurtu zituen Ibarguen eta Cachopín. Baina hori geroago ikusiko dugu, Leloren Kantuari eskainitako kapituluari³³.

Filologiaren ikuspegitik Juan Carlos Guerrak (1922) ireki zuen arorik oparo eta interesgarriena, *Kronikan* aurki daitezkeen euskarazko testuen inguruan murgildua. Julio Urquijo, Rodríguez Herrero eta Mitxelena izango dira aro honetan izenik aipagarrienak, eta *Textos Arcaicos Vascos* (1960) aro horretako lanen emaitzen biltzaile. Lan honen filosofiaren jarraitzaile dugu Ibon Sarasolaren *Contribucion ...*(1983), zeinetan *Kronikan* datorren hiztegiñoa baita aztergai, 84. koadernoan datorrena alegia.

Azken mende honetako lanak Lezama Leguizamonen lanaren morroi dira datu bibliografikoei dagokienean, eta ondorioz hainbat erreferentzia oker emanak dira. Hala ere, larrienak transkripzioetan aurki daitezkeen akatsak dira, kasu askotan testua interpretatzerakoan erabakiorrak, batez ere kantu zaharren eta eresien testuetan. Gai honetan TAV dugu gailurra, eta bertako transkribaketak aski fidagarriak direla deritzogu, nahiz eta bere momentuan erakutsiko dugunez³⁴, zuzenketaren bat edo beste egin behar zaien.

Kronikaren transkribaketa burutzen ari ginela, ordura arte erabat ezezagunak ziren kantu batzuk aurkitu genituen BFAn gordetzen diren folio eta koadernoan anabasean. Ahal bezain laster eman genituen argitara (Arriolabengoa 1996), eta ondoren etorri diren zenbait lanen erreferentzia bihurtu da aipatu argitalpena. Hala eta guzti ere, akats bibliografikoak ez dira erabat desagertu. Patri Urkizuk euskal literaturari buruzko bere lanean³⁵, Arrasateko Erreketaren Kantuak aipatzean, Francisco de Hitarena omen den eskuizkribu batean daudela diosku, BNko ms. 11760-an alegia, orain arte inork esan ez duena, ezen Francisco de Hita tomo horretako materialen biltzaile eta koadernatzailea baino ez da, goian aipatutako kantak *Ibarguen-Cachopín Kronikaren* zati izandako koaderno batean datozelarik, zeina galdu ondoren aipatu tomoan agertu baitzen. Harri eta zur utzi gaitu, bestalde, guk *Zarateko Jaunaren Eresia* izenburuarekin ezagutzera eman genuen kantua Urkizuk *Erbitegiko Kantua* izenez bataiatu izana. Nondik atera ote

³³ Euskalaritzarako materialen atal nagusian Leloren Kantua edo, hobe esanda, Kantabriarren Kantua zabal aztertuko dugu, berari buruz esan direnak jasoz eta eztabaidaren nondik-norakoak bilatuz.

³⁴ II.3. (Euskalaritzarako materialak: Eresiak eta kantuak).

³⁵ Urquizu 2000: 27, 49, 114, 115, 139 oo.

izen hori? Azkenik, *Balada Zaharrez*³⁶ izeneko lanean *Ibarguen-Cachopin Kronika* Simancas-eko artxiboan kontserbatzen dela dio. Berri ona litzateke zinez, baina ikerlaria jakinaren gainean jarri behar dugu ez duela Simancasen kronika honen arrastorik aurkituko.

³⁶ Urkizu, P., 2005, *Balada Zaharrez*, Erein, Donostia, 22.

2. EGILEAK

2.1. Iburguen eta Cachopín

Dario de Areitio jaunak *RIEV*-en (1918) ohar labur bat argitaratu zuen arte, Juan Iñiguez de Iburguen izeneko eskribaua genuen *Kronikaren* egile bakar. Artean “Crónica de Iburgüen” zeritzon aztergai dugun lan honi, eta aurkikuntza honen ondoren “Crónica de Iburgüen-Cachopín” izena hasi zen hedatzen. Dario de Areitioaren oharra oinarri sendoak zituen, *Kronikaren* irakurketa pausatua argi uzten baitu badela beste egile bat ere; are gehiago, egile “ezezagun” hori da, itxura guztien arabera, lanaren osaketan subjeto nagusia:

En dedicar a V.S. la presente obra no fue pequeño atrebimiento mío y de mi compañero Juan Iñiguez de Iburgüen, scribano real y uno de los publicos del número de la merindad de Çornoça en Vizcaya ...³⁷

Iburgueni “compañero” eta “colega” deritzo bigarren liburuko sarrera horretan, eta, nahiz eta gehienetan testua transkribatzen duen eskua Iburguenena izan, *Kronika* irakurri ahala, argi ageri zaio irakurleari *Kronikaren* orrialde gehienak Iburguen ez den idazle batek idatziak direla. “Mi buen padre” edo “mi padre” aposizioak, Cachopín izenaren ondoan, bost aldiz irakurtzen ahal ditugu *Kronikan* zehar, guztiak lehen pertsonan idatzitako testuen osagarri:

... salbo mi buen p[adre, el doctor Garçía Cachopín] que, como tan bien [... ..]tabro y [... ..]çión vi[... ..] [.....] en çédulas antiquísimas y razonamientos de personas ansianas y en cantares hereçias que lo declaraban, lo cual todo bien aberigoado y apurado lo escribió en sus borradores, en los cuales dize que, ... (II: 92).

... don fray Gonçalo de Redondo, prior de Bohada, y mi buen padre el doctor Garçi Fernández Cachopín, concordantes en uno, declarándose más en este artículo, mojonan esta probinçia de la Cantabria por las aguas de Ebro y llanos de Nabarra y la probinçia de Cuiçúscoa, con todo lo demás incluso, a la mar... (II: 148).

... el cual, dize también el doctor Cachopín, mi padre, en el capítulo de su istoria 19, y concuerda con él Biçençio en su Corónica del [Origen] y Balerosidades Reales Españolas [libro] capítulo 14 ... (II: 35).

... y después se contradize diziendo que en la hera del reinado de Çiçileo, hijo del rey Sicano, y por esta bariedad y porque el doctor Cachopín, mi padre, no se afirma en ello más de pasar esta istoria de largo sin çertidunbre de su tienpo, lo cual también dize Antón de Bedia y Çirarruizta, rey de armas, que aconteçió de çierto en el tienpo del Señorío del rey godo español Thendislo, de quien bamos hablando en este presente capítulo ... (II: 352).

³⁷ Cuaderno 64, Libro segundo, “Epístola y dedicação”, 1r.

... Lo mismo afirma mi buen padre el doctor García Fernández Cachopín, que está en el cielo, dando fe aver bisto y leído estos cinco fueros sobre que traemos esta narración. Y a una afirman deziendo, en los borradores que llegaron a mi poder en salbo, que el primero fuero de ellos fue el que tenían cuando tomaron de boluntad por su capitán y caudillo a don Fortuna, llamado por sobrenombre Çuria, ... (III: 343).

Ez dirudi, beraz, zalantzan jar daitekeenik Iburguen eskribauaz gain beste kronista bat ere badela lanean. Are gehiago, kronista hori bera dugu lan zabal honetako muin narratiboaren arduradun nagusi eta narratzaile bakar. Egileek horri buruzko azalpen zehatzik eman ez baziguten ere, ageri-agerikoa da *Kronikaren* erredakzio prozesuaren lehen fasean Iburguen material biltzaile soil izan zela; bigarren fasean, aldiz, Cachopínek lana bere esku utzi zuelarik, *Kronikari* materialak eransteari ekin zion, Cachopínen egitura eta narrazio irizpideak alde batera utzita.

Iturriza, Labayru eta Mogel, besteak beste, Mugartegiarren etxeraino hurbildu ziren eskuizkribua aztertzeraz, eta *Kronikan* “beste norbaiten” arrastorik ikusi bazuten ere, ez zuten aparteko ahalegik egin bigarren egile horren inguruko xehetasunik aurkitzen. Iturrizak (1793: 6, 58) Cachopín semea ez du behin ere aipatzen, eta Cachopín aita aipatzen duenean Iburguenek “bere kronikan” aipatutako egilezat du. Mogelek (1802: 6) honela ziotson Jose Vargas Ponceri bere gutunetako batean Leloren Kantuaren benetakotasuna defendatzean:

No merece desprecio el cantar histórico que Vm. verá en ese mi manuscrito. Un escribano en unión con otro sujeto de carácter da fe doscientos años ha de haberlo hallado en un pergamino viejo ... Si vuestra merced acusa de apócrifo este documento, que yo mismo he visto en el copiante manuscrito, o que éste lo fraguó, será menester dar pruebas sólidas de lo primero, y acusar de impostura en lo segundo, no solo al escribano, sino también al comisionado que lo acompañó, ...

Velascok (1888: 421) bere aldetik, xehetasun gehiago eman zigun *Kronikaren* egileei buruz, ez dakigu baina, nondik aterata:

... el Señorío comunicó a un hábil escrivano llamado Juan de Iburgüen para que en compañía de otro sugeto de forma, registrasse los archivos de todo el Señorío de Vizcaya y sacasse copias de los papeles curiosos y antiguos. Pasaron también a Simancas. Juntaron un montón informe o sin orden alguno ...Estas piezas (Cantar de los Cántabros) no las fraguó dicho escrivano, ni el socio que era de autoridad y de la confianza del Señorío ...

Badirudi Bizkaiko Batzarrek susmoa zutela garrantzi handiko hainbat dokumentu Simancasera igaro zirela 1371 urtean Bizkaiko jaunek Gaztelako koroa eskuratu zutenean.

2.2. Cachopín sendia

2.2.1. Cachopín semea

Kronika pausatuki eta zehatz irakurriz gero, argi dago “sujeto de carácter” edo “de autoridad y confianza” hori dela, Cachopín semea alegia, *Kronikaren* egile nagusia. Tarteka narratzailearen presentzia pluralean ageri bazaigu ere, Cachopínek lehen pertsona singularra erabili ohi zuen nagusiki: “... como hoy mismo lo he visto ...” (II: 316); “... me conbiene ... me parece ...” (II: 370); “... ya dixé ... no diré ...” (II: 372); “... no me maravillo que esto sea así ...” (II: 412); eta abar. Baina erabatekoa zera da, “los capítulos desta mi historia” (III: 151). Hala ere, bere aitaren presentzia etengabea eta ukaezina da *Kronikan* zehar. Aitaren eskuizkribuen zein, agi denez, argitaratutako lanen erreferentzia eta aipu ugari bildu zituen semeak kronika honetan.

Kronikan bertan azaltzen dena baino ez dugu jakiterik izan aita-seme historialari hauetaz. Euren leinuari buruz, ordea, berri interesgarriak eskuratu ditugu. Cachapín, Cachupín edo Cachopín izenak aurki ditzakegu dokumentu zaharretan, denak ere Laredoko jatorria duen leinu bat izendatzen. Laredoko historian garrantzi handikoak gertatu izan dira Cachupíndarrak. Hiria sortu zuten lau familia handien tartekotzat zuten euren burua eta aginte postuak beste hiru familiekin (Villota, Escalante, La Obra) partekatu zituzten. Cachupínak ospe handiko itsasgizonak izan ziren. Laredo Kantauriko porturik garrantzitsuena izan zen XVI. mendera arte eta Cachupínak hiriko armadore handienetakoak ziren. Merkataritzarako zein gudarako armatzen zituzten itsasontziak eta Carlos V. arekin familia honetako bi kapitain behinik behin izan ziren armadan. Escalante indartsuekin ahaideturik egoteak ere lagundu zion familiari bere noblezia aldarrikatzean.

Cachupín edo *Cachopín* deiturak, bestalde, presentzia deigarria du XVI. mendeko literaturan. Montemayor-en *Diana*-n (1568) pertsonaia batek zera dio: "Yo os prometo ['os aseguro'] a fe de caballero, porque lo soy, que mi padre es de los Cachopines de Laredo...". Aitaren leinuaren aldarri egiten du pertsonaiak bere hidalgo izaeraren froga eztabaiaezina bailitzan. Izan ere, Laredon ez zen sekula izan “arrazza gaiztorik”, ez maururik ez judurik. Kantabriarrak eta bizkaitarrak arro ziren euren odol garbitasunaz, eta besteak –leondarrak, gaztelarrak, lebantearrak, extemadurarrak, andaluziarrak– susmagarriak ziren. *Diana* mundu osoan zehar izan

zen irakurria eta Cachupín-ak ezagun bilakatu ziren, maiz hartzen baitzituzten ahotan Montemayor-en errefracua erabiltzean. 1605an Cervantes-ek berak ere Cachopín leinuko pertsonaia bat sartu zuen *Quixote*-ren XIII. Kapitulan, Vivaldo izeneko zalduna hain zuzen ere: “-Aunque el mío (linaje) es de los Cachopines de Laredo – respondió el caminante- no le osaré yo poner con el del Toboso de la Mancha”. Kritikoren batek³⁸ aipu honi bigarren intentziorik gabe egindakoa dela iritzi badio ere, argi dago Cervantes-ek Montemayor-en testua zuela gogoan eta ironia handiarekin jarri zituela hitz hauek Vivaldo hidalgoaren ezpainetan. Antza denez *cachopín* hitz honetatik eratorria da *gachupín*, Espainiatik zihoazenak mespretxuz izendatzeko Ameriketako kolonoek erabiltzen zuten izena.

Laredoko Cachupinak ilehoriak eta begiurdinak omen ziren, garai hartako arraza-gustuen sailkapenean lehen mailakoak, beltz eta ijituen oso gainetik. Gongorak, Gabonetako ensaladilla batean ijito talde bat sartu zuen Jesus jaio berriari honela kantatzen ziola: "A vos, el Cachopinito, / cara de rosa...". Gure kronikaren egile den Cachopín gaztea ere, bere aita bezalatsu, horrelakoa izango zen ziur asko. Zoritxarrez, ordea, kronista bi hauei buruzko berri gutxi aurkitu dugu, eta *Kronikan* irakur daitekeena ere ez da asko.

Pudiéramos alargarnos en esto y otras cosas mucho más, conforme a la muchedumbre que abía que tratar más sobre ello e yo tenía obligación de encunbrarlo, como tan deudo en Sevilla, aunque natural de Laredo y uezino en Córdoba, como ya he contado antes y tengo referido en los prólogos desta gran istoria, pero porque sería para mi botapluma grande atrebimiento disponerme con temeridad a decir por estenso aquello que [es] reserbado para otro juicio y más delicado entendimiento, sabiduría y prontitud que no la que de mi parte ay, quiero en esto quedar más corto por que no me culpen, que la obligación que tengo tan particular y espresso a las cassas de Sevilla me a hecho ser más largo (II:367).

Cachopín aita-semeak Laredon jaioak ziren, beraz, eta semeak Cordoban zuen bizilekua. Antza denez, Cachopín gaztea Sibilian ere luzaro samarrear bizi izandakoa dugu. Sarritan, Andaluziari buruz mintzatzean (I: 452), bera bertan dela ematen du aditzera eta hitzaurrean “fuera de su natural” bizi dela aitortzen du herrimenez. Sibiliako hiriaz mintzatzean, ordea, bere burua sebillanotzat jotzen du:

(...) entre las cuales dexando nuebe de cada parte behemos estar su puerta principal que bulgarmente llamamos en Sevilla la Puerta del Perdón, que es de diez y seis pies en ancho,(...) (II: 604)

³⁸ Martín de Riquer (testu prestatzaile eta oharren egile), *Don Quijote de la Mancha*, Círculo de Lectores-en edizioa, 1987, 130 o.

Aparteko mira du Sibiliala hiriarentzako, edozein une aproposa baitu hartaz hitzegiteko eta esan liteke Espainiako erreinuaren hiriburu bilakatzen dela *Kronikan* historiaren hainbat pasarte aztertzean. 124, 125, 126, 127 eta 128 koadernoetan ederki erakusten du bertako bazterrak eta zenbait bizilagun oso ezagunak dituela. Sibiliala bizi diren euskal jatorriko lagunak aipatzen ditu maiz eta haiek ezagutzeaz harrotzen: “ Sancho de Irarrazabal...sabemos de cierto en Sevilla entre sus conocidos que era natural vizcaíno” (III: 189). Andaluziako familia eta leinu nobleen berri zehatza jaso zuen *Kronikan* Cachopín semeak. Iburguenek Bizkaiko leinuen artean ohorezko toki bilatzen bazuen bere familiarentzat, berdintsu jokatu bide zuen bere leinuarekin Cachopínek Andaluziari dagokionean³⁹. Sibiliako ate ugari irekiak ditu:

Y en el Libro de Linages que está en Sevilla en poder de don Álvaro, señor de Fuentes, estan pintadas, entre otras, las armas de los Girones que adelante diremos (II-451).

Eta *Kronikan* isuritako zantzu apurretan antzeman daitekeenez, maila jasoko adiskidantzak zituen, zalduneriaren eta lumaren inguruan sortuak:

(...) a mi caro amigo y más que hermano en voluntad y obras y comunicación de nuestros negocios, Pedro de Barrantes Maldonado, natural de la villa de Alcántara, cabeza de la horden y caballería della, generoso barón y brabo soldado y criado eminente cuando sucedió este saco de Gibraltar que bamos contando (II-399).

Bera ere Gibraltar hiriarri musulmanek egindako eraso horretan egon zen 1540an, eta zehaztasunez kontatu zuen gertatutakoa 115. koadernoan (II: 372-403). Bere lanbideaz zehaztasunik eman ez bazigun ere, lerro hauek eta *Kronikan* jasotako lehen eskuko lekukotasunek iradokitzen digute bera ere soldadu zela, edo armadako agintariren baten morroi. Hizpide dugun kontakizun honetan, hain zuzen, Cachopínek bere buruari buruzko datu argigarriak emango dizkigu, geroago, *Kronikan* zehar ageri diren euskarazko testuen inguruan sortu diren galdera askori erantzuteko baliatuko ditugunak:

(...) tres cristianos de los que traían los turcos forçados al remo saltaron de las galeras al agua con sus cadenas, y el uno dellos se ahogó en el mar y los otros dos salieron a nado y biniéronse a Gibraltar, uno de los cuales se dezía Iñigo de Lebario-Jauregui, baleroso soldado. Y como los castellanos no le podíamos açertar a pronunçiar bien su nonbre, por ser muy rebesado para nosotros, le solíamos llamar Iñigo Jauregui, e otros le dezían Iñigo

39 Harrigarria gerta liteke Cachopín familiari buruzko aipurik edo azterketa genealogikorik ez aurkitzea, baina kontuan izan beza irakurleak esku artean dugun *Kronikaren* kopia, oraingoz bakarra, ibarguendarren eskuetan geratu zela, eta, bestalde, kronika hau, berez, Iburguen eta bere inguruko beste zenbait etxe loriatzeko jaio zela. Arrazoi horiek kontuan izanda, erraz uler daiteke Cachopín etxearen arrastoak desagertarazi izana, inoiz idatzi baziren.

Vizcaíno y otros Baro, pero él sienpre solía firmar Iñigo de Lebario-Jauregui, porque hera muy grandísimo scrivano de pluma junta e muy honrado en todas sus cosas. Y nos solía dezir a sus amigos que hera natural vizcaíno e muy buen hijodalgo (...) (II: 390).

Lanbidez soldadu, baina zaletasunez idazle, 115. koadernoan Espainiako armadaz eta turkoen inperioaz emandako berriak, Gibraltarreko eraso honi buruzko lerroak barnean direla, 1558 urtetik 1566 urtera bitartean papereratu zituen Cachopínek, Carlos V.a hil ondoren eta Soliman Turkiarra hil aurretik idatziak baitira.

Kronikaren beraren irakurketatik ondoriozta daitekeenez, 1598. urtea baino lehenxeago utzi zion Cachopínek *Kronika* idazteari, ez baitzuen inon Felipe II.aren heriotzaren berririk jaso. Esan behar da 184. koadernoan, azkena alegia, Felipe II.ari dela eskainia, hain zuzen ere. Cachopín gaztea Gibraltarreko erasoan izan bazen 1540an, oso gazte behar zuen, eta pentsa liteke laurogei urteak oso hurbil zituela *Kronika* idazteari utzi zionean, heriotzak behartuta ziurrenik. Beraz, eta batez ere irakurleari argi egite aldera, gaingiroki esan dezakegu Cachopín gaztea 1520an jaio zela eta 1598an hil, gutxi gora-behera.

Ez dirudi gure kronista Sibiliala eta inguruetako idazle, pentsalari eta kronisten artean ezaguna zenik. Cachopínek berak “Dedicatoria”n aditzera ematen duenez, kronista “afizionatua” da bera, aisialdia betetzeko jarduera du Historia. Ez bide zuen langintza honetan sonarik lortu, ezen, bestela balitz, bere izenak izango bailuke tokiren bat Rodrigo Caro (1647), Ortiz de Zuñiga (1671), edo Sibiliako historia XVI. mendean eta ondorengoan aztertu zuten historialari ugarietako baten lanean. Ortiz de Zuñigaren lana bereziki da zehatza, urtez urte aztertzen baitu hiriaren historia eta zehaztasunez aipatzen ditu zerbaitetan nabarmendu diren hiritarrak, batik bat historialari, idazle, elizgizon eta armagizonak.

2.2.2. Cachopín aita

Cachopín aitari buruz eskura daitezkeen datuak, ordea, ilunagoak dira. Esana dugu maiz aipatua dela bere izena *Kronikan* esaten diren kontu askoren iturri gisa; berarekin batera, Gonzalo Arredondo, Peña Galdocha eta beste ere aipatuak dira, guztiak XVI. mendearen lehen erdian edo, urrutien jota, XV. mendearen bukaera aldean bizi izandakoak. Badakigu, gainera, egile hauek elkarren artean trukatu zituztela datuak eta berriak euren lanetan. Beraz, ez dugu

uste zalantzan jar daitekeenik Cachopín aita XV. mendearen bukaeratik edo XVI. mendearen hasieratik, 1580 ingurura arte bizi izan zela. Semeak “... mi buen padre el doctor García Fernández Cachopín, que está en el cielo ...” esan zigun 1590 urtearen inguruan idatzitako 182. koadernoan, baina aurretik bere aitaz egindako aipuetan ez zuen zerua ahotan hartu, aditzera emanez, gure ustez, artean aita bizirik zuela.

Doctor García Fernández Cachopín dugu bere izen osoa, semeak *Kronikan* esaten duen bezala. Laredon jaioa, ez dakigu zehazki non bizi izan zen, baina antza denez hara eta hona ibili ohi zen, besteak beste Elizarentzako lanak burutzen:

(...) esta traslación se alló escripto particularmente, según lo refiere el çitado doctor García Fernández Cachopín, en un libro antiguo y grande de pargamino de cuero de ofiçiar las oras canónicas del culto dibino de la antigua iglesia de Bolibar, que dize bio ocularmente y llebó su traslado autoriçado de juez y escribano y testigo (II:163)

“Doctor” titulu horrek Elizaren karguren bat edo irakaskuntza alorreko jarduera sujeritzen digu; baina, zuhurtziaz jokaturik, ez deritzogu egoki gure hausnarketan harantzago joateari. Dena dela, zalantzan jarri ezinekoa da Cachopín aita jakintza maila zabaleko gizona genuela, batez ere Cantabriako historiari zein leinuei buruzko jakingarriei dagokienean. Cachopín aitaren obra bakarra aipatzen da *Kronikan: Grandezas de Vizcaya*, lan honen berri beste inon aurkitzerik ez badago ere. Horrez gain, aitak idatziak bide zituen zirriborroak ere maiz aipatzen ditu semeak eta haietatik berri ezezagun ugari jasotzen. Hain zuzen ere, Mendietak⁴⁰ ere paper hauek aipatzen ditu bere lanean: “ En los papeles del Doctor Cachopín dice ...”.

Semea ere ez zitzaion urruti ibiliko aitari prestakuntza intelektualari dagokionean. Esan gabe doa garai hartan honelako lan oparoa burutu zuenak nahitaez izan behar zuela oinarrizko formazio zabal eta aberatsa. Enziklopedia itxurako zentoi honetan astrologia, erlijioen historia, heraldika, munduko inperioen historia, arkitektura eta beste hainbat jakintza-gairi buruzko idatziak aurki daitezke. Testu horietako askok bestek idatzitako lanetatik hitzez hitz jasoak

⁴⁰ Francisco de Mendietak sona handiago lortu du margolari lanetan historialari moduan baino, hala ere, bere *Quarta parte de los Annales de Vizcaya* lan garrantzitsua dugu XVI. mendeko kronistikan, eta bereziki euskal historiografian. Ez dakigu zehazki noiz idatzi zuen lan hau, baina XVI. mendearen bigarren erdikotzat du lanaren editore Juan Carlos Guerrak (1915). Mañaricuak 1592ko data eman zion.

badirudite ere, lan horrek eskatzen zion bibliografia eskuratzea eta ezagutzea ez zegoen edonoren esku⁴¹.

Irakurleari eskainitako hitzaurrean (II:8) dioenez, Cachopínek alferkeria oso bizio kaltegarritzat du. Bere bizibideak tarte libre ugari uzten zion nonbait, eta, gogotsu, lan honi ekitea deliberatu zuen:

(...) he procurado ocuparme sienpre en diferentes exerçios, fuera de mi intento prinçipal. Y, entendiendo los ojos de mi entendimiento por ber en qué podría yo entretener algunas horas que a mi ánimo dar recreación pudiese y a otros aprobechase, pareçióme tomar esta obra entre manos (...).

2.3. Iburguen sendia

2.3.1. Juan Iñiguez de Iburguen Oka

Iburguen eskribau eta kronistaren bizitza aztertzean tentu handiz ibili beharra dago, nahasmen handi samarra somatzen baita berari buruz idatzi diren lanetan. Lehen-lehenik esan dezagun erabili beharko genukeen izen zehatza Juan Iñiguez de Iburguen dela. Nahi izanez gero, Oka baserriaren izena ere gehitu geniezaioke, hara ezkondu baitzen lehen emaztearekin eta bertako nagusi bihurtu. Zenbait idazlek egin duen bezala Juan de Iburguen izena erabiliko bagenu, izen hori bera zeukan eta gure kronistaren garaikidea zen Gernikako eskribau batekin nahasteko arriskuan geundeke. Kronistaren familian bertan ere bat baino gehiago dira XVI. mendean bizi izan ziren Juan de Iburguen-ak.

Baina Juan Iñiguez de Iburguen izenaren aztarnei jarraika ere hainbat gune irristakor aurkituko dugu artxiboetan barrena. Izan ere ibarguendarren leinu honetan baziren izen hori zeramaten lagun gehiago, eta haietako bat gainera eskribaua izan zen, gure kronista bezala, eta garai bertsuan bizi izan zen. 174. koadernoan (III: 279-294) datozen zuhaitz genealogikoei jarraiki gure kronistaren aurrekoei buruzko jakingarri nahikoa aurki daiteke.⁴²

Birraitona Iñigo Ortiz de Iburguen izan zuen, ahaide nagusia bera. Bizkaiko artzipreste nagusia izan zen eta Iburguen etxearen ugazaba bilakatu zen bere anaia Fortun Iñiguez legezko oinordekorik gabe hiltzean. Fortun Iñiguez honek jaso omen

⁴¹ *Kronikaren* edizioa osatzean prestatu dugun gaikako aurkibideari (III: 365) gainbegiratu bat ematea aski da jabetzeko zein zabala den lan hau, garaiko interesgune ziren zientzietako alor ugaritara irekia baita, Historia beraz gain.

⁴² 174. koadernoko (III: 237-294) azalpenak aintzakotzat hartu eta hobetsi ditugu orain arteko ikerketa eta argitalpenetan kontraesanen bat aurkitu dugunean.

zuen Gomez Gonzalezen gorpua Arrasateko erreketan hila gertatu zenean eta bere emazteari entregatu Munikaeta mendian. Iñigo Ortizek bederatzi seme-alaba izan zituen, lehenengo lauak orden sakratuak jaso baino lehen. Bere lehen semeari abizenaren buruzagitza utzi zion eta bigarrenari, Juan Iñiguez de Iburgueni, gure kronistaren aitonari alegia, Bizkaiko artzipreste nagusiaren makila pasa zion. Hemendik aurrerakoak *Kronikak* berak kontatuko dizkigu ondoen:

Item, el dicho Juan Iñiguez de Iburgüen, arçipreste de Vizcaya, hijo 2, el cual siendo estudiante soltero y sin ningunas órdenes eclesiásticas por laçibo amor se rebolbió con doña Marina Fernández de Lamiquiz-Echebarría de Mendacta siendo moça donzella que la tenían sus padres nobles para la casar, de cuyo ayuntamiento ubo por sus hijos naturales a Iñigo Ortíz de Iburgüen, señor de la torre de Guernica y corredor de lonja en la çudad de Sevilla, que dexó hijos legítimos que adelante diré (III: 274).

Iburguendarren etxe nagusia Muxikan zegoen, baina bazuten Gernikan dorretxe bat eta bertara aterpetzen ziren maiz, batez ere Muxika eta inguruetako leinuekin liskarretan ibiltzen zirenean. Agi denez, dorretxe honetako jabegoa Iñigo Ortizen eskuetara igaro zen, gure kronistaren aitaren eskuetara, alegia. Pisu handiko gizona ei genuen berau urte haietako Bizkaian, sindiko izendatu baitzuten 1526 eta 1527 urteetarako Foru Zaharraren bilketa lanen garaian. Hala ere, Iñigo Ortiz Sibilian bizi izango zen urteetan, bertan merkataritza-artekari⁴³ baitzen lanbidez. Artekariak bertako eta kanpoko merkatarien salmenta tratuak bideratzen zituzten, erosle eta saltzaileen artean bitartekari lana eginez. Bitartekaritzan, jakina, etekin handiak ateratzen zituzten artekariak, eta oso estimatuak izan ohi ziren Erregeren aginduz izendatzen ziren artekari postu hauek.

Iñigo Ortiz de Iburguen Sibilian bertan ezkondu zen eta ezkontza horretatik jaioko zen Juan Iñiguez de Iburguen kronista, gure ustean 1534 urtearen inguruan⁴⁴:

El cual dicho Iñigo Ortíz ubo en la çudad de Sevilla de Izabel de Torres, natural de la villa de Morón y vezina de la villa de Mairena, su muger primera, por hijos a Juan Iñiguez de Iburgüen, escribano real y público del número de la merindad de Çornoça, que casó en el solar de Oca de la anteiglesia de Ibar-Uri con doña Elbira Sáez de Oca, de quienes ay hijos e deçendencia (III: 275).

⁴³ *Corredor de lonja* euskarara itzulita.

⁴⁴ Urte hauek ematera ausartu gara kontuan izanik garai hartan erret eskribau izatera heltzeko jarraitu behar zen bideak 25 urte izatea eskatzen zuela lizentzia lortu orduko. Fidel de Sagarminagak (1880) aipatzen duen Juan Iñiguez de Iburguen (ikus 7. oharra) bila gabiltzan pertsonaia bera izatekotan, 1559. urtean jada eskribau dugu. Nolanahi ere, aitortu beharra dugu garai horretan bazela Juan Iñiguez de Iburguen Jauregui izeneko eskribau bat, gure kronistaren belaunaldikoa eta ahaidea, zeinekin nahas baikenezake.

Bigarren seme bat ere izan zuten Iñigo Ortiz eta Isabel de Torres-ek, Indietara joan eta Guadianan (Nueva Vizcaya) ezkondu zena. Bitartean, Isabel hil egin bide zen eta Iburguen aita-semeek Sibilia utzi egin zuten aitaren sorterrira itzultzeko. Pentsatzekoa da Andaluziako hiri horretan emandako urteetan Iburgueendarrek Cachopínen ezagutza egin izana, eta adiskidantza horretatik sortuko zen ziurrenik *Kronikaren* egitasmoa.

Aita Gernikan zuen dorretxera ezkondu zen bigarren aldiz durangar batekin.

Gure kronistak, aldiz, Ibarruriko Oka etxean aurkitu zuen andrea eta bertara ezkondu zen. Emazteak Elvira Saez de Oca zuen izena eta eskribau baten alaba zen, Iñigo Saez de Ocarena. Gure kronistaren aitaginarreba Zornotzako eskribau numerala zen eta beragandik jaso zuen postu hori bere alaba Elbirarekin ezkondu zenean. Iburguenek ere gauza bera egingo zuen bere bizitzaren azkenetan eskribau numeral postua bere seme Juan Iburguen Okari utzi zionean, 1609. urtean⁴⁵.

Bizkaiko Batzarren liburuak aztertzean⁴⁶ Juan Iñiguez de Iburguenen izena aurkituko dugu bizpahiru aldiz⁴⁷. 1559. urteko azaroaren 14an⁴⁸ Bizkaiko Batzar Nagusien eskribau izendatu omen zuten, oñeztarren aldetik, Gernikako arbolaren gerizpean. Handik gutxira, 1560.eko apirilaren 30ean Batzarren eskribautza beste batzuen esku utzi zuen, Batzarrek hala aginduta⁴⁹. Antza denez, 1571. urtean hartu zuen Zornotzako merindadeko eskribau numeral postua, urte horretan sinatuak baitira BFAn gordetzen diren lehen protokoloak⁵⁰. Zornotzako numeral moduan

⁴⁵ BFAko Udal Artxiboen sailean, Ibarruriko 001 kutxan, 1649. urtean sinatutako dokumentua aurki daiteke, zeinetan 110 urte lehenago sinatutako dokumentu baten berrikusketa eskatzen den. Dokumentu honek agerian uzten du Iñigo Saez Okak sinatu zuela dokumentu hura 1539.ean, Zornotzako numeral zela, eta ondoren Juan Iñiguez Iburguenengana igaro zela dokumentua, berak hartu baitzuen numeral postua, eta azkenik Juan Iburguen Okaren eskuetara igaro zela numeral postuarekin batera. Aitaginarrebak suhiari, aitak semeari, hala igaro ohi ziren administrazio postuak maiz, nahiz ez egon legez onartua.

⁴⁶ Sagarminaga, F. de, 1880, *El Gobierno y Régimen Foral del Señorío de Vizcaya*, Darío de Areitiok handitutako edizioa, Bilbo, 1928-35 (4 lib.).

Baina, batez ere, ikus bedi, Sesmero, Enriquez eta García, 1994, *Junta y Regimientos de Vizcaya. Actas de villas y ciudad*, tomo I, 1536-octubre 1571, Bizkaiko Batzar Nagusiak ed.

⁴⁷ Gorago esan bezala, bada gure kronistaren garaian beste eskribau bat Juan Iñiguez Iburguen Jauregi izena duena, kronistaren lehengusu hirugarren mailan, eta ez litzateke harritzekoa izango bera izatea Batzar Nagusietako Juan Iñiguez de Iburguen hori.

⁴⁸ Sagarminaga, 1880, I tomoa, 30. o.

⁴⁹ Aip. lib., I tomoa, 51. o.

⁵⁰ Notaria Saila, kuxak: 195(1571-76 urteak), 196(1577-79 urteak), 197(1583-96 urteak), 198(1588-91 urteak), 199(1595-1603 urteak). Oro har, oso egoera txarrean aurkitzen dira dokumentuak.

sinatutako dokumentu gehienak Okako bere etxean eta Ibarruriko, Gorozikako eta Etxanoko elizen aurreko zelaian jasoak dira. Hala ere, badira Euskal Herritik kanpo jasotakoak ere, besteak beste, Madrilen (1588) eta Valladoliden (1585-88). Azken hiri honetan preso eman zituen hiru urte, berak han emandako gutunetan azaltzen duenez:

[....] escrituras que pasaron ante mí, Joan [Iñiguez de Iburgüen] scrivano, estando en la villa de Valladolid preso [....]el año de 1585 hasta el año de 1588 (...)⁵¹

Zer dela eta preso? Badakigu urte horietan ari zela Cachopín eskuartean dugun kronika osatzen eta Okako eskribaua laguntzaile lanetan zebilela Espainian zehar artxiboak arakatzuz Bizkaiko leinuei buruzko berrien bila, tartean Simancas-ekoa eta Valladolideko Chancilleria-koa. Espainiako koroaren zerbitzura eraikitako artxibo hauetan zorrotzak ziren arauak eta eskribauek baimen bereziak behar izaten zituzten haietan ibiltzeko eta hango materialak erabiltzeko. Ez litzateke, bada, harritzekoa izango preso igarotako hiru urte horiek artxiboetan burututako ez egitekoren baten zigor izatea. Zigorra bete ondoren, Madrilen igaro zituen aste batzuk. Egun hauetan izan al zuen Cachopín-ekin harremanik? Guk baiezko susmoa dugu. Urte haietan Madril pisu handia ari zen hartzen Espainiako erreinuaren administrazioan, Valladolid hiriaren kaltetan, hain zuzen. Estatuaren aparatu burokratikoa eta Erregeren gorrea Madriler ari zen iragaten, apurka-apurka; zantzu guztien arabera burokrazia horretan bizibidea aurkitu zuten Cachopín eta Ibarguenek bazuketen arrazoirik Espainiako hiriburu izango zenera hurbiltzeko. Valladoliden preso eta Madrilen bisitari emandako urte horietan jaso zituen dokumentuek bizkaitarren eta Gaztelako hiritarren arteko auzi eta akordioak jasotzen dituzte, eta zalantzarik gabe ongi etorriko zitzaion eskribau gisa burututako jarduera hori kartzelako egonaldia arintzeko eta balizko isuna ordaintzeko.

Ibarruriko Oka etxera itzulirik, azter dezagun bere familia-bizitza aurkitutako datuen argitara. Lehen emazteak, Elbira Okak, hiru seme eman zizkion: Juan, eskribaua, etxera ezkonduko zena aitaren postu numeral hartzeko; Iñigo, Ameriketara ezkonduko zena, eta Furtun, Gorozikara ezkondua. Elbira, ordea, gazte samar hil zen eta Ibarguenek harreman berri bati ekin zion. 1582. urtean Etxanoko elizan aurkitutako dugu kronista haur jaioberria bataiatzen eta alabatzen hartzen. Ume

⁵¹ BFA, Notaria Saila, 197. kutxa.

horren ama gazteak Ochanda Ruiz de Galarza du izena eta zornotzarra da. Aita Antonio de Galarza du, Zubiaurreko plazan zegoen Beaskoetxea ostatuaren jabea. Okara ezkondurik, bigarren seme bat ere emango zion Ochandak eskribauari: Martin. Aurretik izandako alaba, Marina, Oka-Bengoan ezkonduko zen Fernando Saez de Oca-rekin, eskribaua berau ere.

Lehen semeari ofizioa irakatsi bide zion Juan Iñiguezek eta 1598rako erret eskribaua genuen, bere aitaren sinaduraren ondoan Juan Iburguen Okarena ikus baitaiteke jada⁵².

Bestalde, bistan da aitak sinatutako paper asko semeak idatzitako dokumentuak direla. Aita-semeen idazkerak oso antzerakoak dira eta *Kronikako* paper ugari semeak transkribatuak direlakoan gaude, aita hil aurretik zein ondoren. Gorago esan dugun bezala, Juan Iburguen Oka jaiotetxera ezkondu zen eta 1609. urtean Zornotzako eskribau numeralaren postua eskuratu zuen bere aitak utzita⁵³. Honek 1614an seme bat izan zuen bere emazte Marina Ibañez Berroetak erditua. Bizkaiko Biltzar Nagusietan oñeztarren aldeko errejidore izan zen 1620an eta idazkari 1628an. Juan Iburguen Oka numeral gisa lanean 1645 urtera arte aurki daiteke, baina 1655ean sinatzen du azkenekoz Ibarruriko elizaren bisita liburua eskribau gisa, 1609an bere aitari tokia hartu ondoren.

Semea ez ezik suhia ere, Fernando Saez Oka, eskribau egin zen eta Juan Iñiguezek Zornotzako numeral gisa sinatutako zenbait dokumentutan suhiaren sinadura ere irakur daiteke⁵⁴, aitagarrebaren amanuense gisa egiten baitzuen lan. *Kronikan* bertan ere suhiaren idazkera topatu dugu, besteak beste, Arrasateko erreketaren kantuak transkribatzen (II: 185). *Kronikari* gehitutako beste zenbait paper ere, gehienak genealogia ingurukoak, bere eskuak idatziak dira

Gure susmoen arabera, Juan Iñiguezek heriotza gertu ikusirik utzi zion semeari eskribau numeralaren luma, 1609az geroztik ez baita gure kronistaren berri gehiagorik. Baina urte batzuk lehenago, 1607ko ekainaren 19an, Batzar Nagusien erregidore izendatu zuten, oñeztarren partaide gisa, eta Batzarretan eztabaidatutako gai guztiak memoria liburuan zehatz-mehatz jaso zitzala agindu zioten, eskribauen

⁵² Ibidem, 199. kutxa.

⁵³ Bizkaiko Foru Artxiboan, Notaria Sailean, bost kutxa ditu 1607tik 1654ra bitartean berak sinatutako dokumentuekin: 200, 201, 202, 203 eta 204 zenbakia daramaten kutxak.

⁵⁴ Ibidem, 203, 204 kutxak.

lanaz gaindi⁵⁵. Bere suhia ere, Fernando Saez de Oca, lan horretan aritu zen 1605, 1611, 1618 eta 1624 urteetan.

Ibarguendarrei buruzko datu gehienak *Kronikatik* bertatik atera baditugu ere, Bizkaiko zenbait artxibo arakatzen ere ibili gara. Horien artean estimatuenetakoak parroketako artxiboak izan ohi dira. Izan ere, Trento-ko Kontzilioaz geroztik (1543-1565) sakramentuen banatzea liburuetan jaso zezatela agindu zitzaizen parrokoek, eta horrela gaur egun parrokia askotako jaiotakoen liburuak, konfirmazioenak, ezkontzenak eta hildakoenak aurki ditzakegu XVI. mendetik aurrerako urteetan eguneratuak eta egiaztatuak, batzuetan zuzen eta artez, besteetan trakets. Dena den, parrokia horietan mendeetan zehar gertatutako gora-beherek liburu horietako asko desagerrarazi dituzte eta beste batzuk irakurgaitz utzi.

Juan Iñiguez Ibargueneren berri aurkitzekotan Ibarruriko elizako liburuetan⁵⁶ ibili gara azterka, baina 1600. urte aurreko liburuak gutxi dira eta gaizki kontserbatuak, eta ez dugu kronistari buruzko berri zehatzik atzeman, bai ordea bere seme-alabei buruzkoak, aurrerago azalduko dugunez. 1600 urtetik 1609 urtera Ibarruriko bisita liburuetan eskribau moduan sinatu zuen. Urte horretatik aurrera bere seme Juan Ibargueneren sinatuko ditu. Juan Iñiguez Ibargueneren buruzko informaziorik oparoena Bizkaiko Foru Artxiboan eta Bizkaiko Biltzar Nagusiei buruzko bibliografian aurkituko du ikerleak.

2.3.2. Eskribaua kronista lanetan

a. Ofizioa

Alfonso X.aren *Las Siete Partidas*-en oinarritutako araudiari jarraiki, eskribauak 25 urtetik goiti izan behar zuen eta 4 urteko eskarmentua eduki, seme legitimoa izan eta ez eliz-gizona. Erret eskribaua izan ahal izateko 20.000 marabediko hazienda izan behar zuen. Azkenik, Erregeren lizentzia hartuta, azterketa egin behar izango zuen eta Errege Kontseiluak aho batez emango zion titulua⁵⁷.

⁵⁵ Sagarminaga F., IV tomoa, 475. or.

⁵⁶ Archivo eclesiástico de Vizcaya, Derio : 01-02 9-353, anteiglesia de Ibarruri, libro de bautizos, casamientos y finados; 0305 A-432, libro de visitas de Ibarruri.

⁵⁷ Alfonso el Sabio, c. 1270, *Las Siete Partidas*, partida 2ª, tit. IX, ley IX.

Alfonso X.ak eskribauen lanak zaindu beharreko arau eta irizpideak zehaztu zituen⁵⁸: zeinek izendatu behar zituen, zer nolako probak gainditu behar zituzten, nola eman behar zituzten dokumentuak, zein aranzel aplikatu, nola gorde behar zituzten eta zein zigorretan eror zitezkeen. Hala ere, gehiegikeriazko jokabideak noiznahi atzematen ziren, eta egoera hobetzen berebiziko ahalegina egin zen XVI. mendearen hasieran Montalvoko Ordenantzak eta Pragmatikoak argitaratzean⁵⁹. Bertan eskribauei gogorarazten zitzairen argi idatz zezatela kortesau idazkeraz, ez prozesalez, testua osorik eman zezatela, ohar laburturik gabe, galdutako gutunen kopia emateko hala eskatuz gero eta arenzelei atxeki zekizkiela, oparirik edo eskupekorik eskatu gabe.

1503an Errege Katolikoek jarritako tarifek ez zuten zalantzarako tokirik uzten: orrialde bakoitzeko hogeitamabost lerro, lerro bakoitzeko hamabost hitz, eta kobratzerakoan orriko hamar marabedi. Baina nekez lor zitekeen honela jornal duinik, eta denborarekin kortesau idazkerak prozesalera egingo du eta honek kateatura, lerroko hitzen kopurua eta orrialde bakoitzeko lerroena nabarmen jetsiz. Lumak ziztu bizian egiten zuen bere bidea paperaren gainean, Francisco de Quevedo-k irudikatu bezala:

Volárase con las plumas. Pensais que lo digo por los pájaros, y os engañáis, que eso fuera necesidad. Dígolo por los escribanos y ginoveses, que éstos nos vuelan con las plumas los dineros de delante.⁶⁰

Dokumentoak osatzea eta tramitatzea kontu serio eta erantzunkizun handikotzat zuten, eta gauza bera esan daiteke dokumentuen gordetze eta konserbazioari buruz. Errege Katolikoek ekimenez Carlos erregeak Simancas-en erret artxibo nagusia eraiki zuenean, ardura hori zebilkion buruan, eta gorago ikusi dugunez Iburguen kronista behar ez zenen bat egiten harrapatu bide zuten Valladolideko artxiboren batean, Simancasekoan akaso, eta gartzelara bidali.

Garai honetan eskribauek luma dute euren aberastasun eta ogibide bakar, antzinako monastegietako monjeek ez bezala. Asko ziren, makina administratiboa erraldoia baitzen zegoeneko, eta eskribau onek eta txarrek, denek zuten tokia.

⁵⁸ Partida 3ª, tít. XIX, leyes I-XVI.

⁵⁹ Martín Postigo, *La Cancillería*, 5-6 orr. Edizio ugari izan zuen arautegi honek XVI. mendean zehar: 1520, 1528, 1540, 1545, 1549, 1550.

⁶⁰ Quevedo, F., 1629, *Los sueños*, “La visita de los chistes”, Espasa Calpe, Buenos Aires, 1945, 168 or.

Ofiziorako prestatu beharra zuten, laguntzaile lanak egin (“pasantías”) eta azterketa bat gainditu. Errubrikaren ikurra jasotzen zuen azkenik eskribauak, zaldungaiaren “belarrondokoa” bailitzan, eta hala geratzen zen jaso Casa de la Contratación-eko errejistroan.

Lumaren ofizioa zutenen artean kantzillerrak ziren lehen mailan, notarioak bigarrenean eta eskribauak hirugarrenean. Ongi jakin behar zuten idazten eta irakurtzen. Gizon onak, ez gezurtiak, buru-argiak, hitzekoak eta kodizia gabeak behar zuten izan. Aranzelak baino ez zituzten krobotu behar eta egitekoa argi zuten: ematen zitzaizkien oharra fidelki jaso, gutunak hartzekodunari bakarrik eman eta faltsukerietan ez ibili. Azkenean, eskribau ofizioa kasta bakar baten esku geratuko da, ongi irakurri eta idazteak kezkatzen duen bakarra, zeren noble jendeak, oro har, ez baitu horrelako lanik hartzen eta ia esan liteke ohoretzat duela bere sinadura ziriborratzen besterik ez jakitea.

b. Idazkera

Idazketaren ikasteak trebatutako maisua eskatzen zuen, eskuliburuaren laguntzarekin edo gabe, lumaren artea transmititzen saiatuko zena: hizkien moldea, hauek lotzeko modua, euren proportzioa eta lerroan duten kokagunea. Juan de Iciar-ek (1547) bere *Orthografía práctica*-n azaltzen diren idazkera moten sailkapenari jarraiki, esan genezake Iburguenena borobila dela, prozesatua, denborarekin etzan eta kateatu egingo dena. Gure eskribauari bizitzea suertatu zitzaion garaian ez zitekeen bestela izan.

Espainiako idazkera mota zaharrenari bisigotiko deritza eta VIII. eta XII. mendeen artean erabili zen monastegietan, ondoren gortera eta merkatariengana hedatu zelarik. Mota honetako idazkerarik ez dugu aurkituko *Kronikan* topa daitezkeen idazkera anitzen artean.

XIII-XIV mendeetan, ordea, berebiziko indarra hartu zuen Alemaniako monastegietatik etorritako idazkerak, gotikoa, eskolastikoa edo alemaniarra deituak. Letra txikia da, angelutsua, goiko eta beheko trazuak luzatu egiten dira horizontalki, letra bera inguratuz, eta apurka-apurka aparatoso samarra bihurtuko da. Eskribauak, baina, lanez gainezka ibili ohi dira, eta hasieran idazkera gotikoa zenak borobildu egingo ditu bere ertz gogorrak eta hizki kortesaua emango du XV. mendean. Idazkiak azkar idaztearen poderioz, kortesaua prozesal bihurtzen

da, letren tamaina berdinduz eta trazo apaingarriak albo batera utziz. Geroago, eskribauek euren lana azkarrago egite aldera, luma ia altxatu ere ez dute egingo eta hitzak elkarri lotzen zaizkio, idatz-lerroa bihurtuz konkabo eta konbexoen katea bihurtuz. Hona hemen, azkenik, idazkera prozesal kateatua, Ibarguenek maizenik erabilia, batzuetan katetuago, besteetan hitzak bereziago; batzuetan borobilago, besteetan etzanago.

Hizkiek apenas dute ñabardura berezirik, lerro bakoitzean gero eta hitz gutxiago sartzen da eta hitzen arteko etenak gero eta zailago dira atzematen. Eskuaren mugimendua sinpleagoa eta errazagoa da; alde estetikoak garrantzia galdu du. Baina, eskribauaren lana erraztu egin bada, emaitzaren kostuak gora egin du bezeroarentzat, gauza bera esateko lerro kopuru handiagoa erabiltzen baita.

XVI. mendeko idazkera definitzen duten berezitasun hauek guztiak bere egin zituen Ibarguenek, bai eskribau lana egitean bai kronista moduan ari zaigunean. Gaztaroan idazkera zainduagoa badu ere, urteek aurrera egin ahala zabarrago bihurtzen da, axolagabeago. Ez dezagun ahantz, bestalde, *Kronika* inprentara eramateko asmotan izan zela idatzia. Perspektiba horrek liberatu egiten ditu idazleak eskuzko idazketa klasikoak dituen arauetatik: seinuak, laburdurak, formulismoak, eta abar. Idazketa askoz pertsonalagoa izango da. Eta hau nabari zaio Ibargueni. Gainera, inprentak eta *Kronika* bezalako lan luze bat osatu beharrak presa eragiten dute. Txukuntasuna galtzaile aterako da ondorioz, *Kronikaren* zenbait pasarte kopiatzean nagikeria eta interes falta ere somatzen delarik.

Honegatik guztiagatik, Ibarguenen lana ongi irakurri ahal izateko ez dugu aski garaiko laburdurak, loturak, hizki motak, eta abar ikastea, egilearen abede pertsonala egin behar dugu, bere eskuaren mugimendua, *ductus*-a, berreraikitzen saiatu, eta, Fairbank-ek⁶¹ dioen bezala, “lumaren dantza”rekin bat egin.

Ez dugu Cachopín-en idazkera nolakoa zen ziurtatzerik, gaurdaino ezagun den kronika honen kopia bakarra gehien bat Ibarguenen eskuz emana baita. Baina, esan dugun bezala, Juan Iñiguez Ibarguenen eskuaz gain, badira *Kronikan* beste laupabost, tartean bere semearena eta suhiarena. Bestalde, susmoa dugu astrologia

⁶¹ Fairbank, A., 1965, *A handwriting manual*, Faber and Faber Edition, 13. or.

eta geografia gaiak (3, 4, 9 eta 11 koadernoetan) ematen dituen eskua Cachopínena ote den. Momentuz, ordea, hori baino ez dugu, susmoa.

c. Materiala

Idatz teknikak ez ezik, eskuzko idazleak bere lan tresnak ongi ezagutu eta erabili behar ditu, besteak beste, bere lanaren emaitzak denboran zehar iraun dezan. Baina goian aipatu dugun inprentaren esperantza horrek materialak aukeratzekoan arreta gutxi jartzera bultzatu bide zuen Ibarguen.

Kronika kopiatzerakoan maiz tinta azidoegia prestatu ohi zuen, orriaren alde batetik bestera tinta igarotzea erraztuz; ondorioz alde bateko eta besteko letrek elkarren gainean idatziak dirudite. Zenbait hizkiren trazua gogorki markatzeak, zerbait ezabatzeak edo esaldiren bat azpimarratzeak, luma indarrez zanpatu behar baita, orria puskatzea ekarri du denborarekin. Orriaren ertzak ere oharrak eta deiak idazteko erabili izanak orrien konsistentzia ahuldu du.

Papera mota beretsukoa erabili du gehienetan, zoritxarrez mehe eta ahul samarra, nahiz eta zenbaitetan paper lodiago eta zabalagoak aurkituko ditugun, denboraren eta elementuen eragina hobeto jasan dutenak. Paperak daraman filigrana, non eresia izan zen jakiten lagun diezagukeena, oso argia eta sinplea da: esku bat zabalik, ahurra guri begira, erpurua irekia eta beste atzamarrak elkarren ondoan tente.

Oilar edo oka lumak erabili ohi zituzten, punta ongi zorroztua, kako baten antzera puntatxo bi aterata, eskuin aldekoa luzeagoa. Horrela papera ebaki egiten zen ia idaztean.

Ez da harritzekoa, beraz, gaur egun gordetzen den kopia bakarraren orri asko eta asko erabat txikiturik iritsi izana guganaino.

2.3.3. Ibarguendarrak

a. Oinaztarren taldekide

Muxikan dute Ibarguendarrek jatorria. Tubalek lurraldea hartu eta bertan bizitokia jaso ondoren, bizkaitarrek batzarretan bildurik aukeratzeko omen zituzten euren kapitainak. Lehenbiziko 47 kapitainak legendaren orrialdeetara igaroarazi zituzten kronistek eta Cachopín eta Ibargueneren lanean erreferentzia ugari aurkituko dugu haietat. Hain zuzen haietako batek, Perispil izenekoak, Andramendi etxea

eraiki omen zuen Muxikan. Perispilek sortutako leinu honetan omen du jatorri zuzena ibarguendarrenak (III: 242).

Horra hor laburbildurik nola ezarri zituzten *Kronikaren* egileek Iburguen leinuari betidaniko nobletasuna emango zion legendaren oinarriak. Andramendiren fundazioa, noski, historiaurrean galtzen zaigu, eta egileek etxe honek izandako bilakaera historikoa kontatzean ez digute data zehatzik emango. Iburguen leinuaz mintzatzen hastean, ordea, 512. urtea ezarri zuten fundazio-data gisa. Urte honetatik aurrera aski xehe kontatzen zaizkigu Iburguengo ahaide nagusi eta zaldunen balentriak, batik bat Nafarroa eta Gaztelako erregeen ondoan musulmanen aurka burututakoak.

Iburguendarren ibileren hasiera-hasieratik aurki ditzakegu auzokoekiko hikamika eta ezinikusiak. Bere inguruko Albiz, Oka, Askoeta, Unda, Muxika bera eta abarrekin gorrotozko zein anaiarteko harremanak tartekatu ziren urteen joanean. Sute bat itzaltzean, beste batek hartzen du su. Muxikakoekin hasiera-hasieratik izan zituzten borrokak eta ezinikusiak, elkarri etxeak errez eta haziendetan kalteak eraginez. Hala ere, barealdiak ere izan zituzten, gehienak ezkontzen bidez ezarriak. Baina, kontuak kontu, Muxika eta Iburguen beti izan ziren lagun eta talde berekoak aurrean ganboarrak zituztenean, oinaztar peto-petoak baitziren biak. Leinu bien arteko gorrotoak, ordea, Iburguen ganboarren artera igaroaraziko zuen.

Este Fortún Íñiguez de Iburgüen, sétimo deste nombre, fue muy principal y baleroso en todos sus hechos que consiguió con mucha prudencia, en cuyo tiempo se renobaron las antiguas henemistades con la casa de Muxica, cuyo señor de muy atrás hera Gómez Gonçáles de Butrón. El cual, como tan poderoso señor y enemigo mortal de la casa de Iburgüen, deseaba en extremo matar a este Fortún Íñiguez y a su padre Fortún Íñiguez que todavía hera bibo (III: 270).

Lo cual entendido por Fortún Íñiguez de Iburgüen acordó dexar determinadamente su originario bando de Oñez y se pasó a las treguas y parçialidad del apellido arteagano y de Gareca, que heran a la sazón ganboínos, en cuya compañía estubo, con algunos deudos principales de su linaje que le quisieron aconpañar, por tiempo de tres años (III: 272).

Ganboarren itzalpean emandako urte apur hauek gora-behera, Iburguendarrek, berez, oso barneraturik zuten Oñez bandoaren taldekide izaera. Izan ere, sorreratik bertatik ei ziren oiñeztarren kide (III: 247). Luze gabe itzuli ziren taldera Muxikakoekin bakeak eginda. Arrasateko erreketan (1448) Butroiko jauna, Gomez Gonzalez, hilda aurkitu zuen Iburguengo jaunak, eta, orduko gudu hartan arerio baziren ere, begirune handiz egin zion ohore:

(...) abiéndose hallado el cuerpo defunto de Gómez Gonçales en el canpo entre otros muchos cuerpos, el de Iburgüen lo tomó y alçó con los suyos acordándosele de su antigua naturaleza, y, como a tal su originaria cabeça, le lloró y herostó al uso de entonçes, dando grandes gritos y exclamaciones lastimosas y arroxando los bonetes de la cabeça en el suelo, y arañándose las caras y mesándose las barbas y cabellos, y dando palmadas con las manos y deziendo a bozes, como cantando en coplas, sus hazañas de su tiempo y grandezas de su estado y hechos suyos y de sus antepasados, y de en cuando en cuando echándose de bruçes en el suelo y sobre el cuerpo muherto (III: 272).

Portaera hau ez zuten ganboarrek oso begi onez ikusi eta desafio egin zioten. Azkenean, baina, epaimahaia osatu eta ganboarrek errugabetzat jo zuten, bereekin zuen zorra ahaztu gabe leial eta zuzen jokatu baitzuen, egiazko zaldunen gisa. Ondorioz, Iburgüengoa libre zen talde batean edo bestean sartzeko, inongo mendekurik jaso gabe.

Fortún Íñiguez de Iburgüen tomó el cuerpo de Gómez Gonçales y lo llebó con sus ibargüendanos que para ello le bastaron, y del canpo con honorosa ponpa le sacó y llebó en el camino con llanto, luto y sentimiento creçido, y se lo dio y entregó a su muger en lo alto de la sierra de Municaeta. Y con tanto se bolbió otra bez al canpo a dar fin a la guerra començada, la cual se acabó con bictoria de los ganboínos, como diximos en el çitado capítulo, lo cual mediante y también porque por medio se pusieron gentes prinçipales tratando las conbeniençias, las concluyeron. Y en estas pazes pasó entre anbas partes un notable y famoso capitulado de amistad y treguas perpetuas entre los muxicanos e ibargüendanos, (...) Por manera que mediante esta concordia al cabo de poco tiempo bolbió el señor de Iburgüen y su linaje a su primera obpinión oñezina, porque también los más deudos de su casa eran todavía oñezinos y moraban en partes en donde no podían hazer menos. (III: 272-273).

Oñeztar betiko. Aurrerantzean ez zuten Iburgüengoa inork liskar txikiena ere izango Muxikakoekin, eta auzo harreman estua izateaz gain, menpeko leial ere izango zaio Iburgüengoa Muxikari. Muxika-Butron batzuetan, Butron-Muxika besteetan, izen horren nagusitasunaren inguruan bildu ziren oiñeztarrak mendeetan zehar, armak hartzeko orduan zein Batzar Nagusietara azaltzerakoan. Hain zuzen ere, Muxikako jaunari eskaini zioten *Kronika Cachopínek* eta Iburgüenek, euren burua ere oiñeztar aldarrikatuz.

En dedicar a V.S. la presente obra no fue pequeño atrebimiento mío y de mi compañero Juan Íñiguez de Iburgüen (...) (...) antiquísimos y tan celebrados de Múxica y Buctrón entre todas las gentes naturales de Vizcaya y extrangeros, que así son llamados V.S. y sus anteqesores (...) (...) tienen como padres y cabeça de su apellido [oñe]zino (...) (II: 5).

Garibayk (1571) Felipe II.a erregeari eskaini zion bere obra; Poza lizentziatuak (1587), ordea, ganboarren buruzagiari. Bizkaian historialariek euren lana alde bateko edo besteko buruzagiei eskaintzeko ohitura honek argi erakusten du

zein errotua zegoen bandoen kultura herritarren bizitzan. Gizarte bizkaitarrean oñeztarren eta ganboarren artean XIII. mendean geroztik gauzatzen hasi zen zatiketak erro sakonak zabaldu zituen eta instituzio ere bilakatu zen, Bizkaiko Batzar Nagusiak taldeka egindako hauteskundearen bitartez osatzen baitziren, alde batetik ganboarrak, oñeztarrak bestetik.

Ibarguen-Cachopín Kronikan bandoek aparteko protagonismoa eskuratu zuten. Jainkoaren eta Deabruaren morroi gisa aurkezten zaizkigu, Abel da bata eta Cain bestea (II: 37). Esan gabe doa Oñez dela Jainkoaren meneko eta Ganboa Deabruaren (II: 207). Talde bien arteko guduen presentzia kronika guztian zehar hedatzen dela esan daiteke, baina bereziki bigarren liburuan. Azken honetan aurkituko ditugu bandoen sorrerari buruzko teoria legendarioak (65. koadernoan, II: 46-50) eta Garcia Salazarren *Bienandanzas*-etik ateratako hainbat testu (79. koadernoan, II: 178-185). Leinuak banan-banan harturik euren historia kontatzeari ekiten dionean ere, hainbat jakingarri aurkituko dugu borroka hauei buruz, haietako asko orain arte ezezagunak. Baina guztien gainetik harrigarri gertatzen dira 43. koadernoan ematen zaizkigun berriak (I: 556-566), datu ezezagunak eta ikuspuntu berria ematen baitigute XV. mendeko liskarrei buruz.

Anaien arteko harreman gatazkatsua agerian utzi bazuen ere, *Kronikak* guztiaren gainetik garbi utzi nahi izan zuen bizkaitarrek oso maite zutela euren lurra eta askatasuna, eta barne ezinikusiak erraz ahazten zituztela kanpoko etsaiaren aurrean.

(...) aunque sienpre entre sí á abido e ay pasiones e renzillas a causa de sus bandos e malas boluntades tan antiguas e hordinarias, sin embargo para la defensa de sus casas e natural probinçia y para ayudar con sus personas y armas a todos sus vezinos que de ellos e de su favor tubieron nesçesidad a la contina, dexando sus renzillas para su tienpo, sienpre se hizieron un cuerpo unánimos, e conformes en la guerra contra los enemigos, como personas bienquerientes que abitan muy conformes en una casa y morada (II: 221).

“Etxe bereko seme” izan arren, Oñez eta Ganboa gutxitan jarri ziren ados Espainiako erreinuetan izan ziren gatazketan parte hartzera atera zirenetan noren ondoan borrokatu behar zuten erabakitzerakoan. Oñez Gaztelara begira bizi izan zen bitartean, Ganboa itxiago agertu ohi zen aliantzak egiterakoan. Gaztelaren aldeko kultura horrek ibarguendarrei Sibiliarako bidea erraztu egin zielakoan gaude, eta hein handi batean fidelki azaltzen du *Kronikari* darion aire monarkiko hori, beti

Gaztelako erregeen aldekoa, beste guztien gainetik, Carlos I.a eta bere seme Felipe II.aren zerbitzura jarria.

b. Arma-gizonetik luma-gizonera

Ibarguendarren balentriak han-hemenka barreiatuak izan ziren *Kronikan*, mundu ororentzat ezagun izan zedin zein zaldun prestuak eta soldadu ausartak, zein buru-argiak eta norainoko zerbitzari leialak izan ziren Erregerekiko euren balioa erakusteko aukera izan zuten aldioro: 796. urtean, musulmanak Durangoraino iritsi ziren batean, ibarguendar bat kapitain izan zen borroka hartan eta etsaiak menperatzea eta ihesean jartzea lortu omen zuten (III: 255); Alfonso el Magno (¿?- 910) erregearen alboan borrokatu omen zen Nicolao Urtiz Ibarguengoa Erregeri oldartu zitzaizkion nafarren aurka (III: 246); Fortuno Ibarguen Bizkaiko Lope Diaz-ekin batera egon zen Almanzorren aurka borrokan, Gaztelako Kontearen mesedetan, Cascajares-ko arroan (III: 121); 1079 urtean Iñigo Manso, Ibarguengo semea, Cid Rui Díaz de Vivar-ekin izan omen zen Guadalajaran mauruen aurka (III: 252); Alfonso XI.ak Ibarguengo kapitain baten laguntza izan zuen 1344. urtean, Tarifan, musulmanen aurkako kanpainetan (III: 234),

Horrenbeste zerbitzu eginiko leinuak zalantzarik gabe Erregeren mesedeen merezimendu osoa du, eta mesede horiek Gaztelako erregeen inguruan eraiki den egitura administratibo erraldoian gauzatuko dira, Elizaren sare hierarkiakoa barne. Kronika honen egile bizkaitarraren osaba bat, Fortun Ibarguen, Siguenza eta Cía-ko artzidianoa, Sibiliako artzapezpiku Fernando de Valdes-en idazkari izan zen. Fernando de Valdes-ek 1546an izan zuen Sibiliako katedrala bere kargura eta 1547tik 1566ra Inkisidore Nagusi izan zen. Horrek azalduko luke *Kronikan* Bartolome de Carranza-ren aurka izandako auziaren berri zehatza jasotzea, artzapezpiku hau izan baitzen auziaren bultzatzailea. Fortun Ibarguen bere idazkari izanik, 54. koadernoan datorren dossier luzeak badu iturbururik⁶². Kronistaren lehengusu bat Logroñoko Inkisizioan idazkari izan zen eta beronen semeak ere inkisidore lanetan jardun zuen. Beste ahaide bat Felipe II.aren morroi izan genuen. Osaba bat, Iñigo Urtiz Ibarguen, Valladolid-en erret fiskaltzan aritu

⁶² Antza denez, osaba honen eraginez eskeini zitzaion *Kronikan* 20 folio inguru Bartolomé Carranza y Miranda (1503-1576), Toledoko artzapezpikuaren kasuari (54. koadernoan).

zen. Iburguen leinukoen semeetan erret eskribau izatera iritsi zirenak XVI. mendean gutxienez bost dira, gure kronista barne.

Bizkaiaren historian etxe indartsua eta boteretsua izandakoa omen dugu Iburguengoa. Arma-talde zabal baten buru, ahaide eta menpeko ugari zituen Gernika, Errigoiti eta Muxikako herrietan zein lurraldeko elizate askotan, eta Bizkaiko Batzarretan alkate makila baten jabe omen zen (III: 248). Horrez gain, leinu honetako zenbait seme Batzar Nagusietan diputatu izandakoak ditugu eta Bizkaiko prestamero izandakoak beste batzuk. Elizaren instituzioan ere izan zuten presentzia nabarmena, Bizkaiko artzipreste nagusiaren kargua Iburguen etxean belaunaldiz belaunaldi igaro baitzen XV eta XVI mendeetan.

Bizkaiko Batzarren dokumentuetan ageri denez⁶³, Juan Iñiguez eskribauaren etxeok aski paper garrantzitsuak bete ohi zituzten Batzarretan XVI. mendean zehar: Aitak, Iñigo Urtizek, diputatu kargua izan zuen 1539.ean, eta 1560. urtera arte doazen zenbait urtetan eskribau, Gernikako prokuradore eta alkate karguak ere izan zituen. Bere osaba Fortun Iñiguez de Iburguen eskribau izan zen Batzarretan 1548 eta 1550 urteetan. Gorago ikusi dugunez, gure kronista eskribau izan zen 1559tik 1565era. 1560an, gainera, Gernikako alkate ere ba omen zen. 1552an ere bere izena aurki dezakegu, baina gure ustetan bere lehengusu Juan Iñiguez Iburguen Jauregi aipatu nahi da eta ez gure kronista. Kronistaren semeek ere, Juanek (Muxikako prokuradore 1596an, eskribau 1584-90, Muxikako fiel 1597an) eta Martinek (Muxikako prokuradore 1584an), izan zuten eginkizunik Batzarretan, suhiak bezalatsu (Hernando Saez Oka, Muxikako prokuradore 1597-98).

c. Iburguendarren motiboak

Iburguendarrak ez dira Salazar edo Butroikoen pareko, eta Erdi Aroko nobiliarioetan maila bat beherago agertzen dira, ageri badira. Kronika honek, ordea, euren lekua aldarrikatu nahi die hidalgia unibertsalaren testuinguruan.

Erantzun moduko bat da XVI. mendean zehar bizkaitarren noblezasunaren inguruan Espainian sortutako kontrako jarrera sutseuei. Zenbait genealogista eta “nobleziatzainek” gogor egin zioten hidalgia unibertsalari, bereziki García

⁶³ Sesmero, Enriquez eta García, 1994, *Junta y Regimientos de Vizcaya. Actas de villas y ciudad*, I tomoa, 1536 - urria 1571, Bizkaiko Batzar Nagusiak ed.

fiskalak, Juan García Saavedrak⁶⁴, zeinek Bizkaian benetako nobletzat Salazar, Muñatones eta beste lauzpabost familia baino ez baitu.

Erdi Aroko gizartea leinu ugarik ehundutako armiarma sarearen babesean antolatu zen, sare horretako ariak biltzen ziren korapilorik indartsuenak lauzpabost ahaide nagusi zirela. Hauen boterea ahaideen kopuru zabalean eta ondasunen aberastasunean oinarritzen zen, eta jakina, Bizkaiko jaunak emandako eskubide eta aginte ofizioetan. Leinu hauek dira, hain zuzen, Espainiako idazle zenbaiten erasoetatik salbatu ziren bakarrak.

Ibarguen ez zegoen talde horretan, eta egileek leinu honentzat besteen ohore postua nahi lukete. Kronika honek leinuaren plataforma papera egingo du, horren lekuko 174. koadernoan, oso-osorik familiari dedikatua, eta beste koadernoetan zehar barraiatutako hainbat erreferentzia.

Azkenik, ekar dezagun gogora Felipe II.ak 1575. urtean⁶⁵ korrejidoreei emandako agindua, bere erreinuko herri eta bazterretako istorio eta jakingarriak idatziz bil zituzten, bere historia aberasteko xedez. Honek argi adierazten digu zein garrantzia handia ari ziren hartzen idatziz emandako testigantzak, eta zein kemen handiz saiaturen ziren herriak, leinuak eta pertsonak euren izate noble eta jasoaren berri uzten.

⁶⁴ García de Saavedra, Juan, 1597, *De hispanorum nobilitate*, Juan de Sarriaren bizkar.

⁶⁵ *Instruccion, y Real Cedula del Señor Felipe Segundo, remitida en el año de 1575. a los Prelados, y Corregidores del Reyno, con el fin de recoger las relaciones individuales. y exactas para formar la Descripcion, e Historia de las particularidades, y cosas notables de los pueblos de España*, 4 orri, Biblioteca Nacional.

3. KRONIKAREN EDUKIA ETA EGITURA

3.1. Materialen antolaketa: Historia unibertsalen eredu

Ibarguen-Cachopín Kronikari egotzi izan zaizkion nahasmena eta iluntasuna, beste ezerk baino areago, eskuizkribuaren egoera tamalgarriak eragindakoak dira, urteen joanean jasan dituen manipulazioez gain. Berez, sorreran asmo argia zuten egileek, handizaleegia agian, baina argia:

(...) tomar esta obra entre manos, dando en ella notiçia clara de todas las cosas, poco o mucho, que se an hecho en España desde que se fundó acá, ansí de bidas de reyes, monarcas y señores della, como de las fundaçiones de las çiudades y gobierno dellas, y de todos los barones de sangre real e ilustres y de balor que en ella ha abido, y de sus notables hechos y armas magnani|mas, y de las hórdenes de caballeros con[....]dore y de su origen, y de las órdenes de [....]les, y de muchos sanctos que a abido [....] de nuestra España y extranos, y de los [philó]sophos y barones letrados, y de los papas y enperadores, y otra infinidad de cosas de que ay memoria, que se hallarán senbradas por todo el proçeso desta istoria, ansí españolas y estrangeras, como desta nuestra casa vizcaína. Y, en fin, da bien a entender esta crhónica los prinçipios y origen de muchos linages de los caballeros de nuestra España, y otras munchas y particulares cosas de casas armeras y sus apellidos y bandos (II:8).

Handia zen asmoa, nahiz ez oso berrizalea. XVI. mendean historialari espainiarrek Espainia bera zuten munduko eta, ondorioz, historiako gune nagusizat. Historia ez zen jada idazten Atenas, Erroma edo Constantinopla inguruan eraikita. Izan ere, zegoeneko baziren argitaratuak historia unibertsaleko lan multzo bat Espainiako erregeak ardatz harturik: Medina (1548), Garibay (1571), Morales (1586), ... Ideia bera aintzakotzat harturik, Cachopínek eskema nagusi horri Bizkaiko historia erantsi nahi zion, eskemaren ardatz nagusiaren barnean, Espainiarenean alegia, beste ardatz bat bailitzan.

(...) esta presente *Istoria General de España y Sumaria de Casa Viscaína*, como ba, partida en estos tres libros susseguidos, cada un libro dellos en un cuerpo y parte, para probocar a virtudes y refrenar biçios. (II:7)

Egileen asmoa Historia Orokor bat osatzea zen, Munduaren sorreratik Felipe II.aren agintaritzara arte luzatuko zena. *Kronika* koadernotan edo kapitulutan antolatu zuten eta hiru liburutan banatu zituzten. Koadernoaren izenburua ematean honako leloa errepikatzen da: “X. koaderno. Y liburuko Z. kapitulu”. 184 koaderno osatu zituzten egileek, kapitulu eta koaderno sinonimo direlarik.

Ezberdintasun bakarra zera da, historian zehar ikerle asko nahastu dituen⁶⁶, obran zehar koadernoek 1etik 184ra egiten duten bitartean kapituluei dagokienean liburu bakoitzean 1era itzultzen dela zenbaketa. Begira ondorengo grafikoa:

3.1.1. *Kronikako koaderno, kapitulu eta liburuen egokiera numerikoa*⁶⁷

LIBRO PRIMERO

Cuaderno	1 (abeced.)	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
Capítulo	---	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11

Cuaderno	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26
Capítulo	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25

Cuaderno	27	28	29	30	31	32	33	34	35	36	37	38	39	40
Capítulo	26	27	28	29	30	31	32	33	34	35	36	37	38	39

Cuaderno	41	42	43	44	45	46	47	48	49	50	51	52	53	54
Capítulo	40	41	42	43	44	45	46	47	48	49	50	51	52	53

Cuaderno	55	56	57	58	59	60	61	62	63
Capítulo	54	55	56	57	58	59	60	61	62

LIBRO SEGUNDO

Cuaderno	Prólogo	64	65	66	67	68	69	70	71	72	73	74
Capítulo	---	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11

Cuaderno	75	76	77	78	79	80	81	82	83	84	85	86	87
Capítulo	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24

Cuaderno	88	89	90	91	92	93	94	95	96	97	98	99	100
Capítulo	25	26	27	28	29	30	31	32	33	34	35	36	37

Cuaderno	101	102	103	104	105	106	107	108	109	110	111	112	113
Capítulo	38	39	40	41	42	43	44	45	46	47	48	49	50

Cuaderno	114	115	116	117	118	119	120	121	122	123	124	125	126
Capítulo	51	52	53	54	55	56	57	58	59	60	61	62	63

Cuaderno	127	128	129	130	131	132	133	134	135	136	137
Capítulo	64	65	66	67	68	69	70	71	72	73	74

⁶⁶ Ibarguen eta Cachopínen Kronika honi buruz argitaratu diren lanetan erreferentzia okerrak eman izan dira askotan, koadernoaren eta kapituluaren zenbakiak nahastuta.

⁶⁷ Osorik zein zatika kontserbatzen diren koadernoak zenbakiei zeldatzea beztuz nabarmendu ditugu (71 koaderno). Beste koaderno guztiak desagertuak ditugu oraingoz.

LIBRO TERCERO

Cuaderno	138	139	140	141	142	143	144	145	146	147	148	149	150
Capítulo	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13

Cuaderno	151	152	153	154	155	156	157	158	159	160	161	162	163
Capítulo	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26

Cuaderno	164	165	166	167	168	169	170	171	172	173	174	175	176
Capítulo	27	28	29	30	31	32	33	34	35	36	37	38	39

Cuaderno	177	178	179	180	181	182	183	184
Capítulo	40	41	42	43	44	45	46	47

184 koadernoak hiru liburutan banatzean, koadernook kapitulu izatera igaro ziren eta zenbaki berria jaso (adibidez, 64. koaderno II. liburuko 1. kapitulua da). Honek nahastera eraman ditu *Kronikaren* enkuadernatzaileak eta kustodioak lehenik, eta ikerleak ondoren. Hori dela eta, irakurleak maiz aurkituko ditu desagokitasunak zenbait ikerlek euren lanetan emandako erreferentzietan gure ediziorekin alderatzean.

3.2. Lehen asmoa.

Kronika luze honen egitura bi hari nagusiren gainean eraikia da, denborarena bata eta espazioarena bestea. Denboraren hariari loturik eta hiru multzo edo liburutan banaturik, elkarri jarraika ageri zaizkigu 184 koaderno edo kapituluak. Lehen liburuan munduaren sorreratik Erromako enperadoreen garaira arte (40 urte Kristo aurretik) banatu ziren 63 koaderno. Horietako bakoitzak patriarka edo errege bat du abiapuntu. Noerekin hasi eta Tubalekin jarraitu ondoren, Espainiako kronistika legendarioak ezarritako erregeen segidari lotzen zaio Iburguen eta Cachopínen kronika ere (Ibero, Jubalda, Brigo, Tagorma, Beto, Gerion, Trigemino, Hispalo, Hispano, Hercules Lybio, Hespero, Ítalo Atlas, Sicoro, Sicano, Siceleo, Luso, Sículo, Testa, Romo, Palatuo, Caco, Heritreo, Gargoris, Abidis, ... eta azkenik Escipion gaztea), tartean Espainiak jasan omen zituen inbasioei ere bere koadernoak dedikatuz (fenizioak, grekoak, troiarrak, bandaloak, ...). Bigarren liburuko 74 koadernoek Espainia eta munduko historia aztertuko dute Cesar Augusto enperadoreagandik hasi eta azken errege bisigodoen agintaldira arte. Hirugarren liburuan, azkenik, 47 koadernoek errege asturiarren

agintaritzan, Espainia musulmanen menpean zela, izango dute abiapuntu Felipe II.aren agintaldiarekin bukatzeko.

Bi eten nagusik markatu zuten Cachopínen *Corónica...*: lehenik Erromatarren Inperioaren goraldiak, Jesukristoren jaiotzarekin batera, lehen liburuaren amaiera eta bigarrenaren hasiera ezarriz; eta bigarrenik musulmanen etorrerak, bigarren liburuaren amaiera eta hirugarrenaren hasiera markatuz. Annio de Viterbo⁶⁸ eta besteri jarraiki, antzinako erregeei buruz mintzatzean (greziarren, feniziarren, kartagoarren eta erromatarren balentriak ere tartekatuz) eta segidan errege gotoen agintea goraiatzean, helburu zehatza du historialariak, Espainiako erregeei hari bateratua ematea, alegia. XVI. mendeko monarkia errege gotoen oinordeko zuzena da, eta hauei Ibero, Tagorma eta besteengandik datorkie errege odola, zuzen-zuzenean Tubal eta Noerengandik jaso. Denak zuhaitz bereko enbor dira, eta hortik soilik jasotzen ahal da egiazko noblezia.

3.2.1. Narrazioaren ardatza.

Espazioaren hariari gagozkiolarik, esan dezagun lehen-lehenik XVI. mendean jada Espainiako kronistek Espainia hartzen zutela historiaren ardatz. Esan daiteke Pedro de Medina (1545) historialari sibilarrak izan zela horretan aitzindari, aurreko kronistek Europako inperioak hartzen baitzituzten historiaren gune nagusizat. Iburguen eta Cachopínen kronika honetan ere ageri-agerikoa da Espainia historiaren gune eta eragile nagusi zelako ideia hori. Koaderno guztiek ia egitura bera erakusten dute, munduaren antolamenduaren espiritu bera: koadernoari dagokion garaiko Espainian zer berri zen azalduz hasten dira koaderno gehienak, zein errege zen agintean eta zer-nolako gora-beherak izan zituen agintaldian. Hori guztia oso labur, bi orrialde eskasetan. Segidan Munduari irekitzen zaio begirada, bereziki Troya eta Greziari lehen liburuan, besteak beste, Erroma eta Constantinoplari bigarrenean, eta hirugarrenean inperio otomanoari aparteko tratamendua emango zaio. Ondoren, Elizaren egoerak (bigarren liburuan eta hirugarrenean) eta aitasantu ezberdinen bizipenek hartuko dute koadernoaren agintea. Koadernoaren bukaeran kronistak Bizkaira zuzendu ohi du begirada bertako leinu zaharrei gorazarre egitera, Espainiako erregeen historia eta Bizkaiko

⁶⁸ XV. Mendeko idazle italiar honi buruz berri zehatzagorik izanzen da aurrerago, 55. orrialdean eta faltsifikazioari eskainitako atalean, 84. orrialdean.

zaldun handiena modu batean edo bestean uztartuz. Errekonkistaren garaiko gora-beherak narratzean aitzakia ezin hobeak aurkituko ditu kronistak, Bizkaiko ahaide zahar eta aitoren semeen balentriak direla medio, bizkaitarren handitasuna aldarrikatzeko eta Espainiako erreinuan abangoardia postuak emateko.

Espazioa hiru marko nagusitan antolatzeak Bizkaia Espainiaren barnean eta Munduaren epizentroan kokatzeko aukera ematen dio kronistari. Gorago esan dugun bezala, Espainiako erreinuari dagokion markoa da historiaren eragile nagusia XV. eta XVI. mendeko kroniketan, batez ere Errege Katolikoek garaitik aurrera, Kristau Inperioaren oinordekotzat baitzuten espainiarrek euren burua. Marko espainiar horren erdigunean marko bizkaitarra kokatu zuten Ibarguenek eta Cachopínek, adieraziz, alde batetik, espainiarren benetako esentzia Bizkaian gordea dela, eta, bestetik, bizkaitarrak direla bakarrak Mundua sortu zeneko izaerari eusten, Noek zabaldutako herriaren azken aztarnak direla, alegia. Marko unibertsalera jotzen denean, bestalde, batik bat bizkaitarren iragana ohorez hornitzeko jo ohi zuten gure kronistek: Noeren semeetako bat, Tubal, bizkaitarren aita bihurtu zuten, Troyako guduan heroi izandako kapitain bat, Brutus, euskaldunen odolaz nahastarazi zuten, Grezia handiko buruzagiak Euskal Herrirako etorkin bilakatu zituzten,

Historia Orokorra antolatzeko modu honetan argi ikusten da zein garrantzia handia zuen erromatarrak iritsi aurretiko historiak, nahiz eta gaizki eta gutxi ezagutu. Nazioen sorreraren bila ibili ohi ziren ero-ero kronistak, odolaren garbitasunak ematen zien ardurak estuturik. XVI. mendean, gainera, aberriaren historia hizkuntzaren historiari lotua egon ohi da eta elkarren argigarri dira. Lehen-lehenik historialariek euren buruari galdetu ohi zioten bere ama-hizkuntza zein ote zen, eta erantzuna ez zitekeen gelditu Errekonkistan edo erromatarren konkistan, hauek ez baitziren jatorri aski garbi eta nobleak. Tradizio bibliopatrístikoari jarraiki, antzinako historiografiaren ilunguneetan aurrera egitea lortu zuten eta Tubalenganaino iritsi. Aberriaren jatorria argi ederrez agerrazi nahiak erromatarrak iritsi aurretik iberiar penintsulak zer-nolako egoera bizi izan zuen ikertzera daramatza historialariak, gaur egun ere argitzeke diren arazo asko kausituz (zein herri ziren dominanteak, zein hizkuntza mintzatzen ziren eta non, zein ohitura erlijioso zuten, ...).

Arazo horiei aurre egiteko Anio de Viterbok edo *Beroso faltsuak* argitaratutako Espainiako erregeen kronologia fantastiko bat zuten eskura, eta kronistek erabili egin zuten. Antonio de Viterbo Erromatik hurbil den izen bereko herrian 1432an jaiotako abade baten goitizena da, Giovanni Nanni-rena hain zuzen. Egile honek Berosoren kronika erabili zuen bere asmoetarako eta, hilobietan eta toki ezkutuetan testu berriak aurkitu zituela esanez, Hispaniako kosmogonia osotua sortu zuen (gorago zerrendatu duguna). Viterboren lanak harrera ezin hobea izan zuen eta luze eutsi dio berak proposatutako monarkia mitikoari historialariek izan dioten uste osoak.

Erromatarren dominaziora iristean, ordea, *Kronikak* Erromako Inperioko enperadoreei jarraiki antolatzen ditu koadernoak, enperadore bakoitzak bere koadernoak. Eta 101. koadernoan Espainiako erregeei itzuliko die protagonismoa, errege bisigodoen eskutik, Atanarico delarik lehena.

Ansimismo, determiné de tomar trabajo de mirar e colegir todas las historias antiguas y modernas, y libros y cuadernos estapados y por estanpar, y con esta esaminaçión poner en cada una vida y tiempo de un rey de España lo que hallamos escrito y por más aberiguada verdad y notables hechos desta nuestra casa vizcaína, tomándolo desde su principio hasta los tienpos presentes (II:8).

Bizkaiko eta Euskal Herriko historiari dagokionean⁶⁹, Tubal euskaldunen errege bilakatu da eta ondorioz lurraldeak Tubalia hartuko du izen. Tubaliarrak soroak lantzen hasten direnean lurraldeak Soloria izena izango du eta biztaleek soloro izena hartuko dute. Erromatarrek etortzerako, ordea, Kantabria deituko da lurraldea, “kanta uria” esalditik eratorria. Azkenik, erromatarren aurkako borroketan irabazitako famari esker “biz-Cain” izena irabaziko dute euskaldunek eta hortik Bizkaia deituko da lurraldea. Erdi Aroan sartu bitartean kontakizun

⁶⁹ *Kronikan* maiz bizkaitar euskaldun guztiei deritze eta Bizkaia Euskal Herriari. Guk ere gure azalpenak ematean egileen terminologia horri eutsiko diogu, oro har.

Bizkaia hitzak euskaldunen lurraldea izendatu ohi du batzuetan, oso berandura arte gainera. Larramendik XVIII. mendean: “Este error de llamar Vizcaya a todo el pais vascongado, ha pasado de España a Francia: pues ya modernamente los franceses llaman Vizcaya francesa a baja Navarra, Labort y Zuberoa, con ridícula acomodación, pensando que son equivalentes Cantabria y Vizcaya”, (Larramendi: 1745, XXX).

Erdi Aro bukaeran jada, modernitatean, lurraldetasunak definitzen du pertsona eta ez bere leinuak, jauzi nabarmena gauzatu baitzen *natio gens* kontzeptutik *natio*-renera. Cachopín eta Ibarguen lurraldetasun horri egokitzen saiatuko dira euskaldunak izendatzeko erabiltzen dituzten izenak ematean: Tubalia, Siloria, Cantabria, Vizcaya. Vizcaya hitzak nazio zentzua hartzen du gehienetan eta vascongado eta vizcaíno loturik doaz, gauza bera direla esan daiteke. Vizcaya ta Navarra-ren arteko guduaz hitz egitean, ordea, vascongadoa vizcaínoa da (II: 223).

gehienetan Bizkaia euskaldunen lurralde deritzo eta Kantabria izenarekin batera darabilte gure kronistek. VIII. mendetik aurrera, ordea, Nabarra hitzak bere lurraldea aldarrikatuko du eta Bizkaia “tierra vascongada” izatera igaroko da batzuetan eta Bizkaiko Jaurogoa besteetan.

Beraz, historian alde batera eta bestera jauzi eginez, Espainia, Bizkaia, atzerriko inperioak, Eliza Katolikoa eta, azkenik, Bizkaiko leinuak lehiatuko dira, besteak beste, koadernotik koadernora kronistaren begirunea jasotzen. 65. koadernoak, esate baterako, eredu argigarria eskaintzen digu *Kronikako* koadernoaren egituraz:

Jesukristo bizi izandako urteak dagozkio aipatu koadernoari. Tiberio enperadoreari buruzko zertzelada historikoak azaldu ondoren, Oñez eta Ganboa bandoen sorreraz ariko zaigu, Tiberioren garaian izan omen baitzen (II: 37-40). Segidan Jainkoaren Semearen bizitzari eta bere apostoluei egingo die toki (40-43), handik San Cernin ahotan hartzera igarotzeko. Aipatu santua Jesusen ikasle izan omen zen eta Bizkaia kristautu omen zuen Espainiako ezein lurralde aitzin. Jarraian, bandoen gaiari helduko dio berriro eta euren sorrerari buruzko teoria berriak azalduko (45-50). Hori guztia, euskaldunak guduetan zein prestu eta menderaezin ziren gogoraraziz. Koadernoari amaiera emateko, Bizkaiko zenbait leinu zahar ekarriko ditu orrietara, tartean Ibarguen, euren balentrien berri emanez.

Esan liteke hau dugula *Kronikako* koaderno adierazgarrien prototipoa. Bertan biltzen dira lana inspiratu zuten argudio narratibo nagusiak: leinu eta kristau zahartasuna alde batetik, eta zaldun eta gerlari zailduaren ausardia eta bihotz-zabaltasuna bestetik. Bertakoentzat maitagarria eta atzerritarrentzat etsaia den lurralde batean, antzinako izaera erlijiosoa, bizkaitarren berezko ontasun kristautarra eta euren izaera oldarkorra eta menderakaitza dira Bizkaiko historia berreraikitze ideia eragile nagusiak, ez bakarrik Ibarguen eta Cachopínengan, baizik eta baita garaiko kronistika lokal osoan ere.

(...) dando en ella (esta Istoría) notiçia clara de todas las cosas, poco o mucho, que se an hecho en España desde que se fundó acá, así de bidas de reyes, monarcas y señores della, como de las fundaçiones de las çiudades y gobierno dellas, y de todos los barones de sangre real e ilustres y de balor que en ella ha abido, y de sus notables hechos y armas magnani|mas, y de las hórdenes de caballeros con[....]dores y de su origen, y de las órdenes de [....]les, y de muchos sanctos que a abido [....] de nuestra España y extranos, y de los [philó]sophos y

barones letrados, y de los papas y enperadores, y otra infinidad de cosas de que ay memoria, que se hallarán senbradas por todo el proçeso desta istoria, ansí españolas y estrangeras, como desta nuestra casa vizcaína. Y, en fin, da bien a entender esta crhónica los príncipios y origen de muchos linages de los caballeros de nuestra España, y otras munchas y particulares cosas de casas arneras y sus apellidos y bandos (“Prólogo al lector”, II: 8).

Kronikak bat egiten du Erdi Aroko kronistekin kantauriarren edo euskaldunen irudi fantastikoa eraikitzean: gizon basatia, zakarra, isolatua eta kanpotarrekiko harremanen etsai. Irudi hori historialari erromatarren berri nahasiak oinarri hartuta sortutako fantasia literarioa da, zalantzarik gabe, ezen, gaur egun erraz demostratu daitekeenez⁷⁰, ikerketa arkeologikoetan oinarrituz eta iturri historiografikoen eta euren ingurumariaren azterketa sakona eginez, euskaldunek eta erromatarrek harreman gutxi izan ohi zuten eta izandakoek elkarlan administratiboa eta komertziala zuten ardatz.

Hastapenetako asmo handizale hura bete ahal izateko Cachopínek bibliografia mordoa aztertu beharra zuen eta han-hemenka jasotako materialak prozesatu eta antolatu. Horrez gain, Iburguenek bildutako materialei ere toki egin behar zien koadernoaz koaderno eta koadernoaren osotasunean hari narratibo logiko eta orekatuan sartu. Ez da lan erraza.

3.3. Bigarren fasea: material tratatugabeak.

Zergatik ez dakigula, agian heriotzak hala agindu ziolako, Cachopínek eten egin zuen erredakzio prozesua 1598 urtea baino lehentxoago⁷¹ eta Iburguenen eskutan utzi ordura arte osatutakoa. Baina lehen erredakzio horri erantsita jatorri anitzeko hainbat material ere jaso zituen Iburguenek. Material hauek Kronikaren narrazio naturalean txertatu gabe ageri zaizkigu, prozesatu gabe, alegia. Iburguen ez zen gai izan lan hori burutzeko, batetik zaila zelako material eskuratu berriak koadernoetan era naturalean txertatzea, eta bestetik, gure susmoen arabera, Iburguenek ez zuelako oso luma jaioa kronista lanetarako.

Besterik egin ezinean, Iburguenek gehitu egin zituen material horietako asko bere eskuetara iritsi bezala, bere kabuz jasotako beste batzuk ere erantsiz.

⁷⁰ Javier Arcek, Madrileko CSIC-eko adituak, 1999an Donostiako KMn emandako hitzaldi batean (“Vascones y romanos: las deformaciones de la historiografía antigua”) pausuz pausuz hustu zituen mito horren inguruan izan diren ustezko lekukotasunak.

⁷¹ Cachopínek Felipe I.aren inguruko berri ugari jaso zuen; ez zen, ordea, bere heriotza narratzera iritsi.

Hauetako gehienak Iburguenenak ez diren esku ezberdinez emanak dira, estilo aldetik ere bereizgarri, eta gutxi batzuk Ibarruriko eskribauaren eskuak kopiatutakoak dira. Bere semeak ere hainbat urtez jardun zuen material berrien bilketa lanetan eta bere eskuetara “amaitu gabe” igaro zen lana osatu nahian.

Erantsitako material horiek gehienek batzuetan ageri-agerian eta beste batzuetan igartzeko moduan dute zein izan zuten egile. Hona hemen aipatu materialak zerrendatuta:

3.3.1. “Tratados de geografía, astrología, meteorología e hidrología”⁷².

Bigarren koadernotik 16.enera bitartean barreiaturik erantsitako tratatu laburrak dira, gure ustetan haietako batzuk Cachopínek erredaktatuak⁷³. Esan beharra dago koaderno horietako asko (2., 5., 6., 7., 8., 10., 12., 14., 15. eta 16.a) desagertuak ditugula, baina kontserbatzen diren koadernoetan zein aurkibidean horiei buruz ematen diren erreferentzietan aski informazio aurki dezakegu euren edukiaren nondik-norakoak jakiteko.

Darabilzkiten gaiak zabalak dira eta aldi berean zehatzak. Errenazimenduko pentsamenduan garrantzia handia hartu zuten gaiak dira:

- Geografia: Asia, Afrika eta Europako nazioen deskribapen fisiko eta politikoa (I: 128-145, 149-152).
- Munduaren sorrera (I: 164-169).
- Itsasoan zehar nabigatzeko gida (I: 169-174).
- Denbora eta meteorología (I: 174-181).

Gaiotarako iturri nagusi San Isidoro, Chaves, Ovidio eta hainbat idazle klasiko greziar eta erromatar ditugu. Ez dirudi material hauek guztiak batera erredaktatuak izan zirenik, baina ziur gaude *Kronikaren* erredakzio prozesuan azkenetakoak direla, lanaren lerroetan miatuta irakur daitekeenagatik:

Y la sesta edad comenzó en el santísimo nacimiento de nuestro Señor Jesucristo, ya que dura este interbalo hasta agora que esto se escribe, que es año de mill y seisçientos y tres años. (I: 171)

Azpimarratzea merezi du, zalantzarik gabe, adibideak ematean Andaluziako lurra eta zerua aipatzen dituela behin eta berriro, agerian utziz

⁷² Titulua guk jarria da.

⁷³ Idazkera berea den jakiterik ez daukagu.

egileek lur horrekiko zuten lotura eta jatorrizko lana andaluziar batek egina dela. Euskarari egindako erreferentzia labur bat ere irakur daiteke (I:144).

3.3.2. “Historia de los Xarifes de Marruecos”.

20. koadernotik 25. enera bitartean banaturik erantsitako materialek tratatu bakarra osatzen dute, nahiz soilik 22. eta 25. koadernoetako materialak kontserbatzen diren⁷⁴. Idazkera berria da orain arte aztertutakoen aldean, Iburguenek erabiltzen zuenaren antzekoa, prozesala, baina zainduagoa eta ezberdintasun nabarmen batekin: u erabiltzen du y eta b-ren balioarekin. Hala ere, zenbait foliotan Iburguenen eskua ere antzeman daiteke.

Estiloa Cachopína da, erlatibozko esaldien tajukeran eta diskurtsoaren loturetan igarri daitekeenez. Marocko-ko Xarife Handiaren eta Xarife Txikiaren arteko liskar eta gora-beherak kontatzen ditu, tartean Marrakech-eko Erregea ere badela, XVI. mendearen lehen urteetan hasi eta 1574 urtera arte luzatzen den narrazioan.

3.3.3. Graçia Dei-ren genealogiak.

Hainbat koadernori erantsitako material multzo honek, esku ezberdinez eta paper mota diferenteetan emana bada ere⁷⁵, jatorriz egile bat bakarra du: Graçia Dei izeneko arma-erregea. Poeta gaztelar hau Aragoiko Juanen gortean izan zen, berau Nafarroako errege zela (1425-1476). Baina bere lanik gehienak Gaztelako Juan II.aren eta Isabel II.aren agindupean burutu zituen (1474-1504)⁷⁶. Aragoiko Alonso dukeak, Aragoiko Juan erregearen seme sasikoak, hazi zuen 16 urtetik 25era bitartean. Bere lanik aipagarrienak honako hauek dira: *La crianza y virtuosa doctrina*, bersoz idatzitakoa, zeinen eskuizkribua BN-en dagoen, eta *Blasón*

⁷⁴ BFAn L-53 tomoan gordeirik den 25. koaderno honek oker emana du titulua, “cuaderno 155” jarri baitzion izenburu obraren koadernatzaileak.

⁷⁵ Idazkeren artean deigarria da bere edertasunagatik kortean oso ohikoa zen letra italikoa, zuzena eta laburdura gutxirekin. Hala ere, idazkera prozesala ere ageri da tarteka eta Iburguenen oharrek ere sarri irakur daitezke, ertzetan idatzita. Papera ona da eta lumaren arrastoa fina; honek bere iraupena ziurtatu du. Bestalde, eta bitxikeria moduan, esatea merezi du testuen idazleak tartekak utzi zituela paperean zuri, geroago bertan leinuaren armarría marrazteko edo. Izan ere, azken hamarkadetan zehar baten batek, kurioso-kurioso, egileak deskribatutako armarríen marrazkia osatu eta erantsi die testuei koartila txiki banatan. Tituluak tinta gorritz datoz, eta, arestian aipatutako marrazkiak bezala, eskuizkribua Foru Artxiboaren zaintzaperara igaro ondoren burutu ziren.

⁷⁶ Honen berri zehatzagoa poetak berak damaigu, II:311. Bigarren liburu honen 331. orrialdean ere bere familiari buruzko datuak aurki daitezke (Sotomayor).

general y nobleza del universo (1495). Azken lan honetatik jasoak dira, ziur aski, *Kronikarako* aukeratu ziren materialak.

Testu labur samarrak dira, Espainiako leinu garrantzitsuenen armak eta deiturak goraiatzea helburu dutenak. Estiloa iluna eta nahasia da, eta sarritan gaizki ebakitako esaldiak edo bukatu gabeak kausitzen dira. Kopistek izan ohi zituzten akats nabarmenak ere ugari dira.

Honako koaderno hauetan aurkituko ditugu material hauek: 27, 28, 30.

3.3.4. Iturri ezezagun eta ezberdineko genealogiak.

Multzo honetan sartu ditugun materialak paper solteak dira gehien bat, oso jatorri desberdinekoak. Iburguenen eskuak transkribatuak datozkigu asko, baina ugari dira guretzat ezezagunak diren idazkerez emanak.

Badirudi Iburguenek eta bere ondorengoek irizpide argirik gabe pilatu zituztela hainbat koadernoren atzean. Zehazki honako koaderno hauetan aurkituko ditu irakurleak mota horretako materialak: 32, 33, 34, 35, 36, 40, 43, 44, 56, 58, 59, 62, 63, 64, 68, 71, 72, 74, 75, 123,

Hauetako paper batzuk 1521 urtean idatzitako lan batetik atereak dira⁷⁷ eta beste batzuk 1525 urtean idatziak direla dirudi⁷⁸. Sibiliako egileren batek idatziak dira eta hasitako lana Iburguenek bukatuko du segidan, egileak emandako erreguei jarraiki:

...que otros más moços que yo cuando fueren viejos añadan en este papel los que en este título (almirantes de la armada española) suçedieron... (399).

Oro har, paper hauek kopista akatsez josiak ageri dira eta askotan jatorrizko testuaren mutilazioak antzematen dira.

Jatorrizko testu horiek oso estilo ezberdinekoak dira eta zaila zaigu zehaztea edo asmatzea zein duten egile. Horregatik, egileek bezala, anabasean eman ditugu. Hauetako testu batzuk XV. mendearen bukaera aldera idatzi ziren, beste batzuk, ordea, XVII.aren hasieran. Erabilitako iturrien artean badira Bizkaia eta bertako leinuak ongi ezagutzen dituztenak eta baita kanpokoak ere. Iburguenen suhi Fernando de Ocaren testuak ere aurki daitezke.

⁷⁷ Ikus I: 399.

⁷⁸ I: 408.

3.3.5. “Hallazgo de reliquias en Valparaiso de Granada (1595)”, (43. koaderno, I: 537-540).

Inprentaz emandako artikulua da, Granadan aurkitutako erlikia eta berunezko plantxei buruz mintzatzen dena, azken hauek latinez, arabieraz eta gazteleraz idatziak. Ez dakarte egilearen izenik, nahiz bukaeran non inprimatua den esaten den. Caro Barojak⁷⁹ dioenez, iritzirik zabalduenaren arabera, Miguel de Luna eta Alonso del Castillo dira testu guztien egileak.

Felipe II.aren agintaldiaren azken urteetan, urte gatazkatsu eta nahasiak, eta batik bat Granadako Torre Turpiana-n izandako balizko aurkikuntzen ondoren (1588), erlikia eta berunen aurkikuntzen albisteak ugaltu egin ziren eta eragin handia izan zuten, ez bakarrik Granada hiriko bizitzan, baizik eta baita Elizarenean ere, oro har. Artikulu hau (1595) bat gehiago da garai hartan argitaratu zirenen artean.

3.3.6. “Noticia de las inundaciones acaecidas en Bilbao en 1593”, 43. koaderno (I: 541-549).

1593an Bilbon izandako uholdeei buruzko artikulua zehatz hau ere inprenta moldeaz emana da. Juan de Mongastonek idatzia delakoan gaude, BNen gordetzen den beste kopia batek honako titulua baitarama: *El espantoso y doloroso diluvio que en la villa de Bilbao ha sucedido con los demas pueblos comarcanos, que a las orillas del rio estan fundados, en este año de 1593 a veynte y dos dias de Setiembre, que duro su impetu desde media noche de Sant Matheo hasta medio dia que empezo a menguar. Compuesto por Iuan de Mongaston official en el arte de la imprenta, natural de Ixea de Cornago, en este año de 1593.* Bilbon inprimatu zuen Pedro Cole de Ibarra-k.

Gertakariak aski garrantzia zuen berez *Kronikan* aipatu eta kontatua izateko, baina gainera azpimarratzekoa da artikuluan Antonio González de Butrón y Múxica-ren izena agertzea, uholdean kalteturik gertatu zirenen laguntzaile eta ongile. Gogora dezagun *Kronika* Butroi-Muxikako jaunari dedikatua dela, hain zuzen ere.

⁷⁹ Caro Baroja, J., 1992, *Las falsificaciones de la Historia*, Seiz Barral, Barcelona, 115-160 oo.

3.3.7. “Libro de los Diálogos y Coloquios Matrimoniales de Pedro de Luxán” (43. koadernoan, I: 550-551).

Bi orrialdetan laburturik, gure kronistek Pedro de Luxan-en *Coloquios Matrimoniales* izeneko lanaren zati batzuk jaso zituzten. *Coloquios matrimoniales del licenciado Pedro de Luxan en los quales se tracta, como se ha de auer entresi los Casados: y conseruar la paz. Criar sus hijos y gouernar su casa. Tocase muy agradables sentencias, dichos y hechos, leyes y costumbres antiguas...* Hau da zehazkiago aipatu lanaren jatorrizko izenburua, eta *Kronikan* azken puntuari buruzko aipuak jasotzen dira. Lan honen lehen edizioa Sibilian egin zen 1550ean.

Testu hauek jasotzen dituzten folioak, Ibarguenen eskuz emanak, 59. koadernoaren bukaeran koadernaturik ageri dira, baina “Abecedario II”-n argi adierazten da 43. koadernoari erantsi zitzaizkiola jatorriz. Zail da asmatzen zerk bultzatu zituen gure kronistak testu hauek *Kronikari* eranstera, gustu kontuak ez badira, edo agian Ladrón de Guevara-ri egiten zaion aipamena.

3.3.8. “Trabajos de Hércules que compiló don Enrique de Villena” (43. koadernoan, I: 551-553).

Enrique de Villena-ren (1384-1434) *Los Trabajos de Hércules* izeneko lanari ere eskaini zizkioten zenbait folio. L-50 tomoaren bukaeran koadernatu zituen Iturrizak, baina bere lekua 43. koadernoan behar luke.

3.3.9. “Guerra de bandos de Oñez y Gamboa”.

Oñez eta Ganboaren arteko liskarrek eta gora-beherek, ulertzekoa den bezala, tratamendu berezia jaso zuten *Corónica Universal Española y Sumaria de la Cassa Vizcaína* honetan, luze eta sakon aztertu baitzituzten aro horretako zenbait gertakari. Hala ere, *Kronikaren* harian emandakoaz gain, bi multzotan bereizi ditugun material batzuk ere gehitu zituzten gerora, *Kronikaren* hezurdura osatu ostean. Multzook bereizterakoan ezin argiagoak dira irizpideak, oso iturburu desberdineko materialak direlako, esku ezberdinek idatziak direlako, eta, azkenik, garai desberdinetan osatuak direlako.

a) 43. koadernoko materialak (I: 554-566);

BFAko L-50 tomoaren bukaeran folio ugari aurkitzen da, aski egoera txarrean, nahasian pilaturik. Horien artean Oñez eta Ganboa leinuen arteko borrokei buruzko narrazio luzea osatzen duten hainbat folio atzeman daitezke. Folio hauetan, hain zuzen, gorde dira orain gutxira arte ezezagunak ziren kanta zahar batzuk. Gure ustez testu hauek Iburguenek jaso eta kopiatu zituen 1574. urte inguruan idatzitako lan batetik (Iburguenek berak osatu zituela baztertu gabe). Nolanahi ere, lantxo honetan ez da ikusten Cachopínen partaidetzaren arrastorik.

Gorago aurkeztutako zenbait materialen kasuan bezalaxe, oraingo honetan ere “Abecedario II”-en autoreek emandako argibideak aintzakotzat hartuta kokatu ditugu material hauek 43. koadernoan.

b) 77. (II: 154-160) eta 79. (II: 180-187) koadernoak.

Egun desagertua dugun 78. koadernoan bildu bide zirenekin batera, kontakizun bilduma honek aurrekoaren osagarri dela ematen du. BNeko 11.760 signatura daraman tomoan gorderik daude, 334. foliotik 248.era.

Esku ezezagun batek, Fernando de Ocarerak agian, 1444. urtetik 1460.era bitartean oñeztarrek eta ganboarrek izandako gorabeherak kontatzen ditu, gehienak Lope Garcia Salazar-en *Bienandanzas e Fortunas*-etik jasoak. Testu hauen tartean, hain zuzen, gehitu ziren “Arrasateko Erreketaren Kantu” ospetsuak.

Ertzetan datozen oharrak eta testuen izenburuak Iburguenen semeak, Juan Iburguen Oca, idatziak dira, baina ez zen bera izan kantuak idatzi zituena⁸⁰. Nolanahi ere, ziur gaude oso hurbilekoa zuela kantuon transkribatzailea.

Azkenik, esan behar da testu hauek 79. koadernoan kokatu behar direla, eta ez 19.ean, aipatu kantuei buruz hitz eginez argitaratutako zenbait lanetan adierazi izan den bezala, Lezama Leguizamón-ek (1921:44) emandako erreferentzia okerrak hartuta, ezta 159.ean ere, Mitxelenak (TAV: 81-88) uste bezala. Egileek osatutako aurkibideak aztertuz gero, ondorio horretara iritsi behar nahitaez.

3.3.9. Bartolomé de Carranza, Toledoko artzapezpikuaren kasua (54. koadernoan: 604-635).

⁸⁰ Aitortu behar da Iburguen aita-semeek oso antzerakoa dutela idazkera eta zalantza handiekin diogula Iburguen semea dela lerro horien egilea. Idaztean semeak toki gehiago hartu ohi zuen paperean aitik baino, eta hitzen arteko lotura-marra gehixeago luzatu ohi zuen; horrek bultzatu gaitu bere aldeko hautua egitera.

Esku ezezagun batek alde bietatik 27 foliotan idatzitako gehigarri bat da, zeinetan irakurri baitaitezke Bartolome de Carranzak Felipe II.ari idatzitako gutun bat, Inkisizioarekin izandako auzian Aita Sainduak emandako epaiaren kopia eta artzapezpikuaren beraren lanen aukeraketa.

Bartolome de Carranzaren karrera oparoak (Miranda de Arga, 1503 – Erroma, 1576) 1558an jo zuen gailurra Toledoko artzapezpiku izendatu zutenean. Baina 1559an bere *Comentarios sobre el catecismo romano* izeneko lana agertzearekin batera Espainiako Inkisizioak prozesua ireki zion egileari luteranismoa leporatuz. 1576ra arte luzatu zen auzia, urte horretan hil baitzen Carranza, hamazazpi urtez Inkisizioak preso izan ondoren. Urte hauetan zehar prozesua Aita Sainduaren bulegoetan egon zen geldirik, erabaki ezinik fray Bartolome herese izan ote zitekeen fray Bartolome berak jakin gabe.

Azkenean, Felipe II.aren partehartzea tarteko, Gregorio XIII.ak *vehementer suspectus de haeresi* deklaratu zuen artzapezpikua eta barkamenaren atea ireki zion.

Zalantzarik gabe, prozesuak izandako entzute handiak, egileek zuten kristau kontzientziarekin batera, nahitaezko egin zuten *Kronikan* kasuari buruzko txostena eranstea, ordurako zentoi itxura hartzen hasia baitzen Cachopín eta Iburguenen lana.

3.3.10. Juan de Amiax, 1608, Ramillete de nuestra señora de Codés del reino de Navarra... (63. koaderno, I: 704-727).

1605ean Juan de Amiax jaunak, bere sendakuntzan Ama Birjinaren laguntza eskertu nahian, Kalagurrako apezpikuari baimena eskatu zion Codés-eko Amari buruz idazteko, haren mirarien eta apezpiku-barrutiko santu eta erlikien berri emanaz. Iruñean eman zuen argitara bere liburuska 1608an.

Antza denez, Iburguen semeari *Kronikan* aipatu lan horren kopia bat eranstea otu zitzaion, orri formato txikian, aparteko koaderno bat bailitzan.

3.3.11. “Población de Vizcaya”. 64. koaderno (II, 24-28)

Ezezaguna zaigun esku batek idatziak, 64. koadernoari lan ezezagun batetik jasotako narrazioa erantsi zioten lau foliotan transkribatua. Gaia aski ohikoa dugu garaiko kroniketan: Bizkaiko lehenbiziko jaunen jatorria eta ibiliak.

Cachopínen estilotik urruti den kontatzeko eraz idatzia da: esaldiak laburragoak dira, ez du horrenbeste gerundio formarik ez erlatibo katerik eta ekintza da deskribapenaren ardatza.

Testu honetan Rodrigo Mendez Silva genealogistaren aipamena egiten da, zeinen lanak XVII. mendearen erdialdean eman baitziren argitara. Esan liteke, beraz, folio hauek oso berandu erantsitakoak direla.

3.3.12. “Caso del fiscal Juan García”. 74. koaderno (II: 127-128).

Juan García fiskalaren eta Bizkaiko Jaurgoaren arteko kasuari buruzko txosten luze samarra erantsi zioten egileek 74. koadernoari, alde bien arteko hika-mikak bete-betean ukitzen baitzituen euren kontzientziak. Hasteko, Bizkaiko Jaurgoak Felipe II.ari eta Erret Kontseiluari igorritako gutun bana transkribatzen zaigu, 1589ko irailaren 16an Simon Barrutiak sinatuak, non García fiskalak bere *Nobleza de España* izeneko lanean isuritako irainen aurrean bere haserrea agertzen baitu. Segidan, Erregek emandako erantzuna kopiatzen zaigu, non, bizkaitarren lasaitasunerako, aipatu liburuko hainbat zati ezabatzeko edota zuzentzeko agindua ematen baita.

3.3.13. Historia de Navarra. Cuaderno 81 (II: 207-214) y cuaderno 82 (II: 220-225).

Plegu-laurdenaren tamainan idatzitako folioek osatutako bi koadernotxo dira, antza denez, Ibarguenek idatziak. Koadernotxook lan bakarraren zati dira eta Nafarroako Erreinuaren historia laburtzea osatzen dute, Erdi Aroko zenbait arori dagokiona, eta bereziki bizkaitarrekin izandako harremanak azpimarratzen ditu.

3.3.14. “Matrícula de las merindades de Vizcaya” (83. koaderno, II:229-232).

L-53 tomoan datoz gai honi dagozkion folioak, 161. koadernoaren barnean sartuak. Merindadeek Jaurgoari etxe bakoitzeko ordaindu beharrekoa zehazturik ematen du aditzera, horri baitzeritzan “matrikula”. Hala ere, esan beharra dago egileek *Kronika* osatzean fogerazioari buruzko datu zehatzagoak eman zizkigutela 77. 79. 80, 81 eta 82 koadernoetan zehar.

3.3.15. “Memoria de las casas principales que hay en el Señorío y sus Encartaciones y Ayala” de Tomás de Goicolea. (91. koaderno, II: 261-263)

Koaderno honetan erreproduzitzen den jauretxeen zerrenda Tomas de Goikolea idazle bizkaitarraren lan batetik jaso da, *Memoria de las casas principales que hay en el Señorío y sus Encartaciones y Ayala*-tik alegia, antzadenez, 1525ean Juan Arteta izeneko zaldun Sibiliar batek enkargatuta Sibilian idatzitako genealogia lana. Beherago aipatuko dugun artikuluan batean Truebak dioenez, Tomas Goicoleak hirurogei urte aurreragotik jada Bizkaiko Jaurgoaren kontuetan ibilia zen lanean, eta 1526an Foruaren berritzea onartu zuen Batzar Nagusian egon zen.

Lerro hauek kopiatu zituen eskua ez da Ibarguenena, beranduago idatzitakoak baitirudite, XVII. mendearen hasieran *Kronikari* gehitutakoak ziur asko.

Zerrenda hau beratu Labayruk ere jaso zuen *Historia de Vizcayan*⁸¹, baina Oñez eta Ganboa taldeak nahastu egin zituen: Bizkaiko Jaurgoari eskainitako kapituluan “bando gamboíno” dioten tokian “bando oñacino” esan behar zuen, eta alderantziz. Handik urte batzuetara, Antonio de Truebak eman zuen zerrenda hau argitara *Euskal-Erria* aldizkarian⁸², dirudienez, Labayruk eman bertsoan oinarrituz. *Kronikak* dakarren bertsoa ezberdin samarra da: laburtuago dator eta izenen bat edo beste falta du.

3.3.16. Hiztegi txikiak edo “vocabularios”.

Esana dugu Madrilgo BN-eko eskuizkribu saileko 11.760 tomoan gordetako paperen artean Juan Carlos Guerrak *Kronikari* zegozkion materialak atzeman zituela 1883an, guztiak ere anabasa handian koadernatuak. Material horien artean hiztegi edo bokabulario txiki batzuk aurki zitezkeen, aski interesgarriak, baina 1983an Ibon Sarasolak haietako bi argitara eman zituen arte ez zien inork seriozki erreparatuko⁸³.

Hiztegitxook orri txikietan idatziak datoz, *Kronikan* ez ohiko euskarrian. Aski ongi kontserbatuak daude, eta, noren eskuak idatziak diren esaterik ez

⁸¹ II. tomoa, 490 o.

⁸² 15. tomoa, 2. seih., 1886: 525-528 oo.

⁸³ Sarasola I., 1983, “Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos”, *ASJU* XVII (1983), Donosita, 69-212 (geroago: *Anejos del ASJU*, XI (1990), 295-307.

badugu ere, irakurtzen errazak dira. Bestalde, “Índice de nombres ...” deritzonean hiztegi hauei buruzko aipua Iburguenen semeak sartua da, I hizkiari eskainitako kapituluan, aitak idatzitako sarreraren atzetik. Honek guztiak argi adierazten du hiztegi txiki hauek oso berandu erantsi zitzaizkiola *Kronikari*, hau da, XVII. mendearen hasierako urteren batean.

a) “Vocabulario I” (84. koaderno, II: 235-238).

Hiztegitxo honetan 100 euskal hitz inguru zenbatu daiteke, gaztelera-euskara formatoan emanak eta esanahiaren arabera eremu semantikoetan bilduak: gorputz-atalak, jantziak, baso-mendietako gaia, fruituak, arrainak, abereak, aberekiak, eta zenbait esamolde.

b) “Vocabulario II” (84. koaderno, II: 239-244).

Beste honetan 150 bat hitz biltzen dira, aurreko hiztegitxoan datozen guztiak barne direla. Oraingo honetan, ordea, a-tik z-ra ordenatutako taldetan zerrendatu ziren hitzak, euskara-gaztelera formatoan.

c) “Vocabulario III” (176 koaderno, III: 305).

Hiztegia baino gehiago, izenen eta etimologiaren zerrenda txiki bat da. 460tik 461era zenbatutako folio bitan, Baltasar de Echave idazlearen aipamen xume bat tartean dela, norbaitek euskal jatorria duketen izen batzuk bildu zituen ondoren gaztelera-azalpena emanez. Izan ere, Baltasar Etxabekoak bere lanean garatua zuen metodo bitxi bat, zeinetan, irudimen handiko etimologiaren bitartez, munduko toki askoren izenak euskal jatorria duela erakusten baita. Hiztegi txiki honen egilea metodo horri darraiola dirudi, eta etimologia berriak proposatzen dizkigu. Orri hauetan bada beste datu enigmatiko bat ere, hain zuzen ere *Libro Pequeño de Vizcaya* deritzon liburu bat, nondik, antza denez, jaso baitziren hiztegi honetako izenak.

3.3.17. Historia y relación verdadera ... exequias ... Reina de España doña Isabel de Valois nuestra Señora ... (177 koaderno, III: 309-330).

Ezezagun zaigun esku batek kopiatua, Juan López de Hoyos-en (1511-1583) *Historia y relación verdadera de la enfermedad, felicísimo tránsito, y sumptuosas exequias funebres de la Serenísima Reina de España doña Isabel de Valois nuestra*

Señora : con los sermones, letras, epitaphios a su tumulo ... izeneko lana erantsi zioten *Kronikari* aipatu koadernoan, ziurrenik pertsonaiak bere garaian piztu ohi zuen lilurak eraginda. Lan hau Madrilan inprimatu zen 1569 urtean Pierres Cosin-en etxean. Gure egileak lan hau *Kronikan* sartzera bultzatu bide zituen arrazoietarik bat izan daiteke, gure ustez, lanean aipatzen dela, laburki bada ere, euskaldunen ohitura bat, hain zuzen ere, ahaideen heriotzagatik egin ohi ziren erostei dagokiena (III: 309).

3.3.18. “El linaje de los Girones”, 123 koaderno (II: 481-501).

20 folio baino gehiagoko tratatu luzea dugu hau, eta Giron familia du protagonista nagusi eta ia bakar. 120 eta 122 koadernoetan familia berberari eskainitako lerro ugari kausitu genituen, baina orduko haietan testuinguruan kokatuak eta Cachopínen lumatik sortuak. Koaderno honetan irakur daitekeen testuak, ordea, ez ditu Cachopínen prosaren berezitasun estilistiko eta linguistikoak. Gure ustetan Ibarguenek, berea baita idazten duen eskua, zuzenean kopiatu zuen garai hartan Giron etxeari buruz idatzi ziren obra ugarietako batetik. Testuaren irakurketatik erakar daitekeen datu bakarra zera da, lan hau Ambrosio de Morales-ek bere lan handia osatu ondoren idatzi zela, hau da, 1586az geroztik.

4. ESTILOA eta ITURRIAK.

4.1. Cachopínen estiloa

Ez dabil Cachopín estilo pertsonal baten bila, estiloa bere baitara barneratzen nabaritzen baitugu *Kronikak* aurrera egin ahala, modo bateko eta besteko idazkerez zipriztindua. Anitza da bere estiloa, nahasia nahi bada. Amado Alonsok eman digu ideia hori argitzeko bidea:

No hay estilo individual que no incluya en su constitución misma el hablar común de sus prójimos en el idioma, el curso de las ideas reinantes, la condición histórico cultural de su pueblo y de su tiempo.⁸⁴

Esan dugu ez dakigula askorik Cachopínen bizitzari buruz, baina lehen begiratuan bi kontatzeko modu ezberdin atzematen ditu irakurleak: alde batetik administrazio publikoan eskribauek erabili ohi zuten sintaxi nahasi eta astuna, eta bestetik hainbat pasarte historikotan protagonista izandako lagunengandik jasotako hizkera bizi eta naturala. Azken honen adibide argi Gibraltarreko setioari buruzko kontakizuna dugu (II: 327-403), non Cachopín bera ere egon zen Barrantes Maldonado lagunarekin batera; pasarte honetan narrazioa bizia da, zuzena eta zehatza, momentuko larritasuna eta izua ederki transmititzen duena.

Cachopínen estiloaren ezaugarrietako bat ideiak ahalik eta argien azaltzeko gogo bizia da, gertaera eta ideiak ulergarritasunez adierazteko ahalegina, eta horretarako maiz emango dizkigu azalpen etimologikoak eta sinonimoen bitartez testuari argi ematen saiatuko da. Oro har, zerrendatzerako joera nabarmena du, baina, sarri lortzen ez badu ere, saiatuko da irakurlearen asperdura ekiditen:

(...) ay infinidad de baras y alguaziles en Sevilla de otros diferentes juzgados, que por ser tantos y ebitando largueza no los cuento, más de dezir que la çiudad toda es llena alguaçiles y baras de justiçia (II: 556).

Beste batzuetan, ordea, gehiegi luzatu dela eta gogaikarri gertatzen ari dela ohartuta, barkamena eskatzen duela dirudi:

Y con lo dicho, que me parece basta por agora, dexaremos de tratar más deste región de África, (I: 132).

⁸⁴ Amado Alonso, 1951, *Poesía y estilo de Pablo Neruda*, Buenos Aires, Sudamericana, 187 or.

..., donde ablamos de la isla de Çisilia, refiriéndome a ello aquí, no trataremos más dello, ebitando proloxidad. (I:144).

... para el que fuere bascongado los pongo, contentándome con sólo ellos, ebitando largueza inportuna de los demás, ... (II: 90).

Idazkera distirarik gabekoa da, oro har; hala ere badira pasarte biziak, intrigaz eta emozioz beteak. Garaiko kronisten sintaxia darabil, bat beste baten atzetik erlatiboazko esaldiak pilatuz, narrazioa toki eta pertsonaia berrietara igaroaraziz (“el cual ...”, “en donde ...”, eta abar). Ondorioz, ugari dira esaldi luzeak, latinaren sintaxitik hurbil, diskursoaren haria galtzeko arriskuan jartzen dutenak. Badirudi erredaktatzeko moduan dagoela sintaxi bihur honen arrazoia, ematen baitu egilea ahoz diktatzen ari zaiola eskribauari:

Sobre lo cual dize que los de Hetroria lo contradixeron 327 años antes de la venida del Mexias a nos salbar, pero que no les aprobechó nada porque, luego que los romanos sujetaron a la gran çiudad y probinçia cartaginensa y metieron sus armas en las regiones de Gresia y de Asia, a todos ellos les mandaron lo mesmo, que no hablasen y escriviesen y usasen la dicha lengua latina, la cual lengua romana nunca pudieron alterar ni desarraigat los septentrionales godos, bándalos ni alanos con su dominación 300 años pasados, aunque es verdad que tan sólomente dexaron en España rastro de su lengua çinbrica en algunos muy pocos nonbres de cosas y también los nonbres de algunos reyes, e no en más efetos (II: 135).

Guztiarekin ere, Cachopínen estiloaren ezaugarriarik garrantzitsuena bere lanarekin duen inplikazio pertsonala da. Maiz agertzen da egilearen “ni”-a, narrazioari hurbiltasuna emanez, egiazkotasuna:

..., e acuérdome yo muy bien que en confirmación de lo dicho haber oido dezir por verdad al doctor Arzilla, que fue oidor del Consejo Supremo de su Real Magestad, (II: 89).

Zenbaitetan apaltasunez ageri zaigu bere ezjakintasuna aitortzen:

Todos guardan soberano silencio entre sí mismos y hazen bida santa, que, por no ser yo capaz para contarlo esto y otras muchas cossas desta santa cassa y sus monjes, lo dexo (II: 631).

..., deste nonbre y apellido de Urigoen ay muchos fuera de Vizcaya, así en la probinçia de Guipúzcoa como en la de Álaba, y aún en Balladolid y en otras partes de Castilla, cuya dependençia yo no afirmo de dónde bienen, mas que sé dezir que en la de Guipúzcoa, en el balle d’Escoriaça, en una sierra sobre la misma puebla de Escoriaça, ay una cassa y molino que llaman Urigoen (II: 469).

... y no usan los deste apellido de las armas antiguas que abemos nonbrado arriba, la cual razón yo no puedo entender ni pensar por qué sea (II: 352).

Hala ere, zalantzaren unean ederki daki pisuzko egileen itzalera hurbiltzen:

..., pero yo me arrimo a lo que dize Diego Calderón de Belamino sobre don fray Gonçalo de Redondo, prior de Bohada, en que dize, como contaré adelante en el libro 3, capítulo 29 desta istoria (II: 427).

Bestetan, ordea, bere burua besteen gaisetarik jarri eta ironiaz beteriko kritikak egiteko gai da:

Por lo cual me he querido cansar un poco en escribir lo uno y lo otro para que el letor vea la confusión en que los autores ponen a las gentes por herrarse en sus scripturas por dolo o por hierro de toma o por lo que ellos se saben. III: 151

Nabaria da, beraz, Cachopínek *Kronikari* eman dion ukitu pertsonala, eta irakurlearen ikuspegitik oso eskertzekoa, autorearen agerraldien bitartez irakurlearen presentzia ere bultzatu nahi dela baitirudi. Egilearen presentziak genero historiografikoari zurruntasuna kentzen dio eta egia borobilik ez dela gogorarazten irakurleari, berak ere baduela zer esanik.

Ibarguen-Cachopín Kronika kronistikaren edo historiografiaren tradizio alfonsotarrean kokatu beharko genuke, aldeak alde eta distantziak distantzia. Ana M. Marínek (1992: XVII-XX) García Salazarren *Bienandanzas*-en edizioan laburbildutako analisisa kontuan izanda egin dugu baieztapen hori:

En el siglo XV encontramos un panorama muy variado dentro del género historiográfico. Junto con la crónica real, convive la historiografía no oficial, donde la figura del rey no es el único punto de referencia. El género de la crónica real, que, en opinión de M. García, fue asentado por Alfonso X, se definiría como “relato cronológico, con indicación de fechas, de los acontecimientos ocurridos a lo largo de un reinado y cuyo hilo es proporcionado por la actuación del propio rey”.⁸⁵ Frente a ella, los puntos de mira se desplazan ahora hacia el caballero y la caballería se convierte en la expresión de las aspiraciones de la nobleza.

Ibarguen-Cachopínen narrazioa ere erregeak ardatz harturik eraikiko da, baina jadanik ez dira kontakizunaren interesgune nagusia, Historia kronologikoki antolatzeko modurik praktikoa baizik (generoaren tradizioari zor zaion begirunea ahaztu gabe). Behin kapituluaren hasieran erregeren aipu eginda, segituan zuzenduko du egileak begirada benetan interesatzen zaizkion eremu narratiboetara: Euskal Herriko leinuen eta heroien historiara. Izan ere, hein handi batean, Ibarguen-Cachopíne literatura linajistikoa da.

⁸⁵ M. García, 1992, “La crónica castellana en el siglo XV”, *Actas de II Congreso Internacional de la Asociación Hispánica de la Literatura Medieval*, Alcalá de Henares, Universidad de Alcalá.

García Salazar irakurlearen entretenimendua eta kontaketa seriotasuna uztartzen saiatu zen, estilo zuzena erabiliz eta hizkuntzaren arkaismoak saiestuz⁸⁶. Legenda sinesgaitzak baztertu egin zituen eta ekintzak bere gordinean deskribatzen ahalegindu zen. Estilo horren zantzuren bat badute Iburguen-Cachopínek ere, baina, oro har, estilo korapilatsuagoa darabilte, askotan lausoa eta kontraesankorra. Istorioak jasotzean sinesberago direla ematen du, baina bere helburuak, pertsonaiaren izaera ohoratzea alegia, zilegi bilakatzen du gertakari miragarri eta elementu epikoz baliatzea.

Aipatu tradizio alfonsotarraren barnean, Cachopínen hasierako asmoa Ocampok edo Garibayk osatutako kroniken antzeko egitura zukeen historia bat idaztea zen, nahiz eta ikusmiran batez ere leinu bizkaitarrak eduki, ahaide nagusienak bereziki. Munduko erreinu gorenetatik hasita, Bizkaiko azken zokoko etxeraino iritsi nahi izan zuen, metodologia berbera aplikatuz mikrokosmosa (leinuaren, jaioterriaren eta lurraldearen historia) zein makrokosmosa (munduko eta Espainiako historia) azaltzean; bata bestearen testuinguruan txertatzen saiatu zen. Izan ere, Caro Barojak (1972: 73) Garibayri buruz esandakoa gogoan hartuz, Cachopínek eta Iburguenek ere “oso espainoltzat, oso katolikotzat eta oso monarkikotzat zuten euren burua, eta, era berean, jaioterriaren lege eta izaeraren defendatzaile sutsu ziren”. Ezaugarri hau oso zabaldua zen, dirudienez, “bizkaitarren” eta “montañes”⁸⁷-en artean, eta, jakina, Espainiako koroa gustura zegoen horren lagunarte fidelarekin, jakitun baitzen burokrata saldo horren fidelitatea ez zitzaiola garestiegi aterako, beti ere zenbait pribilegio gordetzen bazizkion.

Cachopínen abiapuntua, Garibay eta besterena bezala, Historiaren ikuspegi genealogikoan kokatzen da, Eskritura Santuetan oinarritua. Jaunagandik hasita, Espainiako erregeen segidara iritsiko da, ondoren nobleziako maila ezberdinetara, eta azkenik Bizkaiko leinu garrantzitsuetan eta euren adarretan pausatuko da, Iburguen leinua barne. Historia antolatzeke metodo oso zabaldua da (horren

⁸⁶ Marín, 1992: XXV.

⁸⁷ Gaurko Cantabria eta Asturiasko semeak.

adibide, historiografia israeldarra edo grekoa), metodo genealogikoa oinarri delarik, ondorio historikoak ezezik, juridikoak ere erator baitaitezke.

Erdi Aroko kronisten iritzian, pertsonaren historia genealogikoaren eta bere nobleziaren lekukorik garrantzitsuenak bi dira: abizena eta ikur heraldikoa⁸⁸. Etimologiaren bitartez abizenen azalpen zail eta zuhurrenak egingo dira, bertan gorderik den esentziaren bila: lurrarekiko lotura, jatorri garbia, arbasoen ekintza ohoretsuak, ...; eta hori guztia ikur heraldikoan handiki islaturik. Egonean bizi den nobleziak ikasketa genealogiko eta heraldikoez zuen obsesio honek, Cachopín eta Iburguen ere hartuko ditu aurrean, eta ez da aitoren seme bizkaitarrik geratuko arbaso kimerikorik gabe, baserritar xumeena barne.

Obsesio horrek, sarri, falsifikaziora darama Cachopín, datu historikoak puztera eta gertakariak asmatzera, ziur asko falsifikadore kontzientziarik gabe⁸⁹.

4.2. Lehen mailako iturriak.

Kronikaren egileetan garrantzitsu eta funtsezkoena, lanaren nondik-norakoa erabat bideratu zuena, Cachopín semea alegia, oso giro berezian bizi izana eta lan egina dugu, eta giro horretako iturri bibliografiko eta ideologikoetan edandakoak taxutu zuen hein handi batean *Kronikaren* edukia eta egitura.

Esan dugu bere ogibidea bizimodu militarra eta marinelen girora oso loturik bide zegoela, bereziki sakonak eta ñabarduraz josiak baitira XVI. mendean, bere garaian alegia, Andaluziako itsasalde zein lehorrean gertatutako gudu eta gatazken kontakizunak. Diogunaren lekuko Gibraltarko sakeoaz (1540) egiten duen narrazio zehatza dugu. Baina bere lana eta pentsamoldea guztiz baldintzatu zuena, zalantzarik gabe, Andaluzian, eta batez ere Sibilian, bizi izana izan zen. Esan liteke XVI. mendearen erdi aldean Sibilian, Espainiako Erreinuaren gune politiko eta ekonomiko garrantzitsuena izateaz gain, arte eta jakintzaren bilgune ere bazela. Historiari eta zientzien ikerkuntzari dagokionean jakintsu eta pentsalari talde oparoa bildu zen hirian, Rodrigo Caro biografo sebillarraren

⁸⁸ Zentzu horretan oso adierazgarri dira: Argote de Molinaren *Nobleza de Andalucía* (1588), Garibayren *Ilustraciones Genealógicas* (1596) eta Gracia Deiren *Blasón General y Nobleza del Universo* (1489), Espainiako kortean oso lan miretsia, besteak beste.

⁸⁹ Falsifikazioa artea da, eta arreta berezia egingo diogu geroago, 85. orrialdetik aurrera.

lanean nabarmen denez (1647), besteak beste, Gonzalo Argote de Molina, Alonso Morgado, Juan Mal-Lara, Pedro de Medina, Luis Peraza, eta abar. Idazle hauek gehien landu zuten esparrua historia izan zen, baina, euren biografiari begiratu bat emanda, argi ikusten da jakinmin berezia sortzen ziela astronomiak, geografiak eta nabigazioarekin zerikusia zuen orok.

Cachopín ez zen giro honetatik oso aparte. 8. koadernotik 13.era bitartean astronomia, meteorologia eta hidrologiaz luze jardun zuen, bere belaunaldikoen lanen eduki berberak landuz. Historia idaztean ere, batipat historia unibertsalari eta Espainiakoari dagokienean, bistan da oso presente dituela aipatu egileen lanetako batzuk, Morgadoren (1587), Mal-Lararena (1570) Perazarena (1587) edo Barrantes Maldonadoren (1566) kasu. Azken idazle hau, gainera, laguna omen du, goian aipatutako Gibraltarreko sakeoari buruzko testuan dionez:

(...) por ser muy largo de contar lo dexo, rogándole encarecidamente haga libro particular espléndido de todo esto a mi caro amigo y más que hermano en voluntad y obras y comunicación de nuestros negocios, Pedro de Barrantes Maldonado, natural de la villa de Alcántara, cabeça de la horden y caballería della, generoso barón y brabo soldado y criado eminente cuando suçedió este saco de Gibraltar que bamos contando (...) (II: 399).

Baina, lanen konparaketa egin ondoren, Cachopínen lanak duen zorrik handiena Pedro de Medinaren lanekikoa dela deritzogu. Medinak bere *Grandezas de España*-n (1548) bezalatsu, Cachopínek ere Espainian izandako erregeak hartu zituen erreferentzia eta unitatetzat *Kronikaren* kapituluak banatu eta antolatzean, Beroso faltsuak emandako errege mitikoen kronologiari fidelki jarraiki. Ez dago esaterik Cachopínek Medinaren lana kopia edo plagiatu zuenik, baina hark markatutako hariari fidelki jarraitu zion eta, hark bezala Cachopínek ere, Sibilian hiriaren inguruan jirarazi zuen Historia, Espainiakoa zein mundu ezagunarena, batik bat Erdi Arokoa.

Arestian esan bezala, XVI. mendean Sibilia loralde ekonomiko ederra bizi izan zuen. Mundu Zahar eta Berriaren arteko zubi bilakatu zen, Amerikarekiko harreman komertzialak kontrolpean zituen eta Casa de Contratación sortu zenez geroztik (1503) esan liteke harreman horien monopolioa izan zuela eskuetan. Trafiko komertzial horren ikuskaritzak eta kobratzen ziren muga-zergek inon direneko diru sarrerek ekarri zizkioten hiriari, eta oparotasun

horretan Sibiliak biztanleria hirukoiztu egin zuen urte gutxian, handitu egin zen, edertu. Errenazimenduko perla izan zen deitua.

Egileei eskainitako kapituluan azaldu dugunez, Cachopínek zein Iburguenek lotura estuak zituzten Sibiliarekiko, arrazoi ezberdinengatik bada ere. Cachopínek “zor” handia omen du hiriarekin eta Iburguen bertan jaioa dugu, ama Morón-goia du eta aita artekari lanetan dihardu hiriko kontratazio etxean. Honegatik guztiagatik oso da ulertzekoa *Kronikan* Sibiliak duen pisu erabatekoa eta baita hiriko egile handien lanek jasotzen dituzten aipu ugariak, San Isidorotik hasi eta Morgado edo Chavesekin bukatuta.

4.2.1. Marko unibertsaleko iturririk aipatuena.

San Isidoro da *Kronikan* aipatuena den iturria. Halaber, era askotako gaiak jazteko erabilia da (astrologia, antzinako historia, erlijioa, ...). San Isidoro 555. urtearen inguruan jaio zen familia aristokrata baten magalean eta 600. urtean bere anaia Leandroren tokia hartua zuen Sibiliako artzapezpikutzan. Bere lanik garrantzitsuenak, *Etimologías (Originum sive Etymologiarum libri XX)*, txikitatik jasotako kultura kristauaren eta antzinakoaren bilketa enziklopedikoa da. Jarraitzaile izan zituen pentsalari eta historialari askok bere bitartez ezagutu zituzten Grezia eta Erromako klasikoak. Mendeetan zehar, Errenazimendua igaro arte, historiografia hispanikoan oso kontuan hartutako lana da San Isidororena, eta erabili zuen metodoak, munduaren ezagutza hitzen etimologiaren bitartez lortzea alegia, erabateko eragina izan zuen historialariengan, batez ere Cachopínengan.

San Isidororekin batera, Cesareako Eusebio eta Annio de Viterboren Beroso ere oso aipatuak dira, batez ere Espainiako erregeen kronologia ezartzeko orduan, eta, Eusebioren kasuan, baita Elizari buruzko berriak emateko orduan ere, bere garaira arteko kristautasunaren historia jaso baitzuen bere lan batean. Bestalde, Cesareako artzapezpiku izandako Eusebiok (Palestina, 260-340 h.) idatzi zituen kronikek, berebiziko indarra izan zuten antzinatearen historiografian. Antza denez, egiazko Berosori buruz idatzi zituen atalak Annio de Viterborentzako inspirazio iturri izan ziren.

4.2.2. Marko penintsularreko iturririk aipatuenak.

Atal honetan genealogiek aparteko presentzia dutenez, ezinbestekoa zitzaien Cachopíni Gracia Dei genealogistaren aipamena. Egitura aztertzean ikusi dugunez, arma errege honen hainbat testu hitzez hitz jaso zituen *Kronikara*, baina gainerakoan ez dio fidagarritasun handirik eskaintzen, zeren, Cachopínen hitzetan, "con mucho atrevimiento, se puso a poner orden en los escudos, armas y blasones de ciertos linajes, quitando antigüedad a muchos de ellos" (II: 350). Kronika honetako I. liburua 400-405 orrialdeetan Gracia Dei-ren bizitzari buruzko hainbat datu aurki daitezke. Fernando Katolikoa erregearen gortean kronista, poeta eta arma errege izan zen. Emaztea Salamancan bizi zuen bitartean, miseria gorrian. Bere lanik handienaren izenburua: *Blasones de las armas e insignias de los mejores y más principales linages de Castilla, declarando sus principios*.

Alfonso X.a eta Ximenes de Rada ere lehen mailako iturriak bide dira errege godoen kapituluatarako, baina seguruenik kronika modernoagoetatik jasoak, Ocampo (1543-1558) eta Moralesen (1586) lanetatik, besteak beste. Ocamporen kapituluetan eta Cachopínek idatzitako koadernoetan egitura bera atzeman dezakegu, nahiz estilo aldetik Laredokoa askoz irregularragoa den. Ez dezagun ahortzi, bestalde, hiruak ere Cordoban bizi izan zirela eta seguru asko Moralesen eta Cachopínek elkar ezagutzeko aukera ere izanen zutela.

Kronika burutzeko erabilitako iturriak ugari eta askotarikoak dira, eta hor bilatu beharko da lan honetan aurki daitekeen estilo nahasketaren arrazoa. Iburguen eta Cachopínek eurek argi utzi ziguten lanaren sarreran idazle askoren lanak aztertu zituztela *Kronikarako* interesgarri ziratekeen berrien bila eta haietako asko zeuden-zeudenean jaso eta irauli zituztela.

(...) Y así, nos, abiendo con pobreza de nuestros umildes ingenios trabajado esta obra, que es un verdadero trasunto y retracto de muy muchas historias, las más dellas no conocidas ni vistas por algunos de los antiguos y también modernos que en esta materia escribieron, (...) (II:6).

Hala ere, ez dute aski izango inprimaturik aurkitu daitekeena aztertzearekin, artxibo publiko zein pribatuak ere arakatuko dituzte lehen eskuko materialen bila. Proiektuak intentzio jakin bat zuen eta hura ilustratzeko bila eta bila aritu ziren ezkutuko iturrien atzetik: hilarrietako inskripzioak, pergamino

higatu eta zartatuak, kronika galdu edo ezezagunak,... Eskuizkribu eta dokumentu kopuru eskerga erabili bide zuten, *Kronikan* zehar aurki daitezkeen erreferentzia ugariak hori adierazten baitute. Baina ez dugu uste Cachopínek eta Ibarguenek bibliografia hori guztia zuzenean aztertu zutenik. Aipatzen dituzten egile eta obra gehienak lan handi eta orokorretan aurkitutako aipuetatik jaso zituzten, lehen mailako iturrietatik, alegia. Hala ere, kasu nabarmen batzuk kenduta, zaila zaigu zehatz-mehatz ezartzea zeintzuk diren lehen mailako iturriak, hau da, zuzenean aztertu zituzten lanak, eta zeintzuk bigarren mailakoak edo bestek emandako erreferentzien bitartez aipatutakoak.

Artxibo askotan egonak direla eta paper zahar ugari, pergaminoak eta abar, ikusiak direla diote, baina ez dute esaten zehatz-mehatz zein dokumentu ziren, non zeuden, nolakoak ziren eta abar (II: 445). Eskribau materialak ere sarri aipatzen dira, pribilegioak, eskriturak, ..., nahiz eta zehaztasun gutxi eman eurei buruz (II: 475). Eskuratzen edo ikuskatzen zailak ziren dokumentu eta liburu ugari izan omen zituzten esku artean egileek, Sebillako bizilagun baten liburutegian gordeta zegoen Leinu Liburua kasu (II: 451), edo Zerralboko markesak zuen arbola genealogikoa (II: 492). Hala ere, zailtasunak ere izan zituzten artxibo partikularretan miatzeko, eta zenbait tokitan galarazi ere galarazi zieten artxiboan sartzea edo dokumentuak aztertzea (II: 637).

4.2.3. Marko bizkaitarraren iturriak.

Zalantzarik gabe atal honetan bilakatzen da Ibarguen eta Cachopínen lana benetan garrantzitsu, *Kronikan* zehatz eta zabal aipaturik eta azterturik ageri baitira gaur egun galdutzat ditugun hainbat lan, eta, noizbait aurkituko balira, euskal historiografiarako eta hizkuntzarako sekulako garrantzia izan lezakete. Iturri hauetako batzuek banan bana aztertzea merezi dute:

Aguayo y Guevara, Juan de: Aipatuenetako bat da. Antza denez *Tratado de las Guerras de Navarra* izeneko lan baten egile, gaur egun desagertua. Beragana jotzen du Cachopínek antzinako Bizkaia edo Kantabriaz mintzatzean, erromatarren garaikoa zein aurrekoa, eta honen lanetik jaso zituen hainbat berri ohiturei, musika tresnei edo idoloiei buruz. Bizkaiko leinu handienez mintzatzean

ere aipatuak dira Aguayoren hitzak. Aguayok berak, era berean, Maguncio Pinelo (I: 519) eta Gonzalo de Arredondo (III: 15) baliatzen ditu bere lanean.

Arredondo (edo Redondo), fray Gonzalo de: Oso aipatua, maiz Peña y Galdocha-rekin bat datorrena eta batzuetan Bediari eta Cachopín aitari darraiena. *Kronikan* aipatzen den lana *Recopilación de los Fueros Antiguos de Vizcaya* izenekoa da, 1490ean idatzia eta gaur egun galdua. Ruesga-n (Cantabria) jaio zen⁹⁰ XV. mendeko lehen herenean eta 1522 urtearen inguruan hil zen. San Benitoren ordenean monje izan zen eta San Pedro de Arlanzan abade. Errege Katolikoek kronista izan zen eta Carlos V.aren enkarguz ere idatzi zuen. Garaiko kronista askoren antzera, faltsifikatzaile fama du gaur egungo kritikoen artean. Eskruizkribaturik dirauten bi kronikaren egile da: Fernan Gonzalez-ena bata eta *Arlantina* bestea⁹¹.

Bedia y Çirarruista, Antón de: *Kronikak* dioskunez, arratiarra genuen, Dimakoa, eta euskaraz ongi zekien. Ikusiko denez, garrantzitsua da datu hau, Cachopínek aipatutako beste egileek ez zutelako, antza, euskara ongi menperatzen (II: 416). Juan de Villela y Cirarruista-ren alaba batekin ezkondua. Carlos V.aren morroi eta arma errege izan zen. Italian, Belgican, Bretañan eta Alemanian emandako zerbitzuen truke Honorato-ko zaldun izendatu zuten eta armari berria eman. Erroman maltzurki eskuratu zituen Ipiñako Santiagoren eta Igorreko San Juan Bataiatzailearen elizen patronatua. 1538an Enperadoreak Bizkaiko itsasbasailuaren saria eman zion.

Bedia ere oso aipatua da Cachopínen lerroetan, eta bere lanak, *Libro de la Real Armería de la Nobleza Española*-k, hainbat egilek (Peña y Galdocha, Arredondo, Cachopín aita, Cristobal de Mora eta Alfonso Castilla) esandakoa jasotzen du. Leinu eta etxeei buruzko berriak zabal eta zehatz ematen ditu, baina berandu samar sartzen du Cachopínek *Kronikan*, II. liburua aurreratu samarra denean. Honek esan nahi du Bediaren lanean ez dela erromatarren garaiko daturik, ezta Cantabria, Soloria edo Tubaliari buruzkorik. Cachopíni esker, badugu bere

⁹⁰ Beloradon jaioa zela dio Idoia Estornesek: EGIPV.

⁹¹ Lan hauei buruz gehiago jakiteko ikus Mañaricua, 1973: 69-73.

lanaren zatiren bat hitzez hitz jaso (II: 449) eta badakigu gutxienez 147 foliok osatua zela, baina gaur egun ez da inon lan horren arrastorik.

Mendietak (1592?) ere badarabil Bediaren lana.

Cachopín, García Fernández, doctor: Kronika honen egileetako baten aitaren presentzia ia etengabea da lanean zehar Bizkaiari buruz mintzatzen denean. Oro har, Bizkaiko antzinateari buruz mintzatzean eta beste autoreen lanetan aurki ez daitezkeen berriak ematean, semeak aitaren lanera jotzen du zuzenean euskarri bibliografiko bila. Semeak idatzitakoaren arabera, Laredokoa zen Garcia Fernandez Cachopín doktorea eta Cordoban bizi izan zen (III: 178), garai batean behintzat. Semea *Kronika* idazten ari zela hil zen aita, baina honen lana, *Grandezas de Vizcaya*, haren esku geratu zen beste apunte eta zirriborro askorekin batera. “Autor grave, aunque moderno” –dio semeak aitari buruz– “amigo desta patria, que escudriñó en personas y lugares sobre diversas cuestiones que al parecer estaban ya casi olvidadas” (II: 48). Bera da Kantabriarren Kantua ezagutzen duen bakarra eta horregatik, baliteke bera izatea kantu horren egilea, beharbada, beste kantu herrikoiren batetik abiatuta. *Kronikan* aipatutako egileen artean, esan daiteke bera dela bakarra “cédulas antiquísimas”, “pargaminos carcomidos”, “razonamientos de gentes ancianas” (II: 92) eta antzerako informazio iturriak aintzakotzat hartzen.

Calderón de Belamino, Diego: Aipatuenean taldean berau ere, batik bat historia mitikoari dagokionean. Bere lana, gaur egun desagertua, *Historia de la muy antigua e invencible Cassa Vizcaína* dugu, kapitulutan banatua eta maiz Arredondo zein Velasco Zamudiorekin bat datorrena.

Mendietak (1592?: 26) ere aipatzen du.

Castilla, Alfonso: II. liburuaren erdi aldera etorriko dira lehen aipuak. *Armerías Reales de España* izeneko lanetik leinuei buruzko berriak jasoko ditu Cachopínek. Era berean, bere lanean Cristóbal de Mora, Peña y Galdocha, Bedia y Cirruista, Arredondo eta Cachopín aitaren lanetatik hartutako berriak aurki zitezkeen, gaur egun desagertua baitugu. Egiazko izena Antonio de Barahona zuen, baina ezagunago zen Alfonso de Castilla goitizenaz (ez dugu nahastu behar XVII, mendean bizi izan zen izen bereko senide batekin). Gortean zebilen

jendearen gozamenerako irudimen handia erakutsi zuen Gracia Dei ospetsuaren iloba zen, eta osabaren irakaspenei jarraiki, genealogian emankor bilakatu zen Alfonso. Gainera, bera ere Carlos V.aren arma errege izan zen. Ez dakigu nongoa zen, baina Cachopínek esan zigunez “no sabía bien vascuence” (II: 416).

Mora, Cristóbal de: Fernando III.aren arma erregea, *Libro Real de las Armerías Generales de España* izeneko lanaren egilea, ez da XVI. mendeko bukaera aldera Felipe II.aren gortean handi bilakatu zen polikari ospetsuarekin nahastu behar.

Peña y Galdocha, Gaspar de (?-1540 ondoren): Bere aipu ugariak erakusten duten bezala, Cachopínek inori baino sinesgarritasun handiagoa ematen dio “lizentziatu on” honi. Bere *Historia General de la Gran Cantabria y su Nación Vizcaína*, gutxienez 6 liburuk osatua, Bizkaiko historia mitikoa osatzean erabiltzen duen iturririk oparoena da. Sarritan bat datoz bere berriak Arredondo, Bedia eta Aguayok ematen dituztenekin. Antza denez, ez zuen euskara ondo menperatzen, (II: 416), nahiz eta, Iturrizaren arabera (I: 210), Bizkaiko Ean jaioa izan. Iturrizak berak dioskunez “escribió en Sevilla, en tiempos del invicto Carlo V, la *Historia General de la Gran Cantabria*: Es obra inédita”.

Zarate, comendador Hernando de: Aski aipatua, *Antigüedad y Nobleza de Vizcaya* izeneko lan baten egilea omen dugu, bost liburuk osatzen zutena eta eskuz idatzia artxiboetan barrena ibili omen zena. Euskaldunek erromatarrei egindako eresistentzia, Oñez eta Ganboa bandoen sorrera, eta beste zenbait leinurena, ditu gai nagusi. 174. koadernoan Cachopínek ezkontza kontratuen memorial bat ere aipatzen du, komendadoreak sinatua eta “que se hallan en poder del arçidiano don Fortún de Ibarгүйen, secretario del arçobispo de Sevilla don Fernando de Baldés”. Badirudi *Paciencia Cristiana* idatzi zuen pertsonaia bera dela, Madrilen jaioa, agustinoa eta Osunako unibertsitatean katedratiko⁹².

Velasco y Zamudio, fray Agustín de: Fraile dominikoa; Cachopínen arabera, *Istoria del Origen Bascongado y su Nobleza y Hazañas* idatzi zuen. Zenbait leinu aipatzean erabiliko du Cachopínek (Zallo, Andramendi, Oca, ...) eta

⁹² Biblioteca de Autores Españoles, Tomo XXVII, *Escritores del siglo XVI*, “Fray Hernando de Zárate”, Atlas, Madrid, XXI-XXII.

baita mauruen aurkako gerrateko balentriak deskribatzean. Antza denez, Peña y Galdocha baino aurreragokoa da denboran (II: 45).

Mendietak (1592?: 26) ere aipatzen du.

Gainerakoan, deigarri gerta litezke Kronikako pasarte batzuek aldi berean Pozaren zenbait pasarterekin dituzten antzekotasunak, izan ere, euskal hitz zenbaiten etimologia ematean bat baitatoz erabat, hitzez hitz, adibidez *jaun*, *eguzki*, *ilargi* edo *heriotz* hitzak azaltzean. Azalpen zabalagoa emanen dugu aurrerago.

Idatziz jasota aurki zitezkeen lekukotasunez gain, gure egileek maiz adierazten digute kontatutako zenbait kontu euren begiez ikusiak edo hurbileko pertsonaren bati entzunak direla (II: 485), eta horregatik *Kronikan* aurki daitezkeen istorio eta pasadizo askok bertsio bat baino gehiago dakarte (Apioza: II: 26). Horrek argi adierazten digu zein zabalduak, hedatuak ziren zenbait istorio kronisten artean eta batez ere herri jakintza mailan. Pasarte horietan erabilitako estiloa erabat aldentzen da historia liburuetakoa ohiko erretorikatik eta ahoz ahoko transmisioan nagusi den hizketa eliptiko eta arinera hurbiltzen.

Garibayk bezalatsu, Cachopínek ere oso gustuko zuen narrazioa ahozko tradizioetik jasotako kanta, esaera, esamolde eta aipuz jaztea, tresna horiek balio handikoak izango baititu gertakizun historikoak ilustratzeko. Tradiziori egiten dion erreferentzia garrantzizkoa da bere lanean, bere zutabe metodologikoetako bat. Eta, jakina, honek guretzat sekulako garrantzia du ikuspegi literario zein linguistikotik.

4.3. Bigarren mailako iturriak.

Ibarguenek eta Cachopínek eskaintzen dizkiguten material gehienen iturburua bigarren mailako iturri dei genitzakeenetan dugu. Historia zaharretatik jasotako berrien egokitzapen, hedadura eta berridazketa ugari aurkituko dugu, jatorrizko lanak ezezagunak baditugu ere. Ez da maiz argi geratzen zein den lehen mailako iturria eta, gainera, hauetako asko galduak ditugu gaur egun. Zaila da, beraz, jatorrizko lana zein helbururekin, zein ñabardura edo ukitu berezirekin idatzia zen jakitea, eta, ondorioz, are zailago zer erabilera egin zuen Cachopínek material horiek eskuan hartuta.

Esana dugu gorago gure autoreek hainbat liburu erabili zituztela iturri moduan, eta haietako batzuetatik “traslado” zuzenak egin zituztela. Horien artean, azpimarratzekoa da *Libro del Becerro* deritzonaz egindako erabilera. Leinuei buruzko berriak ematean, batez ere Gaztela eta Espainiako beste zenbait erreinutakoen kasuan, aipatu liburuak lehen mailako iturri du *Kronikak* eta hitzez hitz jasotzen ditu hango zenbait pasarte. Ondoren, Libro de Becerroren ereduari jarraitzen saiatuko da, autoreek eurek euskal leinuei buruz jasotako informazioa antolatu eta erredaktatzean.

“Orotariko” lan honetan toki zabal eta berezia (9, 11 koadernoak ia osoak) du astrologiak, meteorologiak eta hidrologia edo nabigazioaren inguruko gaiak, XVI.mendean oso garrantzitsu zirenak eta argitalpen ugari eragin zutenak. Pedro de Medina sebillarraren lanekin antz handia dute Cachopínen artikuluek estiloari dagokionean, baina ezberdintasun handi samarrak daude gaia tratatzeko eran eta terminologian.

4.4. Faltsifikazioa

XVI. mendean faltsutzea ohitura bihurtu zen, eta zerbait egiaztatzeko frogarik ez zegoenean, asmatu egiten zen, besterik gabe. “Dolo pio” deritzona, errukizko iruzurra, onartua zegoen garaiko ikuspegi moraletik, eta, Caro Barojaren ikerketen arabera (1992: 17-37), autoritate handiko idazle zenbaitek historia faltsutzea zilegi zela defendatu zuten, aberriaren ohoreak edo interesek hala eskatzen zutenean.

Metodorik hedatuenetako bat galdutzat emandako autore zahar baten obra kasualitatez aurkitu den itxura egitea zen. Hala egin zuen Anio de Viterbok (XV. mendea) mendebaldeko nazioek euren aitzin historia ezagutzeko erakutsi zuten grinari erantzuteko Beroso faltsua asmatu zuenean. Egiazko Beroso k.a. III. mendearen inguruan jaioa zen, eta Anio de Viterbok haren izena erabilia osatu zuen Erromako Inperioaren aurreko erregeen nomina fantastikoa, besteak beste. Metodo bera erabili zuen Cachopínek berak ere Leloren Kantua pergamino zahar batean aurkitu zuela esatean, bere helburu bakarra erromatarren eta euskaldunen arteko borroken testigantza bat ematea besterik ez bazen ere. Hainbat eta

hainbat artxibo arakatu gabe egoteak sinesgarri bihurtzen zuen aurkikuntza, eta egiaren konprobatzea ezinezko. Azterna arkeologikoek ere sinesgarritasun handia ematen zuten; horren adibiderik argiena Granadako Sacramonte mendiko berunen kasua dugu, Cachopínek *Kronikan* zehazki jasotakoa. Kasu honetan, ordea, Cachopín ez zen asmatzaile izan, transmisore sinesbera baizik.

Kronikoiek elkar elikatzen dute eta euren babesa luzatzen diete aurretik emandako fikzioei. Eskritura Santuetako pertsonaiak mundu osoan barrena ibilarazten dituzte eta norbere lurrera iritsiarazten (Noé, Santiago, ...), eta hori gutxi balitz, pertsonaia mitologikoak ere biziartzten dituzte eta arbasoen lurrera ekartzen (Hércules, Gerión, ...).

Cachopínek tarteka baino ez du erabiltzen bere izpiritu kritikoa iturrietatik edatean, eta erraz erortzen da garaian nagusi den sinesberatasunean, bera lanean gertakari miragarri, fantastiko edo mirarizkoei toki eginez.

Ezin daiteke esan marko unibertsalean eta marko espainiarrean ematen diren narrazioak originalak direnik, fidelki jarraitzen baitituzte XVI. mendeko kronika espainiarraren joerak. Cachopínek kronika horietan islatzen den egitura narratiboa bereganatzeaz gain, era libre samarrean “itzuli” zituen historia horietan aurkitutako edukiak bere lanera. Horregatik, irakurleak maiz Garibay, Morales, Morgado edo Medinaren presentzia atzemango du, batez ere azken honena. Hori dela eta, Cachopínek erabilitako iturri bibliografikoen azterketan zaila izango da ezer berririk aurkitzea, aipatu bi markoei dagokienean bederen, eta irakurleak aurkituko dituen “fantasiak” aurretik bestek emandakoak baino ez dira.

Marko bizkaitarrari dagokionean, ordea, ezusteko bat baino gehiago izango dugu zenbait istorio eta azalpen irakurtzean, darien ausardia narratiboagatik edo neurrigabeko fantasiagatik, nondik begiratzen den. Hala ere, ez omen zen Cachopín gertakaririk asmatzen ibili, ez eta bizkaitarren historia artifizialki handitzen edo puzten:

pues no lo pongo de mi casa, ni en cosa ninguna desta istoria alargo ni menguo ni pongo más ni menos de lo que hallo más berdaderamente y con más autores fidedinos e testigos auténticos y más aprobados scripto, pues pasión ni afición en cosa ninguna no me puede interesar, como aquél que no la tiene más de dezir y poner en manifiesto la pura y entera verdad, sin ninguna asetación ni hermosura más de al pie de la letra, como lo hallo apurado,

dexando lo superfulo, visioso y enfadoso como cosa digna de ningún meresimiento virtuoso (II: 221).

Kronikan ageri zaizkigun asmazio eta fantasia historikoak ezin zaizkio Cachopíni egotzi. Izan ere, historiografia “bizkaitarzalea” edo “mito bizkaitarra” deritzonak penintsulako tradizio historiografikoan ditu sustraiak eta sorburua.

Europako lehen biztanleak Jafet-en semeak izan zirenekoa eta, bereziki, Tubalek bizitoki Espainia aukeratu zueneko Isidoro sainduaren eskutik datorkigun berria da, San Jeronimoren kronikatzarrean oinarriturik. Estrabonen eta Justinoren lanetatik jaso zituzten Espainiako kronikek Gerion erraldoiaren izugarrikeriak edo Herculesen balentriak. Justinok mitoei azalpen ebemerista⁹³ emateko joera handia zuen eta, ondorioz, interpretaziorako atea ongi irekiak uzten zizkien kronistei.

Uneko interesek (mendeetan zehar, eta bereziki Erdi Aroan) izugarritzko faltsifikazio andana sortzera bultzatu zuten Eliza, besteak beste, Annio de Viterbo bera txiki utziz. Historia eta bere iturriak asmatzeko artea hedatu egin zen. Historian hutsune misterioitsuak, ezjakintasuna eta zalantza aurkitzen direnean, edozein helburu edo ideia justifikatzeko balio dezaketen fantasiako narrazioak asmatzen dira. Hasi XV. mendean eta XVII.a ia burutu bitartean, faltsututako hainbat testu ibili zen nonahi, antzinako garaiei buruzko mesfidantza handitu zutenak. Indar faltsifikatzaile horrek kutsaturik, hainbat fantasia asmatu edo handitzeko tentaldian erortzen direnak, eurak ere, faltsugileen aurka azalduko dira gartsuki, jakitun baitziren zeinen oker handia zetorkion historiaren sinesgarritasunari. Aitzitik, Iturrizak kronika hau eskuartean hartu zuenean, XVIII. mendean, zorrozatasuna eta zuhurtzia ziren nagusi historialarien artean, eta Iturriza historialariak galbahe finetik pasarazi zuen *Kronika*, hainbat pasarte baztertuz, tartean zinez baztertze hori merezia duketenak. Baina alboratu zituen berri eta bitxikeria horien artean izanzen dira, ziur gaude, gaur egun ikuspegi

⁹³ Evémero de Mesene (K. a.ko IV mendea) idazlearen izenetik eratorritako terminoa dugu hau. Lehenago ere badira teoria honen defendatzaileak (Heródoto), baina Evémero izan zen lehena zentzu globalean Historiari aplikatzen. Bere ustez jainko mitikoak egiaz bizi izandako iraganeko pertsonaiak dira, tradizioak ederretsi eta handituak (Guerra Gual, 1992:164-174).

historikotik berraztertu behar liratekeenak, gaituago baikaude egun alea lastotik bereizteko.

4.4.1. Mito bizkaitarreren oinarriak.

Euskal identitate mitiko horren eraiketak fase ezberdinak igaro ditu historian zehar. Behe Erdi Aroan hasi zela esan genezake, bereziki Lope García de Salazar-en (1399-1476) kronikekin, zeinek finkatu baitzuen Bizkaiko Jaurgoaren jatorriaren mitoa, Pedro Alfonsok, Barcelos konteak, sortutako legenda genealogikoak⁹⁴ aintzakotzat hartuta. XVI. mendearen bigarren erdian eta ondorengo mendean historialari andanak egokitu zituen bizkaitarren ohorerako, esan nahi baita euskaldunen ohorerako, XV. mendean hedatutako Espainiako jatorri mitoak, batez ere Anio de Viterbo faltsugile italiarrari zor zaizkionak. Horrela, Espainiako lehen biztanle Tubal izan zenekoa eta lehen espainiar haien ondorengo legezko bakarrak euskaldunak zirenekoa Austria eta Borbon etxeetako erregeen eskuetan alegatu nagusi bilakatuko ziren *Bizkaiko* semeen odol garbitasuna eta noblezia unibertsala aldarrikatzeko orduan. Mito honi indarra emateko, euskararena ere sortuko zen, Espainiako jatorrizko hizkuntzat hartu baitzuten, Jainkoak suntsitutako Babel hartako 72 hizkuntzetako bat, Tubalek berarekin ekarria.

Sinesberatasunagatik edo besterik gabe, komenientziagatik, Ocampo, Morales, Mariana, Garibay, Cachopín bera, eta beste historialari asko erabat sorgindu zituen Anio de Viterboren faltsifikazioak, *Beroso faltsua* deiturikoak. Egiazko Beroso K. a.ko IV. eta III. mendetan bizi izan zen. Bel-eko apaiz izan zen eta *Babiloniaká* izeneko lana idatzi zuen hiru liburutan. Bertan Eurite Unibertsaletik hasi eta Alejandro enperadorearen arteko tradizio babilonikoa jaso zuen. Antza denez, Beroso hau bera dugu zenbait testutan aipatzen den astronomoa ere. Flavio Josefo eta beste autore haundi batzuek ezaguna bide zuten Berosoren lana, eta ondoren Eusebio Cesarea-koak eta bestek ere aintzakotzat hartu omen zuten.

Ia hamazazpi mende geroago, ordea, 1432. urtean, Giovanni Nanni jaio zen Viterbo hirian, eta oso gazterik Predikatzailen (dominikoak) ordenean sartu. Latina, hebraiera, arabiera eta kaldeoa ikasi ondoren, Historia Sakratua eta Kronologiaren

⁹⁴ Barcelós konteak Haroko konteen ohoretan sortu zituen aipatu legendok XIV. mendearen erdialdean bere *Libro de Linajes*-en. Ikus Prieto Lasa 1994-1995: 339-340.

ikasketetan eman zituen hainbat urte eta lan handiak argitaratu zituen turkoen inperioari buruz, Apokalipsiari buruz eta idazle klasikoei buruz (Catulo, Propercio, Tibulo), besteak beste. Jauregi Santuko maisu izendatu zuten 1499an eta Vaticano-n biziko zen aurrerantzean. Bere betekizuna Erroman argitaratu beharreko lanak aztertzea, zuzentzea eta onestea zen.

Baina fraile honi egiazko ospea Annio de Viterbo izenaz izenpetutako lan batzuek eman zioten. Galdutzat emandako eskuizkribu zahar batzuk aurkitu zituela eta, izen hori erabiliz editatu eta komentatu zituen hainbat historialariren lanen zatiak, 1498an Erroman. Ondorengo urteetan hainbat aldiz berrargitaratuak izanen ziren. Annio de Viterbok bere gustura asmatu zituen hainbat testu eta Historiografian izen handia zuten zenbait jakintsuri egotzi zien egiletza. Osatutako bilduma horretako hirugarren testua garrantzi handikoa gertatuko zen Espainiako historiarentzat: Berosori zegokiona zen, bost liburuk osatua, Anniok aurkitu berriztat plazaratu zuena. *Beroso faltsu* honek “egiazkoaren” hutsuneak betetzea du helburu: Lehen liburuan Munduaren Sorreraz eta Eurite Unibertsalaz arituko da; bigarrenean Noeren semeen genealogiaz; hirugarrenean herrien hedatzeaz eta izendapenez, beti ere Biblia aintzakotzat hartuta; bosgarren liburuan Babilonia eta Asiriako erregeez mintzatu eta bereziki Espainiakoei eskainiko die tarte luzea, Errege Katolikoen ohoretan. Egia esan, Viterbok aurreko historialariei jarraitu baino ez die egiten (Flavio Josefori, Cesareako Eusebiori, Ximenez de Radari edo San Isidorori berari), baina Munduaren Sorreratik Errege Katolikoenganainoko hari genealogikoa garbi irun eta hedatua utzi zuen.

Ondorengo historialariek, batak besteagandik edanez, Beroso faltsuari erabateko sinesgarritasuna eman zioten denbora luzean, eta Cachopín ere bete-betean murgildu zen historiaren ikuspegi horretan, errege espainiarrei oro har eta bereziki Katolikoei zien mira lau haizetara zabalduz. Izan ere, Gaztelako erregeek Leon edo Aragoakoekin izandako gatazketan Cachopínek Gaztelaren alde egiten du ia beti, Bizkaiko jaunen eskutik.

Cachopínek Berosok emandako hari horren gainean kokatu zituen Bizkaiko jaun, kapitain eta heroiak. Tartekatu zituen fabulak eta gertakari

miragarriak garaian oso hedaturik zeuden testuetatik jasoak ei dira⁹⁵, haietako asko gaur egun desagertuak badira ere. Hala gertatzen da Bernardo del Carpio-ren fabularekin, Ataulfo apezpikuaren mirariarekin, Jaun Zuriaren mitoarekin, eta abar. Narrazioan zehar ez dira gutxi kontraesanak eta tarteka irudi lezake Ibarguenek zenbait testu gehitu zuela Cachopínek esandakoa osatu edo emendatu nahian.

4.5. Autoreak

Laburbilduz esan liteke *Kronika* iturri bibliografikoen errepertorio zabala dela, zuzenago edo okerrago ordenatua, baina edozein kasutan ondare bibliografikoari dagokionean ere berri interesgarriak aurkituko ditugu.

Lanaren egiturari buruz mintzatzean ongi bereizirik utzi ditugu, *Kronikaren* hezurdura diren hiru marko narratibo nagusiak: unibertsala, penintsularra eta bizkaitar edo kantabriarra. *Kronikak* baliatzen dituen iturri dokumental eta bibliografikoak ere eskema horri jarraiki sailkatu ditugu, ikertzaile zein irakurle kuriosoari lagungarri izango zaiolakoan. Helburu horrekintxe eman ditugu egileei buruzko zenbait argigarri parentesi artean, Cachopínek aipatutako egileren baten edo besteren aztarnarik aurkitzerik izan ez badugu ere. Ondoren, *Kronikaren* orrialdeak aipatzean, egileren lanaren izenburua ere sartu dugu Cachopínek lan hori erabili zuela argi uzten digunean.

4.5.1. Marko Unibertsala.

Abieno, Rufo Festo (IV. mendea): I: 363 (*De Orbe Terra*).

Agustin, San (354-430): I: 205, 207.

Alberto Magno, San (1193-1280, filosofo eta teologo alemaniarra): I: 209 (*Metheo*), 213 (*De generacione*), 222; II: 67.

Anaximantex (¿Anaximenes, 550-480 a. J.C?): I: 208.

Anbrosio, San: I: 214 (*Exameron*).

Anselmo, San (1033-1109): I: 363 (*Imágen o Figura del Mundo*).

⁹⁵ Iturri ezberdinen berri ematean, egileak irakurlearen esku uzten du gustukoena aukeratzea (II: 350).

- Aristoteles (384-322 a. J.C.): I: 168, 177, 178, 180 (*Tópicos, Metheo*), 205 (*Metafísica*), 207 (*Metheo*), 208, 210, 214 (*De Propiectati Biiscle*), 223, 296 (*Políticas*), 671.
- Arkiloco (712-664 K. a.): II: 105 (*De los Tiempos*).
- Arnobio (?- 295): I: 485.
- Barron, Marco (116-27 K. a.): I: 142, 177, 194, 210; II: 516.
- Basiniana: II: 50 (*Historia de la Naturaleza Humana*).
- Beda, San (673-735): I: 181 (*De Ratione Temporum*), 182, 193 (*De Natura Rerum*), 194, 197, 203, 223.
- Beroso, Annio de Viterbo-rena, (1432-1499): I: 65, 127, 165, 219, 255, 256, 281, 282, 307, 308, 337, 338, 387, 388, 415, 493 (*Asiriorum Res*), 494, 501; II: 296, 514, 515 (*De 4 Rege Asiriorum*), 516, 547.
- Biblia*: I: 124 (*Génesis*), 141 (*Macabeos*), 165 (*Génesis*), 178 (*Apocalipsis*), 182, 190 (*Éxodo*), 207 (*Jeremías y Job*); II: 14 (*Evangelio según San Lucas*), 40 (*E. según San Mateo*), 115 (*Isaias*), 514 (*Génesis*), 515, 596 (*San Pablo*).
- Blondo, Miguel Angel (XVI. mendea): II: 339; III: 58, 64, 142.
- Boccho, Cornelio (I. mendea): I: 287.
- Bolaterano (?): II: 481.
- Busto, Sacro: I: 197 (*De Natura Rerum*, “In computo”).
- Chiudieon (?): I: 138
- Damaso I, San (?-384): II: 120, 121, 134.
- Diakono, Juliano (?): I: 389.
- Dikario Makrobiano (?): I: 173.
- Diodoro Sikulo (I. mendea K. a.): I: 192, 255; II: 515, 516.
- Dionisio Aeropagita, san (I. mendea): I: 486; II: 120.
- Dionisio Libiko (?): I: 363 (*De Situ Orbis*).
- Esafippo (?): II: 119.
- Estrabon (c. 58 a. d. C.- c. 25 d. d. C.): I: 338, 363, 364 (*Geographia*), 388, 389, 493, 495, 482, 535; II: 149, 542.
- Eucherio: I: 486.?

- Eusebio Zesareakoa (?- c. 309): I: 127 (*Crónica*), 165, 255, 256, 281, 307, 337, 415, 573, 657; II: 37 (*De Praeparatione Ebangélica*), 40, 67, 167.
- Eustachio (IV. mendea): I: 182.
- Eutropio (?-399): II: 14.
- Fabio Piktor (254 K.a.): II: 105.
- Filistio Siracusakoa (K.a.ko IV. mendea): I: 338.?
- Filom (?-45 K.o.): II: 105 (*De los Tiempos*).
- Flavio Josefo (37 – 100), *Antigüedades Judaicas*: I: 127, 196, 363, 482; II: 87.
- Florenciako San Antonio, (?): II: 596.
- Floro, Luzio (K.o.ko I-II mendeak): II: 148.
- Formeario, Laktanzio(?): I: 364.
- Frigio, German(?): I: 149.
- Galeno, Klaudio (129-201 h.): I: 191, 194 (*Epimidias*).
- Goropio, Bekano(?): I: 483.
- Graziano (XI-XII. mendeak): II: 148.
- Gregorio I, San (540-604): II: 524; III: 79.
- Gregorio Tours-eko, San (538-594): II: 41, 339.
- Hegenbergio, Frantzisko eta beste batzuk (?), *Orbe de toda la Tierra* : II: 546.
- Hermes Trimegisto (?): I: 182.
- Herodoto (484-420 K.a.): I: 281.
- Hesiodo (VIII. mendea K.a.): II: 6.
- Hestaskas (Esajas) (?): I: 199 (*Peripatetico*).
- Hipocrates (460-377 K.a.): I: 199.
- Hirzio, Aulo (?-43 K.a.), *Comentarios*: II: 494.
- Homero: I: 127, 388, 551.
- Horazio (65-8 K.a.): II: 7(*Arte de Poesía*), 13, 107 (*Odas*), 149.
- Jenofonte (g.g.b. 430-355 K.a.): I: 192.
- Justino (II. mendea): I: 387, 415, 451, 535; II: 68.
- Kalzidio, Serbes (IV. mendea): I: 196.
- Kandido, P. (?): I: 131, 132.
- Kassaneo: II: 454 (*Catálogo de la Gloria del Mundo*).

- Katon, Marco (234-149 K. a.): I: 194; II: 105.
- Kornaziano (?): II: 106 (*De Re Militari*), 162.
- Kurtzio, Kinto (I. mendea): III: 209.
- Leo Marte edo Leonarte(?): I: 416, 466; II: 14.
- Makiabelli, Nikolo (1469-1527): III: 79 (*Historias Florentinas*).
- Makrobio (IV. mendea), *Insomniam Scipionis*: I: 196, II: 41, 137.
- Maneton (305-g.g.b.246 K.a.): I: 281, 307; II: 68.
- Martino kardinala, (?) *Martiniana, Crónica de los Reyes de Francia*: I: 133, 145.
- Martzial (g.g.b. 40-104): II: 546.
- Mela, Ponponio (I. mendea): I: 482, 493, 497, 704; II: 148.
- Metestene, *Del Juicio de los Tiempos*: II: 105.
- Metrodoro Lampsak-ekoa (K.a.ko V. mendea): I: 208.
- Nemigio (Remigio?, XIII. mendeko astrologoa): I: 198.
- Okilino (?): II, 596.
- Olibario (Pedro Olivari?, XVI. mendea):II : 148.
- Onophrio (San Onophrio?, IV mendea): II: 134.
- Orosio, Paulo (g.g.b. 390-418 o.): I: 138,149, 175; II: 40, 406, 407.
- Ovidio (43 K.a.-18 K.o.): I: 173 (*Libro de Ponto*) 177 (*Metamorfosis*), 192, 195, 196, 227.
- Palmerio (?): I: 658.
- Philisto (435-356 K.a.): I: 255.
- Pitagoras (570-480 K.a.): I: 199.
- Platina, Bartolome, (1421-1481): III: 57, 58.
- Platon (g.g.b. 427-347 K.a.): I: 196 (*Timeo*); II: 8.
- Plinio Zaharra (23-79), *De Natura Rerum*: I: 126, 165, 208, 210, 211, 212, 281, 338, 363, 387, 415, 497, 519, 657, 711; II: 119, 122, 148, 520, 542.
- Plutarko (g.g.b. 50-125): I: 308; II: 6.
- Polidero(?): II: 67.
- Ponpamo (?): II: 105.
- Ponpeio Sexto (g.g.b. 69-35 K.a.): I: 198.
- Prissiano(?): I: 486.

- Prokopio (V-VI mendeak): II: 339.
- Prospero, San (g.g.b. 390-455): I: 658.
- Sabellico edo Sebelico, Antonio, (1436-1506): II: 103, 120, 339; III: 65.
- Seneca (3 K.a.-65 K.o.), *De Consolatione* (“Epístola a su madre”): I: 482; II: 67, 547.
- Senpronio, Cayo (?): II: 105.
- Senxofino, Porfio (?), *De Die Natali*: I: 196.
- Serbio Tulio (578 – 534 K.a.), *Ad Re Naturali*: I: 196; II: 6.
- Silio (g.g.b. 25-101): I: 255, 281, 387, 388, 519, 573; II: 105, 149.
- Solino, Julio (III. mendea): I: 338; II: 542.
- Solon (g.g.b. 640-558 K.a.): I: 199; II: 6.
- Sulmo (?): II: 67.
- Tales Mileto-koa (g.g.b. 624-546 K.a.): I: 177.
- Tazito Kornelio (g.g.b.115-117), *Anales*: II: 37, 519.
- Tito Livio (64 K.a – 17), *Ab Urbe Condita Libri*: I: 129, 675; II: 106, 135, 519, 542.
- Tolomeo, Klaudio (g.g.b. 100- c. 170): I: 165, 175, 176, 177, 182, 222, 223, 363, 486, 493, 496, 497; II: 148, 542.
- Tomas, Santo (XIII. mendea), *De Generaçione*: I: 212, 214.
- Trajano (53-117): II: 525, 526.
- Trogo (?): I: 388; II: 68
- Tuzidides (g.g.b. 465 – 395 K.a.): I: 338.
- Valerio, (?) *Escolásticas*: I: 673.
- Virgilio (39-29 K.a.), *Georgicas*: I: 223; 29 a.C., *Eneida*: I: 195.
- Vitrubio, Marko (I. mendea K.a.): I: 212.
- Volaterano, Rafael (?), *Comentarios Urbanos*: II: 180; III: 78, 79.
- Zesar, Julio (100-44 K. a.): II: 104 (*De Bello Çivilli, De Bello Galia*), 519 (*Comentarios*).
- Zinallo (?): I: 493.
- Zizeron (106-43 K. a.) : I: 214, 550 (*Tópicos*); II: 6 (*Orador Perfecto*).

4.5.2. Marko penintsularra

- Alasta, cronista del rey don Rodrigo (VIII. mendea): I: 355.
- Albumajar (VIII-IX mendeak): I: 196 (*De Magnas Conjunctiones*).
- Alcocer, Pedro de (1554): I: 481 (*Descripción Toledana y Casas Memorables*).
- Alfonso el Sabio, rey don (1221-1284): I: 192,196, 197 (*Tablas Alfonsíes*); II: 451 (*Historia General*), 454, 455, 474, 482, 486, 517 (*Crónica General*), 519, 520, 521, 522, 527, 529, 533, 534, 572, 573, 596, 619, 625, 626.
- Amiax, Juan de, 1608, *Ramillete de nuestra señora de Codés del reino de Navarra...*: I:704-727.
- Andrade, Francisco de (1540-1614): I: 577 (*Crónica*), II: 475, 500, 525.
- Apiano, Pedro (1495-1552): I: 149.
- Aponte, Pedro Gerónimo de (g.g.b.1492-1511): II: 476, 484, 487, 494, 497.
- Arcilla, doctor; oidor del Consejo Supremo de Su Magestad (?): II: 89.
- Argote de Molina, Gonzalo, 1588, *Nobleza del Andalucía*: III: 20.
- Avinón, Juan de (?), *Sevillana Medecina*: II: 544.
- B[i .]cencio(?): II: 50 (*Historia del Origen y Valerosidades Reales de la Casa Española*), 531.
- Barahona, Antonio de: Carlos V.aren kronista: II: 451 (*Tratado de Linages*).(ikus Castilla, Alfonso marko bizkaitarrean).
- Becerro, Libro del* (XV. mendea) I: 659; II: 455, 471; III: 25.
- Beuter, Antón (1490/95-1555): II: 354.
- Braulio, San (590-651), Zaragozako apezpikua: I: 535 (“Carta a Fructuoso”); II: 596.
- Cartagena, Alonso de (1384-1456), Burgosko apezpikua: I: 491 (“Discurso en el concilio de Basilea”); II: 521 (*Anasephaleosis*).
- Chaves, Jerónimo de (1523-1574), Sibiliako astronomo eta cosmografoa: I: 192, 205.¿?
- Conde don Pedro(?): III: 23.
- Crónica de Alfonso XI*: II: 156, 318, 357, 474, 574, 575, 576.
- Crónica de Enrique IV*, de Enríquez del Castillo, Diego (1443-1503 ondoren): II: 377, 497, 590, 507, 579.

- Crónica de Fernando de Portugal*: II: 489, 490, 491, 492, 494, 495.
- Crónica de Fernando III el Santo*: II: 530, 533, 534, 537, 599, 600, 609.
- Crónica de Fernando IV*: II: 389, 574.
- Crónica de Juan I* del canciller Pedro López de Ayala: II: 475, 493, 578; III: 29.
- Crónica de Juan II*: II: 321, 494, 496, 497, 499, 500, 502, 578, 598; III: 28.
- Crónica de los Reyes Católicos* de Diego de Valera (1412-1488): II: 489, 502, 503, 610.
- Crónica de Pedro I el Cruel* del canciller Pedro López de Ayala: II: 389, 577, 629, 635; III: 20.
- Crónica del moro Rasis*, Ahmad ibn Muhammad al-Razi (?-g.g.b. 955): II: 527.
- Crónica del rey don Rodrigo*: II: 527.
- Degoez (?): II: 494.
- Díaz de Gámes, Gutierre (XV. mendea): II: 493 (*Historia de don Pedro Niño, Conde de Puebla*).
- Enríquez del Castillo, Diego (1443-1503 o.): (ikus *Crónica de Enrique IV*).
- Fernandez de Madrid, Alonso (XV-XVI mendeak), Alcor-eko artzidiana: II: 456 (*libro de cosas tocantes a nuestras Españas*).
- Ferrer, Juan (?): I: 481 (*Historia de Toledo*).
- Gerona, obispo de(?): II: 519.
- Gerónimo, San (1486-1537): I: 124, 166, 658; II: 41, 67.
- Gil de Zamora, Juan(?): I: 389.
- Gómez de Bracamonte, Lamberto (?); Felipe el Magno arma errege: II: 468; III: 49 (*Libro de Armería Real*), 127.
- Gracia Dei, Errege Katolikoaren arma errege: II: 318 (Vergel de Nobles), 350, 454, 499; III: 21, 22, 23, 179.
- Gutierre Prexo, fray; frantziskotarra: II: 456 (*Epístola dedicatoria sobre la epístola de San Pablo*).
- Historia Compostelana*, 1139: II: 594.
- Historia del condestable don Nuño Álvarez Pereira*: II: 492.
- Historia del condestable Rui de Ábalos*: II: 494.
- Historia del gran Cid Díaz de Bivar*, (eskuizkribua): II: 451, 453, 665.

- Historia General Española: Crónica de Enrique II* de Pedro López de Ayala: II: 475, 489, 495.
- Historia General* que está en San Lorenzo: II: 454, 455.
- Historia General* que está en Vélez: II: 454.
- Historia Portuguesa*: II: 489, 490.¿?
- Historia Teutónica*: III: 150.¿?
- Illescas, Gonzalo de (?-1633 b.l.): II: 522, 528.
- Imola, Juan de (?): I: 140.
- Isidoro de Sevilla, San (g.g.b.560-636): I: (*Etimologías*) 126, 127, 180, 193, 194, 206, 211, 363; II: 43, 517, 518, 519, 598.
- Jiménez Arias, Diego, (?-1563) dominikoa: II: 527.
- Jiménez de Rada, Rodrigo (1170-1247): II: 213, 452, 454, 457, 517, 522, 523, 524, 525, 526, 596, 597, 625; III: 195, 209.
- Lebrija, Antonio de (1441-1522): II, 525, 580.
- León, Juan, (?), *Historia de África*: II: 603.
- López de Ayala, Pedro (1332-1407); kantziller: (ikus *Crónica de Enrique II*, *Crónica de Pedro I* y *Crónica de Juan I*).
- López de Gomara, Francisco (1511-1564): I: 152 (*Historia General de las Indias*).
- López de Lezama, Martín (?): III: 23.
- Luxán, Pedro de, 1571, *Libro de los Diálogos y Coloquios Matrimoniales*: I: 550-551.
- Madrigal, Alonso de, El Tostado (1400-1455): I: 127.
- Maestro Juan Antonio (?): II: 515.
- Magno, Juan, (?) aztzapezpikua: II: 522.
- Mal-Lara, Juan de (1527-1571), *Recibimiento que hizo la ... Sevilla a ... Felipe II* (1570), II: 546.
- Mármol Carvajal, Luis del, 1573-1599, *Descripción del África*: II: 600.
- Marquina, Antonio de (XVI. mendea), Valenciako artzedianoa: II: 89.
- Mártir Milanés, Pedro, Errege Katolikoen enbajadore Egipton: I: 150; II: 503, 505, 506.

- Medina, Pedro de (1493-1567), *Grandezas de España*: II: 529, 542, 546.
- Mejía, Hernán, 1477, *Nobiliario Bero*: II: 453, 454.¿¿
- Mejía, Pedro (1500-1552), *Silva de Varia Lección*: I: 150; II: 502, 519; III: 78?¿
- Mena, Juan de (1411-1456), *Las Trescientas*: II: 401, 629.
- Mendoza, Francisco de (?), kardinala, *Libro de los Linajes de España*: II: 475, 484, 487, 491.
- Monesterio, Gonzalo de(?), eskribaua: III: 53.
- Montano, fray Paulo de (?), Bohadako priore: II: 162, 168, 179, 424, 444; III: 216, 253.
- Morales, Ambrosio de (1513-1591), *Crónica General de España*: II: 475, 494, 520, 522.
- Morgado, Alonso, 1587, *Historia de Sevilla*: II: 589; III: 362
- Núñez, Fernán (XV. mendea): II: 629.
- Ocampo, Florián (1495-1558): II: 517.
- Otalora, licenciado (XVI. mendea): II: 453 (*Libro de Nobilitate*).
- Pérez de Arana, Errán (?): I:677.
- Pérez de Guzmán, Fernán (1376-1460), *Generaciones y Semblanzas*: II: 494, 500, 504.
- Pérez de Herrera, Cristóbal (1528-1625): III: 303.
- Pineda, fray Juan de (1558-1637), Sibiliako teologoa, *Monarquía Eclesiástica*: II: 517.
- Portugal, conde don Pedro de (?), *Libro de Genealogías*: II: 451, 475, 476, 477, 483, 484, 491, 494, 508.
- Puente, Gregorio de la (?): II: 162, 168.
- Pulgar, Fernando de, 1486, *Los claros Varones*: II: 498, 499, 500, 596, 597, 598.
- Redempto, (III-IV mendeak?) “autor de un libro ... de más de seiscientos años ... que está en la librería de ... Alcalá de Henares”: II: 596, 597.
- Rocha, Tomás (XVI. mendea): II: 505 (“Repreensión a Augustino Ninpho”), 506.
- Román, fray Jerónimo (?), *República Cristiana*: II: 615.
- Sanchez, Rodrigo (?), Palenciako apezpiku, *Historia Latina*: II: 496, 523.
- Santa Cruz, Alonso de (1505-1567): I: 176 (“Carta de Marear”).

- Sedeño, Juan, 1551, *Libro de los doscientos veinte y cuatro ilustres*: I: 150.
- Siculo, (?) “cronista de Fernando el Católico”: II: 584.
- Suarez de la Navia, Gastón (?), *Crónica y Tratado de Concejo de Príncipes*: II: 54.
- Suetonio (g.g.b. 70-140): I: 657; II: 14.
- Tarafa, Francisco, 1563, *Crónica de España*: III: 135.
- Torquemada, Antonio de, 1570, *Jardín de Flores*: II: 502.
- Tuy, Lucas de (?-1249): II: 522 (“Vida, muerte y milagros de San Isidoro”), 529, 596, 597, 625, 675.
- Valera, Diego de: (ikus *Crónica de los Reyes Católicos*).
- Vasco, Juan (Vaseo? (?), *Crónica de España*: II: 148, 521, 525.
- Venegas del Busto, Alejo (1493-1554): I: 150.
- Venero, fray Alonso, 1551, *Enchiridión o manual de Tiempos*: II: 519.
- Villena, Enrique de, 1417, *Trabajos de Hércules*: I: 552-553.
- Zurita, Jeronimo, 1562-1579, *Anales de Aragón*: I: 493; II: 73, 455.

4.5.3. Marko bizkaitarra.

- Aguayo y Guevara, Juan de: I: 166 (*Tratado de las Guerras de Navarra*, libro 1), 256, 482, 519, 536; II: 88, 104, 193, 194, 315, 326, 350, 353, 444; III: 15, 96, 121, 147, 166, 179, 216, 218, 255, 354.
- Ajangui, Juan Pérez de; escribua (XIV m.): III: 53.
- Allona, Aparicio Abbad de; Ibarangeluako erretorea: II: 174.
- Alonsotegui, fray Miguel, 1577?, *Crónicas de Vizcaya*: I: 664.
- Amezaga, (?): I: 664.
- Arredondo (Redondo), fray Gonzalo de; Bohadako priore, Errege Katolikoek kronista: I: 392; II: 148, 149, 162, 167, 341 (*Recopilación de los Fueros Antiguos de Vizcaya*), 354, 368, 370, 408, 409, 410, 411, 422, 425, 426, 443, 449, 450, 451, 468, 474, 518; III: 15, 138, 178, 242, 254, 264, 274, 343.
- Becerro, libros del: II: 108, 110.
- Bedia y Çirarruista, Antón de; arma erregea: II: 168, 315, 321, 323, 327, 328, 329, 330, 349, 352, 353, 354, 364, 365, 366, 367, 368, 370, 371, 383, 385, 390,

- 397, 402, 411, 412, 413, 414, 416, 418, 420, 423, 425, 429, 449, 471, 473, 474, 661, 662, 665; III: 16, 30, 51, 55, 97, 107, 115 (*Libro de la Real Armería de la Nobleza Española*), 124, 125, 126, 127, 128, 129, 138, 179, 185, 192, 206, 214, 218, 246, 253, 254, 257, 259, 265, 353, 354, 356, 357, 358, 359, 361.
- Cachopín, García Fernández, doctor: I: 189 (*Grandezas de Vizcaya*), 392, 411; II: 46, 48, 50, 51, 52, 54 (*Grandezas de Vizcaya*), 55, 57, 92, 148, 162, 167, 351, 352, 415, 473; III: 109, 138, 178, 274, 343.
- Calderón de Belamino, Diego: I: 166 (*Historia de la muy antigua e invencible Cassa Vizcaína*), 220, 308, 363, 452; II: 427, 675; III: 137 (*Historia...*), 140, 166, 242, 244, 249, 250.
- Castilla, Alfonso; Carlos V.aren arma erregea: II: 168, 320, 323, 324, 325, 331, 349, 352, 354, 364, 367, 369, 371, 383, 385, 408, 412, 413, 414, 416, 420, 423, 425, 429, 450, 470, 472, 473, 474, 580, 661, 663, 664; III: 30, 48, 51, 109, 114, 124 (*Armerías Reales de España*), 126, 128, 129, 138 (*Armerías ...*), 140, 179, 185, 206, 214, 219, 250, 258, 259, 265, 353, 355, 357, 360.
- Crónica de Vizcaya*(?): III: 21.
- Echabe, Baltasar de (g.g.b. 1540-1620): III: 305 (*Origen de la Lengua Vascongada*).
- García de Salazar, Lope (1399-1476): I: 659 (*Crónica de Vizcaya*), 593; II: 50, 321; III: 248 (*Crónica ...*).
- Garibay y Zamalloa, Estéban de (1533-1599): I: 676; II: 519 (“Historia de los Reyes de Granada”); III: 22.
- Goicoolea, Tomás de (?): II: 263.
- Historia de Vizcaya*: II: 110.
- Mora, Cristóbal de (Fernando III.aren arma erregea), *Libro Real de las Armerías Generales de España*: II: 661, 663; III: 127, 129, 168, 253, 359, 360.
- Peña y Galdocha, Gaspar de (?- d. 1540), *Historia General de la Gran Cantabria y su Nación Vizcaína*: I: 219, 392, 415; II: 21, 70, 89, 104, 149, 162, 167, 172, 206, 315, 326, 327, 343, 350, 354, 368, 369, 370, 373, 383, 408, 409, 413, 414, 415, 416, 417, 419, 424, 425, 427, 445, 457, 468, 473, 474, 518,

581, 660, 665; III: 16, 46, 47, 96, 97, 109, 115, 138, 141, 147, 166, 167, 168, 178, 183, 217, 242, 243, 244, 246, 252, 253, 254, 255, 256, 258, 259, 260, 263, 274, 353.

Pinelo, Maguncio (?): I: 165, 166, 536; II: 14, 21, 39, 328; III: 124, 166, 219, 242, 243.

Velasco y Zamudio, fray Agustín de, dominikoa (?): *Historia del Origen Vascongado y su Nobleza y Hazañas*: I: 189, 219, 398; II: 45, 53, 94, 162, 168, 174, 319, 675; III: 14, 115, 137, 166, 179, 183, 242, 244, 249, 253, 256..

Xuárez de Nabia, Gastón (?): *Crónica y Tratado de Conçejo de Príncipes* (II: 54).

Zarate, comendador Hernando de, (?): *Antigüedad y Nobleza de Vizcaya*: I: 220, 501; II: 21, 46, 178; III: 46, 95, 96, 97, 99, 115, 124, 147, 252, 255.

Beste dokumentazio eta informazio iturri batzuk.

- ❑ Averiguado por tradición (II: 625).
- ❑ Borradores de mano que por defecto de los escribientes no se dejan ver bien (III:17).
- ❑ Contratos matrimoniales (III: 139, 169).
- ❑ Dotación del conde don Perán Juréz (II: 454, 455).
- ❑ Escrituras de arrendamiento (II: 172).
- ❑ Escrituras de fundaciones de conventos (II: 625 y ss.).
- ❑ Escrituras públicas (III: 190).
- ❑ Iburgüen, Fortuno de; custodio de documentación sobre el linaje de Iburgüen (III: 272).
- ❑ Libro de la fundación, rentas y pibilegios del convento de San Jerónimo de Sevilla (II: 630).
- ❑ Libro del Catálogo de los obispos de la iglesia de Segovia (II: 475).
- ❑ Libro del repartimiento de Sevilla: II: 483.
- ❑ Libros de concilios conservados en Toledo y en San Lorenzo el Real del Escorial (II: 593).
- ❑ Papeles antiquísimos carcomidos (III: 53).

-
- ❑ Pergamino de cuero que se guarda en la iglesia mayor de Sevilla (II: 582).
 - ❑ Pribilegio del monasterio de Sahagún (III: 21).
 - ❑ Pribilegio del rey don Sancho el Deseado a la villa de Calatrava (II: 475).
 - ❑ Pribilegios dados a la ciudad de Sevilla (II: 483).
 - ❑ Proceso (III: 180).
 - ❑ Testimonio escrito en latín, guardado en la iglesia de Sevilla (II: 612).
 - ❑ Testimonio guardado en la iglesia de Sevilla (II: 608).
 - ❑ Tratado de treguas entre Iburgüen y Muxica (III: 272).

5. HISTORIAREN IKUSKERA.

Aztergai dugun historia hau batik bat Iburguen etxearen loriarako osatu bazen ere eta ibarguendarrek bere osaketan parte zuzena izan bazuten ere, argi geratu da Cachopín semearen pentsamendua geratu zela islatua lanean zehar egiten diren iruzkinetan, berea izan baitzen oinarrizko lana egin zuen luma eta *Kronikari* arima eman ziona. Guztiarekin ere, eta kontuan izanik Cachopín semea eta Juan Iñiguez Iburguen *Corónica General Española y Sumaria de la Cassa Vizcaina* idaztean lankide eta bizitzan ere adiskide izan bide zirela, ez dugu uste gehiegikeria denik Cachopínen lerroetan islatzen den pentsamendua Iburguenengana ere hedatzea.

5.1. Mundu-ikuskerak kristaua.

Eguneroko gauza arruntenetatik hasita, politika goreneko gaietaraino, munduak ikuspegi kristautik du azalpena. Kristauek komunitate bakarra osatzen zuten, kristauen errepublika. Erdi Aroan erromatarrek *orbis terrarum* deitu zutena *orbis christianus* bilakatu zen, eta bi instituzio zituen antolatzaile: Eliza eta Inperioa, Inperio Sakroa, jakina. Bi instituzio hauek, oroz gain ziren munduan eta Jainkoak baino ez ziezaiekeen konturik hartu. Ideia hau oso barneraturik dute gure egileek, *Kronikaren* hari nagusiak bi irudi baititu ardatz: Errege eta Aita Saindua.

Ikuskera katoliko horrek historiaren ekintzaile guztiak zuzentasun moralaren galbahetik pasaraziko ditu, eta, batik bat nobleziako kideei, besteren bizitzarako ispilu izatea eskatuko die. Portaera moral zuzen edo okerrak, gainera, ohorea irabaztea edo galtzea ekarriko dio zaldunari eta gizartean gora edo behera egitea. Norbere leinuak noblezia eskura zezan nahitaezkoak ziren hurkoarekiko eskuzabaltasuna eta justizia edo zuhurtzia bezalako dohainak. Dohain horien jabe izan ziren, hain zuzen ere, Tubal eta bere ondorengo buruzagiak, Euskal Herria zuzendu zuten 47 kapitainak⁹⁶.

Kristau ororen ametsa Paradisua berreskuratzea izanik, Jainkoak mundua sortu zueneko garaia izango du kronistak beti ikusmiran. Are gehiago euskaldunen jatorria Paradisu horretatik horren gertu kokatu ondoren, Tubal, Noeren iloba, kantabriarren aitajauna izanik.

⁹⁶ Ikus beherago, 142. o.

Egilearen ustetan Tubalek oso hurbil zuen Jainkoaren eskua; beraz, bere ekintzak perfekzio eta edertasunez beteak ziren. Horregatik aurkezten digu antzinatea mirespenez eta bozkarioz. Iragan garaiak erabat mitifikatuak ditu Cachopínek: zenbat eta hurbilago egon Munduaren Sorreratik, orduan eta perfektuago izango da garai hori, denboraren joanak Jainkoak sorturiko oro itsustu eta usteldu baino ez baitu egin. Tubalia izeneko lurra (geroago Soloria izango zena, ondoren Cantabria eta azkenik Bizkaia) euskaldunen antzinako lurraldea zela frogaturik, egileei garai haiek edertasunez eta handitasunez jaztea tokatzen zaie, eta lan horretan historiaren atea ireki-irekiak dituzte irudimenari, erromatarren etorreraren aurretiko historia zuri-zuri dauden orrialdez betea baitago.

Gauzak horrela, Jainkoagandik hurbilago diren garai haiek, egungoak baino askoz hobeak izango dira: “la probinçia cantábrica hera muy creçida”⁹⁷ diosku Cachopínek Cesar Augusto baino lehenagoko garaiez mintzatzean. Bertako lurak bereziki emankorrak omen ziren lehen biztanleak hara iristean. Gaur egun (XVI. mendean), ordea, garai haietan eraikitako etxe ugari eroriak aurkitzen dira edo ez dira antzina bezain aberatsak⁹⁸. Heraldika antzinatearen ispilu delarik, gogor astintzen ditu armari zaharretan berrikuntzak egiten dituztenak, “que dexan lo antiguo por lo moderno”⁹⁹.

Garai zaharrentzat duen mirespen honek bultzaturik, Cachopínen prosa jasoei eta gehiegizko bihurtzen da jende haien ohiturak deskribatzean: etxeak nola eraikitzen zituzten¹⁰⁰, hildakoei egiten zizkieten erostatzeak¹⁰¹, eta abar.

Historiaren ikuskera kristaua ageri-agerian geratuko da koaderno koaderno, beti aurkituko baitugu zatiren bat Elizaren historiari eskainia. Erliñoaren gaiari etengabeko presentzia eskaini zioten egileek eta bere pisua nabarmena da. Kontuan izanik *Kronika* idatzi zen garaian Eliza gertakari garrantzitsuetan murgildurik zebilela (Trentoko Kontzilioa tartean) eta Espainian Inkisizio Saindua sekulako botere sozio-politikoa hartzen ari zela, ez da

⁹⁷ II: 149.

⁹⁸ II: 368.

⁹⁹ II: 384.

¹⁰⁰ III: 267.

¹⁰¹ III: 272.

harritzekoa garaiko historialariek Jainkoaren aferei garrantzizko tokia ematea euren lanetan eta Hura iraintzetik tentuz gordetzea.

Baina Cachopínek Elizaren kontuei eskainitako tokia eta bere idazkerak maiz hartzen duen tonu moralizantea nabarmen dira zabalak eta errepikakorrak. Koaderno oso bat (129.a) dugu Sibiliako orden erlijiosoei eskainia, eta beste bat (127.a) Sibiliako katedralari, bere historiari eta eraikinaren berezitasunei. Jesusen bizitzaren berri eta bere apostoluen gora-beherak ere nonahi aurki daitezke. Bigarren liburuaren hasieratik (Cesar Augustoren garaia) hirugarren liburuaren bukaeraraino (Felipe II.aren agintaritzan), *Kronikak* koadernoaz koaderno garatuko du Elizaren egoera, aita sailduen agintaldien, kontzilioen eta abarren azterketa sakona eginez. Ez dugu garaiko kronika eta historietan horrenbesteko arretarik eta zabaltasunik somatu aita sailduen historia partikularra aztertzean.

Inperio Sakroari lehenbizi, Espainiako erreinuari ondoren eta azkenik Bizkaiari loturik ematen dizkigun ideia sozio-politikoak, zalantzarik gabeko identitate kristau eta katolikotik ematen zaizkigu. Cachopínen izpiritu kristaua bizitzari buruzko iruzkin moralizanteetan islatzen da maiz, adibidez, tiranoen patu txarraz pozten denean: “cuanto mayor es la felicidad y seguridad, tanto mayor es la caída”¹⁰². Abagune oro profitatzen du Espainiako katolizismoaz apologia egiteko:

(...) los que oy en ella (España) bibimos somos tan deudores a Dios nuestro Señor Jesucristo por abernos traído a tan próspero e bienabenturado estado (...) (I: 481).

Baina, bestalde, ez du ezkututzen kristau on ez direnek, idolatra ezjakinek, mauruek, arrianoek eta beste herexe batzuek alegia, sorrarazten dioten herra eta haserre. Txantxa ere egiten die antikristau hauei:

En cuya razón se be bien en claro la grande çeguera de estos infieles bárbaros que creían que solo con soñar la henbra con el barón, sin más acto, se enpreñe, engañando la muger al hombre magnifiestamente, dando el hijo ageno al otro que no es su padre, debaxo de cuya fiçión tienen ellas libertad, aunque ocultamente, para hazer de sus cuerpos lo que quieren e dar los hijos a quienes les viene más en boluntad, imitando en ello más a las bestias insinsetibles que no a otro animal raçional (I: 289).

Mairuek beti izaten zituzten jokaera lotsagarriak, eta guduetako garaipenak azpijokoz baliaturik eskuratzen zituzten.

¹⁰² I: 291.

... en este tiempo sucedió una crueldad con falsa justicia hecha por los moros contra cristianos.. (I: 257).

Bizkaitarrek izan omen zituzten idolatriazko jarduerak ere gogor zigortzen ditu hitzez:

Y a esta estatua adoraban y reberenciaban y santificaban anpliamente como a Dios, y le pedían demandas, y el diablo, que estaba dentro deste bulto, les respondía y asolbía sus peticiones, demandas y quisiones. Y este bulto y otras estatuas semejantes de dioses, sus ebotos, les duró hasta el tiempo que, después que nuestro Salvador Jesucristo nació e a estos idólatras inorantes les fue pedricada y enseñado el cathasismo de nuestra santa fee cathólica, los dexaron y aborreçieron como adelante a su tiempo se dirá (I: 254).

Haatik, Bizkaia beti agertuko da oso erlijioso, Jainkoari ohore egiterakoan gogotsu eta elizak eraikitzerakoan eskuzabal¹⁰³, lurralde hau oso goiztiar kristautu baitzuen San Cerninek eta bere jatorriaren sustraiek Noe berarengana baikaramatzate. Gure egileen arabera, espainiarrak Recaredo I.arekin hasi ziren kristau katoliko izaten, hau da, 589 urtearen inguruan; San Cernin, euskaldunen predikatzailea, ordea, San Pedroren ikasle izana zen:

Cada uno destes doze apóstoles de Jesucristo tubo muchos discípulos, que hizieron la mesma predicación del Santo Ebanjelio en muchas partidas y probinçias del universo mundo, como lo cuenta largamente la Sagrada Escritura. Y entre los muchos dellos fue sant Çernín, que algunos le llaman Sant Çirnino, discípulo del apostol Simón Pedro, vicario de Jesucristo Nuestro Dios. Este santo bienabenturado Çernino o Çernín fue el primero que bino a predicar y declaró la palabra del Santo Ebanjelio en las montañas desta probinçia vizcaína (II: 45).

Bizkaitarrak edozein espainiar baino lehenago kristautu zirelako ideian sakontzeko, Cachopínek diosku Noek berak eman ziela Jainko bakar eta egiazkoaren legea, euren burua nola gobernatu behar zuten azalduz. Lege hori bertsoz eman zien, kantatuz gogoan hartu eta ahantz ez zekien¹⁰⁴. Halaber, Bizkaiko herriaren handitasun kristaua azpimarratzearen, Cachopínek zehaztasun handiz kontatu zigun Paduako Antonio sainduak Bizkaian egindako egonaldia.

Gertakari miragarri askoren berri ematen zaigu leinuen zein nazioaren historia borobiltzeko. Hauetako batzuk zeruaren opari dira. Beste batzuk abisuak dira. Maiz aurkituko ditugu mirari eta gertakari fantastikoetan oinarritutako azalpen etimologikoak, Ibarrangeluarena kasu (II: 172). Astroen indarra ere garrantzi handikoa gertatzen da munduko gauzen garapenean (Jainkoaren

¹⁰³ I: 165 eta hh.

¹⁰⁴ II: 24.

indarraren beste adierazpen bat) eta toki zabala eskaini zioten Cachopínek eta Iburguenek euren lanean astroen elkartzeko eta estadioen ikerketari.

Baina ez du irakurleak aurkituko aipamen txikiak ere sorginei edo euren jarduerari buruz. Euskal lurretan izan ziren heresia-agerraldiak ere erabat estali zituzten egileek. Ez aipatzea bera aski adierazgarria gertatzen da *Kronikaren* helburuetako bat dela eta: euskaldunen kristau garbitasuna, munduaren sorreratik egunez egun gordea, goraiatzea.

5.2. Bizkaitarra, berezko aitoren seme.

Los vizcaínos cántabros sienpre fueron muy fieles y leales, e, fuera de ser muy cathólicos cristianos, entre ellos jamás ha abido espeçie de sisma ni simiente herética, salbo todos ellos muy límpios e de línpia e clara sangre, sin mistura ni raça de ninguna otra naçion y gentes sospechosas, para lo cual guardar y conserbar tienen su ley probinçial e fuero antiquísimo, por el cual disponen y mandan inbiolablemente que, quando quiera que en algún tienpo a esta probinçia biscaína fuere a bibir alguna persona de fuera della, de cualquiera estado y condiçion, que se una y, ante todas cosas, primero que se avezinde en Vizcaya dentro de [en blanco] días que tiene de plaço y término perentorio con çitaçion de los diputados y regimiento de la probinçia vizcaína, oyendo el síndico procurador general de Vizcaya, a ello baya a la tierra e natural desta adbeneðiço y allí haga informaçion pública, solene y bastante leal y verdadera de cómo el tal es cristiano viejo de quatro costados, por anbas partes, paterna y materna, sin ninguna raça de moros ni judíos ni nuebamente conbertidos ni penitençiadados en manera alguna por el santo ofiçio de la Inquisiçion, ni sin otro efeto de infamia alguno. Y preçediendo esta informaçion de lgº cunplida, después dello le admiten por tal vezino en la probinçia de Vizcaya, e no en el entretanto. Desta manera sienpre han conserbado y conserban esta linpieça de sangre tan antigua entre ellos, y lo mesmo se haze con las mugeres venediças [... ..] los hombres que a ella bienen. (I: 569).

Lerro hauetan laburbildurik ditugu *Kronikan* zehar behin eta berriro azpimarraturiko hiru ideia nagusi: euskaldunen odol garbitasuna, belaunaldiz-belaunaldi jasotako administrazio askatasuna eta kristau zahartasuna.

Aipatu askatasun administratiboa (Erregeren zergetarako “exento”, salbuetsia, izatea, ahalbide militar propioak edukitzea, berezko lege instituzionalak gordetzea herri eta lurralde mailan, lurraldean kompetentzia propioak izatea, ...) Erdi Aroko azken mendeetan zehazten joan zen¹⁰⁵ eta Gipuzkoa, Araba zein Bizkaiako komunitateak *libretzat* hartzen zituen, nahiz gaur egun *pribilejiatutzat* ere har genitzakeen, batik bat garaiko beste komunitateekin alderatuz.

¹⁰⁵ García de Cortazar, F. eta Montero M., 1999, *Diccionario de historia del País Vasco* A.Z, Txertoa, Donostia, 304-328 (“fueros”).

Abantaila eta salbuespen horiek, eta baita koroak eskaini ohi zuen beste hainbat eskubide, aitoren semei eskaintzen zitzaizkien, hau da, euskal lurretako biztanleen kasuan, bere *bizkaitartasuna*¹⁰⁶ froga zezakeen orori.

1526ko Foru Berriak aitoren semeen pribilegioak indartu egiten ditu. Arraza garbiaren probantza bizkaitar izate soilak bermatuko du aurrerantzean, eta estatus horrek aberritik kanpo ere indarra izango du. Aitoren semeen eskubideen defentsa Euskal Herriak mendez mende gordetako burujabetza eta askatasunaren ideian oinarritua da, ahaide nagusien boterean irudikatua.

Idea hau Lope Garcia Salazarren eskutik jaso zuten XVI. mendeko historialariek, besteak beste, fray Miguel de Alonsotegui, Coscojales eta Mendieta bizkaitarrek, Diego de Salvatierra arabarrak¹⁰⁷, eta Garibay, Zaldibia eta Echave gipuzkoarrek. Baina Garcia Salazarrek noble talde murriz batentzat aldarrikatzen zituen eskubide horiek, ahaide nagusientzat eta euren oinordekoentzat, alegia. Helburu hauek, jakina, herri komunitateen helburuen aurkakoak ziren, eta horrek komunitateak hermandadeetan biltzea eta ahaide nagusiei oldartzea ekarri zuen.

Puntu honetan kokatu behar genuke *Ibarguen-Cachopín Kronika*, Gaztelako giro nahasi horretan aitoren semeen eskubideen alde egindako ahalegin erraldoi bat bezala, zeinetan leinuz leinu, mendez mende, saiatu baitziren bizkaitarren odol garbitasuna eta antzinakotasuna erakusten. Bizkaitarrak berez direla nobleak berretsiko digute, eta gizarte feudalaren balioen testuinguruan defendituko ditu: “los fidalgos no deben pechar” (III: 208).

Koroak aitoren semeen eskubide eta pribilegioak aintzakotzat hartu zituenean, bestela esanda, “hidalgia unibertsalaren” ideia bere egin zuenean, apurka-apurka, Espainiako erreinuan aurkako ahotsak hasi ziren altxatzen, gero eta ozenago, saiatuz bizkaitarrek mendez mende jasotako noblezia hori gezurtatzen. Esan liteke, beraz, aitoren semeen aurkako korronte indartsua sortu zela Espainian XVI. mendearen bigarren erdian.

Espainian sortu zen giro antibizkaitar hau ederki islatu zuten *Kronikaren* egileek 74. koadernoan (II: 127-130) Juan Garcia fiskalaren kasuari buruzko txosten labur bat sartzean. Txostenaren hasierako folioak galdurik badaude ere,

¹⁰⁶ Gogora bedi garai hartan “vizcaíno” oro har euskaldunei esaten zitzaizela administrazioaren tratuetan.

¹⁰⁷ 1585, *Gobierno y república de Vitoria*.

Bizkaiko Jaurgoak Felipe II.ari eta Errege Kontseiluari bidalitako gutun bana irakur daiteke bertan, 1589koak biak, eta jarraian jasotako erantzunak, 1590eko urtarrilean emanak.

Juan Garciak, Valladolideko Real Chancilleria-ko fiskalak, *De Hispanorum Nobilitate et Exemptione* izeneko liburua kaleratu zuen, bizkaitarren hidalgia unibertsalaren ideiarri aurre egiteko eta erreinuaren administrazioan zuten eragin gero eta handiagoari kontrapisua jartzeko asmotan. Liburu horretan aitoren semeen jatorri noblea eta odol garbitsuna zalantzan jartzen da eta benetako noblezia hiruzpalau leinuri baino ez zaio aitortzen, “dexando a sus naturales tan desnudos de nobleza e idalgúia como si fueran villanos de Sayago”(II: 128)¹⁰⁸. Bizkaiko Jaurgoak, jakina, bere kezka azalduko du, ideia horiek jende ezjakinaren artean hedatzeak kalte handia ekar baitezake:

(...) no puede dexar de causar mucho perjuicio a los naturales deste señorío, así para sus onras y pretensiones como para casarse y enparentar en estos reinos y fuera dellos y para otros efectos extrajudiciales que no sean de juzgar por personas doctas e inteligentes, de donde resulta gran quiebra de su reputación y un perjuicio inestimable (II: 128).

Erregek baikor erantzun zuen eta Juan Garciaren lanak aldaketa ugari jasan behar izan zuen:

(...) tubámoslo por bien, por la cual vos mandamos a todos y a cada uno de vos en nuestros lugares y jurisdicciones, según dicho es, que siendo con ella requeridos hagáis recoger y recojáis el dicho libro original y los que por él se obiesen impresos e se allaren en vuestra jurisdicción, hechos por el dicho Juan Garçía, nuestro fiscal, intitulados De Hispanorum Nobilitate et Exemptione. Y así recogidos, los haga enmendar y enmendéis, quitando y restando de ellos lo contenido en la certificación y testimonio que con esta nuestra carta os será mostrado (II: 129).

Pasadizo honek argi erakusten du Bizkaiko Jaurgoaren eta monarkiaren arteko harremanen gozoa, eta zein estimu handitan dituen koroak aitoren seme bizkaitarrak. *Kronikak*, bere aldetik, beti azpimarratuko du bizkaitarrek Espainiako erregeei dieten maitasuna, bereziki Felipe II.ari. Mesedea beti mesedez ordaindu behar izaten baita, Felipe II.ak Felipe III.ari bere testamentuan agindurik utzi zion maita zitzala bizkaitarrak eta gorde ziezaiela euren askatasun

¹⁰⁸ Sayago Zamorako eskualdea da; gogorra gertatu zen bertan bizimodua Erdi Aroan: Elizaren mende ziren “sayagües”ak eta zerga gogorrak ordaindu beharrean. Horrela, bi gizatalde sortu ziren, jauntxo nekazariak eta lurrik gabeko nekazariak, denak ere lanak itota bizi zirenak.

eta foruak, ezen leialak eta fidelak baitziren oso monarkiarekiko eta beharrezkoa baitzuten euren laguntza monarkia gordetzeko.

5.3. Autogobernuaren defentsa monarkiaren babespean.

Cachopín eta Iburguen felipista porrokatuak dira, Errege Katolikoaren miresleak eta Carlos I.aren jarraitzaileak. Idatzi zuten lanak *Espainiako Historia Orokorra* darama izenburu eta Inperioaren handitasuna du ikusmiran, Inperioaren batasuna helburu, eta Inperio Sakro Erromatarra eredu, gogoan beti jatorri adamikoaren batasuna. Baina handitasun horretan euskaldunen tokia aldarrikatuko dute eta euskal lurrari dioten maitasuna agerian utziko, eta hortik azpítituluak: *eta Etxe Bizkaitarraren gehigarria*.

Kronikak antz handiak ditu egiturari begira Ocamporen lanarekin eta baita Garibayrenarekin ere, argiro zuzendua euskal leinuetara eta bereziki ahaide nagusienetara. Caro Barojak Garibayri buruz mintzatzean dioena ahotan hartuta, Cachopín ere, zalantzarik gabe, “se sentía muy español, muy católico, muy monárquico y, a la par –Iburguenen eskutik– ardiente defensor de las leyes de su pais natal y de las tierras vecinas vascas”. Izaera hau oso hedatua bide zegoen “bizkaitarren” artean, batik bat Euskal Herritik kanpo Espainiako koroaren makinaria politikoari esker bizimodua edota dirutza egiten ari zirenen artean. Oso adierazgarri dira zentzu honetan 65. koadernoan irakur daitezkeen hitz hauek:

Estos vizcaínos de quien hablo [... ..] siempre defendieron e guardaron a fuerza de armas sus casas e patria sin ir ni salir fuera de su tierra e probinçia vizcaína a las ajenas y extrañas a inquietar ni dañar a nadie, contentándose con lo suyo e dexando lo ajeno para sus dueños y señores. Y sobre todo tubieron siempre, desde su origen y principio, muy grandísimo amor y amistad a los reyes y príncipes y señores de España, ayudándoles siempre con sus personas y armas en todas las guerras y ocasiones que se les ofreçieron agradable y lealmente (II: 46).

Espainiako erregeenganako begirune eta haiekiko lotura “politikoa” Jaun Zuriaren garaian hasi omen zen gauzatzen, aurretik inolako menpekotasunik gabe bizi izan baitziren kantabriarrak (II: 68). Eta jakina, koroa gustura zebilen hain jende leial eta otzanak inguratua, jakinda burokrata oste hau ez zitzaiola garestiegi ateratzen, beti ere zenbait pribilejio mantenduta.

Pribilejio horien aldeko justifikazio historikoa indartu eta sendatu beharra zegoen, ezen, ikusi denez, hasiak baitziren altxatzen hainbat ahots Felipe II.aren gortean bertan, pribilejio horien bidegabekeriaz. Horrela bada, euskaldunen

eskubideen oinarri historikoak aldarrikatu nahian aipatzen dira *Kronikako* koadernoetan zehar, behin eta berriro, euskaldunek euren “errepublika” gobernatzeko zituzten “instituzioen” xehetasunak.

5.4. Zalduneriaren balioak.

Cachopínen ikuskera historikoa Erdi Aroko kronistikan nagusitu zen zaldun humanismoaren¹⁰⁹ eraginpean da. Leinuen handitasuna bere semeen egintza heroikoen araberakoa izanen da, Erregeren alboan zaldun gisa burututako balentrien neurrikoa. Zaldunak paper dinamikoa jokatuko du narrazioan, oinarritzakoa; adorez gobernatuko ditu bere menekoak eta aitoren seme ororentzat izanen da eredu. Baliorik behinena loria, ohore eta boterearen desioa da, eta bitartekoak handinahia, ausardia eta ahalegina. Baina, era berean, bere helburuen eskuratzeko ezingo du egiatik, justiziatik eta zuhurtziaz aldendu.

Balio hauek neurri berean eskatuko zaizkio Troiako heroiori, erromatarren aurka borrokatzen den artzain euskaldunari edo musulmanei aurre egitera ateratzen den zaldunari, eta pasadizo horietan gertatzen diren indarkeriazko ekintzak xehetasun guztiz eta atseginez izanen dira kontatuak. Horrela, behinola, frantsesak Bermio aldera iritsi zirenean piratak bailiran, lapurretan egiteko asmoz, Melicola kapitaina atera zitzaien “como un brabo león rabioso y encarnizado” eta ihesean jarri zituen, haietako asko hil edo zaurituta (III: 186).

Hala ere, indarkeria bere erarik gordin eta bortitzenean Oñez eta Ganboa bandoen gatazkaren inguruko pasadizoetan agertuko da. Egileak, nola ez, Gonzalo Moro korrejidoreak ahaide nagusien bandoen aurka eta Batzarretatik sustatutako hermandadeen alde ezarritako neurri gogorren aldeko dira:

Después desto, que fue por el año del Señor de 1457 años, se lebaron con soberbia fundada en gran razón las hermandades de la probinçia de Guipúscoa a mano armada contra todos los parientes mayores y cabeças de la tierra sin tener atención ni respeto a ninguno de los dos bandos de Onez ni de Ganboa, porque estos caudillos y sus apellidos hazían muchos y grandes fuerças, robos y malefiços con crueldad en toda la probinçia y sus montañas, caminos, montes y lugares, a los cuales, una y ante todas cosas, les hizieron restituir y pagar todos los agrabios y malefiços fechos malamente. E luego dello, estos hermandados de un acuerdo y boz, les derribaron y arrazaron por el suelo como a tiranos malhechores todas sus casas y cadalsos fuertes sin dexar ninguna torre ni fortaleza onezina ni ganboína malhechora (III: 172)

¹⁰⁹ Alonso de Cartagenaren (1487) *Doctrinal de Caballeros* lanean sakon dezake irakurleak ideia honetan (Viña 1995: LX).

Borroka hauek deskribatzen dituzten pasarteetan, alde batetik, egileen izua atzeman daiteke bortxazko ekintzen aurrean, baina bestetik, protagonisten ausardiak eragiten dieten mira ere agerikoa da. Sarri, bere estiloa hurbilago dago Garcia Salazarren gotortasun eta gordintasunetik, Garibayren nahasmen eta anbiguotasunetik baino. Bandoen indarkeria arbuiatzen du, baina ez du oñeztarren aldeko dela ezkututzen eta heroismoz betetako garai haiek miraz ekartzen ditu gogora.

Llamábase Joane Arça porque hera tan baliente que, a braço partido luchando con un oso le mató con machete de dos palmos, cosiéndole en su colmenar junto a su casa, y así se le puso el nombre del oso. Éste tenía puesto batalla y desafío con otro baliente que se llamaba Juan de Asúa, oñezino. Y los dos topándose en Ganguren en la batalla, como personas que antes estaban picados, se azieron y, teniéndole el Arça al de Asúa herido e rendido en el suelo, le quiso quitar un sinto de plata guarneçida que tenía, y, baxándose a se lo quitar, el Asúa sacó el puñal y con él le dió por las tripas y mató al Arça. Y así, anbos e dos quedaron allí muertos (I: 558).

Indarkeriazko ekintzen kontaketa gozagarri bailitza, zenbait pasadizo odoltsutan elementu fantastikoak ere sartzen dituzte biolentziazko ekintza horiek une epiko gogoangarri bihurtuz. Hain sakon errotuta zegoen belaunaldiz belaunaldi jasotako indarkeriaren kultura hori, ezen guda jarrerak eta erasoari indarkeria handiagoz erantzutea bertutetzat joak baitziren. Liskarra edozein unetan sor daiteke, haserrealdi txikienak eraginda, eta neurritz kanpoko bilaka daiteke familia ezberdinek ezkontza, hileta edo antzerako ospakizunetan topo egitean. Arrazoirik behinena mendekua izan ohi da, nahiz eta batzuetan muga arazoak edo amodio aferak ere ageri diren sorburuan. Besterik gabe, bestearen aberastasunak gutiziatzea aski arrazoi izan ohi zen armak hartzeko. Guztia zeinek gehiago balio, zein gehiago izan helburu dela, maiz gogorarazten zaigun bezala: “Balioac balio, ta Ochandateguic asco” (I: 665).

Egitura sozial zaharraren eta garapen ekonomikoaren arteko desoreka etengabeak ahaide zaharren barne haustura eragin zuen, aldizkako gatazken sorrera eragin zuena. Ahaide nagusien baserri ekonomiak ezin zuen lehiatu hirietako merkatariek jaun eta erregeen babespean lortutako etekinekin. Hirien pisuak gora egin zuen eta egoera berrira egokitu behar izan zuen egitura politiko-

administratiboak¹¹⁰. Hirien inguruan sortutako burgesia horren partaide genuen Iburguenen aita, merkataritzan artekari lanetan jarduten baitzuen, eta Iburguen bera burokraziaren inguruan sortutako burgesia berriaren partaide zen. Ez ziren, bada, sekula jarriko gainbehera zetorren ahaide nagusien boterearen alde, baina miresten zituzten haien ideal “kaballereskoak” eta gogoan zituzten euren familiaren aurrekari etniko-jentilizioak. Ideal hauek dira, hain zuzen ere, *Kronikan* ahaide zaharrei buruz mintzatzean azpimarratzen diren baloreak, eta egileek ez dute okasiorik galduko euren arbasoak Espainiako erregeen alboan, itsasoan zein lehorrean, musulmanen aurka egindako balentriak deskribatzeko¹¹¹.

¹¹⁰ Bandoen arteko gatazkari ikuspegi político eta social honetatik begiratu diotenen artean nabarmentzekoa: Fernández de Pinedo, E., 1975, “¿Lucha de bandos o conflicto social?” in Askoren artean, *La sociedad vasca rural y urbana*, Bilbo.

¹¹¹ Ikus III: 365 (“Índice de temas”: guerras contra moros).

6. CACHOPÍNEN IMAGINARIOA ETA HISTORIA MITIKOAREN ERAIKETA.

Cachopín eta Iburguenen lanak *Kronikoi faltsuak* deritzen liburuen artean duke bere tokia, bete-betean gainera. Gaur egun ospea erabat galdua badute ere, iraganean Erreinuaren historia ofizialaren igorle izan ziren¹¹². Are ofizialagoa izanen zen historia hori erreinu, estatu, leinu edo hiri jakin bat goratzeko helburu argiarekin moldatua zenean. Eldarnio hauetako asko enkarguz egin ohi zirenez (abizenik bilauenaren jatorri noblea ere froga zezaketen genealogista, heraldista eta arma-erregeen antzera), zentzugabekeria handienarekin zigor zitezkeen testu klasikoak edo Biblia bera, eta, metodo etimologikoa tarteko, han eta hemen moztu edo zabal zitezkeen gauzak ezkonaraztearren.

Harrigarria gerta badaiteke ere, badira historialari “jostalari” hauek Historiaren zutabe gisa, ukitu handirik egin gabe, mantendu dituzten mito nagusiak, denek onartuak. Tubal, Hercules, tradizio homerikoaren heroiak, ... aldaera handirik gabe behin eta berriz errepikatzen diren mitoak dira, Espainiako patrimonio espiritualean erabat erroturik baileuden. Jakina, mito horietako pertsonaiak historikoak direnik esaterik ez dago, baina zenbait ikerlek azalpen ebemeristikoa eman die, hau da, egiazko gertakarien testigantza gordetzen omen dute, legendak edertua, eta, halaber, oroimen historikorako laguntza nemoteknikoa eskaintzen omen dute. Horrela, Hercules eta bere balentriek grekoen egonaldiak ekarri nahi omen dizkigute gogora, Gerion erregearen ekintzek afrikarrekin izandako harremanak,

Ulertzekoa da historialari zorrotza sinesgogor paratzea “kontulari” hauen aurrean, baina istorioak eta ipuinak entzutea gozagarri da berez eta kalterik ez du egiten. Ala bai? Smith-ek (1986) zioen etnia baten egonkortasun historikorako zutaberik garrantzitsuena bere egitura “mitiko-sinbolikoa” zela, alegia, bere memoria historikoa, mitoak, sinboloak eta balioak, eta hauek transmititzeko gaitasuna. Espainiako errege kristauen inguruko historialariek argi ikusi zuten hori eta Espainiaren antzinatasunaren oinarriak Euskal Herriaren eta euskararen jakineko antzinatasunaren gainean eraiki zuten, mitoa estereotipo bihurtuz. Baina

¹¹² Kronika honen iturri moduan aipatu ditugunez gain (4.2. Lehen mailako iturriak) ugari dira aztertzea merezi luketen autoreak: Francisco Tarafa (1562), Pedro de Salazar (1570), Lúcio Marineo Sículo (1525),

horiek beste ur batzuk dira, eta gu Cachopínek *Kronikan* egindako lanari lotuko gatzazkio. Istorio eta ipuin ederrak aurkituko ditu bertan irakurleak, harrigarriak, nahiz ez originalegiak, ikusiko dugun bezala.

Garibay eta besteren antzera, Cachopínek ere Eskritura Santuetan oinarritutako Historiaren ikuskera genealogikoa du abiapuntu. Jaungoikoagandik hasita, Bibliako patriarkak (Noe, Tubal) tarteko direla, Espainiako erregeen segidara iritsiko da. Ondoren nobleziako zenbait mailalara igaroko da, eta, azkenik, hari genealogikoari jarraiki, Bizkaiko leinu handienetara eta bere adarretatik ateratakoetara iritsiko da, Iburguen bera barne. Herrialde askotako historiografiek jo izan dute Historia eratzeko modu honetara: Israelgoak, grekoak, ..., eta horrela, metodo genealogikoa oinarri hartuta, ondorio historikoak ez ezik, juridikoak ere eratorri izan dira.

Oinarri genealogiko horien gainean eraikitako historiak nahitaez izan behar ditu koherentzia arazoak, eta Cachopínen lanean kontraesanak ere nabarmenak dira oso, hein handi batean pasarte ezberdinak osatzeko erabili izan zituen iturri ugarien nahastetik sortuak. Saiatuko bagina istorio edo errelato guztiak osotasun koherente batean biltzen, halabeharrez sortuko litzaizkiguke pertsona izenen, tokien eta kronologiaren inguruko nahasteak eta kontraesanak. Cachopínen asmoetarako, egia esan, hori gutxienekoa zen. Benetan garrantzia zuena nazioari esperientzia ugari eta aberatseko Historia baten hornidura ematea zen, zeinek hari genealogikoarekiko lotura erakutsiko baitzuen eta bi ardatz nagusiren gainean eraikiko baitzen: antzinasuna eta noblezia. Horrek, hain zuzen, emango zion besteen mira eta errespetua, eta batez ere sinesgarritasuna, erregeen eskuen zabala gozatu ahal izateko ezinbesteko bertuteak.

Hurrengo orrialdeotan saiatuko gara *Kronikan* kontatzen zaigun *Bizkaiko* historia mitikoa edo imaginarioa laburtzen eta ahal dugun neurrian aztertzen, Erdi Aroko eta Errenazimenduko kronika ezagunetan kontatu zitzaigunarekin alderatuz, besterik ez bada.

6.1. Tubalia.

Tubalismoaren mitoa *Genesis*-en zenbait kapituluren gainean (batez ere 9., 10. eta 11.a) egindako interpretazioetan eta Flavio Joseforen esaldi batean (35-c.100) oinarriturik sortu zen: “Tobelus Thobelis sedem dedit, qui nostra aetatem

Iberi vocantur”. Egile ugari eztabaidatu dute mendez mende zein ote zen Iberia hau, Kaukasokoa ala Iberiar Penintsulakoa. San Jeronimok zalantzak izan zituen Espainia eta Italia artean, baina ondoren etorri ziren pentsalariek (San Isidoro, Alfonso X.a, Viterbo, Ocampo, Garibay, Argai, ...) ez zuten zalantza izpirik izan eta tubalismoaren mitoa deritzona eraiki zuten batak bestearen ekarpenak bilduta¹¹³. Tubal, bere herritarren buru zela penintsulara iritsia edo bere aitona Noeri lagun eginez etorria, tradizioak Espainiako lehen monarkia mitikoaren fundatzailatzat du. Beragandik abiatuta, errege dinastia luzea kateatu zen Gargoris izeneko erregearekin bukatzeko.

Zein izan ote zen Tubalek Iberiar penintsulan zapaldu zuen lehen lurra? Hara hor Espainiako tradizio historiografikoa zatitu zuen galdera. “El lugar do Tubal aportó en España no se sabe de cierto” zioen Beuter-ek (1546:f. XIV), baina segidan Mediterraneoko kostaldeko lekuren baten alde egiten du apustu autore honek. Ez zitekeen bestela izan, bera balentziarra izaki, eta gainera, tradizioak zioenez Tubal Italiatik atera bazen, Creusetik Cadizera bitarteko porturen batean joko zuen aurrena, pentsatzekoa denez. Horra tubalismo meridionalaren sorburua.

Beste zenbait autorek, ordea, Tubal penintsulako kostalde guztia inguratzen ikusi zuten, Bizkaiko itsasertz ederrak liluratu zuen arte. Horrela, *Kantabriako* mendietan ezarri zuten Tubalen semeen jatorria, izenak duen ambiguitate karga guztiarekin, kantabrisismoaren oinarri historikoak jarritz. Cachopínek ere tubalismoaren bertsio kantabrista eman zigun eta haren alde egin zuen bere lanean, baina bertsio meridionalaren gainean eraikita:

(...) como queda aberiguado en esta istoria, Túbal, primero poblador destas montañas biscaínas después de las demás regiones y probinçias de España, fuese natural caldeo y las compañas que con él binieron lo mesmo traxeron consigo juntamente con la lengua bizcaína la lengua caldea y la primera lengua heber (I: 189)

Bada oraindik tubalismoaren teoriari eusten dionik, Kantauri aldean atzeman omen daitezkeen zenbait toponimo “noetico”tan oinarriturik¹¹⁴. Metodologia hori berori erabili zuen Cachopínek ere, baina bere kasuan toponimoen etimologia Tubal eta Kantauri ezezik euskara ere uztartzeko helburuarekin izan zen landua.

¹¹³ Ikus Zubiaur (1990) eta Juaristi (1991).

¹¹⁴ Fray Gregorio de Argai-ek (1668) dioenez, Tubalen emazteak Sepharad zuen izena, Tafalla fundatu zuen, Busgosko Tobalina bailadak ere Tubalen izena darama,

Besterik gabe, hona hemen Bizkaiko Historia Mitikoaren zati batzuk, Cachopínek *Kronikan* idatzitakoak bildurik eta irakurlearentzat egokiturik¹¹⁵:

6.1.1. Fundazioa

Noek, bere semeek eta ahaideek dorre erraldoia eraiki omen zuten Babilonian Nembroth tiranoaren aginduz, gizakien handitasunaren ezaugarri gisa. Jainkoak baina, harrokeria hutsa iritzi zion ekintza horri eta dorrean zihardutenak nahastu egin zituen euren artean hizkuntza ezberdinak ereinda. Elkar ezin ulerturik, nahastea areagotu baino ez zen egiten eta dorrea erori egin zen. 72 hizkuntza izan omen ziren han sortutakoak, eta tribu edo leinu bakoitzak berea zeramala, Babiloniako biztanleak munduan zehar zabaldu ziren.

Tubalek bere leinuarentzako bizileku baten bila hasitako bidaiia luzea, euskal lurra ikustearekin batera emango zuen amaitutzat:

(...) por sus grandes alturas, fragosidad y espesuras de sus sierras e montañas, con que mejor e más esforçadamente defendían de sus adbersarios, como por la mucha abundancia e fertilidad de sus árboles frutales silbestres de todo modo e género, yerbas dulçes y raizes de yerbas y de árboles que, después de secos y molidos, hazían harina y pan para comer, e muchos animales e abes de todos géneros, indómitos, que casaban con su industria y ligeresa de pies, e muchos pescados de agua salada e dulçe que pescaban, e grandes montes para leña y otros efetos probechosos, e grandes cantidades de borona silbestre que de suyo naçía por los canpos, cuya simiente oy prebaleçe y aprobecha en aquella probinçia, e ser la tieria muy tenplada e sana e de buen çielo y aires e de buen asiento y anchura y de grande frescura, y tener otras muy munchas graçias, birtudes y probechos de grande estima (...) (I: 165)

Lurralde honetako lehen biztanleak, beraz, Tubal eta bere tribukoak izango ziren, eta horrela sortu zen Tubalia izeneko herrialdea. Segituan ekin zioten errepublika antolatzeari eta hala erabaki zuten euren gobernurako burutzat hirurogei urtetik gorakoak aukeratzea. Zahar hauek Solue gainean batzen omen ziren errepublikaren arazoak eztabaidatu eta erabakitzeke, eta hortik sortu omen zen “batzarrak” hitza bera ere (batu+zaharrak). Ba omen zegoen Solue gainean zuhaitz lodi, adartsu eta baxukote bat, hosto txiki eta kizkurrekoa, errautsaren kolorekoa eta gauez dirdir egiten zuena. Zuhaitz honen azpian egiten zituzten tubaliarrek euren batzarrak.

¹¹⁵ Letra etzanean *Kronikatik* jasotako historia mitikoa, geuk egokitua, eta letra arruntean iruzkinak.

Lurra ere banatu zuten herritarren artean. Ordura arte dena denena izan bazen ere, aurrerantzean bakoitzak berea gozatu eta gobernatu zezala agindu zen; horrela, ausart eta indartsuenei itsaso aldeko mendiak egokitu zitzaizkien, kanpoko erasoetatik hobeki defendatu ahal izateko, eta besteek barne aldeko mendi eta lurrak hartu omen zituzten.

6.1.2. Maurzo eta Nacmino kapitainen erasoak.

Tubaliako biztanleen bizimodua, hala ere, ez zen erabat baketsua izango, hasiera-hasieratik jasan behar izan baitzituzten kanpoko erasoak. Antza denez, lehen erasoak Espainiako beste lurretatik etorri ziren, hango lehen erregeak tirano hutsak izan baitziren. Kristo aurretiko 1720 urtearen inguruan (Espainia sortu zenetik 371 urte igarota), Espainiako errege Gerion zela, Maurzo izeneko kapitain bat bere gudalosteak prestatu, Bilbotik sartu eta Zornotza igarota Oiz mendizerraraino iritsi zen. Maurzok Ansuategi izeneko tubaliar bat zeraman gidari eta honen traizioari esker egin ahal izan zuen bere konkista. Baina tubaliarrek aurre egin zieten inbasoreei gaur Ziortzako monastegia den inguruetan, eta mendean hartu zituzten borroka odoltsu baten ondoren. Ihesi joan ziren arerioak eta Maurzo kapitaina pozoitutako geziek eragindako zaurien ondorioz hil zen, minen amorrazioz oihuka. Ansuategi traidorea preso hartu zuten eta eskarpiaturik hiltzera kondenatu, orduko gaizkileei ezarri ohi zitzaien zigorra baitzen hura. Egur luze batean esku bat luze ziren burdinak iltzatzen zituzten lau atzamarreko tartez, punta zorrotzak gora begira zirela. Zigortua, berriz, polea batez jasotzen zuten, besoak eta hankak lotuta, eta, goian zelarik, sokak askatzen zituzten bere pisuz eskarpiaren gainean eror zedin. Zigortua hiltzen zen arte errepikatzen zuten ariketa bera¹¹⁶.

Gerion erregea hilda, bere hiru semeek hartu zuten Espainiako erregetza, eta hauen kapitain bat, Nacmino izenekoa, berriro saiatu zen tubaliarrek mendean hartzen. Inbasio honen xedea lantzak, ezpatak eta geziak egiteko lehengaiak lortzea zen, egur luzeak eta burdina alegia, Tubalian ugari baitziren. Indarrez eskuratu nahi izan zituzten aipatu tresnak, baina tubaliarrek, ohiko batzarretan bildu ondoren, euren zena defenditzea deliberatu zuten eta, inbasoreen bila aterata, Plentzia inguruetan kausitu zituzten. Borrokan anitz

¹¹⁶ I: 189.

kanpotar hil zuten eta Nacmino bera ere larriki zauritu, zeinek zaurietatik sendatu ahal izan zuen artean Tubalian hazten zen zuhaitz baten azala janda. “Kanelea” zeritzon azal honi, eta zuhaitza laranjondoaren tamainakoa zen, hostoa erramuarena bezalakoa. Egun desagertua da Bizkaiko lurretatik¹¹⁷.

Baina guduak eta liskarrak ez ziren kanpoko inbasoreen aurka izan soilik, tubaliarren euren artean ere izan baitziren borrokak. Adibidez, Bizkargikoek eta Soluekoek izan zuten elkarren aurkako borroka Nacminorena gertatu aurretik.

Euskaldunak sekula kanpoko ezein herrik jazarriak izan ez zireneko mitoa ere oso present dago XVI. mendeko euskal kronisten lanetan, eta Baltasar Etxabek (1607) berebiziko garrantzia eman zion ideia honi, bere *Discursos de la lengua cántabro-bascongada ...-n* behin eta berriro azpimarratu zuenez.

6.1.3. Idolatria Tubalian.

Espainian Sicano errege zela, K. a.ko 1591. urtean, Boleak zeritzon kapitain ausart eta estimu handikoa hil zelarik, ohi zuten era jentilikoan, burdinazko estatua handi bat egin zuten tubaliarrek Boleak kapitainaren bustoa irudikatuz, eta orakulo gisa jarri zuten Solue gainean, non euren batzarrak ospatzen baitzituzten. Eta estatua hau gurtzen zuten eta otoitz egiten zioten Jainkoa bailitzan. Deabruak estatuaren barnetik erantzuten omen zien tubaliarren erreguei¹¹⁸.

Espainiako errege Cuso zela, K. a.ko 1480 urtearen inguruan, Alpeetatik etorritako kapitain baten erasoari erantzun behar izan zioten tubaliarrek. Burucain omen zuen izena kapitainak eta Portugaleten gertatu zen borroka. Mendean hartu zutenean bere idoloa hartu zioten tubaliarrek Burucaini.

XVI. mendeko kronistek ez ziguten *Kronikak* bezain berri zehatzik eman idolatriaz.

6.2. Soloria¹¹⁹.

Soloria edo Siloria izena izena hartuko zuen Tubaliak bigarren aro zabal honetan. Erromatarrek konkistatu zuten Hispania hartan bazen Solorius izeneko herrialdea hegoaldeko Baetican; zehazkiago esateko, geroago Sierra Nevada

¹¹⁷ Berri zehatzagoa izateko: I: 219-221.

¹¹⁸ I: 256.

¹¹⁹ I: 282, 263-264, 415-416, 452, 602-603

deituko zioten mendikatearen izena zen Solorius, eta aipagarria da kointzidentzia. Pozak (1587), bere aldetik, Siloria izena darabil eta honela deskribatzen du lurraldea:

Siloros, españoles, a quien Ptolomeo llama syleres, fueron llamados en otros tiempos antiquísimos, todos aquellos que vivían dende la ría de Sant Ander y sus montañas, y la Cantabria, vardulos y vascos hasta el río Gallego en Aragón, que se mezcla con Ebro casi frontero de Çaragoça, incluyendo a todos estos hasta la mar y los montes Pyrneos (“De las antiguas poblaciones de las Españas”, 31).

6.2.1. Tubalia izena utzi eta Soloria hartu. Idolatria.

Siculo Espainiako errege zela, K. a.ko 1471 urtean gutxi gorabehera, tubaliarrek izen berria eman zioten lurrari, Soloria hain zuzen, euren batzarrak ospatzen zituzten Solue mendiaren ohorez, eta Tubalia bazter utzi. 690 urte ziren igaroak Tubalek eta bereek lur hau bizitoki hartu zutenetik.

Batzuen esanetan, ordea, Siloria edo Soloria izena soloa hitzetik dator, garai haietako euskaraz soloroa, izan ere, ikusi zutenean lur hura egokia zela bizitzeko eta haziendak hazteko, soroak lantzeari ekin zioten, bertan erroak botatzea erabakita.

Soloriarrek jarduera idolatrei eutsi ez ezik, hauetan sakondu ere egin zuten. Familia bakoitzak bere jainko propioa zuen, errepublika guztiarentzat zituztenez gain. Idolo partikular hauei orokorrei baino debozio handiagoa izaten zieten, eta hil aurretik idolo bihurtuko zuten pertsonaiak berak aukeratutako mendiaren gailurrean jartzen zuten irudia. Idoloak gurtzerakoan giza haragia eskaintzera ere iristen ziren. Jende jentil eta ezjakinen jarduera hauek Jesukristo Gure Jaunaren etorrera arte iraun zuten.

Errepublika guztiarentzat zituzten orakuluen artean bazen bat Oiz mendian, burdinaz, egurrez zein harriz egindako idoloz betea, eta denak ziren gizakien bustoen irudikapena. Baina irudi horiek sarri hartzen zuten aker, idi, zakur, hegazti edo sugeen irudia, edota animalia horien besoak, hankak, adarrak edo beste gorputz atal batzuk eransten zitzaizkien. Ba omen zen antzerako orakulu bat Gorbea mendian ere, antzina Gordeya deitua, eta hilaren lehen eta azken egunetan abiatzen ziren harantz hurbileko zein urrutiko gizon-emakumeak, erromerian ortozik, euren otoitzak eta eskaintzak egitera. Jainko hauen aurrean ahozpe, beste inora begiratzen ausartu gabe, euren eskaria luzatzen zioten idoloari. Eta orduan deabruak erantzuten zien idolo barrutik egoki irizten ziona.

Eskaintza eta otoitz hauetan askok euren burua zauritzen zuten labanez eta odola isurtzen jainko horien maitasunez. Zauri haien ondorioz hilez gero, idolatrak irabaziak zituen salbazioa eta loria. Beste batzuek seme-alabak eraman eta bertan sakrifikatzen omen zituzten, haien odolaz aurpegia eta eskuak igurtziz. Era horretan hildakoak santutzat zituzten, eta, zenbat eta hildako gehiago izan, orduan eta ohore handiagoa jasotzen zuen familiak. Ahaideen arteko lehia handia pizten zen horrelakoetan. Norbait ospakizun hauetako batean bere buruaz beste egitera zihoanean, sona handiko festak antolatzen zituzten, adar, alboka, xirula eta danborilen doinura dantza eginez eta koplak abestuz.

6.2.2. Eresiak.

Kantu hauei “eresi” zeritzeten eta sakrifizioan hiltzera zihoan ahaidearen balentria eta bertuteak kontatzen zituzten. Bere burua sakrifikatzen zihoana biluzik azaldu ohi zen idoloaren aurrean, eskuan laban zorrotz bat zuela. Gorputzari ebakitzen zion lehen haragi puska idoloaren aurpegia igurtzi ohi zuen, eta jarraian bere buruari hil arterainoko labankadak jotzeari ekiten zion. Onduan biziak hildakoaren gorpua aurkezten zioten idoloari eta, su handia piztuta, erre egiten zuten. Errautsak mirespen handiz gordetzen zituzten.

Sakrifizioan hildakoa gizon ezkondua bazen eta seme-alabarik ez bazuen, emaztea ere bertan hiltzen zuten eta sua egindako tokian lurperatzen, beste munduan ere lagun egin ziezaion. Eta emazteak heriotza baztertu eta bizitza aukeratzen bazuen, gutxietsia eta gaiztotzat hartua izan ohi zen. Seme-alabak izanez gero, ordea, emazteak bizirik jarraituko zuen, sekula eta betiko alargun. Alargun hauek miretsiak izaten ziren, sakrifikatutako senarrarekin batera hil bailiran, eta, horren adierazgarri, alargun bakoitzak bere idoloa zegoen mendiaren irudira egiten zuen orrazkera eta burukoaren moldea edo ibikia, eta hortik antzematen zitzairen nongoak ziren¹²⁰.

Erostatzeko modua, antza denez, behiek odola ikustean egiten dituzten orroetatik jaso zuten.

¹²⁰ I: 309-310.

6.2.3. Soloroen hedatzea.

Soloroak indarra hartzen hasi ziren herri bezala. Ugaltzen zihozten eta txiki geratu zitzairen hastapenetako lurralde hura. Beste herrialdeekin zituzten harremanak ere areagotu ziren, itsasoz zein lehorrez. Apurka-apurka, bada, inguruko lurrak bereganatzen hasi ziren, hasieran gaur egungo Gipuzkoa, Araba eta Nafarroa gehiena, geroxeago Gaskuña, Larrioxa, Logroño, Naxera eta Gaztela Zaharraren gehiena. Eta garai hauetan herrialdearen hiriburutzat La Gran Cantabria izenekoa zuten, Logroño eta Biana artean zegoena, Ebro ibaiaren ondoko muino batean. Ordurako Kantabria zen herrialdearen izena, baina hori geroago azalduko dugu.

Espainiako errege Palatuo zela (K.a.ko 1306-?), aurkari gogor bat atera zitzaion, Cacos Lizinio, eta boterea bereganatzen saiatu zen askotan. Cacos-en kapitain bat, Otalote, Bizkaia menderatzen saiatu omen zen, aspaldian euren boterea hedatzen ari baitziren soloroak. Baina saio ustela izan zen eta ahaleginean akabatu zuten Otalote.

Garai hartan Zophiro izeneko azti batek sorgindurik zituen soloroak eta bere irudia adorarazi zien, jainko bat bailitzan. Jende ezjakin eta sinesbera hura engainatzeko Fenix hegazti bihurtu ohi zen Zophiro, eta hala aldi berean Fenizian ere egon zitekeela sinestarazten zien, hangoa baita berez Fenix hegaztia.

Gargoris, Espainiako errege (K.a. 1179-1122) izan zen garaian, gutxi gorabehera, Orchon eta Raibin izeneko kapitain frantziarrek bizia galdu zuten Solorian egindako sarraldi batean. Mendeku hartzeko asmoz, Arnaulpho kapitainak, Raibinen ilobak, Soloriara bidean jarri zituen itsasontziak, gerlari ugari lagun zituela. Ustekabean harrapatu zituzten siloroak eta sekulako sarraskiak burutu omen zituzten. Halaxe iritsi ziren Otxandio eta Legutio artean den mendiraino, non siloroek aurre egin baitzieten eta mendean hartu, eragindako hondamendiagatik mendeku hartuz. Arnaulphok eta bizirik atera ziren beste batzuek oinak airean egin omen zuten ihes lehorrez Frantziako lurretaraino, egun Plentzia eta Portugalete diren itsasbazterrean utzitako ontziak erre egin baitzizkieten aurretik siloroek¹²¹.

¹²¹ I: 389.

Baina ez ziren hor bukatu frantsesen erasoak. Habidis Espainiako errege zela (K.a. 1105-1071), Janaismon izeneko kapitainaren agindupean iritsi ziren frantsesen ontziak, gaur Ea izeneko portua den badian lehorreratu zirelarik. Sekulako sarraskiak eta lapurretak egin omen zituzten, eta ez zuten inolako eragozpenik izan euren ekintzak burututa minik jasan gabe alde egiteko, artean oso lanpeturik baitzebiltzan siloroak Asturiasko Juristo kapitainaren eta bere kideen aurkako gudu latzean. Azkenean, ordea, lortu zuten Juristo Soloriatik botatzea eta bakea itzuli zen. Denbora gutxirako ordea, ezen Jaraismon frantsesa berriro itzuli baitzen bere lapurreta eta gaiztakeriak burutzera. Ez zitzaion zaila gertatu, artean soloroak han-hemenka barraiatutako haitzulo eta txaboletan bizi baitziren, elkarrengandik oso apartaturik. Hala ere, ohi zuten bezala, batzarretan bat hartu zutenean eta defentsa antolatu, aise hartu zituzten mendean amorruez eraso eginda¹²².

K.a.ko 1030 urtean, gutxi gorabehera, izozte ikaragarria pairatu omen zuen euskal lurraldeak, artean Soloria deitua. Itsasertzeko urak ere izoztu egin ziren, lurretik itsas barrenerako lau lekoatan. Izozt azal horren azpitik trumoiak antzeko orroa ikaragarriak entzun zitezkeen sarri, baita itsasotik urruti zeuden mendi eta lurretatik ere, eta horren ondorioz emakume askok galdu egin zituzten erraietan zeramatzaten umeak. Horren luzaroan iraun zuen izozteak, ezen, izotzekin bizitzera ohiturik, itsaso gaineko izotzezko azalean zehar lasai eta ardurarik gabe ibiltzen hasi baitziren soloroak. Egun luzeak igarota, izotz azpiko trumoiak isildu ziren eta itsasoko urak irakiten hasi ziren. Horrela desagertu zen izotza, eta hildako arrainak hasi ziren azaltzen ehundaka, gehienak ustel-ustel eginda¹²³.

6.2.4. Greziarren erasoak.

Soloriaren historian garrantzia handia izan zuten, halaber, Grezia aldetik iritsitako eraso ugariak utzitako arrastoa.

Troyako azken gudua gertatu baino 200 urte lehenago, Zakinto izeneko kapitain greziarra iritsi omen zen Espainiara Hercules greziarra lagun zuela. Fagro, Zakintoren kapitainetakoa bat, izan zen euskal lurraldea menpean

¹²² I: 415.

¹²³ I: 454.

hartzeko agindua hartu zuena, baina soloroek berehalakoan hil zuten Fagro. Orduan, heriotza horren mendeku hartzeko asmoz, greziarrek Amiibar bidali zuten, antza denez, jatorri euskalduna zuena. Amiibarrek erraz egin zuen Solorian sartzea eta aurkitzen zuen guztia suntsitzea, izan ere, soloroek artean lan handiak zituzten Aragoako Pirinioetako jendeekin piztu zen borrokan. Baina, borroka horri utzita, segituan itzuli ziren soloroak euren etxeak defenditzera, eta greziarrak aurkitu bezain laister, mendean hartu eta lurretik egotzi zituzten, haiengan heriotza ugari eraginda.

Hercules, Ansiloco, Ulises eta beste batzuk ere iritsi omen ziren Espainiara geroago, baina hauek ez zuten Soloria hartzeko asmorik agertu.

6.2.5. Diogenis erregina.¹²⁴

Jatorri biblikoaz gain, Cachopín, beste historialari askoren antzera, Grezia zaharraren eta Troya sonatuaren ukitua ere eman nahi izan zion bizkaitarren genealogiari. Herri hauen historia, heroi eta balentriaz betea, erakargarri da oso leinu batzuen genealogia ohorez janzteko ahaleginean dabilen kronista batentzat. Greziarrek Espainiara eta bereziki Bizkaira egindako bisitaldiak miraz jasoko ditu *Kronikan* (I: 161) eta Bizkaiko zenbait leinuri jatorri troyarra eman izana mira horren fruitu da. Kasu honetan ez du axola kontraesanean sartzeak *Kronikaren* mezu nagusiarekin, hau da, Bizkaiko herria beti izan dela bere buruaren jabe eta sekula ez duela kanpoko herrien morrontza, izan ere, greziarren etorrerak bizkaitarren ohorea eta jatorri garbia berretsi baino ez zuen egiten. Baina herri edo leinu espainiarrei odol greziarrarekiko harremana egozteia ez da Cachopínen berezko ideia, oso hedatua baitzen lan metodo hori Espainiako genealogisten artean.

Cachopínek bere aldetik XV eta XVI mendeetako tradizio historiografikoak zabalduetako legenda eder bat jaso zuen, zeinek nabarmen-nabarmen ageri baitu Troyako hondamendiaren ondoren Eneasek buruturiko ihesarekin duen parekotasuna. Ikusiko dugunez, legenda honek Virgilioren *Eneidaren* jarraipena ematen du, hori bai, genealogista bizkaitarren irudimenera egokitua. Izan ere, garbi samar atzeman daitezke mito honen oinarrian diren bi xede nagusiak: alde batetik Bizkaiko jaunen dinastiaren sorrera ezartzea eta bestetik Tubalen oinordeko ziren

¹²⁴ Kapitulu askotan aurkituko ditugu mito honi buruzko erreferentziak, garrantzitsuenak aipatzearen: I: 313-314,

semeen odola itsasoaz bestaldeko erreinu mitikoen odolarekin nahastea, dela Irlanda edo Eskoziako erreinuena, dela Troya handiarena.

Kronikan aurki daitezkeen datuen anabasean saiatu gara mito honen inguruko datuak biltzen eta josten, eta bertsio bakarrera iristen. Izan ere, tarteka kronika honetan bertan joera handia da Diogenis erregina eta Jaun Zuria nahasteko, Bizkaiko lehen jauna Diogenis erreginaren semea zela esanez. Behar bada nahaste horretan zerikusi handia izango du bata zein bestea Eskoziatik edo Britainiatik etortzean Mundakan lehorreratu zirelakoak. Baina, mitoaren haria ongi joango bada, bereiztea komeni zaigu alde batetik Diogenis erreginaren odisea eta, bestetik, Jaun Zuriaren jaiotza, mendeak geroago, bere aita, Lope Urtiz, eta ama Albiona printzesa eskoziarra, Mundakan lehorreratzean. Halaxe egin dugu guk, eta, denboraren hariari jarraitu nahian, kapitulu honetan Diogenis erreginaren legenda kontatuko dugu. Geroago, hurrengo kapitulu batean, Jaun Zuriaren txanda etorriko da.

Eskoziako Diogenis erregina Mundakan lehorreratu zen Bretainiako Bruto¹²⁵ erregeak, senarrak, erreinutik egotzia izan ondoren. Bruto Eneasen biloba zen.

Anquises eta Venus jainkoaren semea zen Eneas. Priamo erregearen alaba batekin ezkondu zen eta uztartze horretatik Escanio jaio zen.

Troya suntsitu zenean¹²⁶, Eneasek Cartagora jo zuen, bertako erregina Elisa Dido-rekin ezkondu zen eta Tulio izeneko seme bat izan zuen. Handik lasterrera, Eneasek Italiako Napol-era egin zuen alde bere semeekin, Escanio eta Tuliorekin, alegia. Tuliok seme bat izan zuen bertan, Bruto. Eneas hil zelarik, Escaniok eta Tuliok erdibana jaso zuten erreinua.

Behin, Escanio, Tulio eta Bruto ehizan zebiltzala, Bruto gazteak bere aita Tulio hil zuen geziz. Hil hurren, Tuliok herritarrei eskatu zien ez ziezaiotela Brutori konturik eskatu bere heriotzagatik, nahi gabe izan baitzen. Hala ere, ez zuten Tulio erregetzat hartu nahi izan eta, Escaniok emandako ontziak eta jendea lagun zituela, erbestera egin behar izan zuen.

¹²⁵ Juaristik (1978) gogoratu bezala, Brutoren legenda apezpiku ingeles batek, Geoffrey de Montmouth-ek, asmatua da, XII. mendean.

¹²⁶ K.a.ko 1179 urtean gertatu omen zen, Juan de Viterboren arabera.

Macedoniara iritsi zen Bruto. Bertan Padraso zen errege, zeinek Troyan borrokan izan zenean Troyako biztanle anitz preso hartu eta Macedoniara eramana baitzituen. Brutok ezin izan zuen eramana bere odoleko jendea horrela ikustea eta Padrasoren aurkako guduari ekin zion sutsu. Bakea hitzartu zuten azkenean eta Brutok, bakearen bermetzat, Padrasoren alaba, Diogenis, hartu zuen emazte.

Bruto berriro egin zen itsasora, Diogenis emaztea lagun zuela, eta Troyara iristea zuen helburu. Baina ez zituen sekula haizeak alde izan. Hori ikusirik, haizeei men egitea erabaki zuten eta, haien indarrari esker, Britainiara iritsi ziren. Lurrealde hura erraldoiz bete zegoenez, haien aurka borrokatu behar izan zuten erraldoiak egotzi arte. Halaxe hartu zuten herrialde hura bizitokitizat Brutok eta bereek. Hortik, hain zuzen, datorkio Britainia izena.

Brutok eta Diogenisek bi seme izan zituzten, Bruto bata eta Askanio bigarrena. Ama-semeek bat harturik, aita hiltzea deliberatu zuten, baina Brutok asmo zitalaren berri izan zuen eta, berak bere aita hil zuela gogoan harturik, Diogenis erregina eta semeak erbesteratzea erabaki zuen. Itsasontziak, abereak eta bizitzeko behar zutena eman zien, eta baita laguntzaile talde handi bat ere, eta agindu zien ez zitezela lehorreratu ur garden eta garbiko iturriren bat aurkitu arte.

Egun batzuetara, Bizkaiko mendiak ikuskatu zituzten, eta, kostaldera hurbildurik, semeetako bat lehorreratu egin zen. Iturri eder bat aurkitu zuen berehala. Anaia eta ama urreratu zirenean, honela esan zien:

- Munda aqua – “ur garbia”, latinez mintzatzen baitziren.

Une gogoangarri horren oroimenez iturri hura aurkitu zuten tokiari Mundaka deitu zioten eta herri bat eraiki zuten bertan. Artean, lurrealde haietako biztanleek ez zituzten etxeak ezagutzen, haitzuloetan eta harkaitz artean bizi baitziren.

Diogenis erregina eta bere semeak iritsi zirenean, Asturiasko konde baten aurkako guduan buru-belarri murgildurik aurkitu zituzten bertakoak, eta bizkaitarren alde jarri berehala borrokan. Jaiok ziren Diogenisen semeak guda kontuetan eta bizkaitarrei hainbat irakaspen eman zieten. Azkenean, Asturiasko

konde hura mendean hartzea lortu zuten, etsaiengan egundoko sarraskia eraginez.

Cachopínek Euskal Herriko leinu eta pertsonaia askori eman zien jatorri troyarra, Diogenis erreginaren eta bere semeen bitartez belaunaldiz belaunaldi jasoa, hala nola, erromatarren aurka borrokatu ziren kapitainei (Julio eta Anquises), Bizkaiko jaunei, Gebarari, Lezcanori, Altamirako Aznarri eta Hedoni, eta abarri.

Diogenis erreginaren mitoa irakurri ondoren, ez zitzaion irakurleari oharkabean igaroko Melusinaren eleberriekin¹²⁷ duen antza. Biek dute Eskoziako jatorria, biak dira erregeren alaba eta biak izan ziren erbesteratuak. Hala ere, Melusina naturaz gaineko pertsonaia den bitartean (suge bilakarazi baitzuen bere ama Presinak), *Kronikako* Diogenisek ez du lamiekin eta antzeko pertsonaia fantastikoekin pareka dezakeen ñabardurarik.

Bizkaiko etxearen sorrera azaltzean, García Salazarrek (1454) ere Eskoziatik erbesteraturik Mundakara iritsi zen dontzeilaz hitz egin zigun, eta badirudi mito honen bertsioa dugula Diogenis erreginarena. Baina García Salazarrek izenik eman ez zion dontzeila hura naturaz gaineko pertsonaien mundukoa zen artean:

E que estando allí (Mundaca) que durmió con ella en sueños un diablo, que llaman en Viscaya el Culubro Señor de Casa, e qu'el empenñó.¹²⁸

García Salazarren bertsioan, uztartze honetatik sortu zen Jaun Zuria. Iburguen-Cachopínek, ordea, beste mito batean kokatu zuten Jaun Zuriaren jaiotza, geroago ikusiko dugunez (144. o.).

6.3. Kantabria.

Kristo jaio aurretiko 42. urtean, Erromako enperadore Oktabianok Janoren tenpluko atea itxiarazi omen zituen, Erroma bakean bizi zenean, inorekin gudurik ez zuenean, egin ohi zen bezala. Baina berehala jakin zuen Oktabianok bazirela Espainian bi nazio Erromari etengabe oldartzen zitzaizkionak, astureena

¹²⁷ Bertsiarik ezagunenak bi dira: Jean de Arras-ena bata (1387-1394) eta Couldrette-k bersoz idatzitako bestea (1401-1405).

¹²⁸ *Crónica de Vizcaya*, 3. paragrafoa, in Agirre Gandarias, S., 1986, *Las dos primeras crónicas de Vizcaya*, Caja de Ahorros Vizcaína, Bilbao, 35. o.

bata eta kantabriarrena bestea. Cachopínek honela azaltzen digu Kantabria izeneko nazioaren sorrera:

Cantabria, que fue cabeça desta probinçia llamada en su prinçipio Tubalia y después Siloria, cuya çuudad deste nonbre Cantabria fue çerca de Logroño hazia parte de [Naba]rra, es nonbre antiguo bascongado, pues, como diximos en sus apuntamientos, antiguamente en la primera lengua española de Túbal, que después acá y al presente es la bascongada, llamaban a las çuudades y creçidas poblaçiones *brilgas*, que agora en nuestro castellano quiere dezir “estar juntos abrigados en conserba en una conformidad, hábitad y aliança”, y *cantac* o *canta*, que todo es uno en bascuence, significa en romançe “cantares”. El cual apellido deste nonbre le fue puesto a esta çuudad por razón de que cuando los siloros, que estaban, como diximos, recoxidos en las altas montañas por miedo de otros dilubios de aguas, perdido con el tiempo el themor dellas, se fueron ensanchando a tierra adentro. E llegados en esta parte en donde fue plantada esta çuudad de Cantabria, que después destruyó el enperador romano Otabiano Çésar Augusto, obieron estos montañezes siloros batalla con los que residían en los llanos que les defendían esta su tierra que abitaban por aquellas llanuras. Y en los reencuentros que obieron estos siloros, cuando algunos dellos morían en pelea, los lloraban los bibos cantádoles sus *herostas* en bersos y coplas conpuestas de sus bienes y hazañas pasadas. Y de la mesma manera, cuando en esta última batalla obieron bitoria e bençimiento de sus contrarios cantaron a su usança por la gloria dello muchos cantares conpuestos que llamaban *hereçiac* de sus hazañas y bitorias pasadas para la memoria de los benideros. E porque desta manera tenían de costunbre en muherte y en bida, y en bien y en mal, en todo tiempo de cantar a su costunbre antigua y usada, en memoria de ello, como dize don Juan de Aguayo y de Guebara, destes dos bocablos de *cantac* y de *briga* llamaron a esta çuudad Cantabriga, cabeça que fue desta probinçia llamada agora Cantabria, abrebiando su açento y bocablo (I:482-483).

Kantabria izeneko herrialde horren mugak zehaztean, hainbat egileren iritzi kontrajarriak biltzen ditu Cachopínek. Hala ere, berak uste osoa du bere aitarengan, eta hark zehaztutako mugak aintzakotzat hartzen ditu: Ebro ibaiaren urek inguratzen zituzten lurak omen ziren Kantabria, Nafarroako lautadetatik iparralderantz itsasoraino, hau da, kostaldeko lau hiriak, Gipuzkoa, Bizkaia, Aiara, Gaztela Zaharreko mendi eta merindadeak, Araba, Errioxa eta Nafarroa Beherea, denak barne hartuta¹²⁹.

Jakin zuenean Erromako enperadoreak Espainiako lurralde haietan arazoak zituztela bere soldaduek, azkar abiatu zen Tarragonara eta handik bere kapitainak bidali zituen astureak mendean har zitzaten. Eta baita segituan mendean hartu ere. Kantabriarrekin, ordea, uste baino eragozpen gehiago aurkitu zuen bere helburua lortzeko.

Ordura arte sekula ikusi gabeko indarrez eta kemenez egiten zieten aurre kantabriarrek erromatarrei. Agureak, atsoak, haur txikiak eta armarik hartu ez

¹²⁹ II: 147-149.

zezakeen oro hil egiten zuten erromatarren eskuetan eror ez zitezen eta gatibutzaren iraina paira ez zezaten. Batzuk, gainera, gurutzetan urkatzen zituzten eta, horrela utzirik, erostatzen hasten ziren urkatuak. Erromatarrek horrela aurkitzen omen zituzten, ia hilean, baina erostatzen.

Garai honetan baziren kantabriarren buruzagitzan bi anaia zaldun, Julio eta Ankises, Diogenis erreginaren ahaideko zuzen. Oktabianok kantabriarrei enbajada bidali zienean bere asmoen berri emanez, eskakizun bakarra egin zien, Erromaren aginduetara jar zitezela, alegia, eta, morrontza horren adierazgarri, har zezatela salerosketa tratuetarako txanpontzat Oktabianok berak eginga zuena, bere izen, irudi eta armekin. Juliok eta Ankisesek gogorki errefusatu zituzten Oktabianoren agindu eta eskariak, eta kantabriarrei armetarako presta zitezela eskatu zieten.

Horrela ekin zion Oktabianok, Erromako enperadoreak, bost urtez luzatuko zen guduari, bere bi gudarosteak, lurrekoa eta itsasokoa, agindura zituela. Itsasoz egin zituen lehen saioak, baina kantabriarrek erraz defenditzen zuten euren itsasertza eta min handia eragiten zieten erromatarrei. Hori ikusita, Oktabianok kantabriarren hiriburuari erasotzea erabaki zuen. Gorago azaldu dugunez, hiri honek Kantabria Handia omen zuen izena, eta gaur egun Nafarroako Biana aurkitzen den inguruetan omen zegoen, gaina laua zeukan harkaitz baten gainean eraikia. Oktabianoren armadak, bat ere errukirik gabe, atzematen zuen kantabriar oro akabatzen zuen martirio latzak eragin ondoren. Hala eta guzti ere, kantabriarrek tinko eutsi zioten hurraren defentsari eta era berdintsuan erantzuten zieten erromatarren sarraskiei.

Garai haietan kantabriarrak han-hemenka eraikitako etxe eta txaboletan bizi ziren, elkarrengandik apartaturik, artean ez baitzen herririk, ez hiribildurik, aipatu Kantabria Handia kenduta. Horrela bada, oso erraza zitzaien erromatar gerlari-taldeeii erasoak antolatzea eta kantabriarrak euren etxeetan setiatzea. Lantzak, dardoak, harriak edo beste edozein arma erabiltzeko gauza ez zirenak, zuhaitzetara igotzen ziren azkar eta bertatik antolatzen zuten euren defentsa. Gehiago ezinean aurkitzen zirenean, ordea, beti aldean eraman ohi zuten haginaren fruitu gorrixka jan eta pozoituta hiltzen ziren, erromatarren eskuetan ez erortzearren. Hildako hauek ehorztean, egundoko aiene eta negarren artean, eurentzat propio egindako eresiak abesten zituzten, zeinetan goresten baitzituzten hildakoaren eta bere senideen bertuteak eta balentriak, hildakoen gainean ahozpeztanez, aurpegia harramazka urratuz eta zenduak laztanduz.

Eresi hauek bat batean konposatzen zituzten, eta dueluak irauten zuen denboran abesten ziren, bi urtez gehienentzat eta hiru urtez ahaide nagusientzat. Duelu garaian ez zen sendian iririk ez jolasik izaten, eta emakumezkoek gordetzen zuten zintzoen duelu hau, hilobietara sarri hurbilduz eta hildakoen ohorez egindako eresiak abestuz.

6.4. Bizkaia¹³⁰

Kantabria Handia izeneko hiria suntsiturik eta inguruko lur lauak harturik, apurka-apurka erromatarrek iparraldeko mendietarantz bultzatu zituzten kantabriarrak, eta horrela mendi malkartsuen hegaletan eta baso itxien erraietan hartu zuten babes. Euren jatorrizko lurretara itzuli ziren berriro eta lur berriak konkistatzeari utzi behar izan zioten. Hala ere, kemen handiz jarraitu zuten erromatarrei aurre egiten.

Ausardia eta indar horrek erabat harriturik zituen erromatarrek, eta bereziki harritzen eta beldurtzen zituen Julio eta Anquises kapitainak borrokan ikusteak. Eta erromatarren artean ahoz aho zabaldu zen bi haien fama, eta beti saiutzen ziren haiengandik urruti gordetzen, eta latinez esaten zieten “bis cain”, ezen Cain baino bi aldiz krudelago baitziren. Batzuen esanetan, hortik jaso zuen Kantabriak Bizkaia izena aurrerantzean. Beste batzuen iritziz, ordea, izen berriak beste jatorri bat du, nahiz antzeko samarra izan: Ikustean alde batetik zein ausarki eta bortizki egiten zuten eraso kantabriarrek, eta bestetik ikusirik nola erailtzen zituzten euren agure, atso eta umeak arerioaren eskuetan ez erortzearen, erromatarrei iruditu zitzairen basapiztiak baino ankerragoak zirela eta Cain bera baino bi aldiz basatiago; hortik, bada, “bis+cain” esamoldea.

6.4.1. Trastiberiko zaldunak.

Cachopínek jasotako mitoen artean bada bat XVI. mendeko kronisten artean aski hedatua bide zegoena. Mito honek, Erroma eta Kantabriaren arteko guduan kokaturik, alde bien artean hitzartutako borroka baten berri ematen du eta abentura honetan protagonista izan ziren zaldun euskaldunen periploa deskribatzen digu. Badirudi mito honen iturria *Crónica de 1404* zeritzon eskuizkribu bat izan zela. Kronika hau apokrifoa da, antza, eta Carlos V.a

¹³⁰ II: 87-92.

erregearen gorteko arma-erregeren batek idatzi omen zuen XVI. mendearen lehen erdian. (Mañaricua, 1973: 138-140). Zaldibiak (1575) eta Garibayk (1571) ere lan horretatik jaso omen zituzten zenbait pasarte. Faltsifikazio hau eskutik eskura ibili zen eta gai nagusi Kantabria eta erromatarren arteko guduak zituen, tartean segidan datozen hainbanako borrokaldiak eta Bizkaiko zaldunak Trastiberin bitoki hartzea. Cachopínen lana irakurrita ondoriozta daiteke Peña y Galdochak, Juan de Aguayo y Gebarak, Hernando de Zaratek eta Cachopín aitak berak ere mito hau erabili zutela ahotan. Beraz, kontuan izanda Cachopín semearen iturri diren egile hauek XVI. mendearen lehen erdian bizi izan zirela, nik esango nuke falsifikazio horren egilea ez dabilela urruti.

Erromatarren aurkako guduak iraun zuen bost urte horietan askoz ere gehiago izan ziren erromatarren aldetik eroritakoak, baina kantabriarren artean ere izan ziren galera handiak, aipagarriena Julio buruzagiarena, zein guduaren hirugarren urtean hil baitzuten Gorbeia mendian. Diotenez, begi batean zauritu zuten larri erromatarren aurka borrokan ari zela, eta bere lagunak luzaz eta minez erostatu omen zuten bere heriotza.

Juliok seme bat utzi zuen, Hestor, aita bezain indartsu eta ausarta. Hogei bat urte zituela, zaldun honek sobera mendekatu zuen aitaren heriotza, erromatarren odola isuraraziz. Berak asmatua da, halaber, ordura arte inongo gudutan ikusi gabeko tresna miragarria, "oñezta" zeritzona. Errotarren antzeko bi harri borobil eta handi harturik, erdian egindako zuloetatik egur lodi bat sartzen zuten. Tresna hau zuhaitzik ez zen malda batean gora eramaten zuten eta erromatarren zain geratzen ziren. Erromatarrek hurbiltzen zitzaizkienean, maldan behera askatzen zuten oñezta hura, gurdi baten gurpilak bailiran. Modu honetan sekulako txikizioak eragiten zituzten erromatarren zenturietan. Aipatu tresna jaurtikitzen zutenean, kantabriarrek oihu egiten zuten: -Oinez doa!!! Hortik omen datorkio tresnari bere izena.

Tresna hau eta sasoi hartan erabili ohi ziren beste batzuk erabilita, kantabriarrek egundoko jipoiak ematen zizkieten erromatarrei, halako moldez, non, erromatarrek hiltzen zuten kantabriar bakoitzeko, ehun erromatar hiltzen baitzituzten kantabriarrek. Azkenean, erromatarrek euren ahaleginen alferraz oharturik eta, batez ere, gudu honetan jendea galdu besterik ez zutela egiten ikusirik,

kantabriarrei gatazka behin betiko erabakiko zuen tratua proposatzea deliberatu zuten. Gainera, Oktabiano enperadorea egundoko presioa ari omen zen jasotzen senatutik, Erroman ezin baitzuten inola ere ulertu nola halako herri txiki batek gerarazi zezakeen inperiorik handienaren armada. Senatuari kantabriarren izaera ezagutarazteko xedez, Oktabianok bere soldaduek ahalegin handiz preso hartutako ahuntzain kantabriar bat bidali zuen Erromara. Enperadoreak senadoreei eskatu zien borrokan eragin ziezaiotela ahuntzainari, aurki zitzaireten soldadurik onenak aurkari jarrita. Hala egin zuten, eta berehala egiaztatu zuten zein trebe eta indartsua zen basati hura, eta zeinen ausart eta birtuos. Ahuntzainari Erroman geratzea eskaini zioten, eta hain zerbitzu onak egin zituen inperioaren armadan, ezen estatua bat ere eraiki baitzuten Erroman bertan bere ohorez.

Bestalde, ezaguna zen euskaldunek nahiago zutela hil erromatarren eskuetan erori baino, eta ikusten zutenean amak edo aitak, zaharregiak izateagatik, ezin izango zutela ihes egin, semeek beraiek hiltzen zituzten, erruki ekintza bailitzan.

Egoera honetan, bada, Erromako enperadoreak Firmio kapitaina bidali zuen Anquises kapitainarekin bakea edo tregua zinatu zezan. Kapitan biek bildurik guduari amaiera ematea eta odol isuria etetea erabaki zuten, baina garailea nor izango zen agerian gera zedin borroka berezi bat burutzea adostu zuten: itxitura baten barruan alde bakoitzeko hainbana gerlariren arteko borroka, alegia. Kantabriarrek irabazten bazuten, erromatarrek euren setioa altxatuko zuten eta armada Kantabriatik joango zen kantabriarrak bakean eta libre utziz. Erromatarrek irabaztekotan, ordea, kantabriarrak Erromaren morroi eta zerbitzari bihurtuko ziren, aurrerantzean ohiko zergak ordainduko zizkioten enperadoreari eta bere txanpona erabiliko zuten.

Gogotsu ekin zioten borrokaldia prestatzeari nola batzuek hala besteek, hogeina soldadu aukeratuz, bakoitzak zituen ausart eta indartsuenen artean. Adostutako eguna eta ordua iritsita, gaur Markina eraikia dagoen lautadan bildu ziren, toki hura aukeratu baitzuten erromatarrek borrokaldirako. Borroka hasi eta gutxira, hogeit hamar erromatarrek hilik zeuzkan odol artean, eta kantabriarrak pozez gainezka, hitzarmenean adostu bezala, askeak zirelakoan. Baina erromatarrek segidan adierazi zuten ez zutela setioa altxatzeko asmorik, ez zutela euren burua garaitutzat jotzen, aitzakiatzat jarrita euren lurrian borrokatzeak kantabriarren alde

jokatu zuela, naturak bereak dituen landareak bailiran. Eta horrenbestez, tregua amaitutzat jo eta gudukatzeari ekin zioten berriro, aurretik baino amorru handiagoz gainera.

Baina, luze gabe, Firmio eta Anquises kapitainen zuhurtziari esker, tregua berri bat adostera iritsi ziren eta berriro borrokaldi mugatu bat antolatzea erabaki zuten. Ehun soldadu beste ehunen aurka borrokatuko ziren oraingoan. Hala ere, aurrekoan gertatutakoa errepika ez zedin, kantabriarrek borrokaldia Erroman bertan jokatzeko proposatu zuten.

Eta horrela, egun batez ehun gerlari kantabriar Erroma aldera abiatu ziren bidaia horretarako ongi hornitutako ontzi batean, guztien buru Urtiño¹³¹ kapitaina zutela. Erromara iritsi bezain laster, Urtiñok ontzia zularazi zien bere gizonei, hondora joan zedin. Kantabriar soldaduek protesta egin zuten eta euren kapitainari galdetu zergatik egiten zuen hori. –Borrokan hiltzen bagaituzte –erantzun zien Urtiñok–, ez dugu ezertariko ontziren beharrik etxera itzultzeko; garaile suertatuz gero, ordea, horra hor erromatarrek ekarritakoa, gurea baino askoz hobea.

Borrokaldia jokatzeko adostutako egun eta orduan, Tiber ibaiaren erdian zegoen irla batean elkartu ziren alde bakoitzeko ehun soldadu borrokarako prest. Soldadu bakoitzak dardoa eta aihotza baino ez zuen eramango armatzat, defentsarako ezkuturik gabe. Erromatarrek aukeratu eta hesitutako eremua malkartsua zen eta Tiber ibaiaren ondoan zegoen. Lurra oso irristakorra zen eta kantabriarrek ezin zioten gorputzari zutik eutsi, euren abarkek oso errez egiten baitzuten laban. Argi zegoen erromatarrek propio aukeratua zutela eremu hura kantabriarrak zutik egon ezinik ibil zitezten, ezen erromatarrak iltze txikiz jositako larruzko abarkak jantzita agertu baitziren. Kantabriarrak berehala ohartu ziren amarruaz, eta, ekilibrioa mantentzearen, ezkerreko hanka ortozik jartzea erabaki zuten. Horrela, ezkerreko hanka lurrian tinkaturik, lurrera erori gabe jaurti zitzaizketen dardoak.

Borroka hartan izan zen lehen erasoaldian berrogeita hiru erromatar erori ziren hilik. Horrek are amore handiagoa eman zien kantabriarrei; erromatarrak, ordea, zalantzakor jarri zituen. Ez zen, hala ere, borrokaldia askorik luzatu, ezen berehala hartu baitzituzten mendean erromatarrak, hasierako ehun haietatik bizirik

¹³¹ Edo Urtiño (II: 103).

hogei bakarrik utzita; kantabriarretatik hamazazpi baino ez ziren hilak. Horrenbestez, enperadoreak kantabriarren garaipena onartu zuen eta bere kapitainei agindu zien setioa altxatzeko. Bizkaia eta Erroma herrialde lagun eta konfederatuak izanen ziren aurrerantzean. Oktabiano enperadoreak, halaber, agindurik utzi zuen Erromaren menpean ziren herriak ez zitezela aurrerantzean sekula ausartu Kantabriako lurretan sartzera, eta, hala egitekotan, izan zedila beti kantabriarren onespen eta gonbitez; eta joan zitezela gutxienez berrehun eta berrogei lagun, bi borrokaldi haietan partaide izan ziren gerlarien ohorez.

Garaipena ospatu ondoren, kantabriarretako batzuk euren etxeetara itzuli ziren; beste batzuek, ordea, Urtiño kapitaina tartean, Erroman geratzea erabaki zuten. Tiber ibaiaren ostean eraiki zituzten euren etxeak eta horregatik deitzen zieten “trastiberinoak”. Beste batzuei “ursino” esaten zieten, euren kapitainaren izena gogoan hartuta. “Bizkaitar” ere deitu izan zieten, baina izen hori erromatarrei zaila zitzaenez ahoskatzen, “biscaitam” izena erabiltzen zuten. Bizkaitar hauek entzute eta garrantzi handikoak bilakatu ziren Erroman eta gaur egun (XVI. mendean) ere zabala da euren ondorengo itzala.

Kontatu berri dugun legenda aski hedatua zen XVI. mendean, batez ere bizkaitarren eta erromatarren artean jokatu ziren “dueluei” dagokienean, hogeinaka zein ehunakako taldetan. Araututako borrokaldi hauen berri eman zuten historialarien artean aipatzekoa da, oraingoz ezezaguna delako, bere burua doctor Guebara izenaz aurkezten duen historialaria, zeinek *Fundaciones y antigüedad de España y conservación de la nobleza de Cantabria* idatzi baitzuen 1585ean. Lan honen eskuizkribua Madrilgo Biblioteca Nacional-en aurki dezakegu eta argitara eman gabe jarraitzen du. Cachopínek horrenbeste aipatzen duen Juan de Aguayo y Guebara ote da aipatu lan horren egilea?

6.4.2. Berrogeita zazpi kapitainak¹³²

Cachopínek maiz kapitain deritze lurraldeko jaunei, eta kategoria honen barnean 47 izenez osatutako zerrenda aipatzen du bere lanean, nahiz ez zaigun iritsi izendegi osoa ematen bide zuen kapitulua.

Oso da deigarria kapitain hauen legenda, ez baita inolako aipamenik aurkitzen ahal 47 kapitain hauei buruz ezagun dugun historiografian. Cachopínek Hernando de

¹³² II: 21-22.

Zarate eta Gaspar de Peña y Galdocha¹³³ ditu gai honi buruzko iturri nagusi, baina egile hauen lanak ezezagunak zaizkigu eta oraingoz galduak.

Cachopínek han-hemenka barreiatutako datuak bildurik, honela osatu dugu 47 kapitainen istorioa:

Tubalek euskaldunen herria sortu zuenetik, herritarrek Zaharren Batzarrean kapitainak izendatzen omen zituzten atzerritarren erasoan aurrean euren defentsa zuzendu zezaten eta lurra gobernatu. Kapitain hauek euren merezimendu eta bertuteengatik aukeratzen zituzten. Eta kapitain hauen odolekoak dira Bizkaiko ahaide nagusiak eta leinu handienak, belaunaldiz belaunaldi jasotako oinordekotza medio.

Lehen kapitainetako bat, gizon adoretu, atsegin, ausart eta garrantzitsua, Perispil izenekoa izan zen. Bere emazteak Anteca zuen izena, eta honek hiru seme eman zituen: Petris, nagusia, Heudon, bigarrena, eta Sumuldo, txikiena. Beste bi emazte gehiago ere izan zituen eta ugaria izan ziren hauek emandako seme-alabak, zeinekin eta euren ahaideekin Perispilen leinua hedatu eta indartu egin baitzen. Leinu hau garrantzitsuenetakoa izan zen kantabriarren artean, eta erromatarrak etorri ziren garaian ere halaxe zen.

Perispilek harreman onak izan omen zituen Cneo Eszipion kapitain erromatarrarekin. Behin bisitan joan ziztaion erromatarrari eta honek urrezko idunekoa eman omen zion Perispili. Iduneko hau zela eta gaztelarren haserrea piztu omen zen eta Cerez izeneko kapitain baten aurka izan zuen Perispilek borroka. Irabazle gertatu zen¹³⁴.

Beste batean, Perispil leinukoek borroka izan zuten erromatarrekin Gernika eta Forua bitartean. Bifario izeneko bat zen orduan Perispilen buruzagia, eta borroka honetan Asinaio leinukoen eta bere buruzagi Arpesinaioaren laguntza izan zuen. Egundoko sarraskia gertatu zen eta, bi kapitainak ez ezik, Perispil eta Asinaio leinuetako kide guztiak ere hilak izan ziren bertan, eta geroztik Kizkitza deritza toki hari, han izan zen arma hotsa oroitu nahian edo.

Baina ez zen egun hartan erabat desagertu Perispil eta Asinaio leinuen arrastoa, izan ere Bifarioaren seme bat, Maldarain, eta Arpesinaioaren beste bi

¹³³ Ikus 49. o.

¹³⁴ I: 549

seme, Arbegi eta Sanarin, kanpoan ziren egun hartan eta euren burua salbatu ahal izan zuten. Haiengandik sortu ziren Perispilen odoleko hurrengo leinuak, Maldarinak, Arpeginak eta Sanarinak, alegia. Leinu hauen arrasto gutxi dugu gaur, batez ere mendez mende luzatu diren Oñez eta Ganboaren arteko ezinikusiengatik, zeintzuk oraindik ere indartsu dirauten, ezen haien kausaz etxe ugari betiko desagertu baitira eta beste batzuk erabat txiki eta garrantzi gabeko geratu.

Belaunaldiz belaunaldi euren odola hedatu duten 47 kapitain horien artean aipatzekoak dira Sasabutum, Andreagón (honen belaunekoa da Auñoa leinua¹³⁵), Maldarain (Perispilen biloba¹³⁶), Cuamquesto¹³⁷, Maitenoc¹³⁸.

Izena oso ongi irakurtzerik ez dagoen bat ere (...pestrando) 47 kapitain horietakoa zen¹³⁹, eta “historiaren” arabera, bere alaba, Tota izenekoa, Lelo kapitainarekin ezkondua zegoen eta Sarac kapitainarekin zituen harremanen ondorioz Lelo hiltzea deliberatu omen zuten biok.

Zinez, ezin dugu gure harridura ezkutatu kapitain hauen legenda honen aurrean. Pertsonaia bibliko eta fantastikoetatik aitoren seme bizkaitarrenaganainoko pausu genealogikoa modu ulergarrian azaltzeko ahalegina ematen du, mitotik haragirako jauzia lausotzeko modua, genealogiazaleei euskarri historiko hurbilagoa eskaintzea, agian. Baina, batez ere, bertako heroiak izan beharra islatzen du legenda honek, kanpotik inportatutakoen pisua nola edo hala erlatibizatuz. Hala ere, harrigarriena 47 zenbakia bera da, modu tematian behin eta berriz aipatua¹⁴⁰. Esanahi berezia ote du?¹⁴¹

¹³⁵ II: 422

¹³⁶ II: 419.

¹³⁷ III: 167.

¹³⁸ I: 593.

¹³⁹ II: 93

¹⁴⁰ I: 54: *Capitanes primeros, 47, y cómo fueron eletos. Destos proceden los más de los parientes mayores de Vizcaya, o al menos tomaron nonbre.*

II: 51: *... uno de los 47 capitanes antes en tiempos antiguos por la comunidad de los vizcaínos eletos y nonbrados para sus guías e gobiernos de guerras, como tengo declarado en esta crónica.*

II: 55: *... procediente de uno de los 47 capitanes nonbrados por los desta nación bascongada para sus guías y gobierno de sus guerras, como dibersas vezes tengo hecha relación y memoria en esta crónica, al cual le llamaban Gonçalo Gonçáles.*

II: 93: *... deçendiente de [...]pestrando, uno de los 47 capitanes de antes en tiempos antiguos por la comunidad de las vizcaínos helectos y nonbrados para sus guías y gobiernos de república y sus guerras, como queda aclarado en esta crónica en el capítulo 13 del primero libro della.*

6.4.3. Jaun Zuria

Legenda hau noiz eta nork asmatua den jakitea zaila bada ere, kritiko askok Pedro Alfonso, Barcelos kontea (1288?-1346), du Jaun Zuriaren legendaren asmatzailatzat. Genealogista portugaldar honek *Livro das Linhagens* deituriko lanarekin eragin handia izan zuen Espainiako genealogistengan. Manuel de Farias Souza-k, ordea, kontearen lanaren itzulpena egitean (1664), Jaun Zuriaren istorioa beste genealogista batzuek jatorrizko lanean tartekatua dela ohartarazi nahi izan zuen. Mañaricua eta besteren irudiko, azkenik, bazen Don Pedro Kontearen eta Garcia Salazarren aurretik legenda honen tradizioarik, ahozkoa ziurrenik, eta bertatik edanzen zuten garaiko genealogiazaleek.

Legendaren jatorriari dagokionean, bestelde, Jon Juaristiren (1978) iritzikoak gara: Berez Jaun Zuriarena legenda genealogikoa da, bizkaitarren eta bere jaunaren arteko hitzarmenaren berri ematen duena. Beregan bilduak ditu, asmatuiko genealogiez gain, herri tradizioetik jasotako zenbait elementu eta Europako literaturan oso hedaturik ziren gaiak.

Legenda hau batez ere XIV. mendetik XVI.era bitartean joan ziren osatzen genealogistak, eta bide luze horretan bertsio ezberdinak sortu ziren, gure ustez, hiru etapa nagusitan banatu daitezkeenak: lehena Barcelos eta Salazarren garaietakoa litzateke, bigarrena Carlos I.aren garaikoa eta azkena Felipe II.aren garaian idatzitako kronikena.

Cachopín eta Iburguenek Jaun Zuriari buruzko aipamen ugari egin zituzten *Kronikan*, baina kontraesanek josiak eta hutsune handiekin. Goian aipatutako hiru etapa horietako elementu narratiboak jaso zituzten, eta hortik kontraesanok. Nahaste horretan, gainera, historialarien baimenarekin, historikotzat jo litezkeen elementuren batzuk ere sartu zituzten. Horregatik guztiagatik, bada, ez zaigu erraza gertatu mitoa berreraikitzea. Guk Cachopínek esandakoa antolatu eta bildu baino ez dugu egin, historia eta mitoa bereiztea historialarien lana izanen da.

III: 167: ... *Cuamquesto, uno de los 47 capitanes primeros que diximos en el capítulo 13 del primero libro¹⁴⁰ de nuestra narración, de quienes tomaron principalidad y origen los más de los parientes mayores que han sido e son en lo bascongado destas montañas.*

III: 220: ... *deçendiente de Palamo, uno de los 47 capitanes primeros que, como dexamos dicho en su lugar particular, fueron nonbrados entre todos los vizcaínos para su gobierno en las montañas desta tierra bascongada.*

¹⁴¹ Ez zaigu azalpen sinesgarririk bururatzten. Jason-en argonautak 50 ziren; Cabalaren ikuspegitik, bestalde, 47 zenbakia nitasunaren adierazle da, baina ez da, beste batzuekin alderatuta, garrantzi berezia duen zenbakia.

Garai hartan bizkaitarrek euren Batzarrean Meakaurren jaiotako Froon¹⁴² buruzagia jauntzat aukeratzekotan zebiltzan. Bitartean baina, Leon, Nafarroa eta Asturiasko jaunek jazarria zuten Bizkaia, hiruek nahi baitzuten eurentzat atxiki. Asturiaskoa indartsu sartu zen, esanez bera jatorriz lur hartakoa zela eta aukera zezatela jauntzat, berak ziurtatuko ziela bakea eta foruak errespetatuko zituela.

Segurantzaz horrekin aurrera egin zuen asturiarrak, bidean sekulako lapurreta eta sarraskiak burutuz. Azkenean, ordea, Froonek eta bere gizonek Bakio ondoko arroan, Arruondegi izenekoan, geldiarazi zuten etsaia eta mendean hartu. Ihesi joatea lortu zutenak Froonen seme batek, Froizek, atzetik joanda harrapatu eta txikitu zituen gaur egun Fruiz izena duen tokian¹⁴³.

Segidan, Batzar Nagusietan zeudela, Froon eta semeei abisu eman zieten ingelesak Arbiluagako hondartzan lehorreratu zirela. Froon, ordea, kezkatuago zebilen egun haietan nafarren erasoaz eta Gaminz semea bidali zuen seiahun gizonekin ingelesei aurre egitera. Horrelako liskar ugari izan zuten batzuekin eta besteekin, lehorrean zein itsasoan, eta horietako batean zendu zen Froon, harkaitzetan behera erorita. Bere seme Froizek hartu zuen orduan buruzagitza. Froiz Leongo etsaien aurkako borroka batean hil zen eta bere seme Lope Urtizek jaso zuen agintea.

Lope Urtiz gazte zela Irlanda eta Eskoziara abiatu zen ohore gosez, bidaiarako behar zuen jendea bildu eta itsasontziak egoki antolatu ondoren, ez baitzen aitarekin konpontzen. Lurralde haietako biztanleek asko ponderatu zituzten bizkaitarren lanak eta erregek tokia eman zion Lope Urtizi bere ondoan, irla bi haiek bizkaitarrek fundatuak zirelakoan baitzeuden. Hala ezagutu zuen Albiona, erregeren alaba, eta haurdun geratu zen berehala. Erregek bazituen seme gehiago ere, eta beldur ziren ez ote zien bizkaitarrak geroan botere guztia kenduko. Horregatik liskarrak hasi ziren euren artean, eta Lope Urtizek Bizkairako bidaiari ekin behar izan zion, presaka eta gauez, Albiona umeduna izkutuka eramanez¹⁴⁴. Itsasoratu eta zoriak hondartza eder batera eraman zituen,

¹⁴² *Libro das Linhagens*-en Froon ez da Meakaurren jaioa, baizik eta Ingalterako Erregearen anaia, bere jaioterritik egotzia eta itsasoz Bizkaira iritsia.

¹⁴³ Garcia Salazar-en bertsioan (1454: 6) ezin izan zituzten ihesi joandakoak atzeman eta Luyaondo parean atzera egin behar izan zuten haien atzetik ateratako zaldunek.

¹⁴⁴ II: 296.

non ur gardeneko iturri bat aurkitzen baitzen. “Munda aqua” esan eta izen horrekintxe bataiatu zuten toki hura, Mundaka. Bertan izan zituen erditze minak Albionak eta ume ederra izan zuen, zuria eta ilehoria, Jaun Zuria deituko zena. 880. urtea zen¹⁴⁵.

Artean Arturiasko Nuño konteak estu hartuak zituen bizkaitarrak, eta urtero eskatzen zien zergatzat behor bat, behi bat eta idi bat, denak zuriak, bere agintearen aitortzan. Halako bilaukeriarik ezin eramanez, Bizkaiko Batzarrek Jaun Zuria kapitain aukeraturik, asturiarrei aurre egitea erabaki zuten. Borroka latza izan zen eta inguruak gorritz tindatu zituen hildakoen odolak. Hortik hartu zuen izena borroka izan zen lekuak: Arrigorriaga. Ordu ezkeror, Jaun Zuria jauntzat hartu zuten.

Leongo infantearen aurka Arrigorriagan borrokatzera zihoala, mendi batean ikusi zituen bi otso haritz baten azpian jolasean, bata haritzari pixa egiten. Hura ikustean bere laguntzaileek seinale txartzat jo zuten eta borrokarako asmoa bertan behera uzteko aholkatu zioten Jaun Zuriari. Honek, ordea, aurrera egitea erabaki zuen, otsoak haragijaleak izaki, arerioengan sarraski handia eragingo zutelako seinalea ikusten baitzuen berak. Horregatik ditu Bizkaiak bi otsoak haritzaren azpian bere armarrian¹⁴⁶. Hau 870 urtean gertatu omen zen¹⁴⁷.

Jaun Zuria jauntzat hartu zutenean bizkaitarrek foru zaharra bere esku utzi zuten eta hala jarraituko zuen belaunaldiz belaunaldi Bizkaiko Jaunak foruen defendatzaile. Jaun Zuriak landu gabeko lurren erdia jaso zuen eta berak aitoren semeen artean banatu zituen. Harrezkero, Bizkaiko Jaunak lur horien ordaina jaso ohi zuen aitoren semeengandik. Jaun Zuriak, bestalde, Foru Zaharra berritzeari ekin zion eta berea izango zen Bizkaiko 2. Forua¹⁴⁸.

Durangon ezkondu zen 876 urtean Alda Saez-ekin¹⁴⁹. Jaun Zuriaren aitagarreba Sancho Ortégui Otañez edo, beste batzuen arabera, Estegui Ortunez, izan zen, 870. urtean Tabirako kontea zena, Durangoko merindadeko

¹⁴⁵ Garcia Salazar Jaun Zuriaren jaiotzarako goian guk “Diogenis erregina” deitu dugun legendan oinarritu zen, eta, izenik eman gabe, kontatu zigun Eskoziatik egotzita itsasoz etorritako erregina batek Jaun Zuria erditu zuela Herensugerekin izandako harremanaren ondoren. Bestalde, datei dagokionean, azpimarratzekoak dira *Kronikan* zehar Cachopínek dituen zalantzak eta kontraesanak, ziur asko iturri historiografiko ugartik edan izanak sortuak.

¹⁴⁶ I: 420.

¹⁴⁷ I: 667.

¹⁴⁸ III: 343.

¹⁴⁹ III: 89

jauna¹⁵⁰. Arrigorriagako guduak elkarrekin borrokatu ziren eta Durangokoak bertan aurkitu zuen heriotza. Jaun Zuria Axpen hil zen 909. urtean eta Bizkaiko jaun Munio Manso Lopez semea izendatu zuten.

Arrigorriagako borroka geroztik, gaztelarrek eta bizkaitarrek zin egin zuten elkarri lagunduko ziotela etsaien aurkako borrokan. Izan ere, Jaun Zuriak Fernan Gonzalezekin, Gaztelako kontearekin, harreman onak izan zituen. Horrela, 886. urtean bizkaitarrak deituak izan ziren Leongo erregeen aurka gaztelarren alboan borrokatzera. Gizon andana bidali zuen Jaun Zuriak Leonerantz eta gutxi batzuk geratu zitzaizkion luraren defentsarako. Tarte horretan, ordea, Ulihamet errege musulmana sartu zen Nafarroa aldetik Bizkaian, inguruetan sekulako sarraskiak burutuz. Ahal bezain azkar luzatu zieten abisua Leonera joandakoei, etxera itzuli zitezela mairuaren aurkako borroka. Gaztelarrek, bere aldetik, ez zieten bizkaitarrei lagundu nahi izan, Leonen zuten lana aitzakiatzat jarritz. Azkenean, bizkaitar oro, oñeztar zein ganboar, bat hartuta etsaia mendean hartzea lortu zuten, Ulihamet berbera ere hilda. Borroka izan zen lekuari Orobio deitu zioten balentriaren oroigarri (Oro bioc eguin dogu)¹⁵¹.

Handik gutxira Gaztelak berriro deitu zituen bizkaitarrak Leongo erregeen aurka zuten gatazkan parte hartzera. Hasieran ez zuten gonbitea onartu Orobioko hartan gaztelarrek ez ziotela elkarri laguntzeko hitzari eutsi argudiatuz, baina azkenean hitzarmena berretsi zuten eta bat egin zuten Leongoaren aurka¹⁵².

Tubal Espainiako errege izendatu aurretik eta ondoren Bizkaia libre izan omen zen beti Espainiako agintariekiko, baina Jaun Zuria jauntzat hartu zutenetik Gaztelako erregeen babespean bizi izan ziren bizkaitarrak, euren lege eta nobleziari eutsita.¹⁵³

Gorago aipatu ditugun Barcelos Kontea eta Garcia Salazarren lanekin alderatuz gero, ez dugu ezberdintasun handirik aurkituko legendaren hari nagusiari dagokionean. Baina erabat desberdintzen dituen Jaun Zuriari egotzi zitzaion jatorria da. Badirudi XVI. mendea iritsi arte orok onartua dela Jaun Zuria Eskoziako (edo Britainiako) erregina edo printzesa baten semea dela eta aita ere odol horretakoa duela. XVI. mendean lehen erdian, ordea, Juaristik (1978: 42)

¹⁵⁰ II: 152

¹⁵¹ III: 256.

¹⁵² III: 95.

¹⁵³ II: 68.

azaldu duenez, Carlos Iaren garaiko anglofobiak Jaun Zuriaren jatorria birpentsatzea ekarri zuen. Lorenzo Padillak (?-1540 g.g.b.) jatorri eskoziar ezerosoa bazterturik, godotzat ditu Jaun Zuriaren arbasoak.

Cachopínek, ordea, ez zion erabat hustu odol britainiarra, eta jatorri godoa Bizkaiko leinu askori aitortzen badie ere, ez zuen Jaun Zuriarentzat aipatu ere egin. Cachopínek Jaun Zuriaren zuhaitz genealogikoan gizona zkeen adarra erabat bizkaitartu zuen (Froon Meakaurren jaio da, ez Eskozian edo Britainian, Salazarrek zioen bezala), kristau zaharraren irudia indartu asmoz. Baina ama bai, ama eskoziarra dugu, ez baitio Cachopínek uko egin nahi Jaun Zuria Troyarekin lotuko lukeen hariari.

Egia da *Kronika* mito honi buruz mintzatzen den kapitulu batean¹⁵⁴ Diogenis erregina Jaun Zuriaren amatzat aurkezten zaigula, baina egia da ere Cachopínek ongi bereziak utzi zizkigula gainerako aipu guztietan alde batetik Diogenis erreginaren historia, Troyako Eneas eta ondorengoen garaian kokatua, eta bestetik Jaun Zuriarena, IX. mendean kokatua.

Azkenik, bada beste elementu bereizgarri bat, zeinetan Garibayk (1596) eta Cachopínek bat egiten duten: Jaun Zuriaren aita, Lope Iñiguez (Garibay) edo Lope Urtiz (Cachopín) Busturiako Altamiran jaioa zen eta Eskoziara jo zuen itsasoz ohore bila. Han erregeren alaba ezagutu eta, haurdun utzi ondoren, Bizkaira ekarri zuen bahiturik. Mundakara iritsirik, Don Fortuna, gero Jaun Zuria deitua, erditu zuen printzesak.

6.4.4. Bizkaiko Jaunak

Dokumentazioaren eta berri historikoen gabeziak ilunpean ditu historialariak Bizkaiko Jaurgoaren sorrerari dagokionean. X.mendearen akabuan aurkituko da Bizkaia izenari nolabaiteko nortasun politikoa emango dion lehen dokumentua¹⁵⁵ eta 1040. urtekoa da Bizkaiko Jaunen zerrenda jarraiarri hasiera ematen dion kontearen izena dakarren dokumentua, Iñigo Lopez alegia.

Cachopínek esanahi bikoitzez erabili ohi zuen Bizkaia izena, euskal lurralde osoa izendatuz batzuetan eta herrialdea besteetan, eta bere sorrera Erromako Inperioaren garaian kokatu zuen, Kantabriaren oinordeko modura.

¹⁵⁴ I: 313-314.

¹⁵⁵ *Codice Rotense* deritzo eta *Momi Comitibus Bizhiensis* aipatzen du, hau da, “bizkaitarren konte Momo”.

Bizkaiko Jaunak (edo Kantabriakoak) ordea, askoz lehenago erakutsi zizkigun bere historian, adierazi nahian edo, Erroma bera baino lehenago jaioa dela euskaldunen antolakuntza politikoaren sistema eta, beraz, beren zuzenbidea besteenaren gainetik dela.

Kronistak dioskunez¹⁵⁶, sei buruzagik agintzen zuten Bizkaian: haietako bost hiru urtez behin aukeratu ohi zituzten batzarrean eta “merino” zeritzen. Bakoitzak bere merindadea omen zuen agindupean eta lurraldea zaintzea zen bere eginbeharra. Erasoak edo kanpoko arriskuak zirenean, abisu eman behar zien ahaide nagusiei denak Gernikako arbolaren gerizpean bil zitezten. Seigarren buruzagia bizirik ziraeino izanen zen Bizkaiko jaun eta bera zen lurraren gobernadore eta buru.

Cachopín-Ibarguen Kronika esku artean hartuta ez da lan erraza Bizkaiko jaunen izendegia eta urrenkera osatzea, bi ikuspegi ezberdin nabarmentzen baita bertan, mitikoa bata eta historikoa dei genezakeena bestea. Historiko deitzen diogu azken honi historialarien artean hedatuen den izendegiarekin antz handiena berak duelako. Larreategik (1620) emandako izendegian ongi laburturik biltzen dira ordura arteko historialariek Bizkaiko jaunei buruz esandakoak, eta bertsio honekin alderatuko dugu Cachopínek emandakoa. Antonio Navarro de Larreategui bizkaitarra Felipe III.aren idazkari izan zen eta honi eskaini zion bere lana, aurreko historialariek idatzitakoak ongi aztertu eta alderatu ondoren, besteak beste, Garibay, Mariana, Zurita, Rodrigo aztzapezpikua, Baseo, Argote de Molina, eta abar.

Hurrengo tauletan saiatuko gara hizpide ditugun egile hauek euren lanetan eman zituzten datu historiko zehatzak laburtzen, batez ere datak, irakurleak ikuspegi zabal eta zehatza izan dezan. Hala ere, hutsune handiak aurkitu ditugu datu historiko horiei dagokienean, batez ere Cachopínen lanean.

Azkenik, ez genuke azpimarratu gabe utzi nahi Cachopínek bere lanean egiten duen bereizketa bitxi bat. Jaunen izenak ematean, hiru maila edo titulu bereizten ditu: “Jauna”, “Kontea” eta “Handia”. Horrela, Iñigo Ezkerra Bizkaiko 3. jauna da eta 1. kontea; Lope Díaz de Vizcaya el Lindo, 4. jauna eta 2. handia.

¹⁵⁶ II: 24.

“Handi” eta “Konte” tituluak aski nahasirik ematen zaizkigu, eta egokiena jaunen hurrenkerari soilik erreparatzea deritzogu.

Bizkaiko jaun mitikoen izendegia¹⁵⁷

1	Ozpin edo Ozmin: Legution hil omen zen gona arazoan ondorioz izandako liskarretan.
2	Froon (Ozpinen seme, Meakaurreko nagusi): Asturiarren erasoari egin zion aurre. Bi seme izan zituen: Froiz eta Gaminz.
3	Fortun Froiz (Froonen seme).
4	Lope Urtiz (Froizen seme): Aitarekin haserretu eta Eskozia eta Irlandara egin zuen. Han Albionarekin, erregeren alabarekin, ezkondu eta Bizkaira itzuli zen.
5	Jaun Zuria (Lope Urtiz eta Albionaren semea): 880. urtean jaio omen zen.
6	Lope Urtiz (Jaun Zuriaren semea)
7	Diego Lopez edo Nuño Lopez edo Manso Lopez (Lope Urtizen semea)
8	Diego Lopez edo Nuño Lopez edo Manso Lopez (Aurrekoaren semea).

	Cachopín historikoa		Larreategi
		1.	Andeca ¹⁵⁸
		2.	Eudon (Andecaren semea) ¹⁵⁹
		3.	Aznar (Eudonen semea) ¹⁶⁰
		4.	Eudon (†802) (semea)
		5.	Zeno ¹⁶¹ (†870) (iloba)
1.	Don Fortuno edo Jaun Zuria. 909 urtean hil omen zen eta Aspen lurperatu zuten. Semea, Munio Manso López. ¹⁶²	6.	Lope Zuria (suhia) (Arrigorriagako heroia –870-)
2.	Munio Manso López ¹⁶³ .	7.	Manso Lopez (semea)

¹⁵⁷ Urrenkera hau bigarren liburuaren 24-28 orrialdeetan aurki daitekeen informaziotik aterea da. Ez dakigu nondik jaso ziren lerro hauek, baina ziurtzat dugu ez zituela Cachopínek idatzi.

¹⁵⁸ Cachopínen arabera, Andeca “duque de la Cantabria inferior” izan zen (II: 647). Bestalde, Anteca izeneko andere bat Perispil kapitainaren emaztea omen zen, zein 47 kapitainetako bat baitzen eta Octaviano César-en garaian erromatarren aurka borrokatu baitzen (II: 21).

¹⁵⁹ Cachopínek Hedón de Altamira aipatzen du (III: 85. 87), zein Eskoziako Diogenis erreginarean ondorengo baitzen eta Jaun Zuriaren aitona. Ez du Bizkaiko jauna izan zenik esaten. Bestalde, Eudón izeneko kapitaina maiz agertzen zaigu, zein Perispil kapitain handiaren semea baitzen (II: 21, 70; III: 166, 243).

¹⁶⁰ Cachopínen esanetan Aznar de Altamira (III: 14) 767. urtean hil zen guduan, Fruila errege godoaren aurka borrokan, Bizkaiaren defentsan; bi seme izan omen zituen: Hedón eta Aznar. Antz handia du kontakizun honek Larreategik eman zigunarekin, baina Cachopínek ez du Aznar Bizkaiko jauntzat, ahaide nagusitzat baizik.

¹⁶¹ Cachopínek aipatzen duen Zeno bakarra Araba eta Nafarroako kondetzat hartzen duen pertsonaia da (III: 87), Larreategik proposatzen digunarekin bat egin dezakeena garaiari begiratuta, Cachopínek dioskunez (III: 246), aipatu konde hori Alfonso Magno-ri oldartu baitzitzaion 838.ean.

¹⁶² III: 103

¹⁶³ III: 106

3.	Iñigo Ezkerra (semea). ¹⁶⁴	8	Iñigo Lopez Ezkerra (semea)
4.	Lope Díaz I el Lindo ¹⁶⁵	9	Lope Diaz (semea, †931)
5.	Sancho de Vizcaya ¹⁶⁶ . Subijana de Moriles-en hil omen zuten	10	Sancho López (semea, † 1058)
6.	Iñigo Esquerria II ¹⁶⁷	11	Iñigo López Ezquerria (semea)
7.	Lope Díaz el Rubio ¹⁶⁸	12	Lope Díaz el Rubio (semea)
8.	Diego López el Blanco	13	Diego López el Blanco (semea, † 1148)
9.	Lope de Vizcaya ¹⁶⁹ . Lope Díaz de Haro “conde don Lope”	14	Lope Díaz de Haro (semea)
10	Diego López de Haro y Vizcaya el Bueno	15	Diego López de Haro el Bueno (semea, † 1214)
11.	Lope Díaz de Haro y Vizcaya	16	Lope Díaz de Haro (semea)
12.	Diego López de Haro y Vizcaya	17	Diego López de Haro (semea, † 1254)
13.	Lope Díaz V	18	Lope Díaz de Haro (semea, † 1289)
14.	Diego López V	19	Diego López de Haro (semea, † 1292)
		20	Diego López de Haro (anaia)
	Don Juan Infantea/ Doña María de Haro	21	Don Juan infantea / María Díaz de Haro) (ahizpa)
		22	Juan de Haro el Tuerto (semea, † 1334)
		23	Juan Núñez de Lara / Doña María (alaba)
		24	Nuño de Lara (semea, † 1351)
	Don Tello (+- 1368)	25	Don Tello / doña Juana de Lara (arreba)

¹⁶⁴ III: 113¹⁶⁵ III: 7¹⁶⁶ I: 103, II: 360¹⁶⁷ III: 7¹⁶⁸ II: 427¹⁶⁹ III: 205, 229

Larreategiren ondoren ere, asko izan dira Bizkaiko jaunen izendegia osatzen saiatu diren idazleak (bat azpimarratzekotan, Ladislao Velasco, 1880: 172-189) eta ez dugu ezberdintasun handirik aurkitu Larreategik emandako hurrenkerarekiko, Jaun Zuria jaunaz geroztik bederen. Izan ere, alderik handienak hortxe aurkituko ditugu, Jaun Zuriaren aurretik izandako jaun edo buruzagien izenak emate orduan eta garai haietako egoera azaltzean.

Cachopínen ikuspuntutik, Arrigorriagako borrokaren ondoren Bizkaiko Batzarrak, horrela lurraldea hobeto defenditua geratuko zen ustean, ahaide nagusi eta kapitain guztien gaineratik egongo zen jauna izendatzea erabaki artean, ez zen jaunik izan lurralde hartan, baizik eta maila ezberdineko kapitainak eta buruzagiak.

6.5. Oñez eta Ganboa

Cachopínen iritzian Oñez eta Ganboa bandoak, eta baita euren arteko liskarrak ere, Tiberio Erromako enperadore zela hasi ziren, hau da, 15. urtean. Cain eta Abel bailiran, talde biak ankerki borrokatu ziren elkarren artean mendeetan zehar, eta Cachopínen garaira arte luzatu ziren, antza denez, ezinikusioak. Taldeetako bata Jainkoaren semeek osatua zen, bestea, ordea, deabruaren zerbitzariek osatzen zuten.

Cachopínek luze eta zabal azaldu zizkigun bandoen gudu hauen jatorria eta historian zehar izandako liskar, hilketa eta abarrak. Jatorriari buruz bi bertsiok azaldu zizkigun. Lehena Hernando de Zarate kronistari jaso omen da¹⁷⁰:

Ba omen zen San Seberianori eskainitako ermita bat Gipuzkoako herri bateko mendi baten gainean, non urtero ospatzen baitzen santuaren ohorezko erromeria. Egun horretan herritarrak bildu ohi ziren lautada batean, eta kandela handi bat andetan hartuta, mendian gora eramanez ohi zuten aipatu ermitaraino. Bertan, kandelaren eskaintza eginaz bat, ospakizun handiak egiten zituzten, bertsoak kantatuz, dantza eginez eta ugari jan eta edanez.

Behin batean, bazihozten maldan gora andetan argizarizko kandela handia eramanez, egundoko bero sargoriaren erdian, izerdi patsetan denak. Azpiko aldetik zihoztenek, ordea, neke handiagoa zeramaten, beraien gainera

¹⁷⁰ II: 37-38.

erortzen baitzen karga gehiena, eta sufrimendua arindu nahirik aurrekoei oihuka hasi zitzaizkien honela: -Oñez egizu, oñez daigun gitxitan!- adieraziz jaitsi zitzatela andak lurrera atseden hartu ahal izateko. Baina aurrekoek iristea zuten amets, eta gainera ez zen haien nekea hain jasangaitza. Honako erantzuna bota zieten atzekoei: - Ganera bioa, ganboa!- gaineraino jarraitzeko, alegia. Eta batzuek gora nahi zutela eta besteek pausatzea, eztabaida berotu egin zen eta atzekoen eta aurrekoen arteko hika-mika hark odoletan bukatu zuen. Eta aurrerantzean, olatuak putzuan bezala, bi taldeen artekoa zabaltzen eta handitzen hasi zen Oñez eta Ganboa izeneko bandoak sortu arte.

Lehen bertsio honek bizpahiru berridazketa jasan zituen *Kronikan* zehar, batak bestea osatuz edo zuzenduz. Horrela, 65. koadernoan dioskunez (II: 47-48), liskarren sorleku izan zen ermita hura San Saturninori eskainia zen. Gertakizun haien data ere zehaztasun ikaragarriaz ematen du koaderno honetan: 467. urteko azaroaren 29a izan omen ziren Oñez eta Ganboa leinuen arteko guduak hasiera izan zuen eguna.

Bigarren bertsioa Garcia Salazar historialariak kontatua zigun bere *Bienandanzas e Fortunas*-en, eta, haren eskutik jaso da bertsio hau, nahiz eta Cachopínek berak dioenez ez duen “kredito” handirik merezi:

Arabako herri batean (gerora Ullibarri-Ganboa deitua) ba omen zen dorre zahar eta bakarra, Ganboa izenekoa, eta bertako jauna Antxo. Honek bi seme zituen, Antxo, aitaren izenkidea, eta Lope. Lurralde haietan ohi bezala, oinordekotza lehen semeari egokitu zitzaion eta Loperi zuhaitz bat baino ez zion utzi herentzian, zuhaitzaren adarrek estaltzen zuten lurra eta sustraiak barne. Zuhaitza moztu eta etxea eraiki zuen bertan Lopek, anaiaren dorrearen oinetan. Horregatik, hain zuzen, deitu zion Oñez etxe egin berriari. Egun gutxira, ordea, sekulako haserrea izan zuten anaiok, anai artean gertatzen denetan bezala, bortitzetan bortitzena. Elkarren artean borrokaldi batzuk izan ondoren, anaia zaharrak etxea erre zion gazteari eta atzetik joan zitzaion jarraika akabatzeko asmoz. Baina Lopek ihes egitea lortu zuen eta, Gipuzkoan sartuta, Azpeitian eraiki omen zuen etxea, Oñez izenari eutsiz. Eta horrela eratu omen ziren sekula adiskidetuko ez ziren bi bando hauek.

Bi bertsio hauen artean nahasketa eginez, hirugarren bat ere proposatu zigun Cachopínek bere lanean:

Zenbaitek dioenez, Ganboa eta Oñez leinuen arteko gudu hauek Espainiako Roderico erregea, azken errege godoa, galdu zen garaian sortu omen ziren¹⁷¹. Garai hartan arabarrak elizan biltzen omen ziren meza entzutera egun jakin batez, Ullibarri izeneko herrian, egun Ganboa-Ullibarri deitua. Santua ere atera omen zuten prozesioan andetan jasoa, eta batzuei bururatu omen zitzaien debozio handiagokoa izanen zela santua propio prestaturiko mando baten gainean eramatea. Eta horregatik esan omen zuten: - Ganboa, ganbioa!- “gainean bihoa” esan nahian. Baina andetan zeramatenek ez zuten horrelakorik entzun ere egin nahi, eta honela erantzun zieten: - Oñez, oñez!

Eztabaida horretan berotu egin ziren herritarrak eta liskarrak odola ere ekarri zuen. Aurrerantzean lehen lagun zirenak bi taldetan banaturik bizi izan ziren, elkarren gorrotoan eta beldurrean. Oñez eta Ganboa deitu zieten aipatu bi bandoei¹⁷².

Cachopínek ez zion bertsio honi fede handirik, bandoen arteko ezinikusien sorrera askoz lehenagokotzat baitzuen, erromatarrek euskaldunen lurraldea hartu nahi izan zuten garaikoa, hain zuzen ere.

Magunzio Pinelo¹⁷³ historialariak idatzi zuenez, Erromako enperadore Otabianoren garaian ba omen zen Julio buruzagi kantabriarraren seme bat, Hestor izenekoa, zeinek erromatarrei aurre egiteko arma erabat suntsikorra asmatu baitzuen, “onezdoa” edo “oñezta” zeritzona. Gorago azaldu dugunez, arma hau bi harri borobil handik eta egur lodi batek osatzen zuten, harriak, gurpilak bailiran, egurrak lotzen zituelarik. Onezdoa hau mendian gora jaso eta, arerioak igarotzean, maldan behera askatzen zuten azpian harrapa zitzan.

Behin, ba omen zen euskaldun koadrila bat Urkiola gaina zaintzen, Araba aldetik zetozen erromatarrek hauxe baitzuten igarobiderik errazena, eta haietako batzuek aipatu onezdoa horiek ikusita, zera hasi ziren esaten: - Ganboa honek!-

¹⁷¹ Beraz, 711. urtearen inguruan.

¹⁷² II: 38.

¹⁷³ Ez dugu asmatu jakiten nor ote zen *Kronikan* hain aipatua den historialari hau (I: 165, 166, 536; II: 14, 21, 39, 328; III: 124, 166, 219, 242, 243). Pinelo familiako pertsonaia ospetsuenetako bat León Rodríguez de Pinelo (1590-1660) izan zen, legegilea eta idazlea, Ameriketan garrantzi handiko karguak izan zituenak.

adierazi nahian gorago jaso behar zituztela. Onezdoa hauen kargura zeudenek, osterá, - Onezdoa ondo dagos- erantzun omen zieten. Berezkoa omen zuten bizkaitar hauek izaera suminkorra eta harroa, eta aitzakiarik txikiena aski zuten liskarrari ekiteko. Oraingoan ere hala hasi ziren demandan, eta horrela trabaturik, haserrearen suak indarra hartu zuen eta konturatu orduko amataezina bilakatu zen. Gurasoen, seme-alaben edo ahaideen maitasunari ere erreparatu gabe, elkarri min egiten zioten bi taldetan banaturik topo egiten zuten bakoitzean. Eta horrela, mendekuari mendekuz erantzunez, amaierarik ez zuen gurpil zoro batean sartu ziren bizkaitarrak. Kanpotarren erasoak zetozkienean soilik uzten zioten elkarri erasotzeari, orduan denak bat eginik arerioari aurre egitera prestatzen baitziren. Baina, behin kanpoko mehatxuen arriskua igarota, berriro ekiten zioten elkarren arteko borroka odoltsuari¹⁷⁴.

Bandoen sorrerari buruz esaten zaizkigunak fantasiaren fruitu badira ere, *Kronikan* zehar azaltzen zaizkigun hainbat berri egi-egiazkoak direla esan behar eta Euskal Herriko historiaren atal garrantzitsu hori osatzen lagun dezakete. Barne gatazketan ezezik, Bizkaiko Batzarren antolamenduan ere agerikoa zen gizartearen zatiketa hau, eta badirudi mendez mende dirauen zatiketaren ar hori gizarte honen ibilbidearen motore bilakatu dela.

¹⁷⁴ II: 39-40.

7. LABURBILDUZ

Zalantzarik gabe esan liteke XVI. mendean historialari eskola bat izan zela Euskal Herrian, belaunaldi talde izaera edukitzera iritsi gabe baina: Garibay, Isasti, Mendieta, Peña y Galdocha, Bedia Cirarruista, Cachopín, Poza, eta abar. Askoren lanak galduak baditugu ere, badakigu denek azpimarratu zituztela Euskal Herriko historiaren hari nagusi berberak: Espainiako lehen bizilagunen etorrera Tubalen agintaritzapean, Kantabriako lurraren ontasunak, euskal-armeniar parekotasunak, Ibero eta beste errege fabulosoek burututako herrigintza, herriaren ohituren antzinasuna, erromatarren aurkako guduaren gora-behera heroikoak, ... Batak bestearengandik edanez, aurrekoaren gainean birformulazioak eginez, tradizio historiografiko indartsua sortu zuten, zeinek berebiziko garrantzia izan baitzuen ondorengo mendeetan sortutako aurreiritzi eta teoria absolutoetan, besteak beste, hain zabaldua izan zen vasco-iberismoarena.

Cachopín eta Iburguen gogoz ahalengidu ziren identitate historikoaren bila eta metodologia berbera aplikatu zuten euren mikrokosmos-a (leinuaren, jaioterriaren eta lurraldearen historia) zein makrokosmos-a (munduko eta Espainiako historia) azaltzean, eta bata bestearen testuinguruan txertatzen saiatu zen.

Garrantzi handikotzat zuten pertsonarentzako bere izena eta ikur heraldikoa, hura baitzen jatorriaren eta *input* historikoaren erakusgarri. Etimologiaren bitartez, gainera, izenaren azalpen zail eta zuhurak egin zituzten, izenean ere gorderik baita izana. Genealogiari, oro har, berebiziko garrantzia eman zitzaion *Kronikan*, garaiko obsesio nobiliarioari erantzunez, gizarte osoari eragiten baitzion, baserritar xumeenari zein Felipe II.a berari.

Kronikoiek, elementu horiek guztiak aintzakotzat harturik, elkar elikatzen dute eta aurreko fikzioei babesa ematen diete. Ikasketa heraldiko eta genealogikoek lortu zuten arrakasta horren uholdeak Cachopín eta Iburguen ere harrapatu zituen eta ez zuten Bizkaiko hidalgorik utzi nahi izan ohoreko arbasorik gabe, aitoren semeak umezurtz uztea bezalakoxea bailitzateke hori.

II

Euskalaritzarako

materialak

Ibarguen-

Cachopín

Kronikan

1. HIZKUNTZARI BURUZKO IDEIAK.

1.1. Cachopínen oinarri metodologikoak

Jakitun izan gabe, noski, baina ezin da ukatu Cachopínek sekulako lana egin zuela “filologo” gisa, hizkuntzaren ezagutzarako zein literaturaren aberasterako, euskaraz hainbat hitz eta esaera jasotzean, zenbait izenen etimologia garatzean, edota, zer esanik ez, ahotik ahora igarotako kantak transkribatzean.

Errenazimenduko historialariak, bere egitekoaren aurrean paratzen denean, gizataldeak, herriak eta nazioak ikusten ditu, eta berauek definitzen eta berauen historia aztertzen hastean, hizkuntzarekin egiten du topo, hizkuntza baita gizatalde, herri edo nazio bati batasuna ematen dion lehen elementuetako bat, lurraldetasuna edo jatorri etnikoarekin batera (Zubiaur 1990: 67)¹⁷⁵. Izan ere, hizkuntza Jainkoak gizakiari emandako zerbait da, berezkoa du. Horrela, askotan gizartearen historia eta hizkuntzaren historia uztartu eta elkar osatzen dute.

Historialaria horren jakitun da eta hizkuntzak xarma berezia sortuko du berarengan, iruditzen baitzaio historiaren sekretu gordeenek hizkuntzan iraun dutela bizirik. Berehala ohartu da hitzetan kontzeptuak islatzen direla, hitz horiek izen bilakatu direla maiz, eta urteak joan, urteak etorri, izenok iraun egin dutela ia itxura aldatu gabe. Hitzen eta izenen arteko jokoan aurrera eginez, historialariak ikasi du hizkuntza gehienetan hitzak eta izenak segmentatu egin daitezkeela, batetik erroa eta bestetik aurrizkiak zein atzizkiak bereiziz. Segmentu horien esanahia hizkuntzak berak emango dio eta horrela iritsiko da mendeetan aldaketarik gabe iraun duten izen eta hitzen arima irakurtzera, jatorrizko esanahia argitzera. Esanahi horrek, hain zuzen, argituko dizkio, aldi berean, historiaren ilunak. Historiaren haria irun ahal izango du.

Horrela iritsi ziren historialari asko etimologietan aditu izatera. Baina metodo honekin berreraiki nahi dena gizatalde baten historia da, ez hizkuntzaren historia. Cachopínek Velasco leinuaren jatorria azaldu nahi digunean, euskarara joko du, jakina baita izenari antzinatasuna eman nahi bazaio, antzinako hizkuntza

¹⁷⁵ Ideia hauen aintzindaritzat har genitzake Elizaren Aitak zeritzon taldea –San Agustin (354-410, San Isidoro (555-?), besteak beste–, geroago Ximenez de Radaren (1243) *De Rebus Hispaniae*-n islatu zirelarik; baina gailurra Dantek eman ziela esango genuke (1330, *De vulgari eloquentia*). Ikus Wolff, 1971.

batera jo behar dela. Izenaren azterketa linguistikoa erraza du: *bela+asko* (I: 484). Esanahia interpretatzean, ordea, lortu nahi den emaitzaren arabera egingo du aukera. Batean zaldun baten balentriaren testuinguruan txori beltzak kokatuko ditu; bestean itsas armada handi baten burutzat hartuko du pertsonaia.

Baina etimologiez geroago (267. o.) mintzatuko gara zehazkiago. Egileak etimologietan duen fedea, ordea, bere pentsamoldean oinarri-oinarrizko den ideia erakusten digu: Penintsulan euskara izan zela lehen hizkuntza eta bakarra, alegia. Euskararen aipua alde batera utzita, ez da oso ideia berrizalea, egia esan, ezen herri guztiak kezkatu izan dira euren jatorriaz, eta batzuen zein besteen ikerketen ondorioek erakutsi ohi dute euren jatorri noblea ezezik dibinoa ere badela¹⁷⁶.

1.2. Jainkoaren hizkuntzatik Babelgo aniztasunera

Elizaren Aitak zeritzotenek ere gogotik heldu zioten hizkuntzen sorreraren arazoari eta aterabideak bilatzen saiatu ziren¹⁷⁷. Galdera honako hau zen: Zein zen Babelgo bereizkuntza baino lehenagoko lehen hizkuntza hura? Isidoro saindua ez zen ausartu erabakitzea Jainkoak “egin bedi argia” esan zuenean zein hizkuntzatan mintzatu zen. Jeronimok eta beste askok, ordea hebraiera zuten Adanen hizkuntzatzat, baina ez ziren argudio linguistikorik ematera iritsi. Errenazimenduan ere orok onartua da munduaren sorreran hizkuntza bakarra izan zela, Jainkoak gizakiari paradisuan emana. Arazoa lehen hizkuntza hori zein zen erabakitzea izan zen mendeetan zehar, azkenean gehienek hebraieraren aldeko apustua egin bazuten ere.

Babelen gertatu ezbeharraren ondorioz, ordea, nolabaiteko aniztasuna sortuko zen. Egile kristauak pausatuki aztertu ohi zuten *Genesis*-en 10. kapitulua eta han azaldutakoarekin ezagutzen zituzten herri guztiak harremanetan jartzen saiatzen ziren. Erromako Hipolitok (235ean hila) Babelgo dorrearen eraiketan 95 herri ikusi uste zuen, tartean erromatarrak, ligureak, bretoiak, eta abar. San Isidorok 72ra jaitsi zuen kopurua, zenbaki hori armonia dibinoaren erakusle baita. Europako herriak Noe-ren hirugarren seme Jafet-en oinordekoekin erlazionatu zituen: galiarrak Gomer-ekin, godoak Magog-ekin, grekoak Yaván-ekin,

¹⁷⁶ Beuter-ek (1546) balentziarrak zituen Tubalen oinordekotzat, Medinak (1548) andaluziarrak, bakoitzak bere herritarren aldeko apustu eginez.

¹⁷⁷ Ikus Wolff-ek (1971: 110-112) emandako argibideak Elizaren Aiten pentsamenduaz eta Erdi Aroan hizkuntzaz egindako hausnarketez (223-237).

espainiarrak Tubalekin. Horrela aditzera ematen zen San Isidororen garaian mintzatzen ziren hizkuntzak Babelen gertatutakoaren ondorioz Jainkoak sortutako berberak eta haietatik eratorriak zirela.

Puntu honetan bigarren galdera sortuko zaie Elizaren Aitei: Hizkuntza hauek guztiek balio berbera ote dute, ala maila ezberdinetan bereiz daitezke? Gailendutako ideia arabera, hizkuntza horietan galdua zegoen gauzak eta izenak batzen zituen lotura, gauzen izana izenean islatzen duena, eta ondorioz, hizkuntza arbitrarioak ziren, Jainkoak sortu gauzekin harreman zuzena galdua zutenak. Jatorrizko batasun horretara iristea zaila zen, baina hurbiltzea lor zitekeen Jainkoaren Herriaren historiarekin estu loturik zeuden hizkuntzei esker. Poitiers-ko Hilarioren (315-367 g.g.b.) ustetan hiru ziren baldintza hori betetzen zuten hizkuntza garrantzitsuenak: hebraiera, grekoa eta latina. Horren froga Pasioari dagokion pasarte batean aurkitu zuen:

Pilatok errotulu bat jarri zuen gurutzearen gaineko aldean. Bertan zera idatzi zuen: *Nazaret-eko Jesus, Juduen errege*, eta hebraieraz, grekoz eta latinez idatzia zegoen (Juan 19, 19-20).

Idea hau San Jeronimok ere jaso zuen eta San Isidorok (Etim., IX, 2, 28) azkenik aipatu hiru hizkuntzak “sakratu” izendatu zituen. Testuinguru honetan ez da harrizkoa idazle euskaldunek uste izatea euskarak ere bere lekua izan behar lukeela lehenbiziko hizkuntza ereduaren berreraiketan. Guztiarekin ere, euskara sakratutzat hartzea ez zen XIX. mendera arte etorriko.

1.3. Euskara Espainiako lehen hizkuntza.

Flavio Josefo historilariaren iritziz Tubal Kaukasoetako iberoen aita izan omen zen. San Jeronimok, ordea, *Isaias* (66, 19) oinarri harturik, Flavio Josefok aipatutako Iberia hori Ebro edo Ibero izeneko ibaiak zeharkatzen zuen lurraldea zela adierazi zuen (Tovar 1980: 15-22). Izan ere, *Genesian* (10, 1-32) aditzera ematen den munduaren banaketatik interpretatu zuten kronistek Jafeti bere semeekin Mesopotamia, Asia Beherea eta Mediterranioko kostaldea hartzea egokitu zitzaiola. Tubal, Jafeten semeetako bat, Espainiako kostaldera iritsi omen zen. Ibarquen-Cachopínek interpretazio honi eutsi zioten eta honela kontatu ziguten: Noe-ren semeak, Babelgo dorrearen suntsipenaren ondoren, mundua okupatzeko lanean murgildu omen ziren: batek Asia aldera jo omen zuen, beste batek Afrika aldera eta Jafetek Europaren ardura hartu omen zuen. Bere

semeetako bat, Tubal, Espainiara iritsi eta, Andaluziatik hasita, ordura arte gizakiek zanpatu gabeko lur hartaz jabetu zen.

Sevillako Isidorok San Jeronimorengandik jasotako ideiak egile ugari bildu eta zabaldu zituzten: Rodrigo Ximenez de Radak (1170-1247), Alfonso X.ak (1221-1284), Alfonso de Cartagenak (1384-1456), eta bestek. Tubalek ekarri zuen, beraz, Espainian mintzatu zen lehen hizkuntza. Baina, zein zen hizkuntza hori? Vasco-iberismoaren sorkuntzaren bidean sartuko gaitu galdera horrek, Annio de Viterbo edo Giovanni Nannik (1432-1502) burututako Berosoren faltsifikazioa (1497an editatua) oinarritzat hartuta. Beroso faltsua Ocampok iragazi eta Garibayk berrinterpretatu ondoren, oso finkaturik utzi zuen kronista gehienengana hedatuko zen tesia eta luze iraungo zuena, ia gaur egun arte. Hona hemen Cachopínen hitzetan:

(...) la primera generación de gentes estrañas que a España [...] Noé, fue Túbal, y los que con él binieron de las partes de Phenicia, así como queda probado en el principio desta istoria. Los cuales truxeron su propio lenguaje, que hera unas de las 72 lenguas que por milagro dibino se infundieron en los edeficadores de la gran torre de Babilonia de Arabia, de uno de los cuales lenguajes y de los que con él se estendieron fue guía e capitán Túbal, primero poblador de las Españas. Y como cuentan Juan Ferrer en su *Istoria de Toledo* y Pedro de Alcoçer en su *Descripción Toledana y Cosas Memorables*, y otros modernos y antiguos escritores, no hes fuera de propósito creher por berdad que el lenguaje que Túbal traxo entonçes con su conpañía a España sea el mesmo que hoy se habla en Vizcaya (I: 481)

(...) como queda aberiguado en esta istoria, Túbal, primero poblador destas montañas biscaínas después de las demás regiones y probinçias de España, fuese natural caldeo y las conpañas que con él binieron lo mesmo traxeron consigo juntamente con la lengua bizcaína la lengua caldea y la primera lengua heber, y ellos y sus deçendientes españoles por largos anos la usaron mezclada la una con la otra, hasta que, por discurso de tiempo, gentes de munchas naçiones estrañas y de diferentes lenguas binieron en España e poco a poco se fue corronpiendo y mezclando la lengua natural con las estrañas y diversas, hasta ser puesta en holbido totalmente, aunque todavía en España han quedado reliquias della en algunos bocablos de la lengua caldea-bizcaína que se hallan en el romançe castellano. (I: 190)

(...) en esta nuestra España, además y allende de la lengua hebrea, primera y general del mundo de nuestros padres Adan y Eba, con ella juntamente, por conseguiente y secundaria, entró luego sin perder punto esta lengua bascongada como puramente babilónica y conpanera en igual grado con las otras lenguas del número dicho de 72 allí repartidas. Y este bascuence antiguo se habla perfetamente como de primero en su principio en la probinçia que agora es llamada Viscaya, y lo mejor y más claro de ello y más elegante y pulido en la tierra que está entre Vermeo y Durango. El cual lenguaje bascongado muy çerrado y con otros munchos açentos y sonidos diferentes lo usan y hablan tanbién en las probinçias de Guipúscoa, Nabarra, Álaba y Gascuña y comarcas çercanas, y los unos muy más çerrado que los otros. Y, aunque esta lengua matris bascongada se á conçerbado y conçerba sienpre sin ninguna corruçión ni mistura en esta Vizcaya, no se ha podido así hazer en España a causa de las

munchas y diferentes naçiones estrañas que la an hollado y tenido ocupada, poniendo en ella sus propias lenguas, como entre otros muchos an sido las lenguas griega, phenicia, africana, romana, góticos y algarabía de alárabes y moros que la conquistaron de último, hasta las montañas bascongadas y asturianas, que no pudieron pasar a ellas por su fragura y defensa de armas. (I: 486)

Honela sortu zen euskara Espainiako hizkuntza unibertsal eta antzinakoa izan zelako ideia. XVI. mendean zehar asko izan ziren geroago vasco-iberismoaren teoria izan zenaren oinarriak zabaltzen aritu zirenak, Marineo Siculo, P. Merula eta J. Scaligero tartean. Hona Marineo Siculok idatzitako lerro batzuk:

(...) los primeros moradores de España, según algunos dicen, todos usaron la lengua Vizcaína hasta la venida de los Romanos y Cartagineses. (1539, fol. XXVIII vto.)

Euskara Espainiako antzinako hizkuntza zelako ideia Behe Erdi Aroan hasi zen osatzen, Errekonkistak aurrera egin ahala, eta Errenazimendua iristerako oso hedatua zegoen. Baina ez zen erabateko adostasunik izan teoria horretan, aurka zirenak ere anitz baitziren (Enrique de Villena, Juan de Valdés, Ambrosio de Morales, ...), zeintzuk antzinako gaztelaniaren teoria sortu baitzuten. Hauen arabera, erromatarrek latina ekarri aurretik bazen jada gaztelania, Tubalek berak Babeldik ekarria, hizkuntza berri eta boteretsuaren eraginez eraldatua eta desitxuratua izan zena. Guztiarekin ere, ez zuten lortu antzinako euskararen teoriari ematen zitzaion onespén zabala lausotzerik, eta vasco-iberismoaren teoria indarrez sortuko zen. Teoria honen sorkuntza batik bat Garibay (1571) eta Poza (1587) idazle euskaldunei egotzi izan zaie. Baina aurretik Pera Antonio Beuter-ek (1546: fo.C.), besteak beste, teoria honetara iristeko bidea irekita utzia zuten:

No que crea yo ser aquella la lengua española que usaron los hijos de Tubal, primeros pobladores de España después del diluvio, porque ni es aramea, como hablaban antes del diluvio, ni es chaldeá, ni se parece con ellas, y como en discurso de tantos años como de entonces hasta los godos passaron (en que tantas diversidades de gentes aca vinieron, y de nescesidad hovieron de conversar con estos pueblos) se ha de creer que por la conversación se les apegaron algunos vocablos a su lengua primera, de que derivaron otros vocablos mixtisos: es de razón pensar que no es aquella lengua tan pura como entonces usavan. Mas es lo principal y el cimiento de aquel lenguaje, la lengua que en España primero se habló, recogiendo en sí algunos vocablos de gentes avenedizas, que de Inglaterra y Alemania a esta costa de mar vinieron, y assí según más o menos con ellas se conservaron, quedaron más o menos entre sí diversas maneras de hablar en Vizcaya, Alava, Guipuzcua, y Ruchonia que dezimos Navarra, que vienen a parecer quasi lenguas estrañas, como parece claro en la lengua nuestra Valenciana, que nasciendo de la Catalana, parece diversa de ella, (...)

Geroago, Garibayk argi uztartuko zituen Tubal eta euskara, eta Pozak argudio historikoak eta linguistikoak erabiliko zituen euskara Espainian aurrehistorian orokorki erabili zen hizkuntza zela frogatzeko. Azken finean euskara hizkuntza babilonikoa zela frogatzeak ondorio gisa Espainian hizkuntza unibertsala izan zela esatea zekarren, eta alderantziz. Zaldibiak (1564: 11-13) ere honela zuen formulatua jadanik teoria hau, Ximenez de Rada-ri jarraiki. Garibayk eta Isastik jarraitu egingo zieten. Hala ere, teoriaren aurkariei aski erraza zitzaien teoria kolokan jartzea Estrabonen pasarte bat aipatze soilaz, Espainiako hizkuntzen eta idazkeren aniztasunaz mintzatzen dena (III,1,6), alegia, Ambrosio de Morales-ek, adibidez, egin zuen bezala. Baina Pozak eta Echavek bezalatsu, Cachopínek gogor eutsiko dio unibertsaltasun ideiarri metodo etimologikoa baliatuz. Jakitun dira mendean hartutako hizkuntzek maiz uzten dituztela euren arrastoak inperioaren hizkuntzan eta arrasto hori leku izenetan dela nabarmenen.

(...) es cosa aberiguada que en muy muchas partes desta nuestra España ay grandísima copia e multitud de lugares y cosas que tienen nonbres de bascuençe entero y perfeto, los cuales estan agora muy corrutos con el largo tienpo [.....] [.....] la que solía ser en tienpo antiguo cuando se les pusieron los dichos nonbres, (I:501)

Jarraian Cachopínek hainbat leku izenen etimologia fantastikoa garatzeari ekingo dio 36. koadernoko pasarte honetan, izenekin bere helburuaren mesedetan jolastuz.

Para lo cual començaremos en nuestra España, a la cual llama el propheta Abdias *Sepharat* en la lengua primitiva que dezimos, y en el bascuençe antiguo y perfeto de que no se usa agora, sino muy corruto, como dexamos probado y probaremos, llamaban *Farat* o *Farac* por una grandeza e munchedunbre de tierras pobladas de sublimada manifiçençia, como en efecto lo es esta nuestra España. (II: 122)

1.4. Cachopínek ba ote zekien euskaraz?

XVI. mendeak hizkuntzalaritza berri baten jaiotza ekarri zigun. Biblian oinarritutako ideia tradizionaleri jarraituz, filologia klasikoa eta hebraiera landuz eta hizkuntzen aniztasun babelikoa aintzakotzat hartuz, hizkuntzen arteko konparazioari ekin zitzaion, sailkatu egin ziren. Historialariak hizkuntzen jatorriaz eta garapenez ere kezkatu ziren eta nazioen hizkerak bultzatu ere bultzatu zituzten.

Esana dugunez, *Kronikaren* lehen idazketa Cachopíne da eta bere eskutikoak dira lanaren testu gehienak. Iburguenek burututako zuzenketak,

antzematen zailak, eta bestek gehitutako materialak letozke ondoren. Material horiek guztiak azterturik egileek euskara ezagutu ezagutzen zutela ondoriozta genezake, baina baita maila ezberdineko ezagutzak antzeman ere.

Cachopíni dagokionean, deigarriak dira bera euskaldun ez zela adierazten diguten zantzuak. Leloren Kantuko bersoak transkribatzean “para el que fuere bascongado los pongo”¹⁷⁸ diosku, aditzera emanez irakurleen artean asko izango direla euskara jakingo ez dutenak, bera barne. Euskara miresten du, baina penaz ikusten du bere egoera eta etorkizun beltza ikusten die bai hizkuntzari bai euskal ohitura zaharrei.

(...) antes de mucho tiempo no habrá bascuence, hábito ni costumbre naturales ni propias, salbo ajenas y estrañas, si no se acuerdan con tiempo a lo remediar, como a interesados les inporta y ba mucho en ello (...) (II: 94).

“Interesatu” horiek, jakina, euskara dutenak dira eta euri dagokie hizkuntza zaintzea eta iraunaraztea; lan horretatik libre ikusten du Cachopínek bere burua, izan ere, Cachopín aita-semeen hizkuntza gaztelania da, eta euskararen gaineko ezagutza “pasibo” aski zabala erakusten badute ere, euskal deiturak ezezik euskara bera ere zail eta korapilatsu egiten zaie, batez ere semeari:

(...) uno de los cuales se dezía Iñigo de Lebario-Jauregui, baleroso soldado. Y como los castellanos no le podíamos açertar a pronunçiar bien su nonbre, por ser muy rebesado para nosotros, le solíamos llamar Iñigo Jauregui, e otros le dezían Iñigo Vizcaíno y otros Baro, pero él sienpre solía firmar Iñigo de Lebario-Jauregui, porque hera muy grandísimo scrivano de pluma junta e muy honrado en todas sus cosas (II: 390).

Kronikan zehar Cachopín semeak gaztelaniari “nuestro castellano romance” deritzo. Sekula ez du euskara (*vascuence* edo *lenguaje vascongado* bere hitzetan) bere hizkuntzat hartzen. Hala ere, esan daiteke Cachopín aita-semeek, euskalaritzaren historian hainbat jakintsurekin gertatu ohi den gisan, euskararen ezagutza pasibo aski aberatsa zutela. Hau da, gai ziren idatziz jasotako euskal testu baten hitzak ulertzeko eta hauen analisi linguistiko zehatz samarra egiteko. Horren lekuko izan daitezke *Kronikan* zehar barreiatuak aurki daitezkeen azalpen etimologikoak eta zenbait hitzen esanahia azaltzean ematen dituen argibide “morfosintaktikoak”. Hona erakustalditxo bat:

(...) el balle terminado llamado entonces Ulundona, que quiere dezir tanto en bascuence como en romance bulgar “escuro es”, o hablando más claro se prosupone que una persona superior

¹⁷⁸ II: 91.

habla con otra inferior que es henbra, a la cual tratándola de tú le ba diziendo pasando por aquel puesto, agora fuese por ser de noche ascuras, agora fuese de la fragura y aspereza y escuridad lóbrega del mismo monte, “escuro es” o “escuridad haze”, porque ambos significados tiene este nonbre y bocablo equíboco (II:368).

Cachopínen “hizkuntza gaitasuna” mugatua izanda ere, begi ona izan zuen euskarazko testuak beste kronika eta lan batzuetatik jasotzerakoan (Leloren Kantua, Errodrigo Zaratekoren Eresia, Haroko Jaunaren Kantua, eta abar). Kontuan izan behar da, halaber, Iburguenek material guztia berridatzi egin zuela batzuetan bere zuzenketak eginez eta material berriak gehituz. Baliteke, bestalde, Iburguenen semeak, eta baita suhiak ere, *Kronikari* zenbait material gehituaz batera, zuzenketa berriak ere egin izana. Beraz, sarritan testuok ulergaitz edo hizkuntza aldetik trakets iruditzen bazaizkigu, Cachopín aita-semeek eurentzat arrotza zen hizkuntza baten idatzitako testu horiek interpretatzean eta kopiatzean izandako zailtasunetan bilatu beharko dugu azalpena.

Cachopíni linguistika diakronikorako zaletasuna pizten zaio euskararen aurrean, eta fede handia du historiaren sekretu askok izenetan eta hitzetan gorderik dirautelako ideian. Bere hizkuntzalari dohainak agerian uzten ditu euskal izen bakoitzaren etimologia aurkitu nahian egiten dituen ahaleginetan. Nahikoa zekien Erdi Aroko dokumentuez eta eskura zuen liburutegia aski zabala eta aberatsa bide zen hitzek, eta batez ere izenek, denboran zehar forma aldatu egiten zutela ohartzeko. Aurkikuntza horrek euskal hitzen eta, bereziki, euskal izenen aldaera arkaikoen bila ibiltzera eramango du. Forma zaharren bila ibiliko da beti, eta eguneko formari “corruta” deituko dio. Forma zaharrak berreraikitze ahaleginetan, ordea, erraz erori ohi zen gehiegikerian eta fantasiaren itzala handiegia nabari zaio askotan.

1.5. Cachopín eta Iburguenen ekarpena.

1.5.1. Euskararen historia.

Euskararen esistentziaren arrazoiak azaltzeak hizkuntzaren eta herriaren jatorria aztertzea daramatza ikerleak eta ardura hori gailendu egingo da XVI. mendetik aurrera, mendez mende teoria berriak plazaratuz eta zaharrak albora utziz. Egun ez du jadanik inork tubalismoaren teoria defenditzen, baina Garibayk (1571) aurkeztu vasco-iberismoaren teoria defenditzen duenik bada oraindik,

batez ere Oihenartek ezarritako metodologia proposamenei esker (Bedialauneta 1994). Teoria honekin batera hizkuntzaren eta ohituren iraunkortasunaren inguruko ideiak ere hedatu ziren, atzerritarrek (grekoek, erromatarrek, godoek, musulmanek) sekula mendean hartzerik izan ez zutela eta. Herri menderakaitzaren ideia hau gaur egun ere ageri da zenbait jarrera politikotan eta XVI. mendeaz geroztik euskaldunen askatasunaren jatortasuna eta antzinakotasuna defendatu edo eztabaidatzen dutenen arteko tirabiran eraiki da Historia.

Gizakiak hizkuntzaz hausnarketa egiten hastean, egiazko hizkuntza bakarra dela pentsatzera jo ohi du, berea alegia. Bere hizkuntzatik at, dena da nahastea eta iluntasuna. Ideia hau loturik doa, kolektibitatearen egozentrismora eta, jakina, goian aipatutako hizkuntzaren ikuspegi magikora. Izena izanaren agerraldia da eta indarra du. Izenik ez duena ez da. Jainkoak egin zituen gauza guztiak eta izena eman. Hizkuntza, beraz, errealitatearen eta jainkotasunaren arteko zubi da. Baina hasieran hizkuntza bakarra bazen, nola sortu ziren gainerako guztiak? Bibliak ongi azaltzen ditu arrazoiak:

Jauna jaitsi egin zen gizakiak eraikitzen ari ziren hiria eta dorrea ikustera, eta esan zuen bere artean:

- Herri bakarra osatzen dute guztiek eta hizkuntza bera darabilte; hau hasiera baino ez da, euren buruei ezarritako edozein helburu eskuratzeko gauza dira. Euren hizkuntza nahastera jaitisiko naiz, aurrerantzean ez diezaioten gehiago elkarri ulertu.

Horrela, lurraldean zehar sakabanatu zituen Jaunak eta dorrea eraikitzeari utzi zioten. Horregatik deitu zen Babel, han Jaunak hizkuntza guztiak nahastu zituelako (Gn 11, 5-9).

Jainkoak soilik eraiki eta sor dezake, eta gizakien harrokeria zigortzea da hizkuntza aniztasunaren xedea, baina ez du Liburu Santuak esaten aniztasun hori berez txarra denik. Testu hau oinarrizkoa izan da historian zehar eta mendez mende pentsalariak bertatik abiatu izan dute hizkuntza arazoa.

Euskararen historiari buruz Cachopínek esandakoetan denetik aurkituko du irakurleak: mitoa, magia, intuizioa, hausnarketa, Batzuetan barregurea eragingo digu, besteetan harridura, ... tarteka arrazoa emanen diogu agian, ... ez gaitu, ez, indiferente utziko.

Espanian izan zen lehen hizkuntza euskara izan omen zen, bertako lehen bizilagunek, Tubalek eta bere leinukoek, hizkuntza hori ekarri baitzuten Babeldik. Babelgo dorrean Jainkoak sortutako hizkuntz-nahasteko 72 hizkuntzetako bat

omen zen euskara. Tubal, Noeren hirugarren semea, eta bere leinukoak mintzatzen omen ziren euskaraz eta, Babilonia utzirik, Espainiarako bideari lotu omen zitzaizkion, Noeren ondorengoek mundua betetzeko zuten agindu betetzera. Etorreran Tubalek eta tubaldarrek aurkitu zuten lehen lurraldea Bizkaia izan omen zen eta ondoren Espainian zehar hedatu ziren. Bizkaia lurralde menditsu eta maldatsua izanik, geroztik ederki defendatu ahal izan zuten lurralde hau tubaliatarrek atzerritarren erasoaldietatik eta sekula ez zen jazarria izan herri hau. Horrela, lehenbiziko hizkuntza honek, herritarren ohiturekin batera, ederki eutsi zion kanpotarren erasoan aurrean eta beste inon baino hobeto iraun ahal izan du lehenbiziko hizkuntza honek (I: 481).

Euskararen antzinatasun eta iraunkortasunaren testigantza gisa Seneca, Josefo, Pomponio Mela eta Estrabon aipatzen dizkigu (I: 482) Cachopínek. Froga gehiago ematearren, etimologiak jasotzen eta sortzen saiatzen dira, erakutsiz antzinako errege, leinu eta erresuma izenek euskal jatorria dutela, eta honenbestez frogatua legoke egiaz euskara izan zela Espainiako lehen hizkuntza. Tubalek bere kideekin batera Bizkaiko lurrak bizitoki hartzean beste bi hizkuntza ere ekarri omen zituen euskararekin batera, kaldeoa eta hebraiera (I: 189), eta bere ondorengoek ere elebidunak izaten jarraitu omen zuten, euskara eta kaldeoa hitz eginez, apurka-apurka Bizkaiko kaldeoa galdu egin zen arte. Hala ere, puntu honetan badu Cachopínek kontraesanik:

(...) en esta nuestra España, además y allende de la lengua hebrea, primera y general del mundo de nuestros padres Adan y Eba, con ella juntamente, por conseguiente y secundaria, entró luego sin perder punto esta lengua bascongada como puramente babilónica y compañera en igual grado con las otras lenguas del número dicho de 72 allí repartidas (I: 486).

Cachopínek behin eta berriro azpimarratuko digu munduan izan den lehen hizkuntza hebraiera dela, Babelgo nahastearen ostean munduan zehar loratu zena. Baina euskara ez du erabat hebraieraren menpean jartzen, neba-arrebak bailiren tratatzen ditu. Euskara hebraieraren alabatzat ere badu (II: 124), biak Babelen sortuak baitira, eta antzekotasunak erakutsi nahian 74. kuadernoan munduan zehar hedatutako lurralde eta pertsonaien izenen etimologia emango digu, hebraieraz zein euskaraz antzeko esanahi eta egitura dutela esanez (II:121). Espainiako izenei dagokienean, euskaratik eratorriak direla diosku, hebraieraren aurrean nagusitu

egin baitzen urteen poderioz. Eta nahiz eta herri eta hizkuntza ugari igaro Espainiako lurretatik, ezin izan dute erabat ezabatu euskararen arrastoa.

Geroago, ordea, erromatarrek latina sartu omen zuten Espainian, eta euskara bazter utziz, latina hartu zuten espainiarrek hizkuntza nagusitzat, gaur erromantze deitzen duguna. Jatorrizko erromantze hori ongien gordetzen duten gunek Galiza, Nafarroa, Aragoia eta Asturias ei dira (II: 134). Godoek ezin izan zuten latina mendean hartu eta bere hizkuntza zinbrikoak oso arrasto gutxi utzi omen zituen erromantzean (II: 135).

1.5.2. Euskararen tipologia.

Babilonian sortutako 72 hizkuntzak, Jainkoak sortuak direnez, hizkuntza osoak, perfektoak eta dotoreak dira oso, arima eta ispiritua dute eta jakintsuari zein ezjakinari gauza bakoitzaren egia eta sorburua erakusten diote bere hitzen bitartez, hitzek erakusten baitigute zergatik hartu zuten munduko gauzek izen bat edo bestea. Hori dela eta, ezin esan euskara hizkuntza barbaroa denik, “salbo muy misteriosa y profunda y más compendiosa, elegante en sentençias que la que más de las 72 lengoas sus hermanas son” (II: 136). Ideia berari eutsiko dio Pozak ere (1587: 64).

Euskal hizkuntzak erabateko garrantzia du Kronikaren formulazioen arrazoitzean eta egileek arrazonamendurako tresna ezin egokiagotzat dute askotan,

porque esto tiene el bascuence: ser brebe en letras y compendioso en razones, con palabras equibocas de dos y tres y más entendimientos, según bamos articulando y probando en muchas partes de esta gran istoria en la narrativa de su proçeso (II:410).

Euskaraz hitzak laburrak izan arren, esanguraz beteak ei dira, mamitsuak oso, eta horregatik batzuetan nahaspilatsuak gerta litezke. Berez, bretoiarekin omen du antza, “según su escuridad” (I: 144). Hori dela eta, egileek sekulako zukua aterako diote hitzari eta bere osagaiei etimologiak azaltzean eta kantu edo esaerei buruzko azalpenak ematean (II: 52).

Antzinako hizkera eredugarri gertatzen bada ere, 65. kuadernoan Cachopínek diosku gaur egun sekula baino garbiago mintzatzen dela euskara, gaztelaniari gertatzen zaion bezala, bidea egin ahala hizkuntzak “mehetuz” eta “garbituz” baitoaz (II: 39). Koaderno horretan bertan esaten zaigu, Andramendiko eskrituren aitzakian, antzinako euskara bezain garbi eta argirik Gernika eta bere

inguruetan baino ez dela aurkitzen ahal (II: 59). Eta horra *Kronikak* eman digun ezusteko pozgarrietako bat: Euskalkiak edo, hobe esan, euskaraz hitz egiteko era ezberdinak bazirela ohartuak zeuden gure kronikariak. Gernika eta inguruetak (Ibarruri barne, jakina) hizkera dute eredutzat, inguru honetan gorde baita euskara denbora zaharretan bezain argi eta garbi. Bizkaiko beste lurraldeetan hizkuntzak “azentu, hitz eta doinu” ezberdinak hartu ditu, belarriari min egiten dioten hizkerak sortu dira, “çonosçiéndose por ellos cada un personaje de qué parte, lugar, anteiglesia o villa de Vizcaya es”. (II: 59).

Euskaraz mintzatzeko “modu” desberdin horietaz hainbat aipamen aurkituko dugu elizaketako herrien deskribapenak egitean¹⁷⁹. Hasteko ongi azpimarraturik utzi zuten Cachopínek eta Iburguenek Bizkaian antzinako garaietan bezain ongi egiten dela euskaraz, eta euskararik onena, garbia eta dotorea, Bermeotik Durangorako tartean egiten omen da. Baina beste lurralde batzuetan ere euskara bera egiten da “azentu eta doinu” ezberdinez, hala nola, Gipuzkoan, Nafarroan, Araban eta Gaskonian, eta hurbil diren beste lurralde batzuetan. Espainian ezin izan zaio euskarari eutsi beste herri eta jende asko etorri eta zanpatu dutelako bere lurra:

(...) este bascuence antiguo se habla perfetamente como de primero en su prinçipio en la probinçia que agora es llamada Viscaya, y lo mejor y más claro de ello y más elegante y pulido en la tierra que está entre Vermeo y Durango. El cual lenguaje bascongado muy çerrado y con otros muchos açentos y sonidos diferentes lo usan y hablan tanbién en las probinçias de Guipúscoa, Nabarra, Álaba y Gasçuña y comarcas çercanas, y los unos muy más çerrado que los otros. Y, aunque esta lengua matris bascongada se á conçerbado y conçerba sienpre sin ninguna corruçión ni mistura en esta Vizcaya, no se ha podido ansí hazer en España a causa de las munchas y diferentes naçiones estrañas que la an hollado y tenido ocupada, poniendo en ella sus propias lenguas, como entre otros muchos an sido las lenguas griega, pheniçia, africana, romana, góticos y algarabía de alárabes y moros que la conquistaron de último, hasta las montañas bascongadas y asturianas, que no pudieron pasar a ellas por su fragura y defensa de armas (I: 486).

Ez dugu esango *Kronikaren* egileak dialektologia egiten aritu zirenik, ez horixe, baina hizkeren arteko ezberdintasunak nola edo hala adierazten saiatu ziren. Herri bakoitzean “melindre” berezia omen zuen euskarak, beste herrietako

¹⁷⁹ II: 150-153 (Bermeo, Bilbo, Durango), 170-177 (Busturia merindadea), 177-179 (Zornotza merindadea), 179 (Markina merindadea), 192-196 (Uribe merindadea), 204 (Bedia merindadea), 205-206 (Arratia merindadea), 217, 218 (Durango merindadea), 218-219 (Enkarterriak).

mintzairatik bereizten zuena, baina merindade bakoitzekoek elkarren antz handia zuten (II: 205).

Bilbon euskara eta erromantzea hitz egiten omen zuten bertakoek, doinu berezi batekin baina (II: 152). Durangoko hizkuntza euskara zen eta, “con una consonancia melindrosa” (II: 153), denek hitz egiten omen zuten euskaraz.

Ziortzan, Murelagan, Nabarnizen, Gizaburuagan, Amoroton eta Mendexan, Gerrikaitzen bezala hitz egiten omen zuten; Sukarrietan, Busturian, Muruetan, Forun, Lumon, Muxikan, Arrieta-Libanon, Mendatan, Arratzun, Ajangizen, Gautegizen, Kortezubin, Arbazegin, Ibarrurin eta Gorozikan ordea, Gernikan bezala; Ibarrangelun, Natxitun eta Ispazterren Lekeitio bezala hitz egiten omen zuten; Berriatun euskara ona zen, Amorebietan bezalaxe, baina azken herri honetan “lo pronunçian con un consonante postizo”. Xemeinen eta Etxebarrin, berriz, Markinan bezala mintzatzen ziren (II: 171-177).

Abandon, Deustun eta Begoñan Bilbon bezala egiten da euskaraz; Etxebarrin ere ia hirian bezala; Galdakaon doinu bereziz. Arrigorriagan euskara ona dute, doinu berezia duena. Barakaldon euskaraz zein erromantzez mintzatzen dira: “el bascuence con unos acentos particulares lo pronunçian y con un sonido diferente al de los demás pueblos comarcanos” (II: 192).

Lezaman eta Zamudion Larrabetzun bezala egiten zuten euskaraz; Sondikan euren doinu partikularraz. Morgan Gernikan bezala; Gamizen eta Fruizen Mungian bezala (II: 193).

Lemoan eta Bedian euskara ona mintzatzen omen zuten denek, nahiz eta doinu eta tonu bereziz, eta berdintsu mintzatzen omen ziren Igorren, Arantzazun, Elexabeitin, Zeanurin eta Diman.

Ubidean eta Otxandion, azkenik, oso antzera hitz egiten omen zuten.

Enkarterrietan, bestalde, denek hitz egiten omen zuten gaztelaniaz, “al modo montañés”¹⁸⁰ (II: 218).

Herrietako hizketez emandako xehetasunak orokorregiak izanda ere, dialektologoek eta hizkuntzaren historiazaleek aintzat hartzekoak dira, zalantzarik gabe. Iburguen-Cachopínek lerro hauek idatzi arte, sekula ez zuen idazle batek hizkerekiko sentiberatasun hori erakutsi, eta, gerora ere, oso berandura arte itxoin

¹⁸⁰ Gaurko Cantabrian bezala.

behar izan dugu hizkuntzari buruz horrelako zehaztasunez idatzitako oharren bat irakurtzeko.

1.5.3. Euskararen egoera juridikoa eta erabilera.

Cachopínen garaian, antza denez, Gipuzkoan, Araban, Nafarroa Beherean, Nafarroa Goinean, Frantziako Gaskonian eta Bizkaian omen zegoen hedatua euskara, eta bertakoei *bascos* edo *bascones* zeritzen (I: 494). Baina euskara atzeraka zetorren jada hedadurari zegokionean: “en aquella tierra de Carasa¹⁸¹ y Dijueçes (sic) donde es la casa de Belasco hablaban hasta pocos años ha la lengua bascongada” (II:352).

Baina ez horretan bakarrik, hizkuntzaren estatus juridikoak ere atzera egin baitzuen nabarmen azken urteetan. Izan ere, eredugarri da antzinako euskararen egoera sozio-politikoa:

(...) en los tiempos pasados y antiguos, según arriba se demuestra, las cartas e instrumentos solían notar y escribir en la propia lengua bascongada de la misma provincia (II: 59)

Egun (Cachopínen garaiaz ari gara, noski), ordea, Bizkaiko lurraldea “txiki ageri da eta biztanle gutxirekin, jasandako gudu eta gatazkengatik” Horregatik bertako auziak Valladoliden ikusi behar izaten dira.

(...) y como los juezes que los an de ber y sentençiar y los ofiçiales que los an de manejar y tratar en este real tribunal todos ellos son castellanos y romançistas, si los tal escriptos binieran notados, iscriptos y escriptos como se solía hazer en tiempo antiguo en bascuençe, no fuera posible leerlos ni entenderlos, a cuya causa fue forçado que los escribiesen y notasen en el castellano romançe que todos en general saben y entienden. Por lo cual, en las escuelas en esta región bascongada se lee y escribe y se aprende a leer y escribir en romançe castellano, y todo lo que se escribe es, por las razones dichas, en nuestro castellano romançe y no en bascuençe, el cual an dexado para solamente hablallo entre síis e no escribillo, por no aprobechar a nadie más que a los mismos bascongados y en la misma probinçia y no fuera della (II: 59-60)

111. kuadernoan ideia honetan sakondu egiten du esanez duela laureun urte inork ez zekiela erromantzez mintzatzen, baina gaur egun ederki dakitela denek. Jaunik ez zutenean, eta baita izaten hasi zirenean ere, ez zuten Gaztelarekin tratutan ibili beharrik eta euren hizkuntza fidelki gorde zuten. Baina Jaun Zuria hartu zutenetik jauntzat, eta belaunaldiz belaunaldi naziotik kanpoko jauna hartzen hasi

¹⁸¹ Carasa Cantabriako herri txiki bat da, Laredotik hamar bat kilometrora dagoena. Harrigarri gertatzen da egileak han euskaraz mintzatzen zirela esatea, are gehiago esan duenean Enkarterrietan gaztelanian hitz egiten zutela.

zirenetik, eurena utzi eta arrotzari heldu zioten, euren kalterako, “y según esto ba tan corruto, en brebes años será Vizcaya lo mesmo que es Castilla”.

1.5.4. Euskararen historia eta literaturarako materialak.

Askorentzat, batik bat filologoentzat, Cachopín eta Ibarguen ezagunak dira kanta zaharren biltzaile gisa soil-soilik. Argi dago bildu zituztenak baino gehiago bil zitzaketela, aipatu ere aipatzen baitituzte idaztera iritsi gabe¹⁸², baina ez zen hori euren lanaren xedea. Kanta eta esaera horiek bandoen arteko gatazkei buruzko narrazioak aberasteko baino ez zituzten bildu.

Agureei entzundako istorio odoltsu eta izugarriek erakarri egingo dituzte kronistak, ikararekin batera zirrara ere sortuz. Hizkuntza zaharraren misterioek eta santuen leiendek ere txunditzen dituzten neurri berean. Heriotzaren inguruko errito zaharrak ederki deskribatzen dizkigu *Kronikak*, bitxiak, txundigarriak gertatzen baitira oso ikuspegi kristautik, batez ere, hildakoen gorazarre egitea bertso edo eresien bitartez.

Garibayk ere modu beretsuan eraiki zituen bandoen inguruko narrazioak eresiei toki berezia eskainiz. Baina hizkuntza ez zen historialarien helburua, horregatik are eskertzekoagoak dira kontakizun historikoetan utzi dizkiguten lekukotasun linguistiko eta literarioak, bertzenaz galduak genituzke ziurrenik.

¹⁸² Mendiolarrei buruz hitz egitean, adibidez, zera dio: “Y le llebaron de allí a Aramayona, donde los deste balle, sus henemigos, que por plazer de su acabamiento le salieron a reçibir con tanbolín, albocas y panderos, y cantando a su son cantares conpuestos en copla que llaman *ereçiac*, con fiestas y regozijos” (II: 366).

2. LELOREN KANTUA / KANTABRIARREN KANTUA.

Kronikaren 71. koadernoan Iburguenek transkribatu zuen kantuak zeresan handia eman du batez ere XIX. eta XX. mendeetan zehar, bere berezitasunagatik eta benetakoa ote den sortu diren eztabaidengatik. Mitxelenak zioen bezala¹⁸³, *Kronikari* fama unibertsala eman bazion ere, era berean aitortu behar da Leloren Kantuak eta bere inguruan egindako lanek *Kronikari* buruzko aurriritzi sakon eta kaltegarriak erein zituztela, Cachopín eta Iburguenen gainean faltsugile estigma botaz eta *Kronikari*, oro har, sinesgarritasuna kenduz.

Kantu honek bi izen jaso izan ditu gaztelaniaz, Iburguen eta Cachopínek emandako azalpenei jarraiki lehena, “Cantar de los Cántabros”, eta ondorengo tradizioak emandakoa bestea, “Canto de Lelo”. Baina oinarri-oinarrizkoa deritzogu bi izen hauek eragin duten nahasmena argitzeari, eta aurrerantzean erabili beharko genukeen terminologia zehazten saiatuko gara orain. 71. koadernoan datorren kantuari, bere osotasunean hartuta, Kantabroen Kantua deituko diogu. Hala ere, kantu honetako lehen estrofari, estribillo edo leloari alegia, berezko nortasuna eman behar zaio, sorreraz zein erabileraz bereizgarri baita. Hau Leloren Kantua izendatuko dugu¹⁸⁴.

Kantu biok Cachopínek kanta bakar baten osagai gisa aurkezten badizkigu ere (II: 90), Cachopínek berak azaldu digu aurretik (II: 50-52) Leloren Kantua antzinako kantua dela, bere nortasun propioa duena, denboraren poderioz beste kantu batzuetarako errepika bilakatua. Errepika edo “cantinela” honetan oinarriturik eraiki zuen Cachopínek Lelo pertsonaiaren mito ezaguna. Baina Leloren Kantuaren hitzak ez zituen berak asmatu, ahoz ahoko tradiziotik jaso besterik ez. Beherago ikusiko denez, urteetan zehar hainbat ikerlek idatzitako lerroetan argi geratu da Leloren Kantua zentzurik edo esanahirik gabeko “cantinela” edo “ritornelle” zahar bat dela, ahozko tradiziotik jaso, zeinen egitekoa ahotsa kanturako prestatzea baitzen, eta batzuetan ahapalditik ahapaldirako trantsizioa erraztea.

¹⁸³ *Historia de la Literatura Vasca*-n (1960: 21) esana utzi zuen Leloren Kantua Humboldt-en lanen ostean egin zela ospetsu, eta turismo gida batean ere agertu zela: Copistou, M.L., 1877, *Guide du voyageur dans la province basque de Guipuscoa (Espagne) avec carte et vocabulaire franco-basque*, Bayonne, 18. o.

¹⁸⁴ Julio Caro Baroja (1985) ere ohartu zen bereizketa hau markatu beharraz.

Cachopínek, hala ere, lelo hau kantu guztietara hedatua ikusirik, garrantzizko zerbait esan behar zuela iritzi zion, eta azalpenen bat bilatzen saiatu zen. Leloaren hitzak bere komenientziarako manipulatu zituen horrela, ezer faltsifikatzen ari zen kontzientzia garbirik izan gabe, ziur asko, eta Leloren Kantua sortu zen.

2.1. Leloren Kantua.

2.1.1. Cachopínen bertsioa.

Laredoko historialariak, irakurlearentzako aspergarri gertatzeko beldurrik gabe, luze azalduko digu 65. koadernoan (II: 50-52) euskal kantagintza zaharrearantz kantaz kanta errepikatu ohi zen exordioak, estribiloak edo sarrera errepikatuak (*lelo* deituko diogu) zer nolako egitura duen eta zein den bere sorburua, eta horrela, ahoz aho igaro ohi zen Lelo hartatik bere Lelo apokrifoa sortuko du.

Kronikaren egile honek bere aitaren lanetan oinarriturik dioenez, oro har euskal kanta zahar guztien hasieran lelo bat errepikatu ohi da segidan datozen lerro eta oinei sarrera emateko. Itxuraz ez omen du inolako zentzu edo esanahirik, baina bere aitak, Cachopín doktoreak, zaharrei galdetuz, dokumentu zaharretan arakaturik eta beste kantu batzuk aztertuz, barnean gordetzen duen mezua aurkitu omen zuen. Honela dio lelo horrek:

Lelori lelo

Lelori lelo

leloa sara

yl leloa

Beste batzuetan, ordea, honela ere kantatzen omen da:

Lelori

Lelori

Sara

yl Lelori

Lelo bihurtu aurretik, ordea, berezko kantua omen zen hau eta amodiozko istorio lazgarri bat kontatzen omen zuen (II: 51-52). Antzinako euskal kapitain eta ahaide nagusi batek (Cachopínen esanetan Jaun Zuria baino urte batzuk lehenago

bizi izandakoa), Lelori omen zuen izena, zein Tota izeneko andre batekin ezkondua baitzegoen. Garai hartako guduetan lanpetua egonki, Lelori etxetik urruti zebilelarik, Tota maitakerietan nahastu omen zen bere senarraren arerio handienaren anaiarekin, Sararekin, eta haurdun gelditu. Lelorik izan zezakeen erreakzioaren beldur, Totak eta Sarak Lelori akabatzea deliberatu omen zuten. Horrela, bada, Lelori etxera itzuli zen gauean bertan Totak Sara ezkutatu omen zuen etxe barruan, eta, Lelori bere ohean lasai zetzanean bere emaztearekin, Sarak akabatu egin omen zuen, bere gordelekutik aterata. Gertaera honen berri bazter guztietara hedatu omen zen azkar, eta hilketa zital honen oroimena sekula gal ez zedin, ordura arte ez baitzen inoiz horrelakorik gertatu, zahar eta jakintsuek agindu zuten kantu guztien hasieran traizio honen gogoeta egin zezatela kantariak.

Humboldt-ek berehala atzeman zuen interpretazio honetan Agamemnonen¹⁸⁵ mitoarekiko antza. Berez, pentsatzekoa da Cachopínek Lelo edo Leloriren historia Agamemnonenaren irudira eraiki izana, oso agerikoa baita *Kronikan* zehar Laredokoak greziar literaturako pertsonaiei zien mirespena. Maiz saiatu zen kantabriarrak Grezia eta Troyako heroiekin harremanetan jartzen eta bien arteko odol-loturak sortzen. Horrela, *Kronikan* kontatzen zaigu¹⁸⁶ Diogenis erregina bere bi semeekin iritsi zela Britainiatik erbesteraturik Mundakara, bertan eraiki zutela euren bizitokia eta beraiengandik datozela Jaun Zuria eta ondorengo 21 jaun. Diogenis erregina Eneas-en biloba Brutus-ekin zegoen ezkondua, senarrak semeekin batera egin nahi izan zion traizioagatik erbesteratu zuenean.

Troyako heroien balentriak gogoan, bada, Cachopínek Leloriren zoritxarra kontatzen omen zuen kantua berreraiki zuen honela:

Lelori lo

Lelori lo

leloa Sarac

Lelori yl.

Argi dago, bai, Cachopín aita-semeen irudimenak ez duela mugarik, baina aitortu beharrean gaude agian Cachopín euskal testu zaharren kritikan aitzindari

¹⁸⁵ Mitologia klasikoan Agamemnon Argos eta Mizenas-ko errege dugu, *Iliadan* akeoen buru. Klimentzarekin ezkondu zen, haren senarra, Tantalo, hil ondoren. Troyan irabazle gertatu eta aberrira itzulitakoan, Klimentstrak eta honen maitale Egistok hil egin zuten Agamemnon (Grimal, Pierre, 1999, *Diccionario de mitología griega y romana*, Bs. As., Paidós.

¹⁸⁶ I: 313, 472, 593.

dugula, bera izan baita lehena euskal kanta zaharren oinarritzko egituraz oihartzun eta bera dugu “lelo” deritzan figura estilistikoaren aurkitzailea. Dena den, Laredokoen irudimen erakustaldiak izango zituen bere fruituak, XIX. mendetik aurrera pentsaezineko oihartzuna izan baitzuen kantu epikoaren mailara igotako leloak.

2.1.2. Kantu zaharra ala leloa?

Ziur asko, ez dago euskal letren munduan Leloren Kantuak eta Kantabriarren Kantuak adinako eztabaida, iruzkin eta argitalpen eragin duen poema, testu edo libururik. Oihartzun bibliografiko hori, gainera, mundu osora hedatu dela esan daiteke.

Garatek (1935: 640) dioskunez, J.A. Mogelek Humboldt-en eskuetara helarazi zuen kantuon kopia bat eta alemaniarrek 1812an *Königsberger* izeneko aldizkarian eman zuen argitara lehenbizikoz. Humboldt-ek bere zalantzak agertu zituen kantuaren benetakotasunari buruz Vizcaya hitzaren presentziagatik, Bizkaia izena ez baita dokumentuetan ageri X. mendera arte. Baina azkenean autentikotzat hartu zuen Kantabroen Kantua eta hori izan zen iritzi nagusia XIX. mendearen erdialdera arte. Humboldt zorutzen zegoen egindako aurkikuntzarekin eta hala adierazi zuen gutun batean:

Con los vascos me va divinamente. Figúrate: he encontrado un fragmento de una vieja canción triunfal que posiblemente fue compuesto poco después de las guerras cantábricas, es decir, unos diez años después de Cristo. Tiene un tono propio de fuerza y es algo absolutamente nuevo. (Garateren itzulpena, 1950: 134).

Lehen argitaratze honen ostean, kantuak kopia ugari ezagutu du eta alde nabarmenak izan dira batetik bestera interpretazioari zein transkribaketari berari dagokionean. XIX. mendean kantuaren benetakotasunaren edo faltsutasunaren inguruko hika-miketan murgildu ziren bibliofilo, ikertzaile eta literaturzale asko.

Kantuaren jatorriari buruzko eztabaida Mogel-ek berak piztua dela esan daiteke. Haren ustetan, ezinezkoa zen egile batek, dela Ibarguen dela Bedia, kantu bat asmatzea eta bere esanahiari buruzko azalpenik eman ezin izatea. Tesi honek izan zituen bere aldekoak, zeintzuk pentsatzen baitzuten Octaviano enperadorearen garaiko “Enbeita” batek kantua sortu zuela eta ondoren belaunaldiz belaunaldi transmititu zela. Haien artean Domingo de San Sebastian

nabarmendu zen, goitizenez Txandon, eta 1925ean *Euzkadi*-n idatzitako artikulu baten bitartez entzunarazi zuen bere ahotsa eztabaidaren erdian.

Hori baino lehenago, ordea, Michel-ek (1857), Bladé-k (1866), Vinsonek (1883) eta bestek egindako ikerketen ostean, kantua apokrifoa zelako ustea zabaldua zen jada ikerleen artean. Hala ere, onartzen zen kantuaren errepika, Leloren Kantua alegia, jatorri zaharreko kantua zela, urteen joanean desitxuratua, eta hastapenean zentzuren bat izan bazezakeen ere, Cachopínek jaso zuenerako esanahi oro galdua zuela eta garaiko kantuen sarrera edo *lalala* gisa ageri zela.

Guztiarekin ere, handik urte gutxira, Azpiazuk lehenengo (1873) eta Manterolak segidan (1878), eskuizkribua aztertu ondoren jatortzat jo zuten Kantabriarren Kantua eta euren kantutegietan sartu.

1883. urtean Vinsonek era zabarrean eraikitako kantua iritzi zion eta faltsua. 1898. urtean Dodgson britainiarra izan zen Markinan, Humboldt-en pausuei jarraiki. Federico Mugertegik hartu omen zuen etxean eta beronek kontatu omen zion nola bere aitona zenak erakutsi zion Humboldt-i Kantabriarren Kantua zetorren eskuizkribua, bilobak berari erakutsiko zion bezala, alegia. Lehenagotik egindako transkribaketek¹⁸⁷ akats anitz zituztela eta, Dodgson-ek argitalpen berezia prestatu zuen eta orrialde bakarreko mila ale banatu zituen liburutegietan eta ikusnahien artean¹⁸⁸. Transkribaketa honek ere akats nabarmenak zituen, ordea. Handik bi urtera Londresen emango zuen argitara kantua, ingelesezko itzulpena alboan zuela eta oharren bat edo beste gehituta¹⁸⁹. Bere ustetan Leloren Kantuaren hizkera Bizkaikoa da eta antz handia hartzen dio 1596ko *Refranes y Sentencias*-en irakur daitekeen euskararekin.

Rodolphe Goutman (1910) ere erakarri zuen eztabaidak eta kantuaren interpretazioan lehenbiziko pausuak eman zituen.

Urquijok (1911: 282) bere aldetik argi ikusi zuen Leloren Kantua manipulatu egin zuela Cachopínek, zentzuren bat izan zezan, ezen, berez Leloa zentzurik gabeko “cantinela” da, penintsulako beste hainbat kantutako lelo edo errepikekin antz handia duena. Garatek ere (1950) ahalegin handia egin zuen lelo

¹⁸⁷ Humboldt-enaz gain, *Euskal-Erria* aldizkariak bere XXV tomoan bazuen beste bertsio bat argitaratua.

¹⁸⁸ Dodgson, E.S., 1898, *Leloa*, F. Elosuren etxean, Durango.

¹⁸⁹ Dodgson, E. S., “The oldest Basque song” in *Notes and Queries*, London.

hau oso zabaldua dela, edo hobe esan, errepika honen antzekoak historiaren eta munduaren bazterrik ezkutuenetan ere aurki daitezkeela erakusten.

Izan ere, lelo hau zein sustraitua zegoen erakusten duten adibideak ugari dira. Menendez Pelayok Peruchoren Kantua izenaz ezagun den kantua aurkitu zuen *Tercera parte de la Celestina* tragikomedian, Gaspar Gómez idazle toledotar ezezagunak 1536an argitaratua.

*Lelo lirelo çarayleroba
yaçoegüia ninçan
aurten erua
ay joat gauiraya
astor usua
lelo lirelo çarayleroba¹⁹⁰*

Bernat Etxeparek (1545: 261) ere erabili zuen; honela irakur daiteke poema baten hasieran:

*Eta y lelori, bai lelo, leloa çaray leloa
Heuscara da campora eta goaçen denoc dançara*

Eta beste batean (1545: 174):

Eta lelori bai lelo, pota franco, bercia bego

Berriki aurkitutako Perez de Lazarragaren (1567) eskuizkribuan ere aurki dezakegu lelo honen aldaera:

*Ytai lelo ybai lelo
Echean aray leloa
damarica dan galantaena
belagai butroeco¹⁹¹*

Leloa, ikusten denez, Euskal Herrian zehar oso hedatua zegoen eta ahozko tradizioz idatzizkora egin zuen jauzi oso modu naturalean, ohiko errekurtsio poetiko bilakatu.

Bestalde, deigarria da gure inguruko hizkuntza erromanikoek gorde duten erromantzeroan Leloren Kantuarekin antz handia duten sarrera eta “estribilloak” aurkitzea. “Romance del rey moro que perdió a Valencia” izenburua daraman gaztelaniazko erromantzean, adibidez, honako sarrera datorkigu:

*Helo, helo, por do viene
el moro por la calzada (...)¹⁹²*

¹⁹⁰ TAV: 103.

¹⁹¹ www.gipuzkoa.net/lazarraga: 95.o.

Helo, helo formula hau “El infante vengador” erromantzean ere aurkituko dugu¹⁹³ eta Urquijok (1926b), bere aldetik, antzerako errepika aurkitu zuen Portugalgo tradizioko poema batean:

Ai lari lari lo lelo

Ai lari la lo meu bém

Euskal kantuen leloak inguruko erromantzeetan aurki litezkeen lelo edo sarrera musikal hauekin duen antza ikusirik, ez dut uste inoiz inolako esanahirik izan duenik Lelok. Osterantzean, ditugunak baino adibide ulergarriagoak izango genituzke eta beste egileren batek edo bestek ere jaso izanen zukeen azalpen eta guzti, Cachopínek egin bezala, baina, jakina, manipulaziorik gabe. Euskal leloa, inguruko erromantzeetan aurkitzen diren formulen antzera, erromantze edo kantuen sarrera musikala baino ez da, bide batez kantariaren oroimena pizteko balio dezakeena. Manuel Lekuonak (1973) “apain-olerki” izenaz bataiatu zituen era honetako piezak, esanahirik gabeko olerkiak, esanahidun olerkien apaingarri izateko sortuak.

Cachopínek emandako bertasioaren eta azalpenen inguruan amaierarik gabeko esamesa eta hika-mikak piztu ziren XIX. mendetik XX.era igarobidean eta ondorengo urteetan. Askok, tartean Trueba (1899), ez zuten zalantzarik bertasio horren egiazkotasunaz eta esan liteke eztabaida XX. mendearen hasieran jarri zela gorien, bereziki 1926. urtean¹⁹⁴. Urte horretan Pio Barojak artikulu labur bat idatzi zuen *El Pueblo Vasco* egunkarian, modu horretan Urquijo eta Quadra Salcedoren artean piztutako eztabaidan muturra sartuz. Barojak ere faltsua deritzo Kantabroen Kantuari, baina Leloren Kantuan balio handiko esamolde zaharrak ezkututzen direla uste du. Kaldear herriaren tradizio erlijiosoan oinarriturik, kantu erlijiosotzat jotzen du, non gaueko jainko batek (*Zara*) Eguzki jainkoa (*Lelo*) hiltzen baitu¹⁹⁵. Lorenzo Echeverriak ere esku hartu zuen eztabaidan *Diario Vasco* egunkarian argitaratutako artikulu baten bitartez. Bertan zioenez, Leloren Kantuak antz handia du Linoren Kantua deritzonarekin, zein izen bereko ume baten ohorez

¹⁹² Wolf, Fernando Jose eta Hofmann, Conrado, 1856, *Primavera y flor de romances*, Berlin, 175.

¹⁹³ Ibidem., 180.

¹⁹⁴ Bibliografian ikus: Leloren Kantuaren ingurukoa: Aparisi-Serres (1927), Urquijo (1926), San Sebastián (1925), Baroja (1926),

¹⁹⁵ Antzeko teoria zabaldua zuen urte batzuk lehenago, 1884an, Sanchez Calvok: bere iritzian *Elo il Elo* izango zen jatorrian kantuaren leloa, gizakiaren altxor literariorik zaharrena, eta *Elo* “eguzki” omen zen.

kantatzen baita Argos-en legenda grekoan. Kantu funebre hau, antza denez, Adonis-en, Afroditaren senar ederraren heriotzean kantatutako bera da.

Urquijok lau egun beranduago erantzun zion Barojari *El Pueblo Vasco* egunkarian, haserre antzean eta ironia handiz “hizkuntzalari erromantiko zaharkitua” deituz. Lelo “retornelo” bat dela errepikatu zion, “mirondon, mirondón, mirondena”-ren antzekoa, eta ezin izango duela frogatu zientifikoki Lelo “Eguzki” dela eta Zara “Gau”, ezta “Il”-ek jainko esan nahi duela ere. Gogorazi nahi dio, *Kronikak* berak dioenez, leloa kantariari edo bertsolariari kantuaren neurria eta tonua emateko erabiltzen zela.

Nekagarri gerta daiteke oso kantu hauei buruz idatzi diren artikulu guztien berri ematea, Humboldt-ek ezagutzera eman zuenetik gida turistikoetan ere agertu baitzen (Capistou 1877). Ez da gure helburua irakurlea aspertzea. Hala ere merezi du aipatzea Aparisi-Serresek 1927an debatean egindako agerraldia. Leloa zaharra delakoan da, baina berak ere Barojaren teoriak ez duela oinarri zientifikorik pentsatzen du. Urte batzuk geroago, honen biloba, Caro Baroja (1944: 93-118), Leloren Kantuari buruz ordurarte idatzitakoa aztertu eta laburtzen saiatu zen.

Leloren Kantuaren antzinatasuna eta Cachopínek emandako bertsioaren egiazkotasuna defenditzen egindako ahaleginak (Cachopín, Ibarguen, Iturriza, Humboldt, Mogel, Lafuente, Fauriel, Bladé, Mahn, W. Webster, Vinson, Manterola, Baraibar, Velasco, Dodgson, Guerra, Fray Eusebio de Echalar, eta beste ehunenak) Cachopínen manipulazioa erakusten egin direnak baino gehixeago izan dira, baina azken hauek, batez ere Urquijorenak (1914-17-19-21-24-31) eta Mitxelenarenak (1986), eztabaida fantasiaren eromenetik arrazoiketaren zuhertasunera ekarri dute. Dagoeneko eztabaida orotik kanpo da Leloren Kantua zentzurik edo esanahirik gabeko “kantinela” dela, kanten eta bertsoen hasieran, doinua gogoratzeko edo bertsoaren neurria zaintzeko, abestu ohi zen errepika. Ez zen Lelo edo Lelori izeneko kapitainik izan, ezta Zara edo Todarik, Cachopínen irudimenean izan ezik.

Lelo honen sorrerari buruzko ideia interesgarria eman zuen Garatek (1950:149) Chahoren iradokizun bat jasota: “Zara” zaharra izan liteke eta, horrela, “lelo zaharra” “bertso berriak” esamoldearen aurkari.

Kantabriarren Kantuaren egileak estribillo moduan lelo hau hartu zuenean, nahiz eta ahozko tradiziotik jaso, denborarekin esanahirik gabeko hitz-joko huts bihurtutako doinu haiei azalpenen bat aurkitu beharrea ikusi zuen bere burua. Horrela asmatuko zuen Leloren inguruko istorio mitikoa. Horretarako, eta ikutu poetiko eta adierazkorra eman nahian, tradizio greko-latinotik Agamenon-en mitoa jaso zuen eta bere erara itzuli: Argos erregea Lelo bilakatu zuen, Totari Clitemnestra emaztearen rola eman zion eta Zarari Egisto amorantearena.

Puntu honi amaiera emateko Urquijoren hitz batzuk ekarri nahi nituzke gogora, euren zuhurtzian ematen duten lasaitasunagatik:

Por exceso de imaginación pecan algunos de nuestro escritores, de cuyos trabajos se siguen, por lo menos, dos inconvenientes: que alteran la verdad histórica y que dificultan la labor de los investigadores concienzudos, a los que ponen en el duro trance de pasar por antipatriotas, si se atreven a reducir los hechos a sus debidas proporciones (1914: 34).

2.2. Kantabriarren Kantua (II: 90).

Horrenbesteko zeresana eman duen kantu honek XIX. mendean zehar eta XX.aren lehen erdian izan zuen sona erabat galdua duela esan liteke¹⁹⁶, agian onerako, bere azterketa ikuspegi zabalagotik eta aurreiritzietatik libro egin baitaiteke.

Euskal Herriko historiarako asmatu izan den mito handi eta miresgarrienetako batek merezi zuen propio idatzitako oda edo poema berezia, xumeago, bai, baina *Iliada* edo *Odisea* baten antzera, erromatarren aurkako guduen pasadizo heroiko eta gogoangarriak eta euskaldunen Erromarainoko periploa sekula eta betiko herriaren oroimenerako gordeko zituena. XVI. mendeko erudituren batek argi ikusi zuen premia hori, seguruenik Cachopín aitak, eta “Cantar de los Cántabros” izeneko poema eraiki zuen, berak ahoz ahoko tradiziotik jaso zuela badio ere. Eta faltsutzea, esan dugu lehenago ere, ez da historialari batentzat huts larria, egiazat ditugun gertakariak frogatzeko instrumentuak asmatzea Historiaren onerako lan egitea baita, Herriaren eta herritarren loriarako.

Euskaldunen eta erromatarren arteko harremanen gorabeherak, hasierako borroka gogorretatik bukaerako bake eta adiskidetasun egoerara arte, luze eta

¹⁹⁶ Mitxelena (1986: 292) “hace mucho que perdió, embate tras embate, el aura de antigüedad venerable que lo envolvía, hasta el punto que seguramente ha llegado a borrarse su huella en la memoria de bastantes”.

zabal kontatu zizkiguten Cachopín semeak eta Ibarguenek¹⁹⁷. Erromatarrek, Oktabiano buru zutela, euskal lurak armaz hartu nahi izan zituztenean, armaz erantzun omen zieten euskaldunek eta euren lurretan sartzea eragotzi. Urteetan luzatu omen zen egoera hori, eta lautada eta zelaietan erromatarrek nagusitzen baziren ere, mendi malkartsuetan eta basoetan erraz hartzen zituzten mendean euskaldunek. Ikusirik ezin zituztela inola ere menperatu, erromatarrek euskaldunekin apustu moduko bat adostea deliberatu omen zuten. Hesitutako eremuan ehuna soldadu borrokatuko ziren euskaldunen zein erromatarren aldetik, eta zutik irauten zuen azkenak erabakiko zuen irabazlea zein zen. Euskaldunak suertatuz gero irabazle, erromatarrek etsi egingo zuten betiko eta euskal lurak bakean utzi. Alderantziz gertatzekotan, erromatarren menpe jarriko zuten euren burua euskaldunek.

Jokatu zen soldadu-dema eta euskaldunak aise atera ziren garaile. Erromatarrek, ordea, ez zuten etsi eta, borroka hau *Bizkaian* izan zela eta horregatik irabazi zietela argudiatuz, Erroman apustu bera errepikatzea proposatu zieten. Euskaldunek onartu egin zuten, erabateko konfidantza baitzuten euren buruengan. Joan ziren, bada, Erromara ehun euskaldunak Urtino kapitaina buru zutela. Tiber ibaiaren erdian zegoen uhartean, Trastiberin alegia, zen jokatzekoa borroka. Hara iristean, bidaiatu zuten ontzia kolpeka zulatu eta hondorarazi zuten. Harriduraz galdetu zieten zergatik egin zuten hori, eta erantzuna are harrigarriagoa izan zen: “Itzulerarako hor dugu ehun erromatarrek ekarri duten ontzia”. Borroka honetan ere garaile atera ziren euskaldunak, lehen erasoaldian jada laurogei erromatar hilik gertatu baitziren eta euskaldunen aldetik soilik hogei.

Erromatarrek erabat txunditurik geratu ziren eta aurrerantzean euskaldunekin bakean eta adiskidantzan biziko zirela agindu zieten. Gainera, eskaintza berezia egin zieten euskaldun ausart eta indartsu haiei: gera zitezela Erroman eta bertako alabekin ezkondurik, ahaidetasun loturak sor zitzatela erromatarrekin. Hala egin omen zuten eta Trastiberin bertan hartu omen zuten bizileku.

Honaino erromatarren aurkako guduen eta Trastiberiko euskaldunen mitoa Cachopínek kontatu zigun bezala, zeinek, aldi berean, Peña Galdocha, Aguayo

¹⁹⁷ 64, 65, 71 eta 72 koadernoetan bereziki.

Gebara eta besteren lanetik jaso baitzuen. Irakur dezagun orain ustezko gertaera horien oroitza hilezkor bilakatu asmoz Cachopín zaharra izan daitekeen autore batek konposatu zuen poema, *Ibarguen-Cachopín* deitu kronika honen 71. koadernoan datorrena (II: 90)¹⁹⁸:

- | | | | | | |
|-----|--|-----|---|-----|---|
| 1. | <i>Lelo yl lelo
lelo yl lelo
leloa çarac
yl leloa.</i> | 2. | <i>Romaco aronac
aleguyn eta
Vizcayac daroa
cansoa.</i> | 3. | <i>Otabiano
[..]junduko jaun
leco bydi
Vizcaicoa.</i> |
| 4. | <i>Ychasotati
eta leorres
ymyny deusco
molsoa.</i> | 5. | <i>Leor çelayac
bereac dira
mendi tantayac
leusoac.</i> | 6. | <i>Lecu yronyam
gagoçanean
noc bera sendo
dau gogoa.</i> |
| 7. | <i>Bildurric guychi
arma bardinas
oramayasu
guexoa.</i> | 8. | <i>Sojac gogorrac
badyri tuys
narru biloxa
surboa.</i> | 9. | <i>Bost urteco
egun-gabean
gueldi bagaric
pochoa.</i> |
| 10. | <i>Gureco bata
il badaguyan
bost amarren
galdoa.</i> | 11. | <i>Aec anys ta
guc guichytaya
asquynyn dugu
lalboa</i> | 12. | <i>Gueure lurrean
ta aen errian
biroch aynbaten
çamoa</i> |
| 13. | <i>Esin gueyago
[....]teta
[....]
[....]</i> | 14. | <i>Tiber lecu
gueldico çabal
Uchim tamayo
grandoya</i> | 15. | <i>[....]
[....]
[....]
[....]</i> |
| 16. | <i>Andi aristac
gueysto sindoas
betico nayas
narr doa</i> | | | | |

¹⁹⁸ Papera hautsia dago ertz batean, 13 eta 15. estrofari zegokion zatian. Beraz, beste kopiarik agertu ezean, betiko galdurik ditugu ahapaldi horietako hitzak.

Cachopín gaztearen esanetan, kanta hau pergamino zahar batean idatzirik aurkitu zuen eta berak jasotako hamaseiak baino askoz ahapaldi gehiago zituen, baina “los demás estaban carcomidos” diosku.

Hau da, jakina denez, Kantabriarren Kantuari ezagun zaion jatorrizko bertasio bakarra. Esan nahi dugu Cachopínen garaiko, lehenagoko edo ondorengo ezein autorek ez zuela kantu honen berririk izan. Guganaino bederen, ez da aipurik ere iritsi. Iburguenen eskuak emandako bertasio hau izan da XIX. mendeko hasieratik aurrera hainbat idazle gogotsu eta sinesberek han eta hemen argitaratutako bertasioen oinarri bakarra.

Gure ustez, badugu jada Cachopínen iruzurra susmatzen hasteko nahiko arrazoi. Izan ere, euskaldunen balentriak hainbeste goستن dituen kanta bat herriaren memorian edo tradizioan txertaturik egon izan balitz, ez litzateke oharkabean pasatuko herri honek Errenazimenduan izan zituen historialari ugarientzat, ez horixe.

Kantuaren interpretazioa eta bere hizkuntzaren inguruko azalpenak ematean, egile gehienek kantu soila azaldu dute, kontuan izan gabe Cachopínek berak emandako azalpen eta “itzulpen parafraseatua”. Ez da ahaztu behar *Kronikaren* egileen helburua ekintza historiko bat aldarrikatzea eta jakinaraztea dela, ez hizkuntzaren edo literaturaren altxor zahar bat argitara ematea. Horregatik, esan liteke egileak arreta berezia jarri zuela kantuaren azalpena erromantzez ematean, kantua bera transkribatzean bezainbestekoa edo handiagoa agian. Izan ere, euskarazko hitzen esanahiari buruzko azalpen luzea eman ziguten eta sarritan azalpenek poemaren hitzek esan nahi luketena aise gainditu eta handitzen dute. Kantua aztertu nahi duenak, beraz, ezin du faltsugilearen itzulpena bazterrean utzi, ezen, berez, kantuaren bertasio hau eta bere itzulpena elkarren eraginpean jainoak baitira.

Por esta horden referida iba este cantar contando toda esta istoria que abemos dicho atrás en este capítulo de las guerras çebiles que en çinco anos Otabiano Çésar Augusto hizo en esta probinçia cantábrica. Y, aunque esta herecia tenía otros muy munchos versos rodados, tan solamente dellos he tomado los diez y seis primeros, porque los demás estaban carcomidos. Y los pongo aquí, para el que fuere bascongado los pongo, contentándome con sólo ellos, ebitando largueza inportuna de los demás, que el pergamino está muy roñoso y biejo, cuya declaración dellos entenderá el letor que no supiera bascuence en esta forma:

A saber es: El primero verso queda para la postre, donde póné su etimología antigua cunplidamente.

Y con esto paso al 2 berso, el cual dize que los soldados armados de Roma hizieron todo lo posible con sus fuerças y balor, pero que no les aprobechó nada, porque Vizcaya y sus vizcaínos sienpre se defendieron y llebaron el campo victorioso dellos.

Y en el 3 berso dize que el enperador Otabiano César Augusto de Roma, señor de todo el mundo hera, eçeto de Vizcaya.

Y en el 4 declara deziendo cómo este grande monarca vino a Vizcaya y la çercó por la mar y por la tierra.

Y en el 5 dize que este enperador y su gente de guerra en los lugares llanos y razos hazían quanto querían con las armas, eçeto en las s[ierras] altas y montañas ásperas y llugares donde abía árboles, porque en [....] heran desbarata[dos][....]dos como [....]ainos.

Y en el 6 [....]tabros [..... to dezir como “confusión y lugar espeso de árboles”, tomaban entonces grande contento y alegría por serles propiçia y favorables a ellos, donde bençían sienpre a los enemigos.

Y en el 7 dize que en tales puestos no temían a los romanos, y aún en lo llano muy menos tantos por tantos y con armas iguales.

Y en el 8 berso cuenta que los romanos, aunque traían arnezes y armaduras fuertes, heran más rezios que de azero los cueros desnudos de la carne de los vizcaínos, con los cuales hazían más resistencia y podían más que los enemigos con sus armas.

Y en el 9 dize que los romanos en 5 años continos de noche y de día sin jamás çesar duró el çerco y dieron cruda guerra a los vizcaínos.

Y en el 10 verso dize que para quando los romanos mataban un viscaíno, los vizcaínos mataban más de 50 romanos.

Y en el 11 dize que, aunque los enemigos heran muy muchísimos y los vizcaínos muy poquitos, sienpre les daban las manos llenas y grandes golpes de guerra y continos malos tratos, llebando sienpre la mejor parte de la bictoria, dándoles cruelísimas muertes.

Y en el 12 dize que en lo último de este çerco largo entre romanos y vizcaínos pasaron dos batallas finales de tantos a tantos, la una en Vizcaya y la otra en Roma, las cuales ganaron los vizcaínos.

Y en el 13 berso dize cómo los romanos [....] ni más hazer [....] así por su pro[....] su amistad y con[....] todos quedaron [....] amigos y confede[.....] pasadas.

Y en el 14 da a entender cómo estos vizcaínos con su capitán Urzino fueron de Vizcaya a Roma a acabar la batalla final de tantos a tantos y la bençieron a los romanos en la ínsula y ribera del grande rio Tiber, donde quedaron y poblaron este Urzino y su conpañía, de quienes después se pobló muncha parte de la demás tierra de Roma.

Y en el 15 dize que de estas montañas de Cantabria es su origen legítimo y [directo] y proçeden los caballeros y escuderos nobles e grandes trastiberinos de Roma y su tierra hermosa.

Y en el 16 verso dize que estos grandes barones vizcaínos que poblaron en Roma por su balor y creçida nobleza ilustraron la tierra, los cuales por su grande mereçimiento obieron y les dieron todo cuanto pidieron, casándolos con matronas romanas y dándoles muchos bienes de fortuna y poniéndolos en el uso y exercicio de los mejores y mayores cargos y ofiçios del gobierno de la república romana y sus guerras y otros menesteres de muncha inportancia, y fueron por todos sienpre estimados y acatados a toda su boluntad; y que destos vizcaínos proçeden los caballeros romanos de más balfía y los primeros [... ..] Roma llamados aun[... ..] trastiberinos y [... ..] yestos vizcaínos [... ..] Urtino o Urzino [... ..] [...] en Roma, en la república que llamaron Colonia, de donde se lebantaron estos dos apellidos contrarios que dexamos apuntados de Ursinos y Colonenses, que siendo una mesma cosa deçendiente de un estirpe y familia y sangre, se binieron a hazer esterminios con la caducades del tiempo enemigos mortales, cuyas pasiones antiguas duran hasta oy día, como lo mesmo pasa en Vizcaya en los dos bandos que en ella ay de Ones y de Ganboa, que paresçe que lo uno y lo otro es un mesmo dechado e lo de Roma es trasunto, llebado y sacado del original registro de Vizcaya, donde tubieron prinçipio estos bandos, como queda aberiguado en los capítulos primero y 2 deste 2 libro.

Y con esto dicho, buelbo al primero verso del cantar hereçia que arriba hablamos, que comiença deziendo lelo yl lelo, etc., en que para su declaración se debe saber cómo en esta Cantabria Superior, que, como dexamos apuntado dibersas vezes, es la natural Vizcaya y aderentes, en general entre todos della tienen por costunbre muy antiquísima de que en el comienço y prinçipio de todos cuantos cantares biejos cantan, a quienes bulgarmente llamaban hereçiac, en las primeras palabras dellos, para darle la [... ..] entendimiento de los bersos [... ..] benideros que ban en[... ..]ados, enpieçan [... ..] lelo, lelo, il lelo, lelo [... ..], y agora corronpiendo y [...] leloa Sara, yleloa, que lo uno y lo otro en su correspondençia significa y quiere dezir una mesma cosa, como abaxo daremos a entender. Y después de dicho este verso entero por esta horden o por otra de su semejado prosiguen adelante su cantar e istoria hasta acabar la hereçia.

Y el que oyere dezir estas palabras referidas, si no estubiere en cuenta de lo que abaxo declararé, ni las podrá entender ni menos sabrá la etimología dellas ni tanpoco lo que quieren realmente dezir, pues no tienen consigo en lo aparente ningun género de razón más del sonido e conpostura dellas para, según lo que estan, dar consonançia al prinçipio del cantar y razones de la istoria que en él y su conpostura relatan. Y ansí, ninguno de los scriptores de hasta aquí que hallamos aber scripto sobre la antiguedad, nobleza y balor y hechos memorables y otras cosas tocantes a esta probinçia cantábrica y su naçion vizcaína no se an acordado de apuntar sobre estas palabras su declaración ni otra cosa alguna que lo paresca, y, si se an acordado, lo an pasado en silençio por paresçerles de poca inportancia el hazer caso della, teniendo por aberigoado ser más [... ..] de su ocupaçion que no el [... ..] sacaría de la nota[... ..] salbo mi buen p[adre, el doctor Garçía Cachopín] que, como tan bien [... ..]tabro y [... ..]çion vi[... ..] en çédulas antiquísimas y razonamientos de personas ansianas y en cantares hereçias que lo declaraban, lo cual todo bien aberigoado y apurado lo escribió en sus borradores (...)

Euskara hizkuntza perfektua eta “konpendiosoa” den aitzakiarekin, egileek eduki zabal eta sakona eman zieten kantuak dituen hitz apurrei. Eta horrek, hain

zuzen, sortzen du egileen azalpenekiko harridura eta mesfidantza. Mitxelenaren hitzek ederki azaltzen dute esan nahi dudana:

Lo que motivaba mi embarazo era que no acertaba a ver, como tampoco acierto ahora, la relación entre el verso y la prosa exegética. En otras palabras, el texto poético solo guarda a mi entender una leve y ambigua relación, si es que la relación existe, con el desarrollo explicativo en que lo envolvió su divulgador (1986: 293)

Okertzeko beldurrik gabe, beraz, pentsa daiteke Kantabriarren Kantua nonbaitetik jaso egin zuela Cachopín semeak, baina kantuaren inguruan emandako azalpen eta “itzulpenak” bere-bereak direla. Ez dirudi Cachopín semea kantua sortzeko gai zenik, baina ez zuen oso urruti izango kantu apokriforen sortzailea; nik bere aitaren alde egingo nuke apustu. Gaur guri gertatzen zaigun bezala, Cachopín gazteari ere ulergaitz gertatu bide zitzaizkion kantuaren hitzak eta irudimena erabili behar izan zuen hitzoi zentzua emateko. Emaitza prosa exegetiko exajeratua da, poemaren edukia puztu eta handitu egiten duena.

Kantuaren egilearen nortasunari buruz Guerrak (1924) aski hedatua den teoria aurreratu zigun, non Arratiako Anton Bedia genealogista jotzen zuen Kantabriaren Kantuaren egiletzat. Egia da Anton Bedia, Cachopín eta Iburguenen iturri aipatuenetako bat dela, baina azpimarratu behar da Leloren Kantuari buruzko azalpenak ematen diren koadernoan (65.a) zein Kantabriarren Kantua datorrenean (71.a) ez dela Bediaren aipu bakar bat ere aurkitzen ahal. Aipatu koadernoetan eta Kantabriarren Kantuaren zein Leloren Kantuaren testuinguruan aipatzen diren egileak sei dira: Gartzia Cachopín doktorea (II: 46, 48, 50, 51, 52, 54, 55, 57, 92), Agustin Belasco Zamudio dominikoa (II: 45, 53, 94), Hernando Zarate komendadorea (II: 21, 46), Maguncio Pinelo (II: 14, 21, 39), Gaspar Peña Galdotxa lizentziatua (II: 21, 70, 89, 104) eta Juan Aguayo Gebara (II: 88, 104). Seion lanak ezezagunak zaizkigu gaur egun.

Kronikaren irakurketatik ondoriozta daitekeenez, Cachopín gazteak fede handia zion bere aitari eta bera da *Kronikan* aipatzen diren hainbat istorio eta pasadizoren iturri bakarra. Peña Galdotxa ere oso egile fidagarritzat du eta erromatarren eta euskaldunen arteko harremanen inguruko berri asko haren lanetik jasoak dira. Kontuan izan behar da, halaber, antza denez Peña dela iturri hauetan zaharrenetakoa eta beste autoreak bere lanean oinarritzen direla.

Juan Carlos Guerrak kantuak ageri duen hizkera ere erabili zuen Bedia egiletzat hartzeko argudio modura. Bere ustez Kantabriarren Kantuak Arratiako hizkera darabil, eta Anton de Bedia dimarra zenez, argumentazioa erraz borobildu zuen. Baina poemak ez du Arratiako hizkeraren arrasto garbirik uzten, are gehiago, gorputza bizkaierazkoa izanda ere, bada bizkaieratik aldentzen duen aditz forma bat: *dugu*. Peña Galdotxa ere bizkaitarra zen, Eakoa, baina urte luzeak igaro zituen Carlos V.aren kortean, Sevillan. Ez omen zuen euskara oso ongi menperatzen, eta horrek azal lezake, bere egiletza onartzekotan, poeman ageri diren zenbait “akatsen” jatorria.

Cachopín semeak ez zigun autorearen berririk eman, aitzitik, argi adierazi zuen “pergamino” batean aurkitu zuela kantua eta, beraz, egile ezezagun batena zela. Metodo bera erabiliko du Andramendiko eskrituren (II: 58) jatorria azaltzerakoan, bere aita Cachopinek pergamino zahar batetik jaso omen baitzituen prosazko testuok. Metodo ezaguna da faltsugileen artean; Giovanni Nani edo Annio de Viterbo berak ere Berossoren eskuizkribu batzuk aurkitu zituela esanda argitaratu zituen Iberiako errege mitikoen historia osatzeko oinarri bihurtu ziren testuak. Beraz, cachopíndarrak joko genituzke faltsifikazioaren erantzuletzat. Semeak berak bakarrik nekez burutu zezakeen horrelako lanik, euskararen ezaguera urria behin baino gehiagotan aitortua baitu. Gainera, kantu honen eta Andramendiko Eskrituren hizkeren artean antz handia ikusten dugu, eta horrek berretsi egingo luke gure ustea, alegia, testu biok buru argitsu edo erudito batek sortuak direla, euskalduna izan gabe euskara mendera zezakeen esku trebe batek. Cachopín aitaren konposizioa semeak itzuli eta azalduko zuen, euskarari buruz zuen ezjakintasuna argiro erakutsiz. Baina berari testuari fidel izatea baino ardua handiagoa zion bizkaitarren epopeia edertzea.

Benetako arazoak, ordea, kantua konposatzean aurkitu zituzten. Ustezko Leloren Kantuaren neurri eta errimari fidelki jarraitzea erabaki zutenean, euren burua erabat mugaturik aurkitu zuten esaldiak modu ulergarrian borobiltzeko eta egin zituzten akatsak begi bistakoak dira. Nolanahi ere, ez ditzagun gutxietsi, ezin baitugu ziurtatu laguntza “autorizatua” jaso ez zutenik. Mitxelenak iradoki zigun zuhurtasun printzipio hori:

De cualquier modo, valdría la pena de que un día de estos nos decidiéramos a examinar forma por forma todos los componentes del canto para tratar de separar en él lo que hay de

transparente, de dudoso o de irremediabilmente deturpado. Porque, conforme se insinúa más adelante, no todo lo que parece falso es por necesidad no auténtico. La gente del XVI sabía sobre el euskara de su tiempo y anterior a su tiempo muchas cosas que nosotros ignoramos, aunque como contrapartida creemos conocer bastante y aun mucho que ellos desconocían (1986: 301).

Poemaren metrika aztertzean “belarriari” erreparatu beharko genioke, eta ez “begiari”. Ohar zuhur hau Mitxelenari (1986: 297) zor diogu eta buruhausteren bat edo beste ekidin digu. Metrikaren arazoan sakontzeko, Manuel Lekuonaren iruzkinak (1918) ere kontuan izatekoak dira. Lehen-lehenik, azentua eta bertsoa bereizi behar ditugu, euskal azentuak ez baitu bertsoa baldintzatzen, erdal bersifikazio zenbaitetan gertatu ohi den bezala. Bestela esanda, euskal bertsoak ez dio belarriari minik egiten tesis¹⁹⁹ musikala silaba toniko zein atonoan jarrita ere.

Kontuan izan beharreko bigarren ezaugarria bertsoaren erritmoari dagokio, bereziki erritmo hori ezartzeko erabiltzen den unitateari. Lekuonaren aburuz, euskal kantuek, hizkuntza klasikoen erara, oinka osatzen dute bertsoa, ez silabaka, hizkuntza modernoek bezala. Mitxelenak (1977) “hitz-andanak” gogokoago du erritmoaren unitateaz mintzatzean, “hizkeraren etendurak musikaren geldiuonei egokitzen zaizkielarik”. Horregatik, euskaraz maiz musika eta periodo musikal berberak erabilia kanta daitezke berez silaba-neurri ezberdinak dituzten bertsoak. Euskal kantu zaharrak ez ziren “deklamatzeko” eginak, kantatzeko baizik, eta neurritzat oinaren unitatea zuten, ez silabarena. Horrela bada, ez da harritzekoa izango silabak zenbatzean asimetriak aurkitzea bertsoetik bertsoara.

Lehen begiratuan lau lerrotan banatutako hamasei estrofa edo ahapaldik osatuko lukete Kantabriarren Kantua. Oro har 5-5-5-3 egitura metrikoa daramate ahapaldiok, Leloren Kantuaren neurriari jarraiki eta silabak zenbatzean arestian azaldutako gora-beherak tarteko. Ausardia piska batekin, ordea, poemari musika jarrita, lerrokako antolamenduarekin jolas eginda, ... zortziko nagusia dugu begi aurrean:

¹⁹⁹ Bertsoaren oinak bi zati ditu Lekuonaren esanetan: gune gogorra edo tesis eta gune apala edo arsis.

- | | |
|--|---|
| <p>1 <i>Lelo yl lelo lelo yl lelo</i>
 <i>leloa çarac yl leloa</i>
 <i>Romaco aronac aleguyn eta</i>
 <i>Vizcayac daroa cansoa</i>
 <i>Otabiano munduko jaun</i>
 <i>leco bydi Vizcaicoa</i>
 <i>Ychasotati eta leorres</i>
 <i>ymyny deusco molsoa</i></p> | <p>2 <i>Leor çelayac bereac dira</i>
 <i>mendi tantayac leusoac</i>
 <i>Lecu yronyam gagoçanean</i>
 <i>noc bera sendo dau gogoa</i>
 <i>Bildurric guychi arma bardinas</i>
 <i>oramayasu guexoa</i>
 <i>Sojac gogorrac badyri tuys</i>
 <i>narru biloxa surboa</i></p> |
| <p>3 <i>Bost urteco egun-gabea</i>
 <i>gueldi bagaric pochoa</i>
 <i>Gureco bata il badaguyan</i>
 <i>bost amarren galdoa</i>
 <i>Aec anys ta guc guichytaya</i>
 <i>asquynyn dugu lalboa</i>
 <i>Gueure lurrean ta aen errian</i>
 <i>biroch aynbaten çamoa</i></p> | <p>4 <i>Esin gueyago [... ..]teta</i>
 <i>[... ..] [...oa]</i>
 <i>Tiber lecu gueldico çabal</i>
 <i>Uchim tamayo grandoya</i>
 <i>[... ..] [... ..]</i>
 <i>[... ..] [...oa]</i>
 <i>Andi aristac gueysto sindoas</i>
 <i>betico nayas narr doa</i></p> |

Errimari erreparatuta, Mitxelenak eta bestek *-ua* eta *-oa* tartekatzen zirela uste izan bazuten ere, gu ziur gaude egileak beti eutsi ziola *-oa* errimari, batzuetan ulergarritasunaren kaltetan eta hizkuntza forma zuzenak desitxuratuta, baina horrek ez zion egileari axola, are gehiago, zenbat eta desitxuratuago hainbat hobe, zahar itxura handiagoa hartuko baitzuen.

Guerrak (1922) eta Mitxelenak (1986) proposatutako ebakera metriko honek Ibarguenek kopiatutakoak baino egokiago dirudi, batez ere euskal kantutegian aurki daitezkeen beste kantu batzuekin alderatuz gero, eta gure begiek errazago egingo dute lan antolamendu honekin. Baina poemak dituen ulergarritasun arazok soluzio zaila jarraitzen dute izaten. Ziur asko arazo horiek poemaren sorrerarekin batera jaio ziren eta ez dira denak kopiatzailearen erru. Bertsoen egilea, lelotzat Leloren Kantua deiturikoa aukeratzean, neurriaren morroi ez ezik errimarena ere bilakatu zen, eta horrek “akats gramatikalak” egitera eramanez bide zuen.

Oro har, poeman aurki daitezkeen euskal hitz eta esamoldeak aski jatorrak dira, baina ahapaldietako azken hitzek, errima daramatenek hain zuzen, ulergarritasun arazo nabarmenak dituzte, eta esan liteke beraiek sortzen dituztela arazo gehienak.

Jakinmin handia piztu izan du beti kantu honek eta ikerle ugarik xahutu du bere denbora kantua aztertzen eta hitz edo pasarte ilunenei argitasuna ematen. Nabarmentzekoak dira zentzu honetan Velascok (1880), Guerrak (1922), Urquijok (1917-19-21-31) eta Caro Barojak (1944) egindako ohar eta proposamenak. Horiek guztiak eta gure intuizioa bildurik, egin diezaigun beste behin goitik beherako azterketa Kantabriarren Kantuari, beti ere Cachopínek emandako azalpenak ere aintzakotzat harturik.

Hala ere, gogoratu beharra dago, aipatutako autore hauek agi denez Mogelek egindako kopia erabili zutela, Humboldt-ek erabili zuen bezala, euren edizio eta oharrak egiteko orduan, eta Iburguenek idatzitako jatorrizkotik alde nabarmenak direla. Mogelek akatsez betetakoa iritzi zion Mugartegiko jauregian aurkitu zuen bertsioari, Cachopínek jaso eta Iburguenek idatzitakoari, eta kopiatu ahala zenbait zuzenketa egin zizkion.

Kontuak horrela, kantuaren azterketa sakona egitean, alde batetik ahalik eta fidelen eutsi beharko genioke jatorrizko bertsioari eta, bestetik, ez genuke bistatik galdu behar Cachopín semeak “itzulpen” modura egindako interpretazioa:

Lelo yl lelo

lelo yl lelo

leloa çarac

yl leloa.

Lehen estrofa honetan Leloren Kantua ematen zaigu, Cachopínen erara egokitutako lelo edo *cantinel*a (ikus 2.1.)

1. *Romaco aronac*

aleguyn eta

Vizcayac daroa

cansoa.

Cachopínen interpretazioa: “los soldados armados de Roma hizieron todo lo posible con sus fuerças y balor, pero que no les aprobechó nada, porque Vizcaya y sus vizcaínos sienpre se defendieron y llebaron el campo victorioso dellos”.

aronac hitzaren inguruan hainbat interpretazio eman da: Hasteko, irakurtzeko orduan, zenbaitek *armac* irakurri du. Mitxelenak dio (1986: 306) interpretatzaile gehienek *armac* aldendu dutela mailegu argiegia zelako, kantuaren antzinakotasuna kolokan jartzen zuena. Dena dela, eskuizkribua behin eta berriro irakurri eta, ikerle gehienek bezala, *aronac* irakurtzen dugu guk ere. Interpretazioa emateko orduan, “hara” eta “hona” formak biltzen dituen esamoldea litzatekeela da zabalduena. Batzuentzat “etorriak” esan nahiko luke, beste batzuentzat “hara eta hona dabiltzan gudaosteak”. Cachopínek *Erromaco aronac* “los soldados armados de Roma” itzultzen du, eta esan behar da, gainera, *Kronikako* 72. koadernoan hitz berau aurkituko dugula berriro (“... abiendo formado ununtuoso exército aronas de Aragón ... mobió guerra al Rey de Nabarra”)²⁰⁰; oraingoan adjetibo dugu eta badirudi “armada ibiltari” adierazteko modu bat dela. *Aron* hitzaren lehen agerraldia litzateke hau, eta XX. mendera arte ez da berriro ageri, baina adjektibo edo adberbio gisa, ez izen moduan, nahiz esanahia berdintsua izan.

cansoa hitza ere hainbat buruhauste emana da. Velascok emandako azalpena aintzakotzat harturik, baliteke hitz honek kopistaren okerra jasan izana, *çansoa* idatzi beharrean *cansoa* idatzita. *Kronikan* hiru aldiz aurkitu dugu hitz hori, *sansoac* idatzita bitan (I: 159, II: 52) eta *çançuac* (II: 53) behin²⁰¹, eta Cachopínen araberako esanahia “vozes gritos, gritos muy grandes para se llamar, abizar” da. Oihu hori, beraz, euskaldunek erromatarren aurrean lortutako garaipenaren irudi poetikoa litzateke.

2. *Otabiano*

[m]unduko jaun

leco bydi

Vizcaicoa.

²⁰⁰ II: 106.

²⁰¹ Ez dirudi *ç/s* bereizketak Cachopínen lan honetan bereizketa fonologikorik dakarrenik berarekin, kasu askotan bederen, hitz bera grafema ezberdinez emana baitator maiz *Kronikan*; adibidez: *ereçiac/eresiac*.

C.I.: “el enperador Otabiano César Augusto de Roma, señor de todo el mundo hera, eçeto de Vizcaya”.

Bertso honetan oinarriturik sortu zen *Lekobide* izeneko pertsonaiaren mitoa, zenbaitek hitz hauek interpretatzean bi pertsonaiaren kontrajarpaena ikusi baitzuen: Erromako enperadorea alde batetik (Oktabiano) eta euskaldunen buruzagia bestetik (Lekobide). Mito honek indar handia hartu zuen eta Lekobide protagonista bihurtu zen historiazale askoren artean, eta batez ere idazle mitozaleen artean, aipatu pertsonaia Arrigorriagako guduko heroi ere bilakatuz²⁰².

Cachopínen itzulpenera joz gero arazoa argibidean jartzen dela uste dugu: *leco bydi* “eçeto de Vizcaya” itzuli zuen berak. Mitxelenak (1986: 309-311) erakutsi zuenez, *leco*, “salbu”ren sinonimo gisa, harrigarri gerta liteke bizkaierazko testu batean, baina ez ezinezko. *Lek(h)at* eta *lek(h)ot* Etxepare, Leizarraga eta besteren testuetan dokumentaturik aurki daitezkeen formak dira, ustezko *LEKO-TUtik letozkeenak, biak ere salbuespen ideia adierazteko; mendebaldeko aldakia *leko* izanen litzateke, ekialdeko euskalkietako ohiko marka den *-t* gabe.

Bidi aginterazko ohiko forma zen mendebaldean, eta ez *bedi*, Barrutiak bere *Gabonetako Ikuskizunean* erakutsi bezala:

Cumplidu bidi secula veti

*Ordenadua Zeru altuti*²⁰³.

3. *Ychasotati*

eta leorres

yminy deusco

molsoa.

C.I.: “este grande monarca vino a Vizcaya y la çercó por la mar y por la tierra”.

Deusco dator jatorrizkoan, baina *deuscu* zuzendu zuen Mogelek. *Deutso* idatzirik zuzendu izan balu, hobeto asmatuko zukeen agian, Bizkaia baita protagonista orain artean, geroago, 10. bersoan “gu” ere agertuko den arren.

Dodgson-en iritziz *molsoa* latineko *multo*-tik letorke eta “talde handia” edo “lagun askoko taldea” esan nahi du. Berez, *molso* edo *moltsa* maiz azaltzen da mendebaldean *multzo* hitzaren sinonimo moduan, eta Larramendik emandako

²⁰² Lecue (1931).

²⁰³ Lakarra (1982: 84)

adieren artean “pelotón de soldados” ageri da (OEH XII: 527). “Blokeo” adiera duela esango nuke nik.

4. *Leor çelayac*
bereac dira
mendi tantayac
leusoac.

C.I.: “este enperador y su gente de guerra en los lugares llanos y razos hazían cuanto querían con las armas, eçeto en las s[ierras] altas y montañas ásperas y llugares donde abía árboles, porque en [... ..] heran desbarata[dos][... ..]dos como [... ..]ainos”.

Goikoan itsasoa eta lehorra baziren, berso honetan paralelismo berria dugu, izena (lehor, mendi) + izenlaguna (zelai, tantai) eskemaren bitartez emana: lur lauak alde batetik eta mendi altuak bestetik. *Leor* “lur”-en sinonimo da “itsaso”rekin kontrastean datorrenean, baina egileak, goiko bersotik abiatuta, esanahia hedatu egin dio berso honetan.

Leusoac “lauso” hitzaren aldaera da, eta ezintasunaren metafora dela esango genuke: lautadak argi eta garbi enperadorearen esku zeuden bitartean, mendiak eskura ezinezko iluntasunean, laino artean, *leuso* “lainotsu, ilun” esan nahi duen adjetiboa baita.

5. *Lecu yronyam*
gagoçanean
noc bera sendo
dau gogoa.

C.I. [... ..]tabros [... ..] to dezir como “confusión y lugar espeso de árboles”, tomaban entonces grande contento y alegría por serles propiçia y favorables a ellos, donde bençian sienpre a los enemigos”.

Humboldt-ek (1922: 460) *lecu yronyan* “leku apropos edo egokian” itzuli zuen, eta gaur egun hari arrazoia emateko moduan garela uste dut²⁰⁴. J.C. Guerra (1922: 166) ere zuzen zebilen esatean *dau* aditza alferrik gehitutako hitza dela, metrika hautsi egiten duelako alde batetik, eta bestetik, aditzari dagokionean, aurreko bersoetatik dakarren elipsia egiteko joerari ez diolako jarraitzen.

²⁰⁴ Ikus OEH IX, 556.

Ikusten denez, jatorrizko bertzioak *noc bera* dio, eta ez *norberac*, Mogelek zuzendu nahi izan zuen bezala, nahiz eta zuzenketa egokia izan bersoaren ulergarritasunerako.

6. *Bildurric guychi*

arma bardinas

Oramayasu

guexoa.

C.I.: “en tales puestos no temían a los romanos, y aún en lo llano muy menos tantos por tantos y con armas iguales”.

Velascok eta Guerrak “el abastecimiento de la artesa” itzultzen dute *oramayasu*. Oso bihurria iruditzen zaigu azalpen hori, lehen begiratuan behintzat. Estrofen erritmoari erreparatuz, irakurlea konturatuko da 3. lerroan eman ohi dela askotan (5 estrofatan) aditz nagusia. 2. lerroan ere maiz dator (3 estrofatan). Aditz nagusia eliditua dago 4 estrofatan. Hasierako leloa eta galduta dauden 2 estrofa kenduta, aditza azken lerroan duen estrofa bakarra geratzen zaigu, seigarrena, eta bertan aditzak hipermetriko bihurtzen du estrofa; eliditurik egon behar luke beraz. Honekin esan nahi dugu *oramayasu* aditz formaren bat dela ziurrenik, *eman* erroaren gainean eraikia. *Gexoa* “min” edo “zauri”ren sinonimotzat onartuko bagenu, estrofaren zentzua aski ulergarria litzateke.

7. *Sojac gogorrac*

badyri tuys

narru biloxa

surboa.

C. I. : “los romanos, aunque traían arneses y armaduras fuertes, heran más rezios que de azero los cueros desnudos de la carne de los vizcaínos, con los cuales hazían más resistencia y podían más que los enemigos con sus armas”.

Soi tradizioko hitza da eta “ezkutu” edo “babegarri” esanahitik hurbil egon liteke. *Badyrituis*, ordea, oso azalpen zaileko forma dugu, itxura guztien arabera baldintzazko aditz forma izan badaiteke ere. *Surboa* aztertzean Mitxelenak inperatibozko forma ikusi zuen *boa*-n eta Guerrak kontatutakoaren arabera (1922:

215) *sur badoa*-ren kontrakzioa izango litzateke, “listo samarra” arratiar baten esanetan.

8. *Bost urteco*
egun-gabean
gueldi bagaric
pochoa.

C. I.: “los romanos en 5 años continos de noche y de día sin jamás çesar duró el çerco y dieron cruda guerra a los vizcaínos”.

Azkuek “cerco” itzuli bazuen ere, *Pochoa* hitzak erromantzezko “foso”-n du jatorri eta hitz honekin erromatarrek euskaldunak inguratzeko eraiki zituzten lubaki edo putzuak izendatzen dira. “Foso”-aren ideia Garibay-k berak ere jaso zuen, garaiko beste egile batzuen artean, esanez Erromako enperadoreak lubakiz inguratu zituela kantabriarrak²⁰⁵. Umetako joko batean ere, kaniketan alegia, lurrean “potxoak” deitzen genien zuloak egiten genituen.

9. *Gureco bata*
il badaguyan
bost amarren
galdoa.

C. I.: “para cuando los romanos mataban un viscaíno, los vizcaínos mataban más de 50 romanos”.

Gureco-k partitiboa erabiltzeko modu interesgarria erakusten digu; eta *bost amar* “berrogeita hamar” esateko modu bitxia da, testuari ikutu arkaikoa eman nahiz sortua. “Galdua”-ren aldaera da *galdoa*, “galera” adieraziz.

10. *Aec anys ta*
guc guichytaya
asquynyn dugu
lalboa.

C. I.: “aunque los enemigos heran muy muchísimos y los vizcaínos muy poquitos, sienpre les daban las manos llenas y grandes golpes de guerra y continos malos tratos, llebando sienpre la mejor parte de la bictoria, dándoles cruelsísimas muertes”.

²⁰⁵ Garibay, 1571, VI. Liburuko 28. kapitulua.

Lalboa azaltzean “alboa” ikusi izan dute batzuek eta “alboka” beste batzuek²⁰⁶, baina oso irtenbide sinesgaitzak begitantzen zaizkit; *lalboa egin* “bakeak egin” edo “kapitulazioak sinatu” litzateke berez.

11. *Gueure lurrean*
ta aen errian
biroch aynbaten
çamoa

C.I. : “en lo último de este cerco largo entre romanos y vizcaínos pasaron dos batallas finales de tantos a tantos, la una en Vizcaya y la otra en Roma, las cuales ganaron los vizcaínos”.

Ematen du egileak *biroch* forma sortu duela “hirurok” eta “laurok”-en analogiaz, ustez forma zaharrenaren bila joanda. Ez dugu *çamoa* argitzeko azalpen egokirik; izan liteke Cachopínek gaizki transkribatu izana eta poemak jatorriz *çançoa* esatea, bigarren estrofako bukaera errepikatuta. Gure poeta zaharrek ez zioten potoari gaur zaion bezainbesteko beldurrik. Baina sinesgarriago ikusten dugu gaurko “zama”-rekin harremana izatea, adieraziz erromatarren eta euskaldunen arteko topaketa haietan talde biek baldintza berberetan egin zutela borroka edo lan, karga bera zamatu zutela, alegia.

12. *Esin gueyago*
 [... ..]teta
 [...]
 [...]

Estrofa hau irakurtezin dugu paperaren hausturengatik, baina, egilearen itzulpenean uler daitekeenez, erromatarrek amore eman zuten azkenean eta pakeak egin euskaldunekin, “konfederatu” moduan geldituta.

13. *Tiber lecuá*
gueldico çabal
Uchim tamayo
Grandoya

²⁰⁶ OEH XI: 229.

C. I. : “da a entender cómo estos vizcaínos con su capitán Urzino fueron de Vizcaya a Roma a acabar la batalla final de tantos a tantos y la bençieron a los romanos en la ínsula y ribera del grande rio Tiber, donde quedaron y poblaron este Urzino y su compañía, de quienes después se pobló muncha parte de la demás tierra de Roma”.

Ikerle gehienek onartua da Uchim-ek Bizkaiko jeneral baten izena adierazi nahi duela. Gaztelaniazko azalpenetan Cachopínek behin eta berriro errepikatu zigun bizkaitarren buru Urtino izeneko kapitaina izan zela. Badirudi, beraz, *Uchim* gaztelaniazko *Urtinoren* aldakia dela euskaraz. *Tamaio* “handi” edo “goren” dela esango nuke: “Tiberren Utxin handia nagusi”

Grandoya “garandu”-tik letorke eta “gailur, nagusi” adierazten du.

14. [... ..]
 [... .. .]
 [... .. .]
 [...]

Itzulpenean esaten denez, estrofa honetan kontatzen zen Erromako zaldun transtiberinoek euskal jatorria dutela.

15. *Andi aristac*
gueysto sindoas
betico nayas
narr doa

C. I.: “dize que estos grandes barones vizcaínos que poblaron en Roma por su balor y creçida nobleza ilustraron la tierra, los cuales por su grande mereçimiento obieron y les dieron todo quanto pidieron, casándolos con matronas romanas y dándoles muchos bienes de fortuna y poniéndolos en el uso y exercicio de los mejores y mayores cargos y ofiçios del gobierno de la república romana y sus guerras y otros menesteres de muncha inportançia, y fueron por todos sienpre estimados y acatados a toda su boluntad; y que destos vizcaínos proçeden los caballeros romanos de más balía y los primeros [... ..] Roma llamados aun[....] trastiberinos y [... ..] yestos vizcaínos [... ..] Urtino o Urzino [... ..] [.....] [.....] en Roma, en la república que llamaron Colonia, de donde se lebanaron estos dos apellidos contrarios que dexamos apuntados de Ursinos y Colonenses, que siendo una mesma cosa deçendiente de un estirpe y familia y sangre, se binieron a hazer esterminios con la caducades del tiempo enemigos mortales, cuyas pasiones antiguas duran hasta oy día, como lo mesmo pasa en Vizcaya en los dos bandos que en ella ay de Ones y de Ganboa ...”.

Zaila da benetan egilearen parafrasia kontuan izanda estrofa honen esanahi zehatza antzematea. Ez gara elukubrazioetan galduko, bestek eginak dituzte aski.

Andi aristac, Guerraren aburuz (1922:212), *andiar istac* ebaki behar omen da: euren burua handitzat duten harro barregarriak. Ez ote da hor ezkutazen *aristi*, *aresti*, hau da, iragana; “handi izandakoak”, alegia?

Gueysto sindoas: “gaizto sendoa(gaz)”; Aramaioko andere batek “dena beretzat nahi duena” eman zion itzulpen Guerrari. Txandon Zayak (1925), ordea, Infernuaren izen arkaikoa ikusi zuen (*geistosin* edo *gaizto-osin*).

Nardoa edo *narraz doa* Mogelen arabera zuhaitzetan gora arrastaka doazen txoriak dira eta *nardea* “derrumbadero” da. Baina baliteke besterik gabe “nardo” adierazi nahi izatea, oso landare erabilia ukenduak egiteko eta preziatua bere usain ederragatik, besteak beste: *Andre aratza*, *Zeruko alaba*, *Insensuaren pareta*, *Nardoaren hurbilla* (EZ Man II 198). *Nardoa* saria da, jatortasunari eutsiz lor litekeena.

Kantuaren gaineko iruzkin orokorretara itzulita, Bladé-ren (1866) hitzak erabilia esan daiteke kantu hau pertsona argi eta zolien ametsa zela, agian neurri gabeko gehiegikeria. Kantuaren manipulazioa helburu jakin batekin egin zen (euskaldunak zein menderakaitzak, zein ohoretsuak eta zein “garbiak” diren frogatzea) eta helburu horrek berak aise justifikatzen du egileak faltsifikatu nahi duen instrumentua behar edo nahi duen neurriraino bortxatzea. Historiaren faltsifikaziorako erabili ohi ziren tresnak askotarikoak ziren: lurpean mendeetan egondako berunak, historiagile zahar batek idatzitako kronika galdua, edo, Cachopínen kasuan bezala, artxibo batean galdurik zegoen pergamino zahar eta higatua.

Cachopínek edo dena delakoak, testuaren sortzaileak alegia, bere faltsifikaziorako kantu bat aukeratu zuen, ziur baitzen sinesgarri zela, euskaldunen balentrien berri ahoz aho transmititzen baitzen. Horren lekuko, besteak beste, bandoen gatazkari buruzko kantak, ehun urte baino gehiago igarota bizirik zirautenak herriaren oroimenean. Hala ere, jakitun zen pergaminoak ezezik hizkuntzak berak ere zahar itxura izan beharko zuela, sinesgarri gertatuko bazen. Zahar kutsu hori ematean bi oinarri metodologiko izan zituen, itxuraz kontrajarriak: sinpletasuna eta iluntasuna.

Cachopínek esan zigunez kantua “en vascuence antiguo” zegoen idatzia, “y no corruto, como agora lo usan”²⁰⁷. Honek esan nahi du, bere iritzian euskara zaharra garbiagoa zela, gardenagoa. Baina, beste aldetik, ustezko antzinako forma jator haiek galduak izanen zirenez, berreskuratu beharra zegoen zahar itxura gorde zezan kantuak. Eta atzerako martxa horretan, jakina, bere intuizioa baino ez zezakeen erabili.

Emaitza aski erakargarria da: Kantu bizia eta irudietan aberatsa da bere sinpletasun sintaktikoari esker, baina landuegia hiztegi aldetik, artificio handikoa, iluntasunaren bitartez arkaiko itxura hartu nahi duena. Zentzu horretan, Kantabriarren Kantua ez da *vero* izango, ez behintzat Cachopínek sinistarazi nahi digun neurrian, baina *ben trovato* bada, zalantzarik gabe.

Esan dugunagatik guztiagatik, ez dugu uste kantu honetako hizkuntza euskalaritzak aintzakotzat hartzeko modukoa denik, ez behintzat lexikografiaren ikuspuntutik zenbait hitzi dagokionean (*samoa, albo, nardoa* barbarismoak lirateke), eta are gutxiago ikuspuntu morfo-sintaktikotik. Euskara mota dela eta, bazter ezineko iruzkina agi denez, XVI. mendeko bizkaieraz dakiguna kontuan izanik, esan liteke bizkaiera dagoela egileak erabilitako hizkeraren oinarrian. Egileak aski ongi ezagutuko zuen Bizkaiko hizkera eta, batez ere, eskuizkribuetan aurkitutako zenbait kantu, esaldi, eta antzeko lekukotasun linguistikoak. Hala ere, azpimarratu beharrekoa da bizkaierazkoak ez diren zenbait molde aurki daitekeela: *anis (anitz)*, azken mendeok arte mendebaldean agertu ez den hitza, eta *dugu*, batez ere ekialdean aurkitu izan dena²⁰⁸.

Besterik litzateke literaturaren ikuspegitik. Balio bikoitza luke: sortze lanarena batetik eta iruzur literarioaren ariketarena bestetik. Hamabost mendeko antzinatasuna eman nahi zitzaion kantu asmatua izateak ez gintuzke berez duen balio literariotik aldendu behar. Hobeto ulertuko genuke orduan zein erraz, otzan eta inozo hartu zuten kantu hau benetakotzat Mogel, Humboldt eta abarrek. Interesgarria da, berez, XV-XVI. mendeko begiradaz erromatarren eta

²⁰⁷ II: 89.

²⁰⁸ *Dugu* Donemiliako glosetan (X. mendea) ere agertu zen (*TAV*: 41-42). Donemiliako fraidea nafartzat jo izan da, arrazoiz, agi denez Geroago Landuchiok (1562) ere erabiliko du *dugu*. Lazarragak (1564) ordea, *dogu* darabil, baina *deut* ere bai. Horrek argi adierazten du mende hartako hizkeren mugak ez zirela Bonapartek eta ondorengo dialektologoek markatutakoak bezain zehatzak, eta, hemen azaltzera jar ez gintezkeen arrazoiengatik, hizkuntza forma asko hedadura zabalekoak zirela.

euskaldunen arteko harremanak nola irudikatu zituzten ikustea, eta irudikapen horri nolako forma poetikoa eman zioten aztertzea.

4.4. kapituluan argitu dugun bezala, testu apokrifo edo faltsutuena oso fenomeno hedatua da XVI. mendearen inguruan. Euskal testuen artean gogoan izatekoak dira, besteak beste, Beotibarko Guduaren Kantua, zein, Mitxelena eta besteren aburuz (*TAV*: 67), Garibayren garaian konposatu baitzen 1321 urtean gertatuko pasadizo baten lekukotza eman nahian. Bretañako Kantuari ere apokrifo usaina hartu zion Ibon Sarasolak (1990: 5.1.1.): kantu honek 1489 urtetik 1491ra bitartean burututako itsas espedizio batez dihardu, baina Sarasolaren ustetan, kantuaren metrika, hizkera, baliabide estilistikoak eta egitura aztertuz gero, ezagun du ez zela urte haietan idatzia izan.

Irizpide horiek beroiek kontuan izanda, ezingo dugu esan Kantabroen Kantua XVI. mendea baino askoz lehenegakoa denik, eta are gutxiago, Iburguen eta Cachopínek sinistarazi nahi ziguten bezala, Erromatarren garaian konposatutakoa denik. Kanta honi data ematerakoan 1590 urtea har daiteke erreferentzia moduan, *Kronikaren* azterketa honen hasieran, 22. orrialdean, emandako azalpenak gogoan. Ikusi dugun bezala, anitz dira kantua apokrifoa dela adierazten diguten zantzuak, baina ordua dugu Kantabriarren Kantuaz mintzatzeko garenean iruzur eta faltsifikazio hitzen gainetik, sorkuntza literarioaren kontzeptua erabiltzeko, eta Leloren Kantuaren kasuan lelo zahar baten manipulazioaz mintzatzeko.

3. ERESIAK ETA KANTUAK.

3.1. Kantuen funtzioa *Kronikan*.

Kronika famatu duten testuetako batzuk, zalantzarik gabe, eman dizkigun kantu eta eresi zaharrak izan dira, euskal literaturak oso estimatu dituenak eta hizkuntzalaritzari euskararen historia berreraikitzeke ahaleaginean arrunt erabilgarri zaizkionak. Guztiarekin ere, ez zen kronisten helburua euskal folklorerako materialak jasotzea, inondik inora, ikuspegi historizista eta dokumentalista hutsetik aritu baitziren testu horiek *Kronikara* jaso zituztenean. Kontakizuna aberasteko eta, batez ere, kontatutakoaren egiazkotasuna agerian uzteko erabili zituzten kantuok, herritarren memorian txertatutako testigantzak idatziz aurki zitezkeenak bezain fidagarri baitziren garaiko historiografiarako, eta esango genuke gaurkoan ere halatsu dela. Mitxelenak (1977) Lazaro Carreterren ideiak jasota esan zuen bezala, hizkuntzan badira *nonliteral* eta *literal language*, euskarara itzulita, hizkera “iraunkorra” batetik eta “suntsikorra” bestetik. Lehena hitzez hitz, letraz letra, irauteko asmoz esana eta idatzia da, kantu zahar hauek bezala. Bigarrena, bere egitekoa burutu bezain pronto desegin eta desagertzen da, doktore tesi honetako hitzak bezala.

Cachopínek berak esanda dakigu asko zirela herriak ahoz aho zerabiltzan kantak pasadizo gogoangarrien oroitza eginez, baina berak bospasei baino ez zituen jaso eta geroago ere, *Kronikari* zenbait material gehitu zitzaionean, Arrasateko erreketaren inguruko zenbait kantu baino ez zituen bestek jaso. Instrumentu hauei ematen zitzaien garrantzia, ez handiegia, aitor dezagun, aski nabarmen ageri zaigu garaiko historialariek erakutsitako lekukotasunei so eginda: Garibayk (1571) Beotibarko Kantua, Milia Lasturkoaren Eresiak, Olasoren Kantua, Bañez de Artazubiagaren Eriotzeko Eresia eta Salinasko Kontearen Kantua jaso zituen, Zaldibiak (1564?) Juan de Lazkanoren Kantua eta Mr. Chanfarron-ena jaso zituen, Lazarragak (1588) Urrexolako Guduaren Kantua, Mendietak (1592?) Pedro Abendañoren Eresia, Isastik (1625) Sandailia izeneko bertso sorta, Moret-ek (1665) Nafarroako Kondestablearen Kantua,

Zalantzarik gabe, bandoen arteko gatazka izan zen mendeetan hizpide gehien eman zuena bertako historialarien artean, eta kantutegiak ere sarri hartu

zituen ahotan gertakari latz haiek. *Kronikan* jasotako kantuekin batera datozen errelatoak berezi samarrak dira, batik bat denboran goiztiarrago den *Bienandanzas e Fortunas*-ekin alderatuta (García Salazar 1471), azken lan hau baita bando-kideen gora-behera guztietarako nahitaezko lehen erreferentea. Kontatzen diren gertaera eta pasadizoak denboran urrutiago izateak Iburguen-Cachopín kronikari García Salazarrena bezalako kronika zehatz eta fidel batek ez duen askatasun narratiborako bideak irekitzen dizkio. Elementu fantastiko-dramatikoak nabarmenagoak dira *Corónica General* honetan eta pertsonaien mistifikaziorako joera ere markatuagoa.

3.2. Eresia zer den.

Euskaldunek sutsu egin omen zieten aurre erromatarrei. Cachopínek diosku euskaldun jendea banatua bizi zela han-hemenka barreiatutako baserri eta etxeetan, eta bakardade honetan erraz zitzaizela erromatarrei euskaldunak inguratzea eta mendean hartzea. Baina gudurako gai zenak garesti saltzen zuen bizia, eta gudurako gai ez zirenak arboletara igota defendatzen zuten euren burua. Defentsari eusteko aukerarik ez zenean, ordea, arerioaren eskuetan erori baino lehen nahiago omen zuten helburu horrekin bildu ohi zituzten aran pozoitsuak irentsi eta hil. Ondoren, biziak hildakoei, negar batean eta oihuka, dolu abestiak kantatzen omen zizkieten euren bizitzetako balentria eta ontasunak gorai patuz, guraso eta ahaideenekin batera. Nork bere aurpegiari harramazka egin, ileak eta bizarrak laztandu eta arropak urratu egiten omen zituen zeremonia latz hauetan, hildakoen gorpuen gainera eta lurrera ahozpezez eroriz eta aurpegian edo ahoan musukatuz. Dolu erakustaldi hauei “herosta” deritze *Iburguen-Cachopín Kronikan*, eta ekintzari “herostar”. Honelakoetan kantatu ohi zituzten abestiak, bestalde, eresiak ziren (*hereçiac, eresiac, ereçiac*):

E para hazer en estos tienpos estas herostas, tenían de antes conpuestos cantares que llamaban *hereçiac*. Faltándoles qué dezir, conponían de repente los tales cantares y coplas a propósito de lo que querían deçir en las tales alabanzas. E ansí, con estos cantares, llebaban a enterrar los defuntos y les duraban estos llantos y lutos a cada linaje del tal muerto dos años, y a los que heran más prinçipales tres años y más. A este luto llamaban *duelua*, que mientras duraba ninguno que lo tenía no se ría ni holgaba ni jamás llegaba donde abía ningun plaçer ni regoçijos. E las mujeres guardaban con más cuidado y firmeza esto que los honbres, e cuando iban a las sepulturas de sus defuntos todo el tienpo que allí estaban no çesaban de herostar y

cantar estas dichas *hereçiac*, que quiere dezir "cantar", compuesto de palabras unas tras de otras, a propósito de su historia de lo que quieren dezir (II: 16).

Eresiak, beraz, *duelu* edo dolu-kantak direla esan liteke, ahaide nagusi edo pertsonaia garrantzitsu baten heriotzarekin lotura zuzena dutenak. Definizio horretatik hurbil da Joanes Leizarraga (1571) *Testamentu Berriaren* itzulpenean honako hau dioenean: *Chirula soinu egin drauçuegu eta etzarete dançatu, eressiz cantatu drauçuegu eta eztuçue nigarrrik egin* (Lc 7, 32). Hala ere, Cachopínek berak *eresi* deritze gai horrekin zerikusirik ez duten beste kanta batzuei ere: “Cantar de Lelo” edo “Cantar de los Cántabros” izenburuekin ospetsu egin zen kantua aurkeztean honako hau diosku:

A este cantar y a otros semejantes llamaban bulgarmente *hereciac*, que quiere tanto dezir como cantar de istoria verdadera y memorable (II: 89).

115. koadernoan (II: 366), bestalde, eresiak gaztelaniaz definitzean “cantares compuestos en copla” direla dio. Ikusten denez, *Ibarguen-Cachopín Kronikan eresi* hitzak gordetzen duen kontzeptuaren inguruan sakondu ahala, esanahia ireki eta ireki egiten zaigu, kanta, koplak edo baladaren esanahiarekin nahastuz eta Oihenartek (1657: 233) eman definiziora hurbilduz: “On apelle *eressiac* les vieilles chansons qui contiennent quelque histoire ou narration”.

Erromatarrek harritu egiten omen ziren ikaragarri hildakoen aurrean euskaldunak kantuan ikusi eta entzutean. Nola ez zen, bada, herri kantaria izango, Noek berak bersoz eman bazien Jainko bakarraren legea, kantatuz gogoan gorde eta sekula ahaz ez zezaten? Hortik etorri omen zitzaien Kantabria izena, “patria e región de cantares”, eta kantatzeko ohitura (II: 24).

3.3. Arrasateko erreketaren kantuak.

1448ko ekainaren 23an, San Juan gauez, Arrasate edo Mundraueko hiria hainbat egunez setiatu izan ondoren, azkenerako su eman zioten ganboarrek, barruan oñeztarrak zeudela. Gomez Gonzalez zuten buru oñeztarrek, eta ganboarren eraso ikusirik, Arrasateko ateak itxi eta hiri barruan bere gizonekin eustea erabaki zuen, ganboarrak eurak baino askoz gehiago baitziren kopuruz. Ez zuten inondik inora espero Pero Velez Gebarakoaren agindupean ziren ganboarrek hiribilduari su emango ziotenik. Baina ganboarrak, oñeztarrei kanpotik laguntza iristen ari zitzaizela ikusirik, gorrotoak eta amorruak itsutu zituen. Ezingo zuten

eraman euren betiereko arerioa, Gomez Gonzalez, berriro ere onik ateratzea, hainbat eta hainbat borrokatan, garaile zein galtzaile suertatu, egin baitzien ihes ganboarren lonbarda, gezi eta ezpatei. Suak berehala irentsi zituen kale estu haietako etxeak eta Gomez Gonzalez hila gertatu zen hiriko ate batetik ihes egiten saiatzean. Berarekin batera, besteak beste, bere seme Juanikote eta iloba Presebal ere gorpu geratu ziren bertan. Iburguen etxeko jaunak, orduko hartan ganboarren aldeko, jaso zuen oñeztarren buruzagiaren hilotza odolez eta kedarez lokaztutako lurretik, eta Butroeko alargunari eraman zion gurdiz, bandokide izandako garaien oroimenak eragindako begirunez.

Gertakari hauek zirrara handia eragingo zuten garaiko eta ondorengo gizartean eta historialariek luze jardungo zuten Arrasateko erreketari buruz, besteak beste, Lope Garcia Salazarrek, Mendietak, Garibayk eta bestek, guganaino iritsi ez diren lanak albo batera utzita. Iburguen-Cachopín ere zabal mintzatu ziren euren kronikan, hain zuzen ere, 43, 79, 117 eta 167 koadernoetan. Geuri 43 eta 79 koadernoetako testuak interesatzen zaizkigu, horietan ageri baitira “Arrasateko erreketaren kantuak” deritzen testuak.

79 koadernoan datozen kantuak Juan Carlos Guerrak aurkitu zituen 1881ean, Madrilgo Biblioteca Nacional-en, aipatu koadernoan liburutegi horretan kontserbatzen baita²⁰⁹. Hala ere, 1921era arte ez zituen argitara eman²¹⁰, Lezama Leguizamón-en informeari esker (1921) Madrilen gordetako folio haiek *Iburguen-Cachopín Kronikari* zegozkiola jakin zuenean. Kantuok argitaratzeko Guerra eskuizkribuaren jatorria zein zen jakin arte egon baldin bazen zain, ez zuen bere lagun Jose Manterolak berdin jokatu, 1883an argitaratu baitzituen urte hartako *Euskal-erria* aldizkarian²¹¹, akats ugariarekin baina.

Kantuen ondorengo argitalpena Koldo Mitxelenak eta Angel Rodriguez Herrero (1959) emango zuten, eta bertsio honetan oinarritu zen Mitxelena 1964an bere *Textos Arcaicos Vascos*-en sartu zituenean. Alde nabarmena dago Guerraren eta Mitxelenaren transkripzioen artean, eta geuk edizio honetarako prestatu dugunak ere baditu berrikuntza batzuk Mitxelenak emandakoarekin

²⁰⁹ Ikus gorago 24. orrialdea.

²¹⁰ Guerra, J.C, 1921, “Los cantares antiguos del euskera”, *Euskalerraren Alde*, XI (249-261), Donostia.

²¹¹ 406. orrialdea.

alderatuta. Dena dela, Mitxelenaren transkripzioari askoz ere fidarriago deritzogu Guerrarenarekin alderatuta, eta errenteriarak emandako interpretazio eta proposamen gehienak aintzat hartu ditugu.

Azpimarratu beharra dago aipatutako argitalpen horiek guztiek *Kronikako* 79. koadernoan datozen kantuak transkribatzen dituztela, eta ez diela inork erreparatu 43. koadernoan datozen kantuei, zeinetatik bat Butroeko Andrearen Eresiaren bertsio ezezaguna baita. 43. koadernoko kantuak Bizkaiko Foru Artxiboak gordetzen duen tomo batean aurkitu genituen, oso egoera kezkarria diren hainbat foliorekin nahasturik, eta argitara eman²¹². Kantuon testua prosaz idatzia dator, narrazio historikoaren lerroen barnean eta bersoen etenak marra edo puntuz markatzen direla.

43. kuaderno honetan, beste zenbait gairen artean, bandoen gatazkari dagozkion zenbait pasarte azaldu zizkigun Iburguenek bere eskuz idatzitako folioetan. Jatorrizko testua 1574. urte inguruan idatzia da, baina ez dakigu zeinek idatzia den, gure ustez Iburguen beste lan batetik ari baita jasotzen. 79. kuadernoan biltzen diren berriak eta kantak, ordea, askoz geroago idatziak dira, Iburguenek bere lana amaitu ondoren beste esku batzuek kronikari gehitutakoak (1610 urte inguruan). Baliteke esku horien artean bere suhi Fernando de Ocarena ere izatea.

Historiografiaren ikuspegitik badu bere berezitasuna 43. kuadernoko narrazioak: Arrasate erretzea Asteasun gertatutako hilketa batzuen mendeku gisa agerraraztea, alegia. Ez dugu kontsultatutako bibliografian Asteasuko segada honi buruzko berririk aurkitu, eta Arrasateko erreketaz mintzatu diren kronikari eta historiagile ugarien artean ez du inork Asteasuri buruzko erreferentziarik ematen.

3.3.1. Butroeko Andrearen Eresia eta ganboarren erantzuna.

a) 43. kuadernoko bertsioa (I: 555):

1 *Gal didila [Un]çueta ta Uergara*

2 *çaldibarepere parte dabela*

3 *gurajarra*

4 *jaunac sumyasalac*

²¹² Arriolabengoa 1996.

- 5 *suec gayti yl da ene çaldun caudala.*
 6 *[An]dra urena Butroecoa nançuçu*
 7 *soriac gach[...]* Asteasun su eldu
 8 *ganboar semeac ur[...]* leguean urcatu euren ynjuría dabe bengastu].

b) 79. kuadernoko bertsioa (II: 185):

- 1 *Il²¹³ didila Unçqueta ta Uergara,*
 2 *Çaldibarrec bere partea debala,*
 3 *Aramayo suac erre Açala*
 4 *[t]a sumia[aça]la [Juan] gurayarra,*
 5 *[ç]erre çeuren Jauna ezçencan enpara.*

Irakurleak ikus dezakeen bezala, 43. kuadernoko bertsioak 79.ekoak ez dakarren ahapaldi bat dakar, zeinetan arestian aipatutako Asteasuko hilketak hizpide hartuta ganboarren aldeko batek erantzun egiten baitio Butroeko andrearen erostari. Lehen ahapaldian Butroeko andreak bere bandokideek egin traizioa salatzen du, bere sumindura azalduz. Bigarreanean, aldiz, traizioa burutu zuten bandokideen aldeko erostaria Asteasuko segada aipatuz saiatzen da ganboarren mendekua zuritzen. Zalantzarik gabe kanta bereko osagaiak ditugu bi ahapaldiok, bigarrena ez baitago lehenengoa gabe ulertzerik. Alde batetik eresi beraren, gutxienez, bi bertsio izateak, eta bestetik eresi horrek era berean erantzuna sorrarazteak argi adierazten du garaian genero honek zuen bizitasuna, ahotik ahora eta tokitik tokira zein arin igarotzen ziren, eta eresi batek aldaera anitz izan zitzakeela kantariaren edo lekuaren arabera. Bertsio bien arteko alderaketan nahasterik gerta ez dadin, 43. kuaderno honetakoari A deituko diogu eta 79.ekoari B.

1. bersoan ez dago alderik bi bertsioen artean, baina 2. bersoan baditugu bi desberdintasun: batetik A-n *pere* ageri zaigu, B-ko *bere* ahoskabetuaren tokian, ziurrenik jatorrizko *Zaldibarrec* eragina; gu ere bat gatoz Mitxelenarekin (1964: 85) *pere* edo *bere* “ere” bezala itzultzean. Bestetik, *dabela* modu-denborazkoak zertxobait aldatzen du esaldiaren zentzua B-n irakur daitekeen *debala*

²¹³ Mitxelenak “gal” irakurri zuen.

subjuntiboaren alboan; metatesia izan liteke ezberdintasun horren arrazoi, nahiz era bietan ongi uler daitekeen mezua.

3. bersotik aurrera modu nabarmen desberdinez osatu dira A zein B. A-n ez dator Aramaiori buruzko aipamenik, 3. eta 4. bersoen artean B-ko 4.a osatzera datorrelarik. B-n *sumia[aça]la* ez da bat ere erraza irakurtzea, gaineratik *Jº* baitu idatzia (*Juan*-en laburdura); *açala* hitzaren gaineratik egindako zuzenketa honek *adila* irakurtzera eraman gaitzake, baina, esan bezala, gehitutako hizkiak *Jº* dira, eta ez *di*. Horregatik, guk *sumia açala Juan gurayarra* proposatzen dugu berso honetarako, Butroeko jaunak jasotako traizioan Juan *Latz* Guraiakoak izan zuen parte hartzea gogoratuta. *Sumia* “sumir, consumir”-etik eratorritako forma dela ematen du, eta aurreko bersoaren *suac* du subjektu.

Azken bersoa erabat ezberdina dute bi bertsiok, nahiz eta esanahiez pare samarrekoak izan. A bertsioko *caudala* adjetiboak “buru” edo “nagusi” ematen du aditzera seguruenik, izan ere, Gomez Gonzalez, Butroeko jauna, ahaide nagusietan boteretsuenetakoa baitzen eta Arrasateko hartan oñeztarren buru. B bertsioko *ezçencan enpara* esamoldeaz aintzat har genitzake Mitxelenak (1964: 85) eman argibideak, *ez çençan* irakurriz, hau da, iraganeko burutua adierazten duen aoristo forma²¹⁴, “ez zenuten babestu” gaurko hitzetan.

Gatozen orain A bertsioko bigarren ahapaldia aztertzeraz. 5.bersoan *Andra urena Butroecoa* deitzailearen hitz-ordena ohikoa dugu Erdi Aroko kantetan, esaterako: *Jaun Diaoz Arocoa*, aztergai dugun *Ibarguen-Cachopín Kronika* honen 75. kuadernoan, edo *Errodrigo Çarateco*, 43. koadernoan bertan datorren kantu epikoan. Berso berean *nançuçu!* diotso bere arreta eskatuz ganboarrak Butroeko alargunari (“entzun nazazu” edo “entzun egidazu” gure interpretazioaren arabera). Aditz forma sintetikoak naturaltasun handiz erabili ohi ziren, Lazarragaren (1564) testuek erakutsi berri digutenez. Azken autore honek berdintsu jokatzeko zuten *entzun* aditza:

Arren choriac exilic çaoz

badoçu miramenturic

mundu guztia ysasoagaz

²¹⁴ Ikus 415. o., “aoristoaz”.

nançuçu çaoz geldiric²¹⁵

6. bersoan irakurtezin dugun tartean, papera zulaturik baitago, [era] edo [ean] irakur genezake agian eta *su eldu* esamoldeari “su hartu”-k duen adiera emango genioke, horrela esan nahi lezake Arrasateko suak Asteasun izan zuela sorburu, han hartu zuela suak eta oñeztarren zorte ona han gaiztotu zitzaizela. Beste aukera bat ere irekiko litzaiguke, guk *s* irakurri duguna *d* irakurri behar balitz: *soriac gach[ean] du heldu*, aski posiblea hau ere. Hirugarren azalpen bat ere bururatzen zait, agian sinesgarriagoa: *sueldu* substantiboa litzateke, Larramendik jasotako *sukeldu* edo *su-geldoren* aldaera, gaztelaniazko “rescoldo”, alegia; oñeztarrek eurek piztu zuten euren zorigaitza eta Arrasateko sua Asteasuko gertakari tristeaz.

7. bersoa bitan banatu beharko genuke, baina Ibargueneren lumak ez digu oraingoan berso zatiketarik markatu, besteetan egin legez, eta aurkitu dugun bezala ematen dizuegu. Folio ertzaren josturak jandako hizkiak berreraikitzean, batetik esaldiaren zentzuari begiratu behar zaio eta bestetik kantuaren erritmo eta errimari. Lehenengo hutsunean *ur[catu]* ikusi dugu aukera frogagarrientzat, nahiz geroago *urcatu* bera errepikatu; egia esan, paperaren zulatu horretan bi, hiru zein lau karakter etor litezke. Zaldunen doktrinen arabera ganboarren kexua arras justifikatua litzateke, urkatua izatea egundoko desohorea baitzen zaldunarentzat. Bertso bereko bigarren hutsunea errazago dugu betetzen eta errimari jarraituz *benga[tu]* ikusi dugu egokien. Honela izango genituzke 7. eta 8. bersoak berreraikirik:

7 *ganboar semeac ur[catu] leguean urcatu*

8 *euren ynjuria dabe bengat[u].*

Egindako konponketa honekin neurritz aski orekatua geratu zaigu eresia: 11-12 silabadun lau bersoko bi ahapaldi, errima pareetan eginaz.

Esan bezala, lehen ahapaldiaren B bertsoan berso bat gehiago dugu. Kantaren egitura orokorrari erreparatuz ez genuke aipatu gabe utzi nahi jarduleen arteko elkarriketa bidez osotua dela kanta, bigarren pertsonaren bidez burutua. Egitura formulistikoa izatetik oso hurbil egon daitezkeen esaldiak ere aurki ditzakegu: “Gal didila ...” eta “... bere parte dabela”, norbaiti hitzez eraso nahi

²¹⁵ www.gipuzkoa.net/lazarraga/40

zaionerako oso erabilgarriak. Hitz batean esateko, garaiko baladaren paradigma, laburra eta bizia.

3.3.2. Butroeko Gomez Gonzalez-en heriotzeko kantuak.

Gorago azaldu dugun lez, 1448. urtean Arrasateko erreketan Butroeko jaun eta oñeztarren buru zen Gomez Gonzalez hil egin zuten ganboarrek. Balentria horren oroimenez asmatu omen zituzten ganboarrek ondorengo bertsoak. Mitxelenak (1964: 81-88) kantu bereko zatiak bailiran aztertu bazituen ere, gure ustetan hiru kantu ezberdin bereizi daitezke formari zein edukiari erreparatuta. Hiru kantetan Gomez Gonzalez eta bere ahaidekoen heriotza da narrazioaren ardatz nagusia. Lehen biak ganboarren ikuspuntutik osatuak dira, nabarmena baita beraietan egilearen tonu trufati eta jostagarria heriotza horren aurrean. Hirugarrena, *argy izarrac urten dau*, ikuspegi neutralago batetik osatua da, tonu triste eta garratzagoa erabiliz; kantu lirikoagoa da egituraz eta tragikoagoa edukiz. Bersoen neurria, garaiko askatasun metrikoa kontuan izanda, aski homogenea dela esan dezakegu, bataz beste, bersoko 8 silaba, garaiko erromantzeen antzera. Errima ere erregularri zaindua da. Hala ere, ahotik ahora igaro izanak eta urteen joanean kopistek egindako berrikuntza eta akatsek hainbat deformazio eragin diete, metrika eraldatuz eta sarritan mezua nahastuz.

a) Gomez andia çanarren (II: 185).

- 1 *Gomez andia çanarren,*
- 2 *an çan Presebal bere,*
- 3 *bay Juanicote bere*
- 4 *madalenean an ey dauça*
- 5 *viola tronpeta bague.*

Kantu honen bertasio zaharrago bat ere ezaguna dugu²¹⁶ eta baliteke *Kronikan* kopiatu zuenak handik jaso izana.

b) Gomizec asco lagunic (II: 185).

- 1 *Gomizec asco lagunic*
- 2 *çabal arabaarric,*

²¹⁶ Ikus TAV: 84.

- 3 *guipuz hondo ederric,*
- 4 *bizcaytar urduri gogoric,*
- 5 *ez diaço bacarric,*
- 6 *çe an daz Presebal ylic*
- 7 *Juanicotegaz lagunduric,*
- 8 *chibuluen ospe bagueric,*
- 9 *ez urrun maloguenic.*

Ganboarren ikuspuntutik idatziak dira goiko bi kantuak, hau da arerioarenetik, eta bigarrena lehenengoa ezabatu ondoren idatzi zen, antza denez. Zorionez, ezabatu zuenak luma arrasto bakarraz tatxatu zituen lerroak, eta gaur egun erraz irakurtzeko moduan daude.

Zergatik ezabatu zuen baina? Arrazoia ez da zaila asmatzen: ez zion ona iritzi edo, hobe esan, osatugabea iritzi zion, eta egokiago ikusi zuen berak ezagutzen zuen bertsoia jartzea haren tokian. Kantu biek gai bera darabilte eta egituraz ere oso antzekoak dira. Hala ere, gure ustean A kantuak gutxienez hiru lerro edo berso falta ditu B kantuaren berdintsua izateko.

Laburbilduta, kantuok adierazi nahi digutena da Gomez Gonzalezek, inguruan bere taldeko lagun ugari izanda ere, heriotza latza aurkitu zuela Arrasaten, Presebal eta Juanikote seme kutunekin batera, eta Madalenako ermitaren inguruetan ehortzi zituztela zaldunei zor ohi zaien ohorerik eman gabe, ia gaizkileak bailiran. B kantuak bere lehen lau lerroetan Butroiko jaunaren konpainiaren zabala azaltzen du; A kantuak lehen lerroan gauza bera kontatzeko intentziora ageri du, baina gure ustez beste hiru lerro falta zaizkio, non Gomezen lagun ugarien berri emango baitzen. A kantuaren hasiera esaldi kontzesiboa da, kontrajarri nahi baita alde batetik Butroiko jaunaren handitasuna eta bestetik bere heriotz narratsa. B kantuan ere bada kontraste hori, esaldi bakunean emana, alde batean adjetiboak jarrita (*zabal, ondo eder, urduri gogo*) eta bestetik *hil* soila.

A-ren bigarren lerrotik eta B-ren bosgarrenetik aurrera oso parekoak dira kantak: Juanikote, Gomez Gonzalezen seme kutuna, eta Presebal, Muxika etxeko gaztea, aipatzen dira lehenik eta segidan denak Madalena inguruan ehortzi zituztela, batak zein besteak ongi azpimarratuz ez zutela jaso zaldunei eta ohoreko gizonei zor zaien begirunerik ehorzketa orduan.

B kantua idatzi zuen eskua *Kronikan* idatzi duten esku ezezagun horietako bat da. Susmoa dugu Fernando de Oca ote den, Iburguenen suhia. Esku ezezagun honek oso idazkera garbia du, nahiz barroko samarra den *Kronikan* ageri diren besteekin alderatuta. Bere berezitasunetako bat *h*-ren idazkera da, gora eta behera oso luze idatzia. Honek eraman zuen Mitxelena (*TAV*: 83) esatera 3. lerroko *hondo*-ren h hori s baten gainean idatzia zela, letraren beheazko luzamendua esplikatzearren. Bitxia gerta daiteke h hori hitz honetan, baina Lazarragaren lerroetan ere aurki daiteke: *ascotan hondo gueratu çatez / ene lindea bacarric*²¹⁷.

Testuen ulergarritasunari dagokionean, hona buruhauste gehien eman izan duten hitzak eta esamoldeak:

- A kantuan *viola*. Bidegainek (1967: 184) esan bezala, gaztelaniazko “vihuela” izan daiteke violaren baliokide, Harizmendik (1658: 101) hala baitu jaso 150 salmoaren itzulpenean: *Landa ezquilez bilduric / Elcarrequin corura / Organoz eta violatç / Edo berçez ardura*.
- B kantuan *diaço*. Bukaerako –o datiboaren marka da, eta horregatik esan genezake *etzan* aditzaren aldaera bipertsonala dugula aditz hau (nor-nori). A kantuan *dautza* dator, subjektua Gomez, Presabal eta Juanikote direlako; B-n, ordea, bakarra da subjektua, Gomez, eta Presebal eta Juanikote adizlagunean txertatuak datoz.
- B kantuan *daz*. Mitxelenak *datza*-ren aldaeratzat du; guk, ordea, *diaço* hartu ondoren *datza*-ren aldaeratzat, sinesgarriago deritzogu *daude* forma ordezkatzeko duela pentsatzeari, Deba Goienean oso hedatua baita erabilera horrekin²¹⁸.
- B kantuan datorren *txibulu* “txilibito”-ren aurrekaria ei da Guerraren aburuz (1921: 258). Nik, ordea, gaztelaniazko “címalo” dela esango nuke, grekozko *κυμβάλον*-etik eratorria. Txindataren moduko tresna musikala zen, Grezia eta Erroma zaharrea ospakizun erlijiosoetan erabilia. Kantu hauetan adierazi nahi zaiguna da ehorzketetan ez zela musikaririk ez zaratarik izan, hau da, Juanikote eta Presebal ezein hileta ospakizunik gabe ehortzi zituztela. Eta, jakina, desohore handia da hori

²¹⁷ 21. o. aur.

²¹⁸ Ormaetxea, Txipi, 2002, *Aramaioko euskara*, Aramaioko Udala, 111. o.

bere burua jauntzat duenarentzat. Mitxelenak esan bezala, *ospe* ez da “fama”, “zarata” edo “buila” baizik, eta Cachopínek berak esanda dakigu antzina izugarrizko garrasiak eginez, eresiak kantatuz eta ikaragarrizko zalaparta sortuz ehorzten zituztela euskaldunek euren heroiak eta jaunak.

c) Argui yçarrac urten dau (II: 186).

Kantu hau B kantua idatzi zuen esku berak idatzia da, itxura guztien arabera, beste idatzi batetik jaso. Eskribaua paperean zuri geratzen zen tokia aprobeztatzen saiatu zen eta jarraian idatzi zituen bertsoak, prosa balitz bezala, baina argi markatu zituen marra batez lerro arteko etenak, kopiatzen ari zen testuari fidel izatearren, agi denez. Hala ere, kopista akatsen bat edo beste egin zuen, hala frogatzen baitute kopiatzaileak berak egindako zuzenketek. Baina gure ustez zuzendu gabe ere hainbat akats utzi zituen, bera ohartu ez zelako edo kopiatutako testuak ere bazekartzalako.

- 1 *argui yçarrac urten dau*
- 2 *çeruan goyan ostançean,*
- 3 *Bergararroc²¹⁹ asi dira*
- 4 *trajioe baten azmaçean²²⁰*
- 5 *euroen artean dioela*
- 6 *erre deçagu mondragoe*
- 7 *lasterreon sar gayteza*
- 8 *cantoeco çarçayqueran*
- 9 *aen bizarac ycara çirean*
- 10 *armacaz ezin eguien legez eçer*
- 11 *ganboarrocc su emaytean*
- 12 *asi dira ta onegaz urten daude beralan*
- 13 *oñeztar barruangoac*
- 14 *çein erre ez citeçan*
- 15 *gomiz gonsaluh bertan çan*
- 16 *beragaz presebalen caltean*
- 17 *Joanicoc eta beste ascoc*

²¹⁹ Lehenbizi idatzitako *ı*-ren gainean *o* idatziz zuzendu zuen kantua jaso zuen eskuak.

²²⁰ *ı*-ren gainean (armaçean) *z* idatziz zuzenduta.

- 18 *eudela parte bertan*
 19 *oyñ arroc çian luma*
 20 *Oçæetaco Jaun gazteac*
 21 *laster baten ygaro çan*
 22 *uraz alde bestea*
 23 *ama bereac esæeusan*
 24 *semea çerdoc orrelan*
 25 *çaurietan curadu eta*
 26 *ama nagoçu oera*
 27 *egun bein ur jarruta*
 28 *ganboar seme lasterra*
 29 *ara bere lasterrago*
 30 *abendañuje motela*
 31 *esquerric asco emayten deusat*
 32 *andra santamairi²²¹*
 33 *bera axeyçat sartu eta*
 34 *esera bidaldu nau ni.*

Kantua ederra da eta elementu poetiko zein narratibo ugari du aipagarri. Hizkuntzaren aldetik ere hainbat iruzkin merezi duen testua da, baina aztertzaileak ausardiaz jokatu behar du atal honetan eta saiatu kantua berreraikitzen kopistek egindako akats eta nahigabe sortutako nahasteak argituta.

Kopistak emandako lerrokatzea aintzakotzat hartuta, esan liteke erritmo aldetik aski orekatua dagoela: “-e-a-” errima asonanteari eusten dio berso bikoiti gehienetan, “-ean” bukaera maiz errepikatuta, eta lerro bakoitzak 8 silaba ditu, bat edo beste kenduta (hala ere, ez dugu uste bertsoen ahoskera eta kopistaren transkribaketa bat datozenik zenbaitetan). “-ean” bukaera geroago aztertuko dugun Errodrigo Zaratekoren Kantuan ere azalduko zaigu errima modura; izan ere, maiztasun handiko bukaera da hizkuntzan, “errentagarria” koplakantariarentzat, eta gogoan hartzen erraza.

²²¹ Mitxelenak TAV: 84-en “Andra Santa Maiñ[ari]” transkribatu du.

Mezuari dagokionean, kantua Arrasateko erreketak eragindako garrasi latza da eta agerian uzten du zein modu ankerrean izan zen prestatua sarraski hura, 1448an bere gorenean baitzen Oñez eta Ganboa bandoen arteko ezinikusia.

Bana dezagun kantua estrofatan, batetik mezua eta bestetik erritmoa hobeto aztertze aldera.

- | | | |
|----|--|--|
| 1 | <i>argui yçarrac urten dau</i> | Hasera indartsua da, bere ikutu poetikoa barne, eta bergararrei egozten die Arrasate erre izana. <i>Ostantzean</i> : <i>ost-</i> , <i>oste</i> , <i>ortze</i> -tik eratorria; <i>-ean</i> ez da inesiboa (non), baizik eta <i>-rean</i> bizkaierazko ablatibo zaharra (nondik) ²²² . <i>Trajioe</i> -k [x] doinua erakusten digu, gaur egungo <i>traizio</i> -tik urruti samar. |
| 2 | <i>çeruan goyan ostançean,</i> | |
| 3 | <i>Bergararroc asi dira</i> | |
| 4 | <i>trajioe baten azmaçean</i> | |
| 5 | <i>euroen artean dioela</i> | Bigarren estrofa honetan erritmoa hautsi egiten da. Ez ziren gure poesia zaharrean gaurko bertsogintzan bezain zorrotzak metrika eta errima kontuetan.. |
| 6 | <i>erre deçagu mondragoe</i> | |
| 7 | <i>lasterreon sar gayteza</i> | |
| 8 | <i>cantoeco çarçayqueran</i> | |
| 9 | <i>aen bizarac ycara çirean</i> | Bi lerro hauek ere errimaren eta neurriaren haustura dakarte, eta hariari nekez eusten diote, beste lerroren batzuk falta balira bezala. Mitxelenak esan bezala, <i>aen bizarac</i> esamoldeak izenorde funtzioa du, “haiek” adierazi nahi baitu. |
| 10 | <i>armacaz ezin eguien legez eçer</i> | |
| 11 | <i>ganboarroc su emaytean asi
dira</i> | <i>Beralan</i> “berehala” da (TAV: 87). <i>Çein erre ez citeçan</i> erlatibozko esaldia da (“erre ez zirenak”), ez helburuzkoa; ni <i>ninçean</i> , hura <i>çidin</i> , haiek <i>çitean</i> , ... euskal aorista zaharra dira Lakarraren (1996: 177) esanetan; RS-en irakur daiteke: <i>Unayoc arri citean pastaec aguir citean</i> “Los pastores riñieron, los quesos perescieron”. |
| 12 | <i>ta onegaz urten daude beralan</i> | |
| 13 | <i>oñeztar barruangoac</i> | |
| 14 | <i>çein erre ez citeçan</i> | |
| 15 | <i>gomiz gonsaluh bertan çan</i> | Gure ustean, kantuak idoro nahi duena da Presebal agian salbu atera zitekeela, Gomez Gonzalez, Juanikote eta besteekin batera aurkitu ez balitz. Presebal, Gomezen iloba zen. |
| 16 | <i>beragaz presebalen caltean</i> | |
| 17 | <i>Joanicoc eta beste ascoc</i> | |
| 18 | <i>eudela parte bertan</i> | |

²²² TAV: 86.

- 19 *oyñ arroc çian luma* 19. bersoan TAV: 83-an Mitxelenak "çi[tu]jan" transkribatu zuen, eta Ibiñagabeitiak, (Bidegain, 1967: 184), *Oyñ<ezt>arroc ci(re)an luma* proposatzen du. "Los orgullosos pies del joven señor de Ozaeta eran plumas" itzuli zuen Mitxelenak. Guk *luma* idatzi beharrean kopistak *lurra* idatzi behar zukeela deritzogu. *Oyñ arroc çian*-ek aditza ezkututzen du: "oin(ekin) harrotzean lurra" edo "inarrosteian lurra", ihesa adierazi nahian bi aukeretan.
- 20 *Oçætaco Jaun gazteac*
- 21 *laster baten ygaro çan*
- 22 *uraz alde bestea*
- 23 *ama bereac esaeusan* Guerraren esanetan (1921: 259), Erregeren morroi omen zen lerro hauetako protagonista, Bergarako Ozaeta etxeko jauna. Arrasate sutan jarri zutenean, Gomez Gonzalez eta besteekin batera, Bergarako bidea hartzeko asmoz egin bide zuen ihes. Arrasatetik atera bezain laster Deba ibaia zeharkatu behar zen. Eta inguru hartan prestatu omen zieten segada ganboarrek. Bere lagunek ez bezala, Ozaetakoak onik ateratzea lortu zuen eta amaren etxera iritsi zen. Horrela, Ozaetako semearen ahotan jarriak dira 25-26 lerroak, bertan guduaren izua dramatismo handiz adierazteko.
- 24 *semea çerdoc orrelan*
- 25 *çaurietan curadu eta*
- 26 *ama nagoçu oera*
- 27 *egun bein ur jarruta* Beherago aztertuko dugun Errodrigo Zaratekoren Kantuan honakoa irakur daiteke: *areryoac ur jarrayca*. Horren harira, 27.ean ere "ur jarraica" interpretatu beharko litzateke; *egun bein* ere kopistaren akatsen batek eragindako forma ulertezina da gure ustetan eta ez gara interpretatzera ausartzen (toki izenen bat den susmoa dugu: *halako tokian ur jarraika*). Esanahia, ordea, argi samarra da: bi arerio izan zituen jarraika, Martin Ruiz de Ganboa bandokidearen semea eta Juan de Abendaño, goitizenez *motela* (hizmotela).
- 28 *ganboar seme lasterra*
- 29 *ara bere lasterrago*
- 30 *abendañuje motela*
- 31 *esquerric asco emayten deusat*
- 32 *andra santamairi* Ozaetako gaztea ihesi joandako bidetik gertu omen zegoen Santa Marinari eskainitako ermita (gaur izen bereko auzoa dago inguru haietan eraikia) eta Andra Mariari eskertu zion Ganboarrek Gomez Gonzalez eta
- 33 *bera axeyçat sartu eta*
- 34 *esera bidaldu nau ni.*

besteei prestatutako segadatik ihes egin izana. 33. lerroko *axeïçat sartu* zail gertatu ohi da azaltzeko eta guk Manuel Lekuonaren azalpena hobetsiko dugu: Arrasaten, hegoalderanzko bidean, “Axeri” izeneko baserria dago eta izen hori ei da esamolde ulergaitz horretan ezkutatua dagoena, kopistek zuzen ematen asmatu ez dutena (*Axeritzat?*). Horrela, bada, ulerenezake jarraika zihoakion Abendaño Axeri baserrirantza joan zela (“sartu” zuela Amabirjinak) okerreko bidea hartuta edo Ozaetakoa Axeri baserrikotzat jota, Ozaetakoa beste bide batetik etxerantza zihoan bitartean.

3.4. Salinasko Kontearen kantua (I: 557).

Enrique laugarrenaren agintepean (1454-1474) hainbat ahaide nagusi izan zen Granadako mugetara erbesteratua euskal lurretan egindako erreketak, lapurreta, hilketak, irain eta abarregatik zigortuta. 1470. urtean Pedro Fernández de Velasco, Haroko kontea, bere ahaldun izendatu zuen Erregek, Bizkaiko gizartea aztoratzen zuten gehiegikeriak bare zitzan. Bizkaiko eta Busgosko merkatarien eta korregidorearen interesak zaintzeaz gain, ba omen zuen kondeak beste helburu bat ere, Bizkaia bere mendean hartzea, alegia. Juan Alonso Muxikakoa eta Pedro Abendañokoa erbesteratu zituen, gaizkile batzuk urkatu zituen, beste batzuk putzuratu, Bere harrokeria, handiuste eta botere erakustaldiek susmagarri bilakatzen zuten Haroko kondearen ekintza oro. Egoera horrek akuilaturik, Juan Alonso Muxikakoa eta Pedro Abendañokoa erbestetik itzuli egin ziren, bando biak bat eginez, eta, Bizkaiko bandokideen eta Trebiñoko kondearen laguntzaz, Harokoaren aurkako gudua prestatu zuten. 1471. urtean izango da gudu hau Mungian eta bandokideak gertatuko dira garaile. Haroko kondeak ihes egingo du, baina Salinaskoa, artean Harokoaren aliatua, preso hartuko dute eta Bilbora eramango, trufazko kantu hau lagun duela.

- 1 *Lelori lelo, sarayleloa*
- 2 *Bilbaon catigu dago Salinasgoa*
- 3 *calea bera burua baxu daroa*
- 4 *ser ete dau amoradu guexoa[c].*

Kantu hau 43. koadernoan dator eta, koadernoko besteak bezala, badirudi Iburguenek hitzez hitz jaso zuela 1574 urtean idatzitako kronika batetik, gaur egun ezezaguna dena. Mitxelenak *Textos Arcaicos Vascos*-en (1964: 97-98) eman zuen argitara, eta berak emandako bertsioa osatu eta zalantzak argitzeko moduan garela esan genezake. J.C. Guerrak ere argitaratu zuen bere kantu zaharren bilduman (1922: 72-74), baina transkribaketak akats bat baino gehiago dakar.

Kantu honek ez du aparteko arazorik interpretazioa egiteko orduan, eskuizkribuaren irakurketak zenbait zalantza sortarazi arren: Hirugarren lerroan Mitxelenak *bax[.]n* eman zigun zalantza bat edo besterekin; guk ez dugu inolako arazorik aurkitzen *baxu* irakurtzeko, batetik ez dagoelako lekurik letra gehiagorako (Mitxelenak bazuen susmoa) eta bestetik eskuizkribu honetan idazkera bera hartzen dutelako *u*-k eta *n*-k, hitz hasieran izan ezik. Arrazoi beragatik azken lerroan *dau* irakurri beharko litzateke, eta ez *dan*. Azkenik, aurrera jarraituta, Mitxelenak *guexoa* irakurtzen duen lekuan garbi ikusten dugu *guexoac* idatzi zuela egileak, zeren Iburguenek euskal hitzen bukaerako *c*-a (absolutu plurala zein ergatiboa adierazten duena) handi eta zabal markatu ohi baitzuen, tinta ugari ixuriaz eta papera indarrez zanpatuz, eta horrek, urteen joanean, papera zulatzea eta apurtzea ekarri du, letraren tokian paperaren ebaki nabarmena utzita. Hori bera gertatu zaio *guexoac* hitzaren azken *c* horri. Argi dago azken lerro honetako *dan/dau* eta *guexoa/guexoac* aldaeretan gure proposamena aintzakotzat hartuz gero erabat aldatzen dela esaldiaren sintaxia eta, ondorioz, esaldiaren eta, neurri batean, kantuaren esanahia.

Kalean behera doan presoaren humiliazioa deskribatzen zaigu bigarren eta hirugarren lerroetan, baina azken lerroan txantxa tonua areagotu eta garraztu ere egiten da preso “gaixoa” maitemindu malenkoniatsu batekin konparatzean eta koitaduen kontsolamendurako erabili ohi den esamoldea jaurtikiaz: “Zer ote du gaixoak!”.

Lehen bersoan ematen zaigun lelo formulistikoaz guk gorago azaldutakoa eta Mitxelenak emandako azalpena (1964: 104) irakurtzea gomendatzen diogu sakondu nahi duenari.

3.5. Errodrigo Zaratekoren kantu epikoa (I: 564).

43. kuadernoan aurki ditzakegun bandokideen arteko liskarren kontakizunean izkutaturik, *Kronikak* euskal epika zaharraren bitxi ederrenetakoa gorde zigun idatzirik, hain ongi gordea, ezen, denboraren joanak eta hezetasunaren horzkadek zorioneko folioak ia irentsiak zituztenean, lan handien ostean eta halakoetan behar den zorte poxi horrekin, ustekabean egin baikenuen topo poema epiko eder honekin.

Poema edo kantu hau eta aurretik datorren kontakizun historikoa, goiko eresi eta kantuekin gertatu bezala, zuzen-zuzenean eta hitzez-hitz jaso bide zituen Ibarguenek 1574. urtearen inguruan idatzi kronika batetik.

Urkizuko leinuaren (Abendaño eta Gortazar tarteko) eta Zuiako Zaratearren arteko lehiari buruz erreferentzia labur bat besterik ez dugu aurkitzen ahal *Bienandanzas e Fortunas*²²³. Ez dakigu ziur noiz gertatuak diren lerro hauetan kontatzen zaizkigun gertaerak, baina halabeharrez 1448. urtearen ondoren (Arrasateko erreketeta) eta 1468. urtea baino lehen (Elorrioko gudua) izan behar (Arrasateko erreketan ez zen Abendañotxea izan, mutikoa bide zen artean, eta Elorriokoa igaro eta egun gutxira hilko zuten). Kontuan izan dezagun, gainera, Beloradoko alkatea Abendañoakoari lagun egitera etorria zela eta Elorrioko guduan parte hartuko zuela (1468); ondoren, 1471ean, alkate berau hil egingo zen Mungiaiko guduan. Beraz, nire ustetan 1468tik aski hurbil leudeke gertaera hauek.

Zigoitia, eta zehatzago Markina-Zuia, nork bereganatuko eta lur haietan nor gailenduko, etengabeak gertatu bide ziren erasoak, hilketak eta etxe-suntsipenak: Zigoitia eta Zuiako lurrei Abendañoako eta Gortazarreko leinuek eraso, Arratiako bide eta etxeetan Zaratekoek eta Mendozakoek erantzun.

1371. urtean Enrique II erregeak Legutio (*Villa Real*) eman zion Juan de Abendañori. Urte hauetan gotorleku bilakatuko da Legutio, abendañoarren dorretxea barruan duela, eta berehalakoan jarriko dituzte begiak Zaratekoen mende zeuden Zuiako lurretan. Zaratearren Zarate izeneko herriskan dute izen bereko dorrea, egun desagertua dena, eta, besteak beste, mendozarren laguntza jaso ohi zuten Legutioko abendañoarren eta Zeanuriko urkizuarren aurkako liskarretan. XV. mendearen erdi aldean, ordea, Pedro Abendañoak, bere seme

²²³ García Salazar 1471: 252.

Juan Abendañoko, *Abendañotxea*, lagun duela, eraso bortitz batean zaratearren dorrea suntsituko du eta barruan zen Errodrigo Zaratekok amore emango du, bere burua Beloradoko alkaidearen zaintzapean utziz, azken hau, esan bezala, abendañoarrei laguntzera etorria baitzen. Zaratekoak bere burua heriotzetik babestea zuen helburu alkaidearen eskuetan jarri zenean, baina Abendañok hilda ikusi nahi bere arerioa eta goiak eta beheak astinduko ditu hiltzaile baten bila. Zaratekoa, ordea, jakinaren gainean jarri dute eta ihes egitea lortu du, zaldiak ahal bezain azkar, atzetik jarraika Abendañotxea duela, odol gosez.

- 1 *Arma escuduac on dira dardos,*
- 2 *pareric estabe canporacos,*
- 3 *çaratearrac galdu ey dabe marquia-çuya çeculaco.*
- 4 *E[rrodrig]o Çarateco selan engana sindean*
- 5 *jaun Juane Abendañocogas gudua ar çensanean,*
- 6 *bi mylla guyçon oy ditus bere lelengo deyeen,*
- 7 *lau mylla bere baleduque premia letorreanean,*
- 8 *Cortaçarretarrac delanterea, Ybarguendarrac urrean,*
- 9 *gastelan Sarmyentuarric asco, es pareric arean,*
- 10 *jaun Asençio Guebaraco ganean darda ordean,*
- 11 *Billela ta Arteaga, anage onac urrean,*
- 12 *Saldi[suriac] on[....]rrenean,*
- 13 *onac arin, gog[oa] sendo, arerioaen asean,*
- 14 *E[rrodrig]o Çarateco saldi urdinaen ganean,*
- 15 *bosteun caxcabel urregorrisco saldiac ydunerean,*
- 16 *carrerea laster eroean Erbjtegy ganean,*
- 17 *areryoac ur jarrrayca arrebearen semea,*
- 18 *ona chypi, orpo laster, Abendanochea,*
- 19 *arren, echosu orain osaba, bixeoc justa gaytean,*
- 20 *echyeguydac orailloba, gau bixiric noean,*
- 21 *neure biçian enoaque Urquyçuren contrean,*
- 22 *omenaje eguyngo joat biçia dodan artean,*
- 23 *bela uic sar naxaytec billa Realgo torrean.*

Kantu epiko eder honek, garaiko gertaeren lekuko izateaz gain, aparteko balioa du euskal lirikarako bere daramatikotasunagatik, bere etorri lirikoagatik eta baliabide estilistikoengatik (elkarrizketak, interpelazioak, kontrajarpenak, eta abar).

Egiturari erreparaturik kantuaren borobiltasuna, perfekzioa, harrigarria gertatzen da. Exordio labur batez hasten da, kantu epikoetarako bereziki sortuak diruditen bi lerro formulistikoz, hirugarren lerroan gaiaren sarrera orokor gisa kantuak kontagai duen gertaera nagusia aipatzen delarik. Lehen zati hau zeharo independientea dugu errimaz zein neurriz. Aurkezpen honen ondoren bi ahapaldi datozkigu hamarna lerroekin, eta, kantariak erraz berdinean dezakeen desorekaren bat edo beste kendurik, hamasei silabakoak ditugu errima bakarreko hogeit hamar lerrok. Ahapaldirik Zarateko Errodrigo izutiaren irudia erakutsi nahi zaigu, abendañoarren indar eta adoreaurrean ihesi doana.

Erromantzeen eskema metrikoari darraio, 8/7, edo nahiago bada, 4 / 4 // 4 / 3²²⁴; errima *-ean*.

Kantuaren hitzen esanahiari gagozkiolarik, oro har zalantza handirik ez badugu ere, aitortu behar zenbait hitzen zentzua ilun samar geratu zaigula, batzuetan paperaren egoeragatik, bestetan egileek kopiatzean egin zitzaizketen akatsengatik.

- *Engañatu* intransitibo moduan erabiltzen da kantuan, eta *sindean* laguntzailea **edin* aditzaren aoristoa dugu, bigarren pertsonan, zuka erabilia. Forma honek aoristo zaharreko **edin* aditzaren paradigma osatzen lagunduko digu, garai beretsuko zenbait testu erabilia: *nindin*²²⁵, *hindi*²²⁶, *çidi/çidin*²²⁷, **gintean*, *sindean*, *çitean*²²⁸. Kantuak esan nahi digu Errodrigok engainatu egiten zuela bere burua, tronpatzen zela alegia, Abendañori aurre egitean guduaren, haren gudaostearen aurrean ez baitzuen zer eginik.

²²⁴ Honetaz zehaztasun gehiago: Juaristi, 1986: 845-855.

²²⁵ *escuorrez topa nindin gradaetan legoala* (Laz. 43 aur.)

²²⁶ *gal indi gazte on*, “perdistete joven bueno” (Ibarguen-Cachopin, I: 338).

²²⁷ *Iaygui cidi naguia, erra cizan uria* (RS 294).

²²⁸ *Unayoc arri citean, gastaec aguir citean* (RS 52).

- 6. eta 7. lerroetan Abendañoakoaren indar eskergaz hitz egiten zaigu. Sinesgaitza badirudi ere, urte haietan 2.000 gizon baino areago biltzea ez zitzaien batere zaila gertatzen bando gudutan zebiltzan ahaide nagusiei: Arrasaten (1448) 4.500 gudari elkartu ziren bando bietan banatuak, Elorrion (1468) oñeztarrek 4.000 inguru bildu omen zituzten, *Letorreanean* aditz formaren *l-* aurrizkiak alegiazko kutsua ematen dio, Andramendiko Eskriturretan datorren *letorrela* aditzean ez bezala²²⁹.
- Segidako 8., 9., 10. eta 11. bersoetan Abendañoakoaren bandokideek guduan hartutako kokapena zehazten zaigu: Zeanuriko kortazartarrak zetozen aurretik, zuzeneko etsai baitziren; ibarguendarrak hurbil; ondoren sarmientuarrak²³⁰, Abendañori laguntzera etorriak; bestalde, Gebarako jaunak besteen gainean kokatuta gezi edo zagita jaurtitzailleak zuzenduko zituen, *darda ordea* gezi, dardo edo zagitak antolatzeari baiteritza; azkenik Billela ta Artega letozke, Arrasateko erreketan eta bestetan lagun fidel izandakoak.
- 12. bersoan arazo bat baino gehiago aurkitu dugu. Ez da hasiera ongi irakurtzen eta guk *saldi suriac* esan nahi dezakeela deritzogu. Segidan, ordea, paperaren hausturak galarazitako hitzak ditugu, gehiegi berreraiketari ekiteko. Badirudi lerro honen asmoa, 10.arekin batera, bandokide hauen gudurako gaitasuna goraiatzea dela.
- Hurrengo ahapaldian Zarateko Errodrigorengana itzultzen du begirada kantariak. Errodrigo bere zaldiaren gainean eta zaldia bera deskribatzen ditu oso modu epikoan. Zaldiek gudu irekietan kaxkabelak eramatea ohikoa zen, ez soilik edergailu gisa, arerioa adoregabetzeko moduetako bat ahalik eta zalaparta handiena egitea baitzen, armak ezkutuen aurka astinduz, garrasi eginez edo, oraingo honetan bezala, zaldien kaxkabelak joaraziz.
- 17. eta 18. lerroetan kantik berezkoa duen bizitasuna azkartuz doa, eta Errodrigoren iloba ia harrapatu du atzetik datorren Abendañotxeak, txikia

²²⁹ Ikus 238 o.

²³⁰ Sarmiento jatorriz Burgos aldeko leinua omen da, Enrique II erregeari esker Arabako herri eta lurralde franko lortu zuena (Lagran, Hurizaharra, Labastida, Kuartango, Badaioz, Ubarrundia, Arrazua, Iruña eta Ariñez).

izanagatik azkarra baita. Azken berso honetan ikuspegi literariotik kanta honek duen aberastasunetako bat aurkituko dugu: *oñac arin, gogoa sendo eta oña chipi, orpo laster* irudien arteko parekotasuna.

- 19. lerroan lobak itxoiteko diotso osabari, arerioarekin nahi duela aurrez aurre borrokatu. Osabak, ordea, oraingoz etsi egin beharko duela ihardetsi dio, bizirik aterako badira. Berso honetan *gau-k <r>* galdu duela pentsatu behar, bestela zail bailitzateke azaltzen.
- 20. eta 21. lerroetan Errodrigok zin dagi ez dela sekula Urkizuren aurka itzuliko. Bere asmoak adierazteko erabiltzen duen formulak gogora dakarkigu Pedro Abendañoren Eresia (1443): *...barriz enendorque Aramaioco contrara...*²³¹.
- 22. lerroan Errodrigok Legutioko dorretxeko presoaldia gogoan, bela bi ikusi ditu gainean jiraka; otu zaio Abendañoko aita- semeak direla.

Kantuaren azken bost lerroetan jasotzen den elkarrizketa hunkigarriak gogora dakarkigu gorago aztertu dugun “Argi izarrak urten dau ...” kantua, Arrasateko Erreketaren Kantuak atalekoa, kantu horretan ere indar poetiko handiko elkarrizketa baitator, Ozaetako gaztea eta bere amaren artekoa. Elkarrizketa hauek, kontrastearen kontrasteaz, pasarte belikoen laztasuna areagotzen dute eta bizitzaren zirrara zabaltzen kantuaren bukaeran.

3.6. Sorabillako hidalgoen kantua (I: 690).

Ibarguenek 62. kuadernoari gehitu zizkion paperetan aurkitzen da kantu hau, beste baten eskuz idatzia, Mitxelena *TAV*-en (1964: 106) dioen bezala, erraz irakurtzeko moduan.

Sorabilla etxeetako jaunek, *Kronikak* dioenez, Carlos V.a erregea Gipuzkoan zela aprobetxatuz, erregeri eskatu omen zioten zergetatik libre uzteko (gogora dezagun Bizkaiko hidalgoak gogor borrokatu zirela jaun handiek zituzten eskubideak izateko eta *Kronika* honetan hala gogoratzen zaigu) eta Erregek baiezkota eman omen zien. Guerraren aburuz (1922: 294) 1539. urtean Carlos V.ak Gipuzkoa zeharkatu zuen Flandes-erako bidaiari.

1 Cosc Erregue, capela gorri:

²³¹ Ikus Mitxelena 1964: 79.

- 2 *Achul ona, Sorabilan bost eche,*
- 3 *bost echeac bost urre.*
- 4 *Erregue jauna, eguiezu*
- 5 *alcabalez merchede.*

Ume kanta baten itxura hartzen diogu, kantik duen erritmo markatuagatik eta bost zenbakiaren jokoagatik. Ume kanta izateak, hain zuzen, azalduko lituzke Mitxelenak kantua esplikatzear aurkitu zituen arazoak: *kosk* ume jolasean agurra izango genuke, deia, buruan ematen den kaskarrekoaren onomatopeia, Errege gugana itzul edo *atxul* dadin. Aditz forma hau *itzuli* aditzaren aginterazko forma izan liteke (*ibili*-ren *habil* bezala, *itzuli*-ren **hatzul*).

3.7. Jaun Diaoz Harokoaren eresia (II: 141).

- 1 *Jaun Diaoz Arocoa,*
- 2 *çaldun andi Españacoa,*
- 3 *eçec eçer ecieguion*
- 4 *eguian Jaunac baroa*

Hil zedinean, Bizkaian egin ohi zen erara erosta ziezaiotela agindu omen zuen Diego Harokoak, eta hala egin zuten 1497 eta 1511 urteen bitartean, Guerrak (1921: 418) emandako datak aintzat hartuta. Kantu zahar hau Ibarguenek 75. kuadernoari erantsitako paperetan aurki daiteke, baina ez zen bere eskua izan idatzi zuena, 79. kuadernoan Arrasateko erreketaren kantuak idatzi zituen berberarena baizik.

Kantu hau ere Mitxelenak (1964: 101) argitaratua eta komentatua aurki liteke *Textos Arcaicos Vascos*-en, eta bertan argi azaldurik eta erabakita utzi zuen horrenbeste buruhauste emandako *baroa*-ren arazoa. *Badaroa*-ren kontrakzioa da²³², eta, kontuan izanik *eguian*-ek erlatiboa daramala ulertu beharko genuke “egin zuen Jaunak badarama berarekin”. *Ecieguion* ere azaldu zigun *ecin* partikularen eta *eguion* aditz aoristoaren kontrakziotzat hartuta. Bukatzeko ohar txiki bat: 2. lerroan *çaldun* osorik irakurtzeko arazoak zituen Mitxelenak; guk ez

²³² Hizkera aztertzean (11, kapituluak) 4.8. puntuan sakonduko dugu kontrakzio honen inguruan.

dugu zalantzarik izateko arrazoirik ikusten, gainetik egindako ezabaduraren azpian den *çaldun* hitza aski erraz antzeman baitaiteke.

3.8. Marti Juanes Labierukoaren hilartitza edo epitafioa (II:160).

Bizkaiko herritarrak hermandadeetan bildurik jauntxoen gehiegikeriari aurre egiten saiatzen ziren. Abendaño, Muxika, Butroe eta Arteaga, besteak beste, senideen laguntasuna galtzen ari ziren, hermandadeen mesedetan. Baina hermandadeen barnean ere adostasuna ez zen erabatekoa eta maiz alde bateko edo besteko jauntxoren baten alde jotzen zuen batek baino gehiagok. XV. mendearen hasieran hermandadeetako buru eta foruen alkate ziren Juan Sánchez Billelako eta Martín Joanes Labieruko. Gonzalo Moro korregidorearen aginduz Butroeko morroi bat preso hartzera abiatu omen ziren. Itzuleran, ordea, Butroeko jaunak atzetik jarraitu eta Billelako hil egin zuen. Ahaide nagusia ez zen makurtuko korregidorearen aginduetara. Handik gutxira, Labieruko ere hila izanen zen, eta bere hilobian honako hilartitz hau idatzi zuten:

- 1 *Marti Juanes, Labieruco çalduna,*
- 2 *Vizcayco consejua da çençuna,*
- 3 *nor [ete] çan çuri losa ygorrosi eguiçuna?*

Lerro monorrmoz (endekasilaboak lehen biak, hamarrekoa hirugarrena) osatutako pieza honek ez du irakurtzerakoan zalantzarik sortzen, bai ordea hirugarren lerroa interpretatzerakoan: Guerrak (1921:416) *ygorrosi* “idarrosi”rekin lotzen du, “arbola astindu fruta hartzeko”, eta horren karian ulertu behar genuke “nork astindu zizun hilobiaren harlauza”, “nork hil zintuen” galdetuko balitz bezala. Mitxelenak (TAV: 74) nahiago du pentsatu *losa* “lotsa”ren aldaera dela eta *ygorrosi* “bota” edo “jaurtiki”, Andramendiko Eskriturretan duen adiera berberari eutsiz (*erri egorrochi*, “deserriratuak”). Modu horretan Labierokoak senitarrean bertan izan zuela traidorea adieraziko litzateke, “nork lotsarazi zintuen” galdetuz.

3.9. Akondiako guduaren kantuaren hasiera (II: 154).

- 1 *Acundia lexarraga lexarbaga*

Kantuaren berso bakar hau Iburguenek kronika zaharren batetik jaso bide zuen bandoen guduei buruzko narrazioaren lerroen artean aurkituko dugu 77.

kuadernoan. Guk *x* (ixa) irakurri dugun lekuan Mitxelena (1964: 69) *j* (jota) irakurri zuen.

Kantu hau 1390. urtean Eibar ondoko Akondia izeneko gainetan oñeztarrek ganboarrei irabazitako guduaren oroimenez konposatu omen zen. Bertan Ganboa eta Durangoko Iburguen etxeetakoak (ganboarrak) Eibarko Unzuetakoen eta Butroikoen aurka (oñeztarrak) borrokatu omen ziren.

3.10. Mendiolako jaunaren heriotzaren kantua.

115. kuadernoan Cachopínek zera diosku:

Iten, dize el liçençiado Gaspar de Peña y Galdocha que Estíbaliz de Mendiola, dueño y señor de la misma casa de Mendiola de Aramayona, abiéndosele rebelado a los señores de Butrón y Muxica el mismo balle y señorío de Aramayona y entregádose al señor de Billarreal de Álaba, desto luego fue a dar abiso aquel barón Estíbaliz a su señor y caudillo, el de Butrón y Muxica, como leal su servidor. Y así, hecho su alfériz, bino con su gente por Mondragón de Guipúscoa haziendo grandes daños, y de la çerca de la villa de Mondragón le tiraron una flecha enarbolada con que fue herido malamente. Y con su herida pasó de largo hasta Arechabaleta caminando a furia con las ansias de la muherte, donde murió. Y le llebaron de allí a Aramayona, donde los deste balle, sus henemigos, que por plazer de su acabamiento le salieron a reçibir con tanbolin, albocas y panderos, y cantando a su son cantares conpuestos en copla que llaman *ereçiac*, con fiestas y regozijos (II: 366).

Beraz. esan liteke desagertutako kantu baten berri zehatza dugula.

4. ANDRAMENDIKO ESKRITURAK (II: 58)

65. koadernoan, Muxikako etxerik zaharreneen jatorriari buruzko kontakizunaren testuinguruan, Cachopínek zeresan franko eman duten bi testu idatzi zituen, Andramendiko dorreari buruzkoak, *Kronikan* euskaraz idatzirik aurki daitezkeen prosazko testu bakarrak.

Andramendiko dorrearen historia eta bertan sortutako leinuarena aztertzerakoan Cachopín aitaren *Istoria de las Grandezas de Vizcaya* eta Gastón Xuárez de Nabia-ren *Crónica y Tratado de Conçejo de Prínçipes* hartu zituen oinarritzat Cachopín semeak (II: 55), biak ala biak gaur egun ezezagunak.

Aipatu egileen arabera, Andramendiko dorrea 248 urtean eraikiarazi zuen 47 kapitainen ondorengo batek, Gonzalo Gonzalez izenekoa bera. Eta eraikitze lanak lur azala estaltzerainoko emakume talde handi batek burutu zituelako, Andramendi jarri omen zioten izena. Gaur egun Muxikan zutik dirauen Jauregia izeneko etxea Andramendi eta Ontxoka etxeetako harriez izan omen zen jaso, bi etxeok eraitsiak izan zirenean.

Garai haietan, Cachopínek 435 urtea aipatzen du, ezinikusi eta liskar handiak izaten ziren Muxikako etheen artean. Aipagarrienak Andramendi eta Menzeta (edo Mintzaeta) etxeek Iburguen eta Okaren aurka zituztenak. Orain armetara jo, hurrengoan bakeak egin, gatazka hauek gorabehera handiak izaten omen zituzten eta belaunaldiz belaunaldi luzatzen ziren. Cachopín aitak gertaera hauen lekukotasun ugari ikusi zituela dio, eskriturak eta bestelako idazkiak. Batzuk euskaraz idatziak ziren, beste batzuk latinez, eta animalien larruetan idatzirik zeuden, eta baita adobatutako hosto eta zuhaitz-azaletan. Ahalegin handia eskatzen omen zuen irakurketak, baina azkenerako era ulergarrian transkribatu ahal izan zituen, antza. “Zoritxarrez”, Cachopínek dokumentu horietatik bi baino ez zituen bere lanean sartu.

Kronikako beste material batzuen antzera, testu hauek ere idazle eta kritiko askok hartu izan dituzte ahotan, eta zenbaitek egiazkotzat jo izan ditu, autoreek emandako antzinatasun sinesgaitza aintzakotzat hartuz. Esan gabe doa, ordea, Bidegainek eta Mitxelenak (1954)²³³ erakutsi bezala, Andramendiko bi eskritura hauek apokrifoak direla, ezin direla inondik inora III. eta V. mendekotzat jo. Baina aipatu egileen oharrak zehazteko moduan gaudela deritzogu, batik bat testuon

²³³ Geroago Mitxelenak *TAV*-en argitaratuko zituen testuok (1964: 158).

jatorriari dagokionean. Lan honen bigarren kapituluaren genionez, *Kronikaren* atalik funtsezkoen egilea Cachopín semea da, eta Iburguenek material horiek kopiatu eta beste batzuk bildu eta gehitu baino ez zuen egin. Eta halaxe gertatu zen eskritura hauei dagokien pasartearekin ere: Cachopínek burutu zuen jatorrizko erredakzioa eta Iburguenek bere eskuz eman zigun gaur egun ezagun dugun kopia bakarrean. Baina, era berean, Cachopín semeak bere aitaren lanetik kopiatu bide zituen eskritura hauek. Beraz, Cachopín aitak asmatu zituen testu hauek XVI. mendearen erdialdean (edo garai horretako beste lan batetik jaso zituen, baina hipotesi hau egiaztatzea zailago gertatuko da, jatorrizko testurik agertu ezean).

Gure ustez, Iburguen Cachopínen bertsoia fidelki kopiatzen saiatu zen, Iburguenek berak testuari egindako zuzenketek erakusten dutenez (*bost* ezabatu eta *borrs* idatzi zuen bigarren testuan; eskribauak bere hizkera hartu izan balu aintzakotzat, kontrako zuzenketa zatekeen zentzuzkoena). Nondik eta nola esaterik ez badugu ere, argi dago Cachopín aitak euskararen inguruko jakituria handia bildu zuela, eta, Bizkaiko euskalkiak oinarri bazituen ere, ekialdeko hainbat hitz eta esamolde ezagunak zituela. Kantabriarren Kantuan bezala, Andramendiko eskriturretan ere Cachopín aitak jakin zuen bere hizkuntzalari sen fina islatzen. Lan horietan bakarrik ez, *Kronika* osoan zehar atzeman daiteke egileek hizkuntzalaritzarako duten zaletasuna: etimologiei emandako garrantzian, kanta zaharrak biltzerakoan erakutsi zuten grinan, kontakizunak euskarazko hitzez jazteko izan zuten arretan, eta abar.

Eskritura hauek ere kontu handiz, bikain eraikiak dira, hizkuntza arin eta biziz, kariñoz idatzi direla esan nuke. Eta bada, aipatu gabe uzterik nahi ez nukeen puntu bat. Eskritura hauen testua eta egileek erantsi zieten itzulpenak oso egoki konposatuak dira, fidelki emandako itzulpena da bera .

Iruzkina orokorrean 4.4. atalean ikusi denez, Cachopínek ez zuen faltsifikazioa iruzurtzat jotzen. Berak egiaztatzen zuen zerbait demostratu ahal izateko frogak asmatu beharra baldin bazegoen, zilegi zen hala jokatzeko. Azkenerako, gainera, iruzurraren asmatzailea sinestuta egon ohi da asmatutako hori egiatan benetakoa dela. Andramendiko eskriturei zahar itxura ematen egindako ahaleginak euren izaera apokrifoa ageri-agerian utzi bazuten ere, ezin zaie testuoi berezkoa duten balioa ukatu. Alde batetik, XVI. mendekoak izanik, euskal testu zaharren multzoan irabazia

dute lehen lerroko postua, antzinatasunagatik ez ezik, baita hizkuntzalaritzari eskaintzen dizkioten materialen kalitateagatik. Beste aldetik, ikuspegi literariotik ere badute zer aztertua.

Eskrituren testua ematean transkripzio paleografikora hurbiltzen saiatu gara, Ibarguenek emandakoa fidelki jasotzen, berak egindako zuzenketak ere aintzakotzat harturik. Bidegain eta Mitxelenaren oharrak ere kontuan izan ditugu, baina ahaztu gabe eurek egindako transkripzioa fotokopietan eta Rodriguez Herrerok egindako bertsio batean oinarritzen dela. Guk jatorrizkora jo dugu zalantzarik sortu zaigun bakoitzean. Aipatu egileek eskuizkribuko lerroak markatu bazituzten ere, guk ez dugu halakorik egin, eta agertzen diren barrak (/, //) Ibarguenek berak jarritakoak dira, ziur asko kopiatzen ari zen testuko markak errespetatu nahian edota zahar itxura erantsi nahian. Puntuaziorik ere ez dugu ezarri, eta letra larriak jatorrizkotik jasoak dira. Mitxelenaren transkripzioaren eta gurearen artean beste alde bat ere atzemango du irakurle arduratsuak, /i/ eta /y/ zeinuei dagokiena alegia, bata irakurritako zenbait /i/ bestearentzat /y/ baitira, eta alderantziz.

Lehen eskriturak Ubillos eta Ikartuco (sic) etxeen arteko bake hitzarmena jasotzen du, Andramendiko jauregian sinatua. Honela dio:

= *Andramendico jaureguyan / baguylaren²³⁴ emereçi egun garrenean / gure Jaunaren urte ygaroac / borrhseun / yru yrugeta lau / lecuan / dagos batuta / burua ysanyc / Onsalu²³⁵ / Onsaluch / guero gueyago / Onsalu / ta Lope / ta Ochoa orren semeac escutari ascogas / eguytecos baqueac / Aramac Ubillos²³⁶ gas / Romyrochyc / Artuco / en artean // Jaunoc aguyn[su] ta Obeylos ta ycartuco²³⁷ Ulertu / beralan / Apa lastan Alcar biac artudabe gustioen Amorean seculaco guyçon guexto eRi egorrochi banymendadua / aren²³⁸ / borondatearenbean Alan joso eguyen euraen caltesat =*

Eskritura honi buruzko zenbait xehetasun eman eta gaztelaniazko itzulpena egin ondoren, bigarren eskritura hau erantsi zuen:

²³⁴ Gaietik ezabatuta ageri da hitz hau.

²³⁵ Gaietik ezabatua hau ere.

²³⁶ Aurretik beste hitz bat zetorren idatzia, eta hura ezabaturik idatzi zen *ycartuco*, baina zaila da asmatzen zein zen aurreko hitz hura.

²³⁷ Hasieran *yartuco* idatzi zuen Ibarguenek, baina segidan ezkribauak berak zuzendu eta eman dugun aldaera ezarri zuen.

²³⁸ Gaietik ezarrita. Jatorriz *en* zegoen idatzirik.

*Andramendico Jaureguyaren Aurreco Arextian Elexearen Aldean
garagarrilaren ogueta borrs²³⁹ egungarreanean / dira ygaro gure
Jangoycoaren Jayaçea Urteric sazpi²⁴⁰ etaeun / berroquey etasorçi Aurrean
dagoçala Oña enganean Ochoa Onsaluch / burua dala / Aren Urrengo
Anage Lastanac / Anso / Joane / Onsalu // baygueyago onenbean /
Escutariric Asco darda bacoçac Euren baçarrean // etorri san Aurqui /
Laster / Atetirean Eneco Pagoetantayco²⁴¹ bere arma gueçi barriacas /
baesan Eçe bere Armaçarrac Ausi taletorra / bere Ayde naguçi
IbargoyengoEn Aurrean Eguyn Eusan Achacaba Andia gaytic / Ari ychita
letorra / Ona / gura dabela / Arena ysan / Ybargoyengoac leMan Artean
berea // gustioc Artudabe bereçat oraynganyc betico / Eneco Pagoetantayco
da Uacheguyn ta baesoan bere naguçiarì legues Ochoa Onsaluch / Agur
Agur /*

Testu honi ere bere itzulpena eman zion egileak, eta segidan euskararen inguruko aipamen interesgarriak egiten ditu eskrituren karian: Batetik dio eskrituren garaiko euskara garbia eta argia zela, eta Gernika inguruan egiten den (zen) euskararen antzerakoa zela garai haietako ebakera. Azken baieztapen honek bi helburu ditu, zalantzarik gabe: lehenik egileetako baten eskualdea, hau da, Ibargueneren Muxika eta inguruak (bestela esateko, Busturiako merindadea) goraiatzeko eta perfekzioaren eredu mailara jasotzeko, *Kronikaren* pasarte askotan egiten duen bezala, lurraren egokitasuna, emakumeen dotoretasuna edota sagardoaren eta besteren gozotasuna azpimarratzean. Bigarren helburua, bistan da, testuaren sinesgarritasuna bermatzea da, Gernika inguruko hizkeraz idatziak baitira.

Azkenik, nork edo nork zalantzarik balu antzinako mende haietan euskaraz idazten zenentz, argi utzi nahi digu egileak gutunak eta auzietako idazkiak euskaraz jazotzen zirela, garai hartan Bizkaia lurralde zabal eta boteretsua baitzen. Urteek aurrera egin ahala, ordea, guduek eta gatazkek biztanleen kopurua murriztu egin omen zuten eta lurraldea txikitu. Horren ondorioz, bertako auziak Valladolid-en

²³⁹ Ibargueneren *bost* idatzi zuen lehenengo eta gainera honela zuzendu.

²⁴⁰ Hasieran *yru* zioen, baina Ibargueneren gainera zuzendu zuen.

²⁴¹ Hasieran *Pagoeta* idatzi zen, baina ondoren zuzendu egin zen eta izen agertzen zen aldioro *Pagoetantay* jarrita zuzendu zen.

ikusi beharra etorri zen eta, jakina, gaztelaniaz. Hori dela eta, eskoletan gaztelaniaz irakasten da irakurtzen eta idazten (II: 60).

Azterketa linguistiko sakonagoak beste baterako utzirik, interesgarri deritzogu testuetako hizkuntza formaren batzuei buruzko iruzkinak egiteari, batez ere pasarteon ulergarritasunari begira.

1. *borss, eguytecos*. Ekialdeko zenbait euskalkitan ohiko diren forma hauek ustez bizkaieraz osatua den testu batean aurkitzeak harridura sor dezake, noski. Baina, antza denez, bizkaieraren arkaismo bat da, *Refranes y Sentencias* ko adibide honek erakusten duen bezala: *Oñac oz elejaracoz, vero ezconçaracoz* (142). Beste adibide bat, gorago aurkitu dugu (222. o.), Errodrigo Zaratekoren kantuan: *canporacos*.
2. *Aramac Ubillos, Romiroch Ycartuco*. Zenbait ikerle *Aramac* izenaren bukaerako ç euskal ergatiboaren marka zelakoan aritu dira, eta, ondorioz, esaldiaren esanahia ulergaitz aurkitu dute. Gure ustez, azalpen errazagoa du auzi horrek: *Kronikan* zehar euskal leinu askori jatorri galiarra eman izan zaie, ziurrenik leinuai balio nobleak erantsi nahian. III. mendetik VIII.era bitartean, gutxi gora-behera, hainbat zaldun iritsi omen zen “Galiatik” eta beraiek eraiki omen zituzten hainbat etxe eta leinu ezagun. Zaldun horietako askok, hain zuzen ere, ç-z bukatzen ziren izenak zekartzaten, hala nola, *Abuminic* (III: 168), *Tupac* (III: 244), eta abar. Gure ustetan, beraz, *Aramac* pertsona izena baino ez da, zapore exotikoduna, hori bai. *Ramiroch* izenari buruz gauza bera esan liteke, nahiz eta, gorago datorren *Onsaluch*-en antzera, patronimikoa ere izan daitekeen. Nolanahi ere, argi geratzen da izen hauen ebakeran Cachopínen ahalegin arkaizantea.
3. *aguinsu*. Tomoaren josturaren ertzean dator hitza, baina hala ere ez du irakurketak zalantzarik uzten. Gure ustez, *aguyndu* idatzi nahi izan zuen egileak, edo, gutxienez, hori dugu esaldiari ulergarritasuna ematen dion aukera bakartzat. Onsalu Onsaluch bere semeekin batera bakegintzarako bitartekari zela, honek bakerako deia egitean Ubillosek eta Igartuak “beralan” aditu eta burutu zuten, elkarri bakea emanaz.
4. *guiçon guexto eRi egorrochi banimendadua aren borondatearenbean. egorrochi* aditz partizipioaren aldaera bat kausi daiteke *Kronika* honetan bertan, “Marti Juanes Labierukoaren epitafioa”-n (II:160): “nor [ete] çan çuri

losa ygorrosi eguiçuna?”, eta “bota”edo “egotzi”-ren sinonimotzat har daiteke. *Banimendadua*, Mitxelenaren (1954: 843 eta 1964: 161) iritziari jarraiki, Leizarragak jasotako “banimendu”-tik eratorria litzateke, eta azken hau, era berean, “bahitu”-tik. Esaldiaren azalpena ematean, beraz, ohar gaitezen lehenik bi izen sintagmaren paralelismoa dugula, elkarren osagai bailiran, bata bestearen aposizio: “gizon gaiztoak” batetik eta “erbesterauak”, “lurretik egotziak” bestetik. Honela azalduko litzaiguke bakea sinatu zutenek beren hitza jaten dutenek jasotzen duten zigorraren jakinaren gainean sinatu zutela.

5. *darda bacoçac*. Iburguenek eta Cachopínek osatu kronika irakurriz gero, ez zaio irakurleari hitz hau arrotz egingo, hirutan atzeman baitaiteke lanean zehar, bere esanahi eta guzti, ezberdintasun fonetiko txiki batekin bada *ere* (*Dardobacoç(ac): escudero(s) de lanza y dardo en puño* (I: 681; II: 212; III: 184).
6. *atetirean*. Bizkaierazko ablatibo zaharra, *-rean*²⁴², *ateti* (“ate ondoa edo ingurua”) substantiboarekin.
7. *letorrela, leman; baesan, baesoan*. Arras interesgarriztat jo zituzten aditz forma hauek Bidegainek eta Mitxelenak (1954: 838-850), eta ez zitzairen, zinez, arrazoirik falta. Zulaikak (1999: 184-185) gogoratu digun bezala, euskal aditzean “hirugarren pertsonan azaltzen diren hasierako *d-* / *z-* / *l-* kontsonanteak pertsona markatzat hartuak izan dira”, baina autore honek berak erakutsi duenez, berez, aldi-modu markatzat hartu behar dira: “*d-* orainaldia eta hirugarren pertsona markatzen du; *z-* eta *l-* aurrizkiek, berriz, iraganaldia eta alegiazkoa hurrenez hurren, eta hirugarren pertsona”. Hala ere, ongi gogoratzen du Zulaikak (1999: 764h) *l-* aurrizkia menpeko perpaus kompletiboetako aditzetan zehar estiloaren adierazle dela, Bidegainek eta Mitxelenak arestian aipatu artikuluan²⁴³ eta Lafonek²⁴⁴ argitu zuten bezala. Horrela bada, *letorrela* iraganeko forma da esaldi kompletibo batean txertatua,

²⁴² Ikus 11.3.3. atala.

²⁴³ “Es evidente que aquí la presencia de *letorrela*, en lugar de *etorrela*, está únicamente determinada por el estilo indirecto y constituye por tanto un paralelo exacto al ejemplo de Dechepare citado por Lafon: *gaycez lagola ençun nuyen*” (1954: 846).

²⁴⁴ “Il ne s’agit plus de style indirect au sens propre du mot. Mais la narration a tout de même un caractère indirecte, le procès n’est pas envisagé et relaté par lui-même et directement, mais à travers la pensée de quelqu’un (1956: 19).

Lazarragak (1564) ere erabili zuen modu berean: *uste even çe sirena eta Silbia / eroan evenac letoçela aec bere eroatera* (13. aur.). *Leman*, bai, alegiazko forma litzateke. *Baesan* eta *baesoan*, berriz, *esan* aditzaren forma sintetikoak dira, *zer-nork* erakoa lehena eta *zer-nori-nork* erakoa bestea. Guk, *Kronikaren* hizkera aztertzean, 11. kapituluan, aoristoko formatzat jasoko ditugu (11.4.1.).

Kontuan izanda pasarte hauen “adin erreala” eta, gainera, egileak testuok zaharragotzen egindako ahalegina, aitortu beharra dago ulertterazak direla oso eta hizkuntzaren sen argiarekin eraikiak. Ez zaigu ezkututzen, halaber, tarteka darien tonu epikoa, Andramendiko eskriturak eskribauek jaso ohi zituzten protokolo dokumentuen hoztasunetik urruti uzten dituen.

5. ESAERAK.

Ezaguna da XVI. mendean esaera zaharrek sortu izan duten jakinmina. Besteak beste, Marques de Santillanak *Refranes que dicen las viejas tras el fuego* bildu zuen, Juan Mal-Larak ondoren *Philosophía vulgar* idatzi zuen esaerei bere komentarioak gehituz. Euskarazko erretrauei dagokienean, Garibayk bilduma txiki bat egin zuen Idiaquez-i bidaltzeko. Garai beretsuan bilduma luzeago bat ere idatzi zen, *Refranes y Sentencias*, oraingoz norena den ez dakiguna²⁴⁵.

Esaerak herri jakintzaren biltzaile dira, askotan memoria historikoaren laburpen eta oroigarri. Genealogista eta heraldistek ere oso maite zituzten, leinuen ekintza gogoangarriak modu eder horretan laburturik ederki atxiki baitzitezkeen ondorengoan memorian.

Cachopínek eta Ibarguenek bildutako esaera apur hauek ere genealogisten ikuspegi honetatik jasoak dira eta leinuen historia azaltzean errekurtsio emankorra gertatzen dira.

1. *Balioac balio, ta Ochandateguic asco* (I: 665). Ibarguenek 58. koadernoari gehitutako orrietako batean Otxandategi etxearen armarría deskribatu digu, esanez esaldi hori ere ageri dela armarríaren buruan, eta honela itzulia dator: “Lo que bale, bale, y Ochandategui bale mucho”.

2. *Bost guison ta Larrea, aldean darabilde guerra* (III: 270). “El de Larrea con cinco hombres trahe consigo guerra contra muchos”, honela itzuli zuten Ibarguen-Cachopínek Larrea etxearen gorespen esaera hau, aditzera emanez borrokarako zuen zaletasun mugagabea. Hain sutsu borrokatzen zen, hain zen ausarta, ezen berdin zitzaion ondoan batailoi bat izan edo eskuan atzamarrak adina gizon. Hizkerari dagokionez, *darabilde* aditz formak merezi du aipamena, baina beherago, 386. orrialdean arituko gara honetaz.

3. *Careaga Careaga sanean, es san leguiçamondarric es artunduagarric arean* (III: 125). Cachopínek Anton de Bedia arratiarraren liburua du oraingoan iturri eta bertatik jaso du esaera hau, zeinetan Kareaga etxeak garai batean izandako indarra eta handitasuna adierazi nahi baita. Etxe honek behea jo zuenean, Legizamon eta Artunduaga etxeak jabetu omen ziren bere lur eta

²⁴⁵ Zenbaitek Garibay berarena dela frogatu nahi izan du, baina Lakarrak (1996, *Refranes y Sentencias (1596), Ikerketak eta Edizioa*) erakusten duenez, hizkera, estiloa, erretrau kopurua eta abar kontuan hartuta, Garibay ez den batek bilduak dira erretrauok.

aberastasunez. Honela itzulia datorkigu goiko esaera: “Cuando Careaga hera Careaga, no abía ni ningunos de los de Leguiçamón ni menos tanpoco de los de Artunduaga”.

4. *Gaçean, gaçean, baya es Iburgengorean* (III: 264). Peña y Galdocha kronikariaren lanetik jaso omen da esaera hau eta dagokion azalpena. Juan Perez Arangiz eta Billelako jaunak hiru seme izan omen zituen; zaharrenari Billelako etxea eman zion, halaxe baitzegokion; bigarrena Butroeko Iburguen etxera ezkondu zen eta etxea berreraiki zuen; hirugarrena, aldiz Butroeko etxera ezkondu zen, berreraiki eta indartuz, era berean. Denborak aurrera egin ahala, nork bere etxea sendotu eta indartu egin zuen, eta apurka-apurka berpiztu egin ziren garai batean hiru leinuon artean izandako ezinikusi eta liskarrak, bereziki, Butroe eta Iburguen etxeen artekoak. Baina haserrealdietan ere ohi samarrekoak omen ziren barealdiak ere, eta, etxe bien artean bakea ezartzeko aitzakian, Iburgengoak Butroekoa gonbidatu zuen bazkari batera. Butroetik hirurogei lagun inguru hurbildu omen ziren Iburgenera eta, inolako susmorik hartu gabe, armarik gabe eseri ziren mahaira. Iburgengo jaunak agindua zien bere etxekoei mahaian ez zezatela gatzik jarri, eta, Butroekoek eskatuta ere, ez zezatela ekarri, bera joango zela gatzaren bila. Eta gertatu ere halaxe gertatu zen: Butroekoak jaten hasi orduko ohartu ziren mahaian gatza falta zela eta eskatzen hasi ziren, gero eta ozenago, ez baitzien inork kasurik egiten. Halako batean, Iburgengo jauna bera zutitu zen eta jangelatik atera. Butroekoak lasai geratu ziren gatz bila joan zelakoan, baina geroxeago mugimendu arraroak eta arma-hotsa zirudiena ere somatu zuten. Zutitu eta alde egitera prestatu ziren Butroekoak, baina ibarguendarrak gainera etorri zitzaizkien armaz eta butroetar gehienak hil omen zituzten bertan. Zauriturik ihes egin ahal izan zutenen artean Butroeko jaun zen Juan Perez omen zegoen, Iñigo Urtis Iburgengo jauna bera hiltzen saiatu zen arren. Gure kronisten esanetan pasadizo honetatik dator esaera hau, eta mahairen baten gatza falta zenetan esan ohi zen *Kronika* idatzi zen garaian. Honela dator esaera gaztelaniara itzulia: “Benga sal, benga sal, pero no de la Iburguen”.

5. *Guerrea espa baquea, gustia da enea* (II: 426). Cachopín semeak, Alfonso Castilla genealogista aipatuta, dioskunez, Fruiz etxeak bere jatorrizko armarrarian hitz hauek zeramatzan orlan, arerioei mehatxu eginez berarekin gerra

nahi izanez gero, gerra izango dutela, eta bakea nahi izanez gero, bakea emanen diela, ezen, gerra eta bakea, dena bere esku baita. *Espa*, beraz, “ez bada”-ren kontrakzioa dugu.

6. *Madaria ta Muxica, [biac] frutu on bi dira* (I: 101; III: 8). Esaera hau egileek osatu zuten aurkibidean dator, desagertutako 139. koadernoaren edukiaren berri emanez.

7. *Sarria, sarri, gabyan argi* (I: 690). Esaera hau ere XVII. mende hasieran gehitutako materialen artean aurkitu dugu, Getxoko Sarria etxeari buruzko testuan. Etxe honetako armarrarian hitz horiek ageri omen dira eta gaztelaniaz “a menudo, a menudo, de noche la luz” esan nahi omen dute. *Kronikan* azaltzen denez, Sarria etxeko bat bere gizonekin ingelesen aurka itsasoan borrokan ari zela, armek diz-diz egiten omen zuten eta gauaren erdian argia ematen. Hura ikusita, Sarriakoak, bere gizonak adoretu nahian edo, zera esaten zien behin eta berriz: *Sarria, sarri, gabyan argui* (birritan dator idatzia esaldia eta bigarrenean *gabean* dio). Mitxelenak (*TAV*: 171) *sarri* transkribatu zuen beti, baina ez dugu zalantzarik *sarria* dioela esaldi bien hasieran. Berez, gure ustetan, esaera honetako *sarri* –k “tupido, espeso” esan nahi du, eta *sarria sarri* esamolde kontsesiboa da, *kontuak kontu* edo *esanak esan*-en modukoa.

8. *Vaquio lacquio guaraquio* (II: 25). Egileek 64. kuadernoan gehitutako materialen artean, Bizkaiko jaurerriaren historia laburtu bat aurki dezakegu, eta bertan esaera. Ozpin edo Ozmin zeritzan Bizkaiko jauna hil zenean, leondarrek, nafarrek eta asturiarrek Bizkaiko jaun bihurtu nahi izan zuten eta jaurerria mendean hartu. Bizkaitarrek Froon izendatu zutenean Bizkaiko jaun, asturiarra lurraldean sartu zen, bera izenda zezatela eskatuz, sortzez jaurerri hartakoa baitzen. Asturiarrak euren gobernatzeko moduak errespetatuko zituela agindu omen zien bizkaitarrei, eta bakea ziurtatuko ziela, lagundu baino ez ziela egin nahi eta. Sartzeko baimena lortuta, lege-hauste eta lapurreta ugari burutu zituzten asturiarrek Bizkaiko lurretan zehar. Azkenik, Froon jaunak eta bere semeek Bakio aranak duen irteera estu eta sakonean, Arruondegui izeneko lekuan, non ozta-ozta ibil baitzitekeen handik zaldi bat, eraso egin zieten asturiarrei eta bertan akabatu omen zituzten ia denak. Egileak honela itzuli zuen esaera: “Guardate del lazo de Vaquio”. *Guaraquio*, beraz, “guarda hakio”-ren forma laburtua edo irakurketa

okerra litzateke. Ikus Mitxelenaren azalpenak (*TAV*: 172). Azkuek (1926: 680) ere komentatu zuen esaera hau.

6. ESALDIAK.

Erromantzez emandako prosan zehar, oso noizbehinka, *Kronikaren* irakurleak euskarazko zenbait esaldi edo esamolde aurkituko ditu, narrazioari bizitasuna eta hurbiltasuna ematen diotenak. Euskararen lekukotasun hauek, kanta zaharrek eta esaerek bezalaxe, herritarren memoria kolektibotik jasoak dirudite eta ez kronistaren lumatik sortuak. Horregatik esango nuke nik garrantzitsuak gerta dakizkiokeela euskalaritzari, hizkuntzaren fonologia, lexiko zein morfologiaren ikuspegitik.

1. *A jo, ja[c], erac! (...)* *A jo, jac, erac, Jacoaren odola!* (I: 557) Egileek *A jo* “Dale al que señalo” itzuli zuten. *Jac* eta *erac* formak gaurko “jo ezak” eta “hil ezak” izan litezke (*ero* aditz zaharra Refranes y Sentencias-en ere aurki dezakegu jokatu: *Erioak ereçan Butroeco alabea Plençian*). *Jacoaren odola*, berriz, Iacobo sainduaren izena ahotan hartuz jaurtitako formula dirudi, etsaiak uxatzeko edo, batez ere kontuan izanda esaldia bota zuena Salinasko kontea izan zela, Haroko kontearekin batera bizkaitarrei egindako erasotik onik atera ahal izateko. Urquijok (1922: 234) argi ezarri zuen esaldi honen parekotasuna Refranes y Sentencias-eko 272.aren: *Iac, erac ta çeguioc trancart* (“hiérelle, dale, mátale y no le hagas falsía”). Esaldi hau hizpide hartuta, *Kronikaren* egileek gaztelaniazko esaera bat ekarri zuten gogora, “Ajo, pero no el de Munguía”, zeinetan adierazten den Salinasko konteak pentsatzen zuela euskarazko esaldi horretan baratzuria hartzen zutela ahotan bizkaitarrek. Pasadizo hau, barregarri izan ala ez, garrantzitsu gertatzen da fonologiarako, *j*-ren ahoskerak izandako bilakaeran argigarri gertatzen baita. Gaztelaniaz eta euskaraz doinu beretsua baldin bazuen, horrek esan nahi du, gutxienez Bizkaian, afrikatu sabaiaurrekoa zela, [ž], eta doinu belarea geroago etorri zela, Mitxelenak dioen bezala (1977: 168-171), ziur asko gaztelaniaren beraren eraginez.

2. *Agur, agur* (II: 59): “beso pies y manos de v. señoría ilustrísima”.

3. *Aita bichia, se bichiac dira onec?* (III: 261): “¿Padre [...], qué cosas hermosas son estas?”. Cachopínek testu honetan hitz jokoa egiten da *aitabitxi* eta *bitxi* hitzen artean. Zamudioko jauna gudutik itzuli da zauriz beterik eta ilobak gorputzeko odola ikustean galdetu dio zer diren *bitxi* gorri eder horiek. Salazarrek pasadizo bera modu ezberdinez kontatzen du: Ilobaren diosalari (*aita uichia!*),

osabak erantzun dio “si supieses que vichias yo he hoy ganado para tí, no te alegrarías como te alegras”²⁴⁶.

4. *Aita onaen semeac* (I: 48). *Aitoren seme* edo *aitonen seme* esamoldearen jatorri etimologikoa zuzen azaldu zigun Cachopínek.

5. *Alaxeyala*: “séalo” (III: 19). (Ikus Etimologiak: Ayala). Cachopínek emandako etimologiari jarraiki ez da zail lehenbiziko osagaia ikusten, (*h*)*alaxe*, erakusle indartua; bigarrena, ordea, ilunago da; beharbada, *yala* “izan”-en subjuntibozko forma izan liteke, [d]> [j] bustidura gertatu ondoren (*dala*>*yala*).

6. *Ara, ara, andrasko mendia* (II: 55). Andramendi deituraren etimologia azaltzeko kontakizunean datorkigu esaldi hau, argia esanahiaren aldetik. *-zko* atzizki instrumentala ez da esamolde honetan beharrezkoa eta ikuspegi gramatikaletik zalantzan jartzekoa litzateke; *andra mendia* esatea aski luke, zuzenago litzateke eta gainera etimologia azaltzen bete-betea asmatuko luke horrela.

7. *Au il eguidaçu, uillau au il eguidaçu!* (I: 563). Errodrigo Zarateko preso hartu zuen Pedro Abendañokoak, Zuiako lurrak beretzat nahi baitzituen, Beloradoko alkaidearen laguntzaz, eta azken honen zaintzapean geratu zen Zaratekoa. Abendañokoak, ordea, ez zebilen lasai, hilda ikusi nahi zuen bere etsaia, eta bere gizonak zirikatzen ematen zuen eguna, preso zegoena akabatu zezaten, zaindariak oharkabea harrapatuta. *Kronikaren* arabera, Abendañokoak errepikatzen zien esaldi hau bere gizoni. Azpimarra dezagun, bada, aditzaren *-çu* desinentziak 2. pertsonaren plurala adierazten duela, euskara zaharraren ezaugarri.

8. *Becoac goicoa escondu ley di . ta cheac andia bençiliri asmuz ta jaquitez* (I: 665). Gizaburuagako Bengoetxea leinuak dakarren armariari datxekion esaldia dugu hau. Esaldi aski hedatua, antza denez, euskal heraldikan, izan ere Markinako Aulestia etxeak ere badu armari bat, zeinetan esaldi bera irakur baitaiteke, aldaeraren batekin: "Benguak gikuaz · eskondu leidi · reiti danian · nai ekitez · ta xikijak aundijaibenzi leidi · asmuz ta jakitez"²⁴⁷. *Escondu leydi* eta *bençi liri* aditz formak laguntzaile berarekin osatuak direla esango genuke, nahiz bigarrenak aldaketa fonetikoak izan, eta *egin*-en ahalera formak direla dirudi.

²⁴⁶ Libro XXIII, f. 75, p. 177.

²⁴⁷ EGIPV, Auñamendi enziklopedia.

9. *Bego eben doaoñez* (II: 49): “Estese y quédese aquí este instrumento y arma”. Euskaldunek erromatarren aurka erabili omen zuten armaz mintzatzean. Hiztegia aztertzean *doaoñez*, zein *oñezdoa* terminoei buruzko argibideak emango ditugu. Fonologiaren ikuspegitik bokal arteko *b/m* alternantziaren lekukotasu argigarria aurki genezake: *Kronikak eben* forma zaharra ematen digu, Beltran de Echaux-ek 1585ean idatzitako gutun batean bezala: “Heven àhal beçala nuçu”²⁴⁸.

10. *Daygun gueldi oñez* (II: 48): “Andemos poco a poco”; “descansemos”. Oñez eta Ganboa bandoen sorrerari buruzko hirugarren bertsioa. Gaztelaniazko itzulpenari begiratuta, lehen azalpenari egin behar zaio so eta kontuan izan gaurko euskaran “oinez egin daigun geldiro” esan nahi dela, *gueldi* adberbiotzat hartuta.

11. *Ene semeac, saguyteas eury!* (I: 562). Juan Abendañokoak, Abendañotxeak, bere gizonei guduetan errepikatzen zien esaldia da hau, adorea emanez, “deziéndoles que tirasen tantas saetas que llobiesen con ellas”. Cachopínek jasotako testu eta aipuetan oso argi bereizirik ageri dira instrumentala (-az) eta sozietiboa (-a)gaz), segidan ikusiko den bezala.

12. *Eztu nigaz* (II: 108): “aprieta conmigo”; *suc estu nigas* (III: 151): “Apretaos conmigo ...”. (Ikus Etimologiak: Estuniga).

13. *Gal indi gazte on* (I: 505): “perdíste jóven bueno”. **edin* aditz zaharraren lekukotasun interesgarria, 2. pertsonan. Aditzaren jokamolde logikoari jarraiki, bukaerako *-n* falta duela nabari da (*hindin*)²⁴⁹, baina ez bide zen ezinezkoa, 3. pertsonako *zidin* ere askotan ikusi baitugu testu zaharretan bukaerako sudurkaria galduta (*RS 294: Iaygui cidi naguia, erra cizan uria*).

14. *Ganboa onec* (II: 39): “Bayan arriba estos”. Oñez eta Ganboa bandoen sorrerari buruzko bigarren bertsioan emandako esaldi honetan kontuan hartzekoa da *joan* aditzaren inperatiboari eman zaion forma, *boa*, hurrengo adibidean datorren *bioa*-rekin elkarbizitzan.

15. *Ganera bioa* (II: 38 eta 49): “Baya arriba”. Oñez eta Ganboa bandoen sorreraz mintzatzean hau ere.

16. *Jaunsat ac bioça, ac dau bioça, ac bioça dau* (III: 186): “Para señor aquél ha o tiene corazón”. (Ikus Etimologiak: Apioza).

²⁴⁸ TAV: 155.

²⁴⁹ Ikus gorago 226. o.

17. *Laster gan bioa, ganera bioa, ganboa* (II: 48): “De presto con esta carga bamos y subimos a lo alto arriba”. Oñez eta Ganboa bandoen sorrerari buruzko hirugarren bertsioa azaltzean ematen zaigu esaldi hau. Agerikoa da egileek gaztelaniaz emandako itzulpenak koherenteago direla gaztelaniazko prosarekiko, euskal esaldi edo aipuekiko baino.

18. *Min jac a!* (III: 356). “Lastímale, dale a aquél”. (Ikus Etimologiak: Mentxaka).

19. *Obe illos* (III: 47): “mejores los muertos” itzuli zuten Iburguen-Cachopinek, baina agian egokiago asmatuko zuten “mejor muertos” itzuli izan balute. (Ikus Etimologiak: Ubillos).

20. *On çu eta ni* (III: 168): “El que quisiese ser bueno alléguese a mí”; esaldi luze honekin eman ziguten aditzera Unzueta izenaren esanahi etimologikoa. (Ikus Etimologiak: Unzueta).

21. *Onez doa, ondo dagos* (II: 39): “Estos a pie ban, bien estan”. Oñez eta Ganboa bandoen sorrerari buruzko bigarren bertsioa.

22. *Onez eguyçu, onez daygun guychitan* (II: 37): “A plaços o quedaos en pie, para[...] un poco”. Oñez eta Ganboa bandoen sorreraz mintzatzean (ikus gorago, 10.).

23. *Or dosoc aurrera!* (I: 560): Elorrioko guduan oñeztarren alde borrokatzera joandako Salazarko lau semeak hilak izan ondoren, euren gorpuak gurdiz eramane zituzten Bilbora, handik Portugaleteraino ontziz abiatzeko asmoz. Martin Ruiz Basurtokoak gorpuok gurdi hartan igarotzen ikusi zituenean bota omen zuen esaldi hau, mespretxuz, hikako trataerak adierazten duenez. Handik gutxira Salazarkoek dorretxea erre omen zioten Basurtokoari.

24. *Oro bioc eguin dogu* (III: 256): “Todo los dos lo hemos hecho”. (Ikus Etimologiak: Orobio). *Oro* mendebaldean ohikoa genuen XVI. mendean; *Refranes y Sentencias* 245: “Guiçonoc oro buru balz” (Lakarra 1996); Lazarraga: *munduan diran podere oro / escuan dituanari* (50 atz.).

25. *Osatu nosu eta ysan dot gau ona* (II: 54). Gaona izenaren etimologia azaltzeko kontakizunean.

26. *Sein Çallo, sein Mallo* (III: 115): “Tanto tiene Çallo como Mallo”. Zallo leinuko pertsonaiei buruzko narrazioan, gertakizun bitxi eta barregarri bati

dagokio. *Hala ... nola ...* gisako moduzko esaldi hau bitxi gertatzen da, eta zinez interesgarri.

27. *Yarzai, yarçai* (II: 77): “...que quiere dezir que tomara el oso, ...”. Iarza deituraren etimologia azaltzean.

7. HIZTEGIÑOAK.

XVI. mendean, errenazimenduko haize berriekin, literatura indartsua sortu zen, batez ere hizkuntza erromaniko gazteen giroan. Horrekin batera lexikografia ere sortu zela esan liteke, han eta hemen ugalduz joan baitziren hiztegitzako lanak. Euskarari dagokionean, aurretik ere eginak ziren ahalegin zenbait hitz zerrenda laburren bidez bidaiarien ibiliak erraztu nahian: XII. mendekoa da ezagutzen dugun lehen hitz zerrenda, Compostelara bidean Aimery Picaud frantsesak bildua.

Urgellek (200?) bildutako datuei so eginda ongi ikusten da hitz zerrendak ugaltu egin zirela hurrengo mendeetan. Arnold von Harff koloniarrena (1496-99 tartean bildua, euskara-alemana), L. Marineo Siculo siziliarrarena (1530, latina-euskara eta gaztelania-euskara), G. B. Venturino da Fabrianorena (1572, euskara-alemana bertsioan soilik ezagutzen dugu) eta Guillaume Manier pikardiarrarena (1726, frantsesa-euskara) aipatzen dira lan horretan. Hitz zerrenda laburrak dira (luzeenak, Manierrenak alegia, 71 sarrera ditu), bidaiarien harremanetan lagungarri izan zitezkeen osatuak. Hiztegien alorrean kokatzea merezi duen lehen lana 1562an Landuchio-k²⁵⁰ idatzitakoa da.

Diogun bezala, XVI mendean Europan zehar hainbat *bocabularia* edo hitz zerrenda ikus zitezkeen, gehienak bidaiarientzat pentsatuak, Konpostelako bidea zela eta, erlazio komertzialak errazteko. Esku artean dugun “Vocabulario”-a (bi zatitan berezia: gaztelania-euskara eta euskara-gaztelania) ere talde horretan kokatu beharko litzateke, alde batetik bere luzeragatik (lehen zatian 100 sarrera eta bigarrenean 150 zenbatu daitezke) eta bestetik bere izaeragatik, bidaiariari laguntzeko asmoz, alor semantiko jakinetara mugatua baita egindako hitzen aukera (janariak, gorputz-atalak, arropa eta apaingarriak, ...). Horregatik hain zuzen, ez du ageri garbizalekeria arrastorik, hitz asmatuak, eta ez dario apolojisten espiriturik, mende bat edo bi geroago izango zen bezalaxe.

7.1. Hiztegi txikiak edo “vocabularios”.

Esana dugu Madrilgo BN-eko eskuizkribu saileko 11.760 tomoan gordetako paperen artean Juan Carlos Guerrak *Kronikari* zegozkion materialak

²⁵⁰ Landuchius, N., [1562], *Dictionarium linguae cantabrigae*, Manuel Agud eta Luis Michelena-ren edizioa, ASJU, 1958.

atzeman zituela 1883an, guztiak ere anabasa handian koadernatuak. Material horien artean hiztegi edo bokabulario txiki batzuk aurki zitezkeen, aski interesgarriak, baina 1983an Ibon Sarasolak argitara eman zituen arte ez zien inork seriozki erreparatuko²⁵¹. Lakarrak (1992) emandako sailkapenaren arabera “hitz zerrenda eta hiztegiñoen arteko” lirakeke bokabulario hauek.

Hiztegiño honen bi atalak 411tik 499ra zenbakitutako orri txikietan idatziak datoz, *Kronikan* ez ohiko euskarria. Aski ongi kontserbatuak daude, eta, noren eskuak idatziak diren esaterik ez badugu ere, irakurtzen errazak dira. Bestalde, “Índice de nombres ...” deritzonean hiztegi hauei buruzko aipua Iburguenen semeak sartua da, N hizkiari eskainitako kapituluan, aitak idatzitako sarreren atzetik. Honek guztiak argi adierazten du hiztegi txiki hau oso berandu erantsi zitzaiola *Kronikari*, hau da, XVII. mendearen hasierako urteren batean.

a) “Vocabulario castellano-vascuence”. 84. koaderno (II: 235-238). Hiztegiñoaren lehen zatian 100 euskal hitz inguru zenbatu daiteke, gaztelania-euskara formatoan emanak eta esanahiaren arabera eremu semantikoetan bilduak: gorputz-atalak, jantziak, baso-mendietako gaia, fruituak, arrainak, abereak, aberekiak, eta zenbait esamolde.

b) “Vocabulario vascuence-castellano”. 84. koaderno (II: 239-244). Bigarren zatian 150 bat hitz biltzen dira, aurreko hiztegiñoan datozen guztiak barne direla. Oraingo honetan, ordea, hiztegien usadioek²⁵² agindu bezala zerrendatu ziren hitzak, hizkiz hizki, *a*-tik *z*-ra, euskara-gaztelania formatoan, nahiz eta orden alfabetikoa ez den bigarren letrarekin gordetzen.

Beste hiztegiño bat ere aurkitzen ahal da Madrilgo BNko paper horien artean, baina ez da berez bokabularioa, hiztegi etimologiko baten antzera osatutako zerrenda labur bat baizik. 460tik 461era zenbakitutako folio bitan, Baltasar de Echave idazlearen aipamen xume bat tartean dela, norbaitek euskal jatorria duketen izen batzuk bildu zituen ondoren gaztelaniazko azalpena emanez. Baltasar Etxabekoak bere lanean garatua zuen metodo bera darabil zerrenda hau

²⁵¹ Sarasola I., 1983, “Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos”, *ASJU* XVII (1983), Donostia, 69-212 (geroago: *Anejos del ASJU*, XI (1990), 295-307.

²⁵² Gogora dezagun laburki hiztegiñoaren lege zaharrak hitzak gaika antolatzea eskatzen zuela, ordena kontzeptuala jarraitzea, alegia. Gero etorriko zen lehen letrari begira alfabetikoki ordenatzea eta ondoren orden alfabetiko zorrotzari lotzea. Mintzagai ditugun vocabulario hauek badute gaikako antolamenduaren arrastoren bat, irakurlea lehen begiratuan ere atzeman dezakeena.

osatu zuenak ere, munduko toki askoren izenak euskal jatorria duela erakutsi nahian. Orri hauetan bada beste datu enigmatiko bat ere, hain zuzen ere *Libro Pequeño de Vizcaya* deritzon liburu bat, nondik, antza denez, jaso baitziren hiztegi honetako izenak. Iburguenek idatzitako aurkibideetan arakatu ondoren, 176. koadernoari dagozkion materialak direlakoan gaude (III: 305), baina ezin zaie hiztegi izena eman.

84. koadernoko hiztegiari, beraz, “Vocabulario de Iburguen-Cachopín” deituko diogu, edo “Iburguen-Cachopínen hiztegi””. Goian aipatu dugun edizioan Sarasolak ez zuen hiztegi txiki honen egilea zein den zehazterik izan; guk ere ezin izan dugu helburu hori erdietsi, baina argi dago *Kronikaren* zati dela eta egileek bertan agertzea nahi zutela. Esan bezala, 1600 urtearen inguruan idatzia da; Sarasolak 1605 urtea baino lehen idatzi zela dio. Idatzia izan ondoren, hala ere, “intentzio oneko” zenbait eskuk zuzenketak egin izan dizkiote, hitzen gainean ezabaketak eta gehiketak eginda.

Gure edizioaren II: 235-244 orrialdeetan aurkituko du ikerleak hiztegi honen transkripzioa, orrialde zenbaki eta guzti, baina guk hemen formato erabilgarriagoa eman nahi izan diogu azterketa erraztearren, beti ere jatorrizko ortografiari zintzo eutsita:

1	a Dios	<i>Jaungoicoa</i>
2	al hombre	<i>guiçona</i>
3	a la muger	<i>andrea</i>
4	a la iglessia	<i>eliça</i>
5	a la caueça	<i>burua</i>
	al cauello	<i>yllea</i>
	a la frente	<i>becoquia</i>
	a los ojos	<i>beguiah</i>
	al narís	<i>sudura</i>
10	a la boca	<i>aoa</i>
	a los dientes	<i>orcah</i>
	a las muelas	<i>aguinah</i>
	a los labios	<i>españnah</i>
	a las cejas	<i>becaraycah</i>
15	a la barva	<i>bicarra</i>
	al braco	<i>besoa</i>
	al dedo	<i>beacah</i>
	a la mano	<i>esqua</i>
	a las unñas	<i>ascaçalah</i>
20	a la muñeca	<i>esqumutura</i>
	a la barriga	<i>çauela</i>
	a las rodillas	<i>belavnah</i>
	piernas	<i>guidallah</i>
	pies	<i>onñah</i>
25	a los bestidos	<i>conñecoac</i>
	a la ropilla	<i>jaca</i>
	calçones	<i>galçac</i>
	a la camisa	<i>atorra</i>
	al fereduelo	<i>capa</i>
30	a las medias	<i>galçerdiah</i>

	al sombrero	<i>sonbrelua</i>
	al cuello	<i>gorgera</i>
	a los puños	<i>escumuturah</i>
	a la balona	<i>balona</i>
35	a las puntas	<i>crisqua</i>
	a la espada	<i>espata</i>
	a la daga	<i>daga</i>
	cuchillo	<i>canibeta</i>
	a las tijeras	<i>gurayçeah</i>
40	a los çapatos	<i>çapatah</i>
	açadador	<i>burunçia</i>
	acha	<i>ayzcora</i>
	al candill	<i>criçelua</i>
	fuego	<i>çua</i>
45	piedra	<i>arria</i>
	cal	<i>carea</i>
	arena	<i>ondarra</i>
	polvo	<i>auça</i>
	roble	<i>ariça</i>
50	madera	<i>çura</i>
	tabla	<i>ola</i>
	clavo	<i>yçea</i>
	[y]erro	<i>burnia</i>
	herería	<i>ola</i>
55	carbón	<i>ycasa</i>
	lenña	<i>egura</i>
	acebo	<i>gorostia</i>
	argoma	<i>otea</i>
	espinas	<i>arançah</i>
60	tierra	<i>lurra</i>
	la uerta	<i>baraçea</i>
	perexill	<i>perrexilla</i>

	berça	<i>acaah</i>
	çebolla	<i>tipula</i>
65	cama	<i>oea</i>
	mançana	<i>çagarra</i>
	pera	<i>udarea</i>
	çiruela	<i>arana</i>
	guinda	<i>guinda</i>
70	cereça	<i>gerecia</i>
	nues	<i>ynchaurra</i>
	abellanas	<i>urrac</i>
	al pescado	<i>arrañña</i>
	trucha	<i>amoarrañña</i>
75	bermejuelas	<i>escalua</i>
	merluça	<i>legaça</i>
	besugo	<i>eroçela</i>
	perlón	<i>perloya</i>
	ballena	<i>balea</i>
80	congrío	<i>aynguirra</i>
	curbina	<i>andeça</i>
	çalmón	<i>yçoquia</i>
	almexas	<i>chirla</i>
	nao	<i>onçia</i>
85	equife	<i>batel andia</i>
	ancora	<i>ayngula</i>
	nola dariço	<i>cómo se llama</i>
	gizon prestua	<i>hombre honrado</i>
	obeja	<i>ardia</i>
90	cabra	<i>aunça</i>
	cordero	<i>bildoça</i>
	cabrito	<i>ançumea</i>
	toro	<i>çeçena</i>
	buey	<i>ydia</i>

95	cavallo	<i>çaldia</i>
	macho	<i>mandoa</i>
	yegoa	<i>beorra</i>
	cuchino	<i>urdea</i>
	tucino	<i>urdaya</i>
100	baca	<i>gelia</i>
	carnero	<i>ariquia</i>
	baço	<i>barea</i>
	igado	<i>guibela</i>
	coraçón	<i>bioça</i>
105	rinñones	<i>guilsurinah</i>
	cuernos	<i>adarrah</i>
	arcabús	<i>arcabuça</i>
	mosquete	<i>musquetea</i>
	llave	<i>guilça</i>
110	[ç]erraja	<i>Çarralla</i>
111	bino	<i>Ardo</i>
112	Agur Jauna , no le dixo, ya le dixe, sino que se le olvidó pero caro le costó. [...] Ayta ²⁵³ .	

²⁵³ Testu labur hau Iturrizak berridatzi bide zuen, idazkera berea baita.

Índice de algunos vocablos de vascuence reducidos y vertidos en castellano. Todos los que acaban en ac son plurales.

A.		
113	<i>Andrea</i>	muger
114	<i>Aoa</i>	boca
115	<i>aguinach</i> ²⁵⁴	muelas
	<i>ascazalach</i>	uñas
	<i>atorra</i>	camisa
	<i>ayzcora</i>	hacha
	<i>Arria</i>	piedra
120	<i>Auza</i> ²⁵⁵	polvo
	<i>Ariza</i>	roble
	<i>Azaach</i>	berzas
	<i>Arana</i>	ciruela
	<i>Arraña</i>	pescado
125	<i>Amoraña</i> ²⁵⁶	trucha
	<i>Aingura</i>	congrío
	<i>Andeza</i>	curbina
	<i>Aingula</i>	Ancora
	<i>Ardia</i>	obeja
130	<i>Aunza</i>	cabra
	<i>Anzumea</i>	cabrito
	<i>Ariquia</i>	carnero
	<i>Adarrah</i>	cuernos
	<i>Alcabuza</i>	arcabuz
135	<i>Ardoa</i>	vino
	<i>Ardaya</i>	tocino
	<i>Aranzac</i>	espinas
	<i>Azpicoa</i>	de abajo
	<i>anci</i>	Camino

B.

²⁵⁴ Geroago egindako zuzenketa: h ezabatu.

²⁵⁵ Geroagoko zuzenketa: z-ren gainean s.

²⁵⁶ Geroago zuzenduta, *amoarraña* geratu da.

140	<i>buru o</i>	qaue, extremo
	<i>Burua</i>	cabeza o punta
	<i>Becoquia</i>	frente
	<i>Beguiac</i>	ojos
	<i>Becaraicah</i> ²⁵⁷	cejas
145	<i>Biçarra</i>	barba
	<i>Besoa</i>	brazo
	<i>Beaçah</i>	dedo
	<i>Belaunah</i>	rodillas
	<i>Balona</i>	balona
150	<i>Burunçia</i>	asadador
	<i>Burnia</i>	fierro
	<i>Baracea</i>	guerta
	<i>Balea</i>	ballena
	<i>Batelandia</i>	esquife
155	<i>Bildoza</i> ²⁵⁸	cordero
	<i>Beorra</i>	yegua
	<i>Barea</i>	vazo
	<i>Bioza</i>	corazón
	<i>basoac</i>	arboledas o robledales
160	<i>barria, berria</i>	nueva, nuevo
	<i>bengoa</i>	vaja o vajo
	<i>berengoa</i>	cosa que está abajo y es infima
	C.	
	<i>coñecoac</i> ²⁵⁹	vestidos
	<i>capa, capea</i>	ferreruelo
165	<i>criscua</i>	puntas
	<i>canibeta</i>	cuchillo
	<i>cricella</i> ²⁶⁰	candil

²⁵⁷ *Becaraiac* utzi du zuzentzaileak.

²⁵⁸ Ondorengo zuzenketan *ç* idatzi zen *z*-ren gainean.

²⁵⁹ Zuzentzaileak *soñecoah* hobetsi zuen.

²⁶⁰ Zuzentzaileak *cruselua*.

	<i>carea</i>	cal
	<i>cecena</i>	toro
170	<i>chirla</i>	almexas
	<i>capelea</i>	sombrero
	<i>caposeya</i>	capote de faldas
	<i>catraderea</i>	silla o catreda
	<i>cirarra</i>	plata
175	<i>cidor</i>	lodoso y angosto
	D.	
	<i>Dagea</i>	Daga
	E.	
	<i>eliza</i>	iglesia
	<i>españah</i>	labios
	<i>escua</i>	mano
180	<i>esquumutura</i> ²⁶¹	muñeca
	<i>escumuturrah</i>	puños
	<i>espatea</i>	espada
	<i>egurra</i>	leña
	<i>escalua</i>	bermejuelas
185	<i>erocela</i> ²⁶²	besugo
	<i>echa, echea</i>	casa
	<i>eguia</i>	cosa que se descubre desde lejos, como costa, villa.
	G.	
	<i>Guizona</i>	hombre
	<i>guidallah</i>	piernas
190	<i>galzac</i>	calzones
	<i>galcerdiah</i>	medias
	<i>gorgera</i> ²⁶³	cuello
	<i>gurayceah</i>	tixeras
	<i>gorostia</i>	acebo

²⁶¹ Gaietetik idatzia: *escubuturra*.

²⁶² Zuzendurik: *errosela*.

²⁶³ U gehituta: *gorguera*.

195	<i>guinga</i>	guinda
	<i>gerecia</i>	cereza
	<i>gelia</i> ²⁶⁴	baca
	<i>guibela</i>	ígado
	<i>guilzurrinah</i> ²⁶⁵	riñones
200	<i>guilzea</i>	llabe
	<i>gaztelua</i>	castillo
	<i>garaicoa</i>	de arriba
	<i>goycoa</i>	arriba
	<i>gayña</i>	Sobre
	H.	
	J.	
	<i>Ju</i> ²⁶⁶ <i>Goicoa</i>	Dios
	<i>Jaca o jaquea</i>	ropilla
	<i>Ydoyac o Ydoyeta</i>	cenegal o charco donde se rebuelcan cochinos
	L.	
	<i>Lurra</i>	tierra
	<i>Legaza</i>	merluza
210	<i>Lora</i>	en flor
	<i>Larrea</i>	tierra inculta
	<i>Laarra</i>	zarza
	M.	
	<i>Mandoa</i>	macho
	<i>musquetea</i>	mosquete
215	<i>madaria</i>	pera
	<i>mendia</i>	monte o collado
	<i>macaceta</i>	perales silvestres
	N.	
	O.	
	<i>orçah</i>	dientes

²⁶⁴ U gehituta: *guelia*.

²⁶⁵ Gaietik ezabatua; ondoren *guilzurrinac* idatzi zuen zuzentzaileak

²⁶⁶ Gaietik zuzendua: *Jaun*.

	<i>oñah</i>	pies
220	<i>ondarra</i>	arena
	<i>ola</i>	tabla
	<i>olea</i>	herrería
	<i>otea</i>	argoma y argomales árbol
	<i>oea</i>	cama
225	<i>oncia</i>	nao
	<i>ondo</i>	falda o pie, y cabo bajo de algo
	<i>ondarza</i>	arenal
	<i>P.</i>	
	<i>Perregilla</i>	peregil
	<i>perloya</i>	perlón
230	<i>pindolea</i>	pluma de escribir
	<i>plumea</i>	cualquier pluma
	<i>plumagea</i>	plumage
	<i>papera</i>	papel
	<i>picua</i>	higo
235	<i>piquea</i>	pez
	<i>pagoloa</i>	ayas que estan en recueto
	<i>R.</i>	
	<i>S.</i>	
	<i>sudurra</i>	naríz
	<i>sombrelua</i>	sombrero
	<i>soroa</i>	heredad
240	<i>silia</i>	silla
	<i>salbaderea</i>	salbadera
	<i>T.</i>	
	<i>Tipula</i> ²⁶⁷	cebolla
	<i>tintea</i>	tinta
	<i>U.</i>	

²⁶⁷.Erantsita, jatorrizkoa ezabatu gabe: *tipulea*.

	<i>Ura</i>	agua
245	<i>udarea</i>	pera
	<i>urrah</i>	avellanas
	<i>urdea</i>	cochino
	<i>urdaya</i>	tocino
	<i>urrea</i>	Oro
	X.	
	Y.	
250	<i>yllea</i>	cabello
	<i>yzia</i>	clabo
	<i>ycazà</i>	carbón
	<i>ynchaurra</i>	nuez
	<i>yçoquia</i>	salmón
255	<i>ydia</i>	buey
	Z.	
	<i>zabela</i> ²⁶⁸	barriga
	<i>zapatah</i>	zapatos
	<i>zua</i> ²⁶⁹	fuego
	<i>zura</i>	madera
260	<i>zagarra</i> ²⁷⁰	mançana
261	<i>zaldia</i>	cavallo
262	<i>zarrallea</i> ²⁷¹	Cerraja
263	<i>nola dariço</i>	cómo se llama
264	<i>gizon prestua</i>	hombre honrado
265	<i>nola dago vide merchedea</i>	cóm está V. md.

²⁶⁸ Z-ren gainean s idatzia.

²⁶⁹ Z-ren gainean s idatzia.

²⁷⁰ Z-ren gainean s idatzia.

²⁷¹ Z-ren gainean s idatzia.

443 zenbakia daraman folioaren atzeko aldean itsasontziekin zerikusia duten izen batzuen zerrenda dator, honako ohar honekin: “Todas estas cosas se an de asentar en su conformidad que eranse dicho de repente”. Antza denez, egileek besteren laguntza behar zuten koadernoaren atal hau, hiztegiñoa, osatzeko, eta norbaiti enkargatu zioten lan hori.

Ortografiaren aldetik, hiztegiñoaren lehen atalak alde nabarmenak ditu bigarrenarekiko, azken hau idazkera modernotik hurbilago delarik.

Txistukarien idazkeran zenbait zalantza ditu lehen atalak (11 *orcah*, 15 *bicarra*, 17 *beacah*, 25 *conñecoac*, 63 *acaah*, 70 *gerecia*), baina normalean s edo ç aukeratzen du (2 *guiçona*, 44 *çua*, 55 *ycasa*, 36 *espata*, ...), kontsonante aurrean ia beti s idatzita (14 *espanñah*, 18 *esqua*, ...), salbuespen bakarrarekin (43 *ayzcora*); azken finean, garai honetan erromantzearen idazkeran dauden zalantza eta joera berberak dira. Bigarren atalak, bere aldetik, s, c, eta ç-z gain, z sartzen du txistukarien idazketarako; letra hau beheko aldean luma lerrotik aterata eta bihurtunetxo emanaz idatzia dator, XVII. mendean ohiko zen bezala. Ez du, ez atal batean ez bestean, frikari edo afrikatuen arteko bereizketarik egiten, salbu 62 *perrexilla* eta 71 *inchaurra*-ren kasuan; hau ere espero izatekoa da garai horretako testu batean.

r/rr zalantzak dardarkaria irudikatzerakoan, ñ/ñ aldaerak bezalaxe sudurkarien kasuan, gaztelaniaz izaten zituztenak dira, eta ez da harritzeko euskal hitzekin ere horrela gertatzea.

Baina hiztegiño hau ortografian berezi egiten duena hitz bukaerako pluralgilearen idazkera da. Izan ere, -c edo -q idatzi beharrean -h idazten du (8 *beguiah*, 12 *aguinah*, ...). Sarasolaren iritzian (*ConTAV*: 171), kontuan izan behar da gaztelaniazko eredu ortografikoan ez dagoela hitz bukaerako herskari belarerik. Bestalde, litekeena da hiztegiaren egileak entzuten zuena inplosibotzak hartzea, ez herskaritzat. Beraz, doinu “ezberdin” horren errepresentaziorik hurbilena ematen saiatuko zen.

Hizkerari dagokionean ere Sarasolaren iritziko gara neurri handi batean. Aski urruti dago hiztegiñoa bizkaierazko lana izatetik, bai badira bizkaieraz arrotz gertatzen diren hainbat forma (*burnia*, *yllea*, *gereçia*, ... eta bereziki

orçac/aguinac bereizketa semantikoa). Gure kontuen arabera²⁷², hiztegian jasotako 151 hitzetatik (horietako asko birritan emanak) hedadura orokor edota zabaleko hitzak 92 dira. Hapax-ak 5 (*anci*, *becaray(c)ah*, *criscua*, *pagoloa*, *pindolea*). Bizkaierazko 4 hitz ageri dira (*cirarra*, *arranña* –gipuzkeraz ohikoago da *arrai-*, *plumagea*, *lora*) eta bizkaiera/gipuzkera aldaerak erakusten dituzten 3 (*barri/berri*, *perregilla/perrexilla*, *jaquea/jaca*). Gipuzkerazko hitz kontsidera daitezkeenak 7 dira (*españna*, *andrea*, *burnia*, *burunçia*, *içoquia*, *guilsurinah*, *guinga*). Oro har, mendebaldean hedatutakoak, bizkaieraz eta gipuzkeraz bereziki, 14 hitz dira. Azkenik, bizkaieraz ez, baina gipuzkeraz eta oro har ekialdeko beste euskalkietan aurki litezkeen formak 22 dira. Datu hauen argitara, hiztegiñoaren hizkera gipuzkeratik hurbil dela ondoriozta daiteke, baina nik esango nuke egilea ez zela “bere” hizkeraren hiztegia egiten aritu, baizik eta hiztegi zabal eta erabilgarri bat kanpoko bidaiariarentzat, eta ezagun zituen hitzak eta esateko moduak islatu zituen bertan, muga geografiko edo linguistikoei erreparatu gabe. Hiztegiñoaren egilea, Iburguen-Cachopinen kolaboratzaile berantiar hau, gipuzkoarra izanen zen agian, baina bizkaiera bera ere ez zitzaion arrotz izango, eta segur aski bere ogibideagatik edo familia-loturengatik ibarguendarrengandik gertu izango zen.

Kapitulu honi amaiera emateko har dezagun gogoan, Mitxelenak adierazi zuen bezala (1981: 300), bizkaiera eta ekialdeko euskalkien arteko aldeak handituz joan direla XV-XVI mendeaz geroztik, eta, ondorioz, XVI. mendean bizkaiera hurbilago legoke ekialdeko auzo hizkeretatik gaur pentsa genezakeena baino. Lexikoari dagokionean ez litzateke harritzekoa gaur gipuzkoar formatzat ditugunak, garai haietan Bizkaiko zenbait lurretan ere izatea presentziarik. Kontuan izanda egindako azterketa labur hau eta gipuzkera zaharra aski ezezaguna dugula oraindik, nik ez nuke oraingoz *IC Kronikako* hiztegiñoa gipuzkerazko corpus historikoan sartuko. Are ezezagunagoa dugu garai haietako Arabako euskara, baina ez litzateke baztertu behar, Lakarrak (1992: 277) iradoki zuen bezala, hiztegiño honek modu batean edo bestean arabera ordezkatzeara.

²⁷² Hitzen banan-banako azterketa egingo dugu beheago, hizkerari buruzko atalean (11).

8. TESTU BARNEKO EUSKAL HITZAK.

Kronikan zehar, gaztelaniazko prosaren harian sakabanaturik, euskarazko zenbait hitz ere aurki litezke, gehienak berri historikoak aberastu eta sinesgarritasuna eman nahian emanak. Bigarren mailako iturritik jasotako lekukotasun hauek euren testuinguruan ematea da atal honen xedea. Hala ere, zerrenda honetan ez ditugu jasoko hainbat pertsona, etxe eta leinuen etimologia ematean egileek aipatutako hitzak eta adierak, horretarako kapitulu berezia irekiko baitugu (9.a). Bestalde, hizkerari eskainitako atalean ere bilduko ditugu hemengo eta hango hitzak *Kronikaren* hiztegia osatzean. Hitz hauen inguruko azalpenak hiztegi orokorrean biltzea ikusi dugu egokien (11. kapitulua).

Adarrac: “unos cuernos grandes a manera de bozinas, que tenían llamados *adarrac*”
... “acostunbraron por más su descanso taner y soñar muy reçio unos cuernos grandes a manera de bozinas, que los llaman *adarrac*, con los cuales hazían muy muchos e diferentes sonos e sonidos” (II: 53).

Aitaonaen semeac: “Y a estos tales son llamados *aitaonaen semeac*, como si más claro dixésemos "hijos de buenos padres desheredados", porque los que quedan en las haciendas son llamados *echagunac*, que quiere dezir cazeros, deferenciándolos como en el estado también en los nonbres” (III: 343).

Aitejauna: “Y entonzes los vascongados o cántabros llamaron (a Noé) *a[it]e jauna*, que quiere dezir en lengua vascongada "señor", porque realmente lo era de todo el mundo”(II: 24).

Alboca: “con grande fiesta y regozijos y solenidad y música de *albocas*, que en morisco se llaman ‘xabebas’ y en romançe ‘cornetillas” (I: 309) “les hizieron creçidos regozijos de cantares y danças y músicas de flautas, atanboresos, cuernos y albocas y de otros instrumentos que usaban” (I: 536); “solenizaban las fiestas festibidades deste bienabenturado santo con munchas misas, sacrificios y ofrendas, cantares y danças, e músicas de tanborines y flautas, salterios y rabeles y albocas y otros modos de instrumentos al uso del tiempo” (II: 167).

Ameça, Ameza: “subiérase en un árbol que llaman revollo e en bascuençe *ameza*” (II: 77); “manera de robres, tocornos, carrascos” (II: 581).

Arona: “Aconteció después que un rey de Aragón, abiendo formado un suntuoso exército aronas (sic) de Aragón, Balençia, Cathaluña, mobió guerra al Rey de Nabarra” (I: 106).

Artuquero: “valiéndose de barcos, pinaças, baxeles, de que suele aver abundancia en esta ribera con otros que llaman *artuqueros*, que cuando sube y baxa la marea suele parecer otra Venecia esta villa (Bilbao)” (I: 542).

Baçarra: “en la tierra bascongada a todos los ajuntamientos de mucha gente llaman *baçarra*” (II: 358); “junta de biejos de la república bizcaína, llamada antiguamente *batu çarrac*, que quiere dezir ‘junta de biejos’, y agora la llaman *baçarrac*, que quiere dezir ‘junta general de Vizcaya’ (II: 422); “a la cual junta de biejos llamaban *baçarra*, que tanto quiere dezir en bascuençe como en castellano ‘junta de biejos’ (III: 49); “en su junta general que llamaban *batu çarrac* y agora *baçarra* acostunbrada que, como abemos dicho muchas vezes, significa y quiere dezir ‘júntense los biejos y hágase lo que ellos dixieren’ (II: 185); “ellos se juntaron en su junta general de toda Vizcaya, llamada *bat çarra*, so el árbol de Guernica” (III: 210).

Batçarra: “A esta junta llaman *batçarra*, que quiere dezir ‘ayuntamiento de ançianos’ ... “hizieron su junta general y *batçarr* conforme al usso antiguo” (II: 24); “se juntaron en su *batçarra* y junta general que dexamos dicho” (II: 93); “Junta Jeneral de Bizcaya, llamada *baçarra*” (II: 163).

Basoa: “un pedaço de monte a quien llaman Esparça Basoa, que quiere deçir en el bascuençe buelto al romançe ‘monte de Esparça’ (II: 473).

Beguyrac: “lo ofreçían al santo haziendo grandes *beguirac* o belas o danzas y cantares y otras sus fiestas” (II: 37); “belaban todas las noches en la dicha ermita según su costunbre antigua, a las cuales belas ellos llaman *beguyrac*” (II: 47).

BetaRiac: “sepulturas de piedra entera labradas con picos de cantería, hechos al modo de atauzes pero más grandes con cantidad, a las cuales llamaban *betaRiac*, que quiere dezir en castellano ‘sepulturas de piedra’ o, por mejor dezir, ‘piedras para enterrar’ (II: 168).

Biscaitar, biscaitam: “los mesmos romanos de hordinario los llamaron *viscaitar*, conforme al nonbre de *vizcaín* que de antes les abían llamado e puesto, como

arriba queda dicho. E algunos romanos, no pudiendo bien pronunçiar este bocablo y nonbre de *biscaitar*, que en romanze bulgar quiere deçir *biscainos*, los llamaban y dezían también *biscaitam*” (II: 21).

Burucoac: “usaron ansí mesmo traher en sus cabeças estos tales moldes por sus tocados todas las demás mugeres casadas (...) en señal que no hera ya donzella (...) llamándolos generalmente *burucoac*, que quiere dezir “los de la cabeça”, y al molde dicho le llaman *sapea*, y también *cucucha*, y también *ibiquiac* (I: 310).

Cai: “porque desde el muelle o *cai*, que está por muro y defensa del agua, llegan a comprar el trigo, el pescado, la fruta y todo lo demás” (I: 542).

Çançuac, *sansoac*: “cuando estas guardas sabían, bían o entendían alguna cosa de que poder dar notiçia o abiso a los otros sus compañeros, al prinçipio se solían dar estas voces gritos llamados *çançuac* voces gritos” ... “en lugar destas bozes *sansoac* usaron y acostunbraron por más su descanso taner y soñar muy reçio unos cuernos grandes a manera de bozinas, que los llaman *adarrac*” (II: 53).

Cannelea: “en su antigüedad primera se dixo por estos naturales desta probinçia de Tubalea *cannaña* y agora en nuestros tienpos *cannelea*, que dizen hera corteza de un árbol del tamaño de un naranjo, algo más o menos, y su hoja es como la del laurel, un poco más ancha, en el verde más clara en su color, y no tan seca, con tres nerbios, casi como la hoja de lantén (...) Tiene este árbol dos cortezas, y la cannela perfecta es la segunda corteza” (I: 220).

Carchet: “le tomó y traxo muerto arrastrando de sus cabellos largos de cabellera que llamaban *carchet*” (II: 366).

Çenaorriac: “sitio entonçes espesso y lleno de muchedunbre de hierbas creçidas, llamadas en romanze turbiscos, por muchos, y por uno, turbisco, y en bascuençe *cortame urriac*, y también *churbiac*, y lo más perfecho y bulgar *çenaorriac*, la cual hierba por ser muy conosçida para matar pulgas no las señalo aquí, ni del tronco, ojas ni flor, por no cansar ni por dar tiempoturbiscos” (II: 163).

Chacolin: “Aquí se haze razonable cosecha de pan e sidra y bino que llaman *chacolin*” (II: 175).

Chirritolac: “fue muerto de un golpe de xara e saeta enarbolada tirada con ballesta de palo, llamada *armatoste*, que entonces acostunbraban y las armaban con *chirritolac*, que se llaman en la lengua castellana ‘poleas’” (II: 55).

Choro: “y del poniente estival corre el biento llamado *choro*” (I: 209).

Churbiac: “sitio entonces espesso y lleno de muchedumbre de hierbas crecidas, llamadas en romance turbiscos, por muchos, y por uno, turbisco, y en bascuence *cortame urriac*, y también *churbiac*, y lo más perfecto y bulgar *çenaorriac*, la cual hierba por ser muy conocida para matar pulgas no las señalo aquí, ni del tronco, ojas ni flor, por no cansar ni por dar tiempoturbiscos” (II: 163).

Cortame urriac: “sitio entonces espesso y lleno de muchedumbre de hierbas crecidas, llamadas en romance turbiscos, por muchos, y por uno, turbisco, y en bascuence *cortame urriac*, y también *churbiac*, y lo más perfecto y bulgar *çenaorriac*, la cual hierba por ser muy conocida para matar pulgas no las señalo aquí, ni del tronco, ojas ni flor, por no cansar ni por dar tiempoturbiscos” (II: 163).

Çuçia: “Llevaban por la escuridad en las manos algunas dellas unas teas encendidas, que en vascuence *çuçia*, que quiere dezir ‘fuego encendido de llama’” (II: 26).

Cucucha: “usaron así mesmo traher en sus cabeças estos tales moldes por sus tocados todas las demás mugeres casadas (...) en señal que no hera ya donzella (...) llamándolos generalmente *burucoac*, que quiere dezir “los de la cabeça”, y al molde dicho le llaman *sapea*, y también *cucucha*, y también *ibiquiac* (I: 310).

Çumelac: “espesura y muchedumbre de matas silbestres de árboles que en castellano nonbran sanguñuelos y en bascuence los dizen *çumelac*” (III: 16).

Dardobacoch(ac): “acudió al socorro Sancho Urtíz de Olaeta, escudero *dardobacoch* de la casa de Olaeta de Mendaacta” (II: 212); “también otros algunos escuderos de lança y dardo en puño, que llaman en su bascuence *escutariac*, *dardobacochac*, que tanto quiere dezir lo uno como lo otro (III: 184).

Domea: “la comunidad en general de los vezinos se juntan a hazer esta lorra y acarreo, cada un casero e vezino dellos con sus carros y bueyes hunzidos con grandes regoçijos e fiestas de *domeas* y cantares e músicas de tanborines y flautas y albocas” (II: 49).

Duelua: “A este luto llamaban *duelua*, que mientras duraba ninguno que lo tenía no se ría ni holgaba ni jamás llegaba donde abía ningun plaçer ni regoçijos” (II: 17).

Echagunac: “los que quedan en las haziendas son llamados *echagunac*, que quiere dezir ‘cazeros’” (III: 343).

Eguzquya: “Al sol el bascuençe llama *eguzguya*, *eguzgueya* y agora corrútamente le llaman *eguzquya*” (II: 136).

(*H*)*ereçiac*: cantares (I: 310, 563), (cantares de las hazañas y victorias de los muertos en pelea) (I: 482; “E para hazer en estos tienpos estas herostas, tenían de antes conpuestos cantares que llamaban *hereçiac*” ... “dichas *hereçiac*, que quiere dezir ‘cantar’, conpuesto de palabras unas tras de otras” (II: 17); “tienen por costunbre muy antiquísima de que en el comienço y prinçipio de todos cuantos cantares biejos cantan, a quienes bulgarmente llamaban *hereçiac*” (II: 92); 310, 353), cantares conpuestos en copla (II: 366, 368).

Eriotçea: “en este bascuençe dizen por la muerte *eriotçea*, en el cual bocablo significa ‘golpe herido de muerte e de açidente frío” (II: 137).

Escutariac: “tanbién otros algunos escuderos de lança y dardo en puño, que llaman en su bascuençe *escutariac*, *dardobacochac*, que tanto quiere dezir lo uno como lo otro” (III: 184).

Friscuac: “frutales silbestres de alberechigas y durasnos (...) a los cuales en el bascuençe perfeto que antiguamente se ablaba los dezían *muxicac*, y, (...) por otro término llamándolos *friscuac* y tanbién *guraçavac*” (III: 54); Friscu açurratuac: “árboles silbestres de durasnos abrideros, a quienes el bascuençe antiguo de entonçes llamaban *muxicac* por munchos y *muxica* por uno, cuyo apellido de *muxicac* oy permanece sin corrupción destos durasnos abrideros en la probinçia de Guipúscoa y comarcas. Acá en Bizcaya en lo moderno llaman a estos durasnos abrideros *friscu açurratuac*” (III: 138).

Garai: “las lebantán sobre piedras largas con sus torteros de piedra arriba, para que no entren ratones ni otras sabandijas a hazer daño dentro de los tales *garais*, llamados en castellano orrios” (II: 662).

Gario: “Al puerco *malacto*, que llaman en Vizcaya *gario*” (II: 135).

Guinarrac: “unas matas espesas de breso o, como otros lo nonbran, bereso, y otros lo llaman urçio, que son unas maneras de escobones, llamadas en la lengua bascongada *guinarrac*, con cuyas ramas destas matas acostunbran en las montañas de Vizcaya de hazer escobas para barrer las inmundicias de los suelos y de las paredes. matas espesas de breso” (II: 412).

Guraçavac: “frutales silbestres de alberechigas y durasnos (...) a los cuales en el bascuence perfeto que antiguamente se ablaba los dezían *muxicac*, y, (...) por otro término llamándolos *friscuac* y también *guraçavac*” (III: 54).

Gurdichapa: “tomara una *gurdichapa* o lienço blanco e pusiérala en su lança (I: 648).

Ibiquiac: “usaron así mesmo traher en sus cabeças estos tales moldes por sus tocados todas las demás mugeres casadas (...) en señal que no hera ya donzella (...) llamándolos generalmente *burucoac*, que quiere dezir “los de la cabeça”, y al molde dicho le llaman *sapea*, y también *cucucha*, y también *ibiquiac* (I: 310).

Irarrac: “matas de arbejas (algarrobo)²⁷³, llamadas en bascuence *irarrac*” (III: 357).

Jauna: “A este santo patriarca Nohé (...) le llamaron a boca llena *Jauna*, que en nuestro romançe bulgar quiere dezir ‘señor’, como si más claramente dixésemos ‘señor de todos’ o ‘senor padre de todos’ (I: 501); *Jeauona*: “esta lengua bascongada llama a Dios onipotente *Jeauona* en una misma sílaba sincopada en que pronunçia todas las çinco letras vocales, a, e, i, o, u, que quiere tanto dezir como en romançe ‘tú mismo bueno’, como si más claro dixésemos, sumaria y brebemente ‘Dios trino y uno’ (II: 136).

Laminac: “*Laminac*, que son sirenas o nereidas encantadas” (I: 215).

Larra: “lleno de argomas y canbroneras y otros géneros de çarçales, a cuya espesura y montuosidad llaman en bascuence *larra*, que tanto quiere dezir como en castellano ‘argomas o monte lleno de argomas’ (III: 49).

²⁷³ “Arvejas. Planta leguminosa de tallo trepador; algarrobo” (María Moliner 1978).

Larrea: “lugar áspero y montuoso de una serranía despoblada, que al tal [...] en bascuense se llama *larrea*” (III: 98).

Lo: “lo quiere dezir ‘dormir’ (II: 52).

Lorra: “Y a esta junta general y exerçiio ellos llamaban *lorra*, que da a entender llebar arrastrando y a fuerças de braço cualquiera cosa que sea grande y pesada. El cual nonbre de *lorra* dura hasta oy día, porque, quando se ha de acarrear en Vizcaya y llebar de una parte a otra una biga de lagares u otra madera prinçipal para edefiçio de casas o de herrerías u otros y cualesquier maderajes o piedras o pieças para algun edefiçio, o para otra semejante cosa, entonçes la comunidad en general de los vezinos se juntan a hazer esta *lorra* y acarreo” (II: 49).

Machaim: “en bascuençe tanto quiere dezir *machaim* como en castellano ‘machano’ (II: 470).

Muxicac: “frutales silbestres de alberechigas y durasnos (...) a los cuales en el bascuençe perfeto que antiguamente se ablaba los dezían *muxicac*, y, (...) por otro término llamándolos *friscuac* y también *guraçavac*”(III: 54); “árboles silbestres de durasnos abrideros, a quienes el bascuençe antiguo de entonçes llamaban *muxicac* por muchos y *muxica* por uno, cuyo apellido de *muxicac* oy permanece sin corruçión destos durasnos abrideros en la probinçia de Guipúscoa y comarcas. Acá en Bizcaya en lo moderno llaman a estos durasnos abrideros *friscu açurratuac*” (III: 138).

Naguçia: “ante el juez superior destas causas llamado *naguçia*, que quiere dezir “mayor” o “mayoral”, de quien tubo prinçipio el juez mayor de Vizcaya que oy tienen” (III: 344).

Narrac: “trayendo los cuerpos defuntos a enterrar con mucho luto, llantos, chalos y herostas a su husança, ençima de rastras de madera labradas para aquel efeto en el lugar de andas, que no se husaban, llamadas en bascuençe *narrac*” (II: 162).

Obi uneac: “acostunbraban enterrarse en los canpos razos en sepulcros de tierra birgen cabada entonçes, a los cuales hoyos llamaban *obiac*, que quiere dezir en romançe ‘sepulturas en tierra inculta’, a las cuales llaman agora *obi uneac*, que quiere tanto dezir como ‘enterrarios de cuerpos umanos’ (II: 168).

Obiac: “acostunbraban enterrarse en los canpos razos en sepulcros de tierra birgen cabada entonçes, a los cuales hoyos llamaban *obiac*, que quiere dezir en romançe ‘sepulturas en tierra inculta’ (II: 168).

Oñezdoa, doaoñez: “ordenó e hizo una inbençión y nuebo instrumento para la guerra abentajado e hasta entonçes nunca usado ni bisto, llamado *onezdoa*” (II: 39); “al cual instrumento temían más que a otro ninguno, porque hera arma sin resistençia ninguna, y los llamaban a estos instrumentos *Doa oñez*, como si dixesen en buen entendimiento y razón ‘ella se va por sus pies’, pues, sin lleballa nadie, se iba rodando de arriba abaxo” (II: 49).

Qutunac: “lo tomaban e guardaban con muy grande beneración e recato para reliquias y santuarios de sus enfermedades, haziendo dellos nóminas que las llaman *qutunac*” (II: 47).

Sansoac: (ikus *çançuaç*).

Sapea: “usaron ansí mesmo traher en sus cabeças estos tales moldes por sus tocados todas las demás mugeres casadas (...) en señal que no hera ya donzella (...) llamándolos generalmente *burucoac*, que quiere dezir “los de la cabeça”, y al molde dicho le llaman *sapea*, y también *cucucha*, y también *ibiquiac* (I: 310).

Soloa, solora: “y como en bascuense llamasen entonçes a las heredades en general *solorac*, y a una sola *solora*, como agora en nuestros tienpos ansí bien son llamadas *soloac* a las munchas heredades y a una sóla *soloa*” (II: 45).

Sorguynac: “defenderse de los truenos, relánpagos y la piedra llobediza, bruxos que llaman *sorguynac* y hechizeras y de otros cualesquier maleficiadores y dañadores de las haziendas y bienes de fortuna e cuerpos humanos” (II: 47).

Sotil: “En la comarca tiene munchas herrerías tiraderas que llaman *sotiles* para adelgazar el fierro gordo” (II: 153).

Su: “una letra encima del caldero en bascuençe, que diçe: *su, su, su, su*, que quiere deçir ‘fuego, fuego’ (II: 95).

Suçiiac (I: 159; “quitó la bandera a quien la traía, blasón y renonbre tomó de *suçía*, que el fuego ençendido ansí lo mató” (II: 353).

Urgaspide(ac): hermano en armas (I: 554), ayudadores (II: 369; “pelearon los dichos de Unçqueta e de Çaldibar de Durango, *urgaspides*, que son hermanos

en armas, con sus contrarios los de Helgueta” (III: 180); “se hermanaron en armas, haziéndose una mesma cosa, a lo cual llaman en Vizcaya *urgaspides*, que quiere dezir en romançe ‘ayudadores’” (III: 246).

Yl: “porque *yl*, que es el postrero açento destos bersos, quiere dezir ‘matar’” (II: 52).

Yrarguya: “A la luna también le llama el bascongado *yrarguya*, cuya ethimología es ‘lunbre muerta’ por tener como tiene luz e claridad prestada del sol” (II: 137).

Kronikak dakarzkigun lekukotasun hauek, bere xumean, interesgarri gertatzen dira arrazoi ezberdinengatik. Alde batetik, *Aitaonaen seme*, *alboca*, *ameça*, *beguyrac*, *betarriac*, *chacolin*, *cucucha*, *dardobacocha*, *duelua*, *echaguna*, *friscuac*, *garai*, *guinarrac*, *gurditxapa*, *ibiquiac*, *lecayac*, *lorra*, *machain*, *narrac*, *urgaspide* eta *uriune* hitzek euskal testu idatzietan lehenbiziko agerraldia dute kronika honetan. Bestalde, *arona*, *artuquero*, *carchet*, *çenaurriac*, *churbiac*, *cortame urriak*, *domea*, *sapea* eta *sotil* hitzek *Kronikakoa* dute idatzizko lekukotasun bakarra, hapax-ak dira beraz.

9. PERTSONA IZENAK ETA GOITIZENAK.

Kronikaren testu narratiboan zehar aurki daitezkeen lekukotasun linguistikoen artean, ezusteko pozgarri gertatu zaizkigu goitizenak. Ugari dira, eta horrek bi gauza adierazten digu: batetik, gizarte harremanetan egundoko garrantzia zutela eta oso erabiliak zirela, eta bestetik, *Kronikaren* egileek oso hurbiletik kontatu zizkigutela garaiko gora-behera historikoak, marko bizkaitarrari dagokionean bederen.

Euskal ikasketen alorrean onamastikak erdietsi duen ikerkuntza maila ikusirik, material hauek ikuspegi zabal eta zehatzago batetik bideratutako ikerketa merezi dutela begitantzen zait, garaiko beste lanetako materialekin alderatuz eta historian izan duten bilakaera aztertuz, adibidez. Ez da hau, ordea, horren sakonera egiteko lekua. Hala ere, atal honetan azaldutako zenbait hitz eta esamolde *Kronikaren* euskara aztertzeke orduan (11. kapituluan) azalaraziko ditugu berriro eta han argibide zehatzagoak emango.

Abarca: “porque la primera vez le bieron con abarca, de allí adelante le llamaron al rey don Sancho *Abarca*” (III: 123).

Aguichona (*a guichona*): “Estos dos caudillos se dezían, al de Andramendi *Embiñido*, y al de Iburgüen *Aguichona*” (II: 676); “Este vocablo de *Aguichona*, según el bascuençe antiguo, en él quiere tanto dezir como en castellano ‘aquel hes hombre’, como si más claro dixésemos ‘aquel hes hombre baliente’” (III: 244).

Aguinchotoa, *Aguichoa*: “Y el otro caudillo de Axaris, llamado *Aguinchotoa*, y según el liçençiado Gaspar de Peña y Galdocha, *Aguichoa*, se encastilló con algunos que le seguieron” (III: 167). Badirudi *hagin*-en eratorria dela, segur aski *hagintopod*²⁷⁴-ren aldaera.

Andia: “Juan de Mendiola, que por ser muy presumido, altibo, fue llamado por sobrenombre Joan *Andia*, que quiere dezir Juan Grande” (II: 366).

Andracar: “En aquella saçón Juan Garçía de Yarza e Andrajordana Martínez Auzquerenaga, señores dueños de Yarza e de Çubieta, abían por fixas a Andramari Ochoa y Andracar Ibáñes de Çubieta” (I: 646).

²⁷⁴ *Matrallazurra*, “quijada” (A).

Andrajordana: “En aquella saçón Juan Garçía de Yarza e Andrajordana Martínez Auzquerenaga, señores dueños de Yarza e de Çubieta, abían por fixas a Andramari Ochoa y Andracar Ibáñes de Çubieta” (I: 646).

Andramaora: “entre los dichos padres casaran fixos e fixas en trueque, hes de saber: a Ochoa López de Unçqueta con Andramaora Ochoa de Çubieta” (I: 646).

Andramari: “En aquella saçón Juan Garçía de Yarza e Andrajordana Martínez Auzquerenaga, señores dueños de Yarza e de Çubieta, abían por fixas a Andramari Ochoa y Andracar Ibáñes de Çubieta” (I: 646).

Andreaxe: “con Pascoala Joanech de Urrialdua, llamada por sobre nonbre *Andreaxe*” (III: 269); “llamada por sobrenonbre *Andreaxe*, porque hera pequeña de cuerpo y hermosa” (III: 283).

Anguerua, Chomin: “*Chomin Anguerua*, que quiere dezir ‘Domingo’ o ‘Dominguito Ángel’ (II: 174).

Anso Herrandoch: “fue muerto su dueno, llamado *Anso Herrandoch*, que quiere tanto dezir en bascuence como en castellano bulgar Sancho Hernández o Fernández “ (II: 423).

Apala: “fue quemada esta fortaleza de Mendiola de Aramayona por Gasco *Apala*” (II: 366)

Arça: “Llamábase Joane *Arça* porque hera tan baliente que, a braço partido luchando con un oso le mató con machete de dos palmos, cosíndole en su colmenar junto a su casa, y así le puso el nonbre del oso” (I: 558); “Serani *Arça*” (III: 37)

Artes: “llamado *Artes* porque hera gentilonbre y muy derecho de cuerpo” (III: 283).

Asal Çuria: “llamado por otro nonbre *Asal Çuria* por ser blanco y rubio” (III: 242, 265).

Asalgorri: “Martín Garçía de Axpe, dicho *Asalgorri* por ser bermejo” (I: 562).

Aserre: “Joanche *Aserre* de Mendiola, su dueño deste cadalso” (II: 366).

Babaçorro: “estos Garçías de Illarraza también se nonbran *Gastuas* y *Babaçorros*” (I: 576).

Berde: “llamado por otro nonbre *Berde* de Iburgüen” (III: 283).

Biçia: “haziendo merçed a suplicaçión de Fortún Sáez de Albiz e de Román *Biçia* de Muxica y de Joan *Jaun* de Mençeta y de Martín Íñiguez de Iburgüen-Urarte y de Antón *Ochoa* de Urdaibai y de Íñigo *Joanech* de Arteaga” (II: 169).

Cadena: “[Íñigo] *Cadena* o *Caden*, que quiere dezir este bascuençe vuelto en romançe ‘Íñigo Malato’, por mejor dezir, ‘Flaco y Enfermo’ cuyo sobrenombre le hera muy apropiado por ser entre todos los otros sus hermanos el más ruin y que menos valía dellos” (III: 47).

Çalduna: “fue armado caballero por su balentía y hechos nobles, y por ello fue llamado *Çalduna*” (I: 568).

Chareco: “otro hijo ubo de su [mançebamiento] estando biudo en Tareza Hermosa, *Chareco Ederra*, que se llamó Juan de Iburgüen” (III: 275).

Cherren: “Íñigo Sáez de Iburgüen, con[ominado ...] a *Cherren*, que quiere dezir [... ..] porque hera muy desabrido en cualquiera ocasión y estaba luego con las armas en [...] muchos descalabros [...] libraron el fabor y ayuda de sus buenos parientes” (III: 273).

Chicubyn: “Este señor tubo un hijo natural que se llamó Juan Sáez *Chicubyn*” (III: 25).

Çuria: “por su capitán y caudillo a don Fortuna, llamado por sobrenombre *Çuria*” (III: 343); “el cual se llamaba Lope *Çuria*” (III: 356).

Ederra: “otro hijo ubo de su [mançebamiento] estando biudo en Tareza Hermosa, *Chareco Ederra*, que se llamó Juan de Iburgüen” (III: 275).

Embiañido: “Estos dos caudillos se dezían, al de Andramendi *Embiañido*, y al de Iburgüen *Aguichona*” (II: 676).

Enecoch: “fue nonbrado Juan Íñiguez de Iburgüen y por sobrenombre de alçima le dixieron *Polibro Enecoch*” (III: 282).

Luabis (personaje histórico-mítico) < *lur* + *a bis*: “porque *luc* y *lur* es todo uno, que quiere dezir *tierra*, y *abis* quiere dezir *aquel sea*, como si dixéramos enteramente *aquel sea señor de la tierra*” (I: 483)³²¹.

Luçeria: “*luçe erria*, ‘tierra larga’: *luçea* ‘largo’ y *erria* ‘tierra’ (III: 305).

Lugorres o *Ligores* (naciones de Galicia): “*lu* o *lurra*, que todo es uno, se llama en castellano por la tierra; *gorres* o *gores* significa ‘sorda’, que quiere dezir ‘tierra sorda’ (I: 483)³²².

Luso (pertsonea): “*luso* o *luçe*, que todo uno, quiere dezir en romançe ‘largo’ (I: 483)³²³.

Mamoba o *Mamoa* (“pueblo çerca de Málaga”): “es bascuençe y quiere dezir en romançe ‘boime’ (I: 484)³²⁴.

Moscobictas: “quiere dezir ‘poblaciones de gentes derramadas’, como en efeto así lo son; y en bascuençe significa ‘gentes dobladas en crueldad’, *mosac* ‘gentes’, *cobitac* ‘crueldad doble’ (II: 122).

Nigas (Ekialdeko Iberiako hiria): “comigo” (I: 485)³²⁵; “conmigo o conformidad” (III: 305).

Noraco (pertsonea): “quiere dezir en castellano ‘para adónde’, como si preguntásemos a un hombre determinado que ba ha enprender alguna hazaña que inoramos ‘¿Para dónde bais tan de paso sin parar?’ (I: 483)³²⁶.

Órbego (Astorgako ibaia) < 1: *or bego*, “estése aí”; 2: *ur bico*, “de dos aguas” (I: 483); “estate ay, propio” (III: 305).

Orseca: “población fría” (III: 305).

Osca (Huesca zaharra): “sonido de golpes” (I: 484); “también *osca* se dize por una hendidura o grieta abierta” (II:134)³²⁷; “muesca y golpe” (III: 305).

Otseca u *Osseca* (“población de la Iberia Oriental”): “en el bascuençe antiguo buelto en el romançe tanto quiere dezir como ... ‘frío’ (I: 485).

Pisuerga (ibaia): “como si en romançe dixésemos ‘pasado a nado’ (I: 484)³²⁸.

³²¹ Poza: 15r.

³²² Poza: 17vto.

³²³ Poza: 16v.

³²⁴ Poza: 19r.

³²⁵ Poza: 21r.

³²⁶ Poza: 15r/16vto.

³²⁷ Poza: 19r.

³²⁸ Poza: 18r.

Reca o *Recac* (“lugar en el reino de Toledo”): “asequias’ o ‘sanxas’; por una en bascuence se dize *reca* y por munchas *recac* (I: 484)³²⁹; “lugar de muchas landas” (III: 305).

Recona (toki izena Leonen) < *Recona*: “arroyo bueno” (III: 256).

Roa (villa): “peçón de teta” (I: 484)³³⁰, (III: 305).

Ronia (“çiudad asolada por Gneo Sçipiòn”): “acometer a uno solo munchos” (I: 484).

[*Sag*]arra: “manzana” (III: 305).

Saldivia o *salduba* (antzinako Zaragoza): *saldiviac*, “dos cavallos” (III: 305).

Saldu ba: “ven después” o “sitio de cavallos” (III: 305).

Sarobe: “deessa” (III: 305).

Sarrios (“naçiones entre la boca del río Tajo y Setúbal”) < *sarri*, “a menudo” + *os*, “frío”: “a menudo e munchas bezes frío” (I: 483)³³¹; *sarrios* o *sarria* = “vezes” (III: 305).

Sauria o *Çauria* (herria): “herida” o “llaga” (I: 482)³³².

Sego Obia o *Segobia*: “escura sepultura” (I: 484); “cosa onda y sepultada” (III: 305)³³³.

Sepharat : “en el bascuence antiguo y perfeto ... llamaban *Farat* o *Farac* por una grandeza e munchedunbre de tierras pobladas de sublimada manifiçencia” (II: 122). Cf. *RS* 48: *Farata asco calean / audiaca ebilten dira / ta oguiari leyoe jira* (“Muchas vanagloriosas en la calle suelen andar vendiendo autoridad y harían regozijo al pan”); *RS* 134: *Andra eder ta aberatsa, edo ero edo farata* (“La muger rica y hermosa o loca o presuntuosa”).

Sicoris (pertsonaia) < *Suc Oris*: “*suc* en romanze quiere dezir *bos* y *ori* ‘toma’, y ambos nonbres juntos dizen ‘tomad bos el señorío de la tierra’ (I: 483)³³⁴.

Sidonia (Medina Sidonia): “significa ‘tierra de muncha caça y de pastos y de munchas çeldas” (II:124).

Soria (hiria): “agüero” o “bentura” (I: 484)³³⁵.

³²⁹ Poza: 17vto.

³³⁰ Poza: 19vto.

³³¹ Poza: 17r.

³³² Poza: 2vto.

³³³ Poza: 19r.

³³⁴ Poza: 16r.

- Sucronis* (“río que pasa por Balençia del Çid”): “bascuence hantiguo” (I: 484)³³⁶.
- Sura*: (Ekialdeko Iberian): “madera” (I: 485)³³⁷; “población de madera” (III: 305).
- Surta* o *Surtan* (Ekialdeko Iberian): “en el fuego” (I: 485); “lugar fogoso” (III: 305).
- Tagus*, *Tagorma* (“rey que fue de Espana, llamado por su sobrenombre Horma u Horma”): “Este nonbre de Tagus significa "arrancamiento" y el de Horma ‘población’; y en bascuence quiere dezir ‘pared’. Y deste bocablo bascongado de *horma* en munchas partes de Castilla llaman a los paredones ‘ormazos’ y también ‘ormas’ (I: 165) (II: 123).
- Tarragona*, “de quien tomó nonbre el reino de Aragón, quiere dezir en caldeo ‘probinçia abundante de buyes’, el cual nonbre de Tarragona es conpuesto de las dos lenguas hebrea y vizcaína, en el cual significa ‘tierra buena de grande exçelencia’ porque *tarra* en hebreo es ‘tierra’ y en bascuence *ona* es ‘bueno’ (II: 122).
- Toledo* significa ‘congregación’ o ‘madre de gentes’ y en bascuence quiere dezir ‘tómalo manchado’, porque *to* dize ‘toma’ y *ledoc* quiere dezir ‘manchado’ (II:124).
- Túbal*: “este nonbre Túbal en la lengua heber significa ‘mundo o confusión grande’; y en la lengua bascongada *Ubalc* quiere dezir tanto como ‘rey de todos’, *ulc* ‘rey’, *balc* ‘de todos’, como si más claro dixiésemos ‘rey de todos los de su partido’ (II. 122, 123).
- Ursino* (Erromako leinua) < *Urtino* (kapitain bizkaitarra) (II: 21, 92).
- Uxama* en Osma (herri zeltiberiarra): “basía madre” (I: 484)³³⁸; “madre bassia” (III: 305)..
- Varia* (Zeltiberiako herria), “que agora es un lugar pequeño que se llama Varea, media legua más abaxo de la çiudad de Logroño, en el camino como vamos a Calahorra. *Varea* en bascuence quiere dezir ‘limaco’ y también ‘baço’ (II:122).
- Viana* (pueblo): “las dos véislas” (I: 484); “veis ay los dos” (III: 305)³³⁹.

³³⁵ Poza: 19r.

³³⁶ Poza: 18vto.

³³⁷ Poza: 21r.

³³⁸ Poza: 19r.

³³⁹ Poza: 19vto.

10.3. Beste etimologia batzuk.

- Abendaño* (leku eta leinu izena) < *Abe Endano* (“caballero francés”) (II: 354).
- Acuña* (abizena): “... por husar de cuñas en los sitios de los enemigos le pusieron por nonbre el de las Cuñas” (II: 491).
- Alí Caur* (pertsonaia): “Alí el que fue cristiano (*caur* quiere dezir en lengua turquesca ‘cristiano’) (II:373).
- Almis* (mendi izena) < *Almiz* (pertsona izena) (I: 568).
- Astrifis* (Écija): “porque la fundó Astir, varón troyano” (I: 388).
- Astorga* < *Asturica* (I: 601).
- Ayala* (bailada eta leinu izena) 1. < “áyala”; “pidió al Rey que le hiziese merçed de las tierras (...) y el Rey dixo: ‘áyala” (I: 317, 420: 421; III: 20, 297).
- Balladolid* (hiria) < 1. “balle de Ulid” (rey moro); 2. “balle de lid” (“por ser contínuas las lides e contiendas”) (II: 457).
- Barcelona* < *barça nona*, “por la novena barca que dejó allí Hércules en su viaje a España” (I: 376).
- Barragán* (abizena): “en castellano es lo mismo que mançebo” (I: 577).
- Belón* o *Bela On* (río Guadalete): “cuerbo bueno” (I: 484)³⁴⁰.
- Bhetis*: “nonbre caldeo y que significa ‘cassa’, y en hebreo ‘hondura” (II: 542).
- Braga* (leinu izena): “unos pañetes para cubrir sus vergüenças que se llaman en romançe antiguo ‘bragas” (II:322).
- Cádiz*: “(Hércules) púsole nombre Cádiz, que quiere dezir ‘mojones” (I: 376).
- Calatañaçor*: “altura de buitres’ en lengua arábiga” (III: 244).
- Calderón*: “cuando este infante naçió (...) echaron el niño so una caldera” (III: 24).
- Cambo* (leku izena): “tomado de Cambón Blasco, capitán del rey Atalante” (I: 493).
- Cara Yaçufu* (pertsonaia): “Yaçufu negro’ (*cara* quiere dezir en turquesco ‘negro’) (II: 373).
- Cartagena* < Nueva Carthago; “antiguamente llamada Contesta” (I: 388).
- Coruña, La*: “de Carnelia, mujer que puso la primera piedra de la ciudad” (I: 356).
- Crepta*: “isla de Candia que quiere dezir ‘tierra abundosa de carnes” (II: 123).
- Criseo* (rey español): “hombre rico hecho de oro” (I: 190).

³⁴⁰ Poza: 18vto.

- Centauros*: “quiere dezir ‘hombres que hieren toros’ (I: 574).
- Deusto* (leku izena) < De Busto, “por el mucho ganado bacuno que allí se solía criar” (I:672).
- Elenes* (en Galicia): “quiere dezir ‘población de griegos’ (I: 388).
- España* < Spania < Pania, de Pam, “antiguo gobernador de España” (I: 308).
- Famo* (Erandioko auzunea): “quiere dezir ‘templo’ o ‘lugar sagrado’, nombre latino o griego” (I: 675).
- Gadir*, “que es la isla de Cádiz, llamada de su antiguo principio Herithrea, significa en caldeo ‘cosa muy ficada o engrandecada y rodeada de setos’, y *gades* significa ‘cosa final o extrema’ (II: 123).
- Gerión* (nombre de rey español) < “lugar en África llamado Abosgera o Gersa o Gersón o Gerión, ‘extrangero’ en caldeo” (I: 189).
- Geriones Luminios* (nombre de reyes españoles): “capitanes o gobernadores mayores de gentes armadas” (I: 219).
- Gibraltar* (hiria) < Gibel Tarif: “el monte de Tarif” (“*gibel* en lengua arábica es ‘sierra’) (II: 375).
- Gordoncillo* (leinu izena): “traen este nombre de los godos (...) una dueña que se llamaba doña Goda” (I: 323).
- Granada* < *ga*, “cueva”, + *nata*, “blanca”, en arábigo (I: 439).
- Guadalquivir*: “en arábigo (...) quiere dezir ‘río grande’ (*guadal*, ‘río’, *quibir*, ‘grande’) (II: 517, 542; III: 222).
- Guadiana*: “río topo” < *gua*, ‘río’ en morisco, y *ana*, ‘topo’ en griego” (I: 356).
- Hildrim* (pertsonaia): “quiere dezir en arábigo ‘rayo’ (II: 404).
- Hircanos*: “Hircania significa ‘nación invidiosa, con cuidado’ (II: 122).
- Hispalis*: 1. “respeto que sus primeras casas fueron fundadas sobre palos” (II: 517); 2. “fundó el rey Híspalo a Sevilla y la llamó de su nombre Híspalis” (II: 517).
- Italia*: “Ataliach, no es bocablo hetrusco y significa en hebreo ‘colmo soberano’ o ‘montón supremo’, como si dixiésemos *sceptio* de diadema o de corona imperial” (II: 122).
- Maldonado* < “mal donadas”. Gogo txarrez eman omen zizkion armak Erregek eta hortik leinuaren izena (I: 428).

- Manriquez* (abizena) < “el mal rico me duele” (istorio fantastiko batean emandako esaldia) (I: 325).
- Mesina* (capital de Sicilia): “nombre que proviene de los griegos llamados mesenios” (I: 256).
- Moncayo*: Cacos Liçinio-k eman omen zien izena mendi hauei (1321 a.C.) (I: 337).
- Nápoles* < Eneapol, “ciudad de Eneas” (I: 417).
- Nebrija o Lebrija* (“población cerca del Guadalquivir”): “del griego *nebris*, porque quiere tanto dezir como ‘pellejo de corço’ (I: 308).
- Ocaña* (herria) < Olcada (“naçión del linage de los carpetanos”) (II:298)
- Olbedro*: “quiere dezir ‘moros biejos’ (I: 519).
- Olite* < *Ologito* (I: 493).
- Orense*: “primero se llamó Ansilocopolis y Ansilouia, de Ansiloco, su fundador; luego los romanos la llamaron Aguas Caldas; finalmente los suebos la bautizaron Orense” (I: 388).
- Osorio*: “se toma de *osar*, *osorio*” (I: 445).
- Persia*: “en hebreo significa ‘desconformidad’ (II: 122).
- Porras* < *Porriños* (I: 463).
- Rosas* < *Rodas* (I: 573).
- Sagunto*: “tomado de Zaquinto, capitán griego” (I: 519).
- Sahavedra*: “saya vieja”, “quel gallego por cosa vieja dize *vedra*” (I: 333).
- Salazar* (leinu izena) < *salaca azar* (arábigo) (I: 317).
- Sevilla*: 1.“- Pues no quisiste ser çibdad, sé villa. Y así se llamó Sevilla” (Hercules-ek botatako esaldia omen) (I: 377); 2. < Sioma Julia (pertsonaia mitikoa) (II: 518).
- Sotomayor*: “quiere dezir *sotomayor*, ‘dolor’ (I: 333).
- Tablada*: “por la grande tabla de canpos rasos y llanos que tiene” (II: 534).
- Tarazona*: “significa en armeno y lengua aramea ‘ayuntamiento de pastores’ (I: 495).
- Toledo* < *To* + *Ledo*: Rocas, Toledo hiriaren sortzailearen bi semeen izenak bat eginda. (I: 438).

Trinacria (“nombre antiguo de Siçilia”): “en griego sinifica tanto ‘como cosa triangular’ o ‘de tres puntas” (I: 256).

Trujillo < “torres de Julio (emperador romano)” (I: 446).

Valencia del Cid (ciudad): “ la fundó Romo, rey español, cuyo nombre en griego significa ‘valiente’, y por ello la ciudad se llama Valencia” (I: 307).

Vizcaya < *biz cain*: “*vis* en latín quiere dezir ‘dos’, así que querían dezir que fuesen dos vezes Caín“ (I: 314; II: 18).

Zamora: “un rey vido a un moro andar tras una vara prieta deziéndole ‘¡Xamora!’” (I: 441).

11. **KRONIKAREN EUSKARA.**

Ibarguen-Cachopin Kronikan ageri diren euskal testu eta hitzak, zalantzarik gabe, lekukotasun garrantzitsuak dira euskal hizkuntzalaritza historikorako. Ikusiko dugun moduan, euskara zaharra, eta bereziki bizkaiera zaharra berreraikitze lanetan aintzakotzat hartzea merezi duten materialak eskaintzen dizkigu, bai hiztegiari dagokionean, bai sintaxia eta morfologiari dagokionean.

Gaztelaniaz idatzitako lan zabal honetan datozen euskal testu eta hitzak zein hizkerari dagozkion erabakitzerakoan, nahita edo nahigabe, gaztelaniaz irakurri ditugun testuek emandako susmoak aldean ditugula ekiten diogu atal honi. Beste hitz batzuetan esateko, hipotesia osatua dago jadanik eta ondorengo azterketak hipotesi hori baieztatu edo ezeztatu egin beharko du.

Izan ere, bazter ezinezko datuak ditugu jada esku artean, hala nola: egileetako bat bizkaitarra dela, lanean bildutako berri historiko eta genealogiko gehienak Bizkaiko lurraldeari dagozkiola, jasotako kantu eta eresiek bizkaiera mintzatzen den tokietako berriak dakartzatela eta, azkenik, egileek aipatzen dituzten iturri gehientsuenak bizkaitarrak direla.

Baina bada beste datu garrantzitsu bat ere kontuan izatekoa, *Kronika* ez dela, ez ikuspegi historiografikotik, ez estilistikotik, batasunik gordetzen duen lana. Aurreko kapituluetan agerian geratu da iturri askotatik edan izan zutela egileek euren lana osatzean, eta horrek sarritan kontraesanean jarri zituela. Halaber, urteetan zehar *Kronikari* material berriak erantsi zizkieten esku ezezagunak ere izan zirela erakutsia dugu.

Horrek guztiak ondorio argia du, alegia, ezin ditugula *Kronikak* gordetzen dituen euskararen lekukotasun guztiak batera aztertu, iturri bereko emari balira bezala, eta tentuz diskriminatu beharko ditugula testuinguru bateko eta besteko materialak.

- IC (Ibarguen-Cachopín): Laburdura horren pean sartuko ditugu kronista biek, batez ere Cachopínek, euren gaztelerazko prosan zehar hedatu zituzten esaldi eta hitz solteak, gehienak abizenen etimologia azaltzeko edota pasadizo historikoak edertzeko erabiliak. Halaber, *Kronikaren* zenbait koadernotan, bereziki 35. kuadernoan (I: 482-485),

74.ean (II: 121-124) eta 176.ean (III: 305) itxura guztien arabera beste lan batetik jasotako etimologiak bildu zituen Cachopinek. Haietako batzuk eta Pozak (1587: 15-20) azaldu zituenak ia berberak dira, Pozak luzeago eta zehatzago azaltzen baditu ere. Pentsa liteke biek iturri beretik edan zutela, guretzat ezezagun den lanen batetik, edo bestela, Cachopinek Pozaren lanaren bertsio laburtua eman zigula.

- EK (Eresiak eta Kantuak): Gure ustetan, aparteko corpusa osatzen dute material hauek, gertakari historiko gogoangarriak ahoz aho iraurarazteko sortuak eta *Kronikan* fideltasun handiz jasoak.
- KK (Kantabriarren Kantua): Leloren Kanta izenaz ere ezaguna, kantu apokrifo honek ere aparteko tratua behar du.
- AE (Andramendiko Eskriturak): Prosa apokrifoa, hau ere egile ezezagunduna.
- Voc.: 84. koadernoan bi zatitan banatutako hiztegiñoa erantsi zuten egileek. Edukiari erreparatuta “bidaiarientzako hiztegi” baten itxura du eta *Kronikari* berandu samar gehitu zitzaizkion, 1600 urtea igarota. Ibon Sarasolak argitara eman eta aztertu zituen 1983an³⁴¹, eta guk lan honen barruan kapitulu bat eskaini diogu (243-256 oo.).

Zerbait izatekotan, atal honek euskara zaharra berreraikitze lanetan aportazio izan beharko luke, eta, zehatzago, Bizkaiera Zaharra (BZ) ezagutu asmoz egiten ari diren lanetarako material. BZ-z ari garenean zertaz ari garen argitze aldera, Lakarrak (1986) eman irizpideei lotuko gatzaizkie. Ikerlari guztiak ados izan arren esatean XVI. eta XVII. mendeetan idatzitako testuetan islatzen den hizkera dela BZ, Lakarrak muga kronologikoak zehaztu eta arrazoitu egin zituen modu honetan:

Nire aldetik 1745 jarriko nuke mugarriztat, ez soilik BZ.arentzat, baina baita –eta batez ere– GZ.arentzat; guztiok dakigunez, urte horretan argitaratzen du Gipuzkoako Diputazioak mende hartan eta hurrengoan hainbeste arrakasta izan zuen *Hiztegi Hirukoitza*. Ohi bezala, proposatzen den fetxa gutxi gora-beherakoa da, jakina; ez da ahanztekoa gainera 16 urte lehenago Salamancan argitaratu zen egile beraren *El Imposible Vencido, Arte de la Lengua Vascongada*-k izan zuen eragina literatur B. Eta G.aren eraikuntzan ez zela mezprezatzekoa izan.. Alabaina, bat hautatu behar eta hori aukeratu dut; cf. Halaber “Gero Larramendi dugu

³⁴¹ “Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos”, berrarg. *ASJU XI*, Donostia, 1990.

aro berria zaharretik berezikoduena eta urtemuga, horrelakorik behar bada, 1745 litzateke” (Mixelena 1984a, 13 eta ik. Orobat Sarasola 1986)³⁴².

Artikulu berean, Lakarrak BZ.aren ezaugarri nagusiak ere aurkeztu zituen eta “fenomeno bakoitzaren sorrera, kronologia eta hedaturaz dakiguna” laburtzen saiatu zen. Horrela BZak euskararen historian duen tokia eta beste euskalkiekiko duen harremana zehazteko lanean urrats sendoak eman zituen. Guk, geure aldetik, ahal izan dugun neurrian Lakarrak proposatutako bideari lotu gatzaizkio, izan ere, bere lanak biziki erraztu digu geurea *Kronikaren* euskara aztertzeke metodologia eta irizpideak ezartzerakoan.

11.1. Hiztegia

Ibarguen-Cachopín Kronikako koadernoetan zehar bildutako hitzak aurkezteko orduan *Orotariko Euskal Hiztegiaren* (OEH) eredia izan dugu gogoan. Lehen-lehenik, euskalkien arabera sailkatu nahi izan ditugu hitzak, arreta mendebaldeko euskalkietan jarrita eta ekialdeko euskalkiak talde bakarrean sartuta, bukaerako azterketa estatistikoa erraztearren, ikusiko denez, azken talde honen pisua oso txikia baita. Hona erabilitako laburdurak:

Oro.: Hedadura orokorreko hitzak, euskalki orotan erabiliak edo dokumentatuak.

Ar.: Arabako euskararen agertu diren hitzak; Landuccioiren hiztegia (1562) eta Lazarragaren eskuizkribua (1564-1567) hartu ditugu euskalki honen erakusgarritzat.

B.: Bizkaiera.

BZ: Bizkaiera zaharra.

G.: Gipuzkera.

Eki.: Talde zabal honetan, bizkaiera, gipuzkera eta Arabako euskaratik bereiztu nahi ditugunean, ekialdeko eta iparraldeko euskalkiak sartuko ditugu, bestela esanda, Zuazoren (1996) sailkapena aintzakotzat hartuta, mendebaldekoak edota erdialdekoak ez direnak.

Hapax: Inoiz dokumentatu ez den hitzari deritza. *Kronikan* anitz dira, batez ere etimologiak azaltzerakoan emanak eta, ondorioz, gure ustetan sinesgarritasun gutxikoak. Kantetan edo bestelako testuinguruetan

³⁴² Lakarra 1986: 643.

emandakoei, ordea, aintzakotzat hartzekoak deritzegu, egileak tradiziozko testuetatik edo iturrietatik jasoak baitira, ez berak sortu edo bortxatuak.

Segidan, hitzak *Kronikan* duen kontestua eta kokagunea zehaztu dugu, eta, hitzari lexikografiaren ikuspegitik bereziki adierazgarri edo esanguratsu iritzi diogunean, aukeratutako zenbait lan eta idazleren adibideak erantsi ditugu, argigarri gerta daitezkeelakoan. Hona hemen aipatu iturri horiek:

- A: Azkue, R.M. de, 1905, 1906, *Diccionario Vasco-Español-Francés*, Bilbo.
- Balad: Lakarra, J.A. et alii, 1983, *Euskal Baladak*, 2. liburua (antologia), Donostia.
- BF: García de Salazar, Lope, 1471, *Las Bienandanzas e Fortunas*, Angel Rodriguez Herreroren edizioa, Bizkaiko Diputazioa, Bilbo, 1967, 4 liburu.
- Cap: Ochoa de Capanaga, M., 1656, *Exposición breve de la doctrina christiana*, Bilbo.
- Dv: Duvoisin, Jean, eskuz idatzirik utzitako hiztegia.
- E: Dechepare, Bernard, 1545, *Linguae Vasconum Primitiae*, Bordeaux; P. Altunaren edizioa, 1980, Bilbo.
- EZ *Man*: Etcheberri, Joanes (Ziburukoa), *Manual devotioezcoa*, 2 lib. (I, II), Bordele, 1627.
- FB: Fray Bartolome, 1816, *Euskal-Errijetako Olgueeta eta Dantzeen neurrizko-gatz-ozpinduba*, Iruñea (ed. Faksimil Donostia 1978).
- Gar *Mem*: Garibay, Esteban de, 1858, *Memorias*, Academia de la Historia., Madril.
- H: Harriet, Maurice, eskuz idatzirik utzitako hiztegia.
- Lac *Irach*: Lacarra, Jose M^a, *Colección Diplomática de Irache*, Volumen I (958-1222), Iruñea, 1965.
- Lar: Larramendi, Manuel de, 1745, *Diccionario Trilingüe del Castellano, Bascuence y Latín*. Berrarg. faksim. Txertoa, Donostia, 1984.
- Lar *SAgust*: Larramendi, Manuel de, *Panegírico del gran doctor de la Iglesia S. Agustín*, Azpeitia, 1885.

-
- Lar *Sup*: Larramendi, Manuel de, Suplemento al *Diccionario Trilingüe*.
 - Laz.: Juan Perez de Lazarraga, Larrea dorretzeko jaunaren eskuizkribua, 1564-1567, Iñigo Landaren transkripzioa.
 - Lç.: Leizarraga, Jean, 1571, Itun Berriaren itzulpena, edizio faksimila, Donostia 1979.
 - Lcc.: Landuchius, Nicholaus, 1562, *Dictionarium Linguae Cantabrigiae*, M. Agud eta K. Mitxelenaren edizioa, Donostia, 1957.
 - Mic: Micoleta, Rafael de, 1653, *Modo breue de aprender la lengua vizcaína*, F. Fitaren edizioa, Bartzelona, 1880.
 - OEH: Mitxelena, 1987-2005, *Orotariko Euskal Hiztegia*, XVI liburu, Euskaltzaindia, Bilbo.
 - Poza: Poza, A., 1587, *Antigua lengua de las Españas*, Bilbo. Berrarg. faksim. Euskaltzaindia, Bilbo, 1987.
 - RS: *Refranes y Sentencias*, 1596, Joseba Andoni Lakarraren edizioa, 1996, *Refranes y Sentencias (1596). Ikerketak eta Edizioa*, Euskaltzaindia, Bilbo.
 - *ConTAV*: Sarasola, Ibon, 1983, “Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos”, berrarg. *ASJU XI*, Donostia, 1990.
 - SP: Pouvreau, Silvain, eskuz idatzirik utzitako hiztegia.
 - *TAV*: Mitxelena, Koldo, 1964, *Textos Arcaicos Vascos*, berrarg. *ASJU XI*, Donostia, 1990.

Hitzak

- ha** “aquel”: *ac dau bioça*, III: 186 (IC); vide 11.2. Morfosintaxia: erakusleak.
- ahaide nagusi** “pariente mayor” (oro.): *bere Ayde naguçi IbarгойengoEn Aurrean*, I: 58(AE). Lehen agerraldia.
- ahal** (gurarizko lokailua, botiboa): **al** “destos deçienden los de Albisu de Vizcaya y Albiçu, que quiere deçir ‘si ubiesse fuego”, II: 95 (IC).
- ahal izan** “poder” (oro.): “*Aldana (...)* quiere tanto dezir en bascuençe como en romançe ‘el que puede ser”, II: 661 (IC).
- ahalegin** “hacer todo o posible” (oro.): *Romaco aronac / aleguyn eta / Vizcayac daroa / cansoa*, II: 90 (KK). Laz.39.aur.: *eneçat faltadu çan aleguina / eneçat faltadu çan esporçua*.
- ahariki** “carne de carnero” (oro.): “Carnero *ariquia*”, II: 238 (Voc); “*Ariquia* carnero”, II: 239 (Voc). Landucciok jaso legez dakar Vocabulario honek ere, adiera bera emanda.
- ahaztu** “olvido”: “Asturias es bascuençe, porque *astu* quiere dezir ‘holbido’ y *asturiac* significa ‘probinçia’ o ‘muchas villas juntas holbidadas”, I: 482 (IC). BZeko partizipioa *aztu* da; RS: *anztu*; Mic: *aztuten badozu*.
- abarka** “abarca” (oro.): “E, porque la primera vez le bieron con abarca, de allí adelante le llamaron el rey don Sancho *Abarca*”, III: 123 (IC). Leire, c. 1050: *auarcha*.
- adar** “cuerno” (oro.): “y también de unos cuernos grandes a manera de bozinas, que tenían llamados *adarrac*”, II: 53 (IC); “cuernos *adarrah*”, II: 238 (Voc); “*Adarrah* cuernos”, II: 239 (Voc). Lcc: *adarrakin emaiten deuená*; RS: *idia adarrerean*.
- hagin 1** “muela” (G., eki.): “a las muelas *aguinah*”, II: 235 (Voc) “*aguinach* muelas”, II: 239 (Voc).
- hagin 2** “diente” (B.): “*Aguina* ‘diente’, I: 485 (IC); “*aguina* = lugar que tiene dientes”, III: 305 (IC). Bizkaieraz *agin* “diente” dugu orokorrean, besteetan *hortz* denean, eta adiera honekin 1. agerraldia da hau; Lcc: “muela, *agina*”.

- hagintopo** “quijada”: **hagintxotoa** “Y el otro caudillo de Axaris, llamado *Aguinchotoa*, y según el liçenciado Gaspar de Peña y Galdocha, *Aguichoa*, se encastilló con algunos que le seguieron”, III: 167 (IC). Lehen agerraldia.
- agiri** “descubierto” (Ar., B.): “baliente guerrero, llamado Juan Ibáñez de Aguiri, que tanto quiere dezir *aguiri* en bascuençe como en romançe ‘descubierto’, II: 427 (IC). Ez du substantibo funtzioa, adjetiboarena baizik, ohiko *ageri*-rena alegia; Lazarragak ere hala darabil: *çeure aoan doçu aguiri amez doçuna*.”
- agor** “seco” (oro.): “*Agorreta* es bocablo bascongado que quiere dezir ‘casa seca’, I: 576 (IC).
- agur** “beso pies y manos de V.S.” (oro.): *baesoan bere nagaçari legues: Ochoa Onsaluch, agur, agur!*, II: 58 (AE); *Agur Jauna*, II: 238 (Voc).
- hainbat** “tantos” (oro.): *Gueure lurrean / ta aen errian / biroch aynbaten / çamoa*, II: 90 (KK). Cachopinek emandako itzulpenari begiratuta (“dos batallas finales de tantos a tantos”) substantibo funtzioa duela dirudi: “biok hainbatean (gerlari kopuruan berdindurik) egin zuten borroka”.
- aingira** “anguila”, zenbait tokitan “congrío” (oro.): “congrío *ayngira*, II: 237 (Voc); “*Aingira congrío*”, II: 239 (Voc).
- aingura** “ancla” (G., eki.): **aingula** “ancora *ayngula*”, II: 237 (Voc); “*Aingula Ancora*”, II: 239 (Voc).
- aitabitxi** “padrino” (oro.): *Aita bichia, se bichiac dira onec?*, III: 261 (IC). BF-en agertu zen lehen aldiz (TAV 2.2. 17), *Kronikak* kontatzen digun pasadizo berberean. Ez dago argi zein itzulpen eman zioten kronikariek hitz honi; kontuan izatekoa da iloba eta osaba arteko elkarrizketa dela. Ziurrenik, iloba osabaren etxean izango zen hazten eta aita usteko edo aitorde izango zuen.
- aitejauna** “señor” (B.): “los vascongados o cántabros llamaron *a[it]e jauna*, que quiere dezir en lengua vascongada ‘señor’, II: 24 (IC). *Kronikan* jasotakoak bizkaiera itxura nabarmena du, Garibayk Milia Lasturren eresian jasotako *aitajauna* orokorrigoaren aldean.

- aitonen seme** “hijos de buenos padres”: “entregó por partidas y porciones a los *aitaonaen semeac* de la misma provincia, que quiere decir en nuestro castellano ‘hijos de buenos padres’”, III: 343 (IC). Lehen agerraldia idatzia da.
- aizkora** “hacha”: “acha *ayzcora*”, II: 236 (Voc); “*ayzcora* hacha”, II: 239 (Voc).
- axkora** “Ascura o Ascora, que todo es un significado, es billa en aquella región, cuyo nombre buelto al castellano quiere decir ‘hacha de partir leña’”, I: 486 (IC). *Axkora* bizkaierazko testuetan aurkituko dugu nagusiki; bestalde, [z]-ren buztidura iradokitzen du, nabardura aski hedatua bizkaieraz. Voc-eko forma, ordea, orokorra da.
- hala ere** “aún así” (oro.): **ara bere ganboar seme lasterra / ara bere lasterrago / abendañuje motela**, I: 186 (EK). Orokorra. Guztiarekin ere, (h)ala>(h)ara bilakaera ez da dokumentaturik ageri.
- alaba** “hija” (oro.): “porque *alaba* quiere decir ‘hija’”, II: 354 (IC). Lac *Irach*: “*Alaba* filia Goto” (1222).
- albak** (hapax-a): “*Albac* en bascuence quiere decir ‘ribera golpeada’, como si más entero dixésemos ‘playa o ribera de agoa corriente grande e larga pizada y golpeada con los pies por muchas gentes’, porque *al* es ‘ribera’ y *bac* ‘golpes de gentes con los pies’”, II: 124 (IC).
- alboka** “cornetilla”: “con grande fiesta y regozijos y solenidad y música de *albocas*, que en morisco se llaman xabebas y en romance cornetillas”, I: 309 (IC); “les hizieron creçidos regozijos de cantares y danças y músicas de flautas, atanboresos, cuernos y albocas y de otros instrumentos que usaban”, I: 536 (IC); “xabebas, que llaman en bascuence *albocas*”, II: 167 (IC). Lehen agerraldia.
- alde 1.** “lado” (oro.): *uraz alde bestea*, II: 186 (EK).
- alde 2.** “tener, llevar encima” (B.): *aldean darabilde guerrea*, III: 270 (IC). Lehen agerraldia.
- alkabala** “alcabala”: *eguezu alcabalez merchede*, I: 690 (EK). Mailegu honen lehen agerraldia ... eta azkena, antza denez. Hiztegieleek ez dute jasoa.

- alkabuz** “arcabuz”: “*Alcabuza* arcabuz”, II: 239 (Voc); **arkabuz** “Arcabús *arcabuça*” II: 238 (Voc). *Alkabuz*-en lehen agerraldia da, euskaraz hedatuena.
- alper** “inutil” (Ar., B.): *alper ybay* “río bagabango o inutil”, I: 674 (IC). *Alper* aldaera bizkaierazko testu zaharretan bakarra zen eta XVIII. mendean geroztik zabaldu zen beste euskalkietara *alfer*-ekin bat eginda. Laz. 25.atz.: *Arrc niri tira nic ari pulça / aynbat neguian alpertu*.
- haltz** “aliso” (oro.): “*Alzarte* ... significa ‘entre alisos’”, I: 521 (IC).
- ama** “madre” (oro.): “Uxama en Osma es bascuence que quiere dezir en romance ‘basía madre’”, I: 484 (IC); “un lugar pequeño llamado Amaya, que quiere tanto dezir como ‘¡Madre, basta!’ buelto el bascuence en castellano”, II: 149 (IC); *çaurietan curadu eta / ama, nagoçu oera*, II: 186 (EK); “*uxama* = madre bassia”, III: 305 (IC).
- ametz** “roble, carrasco, rebollo”: “subiérase en un árbol que llaman revollo e en bascuence *ameza*”, II: 77 (IC); “ay muchos árboles silbestres llamados tocornos en muchas partes y en otras se dicen carrascos, que son a manera de robles, aunque por ser silbestres su hoja y bellota y la corteça del árbol tienen, aunque semejante, algo diferente; a estos llaman en bascuence *ameça* siendo uno, y siendo muchos los dizen *ameçuac* en el bascuence antiguo y en el moderno *ameçac*”, II: 581 (IC). Lehen agerraldia.
- amoradu** “enamorado”: *zer ete dau amoradu guexoac*, I: 557 (EK). BZ-eko forma. Laz.: *çu nundi çabilz amoradua / bacoçh desconsoladuric*.
- amore** “amor, gracia” (oro.): *alcar biac artudabe gustioen amorean* II: 58 (AE). Laz.: *jaun çerucoaen amores / conta deçadan / pasio santua doloz*.
- amuarraïn** “trucha”: **amorrain** “trucha *amoarrañña*”, II: 237 (Voc); “*Amoarraña* trucha”, II: 239 (Voc). Aldaera hau Bizkaia zein Gipuzkoan jaso izan liteke.
- han** “allí” (oro.): “al que llaman Ançillo (...) *an çilo*, bocablo bascongado, quiere dezir “allí agujero, por el agujero”, I: 667 (IC); “Anda tanto quiere dezir en bascuence como en castellano [“allí está”]: *an*, ‘allí’, *da*, ‘está’”, II: 661 (IC).

- anaia** “hermano”: **anaje** (BZ) *Billela ta Arteaga, anage onac urrean*, I:564 (EK); *Ochoa Onsaluch / burua dala / Aren Urrengo Anage Lastanac*, II: 58 (AE).
- andeja** “curbina, mero”: **andeza** curbina *andeça*, II: 237 (Voc); *Andeza* curbina, II: 239 (Voc). Lehen agerraldia.
- handi** “grande” (oro.): *cheac andia bençiliri asmuz ta jaquitez*, I: 665 (IC); *Eguyn Eusan Achacaba Andia gaytic*, II: 58 (AE); *Andi aristac / gueysto sindoas / betico nayas / narr doa*, II: 90 (KK); *Jaun Diaoz Arocoa / çaldun andi Espanacoa*, II: 235; *Gomez andia çanarren*, II: 185 (EK); “fue llamado por sobrenombre Joan Andia, que quiere dezir Juan Grande”, II: 366 (IC).
- andre** “señora”: “a la muger andrea”, II: 235 (Voc); “*Andrea* muger”, II: 239 (Voc). Hiztegiñoan gipuzkerazko aldaera. **andra** [An]dra *urena Butroecoa nançuçu*, I: 555 (EK); *ara andra mendia*, II: 55 (IC). Bizkaierazko testu zaharrenetako forma: *Gar Mem: Arren, ene andra Milia Lasturco*; *Laz: Nola andraen bildur çara*.
- angeru** “ángel” (B.): “*Chomin Anguerua*, que quiere dezir ‘Domingo o Dominguito Ángel’, II: 174 (IC); “*Ibar Anguerua*, ‘lugar de ángeles’, II: 174 (IC). Bizkaierazko forma zaharra; lehen agerraldia.
- anitz** “muchos”: *Aec anys ta guc guichytaya*, II: 90 (KK). Ez da bizkaierazko testuetan agertzen, bai ordea nafarreraz eta iparraldean, eta baita gipuzkerazko zenbait testu zaharretan. Britainiako Kantua (1590): *Nobleza guztiaren aniz estimatua*³⁴³.
- antxume** “cabrito” (oro.): **anzume** “Cabrito *ançumea*”, II: 238 (Voc); “*Anzumea* cabrito”, II: 239 (Voc).
- anzi** “camino” (Hapax-a): “*Anci* camino”, II: 239 (Voc).
- aho** “boca” (oro.): “a la boca *aoa*”, II: 235 (Voc); “*Aoa* boca”, II: 239 (Voc).
- apa lastan** “besos y abrazos”: *apa lastan, alcar biac artu dabe*, II: 58 (AE). Batipat bizkaierazko testuetan; *RS 205: Lastana ta apea? Leusindu ta kaltea?*.
- apal** “floxos” (oro.): “*Apalategui*, ‘multitud de floxos’, II: 661 (IC); “al caudillo Gasco Apala”, II: 366 (IC).

³⁴³ Sarasola 1990: 78.

- hara (han)** “he allí” (oro.): *ara bi eta geyago*, I: 569; “(...) a este solar de Arañbia se llamó en tiempo antiguo *Ara An Çubia*, que quiere tanto dezir en bascuence como en castellano ‘beis allí la puente’, *ara* ‘mira’ o ‘beis’, *an* ‘allí’, *çubia* ‘la puente’, II: 415 (IC).
- arabar** “alavés” (oro.): *Gomizec asco lagunic / çabal arabaarric,/ guipuz hondo ederric, / bizcaytar urduri gogoric*, II: 185 (EK).
- arana** “ciruela”: “Çiruela Arana”, II: 237 (Voc); *Arana* ciruela, II: 239 (Voc). Bizkaian ez zaio adiera hau ematen, bai ordea gipuzkeraz eta bestez.
- haran** “valle” (oro.): “Çaldiaran, que quiere dezir ‘prado de caballos’, II: 358 (IC).
- arantza** “espina” (oro.): “Espinas *arançah*”, II: 236 (Voc); “*Aranzac* espinas”, II: 239 (Voc).
- ardi** “oveja” (oro.): “obeja *ardia*”, II: 237 (Voc); “*Ardia* obeja”, II: 239 (Voc).
- ardo** “vino”: “bino *ardo*”, II: 238 (Voc); “*Ardoa* vino”, II: 239 (Voc). GN eta G-zko tradiziokoa.
- are** (ikus. **bare**).
- arerio** “enemigo”: *onac arin, gog[oa] sendo, arerioaen asean, ... areryoac ur jarrayca* I: 564 (EK). Bizkaierazko testu zaharrenetan ageri ohi da; Laz. 39atz.: *dichosa çu laco arerioa dichoso ni laco arrilleroa*; RS 270: *Muxika arerioakaz agika*.
- argi** “luz” (oro.): “Arguibarris, bocablo bascongado. Quiere dezir ‘luz otra vez’, o ‘alumbra otra vez’, I: 576 (IC); *Sarria, sarri, gabyan argi*, I: 690 (IC).
- argi-izar** “lucero del alba”: *argui yçarrac urten dau / çeruan goyan ostançean*, I: 186 (EK). Lehen agerraldia.
- arin** “ligero” (oro.): *onac arin, gog[oa] sendo, arerioaen asean*, I: 564 (EK).
- haritz** “roble” (oro.): “roble *ariça*”, II: 236 (Voc); “*Ariza* roble”, 239 (Voc); “*ariza=robre*”, III: 305 (IC). **aretx** (Ar., B.) “*Arexçabaleta*, ‘robredal ancho’ o ‘término o monte lleno de árboles’, II: 410 (IC).
- arizio, arrizio** “cerradura” (hapax-a): “Ariçio fue pueblo junto a Abero de Portugal. Este es bascuence antiguo que significa en romançe “çerradura de heredad”, I: 484 (IC); “*arizio* = corral de ovejas, porque *arrecia* es corral de ovejas”, III: 305 (IC).

- arma** “arma” (oro.): *etorri san Aurqui / Laster / Atetirean Eneco Pagoetantayco bere arma gueçi barriacas*, II: 58 (AE); *Bildurric guychi / arma bardinas / oramayasu / guexoa*, II: 90 (KK); *Arma escuduac on dira dardos, pareric estabe canporacos*, I: 564 (EK); “*arnea* es la lança”, I: 122 (IC).
- armaktika** “muchas armas, lugar armado” (hapax-a): “Armactica en el bascuence antiguo buelto en el romanze tanto quiere dezir como ‘munchas armas’, I: 486 (IC); *armactica* = lugar armado, III: 305 (IC).
- armen** “ganado menudo” (hapax-a): “Armendurua quiere dezir tanto como ‘deheza de ganado menudo’. Está conpuesto de *armena*, que es lo mismo que ‘ganado menudo’ y *durua*, ‘deheza’, I: 520 (IC).
- armenduru 1.** “dehesa de ganado menudo” (hapax-a): “*Armendurua* quiere deçir tanto como deheza de ganado menudo” I: 520 (IC).
- armenduru 2.** “montón de piedras” (hapax-a): “*Armendurua* en bascuence tanto quiere dezir en romanze como ‘piedra grande de donde han salido otras piedras’ e, por mejor dezir, ‘montón de piedras’, III: 186 (IC).
- arneo** “muerto con lanza” (hapax-a): “en vascuence *arneos* quiere tanto dezir como ‘gentes muertos con lanças’, porque *arnea* es la lança y *meos* son gentes muertas”, I: 122 (IC).
- aron** “ejército” (hapax-a): *Romaco aronac / aleguyn eta / Vizcayac daroa / cansoa*, II: 90 (KK); “abiendo formado un suntuoso exército aronas de Aragón ... mobió guerra al Rey de Nabarra”, II:106 (IC).
- arotz** “carpintero”: “Arostegi, ‘munchos carpinteros’, III: 188 (IC).
- arrain** “pescado”: “al pescado *arraña*”, II: 237 (Voc); “*Arraña* pescado”, II: 239 (Voc). *Besteak beste, bizkaierazko aldaera da; gipuzkeraz ohikoago da arrai.*
- arriba** “hermana” (oro.): *areryoac ur jarrayca arrebearen semea*, I: 564 (EK).
- arren!** “por Dios, por favor” (oro.): *arren, echosu orain osaba*, I: 564(EK).
- arresia** “corral de ovejas” (oro.): “*arreçia* es ‘corral de ovejas’, III: 305 (IC). *Lehen agerraldia; Lar.: “Seto, esia, de piedra, arresia”.*
- harri** “piedra” (oro.): “*arria* es ‘piedra’, II: 329 (IC); *piedra arria*, II: 236 (Voc); “*Arria* piedra”, II: 239 (Voc).

- harrieta** “pedregal”: “Arrieta es bocablo bascongado, el cual quiere dezir ‘pedregal’, o ‘lugar de muchas piedras o peñas”, II: 327 (IC). Lehen agerraldia.
- harriola 1** “herrería”, **2** “tabla de piedra”: “Este bocablo de Arriola quiere dezir tanto en bascuence como en romançe ‘herrería de piedra’ o ‘tabla de piedra’ porque *arria* es ‘piedra’ y *ola* ‘herrería’ o ‘tabla’, II: 329 (IC). Lehen aipamena.
- arro** “hueco” (oro.): “Y *arroa* quiere dezir ‘cosa güeca que se ha podrido dentro”, I: 484 (IC).
- arrosel** “besugo”: **errosel** “besugo *eroçela*”, II: 237 (Voc); “*errosela* besugo”, II: 241 (Voc). Bizkaia eta Gipuzkoan jasotako aldaera.
- arta-** “borona” (oro.): “*artabero* es ‘borona caliente”, I: 501 (IC). Lcc: *arto*, “mijo”.
- arte 1** “lugar” (oro.): “*artebero* es ‘lugar caliente”, I: 501 (IC). Lehen agerraldia.
- arte 2** “encina” (oro.): “*Arteaga* por razón de los muchos árboles de enzina, III: 217 (IC).
- artean** “entre” (oro.): *euroen artean dioela / erre deçagu mondragoe*, I: 186 (EK).
- artez** “derecho, recto” (B.): “llamado *Artes* porque hera gentilonbre y muy derecho de cuerpo, III: 283 (IC). Batez ere bizkaieraz erabilia. Lcc: “derecha cosa, *gauza arteza*”.
- hartu** “tomar” (oro.): *jaun Juane Abendañocogas gudua arçen sanean*, I: 564 (EK).
- artukero** “cierta embarcación” (hapax-a): “barcos, pinaças, baxeles, de que suele aver abundancia en esta ribera, con otros que llaman *artuqueros*”, I: 542 (IC).
- artz** “oso” (oro.): “un oso, que llaman [*ar*]ça en bascuence”, I: 522 (IC); “Llamábase Joane Arça porque hera tan baliente que, a braço partido luchando con un oso le mató con machete de dos palmos”, I: 558 (IC); “al oso llaman *arça*”, II: 77 (IC).
- aska** “artesa” (oro.): “porque *asqa* llaman al artesa”, I: 698 (IC). Lehen agerraldia.

- asko** “mucho(s)” (oro.): *Gomizec asco lagunic*, *Joanicoc eta beste ascoc*, II: 185 (EK); *gastelan Sarmyentuarric asco*, I: 564 (EK); “*illescas* = antes *ilascuris*, viçio, diría *il ascoric*, muchos muertos”, III: 305 (IC).
- hasi** “empezar” (oro.): *Bergararroc asi dira / trajioe baten azmaçean*, I: 186 (EK).
- asmatu** “idear, planear”: *Bergararroc asi dira / trajioe baten azmaçean* (EK).
Lehen agerraldia. Aski orokorra.
- asmo** “ingenio”: *cheac andia bençiliri asmuz ta jaquitez*, I: 665 (IC). Hitzak izan ditzakeen adieren artean hau ere eman izan zaio; oro har, *asmu* hegoaldean da hedatuago.
- asto** “asno” (oro.): “*Astalarra* ... ‘argomal del asno’, III: 50 (IC).
- ate** “puerta”: *etorri san Aurqui / Laster / Atetirean Eneco Pagoetantayco bere arma gueçi barriacas*, II: 58 (AE), “...y Atera, que tiene dos sinificagos, y en el uno quiere dezir “sacar” y en el otro “a la puerta”, I: 501 (IC). Orokorra mendebaldean. Lcc.: “Llamar a la puerta, *atea jo*”.
- atera** “sacar”: “Estater o Esta Atera, que todo es uno, es población según Justino, y su nonbre es bascongado y en nuestro castellano quiere dezir ‘no está sacado’, I: 484 (IC); “y Atera, que tiene dos sinificagos, y en el uno quiere dezir “sacar” y en el otro ‘a la puerta’, I: 501 (IC). Lcc.: “Apacentar ganado, *abereak kanpura atera*”. Garai hartan aldaerarik ohikoena dugu mendebaldean.
- atorra** “camisa” (oro.): “a la camisa *atorra*”, II: 235 (Voc); “*atorra* camisa”, II: 239 (Voc).
- atsegin izan** “complacerse” (oro.): *Eneco Pagoetantayco dauacheguyn ta baesoan bere nagueçari legues Ochoa Onsaluch / Agur Agur*, II:58 (AE). “zerbait atsegin izan” esamoldea, aditz laguntzaile iragankorrarekin, BZean ere hedatua zen, antza denez.
- atsekabe** “pesar”: *eguyn eusan achacaba andiagaytic*, II: 58 (AE). Aski hedatua; *atsakaba* formaren 1. agerraldia; Lcc: “desplacer, *atsekabea*.”
- atso** “vieja” (oro.): “*Achotegi*, bocablo bascongado, ‘lugar de biejas’, I: 674 (IC).

- atzean** “detrás (de), en busca (de)”: *onac arin, gogoa sendo, arerioaen asean*, I: 564 (EK). Orokorra mendebaldean.
- hau** “este” (oro.): *Au il eguidaçu, uillau au il eguidaçu*, I:563 (IC).
- ahuntz** “cabra” (oro.): “*Aunzybay* quiere decir “la cabra en [... ..]”, de *aunz*, “cabra”, y *ybay ...*”, I: 674 (IC); “cabra *aunça*”, II: 238 (Voc); “*Aunza* cabra”, II: 239 (Voc).
- aurki** “pronto, enseguida”: *etorri san Aurqui / Laster / Atetirean Eneco Pagoetantayco*, II: 58 (AE). Lehen agerraldia. *Aurki* eta *laster* elkarren ondoan ageri dira, berez sinonimoak izanik; baliteke egileak gehitu izana esanahia argitzearren edo, beharbada, jatorrizkoa zuzentzeko, *aurki* daramaten esaldiek etorkizuneko aspektua hartzen baitute, ez burutua. Hedadura zabalekoa. Ohar gaitezen “aurki” eta “laster” ez direla sinonimoak, lehena *noiz* da, denborazkoa, bigarrena *nola*, moduzkoa.
- aurre** “parte anterior, delantera, fachada”: *Andramendico Jaureguyaren Aurreco Arextian*. II: 58 (AE); “A esta plaza llaman Çubiaur, que quiere dezir ‘delantera de puente’. Mendebaldeko euskalkietan.
- aurrera** “adelante”: *Or dosoc aurrera!*, I: 560 (IC). Mendebaldeko forma.
- hauts** “polvo” (oro.): “polvo *auça*”, II: 236 (Voc); “*Auza* polvo”, II: 239 (Voc).
- hautsi** “romper, quebrantar”: **ausi** (Ar, B, G) *baesan eçe bere armaçarrac ausi taletorrela / bere ayde naguçi Ibarçoyengoen aurrean*, I: 58 (AE). Laz.45.aur.: *Ynfernuetan / daoç çuençat grilluac / çerren deustaçun / oy ausi mandamentuac*.
- aza** “berza” (oro.): “*Asaona*, buena bersa”, I: 501 (IC); “berça *acaah*”, II: 237 (Voc); “*Azaach* berzas”, II: 239 (Voc).
- azal** “piel” (oro.): “Martín Garçía de Axpe, dicho *Asalgorri* por ser bermejo”, I: 562 (IC); “llamado por otro nombre *Asal Çuria* por ser blanco y rubio”, III: 242 (IC).
- azkazal** “uña”: “a las uñas *ascaçalah*”, II: 235 (Voc) “*Ascaçalach* uñas”, II: 239 (Voc). Batez ere gipuzkerazkotzat jo izan bada ere, ekialdeko bizkaieraz ere erabilia da.

- azkenean** “al final” (oro.): *Aec anys ta / guc guichytaya / asquynyn dugu / lalboa*, II: 90 (KK).
- azpiko** “vasallo”: “*Azpicoa de abajo*”, II: 239 (Voc). “Morroi” edo “zerbitzari” adiera honekin batez ere Iparraldeko idazleek erabilia Leizarragaz geroztik. Egoaldean Kardaberaz da lehena erabiltzen.
- azurratu** “abridero” (B.): “*Acá en Bizcaya en lo moderno llaman a estos durasnos abrideros friscu açurratuac*”, III: 138 (IC). Lehen agerraldia. *Azur* erroak bizkaierazko forma dugula adierazten digu.
- babazorro** “saco de habas, tonto”: “*Estos Garçías de Illarraça, tanbién se nonbran Gastuas y Babaçorros*”, I: 576 (IC).
- bagil** “junio” (B.): *Andramendico jaureguyan / baguylaren emereçi egun garreanean*, II: 58 (AE). RS 43: *Maiatz iluna ta bagil argia, urte gustiko ogia*.
- bai ... (ere)** “también”: *dagoçala (...)* / *Anso* / *Joane* / *Onsalu* // *bayguyego onenbean* / *Escutariric Asco darda bacoçac*, II: 95 (AE); *an çan Presebal bere*, / *bay Juanicote bere*, II: 185 (EK).
- baina** “pero” (oro.): **baia** *Gaçean, gaçean, baya es Ibarguengorean*, III: 264 (IC). Gaurkoan ez ezik, bizkaiera zaharrean ere aurki daitekeen forma. RS 383: *Edozein da azarri, baia gudura doa gitxi*. Laz.18 or. aur.: *flaquezeonen bildur nax baya / oyta gura dot açartu / barrundiaco dama galantac*.
- bakarrik** “a solas” (oro.): *ez diaço bacarric*, / *çe an daz Presebal ylic* / *Juanicotegaz lagunduric*, II: 185 (EK). Laz.: *joan çidin floresta bateti aurrera Clariani bacarric ychita çenac bacarric gueratu çala ecusen orduan asi çan negarez*.
- bake** “paz” (oro.): *dagos batuta ... eguytecos baqueac*, II: 58 (AE); *guerrea espa baquea, gustia da enea*, II: 426 (IC). Laz 43 aur.: *nigaz ezcondu gura dabena sosega bidi baquean*.
- balea** “ballena” (oro.): “ballena *balea*”, II: 237 (Voc); “*Balea ballena*”, II: 240 (Voc).
- balio** “valer” (oro.): *Balioac balio, ta Ochandateguic asco*, I: 665 (IC). Lehen agerraldia. TAV 3.1.21 (1610): *Ceruac asco valio deue*.

- balk** “de todos” (hapax-a): “este nombre Túbal en la lengua heber significa ‘mundo o confusión grande’; y en la lengua bascongada *Ubalc* quiere dezir tanto como ‘rey de todos’, *ulc* ‘rey’, *balc* ‘de todos’, II: 122 (IC).
- balona** “balón, garrafa”: “a la balona *balona*”, II: 236 (Voc); “*Balona* balona”, II: 240 (Voc). Lehen agerraldia.
- baltz** “negro” (B. Ar.): “*Balça*, lugar a la boca del río Guadiana, ... significa ‘negro’, I: 484 (IC). Lcc.: “Negra cosa, *balza*”.
- banimendadu** “acotar, proscribir”: *Alcar biac artudabe gustioen Amorean seculaco guyçon guexto eRi egorrochi banymendadua / aren / borondatearenbean*, II: 58 (AE). Lç. *Ins A 2v: Persona paubreziaz, edo presoindegiz, edo eritasunez, edo banimenduz, edo gorputzeko berze kalamitatez, edo spirituko aflikzionez hunkiak edo tribulatuak, ...* . Ez du hitz honek beste agerraldirik euskal testuetan; kultur maila jasoari legokiokoen erregistroan txertatzen bide zen.
- baratz 1.** “lentamente”: “*baraça* ... una cosa que va muy de espaçio”, I: 485 (IC).
- baratz 2.** “huerto”: “la uerta *baraça*”, II: 237 (Voc); “*Baracea* guerta”, II: 240 (Voc); “*baraça* (...) en Guipúzcoa, ‘jardín’ o ‘huerto’”, III: 305 (IC). Hitzaren adiera biak oso hedatuak dira lurraldez eta denboraz. RS-en ere aurki daitezke: 9: *Atzerrian lurra garratz, hoña ibini egik baratz*; 11: *Baratzea ta usategui, aberasgarri*. Kronikan aurki daitekeen bigarren adiera hau, bere iruzkin eta guzti (“en Guipúzcoa ‘huerto’ o ‘jardín’”) Pozaren lanean ere badator (21r) eta ematen du bilbotarraren lanetik jaso delako *Kronikakoa*.
- bare 1** “bazo”(oro.): “*Varea* en bascuençe quiere dezir ‘limaco’ y también ‘baço’”, II: 122 (IC); “baço *barea*”, II: 238 (Voc); “*Barea* vazo”, II: 240 (Voc). **are** (B.) “arebaco = sin bazo”, III: 305 (IC)..
- bare 2** “limaco” (oro.): *Varea* en bascuençe quiere dezir "limaco" y también "baço", II:122 (IC).
- barru** “interior”: *onegaz urten daude beralan / oñeztar barruangoac*, II: 186 (EK). Laz.: *monezterio barria / rrelijiosaz beteric dago / barru aldeti*

guztia, 44. atz. Bizkaierazko testuetan ageri ohi da, eta baita gipuzkerazko zenbaitetan.

barruti “cercado”: “*Barruta*: lugar cercado”, III: 305 (IC); *Barrutha* o *Barrutia*, que todo es un significado, quiere dezir “prado de yerba çercado”, I: 485 (IC). Esanahiari erreparatuta, oso hitz hedatua dugu, batez ere Bizkaia eta Gipuzkoan. *Barruta* aldaera, ordea, ez da inon dokumentatzen ahal. Baina ez da ahaztu behar egileak askotan, Iberiako izenak euskaldun bilakatzeko ahaleginean, etimologiaz muga gabe baliatzen direla, sarri izen bereziak “asmatuz”.

baso “monte, bosque”: “*basoac* arboledas o robledales”, II: 240 (Voc); “un pedaço de monte a quien llaman Esparça Basoa, que quiere deçir en el bascuençe buelto al romançe ‘monte de Esparça’, II: 473 (IC); “*Bassobiribil*, ... que quiere dezir en bascuençe buelto en castellano ‘monte redondo’, II: 410 (IC). Batez ere hegoaldean dokumentatua.

bat “uno” (oro.): *Gureco bata / il badaguyan / bost amarren / galdoa*, II: 90 (KK). Izenorde determinatu funtzioan lehen agerraldietakoa izango dugu hau. *Bergararroc asi dira / trajioe baten azmaçean*, II: 186 (EK).

batel “bote, esquife”: “esquife *batel andia*”, II: 237 (Voc); “*Batel andia* esquife”, II: 240 (Voc).

batu “reunirse”: *lecuan / dagos batuta*, II: 58 (AE); *batu çarrac lecu batera*, I: 166 (IC). Inesiboarekin (*lecuan*) historian zehar oso arrunta eta hedatua bada ere, Iparraldean salbu, bitxiago da adlatiboarekin (*lecu batera*) aurkitzea.

batzar “ajuntamiento de mucha gente, ayuntamiento de ancianos”: “Y deste ayuntamiento de biejos quedó el nonbre de las juntas de Vizcaya, que llaman *baççarrac* oy día, que entonçes las dezían *batu çarrac lecura*”, I: 166 (IC); *batçarra*, I: 595 (IC); “A esta junta llaman *batçarra*, que quiere dezir ‘ayuntamiento de ançianos’, II: 24 (IC); se juntaron en su *batçarra* y junta general que dexamos dicho y diremos adelante en munchas partes de esta istoria”, II: 93 (II: 358, 410, 422, III: 49) (IC); “en su junta general que llamaban *batu çarrac* y agora *baçarra* acostunbrada que, como abemos dicho muchas vezes, significa y quiere dezir ‘júntense los biejos y hágase lo

que ellos dixieren’, a su costunbre de entonçes”, III: 185, III: 210 (IC); *baçarrea*, III: 87; (IC). *Ochoa Onsaluch / burua dala / Aren Urrengo Anage Lastanac / Anso / Joane / Onsalu // baygueyago onenbean / Escutariric Asco darda bacoçac Euren baçarrean*, II: 58 (AE). Orokorra eta oso dokumentatua bada ere, Garibairen lana eta kronika hau dira lehenak “ayuntamiento de ancianos” itzulpena proposatzerakoan.

baxu “abatido”: *Bilbaon catigu dago Salinasgoa / calea bera burua baxu daroa*, I: 557 (EK). Lehen agerraldia litzateke, Lazarragak emandako hau ez balitz: *Mendi altuan erura dayde / aran baxuan eguzqui* (51.aur.). Hala ere, bata adberbio den bitartean bestea adjetibo edo substantibo da, eta esanahia ere ezberdina dute.

bazter “rincón, orilla” (oro.): “otro caudillo de su cuadrilla en estas nonbradas montañas llamado Puenbaster, que quiere dezir en bascuence tanto como en castellano de agora ‘benturoso rincón’ porque *puen* es ‘venturoso’ y *baster* ‘rincón, orilla, extremo e cabo de alguna cosa’”, II: 351 (IC).

begi “ojo” (oro.): “Betulona en bascuence quiere tanto dezir como ‘pelos buenos de los ojos’; *bet*, que son *beguiac*, llaman ‘ojos’, *ul*, que son *uleac*, llaman ‘pelos’, *ona* y *onac* ‘buenos’, II: 123 (IC); “a los ojos *beguiac*”, II: 235 (Voc); “*Beguiac* ojos”, II: 240 (Voc).

armado caballero por su balentía y hechos nobles, y por ello fue llamado Çalduna”, I: 568 (IC). Laz. 18. aur.: *Doristeo çaldun gazte bat / ebilen penaz beteric.*

zamo “victoria?”: *Gueure lurrean / ta aen errian / biroch aynbaten / çamoa*, II: 90 (KK). Hitza dokumentaturik egon arren, jasotako adieren artean (“máscara”) ez diogu aurkitu testuinguru honetarako esangura egokirik. Eskuizkribuak *çamoa* argi idatzia ageri badu ere, gure ustez *çançoa* (zantzoa) izango zen kopistak oinarri izan zuen jatorrizko bertsiotan zatorkeena.

zantzu “voz, grito”: **zanzo** “unas voces y gritos muy grandes que en esta probinçia de Cantabria antiguamente solían dar los vizcaínos para se llamar, abizar los unos a los otros de lo que querían, a las cuales llamaban *sansoac*”, II: 53 (IC). *Romaco aronac / aleguyn eta / Vizcayac daroa / cansoa*, II: 90 (KK). Aski hedatua.

zapata “zapato” (oro.): “a los çapatos *çapatah*”, II: 236 (Voc); “*zapatah* zapatos”, II: 245 (Voc).

zarrail “cerrojo” (oro.): “*Zarrallea* cerraja”, II: 245 (Voc); “[ç]erraja *çarralla*”, II: 238 (Voc).

zauri “herida” (oro.): “Sauria o Çauria, que quiere dezir ‘herida’ o ‘llaga’”, I: 482 (IC); *çaurietan curadu eta / ama nagoçu oera*, II: 186 (EK).

zazpi “siete” (oro.): *Jangoycoaren Jayaçea Urteric sazpi etaeun / berroquey etasorçi*, II: 58 (AE).

ze “no” (inperatibo eta subjuntibo aurrean) (Ar., BZ) : “*Sedala* quiere dezir ‘no sea’”, I: 485 (IC); “*Çedala*: ‘contradicción’”, III: 305 (IC). Laz. 12. atz.: *Doridoren bervaoc adituric esaean esan çe eguidaçu berva oriec.*

zedala “contradicción” (hapax-a): “*çedala* = contradicción”, III: 305 (IC).

zein 1 “cual (erlatiboa)”: *oñeztar barruangoac / çein erre ez citeçan*, II: 186 (EK).

Literatur testu zaharretan maiz aurkituko dugu *zein* izenordaina erlatibozko menderakuntza osatzen: Laz. 11. atz.: *asi çan bere bidea arçayte çeinac bere beguiac negaretan eucala asi çan berbaoc esaten.*

zein 2 “tanto” (distributiboa): “*Sein Çallo, sein Mallo*, (...) ‘Tanto tiene Çallo como Mallo’”, III: 115 (IC).

- zelai** “llano”: *Leor çelayac / bereac dira / mendi tantayac / leusoac*, II: 90 (KK).
Leor eta çelai-ren arteko konjunzioaren elipsia egon litekeela onartuta ere, esango nuke izenlaguna dela oraingoan eta ez izena. Lazarragaren adibideak ere antzeko zalantza sor lezake: Basoetati ebili naiz / ez erri çelaietati, (46. aur.).
- zelan** “como” (comp.) (B.): *E[rrodrig]o Çarateco selan xuga[rr]a sindean / jaun Juane Abendañocogas gudua arçen sanean*, I: 564 (EK).
- zentzu** “sensatez, prudencia”: *Marti Juanes, Labieruco çalduna, Vizcayco consejua da çençuna*, II: 160 (EK). Mendebaldeko aldaera damaigu. Laz. 23. aur.: *faltaduco jaçulaco / çençuna gogan bear nax*.
- zer** “qué” (oro.): *zer ete dau amoradu guexoac* I: 557 (EK); *ama bereac esaeusan / semea çerdoc orrelan*, II: 186 (EK); *Aita bichia, se bichiac dira onec?*, III: 261 (IC).
- zeren** (kausa juntagailua): **zerre** *sumia[aça]la [Juan] gurayarra, / [ç]erre çeuren Jauna ezçencan enpara*, II: 185 (EK). Testu zaharretan *zeren* eta *zerren* (mendebaldean) ageri ohi dira.
- zeru** “cielo” (oro.): *argui yçarrac urten dau / çeruan goyan ostançean*, II: 186 (EK).
- zezen** “toro” (oro.): “toro çeçena”, II: 238 (Voc); “cecena toro”, II: 241 (Voc).
- zidor** “camino estrecho” (B., G.): “*cidor* lodoso y angosto”, II: 241 (Voc).
- zigar** “arador (insecto)”: “Çigarra, pueblo que fue junto al río Xúcar, es bascuençe, que quiere tanto dezir como ‘arador’”, I: 484 (IC). Lehen agerraldia.
- zik** “cielo” (hapax-a): “en bascuençe ‘çielo azul’, porque çic es ‘çielo’ y *preseac* o *presac* ‘colores azules’”, II: 123 (IC).
- zilar** “plata”: **zizar** (B.) “*cirarra* plata”, II: 241 (Voc).
- zilo** “agujero”: *an çilo*: “allí agujero, por el agujero” I: 667 (IC). Bizkaieraz arrotz.
- ziorri** “escandice, planta semejante al sauco”: “Çiordia, bocablo bascongado, quiere deçir ‘lugar de baras o barillas’”, II: 77 (IC).
- ziraurre** “escandia, variedad de trigo”: **zeaurri**, **zenaurri** “turbisco” (hapax-a): “y lleno de muchedumbre de hierbas creçidas, llamadas en romançe

turbiscos, por muchos, y por uno, turbisco, y en bascuence *cortame urriac*, y también *churbiac*, y lo más perfecto y bulgar *çenaorriac*”, II: 163 (IC); “en el cual sitio (Çenarruca), como dexamos dicho, abía entonces infinidad y población de yerbas silbestres llamadas en bascuence bulgarmente *çeaurriac* y en castellano ‘turbiscos’, II: 164 (IC).

zirra “abundoso”: **siria** (hapax-a) “en bascuence (...) dizen (...) por *siria* ‘cosa muy abundosa’, II: 122 (IC).

zori “agüero, ventura” (oro.): “Soria, çiudad que se llamó de antes Numançia, es nonbre bascongado que significa en castellano tanto como si dixésemos ‘agüero’ o ‘bentura’, buena o mala, según su suçeso”, I: 484 (IC).

zorigaitza “desgracia” (zalantzazko irakurketa) [*An]dra urena Butroecoa nançuçu soriac gach[...]* *Asteasun su eldu*, I: 555 (EK).

zorrotz “agudo” (oro.): “castillo de Horçorroç, que quiere dezir ‘ay agudo’, porque á su fundamento en un lugar agudo”, II: 97 (IC); “*Gançorroç*, ‘cumbre muy alta que su pico tiene muy agudo’, II: 26 (IC); “castillo de Horçorroz, que quiere dezir el bascuence buelto en castellano ‘ay agudo’, porque *hor* quiere dezir ‘ay’ y *çorroz* ‘agudo’, II: 446 (IC).

zortzi “ocho” (oro.): *Jangoycoaren Jayaçea Urteric sazpi etaeun / berroquey etasorçi*, II: 58 (AE).

zu “vos” (oro.): “Suc Oris, rey que fue de España, su nonbre es bascuence, porque *suc* en romançe quiere dezir ‘bos’ y *ori* ‘toma’, I: 483 (IC); “(...) en el bascuence de entonces, *On çu eta ni*, como si más claro dixiésemos en nuestro castellano: ‘Yo soy bueno y así se lleguen a mí los buenos’, III: 168 (IC).

zuhaizti “arboleda”: **zugasti** “lugar donde ay muchos árboles robres jóbenes para trasplantar”, III: 219 (IC). Hedadura zabalekoa.

zubi “puente” (oro.): “*Çubiçar*, bocablo vascongado que quiere deçir ‘puente vieja’, I: 579 (IC); “*Çubiaur*, ‘delantera de puente’, II: 176, 178 (IC); “a este solar de Arançibia se llamó en tiempo antiguo Ara An Çubia, que quiere tanto dezir en bascuence como en castellano ‘beis allí la puente’, *ara* ‘mira’ o ‘beis’, *an* ‘allí’, *çubia* ‘la puente’, II: 415 (IC).

- zuek** “vosotros” (oro.): *suec gayti yl da ene çaldun caudala*, I: 555 (EK).
- zumel** “sanguiñuelo, cornejo”: “donde abía espesura y munchedumbre de matas silbestres de árboles que en castellano nonbran sanguiñuelos y en bascuence los dizen *çumelac*”, III: 16 (IC). Lehen agerraldia.
- zumeltzu** “espesura de sanguiñuelos”: “quiere tanto dezir en bascuence *çumelçu* como en romançe "espesura de sanguiñuelos”, III: 16 (IC). Lehen agerraldia.
- zur** “madera” (oro.): “*Sura* es ‘madera’”, I: 486 (IC); “madera *çura*”, II: 236 (Voc); “*zura* madera”, II: 245 (Voc); “*sura* = población de madera”, III: 305 (IC).
- zuzi** “antorcha, tea” (oro.): “*Suçiiaç* primeras de Vizcaya”, I: 159 (IC); “Llevaban por la escuridad en las manos algunas dellas unas teas ençendidas, que en vascuence *çuçia*, que quiere dezir ‘fuego ençendido de llama’”, II: 26 (IC); “blasón y renonbre tomó de *suçía* / que el fuego ençendido así lo mató”, III: 353 (IC).

11.1.1. Hiztegia eta euskalkiak .

Guztira 631 sarrera bildu ditugu gure hiztegian, eta haietako zenbaitetan azpisarrerak ere garatu ditugu forma eta adiera ezberdinak jasoaz. Hiztegiaren sarreran azal dutako irizpideei jarraiki, corpora testuinguru historikoaren arabera sailkatua agertu da, eta segidan ikuspegi dialektologikotik aztertzen saiatu gara, arreta berezia jarrita bizkaierazko hitzak direnak bizkaierazkoak ez direnetik bereizten, aparteko ñabarduretan sartu gabe.

Ibarguen-Cachopin Kronikan datozen eresi eta kantuetako (EK) 112 hitz euskaran erabilera orokorrekoak dira, 24 bizkaierakoak edota Arabako euskaraz dokumentatuak, eta beste 23 mendebaldeko euskalkietan dokumentatuak, bizkaiera eta gipuzkeran batez ere; horrez gain, hitz bat dugu bizkaieraz tradizioz ez duena (*mertxede* –Leizarragak eta Belapeyrek badakartena-) eta lau hapax (*kaudal*, *sarçaiquera*³⁴⁶, *sumi* eta *trajioe*). Honek argi adierazten du kantu hauek bizkaieraz sortuak direla eta bizkaieraz transmitituak. Izan ere, ez da harritzekoa Oñaz eta Ganboaren arteko liskarren gora-beherak narratzean, gertakariok izan ziren tokiko eta bertan protagonista izan zirenen hizkera erabili izana.

Kantabriarren Kantuak (KK) ere bizkaiera darabil ardatz: 41 hitz ditu erabilera orokorrekoak, 5 bereziki bizkaierakoak, eta 3 bizkaieraz zein gipuzkeraz dokumentatuak; hapax-ak 5 ditu (*aron*, *galbo*, *lalboa*, *surboa*). Gaurko bizkaierari arrotz zaion hitz bat ere badu (*anitz*), garai hartako beste kanta batean, Britainiako Kantuan alegia, ere badatorrena. Azken kantu hau, ordea, gipuzkerazkotzat du Sarasolak (*ContTAV*, 81-82); aitortzen du, hala ere, *abbade* hitzari buruzko iruzkinean, “Esto, que ahora es exclusivamente vizcaíno, podría muy bien ser normal en aquella época en la zona de habla guipuzcoana”. Gauza bera esan genezake *anitz* eta beste zenbait hitzez, baina alderantzizko norabidean, hau da,

³⁴⁶ Hitza osatzen duten osagaiak ezagunak ditugu (*sar-tzai-(k)era*), baina ez hitza bere osotasunean.

gaur gipuzkerazkotzat ditugun hitz batzuk garai hartan bizkaieraz ere izan zitezkeela.

Beste horrenbeste esan liteke Andramendiko Eskriturez (AE): Euskalki orotan erabilitako 50 hitz dakartzate, 14 propio bizkaierarenak dira eta 9 mendebaldean dokumentatuak, bizkaieraz eta gipuzkeraz, alegia; testuinguru honekin bat ez datorren hitz bakarra dugu (*borrs*), egileak gainera zuzendua ageri bada ere, eta hapax bat (*joso*).

Ibarguenek eta Cachopinek gaztelaniaz idatzitako prosan (IC) zehar ageri diren hitz solte eta esaldietan ere bizkaierazko hizkuntza eredu antzeman daiteke: 247 hitz euskalki guztietan edo gehienetan dokumentatuak dira, 31 bizkaieraz baino ez, eta 19 bizkaierazko zein gipuzkerazko testuetan ager litezke; bakarrik 6 hitz dira bizkaiera ez den euskalki baten itzala dutenak: *muxika* (IC-en arabera gipuzkerakoa dena) eta *zilo* (azalpen zaileko etimologia bat *-Ançilo-* bortxatzeko erabilia). Hapax-ak, ordea, 45 dira, ia gehienak etimologia vasco-iberistak azaltzean emanak (batzuk “vasquista” dira besterik gabe, Iberiatik urrutitua diren zenbait lurralderen izenek ere, Heritrea, Siria, ..., euskal jatorria jasotzen baitute). Grina etimologia horrek, bistan da, euskararen antza luketen formak ere euskara bihurtu ditu. Izan ere, atal honetan jaso ditugu garaiko egileren batzuek (Poza ere tartean) osatu eta zabalduak hiztegi edo izendegi etimologiko laburrak³⁴⁷, non Espainiako eta munduko toki eta pertsona izenak jasotzen diren eta euskal etimologia dutela frogatzen duten, irudimena eta ariketa linguistiko harrigarriak erabiliz. Etimologia egitean izenen jatorria azaltzea denez xedea, egileak, egile bakarra izatekotan, edo egileek, Cachopinek materialok han-hemendik bildu bazituen, ezagun dituzten baliabide linguistiko guztiak erabiltzen dituzte lan horretan.

“Vocabulario” edo hiztegiñoan bildu ditugun datuak aski ezberdinak dira: Ezin esango dugu hiztegiñoa bizkaierazko lana denik, bai badira bizkaieraz arrotz gertatzen diren hainbat forma (*burnia*, *yllea*, *gereçia*, ... eta bereziki *orçac/aguinac* bereizketa semantikoa). Hiztegian jasotako 151 hitzetatik (horietako asko birritan emanak) hedadura orokor edota zabaleko hitzak 92 dira.

³⁴⁷ I: 482-485, II: 121-124 orrialdeetan aurkitzen dira osatuak.

Hapax-ak 5 (*anci, becaray(c)ah, criscua, pagoloa, pindolea*). Bizkaierazko 4 hitz ageri dira (*cirarra, arranña* –gipuzkeraz ohikoago da *arrai-, plumagea, lora*) eta bizkaiera/gipuzkera aldaerak erakusten dituzten 3 (*barri/berri, perregilla/perrexilla, jaquea/jaca*). Gipuzkerazko hitz kontsidera daitezkeenak 7 dira (*españna, andrea, burnia, burunčia, içoquia, guilsurinah, guinga*). Oro har, mendebaldean hedatutakoak, bizkaieraz eta gipuzkeraz bereziki, 14 hitz dira. Azkenik, bizkaieraz ez, baina gipuzkeraz eta oro har ekialdeko beste euskalkietan aurki litezkeen formak 22 dira. Datu hauen argitara, hiztegiñoaren hizkera gipuzkeratik hurbil dela ondoriazta daiteke, baina nik esango nuke egilea ez zela “bere” hizkeraren hiztegia egiten aritu, baizik eta hiztegi zabal eta erabilgarri bat bidaiari edo hizkuntzazale erdaldunarentzat, eta ezagun zituen hitzak eta esateko moduak islatu zituen bertan, muga geografiko edo linguistikoei erreparatu gabe, agindutako lana ahalik eta ulergarrien aurkezteko asmoz.

Hiztegiaren azterketa labur honi amaiera emateko, azpimarratzekoa da *Kronikan* euren lehen agerraldi idatzia dutela 113 hitzek.

11.1.2. Atzizki lexikalak.

-aga: Arrigorriaga II: 27; Mendiarechaga II: 402; Olabariaga, II: 415; Oreñaga, II: 468.

-alde “cerca”: “Çarralde (...) porque *alde* quiere dezir ‘cerca’ o ‘cabe’ o ‘junto’ II: 327.

-(t)ar:

	Bi silaba edo gutxiagokoak	Bi silaba baino gehiagokoak
Kontsonantez bukatuak	<i>oñeztar</i> II: 186	<i>Cortaçarretarrac</i> I: 564 <i>Ybarguendarrac</i> I: 564 <i>leguiçamondarric</i> III:125
Bokalez bukatuak	<i>bizcaytar</i> II: 185	<i>ganboar</i> I: 555 <i>gurajarra</i> I: 555 <i>çaratearrac</i> I: 564 <i>Sarmyentuarric</i> I: 564 <i>ganboarrocc</i> II: 186 <i>arabaarric</i> II: 185 <i>bergararrocc</i> II: 186 <i>artunduagarric</i> III: 125

- arte: *Alçarte* I: 521.
 -bako: *arebaco* I: 483.
 -eta: *arrieta* II: 327; *macaceta* II: 287; *arexçabaleta* II: 410;
 -ka: *jarraica* I: 504.
 -tegi: *Achotegui* I: 674; *Apalategui* II: 661; *Arostegi* III: 188,
 -ti/di: *arexti* II: 58.
 -tza: *ondarza* II: 287; *Ituriça* I: 482;
 -tzar: *armaçarrac* II: 58.
 -xe: *andreaxe* III: 268.

11.2. Deklinabidea

Morfosintaxia aztertzerakoan, hiztegia aintzakotzat hartuta bizkaierazko testutzat jo ditugun materialak baino ez dira jasoko; bestela esanda, “Vocabulario”-ko iruzkinik ez da egingo atal honetan.

11.2.1. Pertsona izenordainak (arruntak eta indartuak)

NOR	<i>ni</i> (II: 186, III: 168)		<i>gu</i> (I: 644)	<i>çu</i> (III: 168).	
NORK			<i>guc</i> (II: 90)		
NORI				<i>çuri</i> (II: 160)	
NOREN	<i>neure</i> (I: 564) <i>ene</i> (I: 562, II: 426)		<i>gure</i> (II: 58) <i>gueure</i> (II: 90)		<i>çeuren</i> (I: 555)
NOGAZ	<i>nigaz</i> (II: 108)				
NORENGATIK					<i>suec gayti</i> (II: 185)

Lauki honek ez digu aparteko ezusterik eman, izan ere, bertan ageri diren forma gehienak gaurko bizkaiera mintzatuan eta literatur tradizioan ohikoak dira. Baina deigarri gertatzen da bigarren pertsona plurala jokatzeko modua. Jakina da euskara zaharrear *hi/zu* oposizioa genuela 2. pertsonaren singularra eta plurala bereizteko; auzo hizkuntzen eraginez errespetuzko tratamenduaren beharra sortu zenean, zu “vos”-en pareko bilakatu zen, singularra beraz, eta bere gainean plural berria eraiki: *zuek*. Arrasateko erreketaren gaineko kantu bitatik jasotako *çeuren* (I: 555) eta *suec gayti* (II: 185) formek argi irudikatzen dute prozesu hori artean erabat finkatu gabe zegoela. Hala ere, beherago, aditz paradigmetan argiago ikusiko dugu fenomeno hau.

11.2.2. Erakuslea

kasua	Sg. 1.	Sg. 2.	Sg. 3.	Pl. 1.	Pl. 2.	Pl. 3.
NOR	<i>au</i> (I: 563)		<i>a</i> (II:507, III: 356)	<i>onec</i> (II:39, III:261)		<i>aec</i> (II: 90)
NORK			<i>ac</i> (III: 186)			
NORI			<i>ari</i> (II: 58)			
NOREN		<i>orren</i> (II: 58)	<i>aren</i> (II: 58) <i>bere</i> (II: 58)	<i>onen</i> (II: 58)		<i>aen</i> (II: 90) <i>euroen</i> (II:186) <i>euren</i> (II:58) <i>euraen</i> (II: 58)
NOGAZ	<i>onegaz</i> (II:186)		<i>beragaz</i> (II:186)			
NON	<i>eben</i> (II:49)	<i>or,</i> <i>hor,</i> (I:560, II:97, 446).	<i>an</i> (II: 661).			
NONDIK			<i>arean</i> (I: 564, III: 125).			
NORA	<i>ona</i> (II: 58)		<i>ara</i> (II: 55).			
NOLA		<i>orrelan</i> (II: 186)	<i>alan</i> (II: 58)			
NORTZAT			<i>beretzat</i> (II: 58)			

Deklinabideari buruzko ohar zehatzagoak hurrengo puntuan egingo baditugu ere, azpimarratzekoa da erakusleen deklinabideak erregularitasun handia erakusten duela *Kronikan* aurki daitezkeen adibideetan. 3. mailako erakusle singularra jokatzeari (*a*) zein plurala eraikitzean (*aec*, *aen*) tinko eusten zaio molde arkaikoari, batez ere Kantabriarren Kantuan. “Argi izarrak urten dau” kantuan *aen* eta *euroen* aurkitzen dira elkarrekin, eta Andramendiko Eskriturretan, bestalde, *euraen* eta *euren* aurkituko ditugu, forma arkaikoen eta modernoeren arteko zubia erakutsiz. *Eben* ere BZko forma dugu, Landucciok eta Garibayk ere badakartena, XVII. mende aurretik aski hedatua, nahiz gaur egun Zuberoan baino erabiltzen ez den. Azkenik, aipa dezagun bizkaieraren ikur den ZELAN kasuaren indarra erakusten dizkiguten adibideak: *orrelan* eta *alan*.

11.2.3. Izenaren deklinabidea³⁴⁸

	MUGAGABEA	MUGATU SINGULARRA	MUGATU PLURALA
NOR	<i>bost eche</i> I: 690 <i>bost guison</i> III: 270 <i>eçer</i> II: 141	<i>bata</i> II: 90 <i>bost echeac</i> I: 690 <i>carrera</i> I: 564 <i>guerrea</i> II: 270, II: 426 <i>sema</i> I: 564	<i>areryoac</i> I: 564 <i>aronac</i> II: 90 <i>baqueac</i> II: 90 <i>biac</i> II: 58 <i>bixeoc</i> I: 564 <i>çelayac</i> II: 58
Partitiboa	<i>arabaaric</i> II: 186 <i>artunduagarric</i> III: 125 <i>gogoric</i> II: 186 <i>leguiçamondarric</i> III:125		
NORK	<i>bela uic</i> I: 564 <i>eçec</i> II: 141 <i>Ochandateguic</i> I: 665	<i>Vizcayac</i> II: 90 <i>argui-içarrac</i> II: 186	<i>biac</i> II: 58 <i>bioc</i> III: 256 <i>gustioc</i> II: 58
NORI	<i>andra santamairi</i> II: 186		
NOREN	<i>amarren</i> II: 90 <i>Urquyçuren</i> I: 564	<i>arrebearen</i> I: 564 <i>elexearen</i> II: 58	<i>aita onaen semeac</i> I: 48 <i>gustioen</i> II: 90 <i>oñaen ganean</i> II: 58 <i>usoen</i> III: 359
NOREKIN / NOGAZ	<i>Juanicotegaz</i> II: 185 <i>Abendañocogas</i> I: 564 <i>ascogas</i> II: 58	<i>suagas</i> , III: 186	<i>armacaz</i> II: 186 <i>barriacas</i> II: 58
ZEREZ	<i>arris</i> II: 323 <i>asmuz ta jaquitez</i> I: 665 <i>dardos</i> I: 564 <i>leorres</i> II: 90	<i>bardinas</i> II: 90 <i>saguyteas</i> I: 562 <i>uraz</i> II: 186	<i>alcabalez</i> I: 690
ZEREZKO		<i>andrasko</i> II: 55	
NON-NOIZ	<i>guychitan</i> II: 37	<i>bean, ganean</i> II: 58 <i>jaureguyan</i> II: 58 <i>egun-gabeac</i> II: 90 <i>contrean</i> I: 564	<i>munaetan</i> I: 507
NON (ABLATIBOA)		<i>Ateirean</i> II: 58 <i>gaçean</i> III: 264 <i>Ibarguengorean</i> III: 264 <i>ostançean</i> (II: 186) <i>yduñerean</i> I: 564	<i>çaurietan</i> II: 186
NORA	<i>batera</i> I: 166; III: 185	<i>aurrera</i> I: 560 <i>oera</i> II: 186 <i>ganera</i> II: 38	
NORAKO	<i>noraco</i> I: 483	<i>canporacos</i> I: 564	
NONGO	<i>Andramendico</i> II: 58 <i>laucoa</i> II: 358 <i>Salinasgoa</i> I: 557 <i>Vizcaicoa</i> II: 90	<i>munduko, gureco, urteco</i> II: 90	
NONDIK NOIZTIK	<i>Ychasotati</i> II: 90	<i>maloguenic</i> II: 185 <i>oraynganyc</i> II: 58	
NORENGATIK		<i>andia gaytic</i> II: 58	
NORTZAT	<i>Jaunsat</i> III: 186	<i>caltelat</i> II: 58	

³⁴⁸ Morfologiaren ikuspegitik adieragarrienak sartu ditugu laukian.

Izenen deklinabidea ere ez da aldentzen bizkaieraren paradigmetak eta bizkaiera zaharraren lekukotasunak agerian ditu. Guztiarekin ere, nahitaezkoa da aztertutakoaz iruzkinen batzuk egitea:

11.2.4. *-a* organikoa.

-a organikoa duten hitzak *-ea* bukaera hartzen dute mugatu singularraren morfema jasotzean (*-a + -a- > -ea-*): *carrera* (I: 564), *guerrea* (II: 270, II: 426), *elxearen* (II: 58), *arrebearen* (I: 564), *saguyteas* (I: 562), *contrean* (I: 564). BZ-aren ezaugarritzat har genezake, gaurko bizkaieran ere dirauena, nahiz zenbait tokitan *-ia*, *-ie* eta *-í* ematera jo duen.

11.2.5. Ablatiboko *-rean*.

Deklinabidean BZk duen berezitasun nabarmenetakoa da *-rean* desinentziarena³⁴⁹. Hala ere, Lazarragaren eskuizkribua aurkitu denez geroztik, eksklusibitatearen ohorea Arabako euskararekin banatu beharko du BZak, ugari baitira Larreako jaunaren lanean aipatu atzizkiaren adibideak³⁵⁰. *Kronikarenak* hauexek dira: *bosteun caxcabel urregorrisco saldiac ydunerean* (I: 564); *etorri san aurqui laster atetirean Eneco Pagoetantayco* (II: 58); *argui yçarrac urten dau çeruan goyan ostançean* (II: 186); *Careaga Careaga sanean, es san leguiçamondarric es artunduagarric arean* (III: 125) *Gaçean, gaçean, baya es Ibarguengorean* (III: 264). Adibideok atzizkiaren hedaduraren zabala ere erakusten dute, Zarateko jaunaren kantuan, Arrasateko erreketaren kantuetako batean, Andramendiko eskrituretan eta Bizkaia barrualdeko esaeretan emanak baitira.

Lakarrak esandakoa laburbilduz (ik. Lakarra 1984a, 1984b: 116 eta 1986: 645), esan dezagun lehenbiziko testuetan jada atzizki hori defektiboa zela, ezin baitzitekeen erabili bizidunekin ezta denbora kutsua zuenean edota leku izen bereziekin. Azken egoera hauetan *-(r)ik* erabili ohi zen, hurrengo puntuko

³⁴⁹ Lakarrak (1986: 646) dioskunez, BZetik landa gutxitan aurki liteke: Arabako euskaraz (Lcc. *pelligurrean libradu*) eta zenbait arkaismo fosildutan (*alboreango*). Hala ere, bazen forma honetatik eratorritako *-ren* aldaera ere.

³⁵⁰ Bat ematearren, Laz. 6. atz.: *Acabaduric bada Silveroc bere cantaetea urten eben bere camararean*.

adibideetan ikusiko dugunez. Atzizkiaren arrastoari jarraitzeko, irakur dezagun Lakarrak berak dioena:

Gero, pixkanaka pixkanaka, *-(r)iken* testuinguruak hedatuz joan ziren eta gainera *-reanik* pleonasma sortu zen (...) *-rean* zaharraren lekua hartuaz: forma berria gutxiengoan dago oraindik XVII. mendeko lekuko gehienetan, baina nagusitua da Zubia-Lezamizen (1691-9) dotrinan. 1700etik aurrera zaharkiturik dakuskigu nahiz bata nahiz bestea: 1758 da dakidanez *-reanen* azken agerraldiaren data (Arzadunen dotrinaren 2. edizioan) eta justu mende bat beranduagokoa *-reanikena* (1858, Bonapartek argitaratu Laudioko dotrinan).

Bitartean *-(r)ik* ablatibizkoa eta *-ti(k)* prosekutibozkoaren formak nahasiaz doaz eta XVIII. Mendearen erdialderako prozesu hau amaitutzat eman daiteke *-ti(k)*en alde (1986: 645-646).

11.2.6. *-(r)ik* ablatiboa.

-reanek utzitako esparruak hartuaz, *-(r)ik* atzizkia datorkigu orain, goian gaztigatu bezala, leku izen bat bereganatuz lehen adibidean eta denbora kutsuko ablatiboa osatuz bigarrenen: *çe an daz Presebal ylic / Juanicotegaz lagunduric / chibiluen ospe bagueric / ez urrun maloguenic* (II: 185); *gustioc Artudabe bereçat oraynganyc betico* (II: 58).

11.2.7. *-ti* prosekutiboa.

BZean “nondik” adierateko *-rean* eta *-(r)ik* desinentziak erabiltzen baziren, “non zehar” nabardura markatzeko *-ti(k)* erabili ohi zen³⁵¹. Berezitasun hori *Kronikak* adibide bakarrean erakutsi digu, Kantabriarren Kantuan: *Ychasotati eta leorres ymyny deusco molsoa* (II: 90).

Lazarragak ere horrela darabil batzuetan: *egun baten bada bere bideti joeala topadu çan arcai bigaz* (10. aur.). Baina beste batzuetan “nondik” edo “noiztik” esanahia hartzen du: *Meresçidu ezpadot eçer bere / neure partez çerren naxan pobrea / çureti bay çerren naxan çurea* (13. atz.); *çeinçuc bertati norc bere espiluac eta ezpatac arturic joan çirean* (13. atz.).

Lafonek (1975) eta Mitxelenak (1977: 23) burututako lanen argira esan liteke *-tikek* eta *-(r)ikek* ez dutela zerikusirik jatorriari dagokionean, nahiz eta gerora lehenengoak bigarrenaren tokia hartu duen alde gehienetan. Oraingo ablatiboaren forma zaharra *-ti* da (oraindik aurki liteke Zuberoa eta Bizkaiko

³⁵¹ Lakarra (1986: 646-7).

zenbait tokitan), zeini *-ka* erantsi zitzaion toki gehienetan (Landuchio, *lecutica lecura* “de villa en villa”). Azkenik, *-tika* horrek *-a* galdu du eta *-tik* geratu zaigu.

11.2.8. Soziatiboa (*-gaz*).

-gaz mugagabeen, *-agaz* mugatu singularrean eta *-akaz* pluralean zintzo-zintzo erabiliak aurkitu ditugu, bizkaieraren usadioari jarraiki: *Jaun Juane abendañocogas gudia arçen sanean* (I: 564), *ez diaço bacarric / çe andaz Presebal ylic / Juanicotegaz lagunduric* (II: 185), *armacaz ezin eguien legez eçer / ganboarrocc su emaytean / asi dira* (II: 186), *suc estu nigas, estu nigas* (III: 151), *ac suagas* (III: 186).

Araberaz ere *-gaz* erabili ohi zen, baina baita *-(r)ekin* ere, Lazarragaren idatzietan ageri denez: *Donzellea çegati çaoz / enegaz enojaduric / çurequin ene aitasuna / horrela ançi jaquinic* (5. atz.).

11.2.9. Soziatiboa lokailu (X-ekin Y).

Aurreko puntuan ikusi dugun adibideetako batean (*an daz Presebal ylic Juanicotegaz lagunduric*) Lakarrak “X-ekin Y” bataiatutako fenomenoaren lekukotza aurki dezakegu. Aditza pluralean egonik, horrek esan nahi du *-gaz* “eta”ren funtzioa ari dela betetzen (“han daz hilik Presebal eta Juanikote”). Hala ere, ez da hau bizkaieraz soilik gertatzen den fenomeno, gipuzkeraz ere dokumentatua baita³⁵², eta Lazarragak ere badu adibideren bat: *Napol erri noblea da / arec urrean Calabria / Genoaco condaduan / Pisaquin Florencia / Pullalequin Ferrera baino / obeagoa da Vesçia* (52. aur.).

11.2.10. Objetu zuzena genitiboan.

Bergararrocc asi dira trajioe baten asmaçean (II: 186). Mendebaldean arrotz gertatzen zaigu ekialdean objektu zuzena genitibatzeke duten ohitura (*zoaz porruak eroatera / zoaz porruen eroatera*). Arrasateko erreketaren *argy içarrac urten dau* kantuak erakusten digunez, pentsa genezakeena baino zabalduago

³⁵² Lakarra 1986: 648: “G.z era horretako hainbat exenplu bildu bait ditut: XVI. mendeko miserere batean, *Biz gloria aitearequin semearençat, ...*”.

zegoen ohitura hori euskara zaharrean. Lakarrak euskararen arkaismotzat du eta mendebaldean jasotako adibide gehiago eman zituen³⁵³.

11.2.11. -z (-s) bukaera norako eta zertarako destinatiboetan.

arma escuduac on dira dardos, pareric estabe canporacos (I: 564); *lecuan dagos batuta (...) eguitecos baqueac* (II: 58). Adibide hauek ekialdean, bereziki nafarreraz, ohiko den fenomenoak dakarkigute gogora, mendebaldean, gaur egun bederen, arrastorik ere ez duena. Baina garai batean baziren, eta dokumentatu daitezkeen adibideak gutxi badira ere, izan badira. *RS 142: Oñac oz elejaracoz, vero ezconçaracoz.*

11.3. Aditza

11.3.1. Eskemak.

a. Trinkoak

nor

IZAN	EGON	ETORRI	ETZAN	JOAN
<i>da</i> II: 426	<i>dago</i> I: 557	<i>letorrela</i> II: 58	<i>diaço</i> II: 185	<i>sindoas</i> (?) II: 90
<i>dira</i> I: 101	<i>dagoç</i> II: 58	<i>letorrenean</i> I: 564	<i>dauça</i> II: 185	<i>sindean</i> (?) I: 564
II: 90	<i>dagos</i> II: 58		<i>daz</i> II: 185	<i>noean</i> I: 564
II: 261	<i>gagoç</i> II: 90			<i>noaque</i> I: 564
III: 8	<i>bego</i> II: 48			<i>doa</i> II: 49
<i>çara</i> I: 703				<i>bioa</i> II: 38,
<i>çarate</i> I: 430				49
<i>çan</i> II: 185				
<i>za</i> I: 674				
<i>bydi</i> II: 90				
II: 507				
<i>vis</i> II: 507				
<i>balitz</i> II: 124				
<i>(palis o paliz)</i>				

nork-nor

EDUKI	EDUN	EGIN	EMAN	ENTZUN
<i>baleduque</i> I: 564	<i>doc</i> II: 186	<i>daygun</i> II: 48	<i>leman</i> II: 58	<i>nançuçu</i> I: 555
	<i>dosoc</i> I: 560	II: 37		
	<i>dona</i> II: 368	<i>eguyçu</i> II: 37		
	<i>dau</i> III: 186	<i>eguian</i> II: 141		
	I: 557			

³⁵³ RS 1596 [499]: *Guiçon vicia bereen escatu doa*, “hombre biuo suele demandar lo que es suyo” (Lakarra 1983: 58-60).

	<i>ditus</i> II: 90 <i>dugu</i> I: 564 <i>dabe</i> II: 90 <i>eben</i> I: 564			
ERABILI	EROAN	ERO	ESAN (IO)	JO
<i>darabilde</i> III: 270	<i>daroa</i> I: 557 <i>eroean</i> II: 90 I: 564	<i>erac</i> II: 59	<i>dioela</i> <i>baesan</i> II: 58	<i>jac</i> II: 59 III: 356

nork-nori-nor

EGIN	ESAN
<i>egüezu</i> I: 690 <i>egüen</i> II: 186 <i>egüion</i> II: 141	<i>baesoan</i> II: 58

b. Aditz laguntzailea

IZAN	*EDIN nor	*EDIN nor-nori
<i>il da</i> I: 555 <i>dira ygaro</i> II: 58 <i>etorri çan</i> II: 58 <i>asi dira</i> II: 186 <i>ygaro çan</i> II: 186	<i>gal indi</i> I: 505 <i>gal didila</i> I: 555 <i>justa gaytean</i> I: 564 <i>il didila</i> II: 185 <i>erre ez citeçan</i> II: 186 <i>sar gaiteza</i> II: 186 <i>(alaxe)yala</i> III: 19 <i>al bi su</i> (botiboa) II: 95	<i>guaraquio</i> II: 25
*EZAN	*EDUN nork-nor	*EDUN nork-nori-nor
<i>sumyasalac</i> I: 555 <i>erre açala</i> II: 185 <i>sumi açala</i> II: 185 <i>eçencan enpara</i> II: 185 <i>erre deçagu</i> II: 186 <i>ar çensanean</i> I: 564	<i>dabe bengatu</i> I: 555 <i>galdu dabe</i> I: 564 <i>ysan dot</i> II: 54 <i>artu dabe</i> II: 58 <i>urten dau</i> II: 186 <i>urten daude</i> II: 186 <i>bidaldu nau</i> II: 186 <i>eguin dogu</i> III: 256	<i>egüyn eusan</i> II: 58 <i>ymyny deusco</i> II: 90 <i>oramayasu</i> II: 90 <i>esaeusan</i> II: 186 <i>emayten deusat</i> II: 186
EGIN nork-nor	EGIN nork-nori-nor	Alokutiboa
<i>echosu</i> I: 564 <i>escondu ley di</i> I: 665 <i>bençiliri</i> I: 665 <i>joso egüyen</i> II: 58 <i>il badaguyan</i> II: 90	<i>il egüidaçu</i> I: 563 <i>echyegüydac</i> I: 564 <i>igorrosi egüiçuna</i> II: 160	<i>egüyngo joat</i> I: 564 <i>sar naxaytec</i> I: 564 <i>nagoçu</i> II: 186 <i>osatu nosu</i> II: 54
Aditz lokuzioak		
<i>parte dabela</i> I: 555 <i>dau atsegüyn</i> II: 58 <i>gura dabela</i> II: 58 <i>ycara çirean</i> II: 186 <i>eudela parte</i> II: 186		

11.3.2. Aoristoaz.

Lafonek (1943: II 46) ekindako bidetik, besteak beste, Irigoienek (1985: 7h), Lakarrak (1986: 652-654 eta 1996: 177-179) eta Zulaikak (1999: 725-738) erakutsi bezala, euskara zaharrean bazen adizkera berezi bat iraganeko burutua espresatzeko

erabili ohi zena, gaur aoristo izenaz bataiatua. Adizki hauek ekintzaren iraupena edota noiz izan zen burutua zehaztu gabe uzten digute; aldia iragana da baina aspektua ez zaigu zehatz adierazten, burutuaren eta burutugabearen arteko muga horretan puntukari kutsua ere hartzen du sarri. Hedatuenak eta erbilienak **Ezan* eta **edin* aditz laguntzaileak baziren ere, gaur egun indikatibotik kanpo erabiltzen ditugunak, *egin* eta zenbait aditz trinko ere jokatu ohi ziren aoristoan. XVI. mendeko testuetan ugari dira adibideak, geografikoki oso zabaldua zela eta sintetikoetan ere oso errotua zegoela erakusten dutenak. *Kronikako* adibideak hauek dira: *gal indi* (I: 505), “galdu hintzen”; *selan xugarra sindean* (I: 564), “sugarraren moduan egiten zuen ihes”; *carrerea laster eroean Erbjtegyu ganean* (I: 564), “karrera azkarra zeraman Erbitegi gainean”; *bere armaçarrac ausita letorrela* (II: 58), “bere armatzarrak hautsita zetorrela”; *alan joso eguyen euraen caltesat* (II: 58), “hala jaso zuten hitzarmen moduan”; *Ybargoyengoac leman artean berea* (II: 59), “Ibarguengoak berea ematen zion bitartean”; *baesan* (II: 59), “esan zuen”; *baesoan* (II: 59), “esan zion”; *gureco bata il badaguyan* (II: 90), “gutako bat hiltzen zutenean”; *eçec eçer ecieguion* (II: 141), “ezerk ezin zion ezer egin”; *eguien Jaunac baroa* (I: 141), “egin zuen Jaunak badarama”; *çeuren jauna ezçencan enpara* (II: 185), “zeuen jauna ez zenuten babestu”; *armacaz ezin eguien legez eçer* (II: 186), “armekin ezin zietenez ezer egin”.

BZean ezezik, gipuzkeraz ere aurki liteke forma hau (Isastiren errefrauak, 30: *Eliza çeguienac aldarea, aldarea ceguienac abadea* “El que hizo la iglesia, el altar; el que hizo el altar, el abad”), araberez bezalaxe (Lazarraga, 7. aur.: *joan çidin musico baçuen esera eta erregutu eusten leguioela lagun musica bat emaitera joaten*). Hedadura zabaleko fenomeno dugu, beraz, euskalkien bilgune, eta galeraren data ere antzerakoa izanzen zen toki guztietan.

11.3.3. *l-* morfema iraganeko aditz formetan.

Iraganeko hirugarren pertsonako aditz hauetan *l-* morfema ageri zaigu: *letorrela, leman* (II: 58); *baleduque, letorreanean* (I: 564). *Letorrela*-ri buruz gorago esan dugun bezala³⁵⁴, Zulaikak (1999: 184-185) euskal aditzean “hirugarren

³⁵⁴ 238 o.

pertsonan azaltzen diren hasierako *d-* / *z-* / *l-* kontsonanteak pertsona markatzen hartuak” izan direla dio, baina, berez, aldi-modu markatzen hartu behar dira: “*d-* orainaldia eta hirugarren pertsona markatzen du; *z-* eta *l-* aurrizkiek, berriz, iraganaldia eta alegiazkoa hurrenez hurren, eta hirugarren pertsona”. Hala ere, Bidegainek eta Mitxelenak (1954: 846) erakutsi ziguten bezala, *l-* aurrizkia menpeko perpaus konpletiboetako aditzetan zehar estiloaren adierazle da.

Leman, bai, alegiazko forma litzateke, *baleduque* eta *letorrenean* bezalaxe; agerikoa da adibide hauetan hipotesi zentzu hori testuinguruari begiratuta. *l-* horrek, beraz, ez du aparteko balio sintaktikorik. Erantsitako lokailu eta posposizioak lirateke aditzari zentzu bat edo beste (subjuntiboa, baldintza, ondorio hipotetikoa, zehar-estiloa) emango lioketenak.

11.3.4. *zu* / *zuek*.

Jakina denez, gaur egun oposizio hirukoitza dugu bigarren pertsonan (*hi* singular “familiarra” / *zu* sing. “errespetozkoa” / *zuek* plurala) eta euskara zaharrean bikoitza genuen (*hi* singularra / *zu* plurala). Inguruko hizkuntzek eraginda, euskarak ere “errespetuzko” tratamendu baten beharra ikusi zuen eta *zu* lan horretara bideratu. Bere gainean, berriz, sortuko zen aurrerantzean plurala izango zena, pleonasmoz. Lakarrak (1986: 650) dio BZean (eta baita gipuzkera zaharrean ere) “antzinako sistema” mantentzen zela orohar, baina *Kronikak* ematen dizkigun adibideei erreparatuta, esan daiteke *zueken* sortze prozesua aski aurreratua zela XVI. menderako:

Alde batetik, *zuek* Arrasateko erreketaren kantetan ageri da jada: *jaunac sumyusalac / suec gayti yl da ene çaldun caudala* (I: 555); eta izenordainaren posesiboa aurrerago: *çeuren jauna ezçencan enpara* (II: 186), *zeure*-ren gainean eraikia. Adibide bakarra da, hori bai.

Bestetik, aditz jokoan *zu* ageri denean, honek ia beti du singularraren balioa. Hurrengo adibideetan, gainera, ederki ikusiko dugu errespetuzko tratamenduaren jokoan, hi “lauaren” alboan:

- o *ama bereac esaeusan / semea çerdoc orrelan / çaurietan curadu eta / ama nagoçu oera* (II: 186, Arrasateko erreketaren ostean, Ozaetako semea eta bere ama).

- o *Arren, echosu orain osaba, bixeoc justa gaitean, / echy eguydac orailloba, gau bixiric noean, / neure biçian enoaque Urquyçuren contrean / omenaje eguingo joat biçia dodan artean / bela uic sar naxaytec billa Realgo torrean* (I: 564, Errodrigo Zarateko eta bere ilobaren arteko elkarrizketa, ihesi doazela).
- o *Errege jauna, eguiezu / alcabalez merchede* (I: 690, Sorabillako jauntxoeren eskaria erregeri).
- o *Nor [ete] çan çuri losa ygorrosi eguiçuna* (II: 160, Labieruko jaunaren hilartitza).
- o “el padre muy contento le respondió al hijo: - *Osatu nosu eta ysan dot gau ona*” (II: 54, aitak semeari, Sancho Gauonari, tratamendu “familiarren” legee entzungor eginda. Hala ere, honek badu bere azalpena: aita haserre zen semearekin, desohoratua sentitzen baitzen semea azitia zuelako, baina bere belarrei esker salbatu zuen bizia eta esaldi honekin eskertu zion, bere “mediku” ahalmenari errespetua erakutsiz eta barkamena eskatuz).

Hauetz gain, badira hiruzpalau adibide argi, non *zuk* pluralaren balioa duen:

- o “los que iban por la parte de abaxo (...) iban deziendo y rogando a los delanteros (...): *Oñez eguy çu, oñez daigun guychitan!*-, que vuelto de su bascuençe a nuestro romançe quiere dezir: ‘A plaços o quedaos en pie’” (II: 37).
- o “ansí les dezía a los suyos en bascuençe: *Au il eguidaçu, uillau au il eguidaçu!*” (I: 563).
- o “unas yervas marinas que de trecho a trecho an e crían unas como vegigas que son huecas banas llenas de aire, ca estas llaman en bascuençe *çara uz*, que quiere dezir ‘sois baçías’” (I: 703).
- o Entonçes él les dixiera en su lengua bascongada: *Çarate, çarate, çarate!*, que quiere dezir ‘¡Seréis, seréis, seréis!’” (I: 648).

11.3.5. *ezan / egin.

Badirudi, beraz, euskara zaharrean, hizkuntzaren historiaurrean bada ere, eremu zabal batean bi laguntzaile, egin eta *ezan, zirela funtzio berarekin edota oso antzekoekin, euskalki

batzuek bata hautatu zutela eta bestea gainerakoek (cf. Mitxelena 1960b), hautatzera iritsi ziren neurrian.

Hitz hauek J.A. Lakarrarenak dira (1996: 183-4), eta *Kronikan* bil daitezkeen lekukotasunek iritzi hori berretsi baino ez dute egiten. **ezan* Arrasateko erreketaren inguruan sortutako kantetan baino ez da ageri: *erre açala*, *sumia açala*, *eçencan enpara* (II: 185), *erre deçagu*, II: 186), *sumy açalac* (I: 555). Beraz, adibide hauek Bizkaia eta Gipuzkoa arteko mugan kokatzen badira, bizkaieraren ekialdeko mintzairan emanak direla onartuta, eta ikusirik *Kronikako* beste testuak (hiztegiñoak kenduta) mendebalderago sortuak direla, Lakarra zuzen da **ezan*-en galera hegoaldeetik iparralderantz eta ekialderantz gertatu zela pentsatzean.

11.3.6. –de 3. pertsona pluralean.

Aditz iragankorretan pluraleko 3. pertsona eratzean, euskara zaharrear singularreko formari –e eranstean zitzaion (*dio* / *dioe*³⁵⁵), eta oraindik ere halaxe egiten da bizkaieraz gehienetan. Baina, ekialdeko –t-e pleonasmorekin batera, bizkaieraz ere –d-e pleonasmoa hedatu zen zenbaitetan, *Kronikako* adibide hauexek erakusten diguten bezala: *bost guison eta Larrea, aldean darabilde guerrea* (III: 270), *urten daude beralan oñeztar barruangoac* (II: 186), *Juanicoc eta beste ascoc eudela parte bertan* (II: 186).

11.3.7. dio /deutso.

BZean noiz edo noiz³⁵⁶ bi forma hauek elkarrekin aurkitu baziren ere, *Kronikan* ez da *di-* formen lekukotasunik aurkitzen ahal. Badakigu iparraldeko euskalkietan ere badituztela lekukotasunak, eta Lazarragak³⁵⁷ badarabil bat edo beste (26. atz.: *On escu çardenoc apaçen diot / Ilustre abadesa notadea / çerren eguin deustan mesedea*), baina bizkaieraz laster geratu ziren bakarrik *deutso*-ren eremuko formak.

³⁵⁵ *Euren artean dioela erre deçagu mondragoe* (Arrasateko erreketaren kantuak, II: 186).

³⁵⁶ Lakarra 1986: 658.

³⁵⁷ Ezingo gara gu hasi hemen Lazarragaren hizkera zein euskalkitakoa zen esaten, baina Gasteiz gune nagusi lukeen eremu zabal samarrear hizkera indartsua zela ematen digu aditzera bere izkribuak, eta hizkera hori gerora hainbeste bereizi diren hizkeren bilgune izan zitekeela neurri batean.

11.3.8. iraganeko *-n* erori.

Lehenaldiko aditz formetan bukaerako *n* erortzea uste baino zabalduago eta errotuago egon da eta dago, Lakarrak (1996: 166-169)³⁵⁸ aztertutako adibide ugariak agerian uzten duten bezala. *Kronikan* lau adibide jaso ahal izan ditugu: “Beraza (...) también puede decir “aquel mismo era”, de *bera*, que quiere decir “aquel mismo”, y *za*, que quiere decir “era” (I: 673); “*Ormaça* quiere decir ‘pared era’, de *orma*, que quiere decir ‘pared’ y *za* ‘era’ (I: 674); “*Menesa*, vocablo bascongado, quiere dezir ‘berdad dixé” (II: 32).

Gainera, badira beste bi adibide ere subjuntibozko formekin: *lasterreon sar gayteza* (II: 186), *erre deçagu* (II: 186).

11.3.9. *ba-k* eragindako kontrakzioa.

Jaun Diaoz Arocoa, / çaldun andi Españacoa, / eçec eçer eçieguion / eguian Jaunac baroa (II: 141). *Badaroa*-tik sortutako forma honek (*baroa*) BZean *ba-* zeramaten aditzek sarri izaten zuten kontrakzioa erakusten du. Bertso Bizkaitarrak-en (Lakarra 1984: 116, 137) bada adibideren bat (*esango dau zerren baqui*) eta baita Lazarragaren poema batean (26. aur.: *Çure adisquidea nax ta / gueiago ez dot esango / çegaiti baquit dagusunean / nola çarean eongo*; 42. aur.: *gauça fortiça oy dana bacust/ ezconduaren carguea*).

11.3.10. Objetu pluralaren marka aditzean (*-z* / *-it-*).

Bizkaierazko forma “jatortzat” *dodaz, dauz, nebazan, ebazan* hartu izan badira ere, dokumentu zaharretan ageri diren formak oinarritzat hartuta, Altubek (1934: 110-1) emandako ondorioetara iritsiko ginateke:

Opino que las formas comunes, las universalmente euskéricas, fueron antiguamente *ditu, gaitu*, etcétera, hasta que el euskalki B, separándose del uso común, formó algunas flexiones del tipo *dauz, gauz*.

IC Kronikan, objektu plurala islatzen duten aditz formetan, adibide bi baino ez dugu:

³⁵⁸ Lakarrak bildutako adibideak Bizkaiko ipar-mendebaldekoak dira. *Kronikan* bil daitezkeen adibide hauetan, denak etimologiak (hizkerari buruzko hausnarketatik atereak, ez hizkuntza biziaren freskotasunetik), zaila da esaten nondik edo nork jasoak diren, egileak iturri ugari izan bide baitzuen esku artean testu hauek osatzean, batez ere, bestek idatzitako kronikak.

- o *bi mylla guyçon oy ditus bere lelengo deyea* (I: 564). Adibide honetan Altubek aipatzen zuen prozesuaren bigarren fasea ikusenezake, bizkaiera beste euskalkietatik bereizten hasi zenekoa, alegia, *dauz*-era iristeko pausu batera geldituta. Dakigunez, pausu hori zenbait lekutan gauzatu egin zen eta beste zenbaitetan aurreko egoerara itzuli ziren. Lazarragak, bere aldetik, ez du forma misto hau erabiltzen, baizik sistema bietako formak jasotzen: *çerren causea beguiraçaca yfinten daus obratan* (23. aur.), *yrugarren egunean ateraco ditu buruac edetera* (13. aur.).
- o “A los cuatro hijos de Salazar y los dos de Ugarte muertos los llebaron a Bilbao (...) por estos muertos dixo en la plaça de Vilbao el de Basurto: *Or dosoc aurrera, or dosoc aurrera!*” (I: 560). *Dosoc* formaren jatorrian **dauzak* dagoela esan liteke, eta beraz, arestian esandakoa kontuan izanda, *dituk* baino berriagoa litzateke. Dena den, agerian dagoena zera da, *dozok* (edo *dozak*) eta *dituk* gaur egun elkarbizitza armoniosoan direla, eta sarri hiztun beraren ahotan.

Azkenik, aipatu behar da gaurko *gaitzean* (bi pluralgile duena: *ga-it-e-z-an*) formaren aldaera zaharra ere aurki daitekeela, pluralgile bakarrarekin: *gaytean* (I: 564).

11.3.11. *emaytean*.

Ganboarrocc su emaytean asi dira (II: 186, Arrasateko erreketeta). Bitxia badirudi ere, esan liteke forma hau mendebaldeko euskara zaharrean ohikoa zela, Arabako euskarari bai behintzat, Lazarragaren testuan ugari baitira adibideak: *erregutu eusan bere emazteari eugui leguiala / contu andia Silverori bear ebena emaitiaz* (5. aur.), *çure llantu dolorosooc / emayten deustae contentua* (6. atz.).

11.3.12. *hasi + -t(z)ean*.

Bergararrocc asi dira / trajioe baten azmaçean (II: 186), *ganboarrocc su emaytean asi dira* (II: 186). *Hasi* aditz intransitiboak zertan galderari erantzunez inesiboaren laguntza hartzean (-n), garai eta euskalki orotan *-te-* nominalizazio marka mugagabekoaren ondotik egin ohi du (E 197: *Amoriak, othoi, parti gitezen*;

Jendiak diradela hasi bekhazten). *Kronikak* jasotako kanta honetan, aldiz, mugatuaren hautua egiten da (-t(z)ean).

11.3.13. *esan* aditz jokatua.

Euskara zaharrean, bizkaieraz eta araberaz zehazkiago, *esan* aditza aoristoan jokaturik aurkituko dugu, gaur *IO-ren mesedetan galdurik izan arren. *Kronikan* datozen Andramendiko eskriturretan aurkituko ditugu bi adibide: *baesan Eçe bere Armaçarrac Ausi taletorrela* (II: 58); *Eneco Pagoetantayco dau acheguyn ta baesoan bere naguçiari legues Ochoa Onsaluch Agur Agur* (II: 58). Eta Lazarragak ere bizpahiru adibide ditu; hona horietako bat: *neure jaunac baesadan / nora çatoz penaetan* (43. aur.).

11.3.14. *leidi*, *liri*.

Egin aditz laguntzailearen paradigmaren BZeko eta Arabako euskarako *leiquet*, *lei*, *leie*, ... aurki ditzakegu, eta baita goiko *leidi* ere. *liri* aurreko formaren aldaera da, asimilazio bokaliko eta konsonantikoak muturreraino garatuta. *Kronikan* datorren adibidea Gizaburuagan sortu omen zen esaldi batean dator: *Becoac goicoa escondu leidi, ta cheac andia beñçiliri asmuz ta jaquitez* (I: 665). Lazarragak forma hori bera dakar, paradigmaren beste askoren artean: *eçin contadu al leidi guiçonac gurearren bere* (7. atz.).

11.3.15. Aditz lokuzioak.

Gura dabela / arena ysan (Andramendi, II: 58). *Gura izan* lokuzioa bizkaierarena ezezik araberaren ezaugarria ere bada, eta *nahi izan* lokuzioarekin batera erabili ohi zen, Lazarragaren eskuizkribuan ikus daitekeenez: *gugaz etorri nai badoçu / erraz daiçu ecusi* (15. aur.); *çuc onenen contra gura badoçu / rrebelde yçan* (25. aur.).

11.3.16. Aditzoina.

Gaurko bizkaieran ez bezala, aditzoina aurkituko dugu aginduak ematean edota subjuntibozko formak erabiltzean (I: 555 *gal didila*, II: 186 *sar gayteza*, I: *justa gaytean*, II: 25 *guar(da) aquio*). Lazarragak ere hala zerabiltzan forma horiek *joan çirean / Silveroen camarara nun sar çiteçenean utra / cortesmente Silverori berva eguin eusaen* (5. atz.).

11.4. Perpausa.

11.4.1. Hitzordenaz: Izenlaguna izenaren eskuin aldean.

[An]dra urena *Butroecoa* (I: 555), *E[rrodrig]o Çarateco* (I: 564), *Juane Abendañocogas* (I: 564), *jaun Asençio Guebaraco* (I: 564), *Eneco Pagoetantayco* (II: 58) *Jaun Diaoz Arocoa çaldun andi Españacoa* (II: 141).

Gaurko euskaran, adjetibo sintagmako izenondo deritzenak izenaren eskuin aldean joan ohi dira euskaraz (etxe *handia*, gizon *ospetsua*). Izenlagunek, ordea, izenaren ezker aldean dute tokia (*etxeko* produktuak, *neskaren* ardura). Hala ere, euskal tradizioan eta gaur egungo hainbat hizkeratan ohikoa da *-ko* atzizkiaz osatutako izenlagunak izenaren eskuin aldean aurkitzea, batez ere pertsonen jatorriari dagozkionean: *Etxeberri Sarakoa*, *Kixote Mantxako*, *Martin Zubialdeko*, Hain zuzen, era horretakoak dira *Kronikatik* jaso ditugun adibideak, diogun bezala, pertsonaren jatorria adierazteko erabiliak.

11.4.2. Lokailuak.

Ze, kausa-azalpenetzkoa: *ez diaço bacarric / çe an daz Presebal ylic / Juanicotegaz lagunduric* (II: 185). Bizkaieraz garai guztietan dokumentaturik, gipuzkeraz ere erabili izan da.

Zerre, kausazkoa: [*ç*] *erre çeuren jauna ezçencan enpara* (II: 185). Bukaerako *-n* gabe ageri zaigu, Arrasateko erreketan hildako senarra gogoan hartuta, Butroeko alargunak botatako eresian. Lakarrak dioenez (1984: 137), ekialdeko aldaera *zeren* den bitartean, mendebaldeko aldaera *zerren* da. Azkuek (1906: II, 434) dio *zerren*-ek gaurko *zergatik*-en tokia hartzen zuela eta *zer + -arren* kausazko atzizkia elkartuta sortua zela. Lazarragak ere badarabil: *Meresçidu ezpadot eçer bere / neure partez çerren naxan pobrea / bay çerren naxan çurea* (13 atz.).

Eze, esaldi konpletiboen lokailua: *Baesan eçe bere armaçarrac ausita letorrela* (II: 58). Batez ere idazle bizkaitarrek emana, *ezen* orokorragoaren ondoan.

Zein, erlatibozko esaldietako izenorde: *urten daude beralan / oñeztar barruangoac / çein erre ez citeçan* (II: 186). Erlatibozko izenordearen erabilera orokorra da.

11.5. Fonologia.

11.5.1. *r-z* hasten diren maileguen egokitzapena.

rey > *errege* (I: 690), *Rodrigo* > *Errodrigo* (I. 564). Adibide hauetan ikus liteke arau bihurtutako usadioari eusten diola *Kronikak*. Baina, bada salbuespen bat, Kantabriarren Kantuan datorrena: *Romaco aronac* (II: 90).

11.5.2. [j] > [ž] .

Mitxelenak (1977: 172) puntu honetara dakargun pasadizo bera hizpide hartuta esan zuen *j* ahoskatzean bide beretsua egin zutela gaztelaniak eta euskarak. Pasadizoa gertatu zenean, XV. mendean alegia, [ž] ei zen *j*-ren doinua, hau da, auresabaikari afrikatua.

Cuando andaba la batalla, los bizcaínos unos a otros en su lengua bascongada dezían señalando los personajes más principales: *A jo, ja[c], erac!!*, por lo cual, teniéndolo en memoria, los castellanos dezían por refrán: “Ajo, pero no el de Munguía”, pensando que cuando oyeron dezir *a jo*, que quiere dezir en castellano “¡dale al que te señalo!”, pensaban que dezían e nonbraban el ajo de comer (I: 557).

Kronika hau idatzi zenerako, XVI. mendean akaburako alegia, gaztelaniak zein euskarak [ž] > [š] pausua ere emana zuten. *Min jac a!* (II: 356) esaldiak ere soinu beraren lekukotasuna dakarkigu, beste adibide hauek bezalaxe: *omenaje eguyngo joat* (I: 564), *Marti Juanes, Labieruko çalduna, Vizcayco consejua ta çençuna* (II: 160).

11.5.3. [iž] > [š].

/iz/ taldeak sabaikaria eragitea fenomeno ezaguna dugu gaur. XVI. mendean ere ez bide zen arrotza, adibideok erakusten digutenez: *Acundia lexarra* < *lexarbag* (II: 154) (<leizar); *Jaureguyaren Aurreco Arextian Elaxearen Aldean* (II: 58) (<areizti); *echyeguydac orailloba, gau bixiric noean* (I: 564) (<bizirik). Lehen bi adibideetan nabari da *ei* diptongoaren eragina.

11.5.4. “Ez”-ek eragindako aldaketak.

Ez+d- > *ezt-*, testu zaharretan bezalatsu: *pareric estabe canporacos* (I: 564); *ez+n-* > *en-*: *neure biçian enoaque Urquiçuren contrean*; *ez+b-* > *ezp-*: *Guerrea espa baquea, gustia da enea* (II: 426).

11.5.5. Mailegüen –ón bukaeraren egokitzapena.

Kronikak dakartzan adibide hauetan, *cantoeco*, *mondraçoe* (II: 186) gaurko formetara (*kantoi*, *Mundraue* –baina *dragoi-*) iritsi aurreko fasearekin egin dugu topo.

11.6. Konklusioa

Ikerketa honi ekin aurretik ere, ez zegoen zalantza handirik *Ibargüen Cachopín Kronikako* euskal testuak bizkaierazkoak zirenetz, baina materialok banan-banan azterturik eta ondoren ikuspegi linguistikotik sailkatu-rik, esan genezake argi gehiago egin diogula gaiari eta egon zitezkeen zalantzak uxatu. Ez Ibargüen ez Cachopín ez den egileren batek *Kronikari* erantsi zizkion “Vocabulario”-ak (II: 235-244) ez daitezke bizkaierazkotzat har, baizik eta, pentsatzekoa den bezala, inongo hizkerari lotzeko intentziorik gabe idatzitako hitz zerrendatzat, irakurleari ahalik eta tresna osotu eta erabilgarriena eskaintzeko asmoarekin. Beste material guztiek, ordea, bizkaiera dute azalean eta ariman, eta, bereziki Lazarragaren eskuizkribuarekin egin dugun alderaketan nabarmen agertu da ezaugarri nagusietan arabera eta bizkaierak duten antzekotasuna.

Baina azterketa honek erakutsi diguna, oroz gain, euskalkien arteko mugen ahuldadea izan da. Mugak konbenzioz jarriak dira beti eta sarri aurriritziak baliatuta. Lakarraren (1986: 671) hitzak neure eginda, esango nuke historian zehar bizkaiera horren berezi eta arrarotzat jo izanak ez duela oinarri sendorik. Beste euskalkiengandik urrundu egin dela argi dago, baina ez da askok uste duten bezain urruti joan. Bizkaiera, berez, pentsatzen den baino hurbilago dago “benetako gipuzkeratik”, giputzen aho eta izkribuetan ematen denetik alegia. XVI. mendeko hizkerari dagokionean, bestalde, gipuzkerazko testu gutxiegi dugu GZa definitzeko eta “Vocabulario”ak bezalako hitz zerrenda bat gipuzkeraz osatua dela esateko.

Lan honetan bildu ditugun materialek euskararen euskalkien bilakaeraz azken urteotan indarra hartzen ari den teoria berretsi egiten dute. Erdi Aroaren iluntasunaren erdian euskarak batasun egoera aski indartsua bizi izan omen zuen eta ondoko mendeetan euskalkiak bereiziz joan ziren, mendez mende ezberdintasunak areagotuz. Guk aztertu ditugun hizkuntza ezaugarri batzuk, objektu zuzenaren genitibizazioaren fenomeno eta destinatiboen bukaerako –s-arena, biak ere arkaismoak, lekuko interesgarriak dira zentzu horretan egin daitezkeen ikerketetarako.

III

Laburpena

a) Iburguen handia zan arren han zan Cachopín bere

XVI. mendearen erdialdean Sibiliako hirian Iburguen deitura zuen eskribau gazte batek eta Cachopín famili-izena zeraman historiazale batek asmo handi bati ekin zioten elkarlanean. Espainiako erreinuaren historia kontatzea zuten helburu, mundua sortu zenetik euren egunetara iritsi arte, kontakizunean euskal leinu eta herrien historia ere txertatuz. *Corónica General Española y Sumaria de la Cassa Vizcaína* jarri zioten izenburu eta denbora luzean zehar (1558-1620) osatu zuten, iturri ugarietako materialak bilduta, gai eta eduki askotarikoak. Baina lanak ez zuen sekula inprentarik ezagutu eta, entzute handikoa izan arren, lau mende geroago oso egoera txarrean aurkitzen da lanaren eskuizkribu bakarra. Doktore tesi honen helburu nagusia, hain zuzen, lan hori, *Iburguen-Cachopín Kronika* moduan ezaguna, irakurle ororen esku jartzea zen, eskuizkribua transkribatzea eta edizioa prestatzea alegia. Helburua erdietsi dugulakoan gaude, *Kronikaren* materialak bilatzen, antolatzen eta irakurtzen lan handia egin ondoren. Egileek horrenbesteko pazientzia osatu zuten lana eta urteen joanak horren egoera kezkarrian utzia zutena, elbarri baina salbu da azkenean, eta aurrerantzean ikerleek modurik errazenean eskura izan dezatela da gure nahia.

Egileen biografiak osatzea beharrezko genuen tesi honetan, eta Iburguenen kasuan datu ugari bildu ahal izan dugun arren, Cachopínen bizitzari buruzko ikerketa irekia geratu da eta zenbait datu zalantzan. Bizkaiko Muxika-Urartetik Sibiliara bitartekari lanak egitera joandako merkatari baten semea zen Iburguen, eta Cachopín, berriz, jatorriz Laredokoa, bere “odol garbiagatik” entzutetsu bilakatu zen leinu baten semea, Sibilian eta Cordoban bizi izandakoa. Iburguen, lanbidez eskribau, bere leinuaren noblezia frogatzearekin obsesionatua; Cachopín, soldadu eta Estatuaren administrazioko langile, zaletasunez historian jakituna. Biak Sibilian bilduak, eta bientzat Bizkaiko Jaurgoaren enkargua³⁵⁹: osa zezatela historia orokor bat, non, aitoren semeen eskubideak bermatzea xede, bizkaitarren jatorri garbiari eta nobleziari buruzko zalantza oro uxa zedin.

Lan gehiena 1558tik 1598ra bitartean osatu zen eta Cachopín semea izan zen egile nagusia. Ondorengo urteetan material berriak erantsi zituen Iburguenek

³⁵⁹ Enkarguaren froga dokumentalik ez dugu, baina aintzakotzat ditugu Iturrizaren (1793: 378) hitzak.

eta aurretik idatzitakoa osatu eta zuzendu, geroago eta neurri apalagoan bere seme Juan de Iburguen Okak egingo zuen bezala. Eskuizkribuak, Ibarruriko Oka auzoan urte batzuk eman ondoren, Markinako Mugartegi jauregian igaroko zituen urte luzeak. Han, jadanik koaderno asko falta zituela, ikerle eta kurioso askok begiratu ahal izan zuen, tartean Iturriza, Mogel, Humboldt, Labayru, eta beste. 1920an Juan Mugertegik Bizkaiko Aldundiari eman zizkion berak kontserbatzen zituen bost tomoak, gorde eta zaindu zitzan, eta egun Bizkaiko Foru Artxiboan aurki ditzakegu, Liburu Historikoen sailean, L-49, L-50, L-51, L-52, eta L-53 signaturen pean. Bestalde, galdutako koadernoetako hiru Madrilen aurkitu zituen Juan Carlos Guerrak 1882an Biblioteca Nacional-en. Gaur egun ere bertan aurkituko ditu irakurleak 11.760 signatura daraman *Linajes de Vizcaya y Guipuzcoa* izenburuko tomoan. Horrela, Iburguenek eta Cachopinek idatzitako 184 koadernoetatik 71 baino ez dira gordetzen: BN-en 5 eta BFA-n 66. Sona handia lortu zuen *Kronikak* sortu zen garaitik bertatik Bizkaiko historiaz arduratu izan diren gehienengan. Eskutik eskura ibili omen zen eskuizkribua, koadernotan zatikatua, etxez etxe, hara eta hona. Horrela galdu ziren material asko eta asko.

Dugun eskuizkribu bakarra Iburguenen eskuz idatzitakoa da. Ez dakigu Cachopínek beretzat beste kopiaren bat gorde zuen, baina pentsatzekoa da jatorrizkoa berak idatzi zuela Sibilian edota Cordoban. Ezberdina ote zen? Zergatik ez da lan honetan Cachopín leinuari buruzko berririk eta horren ugari dira Iburguen etxearenak? Lan beraren bi bertsio jaio ote ziren?

Kronika luze hau hiru liburutan banatutako 184 koaderno edo kapitulutan idatzi zen. Lehen liburuan munduaren sorreratik Erromako enperadoreen garaira arte (40 urte Kristo aurretik) banatu ziren 63 koaderno. Horietako bakoitzak patriarka edo errege bat du abiapuntu. Noerekin hasi eta Tubalekin jarraitu ondoren, Espainiako kronistika legendarioak ezarritako erregeen segidari lotzen zaio Iburguen eta Cachopínen kronika ere (Ibero, Jubalda, eta abar). Bigarren liburuko 74 koadernoek Espainia eta munduko historia aztertuko dute Zesar Augusto enperadoreagandik hasi eta azken errege bisigodoen agintaldira arte. Hirugarren liburuan, azkenik, 47 koadernoek errege asturiarren agintaritzan, Espainia musulmanen menpean zela, izango dute abiapuntu Felipe II.aren agintaldiarekin bukatzeko.

Bi eten nagusik markatu zuten Cachopínen *Corónica...*: lehenik Erromatarren Inperioaren goraldiak, Jesukristoren jaiotzarekin batera, lehen liburuaren amaiera eta bigarrenaren hasiera ezarriz; eta bigarrenik musulmanen etorrerak, bigarren liburuaren amaiera eta hirugarrenaren hasiera markatuz.

Koaderno guztiek ia egitura bera erakusten dute, munduaren antolamenduaren espiritu bera: koadernoari dagokion garaiko Espainian zer berri zen azalduz hasten dira koaderno gehienak, zein errege zen agintean eta zernolako gora-beherak izan zituen agintaldian; segidan Mundurantz irekiko dute begirada eta Elizaren egoeraz arituko dira; eta koadernoaren bukaeran kronistak Bizkaira zuzendu ohi du begirada bertako leinu zaharrei gorazarre egitera, Espainiako erregeen historia eta Bizkaiko zaldun handiena modu batean edo bestean uztartuz. Errekonkistaren garaiko gora-beherak narratzean aitzakia ezin hobeak aurkituko ditu kronistak, Bizkaiko ahaide zahar eta aitoren semeen balentriak direla medio, bizkaitarren handitasuna aldarrikatzeko eta Espainiako erreinuan abangoardia postuak eskuratu ahal izateko. *Bizkaia* izena eta *bizkaitar* jentilizioa anbiguitatez erabiliak dira *Kronikan*, eta gehienetan euskal lurra eta euskalduntasuna izendatzen dute, garaiko kronistikan ohiko denez.

Espazioa hiru marko nagusitan antolatu zuten, Bizkaia Espainiaren barnean eta Munduaren epizentroan kokaturik. Espainiako erreinuari dagokion markoa da historiaren eragile nagusia XV. eta XVI. mendeko kroniketan eta marko espainiar horren erdigunean marko bizkaitarra kokatu zuten Iburguenek eta Cachopínek, adieraziz, alde batetik, espainiarren benetako esentzia Bizkaian gordea dela, eta, bestetik, bizkaitarrak direla bakarrak Mundua sortu zeneko izaerari eusten, Noek zabalduzako herriaren azken aztarnak direla, alegia. Marko unibertsalera jotzen denean, bestalde, batik bat bizkaitarren iragana ohorez hornitzeko jo ohi zuten gure kronistek: Noeren semeetako bat, Tubal, bizkaitarren aita bihurtu zuten, Troiako guduan heroi izandako kapitain bat, Brutus, euskaldunen odolaz nahastarazi zuten, Grezia handiko buruzagiak Euskal Herrirako etorkin bilakatu zituzten,

Berebiziko garrantzia du kronistarentzat nazioaren sorrerak. Horren lekuko hizkuntza izanen da eta biak elkarren argigarri dira. Hizkuntzaren sustraien bila abiatu, tradizio biblio-patristikoari jarraitu zaizkio Iburguen eta Cachopín,

antzinako historiografiaren ilunguneetan aurrera eginez, Tubalenganaino iritsi arte. Aberriaren jatorria argi ederrez agerrarazi nahiak erromatarrak iritsi aurretik iberiar penintsulak zer-nolako egoera bizi izan zuen ikertzera daramatza historialariak, gaur egun ere argitzeke diren arazo asko kausituz (zein herri ziren dominanteak, zein hizkuntza mintzatzen ziren eta non, zein ohitura erlijioso zuten, ...). Arazo horiei aurre egiteko Anio de Viterbok edo *Beroso faltsuak* argitaratutako Espainiako aurre-historiako erregeen kronologia fantastiko bat zuten eskura, Hispaniako kosmogonia osatzen lagundu ziena. Ondoren, erromatarren dominaziora iristean, *Kronikak* Erromako Inperioko enperadoreei jarraiki antolatzen ditu koadernoak, segidan Espainiako errege bisigodoei lotuta eta azkenik errege kristauen haritik.

Lanaren ibilbide luzean Cachopínek iturri askotatik jasotako materialak “trasladatu” (berak hitz hori darabil sarreran) zituen. Garaiko historiazaleentzat nahitaezkoak ziren erreferentziez gain, Cachopíni Sibilian bizi izateak lan multzo aparta jarri zion eskura. XVI. mendean Sibilia bizi zuen loraldi ekonomikoak idazle handi ugari sortzea ekarri zuen eta argia ikusi zuten, besteak beste, Morgado (1587), Mal-Lara (1570), Peraza (1587), Barrantes Maldonado (1566) eta abarren lanek. Baina Pedro de Medinaren *Grandezas de España* (1548) izan zen gure aburuz Cachopínek eredutzat hartu zuen lana. Hark markatutako hariari fidelki jarraitu zion eta, hark bezala Cachopínek ere, Sibilia hiriaren inguruan jirarazi zuen Historia, Espainiakoa zein mundu ezagunarena, batik bat Erdi Arokoa.

Baina euskal historiografiaren ikuspegitik garrantzia duten erreferentziak euskal idazleei buruz eta bereziki euskal lurrez idatzi zutenei buruz emandakoak dira. *Kronikan* zehatz eta zabal aipaturik eta aztertuturik ageri dira gaur egun galdutzat ditugun hainbat lan, eta, noizbait aurkituko balira, euskal historiografiarako eta hizkuntzarako sekulako garrantzia izan lezakete. Merezi du euren izena gogoan hartzea: Juan Aguayo Guevara, fray Gonzalo Arredondo, Antón Bedia Çirarruista, García Fernández Cachopín doktorea, Diego Calderón Belamino, Alfonso Castilla, Cristóbal Mora, Gaspar Peña Galdocha, Hernando Zarate komendadorea, fray Agustín Velasco Zamudio. Idazle hauen inguruan dakiguna *Kronikari* esker dakigu eta *Kronikan* euren lanetatik jasoak dira *Bizkaiari* buruzko berri gehienak

eta gure literatura eta hizkuntzarako erreferentzia bilakatu diren kanta, esaera, esamolde eta aipuak.

Cachopínek, iturri bibliografiko horiez gain, Iburguenek bildutako materialak ere aintzakotzat hartu behar zituen eta bere tokia eman koaderno koaderno, hari narratibo logiko eta orekatuan harilkatzen saiatuz. Hori dela eta, bi kontatzeko modu ezberdin atzematen ditu irakurleak *Kronikan*: alde batetik administrazio publikoan eskribauek erabili ohi zuten sintaxi nahasi eta astuna, eta bestetik hainbat pasarte historikotan protagonista izandako lagunengandik jasotako hizkera bizi eta naturala. Guztiarekin ere, Cachopínen estiloaren ezaugarririk garrantzitsuena bere lanarekin duen inplikazio pertsonala da. Zalantzaren aurrean, itzal handiko egileak hartuko ditu ahotan. Bestetan, bere burua besteen gainetik jarri eta ironiaz beteriko kritikak egiteko gai da. Izan ere, nabaria da Cachopínek *Kronikari* eman dion ukitu pertsonala, eta irakurlearen ikuspegitik oso eskertzekoa, autorearen agerraldien bitartez irakurlearen presentzia ere bultzatu nahi dela baitirudi. Egilearen presentziak genero historiografikoari zurruntasuna kentzen dio eta egia borobilik ez dela gogorarazten irakurleari, berak ere baduela zer esanik.

b) Otabiano, munduko jaun

Iburguen-Cachopín Kronika kronistikaren edo historiografiaren tradizio alfonsotarrean kokatu dugu, aldeak alde eta distantziak distantzia. Iburguen-Cachopínen narrazioa erregeak ardatz harturik eraiki bada ere, tradizioak agindu bezala, jadanik ez dira kontakizunaren interesgune nagusia, Historia kronologikoki antolatzeko modurik praktikoena baizik. Behin kapituluaren hasieran erregeren aipu eginda, segituan zuzenduko du egileak begirada benetan interesatzen zaizkion eremu narratiboetara: Euskal Herriko leinuen eta heroien historiara. Hein handi batean, Iburguen-Cachopínena literatura linajistikoa da. García Salazar-en estiloaren zantzuren bat aurkitu badaiteke ere (BFeko zatiren batzuk oso-osorik kopiatu zituzten), Iburguenek eta Cachopínek hurbilago dute Ocampok edo Garibayk osatutako kroniken egitura eta idazmoldea. Bizkaiko azken zokoko etxeraino iritsi nahi izan zuten, metodologia berbera aplikatuz mikrokosmosa (leinuaren, jaioterriaren eta lurraldearen historia) zein

makrokosmosa (munduko eta Espainiako historia) azaltzean; bata bestearen testuinguruan txertatzen saiatu ziren. Eta norbanakoak bere tokia hartuko badu, nahitaezkoak ditu abizena eta ikur heraldikoa. Etimologiaren bitartez abizenen azalpen zail eta zuhurrenak egingo dira, bertan gorderik den esentziaren bila: lurrarekiko lotura, jatorri garbia, arbasoen ekintza ohoretsuak, ...; eta hori guztia ikur heraldikoan handiki islaturik.

Pertsonaia eta bere inguru gertuena ohoratu nahi horrek, sarri, falsifikaziora darama Cachopín, datu historikoak puztera eta gertakariak asmatzera, ziur asko falsifikadore kontzientziarik gabe. Izan ere, XVI. mendean faltsutzea ohitura bihurtu zen, eta zerbait egiaztatzeko frogarik ez zegoenean, asmatu egiten zen, besterik gabe. “Dolo pio” deritzona, errukizko iruzurra, onartua zegoen garaiko ikuspegi moraletik, eta, Caro Barojaren ikerketen arabera (1992: 17-37), autoritate handiko idazle zenbaitek historia faltsutzea zilegi zela defendatu zuten, aberriaren ohoreak edo interesek hala eskatzen zutenean.

Metodorik hedatuenetako bat galdutzat emandako autore zahar baten obra kasualitatez aurkitu den itxura egitea zen. Hala egin zuen Anio de Viterbok (XV. mendea), Berosoren (k.a. III. mendea) eskuizkribu ezezagun bat aurkitu zuela eta, Erromako Inperioaren aurreko erregeen nomina fantastikoa osatu zuenean. Metodo bera erabili zuen Cachopínek berak ere Leloren Kantua eta Andramendiko Eskriturak bere aitak pergamino zaharretan aurkitu zituela esatean, lehen kasuan erromatarren eta euskaldunen arteko borroken testigantza bat emateko, eta bigarrean Butroiko leinuaren antzinatasuna frogatzeko.

Kronikoiek elkar elikatzen dute eta euren babesa luzatzen diete aurretik emandako fikzioei. Eskritura Santuetako pertsonaiak mundu osoan barrena ibilarazten dituzte eta norbere lurrera iritsiarazten (Noe, Santiago, ...), eta hori gutxi balitz, pertsonaia mitologikoak ere biziarazten dituzte eta arbasoen lurrera ekartzen (Hércules, Gerión, ...). Cachopínek tarteka baino ez du erabiltzen bere izpiritu kritikoa iturrietatik edatean, eta erraz erortzen da garaian nagusi zen sinesberatasunean, bere lanean gertakari miragarri, fantastiko edo mirarizkoei toki eginez.

Baina *Kronikan* ageri zaizkigun asmazio eta fantasia historikoak ezin zaizkio Cachopíni egotzi. Berez, historiografia “bizkaitarzailea” edo “mito

bizkaitarra” deritzonak penintsulako tradizio historiografikoan ditu sustraiak eta sorburua. Europako lehen biztanleak Jafet-en semeak izan zirenekoa eta, bereziki, Tubalek bizitoki Espainia aukeratu zueneko Isidoro sainduaren eskutik datorkigun berria da, San Jeronimoren kronikatarrean oinarriturik. Eta hurrengo mendeetako kronikek Estrabonen eta Justinoren lanetatik jaso zituzten Gerion erraldoiaren izugarrikeriak edo Herculesen balentriak. Izan ere, Justinok mitoei azalpen ebemerista emateko joera handia zuen eta, ondorioz, interpretaziorako atak ongi irekiak uzten zizkien kronistei.

Mito bizkaitarraren eraiketan pausurik sendoenak Barcelos konteak (XIV. mendea) eta Lope García Salazarrek (1399-1476) eman zituzten. Ondoren, Anio de Viterbo-ren faltsifikazioak oinarri hartuta, mitoa indartu eta XVI. mendeko kronistetan loratu zen borobildurik. Ocampo, Morales, Mariana, Garibay, Cachopín bera, eta beste historialari asko erabat sorgindu zituen Anio de Viterboren faltsifikazioak, *Beroso faltsua* deiturikoak. Cachopínek Berosok emandako hari historikoen gainean kokatu zituen Bizkaiko jaun, kapitain eta heroiak. Tartekatu zituen fabulak eta gertakari miragarriak garaian oso hedaturik zeuden testuetatik jasoak ei dira, haietako asko gaur egun desagertuak badira ere. Hala gertatzen da Bernardo del Carpio-ren fabularekin, Ataulfo apezpikuaren mirariarekin, Jaun Zuriaren mitoarekin, eta abar. Narrazioan zehar ez dira gutxi kontraesanak eta tarteka irudi lezake Iburguenek zenbait testu gehitu zuela Cachopínek esandakoa osatu edo emendatu nahian.

c) Bizkaia Bizkaia zanean, ez zan bilaurik ez lekairik harean.

Garaiko ikuskerari jarraiki, Iburguen eta Cachopínen pentsamenduan munduak ikuspegi kristautik du azalpena, eguneroko gauza arruntenetatik hasita politika goreneko gaietaraino. Erromatarren *orbis terrarum* hura *orbis christianus* bilakatuta, Eliza eta Inperioa gauza guztien gainetik zirela, historiaren ekintzaile guztiak zuzentasun moralaren galbahetik igaroko dira. Hori zela eta, norbere leinuak noblezia eskura zezan nahitaezkoak ziren hurkoarekiko eskuzabaltasuna eta justizia edo zuhurtzia bezalako dohainak. Dohain horien jabe izan ziren, hain zuzen ere, Tubal eta bere ondorengo buruzagiak, eta mendez mende euskaldunei ere iritsi zitzairen oinordekotzan izpiritu dohatsu horren zigilua.

Cachopínek Elizaren kontuei eskainitako tokia eta bere idazkerak maiz hartzen duen tonu moralizantea nabarmen dira zabalak eta errepikakorrak. Inperio Sakroari lehenbizi, Espainiako erreinuari ondoren eta azkenik Bizkaiari loturik ematen dizkigun ideia sozio-politikoak, zalantzarik gabeko identitate kristau eta katolikotik ematen zaizkigu. Cachopínen izpiritu kristaua bizitzari buruzko iruzkin moralizanteetan islatzen da maiz, eta kristau on ez direnek, idolatra ezjakinek, mauruek, arrianoek eta beste herexe klase guztiek odola irakinarazten diote, baita kristautu aurretik Bizkaian izandako ospakizun idolatrek ere. Haatik, Bizkaia beti agertuko da oso erlijioso, Jainkoari ohore egiterakoan gogotsu eta elizak eraikitzerakoan eskuzabal, lurralde hau oso goiztiar kristautu baitzuen San Cerninek eta bere jatorriaren sustraiek Noe berarengana baikaramatzate. Gure egileen arabera, espainiarrak Recaredo I.arekin hasi ziren kristau katoliko izaten, hau da, 589 urtearen inguruan; San Cernin, euskaldunen predikatzaileria, ordea, San Pedoren ikasle izana zen. Gainera, eta bizkaitarrak edozein espainiar baino lehenago kristautu zirela frogatzeko, Cachopínek diosku Noek berak eman ziela Jainko bakar eta egiazkoaren legea, Paduako Antonio saindua Bizkaian izan zela, eta abar.

Kronikak ezin ditu disimulatu bere helburu behinenak, euskaldunen odol garbitasuna, belaunaldiz-belaunaldi jasotako administrazio askatasuna eta kristau zahartasuna goraiatzeko, alegia. Baldintza horien gainean eraikia baitzen *lurralde libre* izatearen pribilejioa, hau da, erregeren zergetarako “exento”, salbuetsia, izatea, ahalbide militar propioak edukitzea, berezko lege instituzionalak gordetzea herri eta lurralde mailan, lurraldean kompetentzia propioak izatea, ... eta bere *bizkaitartasuna* froga zezakeen orok lor zitzakeen beste hainbat abantaila.

Idea hau Lope García Salazarren eskutik jaso zuten XVI. mendeko historialariek, besteak beste, fray Miguel de Alonsotegui, Coscojales eta Mendieta bizkaitarrek, Diego de Salvatierra (1585) arabarrak, eta Garibay, Zaldibia eta Echave gipuzkoarrek. Baina Garcia Salazarrek noble talde murriztatuz aldarrikatzen zituen eskubide horiek, ahaide nagusientzat eta euren oinordekoentzat, alegia. Iburguen eta Cachopinentzat, ordea, *bizkaitar* guztiak dira noble, berezkoa dute, jatorriak emana.

Koroak aitoren semeen eskubide eta pribilegioak aintzakotzat hartu zituenean, bestela esanda, “hidalgia unibertsalaren” ideia bere egin zuenean, apurka-apurka, Espainiako erreinuan aurkako ahotsak hasi ziren altxatzen, gero eta ozenago, saiatuz bizkaitarrek mendez mende jasotako noblezia hori gezurtatzen. Juan García, Valladolideko Real Chancillería-ko fiskala, izan zen oihartzun handia izan zuen ahotsetako bat hidalgia unibertsalaren ideiarri aurre egiteko orduan eta *bizkaitarrek* erreinuaren administrazioan zuten eragin gero eta handiagoari kontrapisua jartzeko ahaleginetan. Baina Felipe II.ak entzungor egin zien ahots horiei eta agindurik utzi zuen gorde zekizkiela bizkaitarrei euren askatasun eta foruak, ezen leialak eta fidelak baitziren oso monarkiarekiko.

Ez da harritzekoa, beraz, Cachopín eta Iburguen felipista porrokatuak izatea, Errege Katolikoek miresleak eta Carlos I.aren jarraitzaileak. “Inperioa” miresten zuten eta bertako zerbitzari izateak harrotzen zituen, beti ere handitasun horretan euskaldunen tokia aldarrikatuz.

Espainiako erregeekiko harreman gozo hori euskal zaldunek monarkiari egingako zerbitzuetan du oinarri, hein handi batean. Ekintza heroiko horien araberakoak izango da leinuen handitasuna, Erregeren alboan zaldun gisa burututako balentrien neurrikoa. Zaldunak paper dinamikoa jokatuko du narrazioan, oinarrizkoa; adorez gobernatuko ditu bere menekoak eta aitoren seme ororentzat izanen da eredu. Baliorik behinena loria, ohore eta boterearen desioa da, eta bitartekoak handinahia, ausardia eta ahalegina. Baina, era berean, bere helburuen eskuratzeko ezingo du egiatik, justiziatik eta zuhurtziazatik aldendu.

Adorea eta ausardia ekintza militarretan erakusten da eta, horregatik, *Kronikan* indarkeriazko kontakizunek pisu handia izango dute. Indarkeria bere erarik gordin eta bortitzenean Oñez eta Ganboa bandoen gatazkaren inguruko pasadizoetan agertuko da. Egileak, nola ez, Gonzalo Moro korrejidoreak ahaide nagusien bandoen aurka eta Batzarretatik sustatutako hermandadeen mesedetan ezarritako neurri gogorren aldeko dira.

Borroka hauek deskribatzen dituen pasarteetan, alde batetik, egilearen izua atzeman daiteke bortxazko ekintzen aurrean, baina bestetik, protagonisten ausardiak eragiten dion mira ere agerikoa da. Sarri, bere estiloa hurbilago dago Garcia Salazarren gotortasun eta gordintasunetik, Garibayren nahasmen eta

ambiguotasunetik baino. Bandoen indarkeria arbuiatzen du, baina ez du oñeztarren aldeko dela ezkututzen eta heroismoz betetako garai haiek miraz ekartzen ditu gogora. Hain sakon errotuta zegoen belaunaldiz belaunaldi jasotako indarkeriaren kultura hori, ezen guda jarrerak eta erasoari indarkeria handiagoz erantzutea bertutetzat joak baitziren. Liskarra edozein unetan sor daiteke, haserrealdi txikienak eraginda, eta neurriz kanpoko bilaka daiteke familia ezberdinek ezkontza, hileta edo antzerako ospakizunetan topo egitean. Arrazoirik behinena mendekua izan ohi da, nahiz eta batzuetan muga arazoak edo amodio aferak ere ageri diren sorburuan.

d) Bildurrik gutxi Romako aronei.

Ibarguen-Cachopín Kronikaren irakurketak ezustekoak ere eman dizkigu, eta haietako bat, interesgarrienetakoa, euskal imaginarioa osatzeko baliagarri izan daitezkeen material ugariak emandakoa izan da. *Kronikoi faltzuen* tradizioan sartuta, Erreinuaren historia ofizialaren igorle izan ziren kronista biok, beste askok bezala, erreinu, estatu, leinu edo hiri jakin bat goratzeko helburu argia zutelarik. Eldarnioz eldarnio, Historiaren zutabe bilakatuko ziren mitoak eraikiz joan ziren historiazale eta kronikoigileak. Mito horiek aldaera handirik gabe behin eta berriz errepikatuko ziren, Espainiako patrimonio espiritualean erabat erroturik baileuden. Jakina, mito horietako pertsonaiak historikoak direnik esaterik ez dago, baina zenbait ikerlarik azalpen ebemeristikoa eman die, hau da, egiazko gertakarien testigantza gordetzen omen dute, legendak edertua, eta, halaber, oroimen historikorako laguntza nemoteknikoa eskaintzen omen dute.

Herrien memoria historikoa, mitoak, sinboloak eta balioak ezinbesteko tresnak gertatu izan dira nazioen nortasunaren oinarriak ezartzerakoan, eta Ibarguenek eta Cachopínek toki berezia eskaini zieten, kasu askotan benetako Historia zirela sinestuta. Garibay eta besteren antzera, Cachopínek ere Eskritura Sainduetan oinarritutako Historiaren ikuskera genealogikoa du abiapuntu. Jaungoikoagandik hasita, Bibliako patriarkak (Noe, Tubal) tarteko direla, Espainiako erregeen segidara iritsiko da. Ondoren nobleziako zenbait mailalara igaroko da, eta, azkenik, hari genealogikoari jarraiki, Bizkaiko leinu handienetara eta bere adarretatik ateratakoetara iritsiko da. Herrialde askotako historiografiek jo

izan dute Historia eratzeko modu honetara: Israelgoak, grekoak, ..., eta horrela, metodo genealogikoa oinarri hartuta, ondorio historikoak ez ezik, juridikoak ere eratorri izan dira.

Ikuspuntu honetatik eta beste anitzetatik egin daitezkeen azterketa sakonak merezi ditu zinez euskal imaginarioaz *Kronikan* bil daitezkeen material sortak, baina lan honetan materialok bildu, ordenatu eta aurkezteko tokia baino ez dugu egin. Lehenbizi Tubalia aurkeztu dugu, Babiloniatik ihesi euskal lurra bizitoki aukeratu zuten Tubal eta tubaldarren nazioa. Aro honetan sendo itsatsirik geratuko zaizkio euskaldunari bere nortasunaren ezaugarri behinenak.

Hurrengo aroan Tubaliak, euskaldunen lurraldeak, Soloria edo Siloria izena hartuko zuen. Izen horrek irakurleengan sor dezakeen harridura arintze aldera, gogora dezagun erromatarrek konkistatu zuten Hispania hartan bazela Solorius izeneko herrialdea hegoaldeko Baetican; zehazkiago esateko, geroago Sierra Nevada deituko zioten mendikatearen izena zen Solorius. Badirudi etimologigoki euskararen bitartez azalpen erraza izateak bultzatu zituela XVI. mendeko kronistak Iberiako izen hau hastapenetako euskal lurraren izentzat aukeratzera. Batzuen esanetan herritarrek euren batzarrak ospatzen zituzten Solue mendiaren ohorez sortu zen izena, eta beste batzuen iritziz Siloria edo Soloria izena *soloa* hitzetik dator. Aro hau aztertzean idolatriari eta ospakizunei buruz ematen diren xehetasunak arrunt interesgarriak dira.

Soloriaren aro honetan Bizkaiko jaunen dinastiaren sorrera ezartzerakoan, XV eta XVI mendeetako tradizio historiografikoak zabalduko legendak jaso zituen kronistak eta bertsiio ezberdinak eman Eskoziako erreginaren mitoaz edo Jaun Zuriarenaz, García Salazarrek (1454) emandakotik nabarmen alduz. Halaber, Bizkaiko jaunen izendegia osatzean hainbat kontraesan aurkitu dugu *Kronikan* bertan, nabarmenago bihurtu direnak beste autoreek emandako izendegiarekin alderatzean. Arlo honetan jaun mitikoen eta historikoen arteko bereizketa egin nahi izan dugu (6.4.4.) *Kronikaren* datuak ordenean jartzearekin batera.

Erromatarren etorrerarekin Soloriaren aroa itxi eta Kantabriarena hasiko da. Nazioaren mugak zehaztean, hainbat egileren iritzi kontrajarriak biltzen ditu Cachopínek, baina bat egiten du euskaldunen eta erromatarren arteko gatazkaren

inguruan kronista gehienen artean zabalduetako mitoekin. Horien artean hedatuenetakoa da alde bien artean hitzartutako borrokaren berria eta abentura horretan protagonista izan ziren zaldun euskaldunen periploa.

Cachopínen imaginarioak dakarkigun beste berritasun bat *Kronikan* sarri aipatzen diren 47 kapitainena da. Egileak antzinako buruzagiei deritze kapitain eta badirudi *Kronikaren* kodernoren batean 47 kapitain horien izenak eman zirela. Hala ere, geratu diren koadernoetan gutxi batzuri buruzko erreferentzia aurkituko dugu soilik, eta azpimarratzekoa da ezagun dugun historiografian ez dela antzeko kontakizunik atzematen ahal.

Eta bukatzeko, Oñez eta Ganboa deitu bandoen arteko ezinikusi eta liskarren sorreraren inguruan sortutako legendak bildu ditugu, Kantabriaren eta Bizkaiaren aroen arteko zubi gisa.

e) “antes de mucho tiempo no habrá bascuence (...) si no se acuerdan con tiempo a lo remediar”

Gure azterketaren bigarren erdian *Kronikak* euskalaritzari egin dizkion ekarpenez aritu gara, hizkuntzaren inguruko ideiak, euskal literaturarako materialak eta euskara zaharraren lekukotasunak aztertuz.

Euskararen jatorriaz, historiiaz eta egoeraz kontatu zigutena azaltzen egin dugun ahaleginean, Babelgo bereizkuntzaren mitoa izan da lehen atentzio-gunea. Elizaren Aitek (San Agustín, San Isidoro) finkatutako ideiak oinarri harturik eta Espainiako historiografiari jarraiki, euskararen unibertsaltasuna eta jatorri babelikoa frogatzen saiatu zen Cachopín. Kronisten artean gairik eztabaidatuenetako bat euskara Espainiako antzinako hizkuntza zelako ideia izan ohi zen. Aldekoak zein aurkakoak anitz ziren XVI. mendean, eta, antzinako euskararen teoriak batetik, antzinako gaztelaniarenaz bestetik, argudio berberak behin eta berriz errepikatu ziren. Lan horretan metodo etimologikoa izan zen baliatuena.

Ibarguen-Cachopín Kronikan datozen euskal testuak aztertzerakoan alhora ezineko gai bati ere heldu diogu: Cachopínek, *Kronikan* pisu gehien duen kronistak alegia, euskaraz ba ote zekien. *Kronikaren* lehen idazketa Cachopínen da eta bere eskutikoak dira lanaren testu gehienak. Ibarguenek burututako

zuzenketak, antzematen zailak, eta bestek gehitutako materialak letozke ondoren. Material horiek guztiak azterturik egileek euskara ezagutu ezagutzen zutela ondoriozta genezake, baina baita maila ezberdineko ezagutzak antzeman ere. Cachopínek ez zekien euskaraz, baina ezagutza pasibo aski aberatsa zuen, hau da, gai zen idatziz jasotako euskal testu baten hitzak ulertzeko eta hauen analisi linguistiko zehatz samarra egiteko. Dena dela, ez dago zalantzarik *Kronikan* ageri diren euskarazko testuak beste kronika eta lan batzuetatik jasoak direla (Leloren Kantua, Errodrigo Zaratekoren Eresia, Haroko Jaunaren Kantua, eta abar), edo Iburguenen bitartez gehituak. Beraz, sarritan testuok ulergaitz edo hizkuntza aldetik trakets iruditzen bazaizkigu, Cachopín aita-seeek eurentzat arrotza zen hizkuntza baten idatzitako testu horiek interpretatzean eta kopiatzean izandako zailtasunetan bilatu beharko dugu azalpena.

Euskararen historiari buruz Cachopínek esandakoetan denetik aurkituko du irakurleak: mitoa, magia, intuizioa, hausnarketa, Batzuetan barregurea eragingo digu, besteetan harridura, ... tarteka arrazoia emanen diogu agian, ... ez gaitu, ez, indiferente utziko. Interesgarri gerta litezke, halaber, antzinako euskaraz emandako xehetasun urriak eta, batez ere, *Kronikaren* garaiko Bizkaiko hizkerez egindako deskribapenak.

Askorentzat, batik bat filologoentzat, Cachopín eta Iburguen ezagunak dira kanta zaharren biltzaile gisa soil-soilik. Argi dago bildu zituztenak baino gehiago bil zitzaketela, aipatu ere aipatzen baitituzte idaztera iritsi gabe, baina ez zen hori euren lanaren xedea. Kanta eta esaera horiek bandoen arteko gatazkei buruzko narrazioak aberasteko baino ez zituzten bildu.

Agureei entzundako istorio odoltsu eta izugarriek erakarri egingo dituzte kronistak, ikararekin batera zirrara ere sortuz. Hizkuntza zaharraren misterioek eta santuen leiendek ere txunditzen dituzten neurri berean. Heriotzaren inguruko errito zaharrak ederki deskribatzen dizkigu *Kronikak*, bitxiak, txundigarriak gertatzen baitira oso ikuspegi kristautik, batez ere, hildakoen gorazarre egitea bertso edo eresien bitartez.

Garibayk ere modu beretsuan eraiki zituen bandoen inguruko narrazioak eresiei toki berezia eskainiz. Baina hizkuntza ez zen historialarien helburua,

horregatik are eskertzeagoak dira kontakizun historikoetan utzi dizkiguten lekukotasun linguistiko eta literarioak, bertzenaz galduak genituzke ziurrenik.

f) “cantar de istoria verdadera y memorable ...”

Euskal hizkuntza eta literaturaren ikuspegitik *Kronikak* utzitako ondarea txikia da kantitatean (133 berso 12 kantatan banatuak, 20 lerro eskasetan bil daitezkeen 2 prosazko testu, 8 esaera, 26 esaldi, 156 hitzeko hiztegiño bat, 67 hitz solte, 68 euskal izen eta goitizen, 171 izenen azalpen etimologikoak), baina handia garrantzian, euskara zaharrak idatzirik utzitako lekukotasunetan lehenetakoak baitira.

Hizkuntza ondare honen azterketa “Canto de Lelo” gaztelaniazko izenaz ezagun egin zen piezarekin hasi dugu. Hasteko, ongi finkatu nahi izan dugu berez bi pieza ezberdinez ari garela, Leloren Kantua eta Kantabriaren Kantua, eta komeni dela ongi bereiztea. Segidan, 1812an Humboldt-ek ezagutzera eman zuenetik argitaratu diren artikulu eta lanak aztertu ditugu, batek eta bestek esandakoak bilduz eta eztabaidaren egoera azalduz. Idazle asko erakarri ditu euskaldunen eta erromatarren arteko gudua hizpide duen kantua eta bere leloaren inguruko eztabaidak, baina aspaldian utzi zion ikerlarien mintzagai izateari. Baroja (1944) eta Garate (1950) izango ziren gaiaz idazten azkenak, Mitxelenak (1986) bere iritzi zuhurrak argitaratu ez balitu. Konklusio moduan, berretsi egin dugu Leloren Kantua, berez, euskal kantu herrikoien tradizioan tinko txertatutako errepika dela, esanahirik gabea, kantuari sarrera emateko erabili ohi den *lalala* moduko *ritornelle* bat. Ikuspegi literariotik, ordea, interesgarria da Cachopinek lelo honi eman zion interpretazioa aztertzea.

Kantabriarren Kantua, bestalde, poema apokrifoa dela berretsirik, nahitaezkoa genuen ahal bezain sakonki aztertzea. Lehenik, eskuizkribuaren irakurketaz eta interpretazioaz erabaki gabe zeuden kontuak argitzen saiatu gara. Pausu garrantzitsuak eman ditugu zentzu horretan, baina oraindik ere ilunpetan geratu zaizkigu zenbait hitzen ulermena eta hainbat hitzen edota esaldiren irakurketa, dugun kopia bakarraren egoera tamalgarriak eragotzia. Kantua egilea zein ote zen ere ezin izan dugu erabat argitu, baina aski ziur jo daiteke García Fernández Cachopin doktorea egilezat. Guztiarekin ere, euskal

literaturaren antologietan agertu beharreko poema dela deritzogu, batez ere gure pentsamenduaren bilakaeraren erakusgarri moduan duen balioagatik.

g) “... que llamaban hereçia ...”

Ibarguen-Cachopín Kronikan aurkitu diren eresi eta kantuak, ahozko tradizioetik jasoak, atal berri batean berreditatzea ere gure lehentasunetako bat izan da. Cachopínek berak esanda dakigu asko zirela herriak ahoz aho zerabiltzan kantak pasadizo gogoangarrien oroitza eginez, eta pena dugu berak hain gutxi jaso izana kronikoi luze honetan. Baina pozik egoteko arrazoiak ere baditugu, izan ere, *Kronikaren* paperetan egin dugun irakurketa pausatu eta nekagaitzean bi kantu ezezagun aurkitzea izan dugu sari.

Errodrigo Zaratekoren eresiaren aurkikuntzak pozez eta harriduraz bete gintuen, ezagun diren kanta zaharren artean luzeenetakoa baita, eta, ikuspegi literariotik dituen balioez gain, garrantzizkoak dira bere lekukotasunak euskara zaharraren ezagutzarako, bereziki mendebaldeko euskara zaharraren berreraiketarako. Horrezaz gain, Arrasateko erreketaren inguruko kanten katalogoan beste kantu ezezagun bat gehitu dugu, *Kronikan* aurkitu duguna: Butroeko Andrearen Eresiaren bertsio osotua. Hain zuzen ere, Arrasateko erreketaren inguruko kanta horiek sakonki aztertzen saiatu gara, orain arte gaiari buruz esandakoa bilduz eta geure aldetik aportazio berriak eginez kantuon hitzen irakurketan eta interpretazioan zeuden arazoak argitze aldera. Xede berberarekin aztertu ditugu beste kantuak ere: Salinasko Kontearen kantua, Sorabillako hidalgoena, jaun Diaoz Harokoaren eresia eta Marti Juanes Labierukoaren hilartitza.

h) “scriptas (...) en cueros de animales curados”

Oso ezagunak bilakatu dira, halaber, Andramendiko eskriturak deritzen prosazko bi testuak. García Fernandez Cachopín doktoreak XVI. mendearen erdialdean burutu zuen testu apokrifo hauen faltsutzea, III. edo V. mendean sortuak zirela esanda. Andramendiko eskriturei zahar itxura ematen egindako ahaleginek euren izaera apokrifoa ageri-agerian utzi bazuten ere, ezin zaie testuoi berezkoa duten balioa ukatu. Alde batetik, XVI. mendekoak izanik, euskal testu zaharren multzoan irabazia dute lehen lerroko postua, antzinatasunagatik ez ezik, baita

hizkuntzalaritzari eskaintzen dizkioten materialen kalitateagatik. Beste aldetik, ikuspegi literariotik ere badute zer aztertua.

Eskrituren testua ematean transkripzio paleografikora hurbiltzen saiatu gara, Iburguenek emandakoa fidelki jasotzen, berak egindako zuzenketak ere aintzakotzat harturik. Bidegain eta Mitxelenaren oharrak kontuan izanda, testuok ulermen mailan izan ditzaketen arazoak argitzen saiatu gara eta eskaintzen dituen ezaugarri linguistikoak aztertu ditugu.

i) “es bascuence antiguo ...”

Corónica General honetan aurki litezkeen euskarazko materialen bilketa eta azterketan aurrera eginez, atal banatan sailkatu ditugu esaerak, esaldiak eta gaztelaniazko prosan emandako euskal hitz solteak. *Kronikan* bildutako esaera zaharrak genealogista edo heraldistaren ikuspegitik zuketena interesagatik jaso baziren ere, gaur egun duten balio historiko-linguistikoagatik preziatzen ditugu. Balio bera dute, halaber, erromantzez idatzitako prosan zehar, oso noizbehinka, *Kronikaren* egileek erantsitako euskarazko zenbait esaldi edo esamolde, narrazioari bizitasuna eta hurbiltasuna ematearren paratuak. Euskararen lekukotasun hauek, kanta zaharrek eta esaerek bezalaxe, herritarren memoria kolektibotik jasoak dirudite eta ez kronistaren lumatik sortuak. Hortik hizkuntza ikuspegitiko interesa.

Euskara zaharraren lexikoan kontuan izatekoak dira 1600 urtea baino beranduxeago *Kronikaren* paperen artean sartutako hiztegi laburra eta egileek gaztelaniazko kontakizunak aberastu edota zehaztu asmoz erabilitako euskal hitzak. Lekukotasun hauek, bere xumean, interesgarri gertatzen dira arrazoi ezberdinengatik. Alde batetik, zenbait hitzek euskal testu idatzietan lehenbiziko agerraldia dute kronika honetan. Bestetik, hitz batzuk hapax-ak dira, hau da, Iburguen eta Cachopinek baino ez dituzte orainokoa erabili.

Baina *Kronikatik* jasotako aztergaien artean etimologiak nabarmendu nahi izan ditugu kronika honetan duten betekizun berezi eta garrantzitsuagatik. Gai honetan den tradizioa bibliografikoa aztertuta, harrigarri gertatu zaigu ikustea zein zale izan diren historiazale eta ikerlariak orohar etimologiak bururatzen, eta zein zientzia maila eskasa erdietsi dugun arlo honetan. Mania etimologizatzailea

gurean morbosoa eta epidemikoa samarra izan da eta hitzen jatorriaz interpretazio okerrak etengabe egin izan dira. Iburguen eta Cachopín tradizio horretako aitzindari izan litezke eta beraien materiala aztertzea ezinbesteko ikusten dugu hizkuntzalaritzaren eremuan gaia sakon aztertu nahi duen ororentzat.

XVI. mendeko etimologiak egile klasiko grekoen oinarri metodologikoak hartzen ditu aintzat, VII. mendean San Isidorok garatutakoak alegia. Euskal etimologistek fede handiz jarraitu zitzaizkion metodo isidoriano honi, hasi Garibay-tik eta XX. mendera bertara arte. Hitzen eta izenen arteko antz formalak txunditu eta gidatu egiten zituzten askotan. Doinuen ahalmen ebokatzailiaz liluraturik, forma eta esanahiaren arteko erlazioari fede handia zioten. Baina, oroz gain, etimologiazaleek hizkuntzaz gaindi dituzten helburuek harrapatuak dihardute langintza honetan.

Etimologiaren bitartez, zeharka bada ere, egileek hizkuntzaren inguruko ezagutza interesgarriak islatzen dituzte. Denboran zehar hizkuntzak izandako aldaketan jabe dira, eta batzuetan fonologia, morfologia eta lexiko ezaugarrien berri ematen zaigu era harrigarrian. Gaur egun etimologiak hizkuntzalaritzaren tresnatzat baditugu ere, hizkuntzaren historia berreraikitzeke balio diezagukena, orainsu arte, historia berreraikitzeke tresna izan dira batik bat.

j) “... y no corruito como agora”

Gure doktore tesi zabal honi amaiera emateko *Iburguen-Cachopín Kronikak* eman dizkigun euskarazko materialen hizkera aztertu nahi izan dugu ikuspegi dialektologikotik zein historikotik. Hasteko, *Kronikan* ageri den lexikoa bildu dugu eta hiztegi formatoan azalarazi, beste autore batzuekin alderatu ahal izateko eta hitzari bere tokia emateko euskararen historian, kontuan izanda *Kronika* ez dela ikuspegi historiografikotik, ez estilistikotik, batasunik gordetzen duen lana, iturri askotatik jasotako materialak biltzen baitira bertan, eta tentuz diskriminatu ditugu testuinguru bateko eta besteko materialak.

Morfosintaxia aztertzean euskara zaharraren eta, batez ere, mendebaldeko hizkera zaharraren ezaugarri behinenak zehazten lagun dezaketen lekukotasunak erakutsi ditugu, bereziki deklinabideari eta aditzari dagokionean.

*Kronikako hitz eta hizkuntz formak aztertzean ikusmiran izan ditugu beti garaiko euskararen iturri esanguratsuenak, besteak beste, kroniketarik jasotako kanta eta eresi zaharrak, *Refranes y Sentencias*-ko errefrauek, eta bereziki, Lazarragaren eskuizkribu aurkitu berria. Denak antzinako euskararen lekuko. Lexikoaren eta morfosintaxiaren ezaugarriak esanguratsuenak hartuta eta iturri ezberdinak alderatuta, bizkaiera zaharra hobeto ezagutzeko aukera eskaini dugu, gu bezala irakurlea ere ohar dadin mendebaldeko euskalkien arteko mugen ahulaz.*

Ibarguen-Cachopín Kronika ikerlarien eskura jartzea lortu dugu, ahal izan dugun ongien bildurik, ordenaturik eta transkribaturik. Gure ustetan lan-ildo interesgarriak ireki ditzakete lan honetan bildutako materialek, edota erreferentzia interesgarriak izan daitezke jadanik irekirik direnetan, zientzia-eremu anitzetan, hala nola Historiografian, Historian, Hizkuntzalaritzan, Etnografian eta abarretan. Gure lanak ikerlariren batek esku artean duenean izango du zentzua, eta bere balioa unibertsitateko liburutegietako apaletan jasotako hauts kantitatearen alderantzizko proportzioan neurtuko da.

IV

Bibliografia

1. IC KRONIKARI BURUZKOA.

- Allende Salazar, A., 1887, *Biblioteca del vascófilo*, Madrid,; berrarg. faksimila, Gerardo Uña editore, Leioa, 1987, 354gn.
- _____, 1878, “Caracter general de la literatura vasca”, *Euskalerraren alde 5* (1915), 457-462.
- Aparisi-Serres, A., 1927, *A propos d’une vieille strophe basque: La rituernelle de Lelo*, Dax.
- Arana, V. de, 1882, “La leyenda de Lelo”, *Los últimos Iberos: Leyendas de Euskaria*, Madril, Fernando Fé-ren liburutegia; berrarg., *La leyenda de Lelo*, Roger editor, Donostia, 2000.
- Araquistain, J., 1866, *Tradiciones Vasco-Cántabras*, Tolosa.
- _____, 1870, *El Basa-jaun de Etumeta*, Tolosa, 1882.
- Areitio, D. de, 1920, “La Crónica de Iburgüen: Curioso descubrimiento”, *RIEB* 11, 218-220.
- Arriaga, E. de, 1918, *Lekobide*, Grijelmo alargun-semeak, Abando.
- Arriolabengoa, J., 1996, “Erdi Aroko kanta ezezagunak Iburguen-Cachopin kronikan”, *ASJU XXX-1*, Donostia, 71-98.
- Azkue, R. M. de, 1926, *Morfología Vasca*, Editorial Vasca, Bilbo, 689.
- Azpiazu, J.A., “Cantos Vascongados”, Francisco Asenjo Barbieri, *Documentos sobre música española (Legado Barbieri)*, Ed. De E. Casares, V2, Fundación Banco Exterior, 1988, 247-263.
- Baroja, P., 1926, “Sobre el Canto de Lelo: Observaciones acerca de la primera estrofa” *El Pueblo Vasco*, urriaren 23an, Donostia (baita *Euzkadi*-n ere, urriaren 24an).
- _____, 1926, “Alrededor del Canto de Lelo: Contestación a Urquijo”, *El Pueblo Vasco*, urriaren 26an, Donostia (27an *Euzkadi*-n).
- Basaldua, F. de, 1902, *Canto de Elo*, Buenos Aires.
- Bidegain, M., 1967, “Textos vascos antiguos: crónica”, *ASJU*, I, 179-195.
- _____, eta Michelena, L., 1954, “Las escrituras apócrifas de Andramendi”, *BAP* X (1954) 171-190 (orain *SHLV*: 838-850).
- Bladé, J.F., 1866, *Disertation sur les chants heröiques des basques*, Paris.
- _____, 1869, *Étude sur les origines des basques*, Paris, 445-451 eta 459-464.

- Capistou, M.L., 1877, *Guide du voyageur dans la province basque de Guipúzcoa (Espagne) avec carte et vocabulaire franco-basque*, Baiona.
- Caro Baroja, J., 1944, “La significación del llamado Canto de Lelo”, *Algunos mitos españoles y otros ensayos*, Madril, 93-118 oo.
- Dodgson, E. S., 1898, *Leloa*, F. Elosu liburugilearen etxean, Durango.
- _____, 1900, “The oldest Basque song”, *Notes and Queris*, London.
- Echeverría, L., 1926, “El canto de Lelo, Adonis y los cantos fúnebres”, *El Diario Vasco*, urriaren 29an, Donostia.
- Garate, J., 1933-34, “Correcciones y adicciones a la 1ª sección del segundo volumen de la obra intitulada el *Mithridates* sobre la lengua cantábrica o vasca por Guillermo de Humboldt”, *RIEB* 24. 460-487; 25. 87-126 (ikus Humboldt 1817).
- _____, 1935, “El Canto de Lelo”, *RIEB* 26 (1935), 640-645.
- _____, 1950, Lelo, un difundido estribillo, *BAP* 6 (1950), 131-149.
- Gorostiaga, J., 1952, *Epica y lirica vizcaína antigua*, Bilbo, 70-79, 81-93.
- Goutman, R., 1910, “Lelo”, *RIEB* IV, 305-318.
- Guerra, J. C., 1909, “Ilustraciones genealógicas de Esteban de Garibay”, *RIEB* 3, 119.
- _____, 1921, “Viejos textos del idioma. Cantares antiguos del euskera”, *Euskalerraren Alde XI*, Donostia, 217-261, 416-419.
- _____, 1922, “Viejos textos del idioma. Cantares antiguos del euskera”, *Euskalerraren Alde XII*, Donostia, 64-76, 128-139, 166- 172, 208-216, 246-249, 287-293.
- _____, 1923, “Viejos textos del idioma. Cantares antiguos del euskera”, *Euskalerraren Alde XIII*, Donostia, 455-457.
- Humboldt, G., 1817, “Berichtigungen und Zusätze zum ersten Abschnitte des zweiten Bandes des *Mithridates* über die Cantabrische oder Baskische Sprache”, *Mithridates* IV, Berlin, 277-360 (gaztelerazko itzulpena: ikus J. Garate 1933-34).
- Iturriza y Zabala, J. R. de, 1793, *Historia General de Vizcaya*, A. Rodriguez Herrerok osotu eta editatua, Bilbo, 1967 (I tomoa: 6, 58, 87, 103-105, 109,

- 114, 121, 122, 129, 130, 132, 149, 152, 181, 186, 191, 192, 210, 211, 235, 241, 257, 261, 262, 281-284, 286, 287, 294, 307, 372, 385; II tomoa: 24).
- _____, 1780, *Grandezas y excelencias de la casa vizcaína, escritas por don Juan Ramón de Iturriza el año de 1780, copiadas en el año 1860*. Eskuizkribua, BFA, L-24.
- _____, 1783, *Antigüedades de Vizcaya*, Eskuizkribua BFA-n.
- Labayru Goicoechea, E., 1895-1904, *Historia general de Vizcaya*, GEPV, 1971, Bilbo.
- Lezama-Leguizamón, L. de, 1921, *Informe acerca de la obra manuscrita conocida con el nombre de Crónica de Ibargüen*, Bilbo.
